Heldu bezain laister, oroit-harria ez zela ezarria ikusi genuen. Eta ikusten zenez, asmo haundirik ere ez. Alkatea, guk oroit-harria ezarri nahi genuen etxeko nagusia da, eta berak ekarrarazi zuen argina.

Erdizkako lana bakarrik egin zuen gu han egon ginen denboran. Santa Fe izeneko elizan genuen omenaldiaren bigarren partea, eta argazki batzu atera ondoan abiatu ginen Santa Fe aldera.

Jende multzo bat bazen han inguruko herrietatik etorria, eta Juan Apecechea euskaltzain urgazlea ere, Iruñetik etorria. Eguraldi gozagaitza genuen

euri eta haize bortitzarekin. Marzelino Garde, Adoaingo erretorea ez zitzaigun agurtzera ere agertu.

Hitzaldiak

Santa Fe izeneko elizan meza eman genuen lehenik, bertan ginen apaizetariko bost aldarean ginela.

Elizkizuna amaitu ondoan, eliza barnean egin zen jende aurreko omenaldia. Felix San Martin, Eparoz-ko erretoreak sarrera emanik, J. M. Satrustegi mintzatu zen lehenik. Agurraren ondotik, Euskaltzindiaren eginkizunen berri eman zien jendeei. Ehun urtez euskarak Nafarroan egin duen atzerakada aipatu zuen gero. Adoaingo Esteban euskaraz mintzo zen, eta bertako jendeek ez dute uste lurralde harek euskararekin zer-ikusi haundirik baduenik. Kaputxinoek gerra aurrean egin zuten lana gogora ekarri zuen gero, esker ona agertuz. Lurralde haietan erdi bazterturik bizi diren jendeei etorkizun oparoa opatu zien bukatzeko.

Juan San Martin ezagutua da lurralde hartan. Zokorik baztertuena nun ote zegoen bilan ibili ondoan aukeratu omen zuten Urraul bailara. Begi ona izan zuten, noski. Bertakoekin izandako lehen harremanak aipatu ondoan, han egindako lanaren laburpena eman zuen, euskal kutsuko berriak azpimarratuz. Bertako euskara ez da, nunbait, hain galdu zaharra, izen eta abizenekin jasotako jendeek zioetenez. Arrera ona egin zietela eta erraztasun guziak izan omen zituztela aitortu zien eskerrak emanez.

Azkenekotz, Ancin aita kaputxinoak hartu zuen hitza. Zenbat eratako omenaldiak egin zaizkion Adoaingo kaputxinoari, esan zuen lehenik. Erromako arazoa zertan den agertu zuen gero, eta bat-bateko hitzaldi informala zela berea esanez, han hemenkako gauzetan jardun zuen.

Lokatzetan parrastan sartuz eta hotza hezurretan genuela amaitu genuen, gauaz, Adoaingo Esteban agurgarriaren omenaldia. Bidean ez genuen, beste alde, ostatu bat irekirik aurkitu eta afaldu gabe sartu ginen Urdiainen.

Ongi amaitua, ondo konda!

SOBRE EL EUSKARA DE URRAUL ALTO Y EL VENERABLE ESTEBAN DE ADOAIN*

Santa Fe, Urraul Alto, 11-X-1980

Juan San Martin

Señoras y señores, habitantes de éste admirable valle y visitantes, mis saludos a todos por su asistencia para homenajear al más ilustre de los hijos que ha salido de estos lares:

Hace quince años, un día de verano, aparecí aquí en compañía de mi entrañable amigo Luis Pedro Peña Santiago, sin conocer a nadie y dispuesto a quedarme ocho días consecutivos para realizar un estudio etnográfico. Elegimos este valle por considerar entre los casi desconocidos de los que el país les tenía olvidados.

El alcalde de Irurozqui, y el párroco del valle, fueron nuestros primeros contactos para informarles de nuestros propósitos. Y a falta de hoteles, albergues u otros establecimientos por el estilo, la familia de la casa Calvo de Epároz nos ofreció su hogar. Esta hospitalidad y la colaboración de don Félix San Martín fueron fundamentales para el desarrollo de nuestra labor, y sé que nunca les podremos agradecerles suficientemente.

Recorrimos el valle, pueblo por pueblo, aldea por aldea, tanto los poblados como los despoblados, por caminos y *cerrendas*; como dos peregrinos cuyo único objetivo era rellenar un cuestionario. En cada puerta que tocamos no nos faltó una cara risueña y un hogar acogedor; en las mesas de vuestras casas compartimos los alimentos y hasta algún *companaje* del *zakuto* del pastor. Nos colmasteis con toda clase de atenciones. Y ¿qué menos podíamos hacer que dedicar la publicación de nuestro trabajo a los habitantes del valle?

Si aquel trabajo no cubrió todos nuestros deseos, por lo menos dejamos constancia de las formas de vida tradicionales del valle. Y en este reencuentro quiero expresaros de nuevo mi agradecimiento.

Pero vayamos a lo que hoy nos une aquí, el centenario del fallecimiento del personaje más ilustre que ha salido de este valle en tiempos históricos, el

---

(*) Disertación leída por Juan San Martín el día 11 de octubre de 1980 en el Santuario de Santa Fe (Urraul alto - Navarra) durante el acto de homenaje al P. Esteban de Andoáin, con motivo del centenario de su fallecimiento.

venerable P. Esteban de Andoáin, que justamente hoy se cumplen los 172 años de su fecha de nacimiento. De su vida y de su obra les informará a continuación con más autoridad que yo el R. P. José Ancín, vicepostulador de la causa de beatificación de nuestro homenajeado. Por mi parte, me limitaré a aportarles algunos datos sobre el vascuence hablado en este valle y, por supuesto, sobre la aportación del venerable Esteban de Adoáin a dicho idioma.

Por los estudios de nuestro académico don Angel de Irigaray se deduce que en 1778 todo el valle de Urraul alto era vascoparlante. Así lo pudimos comprobar en nuestro referido estudio, con el irrefutable testimonio de que en 1720 a los habitantes del valle había que explicarles en vascuence el santo Evangelio. Así es como reza en el *Libro de cuentas o primiciales de la parroquial de Irurozqui:* "Y declaramos que el dho abad y sus subcesores cumplan con la obligación de explicar el Santo Evangelio, leído cada vez un capítulo correspondiente al día intermisarum *solemnia* por el catecismo tomado del padre Eusebio de Nieremberg explicado aquel brevemente en lengua bascongada" (Fol. 15, mandato de 1720). Esto mismo se repite en Jacoisti, y probablemente en las demas parroquias del valle.

En el mapa del Príncipe L. L. Bonaparte, impreso en 1863, se considera a Urraul alto como zona bilingüe, salvo la parte septentrional que entraba en área euskaldun. Bonaparte, en su mapa lingüístico, delimitó dividiendo a *Pardix-herria* desde Larequi a Ongoz, incluyendo en zona de habla vasca, además de estos dos pueblos a Sastoya y entrando encuña hasta Adoáin, abarcando a Arangozqui, Aristu, Artanga y Elcoaz. Pero yo tengo mis dudas al respecto. En nuestro estudio etnográfico pudimos demostrar que a comienzos de nuestro siglo aún vivía en Ozcoidi una persona que hablaba vascuence. Además de otros datos que luego veremos, en Irurozqui recogimos el testimonio de otra persona fallecida en 1931 que recordaba que durante su infancia se hablaba vascuence.

Lo más importante de Luis Luciano Bonaparte fue su clasificación en el marco dialectal, donde Urraul alto viene a ocupar el extremo oriental del altonavarro meridional, en su punto de fricción con el aezcoano por el norte y el salacenco por el este. Tanto en Aezcoa y las Abaurreas como en Salazar, a los habitantes de Urraul alto les han llamado *pardixes* y al valle *Pardix-herria*, no en los valles del sur, y esto indica que probablemente era por su diferencia dialectal.

La gran expansión del altonavarro meridional nos indica su importancia en el pasado. El P. Jorge de Riezu nos describió en una conferencia como "un amplio cuadrilátero, con los vértices en Roncesvalles, Yábar, Garinoain y Adoáin".

Los datos de muestreo que recogimos nos aseguran que hace cien años aún había vascoparlantes en toda la geografía del valle: Para Antonio Ayechu, natural y vecino de Elcóaz, que murió en 1916 con más de 80 años, el


ABAURREA ALTA
JAURRIETA
ESPARZA
GALLUES
OROZ-BETELU
LONGUIDA
NAVASCÜES
URRAUL BAJO
ROMANZADO
SIERRA DE ARETA
ARISTU
ELCOAZ
ARANGOZQUI
AYECHU
JACOISTI
ARTANGA
ONGOZ
RIO ARETA
RIO CHAUTOYA
SASTOYA
LARZQUI
EZCANIZ
SANTA FE
EPAROZ
AIZCURGUI
IRUROZQUI
OZCOIDI
IMIRIZALDU
ABALZA
GUINTANO
SARRATE
RIO ADOAIN
ADOAIN
CERRENCANO
CERRENCANO BAJO
SANROAIN
NARDUES ANDURRA
N.
Término de
URRAUL ALTO
(Navarra)
Signos convencionales
Carretera
Camino
Cumbre
Rio
Término Municipal

vascuence era el lenguaje común para dirigirse a su esposa Francisca Miquelena, natural de Jaurrieta.

En el mismo Elcóaz recuerdan que Fermín Errea, de la casa Juanclaman, que murió a los 80 años en 1945, también hablaba euskara, y que José Villanueva, de la casa Alemán, que murió a los 90 años en 1950, también sabía algo de vascuence. Se conservan otros recuerdos como el de José Melero Vivente, de la casa Bazterra de Ongoz, que falleció en 1935 a la edad de 80 años, quien afirmaba que sus padres sólo sabían vascuence.

Pero vayamos más al sur del valle, fuera del área de delimitación de zona euskaldun marcada por el príncipe L. L. Bonaparte en su mapa: Juan Mateo, de la casa Goñi de Irurozqui, nos contó que su madre María Huarte, que murió a los 80 años en 1931, decía que en su niñez sólo se hablaba vascuence en Irurozqui. Por su parte, Ramón Indurain de Ozcoidi nos contó que su abuela Dominica Echarte, del mismo pueblo, que falleció hacia 1935, hablaba vascuence con los que bajaban de la montaña, y decía que en Ozcoidi, durante su infancia, el vascuence era la lengua habitual.

Estos testimonios nos confirman que al comienzo de este siglo aún existían numerosos ancianos que hablaban la lengua vasca y que en época del príncipe Bonaparte no solamente era euskaldun la parte septentrional del valle, sino todo su territorio.

Aquel Pedro Francisco Marcuello Zabalza, nacido en la casa Eneko de Adoáin, hoy hace 172 años, que hasta cumplir los 20 años vivió en su pueblo natal dedicándose al pastoreo y a las labores del campo, es muy natural que supiera perfectamente el vascuence y que no lo olvidaría en el resto de su vida.

Ingresó en la orden capuchina y partió a las misiones a tierras americanas bajo el nombre de Esteban de Adoáin. Tenían entonces 34 años. Marchó con su ánimo *calda*, como diría uno de Urraul, y tras treinta años de predicar el Evangelio en seis países diferentes, regresó *biskorriko* y con *biarra*. Aquel hombre animoso y despierto era imposible que olvidara su lengua materna, que le fue de uso normal hasta la edad de 20 años. Hay un testimonio muy curioso de cuando se propuso regresar de América a Francia con el objeto de planificar la restauración de su orden por estas tierras diezmadas por guerras y revoluciones. El sabía más que muchos políticos de entonces y de ahora sobre los sentimientos de un pueblo y escribió en su proposición de regreso al país: "Yo conozco bien aquel país; allí se habla la lengua vizcaína o vascongada, y ninguno mejor que los navarros puede predicar y confesar en dicho país". Así fue en efecto. Corría el año 1873 cuando de Toulouse pasó a instalar su sede en Bayona, donde se puso a traducir varios de sus sermones al euskara para predicar, aparte de la catedral de Boyona, en los pueblos de Hazparne (Hasparren), Urruña (Urrugne), Arruntza (Arrauntz), Biriatu (Biriatou), Kanbo (Cambo-les-Bains), Larresoro (Larressore), Itsasu (Itxassou),

Gerezieta (Gréciette), Lekuine (Bonloc), Mugerre (Mouguerre), Bera (Vera), Zugarramurdi, Urdazubi (Urdax), etc.

Para perfeccionarse hacia un euskara común utilizó la gramática *El imposible vencido* y el *Diccionario trilingüe* de Larramendi, que disponía en copias manuscritas del P. Fr. Pablo de Estella (1758-1824) y que pasaron al uso de Esteban de Adoáin. Y en carta dirigida a su hermano Martín, el 4 de agosto de 1874, se lee: "Estoy preparándome para algunas misiones que se van a hacer en vascuence en los pueblos de Urdax y Zugarramurdi".

En nuestro trabajo etnográfico de Urraul alto nos lamentábamos porque se desconocía el paradero de los sermones manuscritos del venerable Esteban de Adoáin. Pero, afortunadamente, a posteriori fueron localizados por el Ilmo. Sr. D. Pedro María Zabalza en el Archivo de la Sagrada Congregación para las Causas de los Santos en la Curia de Roma y han sido publicados en la revista *Fontes Linguae Vasconum* (1975 y 1978) de la Institución Príncipe de Viana; motivo que me animó a ordenar las fichas de los vocablos añadidos por el padre Esteban de Adóain al mencionado manuscrito de su uso, procedente del P. Pablo de Estella. Pues disponía en varias cuartillas mecanografidas que logré a través de mi buen amigo y miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia— don Pedro Díez de Ulzurrun, médico de Pamplona, y que en su día utilicé para el aludido trabajo etnográfico. 482 vocablos en total, que el P. Adoáin amplió con su puño y letra.

La mayoría de los vocablos que aporta proceden de la Baja-navarra y de Lapurdi. Entre los que me llamaron la atención había *Baldokiak* (= sienes), que se omitía en el gran *Diccionario Vasco-Español-Francés* de Azkue y sólo había oído a mi madre vizcaína como *Lokiak*.

Algunos de estos vocablos adicionales de Esteban de Adoáin, aunque se haya perdido el vascuence en el valle de Urraul alto, los habitantes de hoy podrán identificar porque se mantienen aún en su uso, tales como: *Bearreguin* (del que queda su adjetivo *Biarra*), *Burrunzalia* (en *Burruntxal*), *Sabai* o *Sabayado, Kolko, Gorostia, Urtayia* (en *Urtado*), etc.

Biarra, se denomina aún en este valle a los conocimientos adquiridos a través de las experiencias de la vida. *Bearregin* recoge el propio Padre Esteban para designar el trabajo, o para afanarse en cultivar, cuyo sentido supo muy bien aplicarse y arrastrar a otros compañeros al *auzalan*; con la sencillez y humildad que le caracterizó desde su infancia, con el gesto del *rapatán* que sabe afrontar el *usin* con serenidad y entereza. Porque *bearregin* fue para él además de necesidad un deber. En su *biarra* disponía de mil vivencias para afanarse en el cultivo de la fe; y, sus efectos, a cien años de su fallecimiento están presentes hoy entre nosotros.

BIBLIOGRAFIA

APAT-ECHEBARNE (A. IRIGARAY), *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra.* Pamplona, 1974.

ARBEIZA, TEÓFILO DE, *Esteban de Adoáin.* Pamplona, 1969.

Archivo de la Sagrada Congregación para las Causas de los Santos, Legajo: *Escritos del Venerable Siervo de Dios P. Esteban de Adoáin.* Curia de Roma.

AZKUE, RESSURRECCIÓN MARÍA DE, *Diccionario Vasco-Español-Francés.* Bilbao, 1905-6.

BILBAO, JON, *Eusko Bibliographia,* vol. I, p. 30, y vol. VIII, p. 389. San Sebastián, 1970 y 1978. (En el volumen primero, por error, la obra de Ciaúrriz se atribuye a Erice).

BONAPARTE, PRÍNCIPE LOUIS LUCIEN, *Cartes des sept provinces basques montrant la délimitation actualle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés* (Mapa, una hoja de 1 m. 17 cm. por 99 cm.). Londres, 1863.
Le verbe basque en tableaux accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuzcoan, le biscaíen, le haut-navarrais septentrional, et haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leur sous-dialectes et de leur variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne dans cinq excursions linguistiques faites dans les annés 1856, 1866, 1867, 1869. Londres, 1869.

CIAÚRRIZ, ILDEFONSO DE, *Vida del Siervo de Dios P. Fr. Esteban de Adoáin, capuchino, misionero apostólico en América y España.* Barcelona, 1913.

CÓRDOBA, GONZALO DE, *Vida del V.P. Esteban de Adoáin.* Sevilla, 1942.

ESTELLA, P. GUMERSINDO DE, *Historia y empresas apostólicas del Siervo de Dios P. Esteban de Adoáin.* Pamplona, 1944.
El Padre Esteban de Adoáin. Sucesos extraordinarios de su vida. Pamplona, 1926.
Lo portentoso del P. Esteban de Adoáin. Pamplona, 1950.

IRIARTE, LÁZARO, *Esteban de Adoáin.* Burlada-Pamplona, 1980.

Intza'r, Dámaso, *Andoain-go Esteban Aita. Misiolari arrigarria* (Arbeizaren liburuxkaren itzulpena). Iruña, 1970.

IRIGARAY, ANGEL, "Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional". *IV Symposium de Prehistoria Peninsular. Proble-*

mas de la prehistoria y etnografía vascas, pp. 261-269. Pamplona, 1966.

Othoizlari, "Aita Extebe Adoain". Rev. *Othoizlari*, núm. 24, pp. 304-307. Belloc. Urt, 1960.

PENA SANTIAGO, LUIS PEDRO y SAN MARTÍN, JUAN, "Estudio etnográfico del valle de Urraul alto". *Munibe*, XVIII, pp. 69-159. San Sebastián, 1966.

RIEZU, P. JORGE DE, "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte". *Príncipe de Viana*, XIX. Pamplona, 1958.

SAN MARTÍN, JUAN, "Vocabulario eúskaro adicional del Padre Esteban de Adoáin". *Fontes Linguae Vasconum*, IX, pp. 271-280. Pamplona, 1977.

SATRÚSTEGUI, JOSÉ MARÍA, "Adoain-go Esteban agurgarriaren esku-iskribu bat". *Fontes Linguae Vasconum*, X, pp. 299-306. Pamplona, 1978.

ZABALZA, PEDRO MARÍA, "Escritos en vascuence del Venerable P. Esteban de Adoáin" (con introducción de V. Galbete). *Fontes Linguae Vasconum*, VII, pp. 249-269. Pamplona, 1975.

MUGAGABEA ETA BESTE ZENBAIT GAUZATXO JUAN TARTASEN "ONTSA HILTZEKO BIDEAN"

Oñatin, 1980, Urtarrilak 24

Patxi Lasa Jauregi

Sarrera

Azken urte hauetan, euskararen batasuna lortzeko 1968an Arantzazun egin zen Euskaltzaindiaren batzar nagusiaren ondoren batez ere, mugagabe deklinabideari berarizko garrantzia eman zaio euskal gramatika eta antzeko beste liburuetan. Hor ditugu lekuko Larresororen *Sustrai Bila* eta L. Villasanteren *La declinación del vasco literario común,* besteen artean.

Esanak esan eta idatziak idatzi gai honi buruz, ba dirudi euskal hizkuntzalariak berak ere ez datozela oso bat mugagabearen erabilkera dela eta; hobeki eta zehatzago esan, mugagabeaz aditza singularrean ala pluralean erabili behar ote den horri buruz, batez ere. Ikusi besterik ez dago L. Mitxelenak dioena: "No creo, pace Txillardegi, que el empleo del verbo en plural con nombre indefinido de *sentido* claramente plural sea debido a la influencia de las lenguas vecinas. Me llevaría lejos razonar mi opinión. En todo caso, no hay nada que se oponga al casticismo de *zenbat urte duzu?* Pero me parece evidentemente más castizo *dituzu*" (1).

Ba dirudi Mitxelenaren ohar hau Txillardegik bere *Oinarri bila* liburuan dioen hau zuzentzeko edo dela: "Hildo beretik, mugagabeak SINGULARRA behar du aditzean beti. Nahiz, kopuruari dagokionez, bi, hiru, mila, asko ala majina bat izan. Zuberoan erregela hau OSOKI betetzen da; besteetan, erdalkeria aurreratu da, ahuldu egin da erregela" (2).

L. Villasantek, bere aldetik, lehen aipaturiko *La declinación del vasco literario común* liburuan, hau dio mugagabeaz doan aditzari buruz: "Si la declinación indefinida no es singular ni plural sino indefinida a secas; si no tiene número fuera de serie, se plantea también el problema de cómo deber ir el

---

(1) Luis VILLASANTE: *La declinación del vasco literario común,* 26. orrialdea, 1. oharra, 1972.

(2) TXILLARDEGI: *Oinarri bila,* 61. orrialdea, 1977.

verbo que concierta con un nombre que está en caso indefinido. Parece que lo más castizo y típico es que dicho verbo vaya en singular" (3).

Zuberoerak ongien gorde duela mugagabearen erabilkera esaten digute Villasante (4) eta Larresorok (5), aditza singularrean erabiltzeari dagokionez, bereziki. Horregatik aukeratu dut J. Tartasen *Ontsa Hiltzeko Bidea.* Berari buruz, hau dio hitzaurrean Andolin Eguzkitza edizio prestatzaileak: "Honako obra honek hiru ezagugarri daduzka guztiz interesgarria bihurtzen dutena, h. d., Zuberoeraz, edo ia Zuberoeraz behintzat, idatzi lehen euskal liburua izatea lehenik..." (6). Tartasek berak hau dio bere liburuaren euskarari dagokionez: "Ene euskara, eta lengajia eztakik aprobatia izanen denéz, bai, ala ez, badu orotarik zerbait, Zuberoak, Basanabarrek, eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro; Aruen egin dut neure pieza pobria, hanko lengajia ezpada aski eder, hanko euskarak, du ogena, eta ez euskaldunak" (7).

* * *

Tartasek mugagabea nola darabilkian aztertzeko, Andolin Eguzkitzak prestatu eta JAKIN argitaletxeak 1975.ean argitaratutako *Ontsa Hiltzeko Bidea,* Juan Tartas, erabili dut.

Mugagabean dauden esaldiak jasotzean ez dut errespetatu Tartasek darabilkian puntuazioa. Arrazoia: esaldi laburrak aldatzerakoan, haren puntuazioak zenbait perpauusen esanahia guztiz ulerkaitz bihurtzen duelako, behinik behin.

Dieresisik ere ez dut jartzen, hain zuzen nire idazmakinak seinale hori ez daukalako.

Zenbait esalditan, bi nahiz mugagabe gehiago daudenean, esaldia behin bakarrik jaso dut eta aurrez antolatutako sail batean sartu: superlatibo, gabe, ezezko esaldietan..., adibidez, lantxo hau alperrik gehiegi ez luzatzearren.

Mugagabearen erabilkeraz gainera, Tartasen beste zenbait bereizgarritxo ere jaso ditut, labur laburki. Esaterako, elatibo edo NONDIK kasuan askoz ere sarriago ikusten den -TARIK erabiliaz. Hau, batik bat, erakusleaz eta pluraleko sustantiboaz agertzen da. Beste begirada bat partizipioen amaierari eman diot, ez bait du gaurregun hain arrunt den -TA, -DA erabiltzen, -IK, -RIK baizik, eta hori beti.

Baita ere jaso ditut zenbait adibide niTAN, zuTAN eta guTAN agertzen direnak, horiek ere nolabait mugagabeko NON kasuaz loturik daudelako.

---

(3) L. VILLASANTE: op. cit., 26-27 orrialdea.
(4) L. VILLASANTE: op. cit., 33 orrialdea.
(5) TXILLARDEGI: op. cit., 61, ss. orrialdeetan.
(6) J. TARTAS: *Ontsa Hiltzeko Bidea,* Jakin, 1975, XVIII.orrialdea.
(7) J. TARTAS: op. cit., 7. orrialdea.

Azkenik, nire lantxo honen ondorio bezala, hau esango nuke: Zuberoera baldin bada mugagabea hobekien darabilkian euskalkia, beste autore batengana jo beharko dela, eta ez Tartasen liburu honetara mugagabeko arau horiek zeintzu eta nola diren ikasteko. Tartasen mugagabe erabilkera ez da finkoa zenbait kasutan, eta bere lana aztertu ondoren, bat lehengo zalantzetan uzten du. Batez ere osagarri zuzen numeral pluralarekin aditza nola erabili behar ote den, singularrean ala pluralean. Tartasengandik hau jakin nahi duenak, nolanahi erabili daitekeela aterako du ondorio bezala.

GABE preposizioaz mugagabearen erabilkera

Jaso ditudan GABE preposiziaz osaturiko 48 esaldietatik zortzi, GABEren aurreko hitza partitiboko -IK, -RIK bukaeraz amaitzen ditu. Beste sei berriz, GABE berari partitiboko amaiera ezarriz: gabeRIK. Eta hogei eta hamar partitiboko seinalerik gabe.

a) Hona hemen lehengokoen zerrenda:

1. Eta herioak bekhatu mortalIK bat ere gabeRIK... lurretik partitzen baitziren (7) (8).

   – Esaldi honetan bi hitzek daramate partitibo marka: GABE berak eta honen aurreko hitzak.

2. BekhatuRIK egin gabe bizirik... fortuna ona ardietz eta irabaz ahal gendezan (36).

3. Baina segurta dadin dudaRIK gabe (88).

4. DudaRIK gabe halako kapitañak amorio eta borondate handi bat erakhusten du (96).

5. Bere amaren birjinitatiari ogenIK deusetan ere egin gabe (98).

   – Gero hobeki ikusiko dugunez, DEUS hitzarekin doana, ia beti, partitiboan erabiltzen du Tartasek. Agian, DEUS hitzak EZEZKO esanahia duelako. Ondorengo esaldian ere berdin gertatzen da.

6. Maitazaliak behar du maitatu gauza maitatia, harganik DEUS honIK esperantza gabeRIK eta harganik DEUS damuRIK ahal dukienaz, beldur gabeRIK (110).

7. Pentsatzeko lekhuRIK ez denboraRIK eman gabe (118).

---

(8) Esaldien ondoko zenbakiak aipaturiko liburuaren orrialdea adierazten du.

– Honelako esaldietan bi arrazoi egon daitezke partitiboa erabiltzeko: ezezko esaldia delako eta GABE ere (nolabait ezeztatzailea) hor dagoelako.

8. Bizi ahal nadin lurrian bekhatuRIK egin gabe (149).

b) Ondoko kasuetan, GABEaz doan hitza, ez da partitiboan jartzen:

1. Hura duzu ene seme haurzurtza, AMA gabe aitaganik sorthia (3).
2. Ezker ez eskuin makurthu gabe (13).
3. Sobera egon enadin zuri erran gabe (13).
4. Hura gabe bertziak oro guti balio (17).
5. Lotzatu ez enuiatu gabe hala egin badezazu (18).
6. Hiltzean denian bekhatia kitatu gabe (19).
7. Fedea obra onak gabe, fede hilla da, hala nola fedea obrak gabe (24).
8. Izena gauza izana gabe eta bere eginbidia gabe ezdeus bat da (24).
9. Eta beldur gabe hartzaz plazer zianian (38).
10. Aita zira haur gabe gertatu (64).
11. Ediren zutiela bekhatu gabe (64).
12. Zeren haien lanpak hilik zaundian, olio gabe, argi gabe (65).
12. Zeren haien lanpak hilik zaundian, olio gabe, argi gabe (65).
13. Justoak ediren ditu grazian, bekhatu gabe (67).
14. Eta bekhatoriak oro reserbu gabe loak hartuko dutiala (69).
15. Ediren baititu espos Jaunak hiltziak bekhatu gabe (69).
16. Plazerak, ohoriak, pena gabe, fazilki kitatzen ditu (76).
17. Arratsian hastiogarri, illunpe, grazia gabe (84).
18. Gizonak Jenkoa gabe eta Jenkoa gizona bage (sic) lan handi hura ezin konplitzen zuten (102).
19. Ezagutu gabe zoin zoin zen, jakin gabe zoin zen Orestes (111).
20. Bera hil gabe plazer ukhen balu (113).
21. Ordu gabe naturak bere korsu eta denbora bete eta konplitu gabe (117).
22. Pentsatu gabe jiten den herio gaixto hartarik (118).

23. Deus ere utzi gabe (122).
24. Haren beldur gabe Jenkoaganat alegeraki joanen zira (126).
25. Ni ezkapa nadin hil gabe (126).
26. Bera jin da nehork manatu gabe (130).
27. Bekhatu mortalez ihesi egin gabe eta haren manu saindiak begiratu gabe (132).
28. Zoin konparazione bage (sic) baita handiago (139).
29. Eta deusetan ere beldur gabe (140).
30. Herioaren beldur gabe justoak bizi direla (140).

– Berariaz jarri ditut zenbait esaldi GABE preposizioa aditzaren laguntzaile dela, eta ez izenaren laguntzaile. Zenbait kasutan, ondoren ikus daitekeenez, aditzaz doan GABE hitzari berari lotzen bait dio Tartasek partitiboko amaiera: gabeRIK.

c) Datozen kasu hauetan, gabeRIK darabilki:

1. Bere zorren ezin pagatuz egonen da Jenkoa Jenko deno, esperantza gabeRIK kanpotik jagoiti ukhanen diala solorririk ez graziarik, zeren haraz geroz ezta redempzionerik (77)
2. Maitazaliak behar du maitatu gauza maitatia, harganik deus honik esperantza gabeRIK eta harganik deus damurik ahaldukienaz, beldur gabeRIK (110).
3. Eta mundiari kasi ezaguterazi gabeRIK (113).
4. Haren orazionia inutila zen behar gaaeRIK egin (127).
5. Gehiago herioaren beldur gebeRIK bizi gintian (147).
6. Eta herioak bekhatu mortalIK bat ere gebeRIK (7).

– Hemen, mortalIK eta gebeRIK, biak amaitzen ditu partitiboan.

d) GABE izenari erantsita:

1. Gauza segura da eta dudaGABIA (32).
2. Sortzen direla orduGABE eta sortzian bere ama hiltzen (117).
3. Tyrano miserikordiaGABE bat iduri da (119).
4. Honen krueltarzunaz eta miserikordiaGABIAZ orhiturik (121).

Partitibo kasua

Ikusten denez, gaur erabiltzen ez diren zenbait kasutan ere Tartasek partitiboa darabilki. Batez ere azpimarratzekoa da zenbat adjketibo jartzen duen kasu horretan: ederrIK, handiRIK, honIK, onIK...

1. Eginen zitu etziren beno handiago eta emanen koroa bat aingutriena bezain ederrIK (4).
2. Geroz eta lehen izan da zure familian personaje handiRIK (5).
3. Deus honIK ene librian ediren badezazu (8)
   – Adibide honetan eta ondorengoan bezala, Tartasek sarri erabiltzen du partitibo kasua DEUS hitzaren ondoren.
4. Ezpada deus honIK (8).
   – Hemen ba dirudi DEUS eta ezezko esaldiak biek behartzen dutela partitiboa erabiltzera.
5. Aletsandre handiak... balaku handiRIK errezibitzen zian bere denboran (15).
6. Nahi dianak fruktu onIK jan eta gozatu (33).
7. BekhatuRIK egin baduzu suge hark deabruak ausikirik (35).
8. Ikhusi ziala gauza ederrIK eta miragarriRIK (53).
9. Esperantza baitut idokiko dugula gauza ederrIK ene onsa hiltzeko bidiaren faboretan (63).
10. Bada bertze jende batzu egiten baituzte obra onIK eta ederrIK (66).
11. Akzidente triste... hark eman zian okasione... penitentzia handiRIK egitera (78).
12. Har dezagun nork gure kurutzia eta gero haren hatzarIK jarraikirik huna segi dezagun (97).

Partitiboa superlatiboekin

Jakina denez, superlatibo konparaketa maila erabiltzean, euskaraz, ia hutsik egin gabe, izenari laguntzen dion adjektiboa, partitiboan jartzen da. Ikus dezagun ondoko adibideetan Tartasek nola erabiltzen duen mugagabea kasu horietan. Hobeki esan: izena partitiboan; adjektiboa, superlatiboan.

a) Ongi erabiliak:

1. Iguzkiak jagoiti lurrian ikhisi dian gizonIK sabantENAK eta subtillENAK erranak dituzu (16).
2. Demoniak dian malhurrIK handiENA grazia galdurik (26).
3. Ediren ahal zian pozoaRIK bortitzENA eta biziENA (34).
4. Orienteko herrian zen jaunIK handiENA, lehENA (45).
5. Orienten zen jaunIK handiENA eta aberatzENA... ikusi zian bere buria orienten zen gizonIK miserablENA eta ezkeleRIK handiENA (45).
6. ZeruRIK gorEN gorENIAN (47).
7. Zure loRIK hobENIAN larrutzen zitu, hiltzen zitu (55).
8. PiezaRIK hobENA baita hiltziaz orhitzia (77).
9. Frantziak egundano ikhusi dian printzeRIK handiENA, hobENA eta maitENA (106).
10. Gizona eta emaztia bere adinIK hobENIAN (117).
11. Eta rezibitzen ahal dian gauzaRIK horriblENA eta kruelENA (127).
12. Jenkoak egiten ahal dian graziaRIK handiENA da (144).
13. Eta pinta bere eskuz ahalIK hobekiENA (164).
14. Mundian zian kreaturaRIK ederrENAZ eta maitENAZ (146).
15. Eta mahatsarnoRIK hobENETIK... edaten zirela (46).

b) Gaizki erabiliak:

1. Ikhusirik Pariseko hirian... lur oroTAKO ederrEN (36).
   – Kasu honetan, superlatiboaren aurreko hitza, ez partitiboan baizik NONGO kasuan jartzen du.
2. Guri representatzeko hamabortz misterio printzipalEN (43).
   – Hemen, berriz, superlatiboaren aurreko hitza NOR kasuan jarri du.
3. Den gogorrENA hantik idokiten du nigar (44).
4. Seme primiaREN eta gehiENAREN etxian... zirela (46).
   – Hemen, "primiaren", nolabait, superlatiboa da, nahiz eta NOREN kasuan egon. Denetan lehenen edo primia dena, guztiz superlati-

boa da. Gainera, "gehienaren" zentzu berean dago. Halere, SEME jartzen du eta ez semeRIK.

5. Erran niro oren onian sorthu ginela, oren hobENIAN hiltzeko (75).

   – OrenIK hobenian jarri beharrez.

6. Gure miseria dela hiltzial orhitzeko bide hobENA (94).

   – BideRIK hobena jarri beharrean.

7. Jaun kapitañ hura dela onEN hobENA, noblEN noblENA, maitagarriEN maitagarriENA eta soldadoa daitekiela gaixtoEN gaixtoENA, desobedientiENA (96).

   – Hemen superlatiboa beste era batetara osatzen du, eta, nire ustetan, ondo osatua. Hitz berbera bi aldiz superlatiboan erabiliz, lehenengoa artikulurik gabe eta bigarrena artikuluaz.

8. OroREN beltzENA, gaixtoENA, terriblENA, herioa da (124).

   – Hemen NOREN kasuan ipintzen du superlatiboaren aurreko hitza. Gehienetan, NON kasuan ikusten dira horrelako superlatiboak, a. b., oroTAN beltzENA, gizonETAN azkarrENA.

Partitiboa konparatiboetan

Tartasek, bere liburuan aurkitu ditudan konparatiboetan, batean ezik, beti partitiboa erabiltzen du. Hona hemen zenbait adibide:

1. Zer da munduan HAIN desarabIK, HAIN deshonestIK, HAIN estranjerIK eta itsusiRIK nola gizon zahar bat (18).

2. Badeia deus ere mundian HAIN sinpleRIK, HAIN flakoRIK eta HAIN fite galtzen denik (84).

3. Lur bada, zer da aphalAGORIK ez mizerabliAGORIK, nola baita gizona? (91).

   – Esaldi honetan, konparatiboaz gain, galdera ere ba dago, beraz, bi arrazoi partitiboa erabiltzeko.

4. Iguzkiak eztu deus ikhusten zeliaren pian HANBAT ederrIK, HANBAT nobleRIK, HANBAT Jenkoa iduriRIK (93).

   – Hemen, berriz, konparatiboaz gain, ezezko esaldia dago. Beraz, berriro, bi arrazoi partitiborako.

5. Zialarik rezebitzen reparazione bat eta satisfakzione bat HAIN han diRIK eta infinitoRIK nola baitzen ofentsa handi (101).

6. Egin bere Aitari reparazione bat ofentsa BEZAIN handiRIK (101).

7. Ezin emaiten zian paguRIK zorra BEZAIN handiRIK (102).

   – Hemen, lehen partitiboa, ezezko esaldia delako da. Bigarrena, konparatiboa delako.

8. Jenko gizon hark egin du mundu orogatik bere Aita eternalari satisfakzione bat HAIN handiRIK eta infinitoRIK nola baitzen ofentsa (102).

9. Badea halako adiskideRIK, HAIN leialIK, honIK eta segurIK? (106).

   – Berriro, esaldi berean, galdera eta konparatiboaz aurkitzen gara. Lehen partitiboa ba dirudi galderarengatik dela, batez ere. Bigarren biak, konparatiboengatik.

10. Nork eztu amiraturen eta ohoraturen bi paganoren artian amorio bat HAIN leialIK eta religiosIK (108).

    – Galderetan ez ezik admirazioeran ere partitiboaren erabilketa aski arrunta da. Bestalde, ez da beti hain erraza bereiztea esaldi bat zer den, batez ere: galdera ala admirazioa. Dena den, esaldi honek bietatik zerbait duela ere, konparatiboa ere ba da behintzat.

11. Baditu bere etsaiak... baina ez HAIN kruelIK eta HAIN maleziosIK (116).

    – Hemen ere ezezko esaldiaren barnean konparatiboa dago.

12. Zeren ezpaitzian hark HANBAT penA eta tribaillu hartzen (94).

    – Arrazoi berdinak zituen esaldi honetan ere partitiboa erabiltzeko: ezezko eta konparatibozkoa izatea. Halere, ez darabilki partitiborik.

13. Bide hobeRIK zer nahi dugu ensa (sic) hiltzeko (82).

    – Hau ere, nolabait, konparatiboa da eta partitiboan egina dago.

14. Eta bertze tropela bat ORAINO handiAGORIK beheiti ifernurat joaiten eta erortzen (6).

15. Eta salbatzeko eztela bide hobeRIK mundian (7).

    – Ezezko esaldia eta konparatibozkoa, biak batean.

16. Rekonpensu handiAGORIK nahi du mundian (7).

17. Onsa hiltzeko bide hobeRIK jagliti·ezirozu ediren (33).

18. Eztela erremedio hobeRIK edi kontrapozoa segurAGORIK (34).

19. Eztute edirenen erremedio hobeRIK (35).

20. Errege Dabidek ezpazian ediren erremedio hobeRIK grazian egliteko (40).

21. Rekonpensu handiAGORIK enuke desiratzen lurrian (147).

    – Azkeneko bost adibide hauetan, ezezko eta konparatibozko arrazoiak.

22. Ene orena eta zuria jin dadinian handiAGORIK ardiaz gindirioila zoin baita gloria eternala (147).

23. Gure bekhatiak liren ordian HAIN gorri, nola eskharlata, eta HAIN beltz nola tindia, HAIN garbi eta xuri gertatzen baitira... nola baita xuri eta garbi bortuko elhurra (21).

    – Hain gorri, hain beltz, hain garbi eta xuri..., nahiz ez partitiboan, bai mugagabean.

24. Onsa hiltzeko non da bide hobeRIK (104).

    –Esaldi hau ere, nolabait, konparatiboa da.

Mugagabea numeralekin

Ondorengo adibideetan, batez ere, numeral pluralarekin Tartasek aditza nola darabilkian ikusiko dugu. BAT zenbakidun esaldirik ez dut jaso, inaeresik ez duelako edo. Adibidez, "Gizon BAT ikusi dut" eta antzekoak. Ondoren, jaso dudan hainbat adibide:

1. Gomendatzen drautzut ene libriaren laur regimendiak (6).

2. Ediren duzu laur kapitulu ene librian (7).

3. Deabruak badizu bi gauza, fedia eta beldurra (28).

   – Esaldi hauetan, beste antzeko askotan bezala, osagarri zuzena numeral pluralean joan arren, aditza singularrean aurkitzen da.

4. Dabid erregiak gure Jenkoa bi okasione handiTAN partikularki ofensatu eta desohoratu ziala (38).

   – HandiTAN, NON kasu mugagabean, zenbakiaz doalako.

5. Eta kolpu batez bi bekhatu handi eta grabe baitzutian kometitu (39).

   – Esaldi honetan, berriz, ZUTIAN aditza pluralean jartzen du, ez ZIAN.

   – Berdin gertatzen da ondorengo adibidean:

6. Egin ZUTIAN zazpi psalme penitenzialak (40).

7. Elizako hirur misterio handiREN ezagutzia (43).

– HandiREN, mugagabean numeralaz doalako.

8. Bere bi begiETAN behera nigarra, bi ithurri hañdiRIK egin ziala (44).

– Esaldi honetan "bi begiETAN" dio, pluralean ezarriz. Mugagabean "bi begiTAN" izanen bait litzateke.

– Bestalde, bigarren zatian, "bi ithurri hañdiRIK" dio, partitiboan, NOR kasuan erabili beharrean edo.

9. Eta zure egunak luzatzen ditut hamabortz urtez (44).

– Hamabortz urteZ, mugagabean, ongi.

10. Jenkoak eman zian gizon hari zazpi seme eta hirur alaba (45).

– "Eman ZIAN... zazpi seme eta hirur alaba". Osagarri zuzena pluralean egon arren, numeralaz doalako, aditza singularrean: eman zian.

11. Eman zeron oraño gure Jenkoak gizon hari zazpimille ardi, hirurmilla kameleon, bortzehun idi pare, bortzehun asto ama (45).

– "Eman ZERON (=ZEION)", singularrean, nahiz osagarri zuzena pluralean aurkitu.

12. Zure bortzehun idipariak eta bortzehun astoak oro... eraman dituzte (45).

– Hemen aditza pluralean: "eraman dituzte", nahiz osagarri zuzena numeralezkoa izan.

13. Zure hirurmilla kamelonak... berriz kanpora eraman eta idoki DITUZTE (46).

– Hemen ere aditza pluralean.

14. Milla mesperexu... egin ZION (46).

– Aditza singularrean.

15. Milla injurio eta milla mesprexu egin ZIAN gizon saindi hari (46).

– Aditza singularrean.

16. Hirur gauza gomendatzen DRAUZIET (51).

– Aditza singularrean.

17. Salbatzeko bi gauza behar da, ez egin bekhaturik eta egin obra onik, bost birjina zuhurrek bi gauza hok bazutien (65).

– "Bi gauza behar da". Numeral pluralaz, aditza singularrean, hemen.

– "Bi gauza hok bazutien". Hemen, kasu berean, aditza pluralean.

18. Ikhusi du bi sagu, bata xuri bertzia beltz (83).
19. Ikhusi du... laur suge handiren buriak (83).
    – Azken bi esaldi hauetan, numeral pluralaz, aditza singularrean.
20. Laure (sic) elementiak hitz bakoitz batez egin ditu (73).
    – Hemen, berriz, aditza pluralean numerala pluralean doalako.
21. Nigar egin zian bi begiETAN behera (94).
    – Hemen ere, 8. adibidean bezala, "bi begiETAN" dio, bi begiTAN esan beharrean, mugagabean.
22. Bi bazterrak batetan bildu eta juntatu ditu (102).
    – Berriro, numeral pluralaz aditza pluralean darabilki.
23. Reparazione hark behar zian bi kondizione (103).
    – Hemen, berriz, singularrean aditza: "Behar ZIAN bi kondizione".
24. Gure Jenkoak kolpu batez erakutsi ditu bere hirur perfekzione handiak (103).
    – "Hirur perfekzione erakutsi DITU", pluralean.
25. Badu gure etsaiak mila artifizio, mila inbenzione, mila finezia (141).
    – "Badu mila...", aditza singularrean.*

Zonbat, zoinbat, zenbat, zenbait

Ondoren, gainean agartzen diren hitz mugagabetzaileez izena nola erabiltzen duen Tartasek ikusiko dugu. Eta hau, batik bat, mugagabea nola darabilkian baino hitzak nola ebakitzen dituen ikusteko. Honela, agerian jartzen da, beste gauzen artean, -A itsatsia zenbait kasutan:

1. Endelgaraziteko zonbat handi den (13).
2. Zonbat eder den erran du (17).
3. Kondenatzen da Mithridates Ponte... zonbat traidore jende gaixtok pozoaturik hil erazi lezaten inbentatu ziala (34).
4. Eta hark herioari zonbat ohorre eta respektu eman dian (42).

---

* *Oharra.*—Ikusten denez, Tartasen lan honetatik ezin erabaki daiteke numeralezko osagarri zuzena plurala denean, aditza singularrean ala pluralean erabili behar denik. Erdietan aditza singularrean eta beste erdietan pluralean bait darabilki.

5. Zonbat on den Jenkoarekin izatia eta zonbat damu den harenganik apart izatia (42).
6. Zoinbat doktor debotek diote zeiñu horien joitia jin dela (43).
7. Sogizu herioaz orhitziak zenbat indar, bothere eta birtute dian (44).
8. Ezpaleza lo hartarik zoinbat aingeruk iratzar propheta Elias (90).
9. Zonbat grazia eta zonbat miserikordia Jenkoak egin dian ene animari (42).
10. Dugun ikhusi gizona zenbat miserable den eta zenbat obligazione dian bere hiltziaz orhitzeko (91).
11. Jenkoaren rebelazionez edo haren manuz, zenbait aingeruz errana (92).
12. Zonbat miserable den San Bernard doktor debotak dio (92).
13. Zugatik zonbat urhatz, zonbat jauzi eta laster egin dian... konsidera ezazu (99).
14. Ezpaitaki nehork ere, zonbat kruel eta sensible den hura soferitzen dianian baizi (127).*

Ezezko esaldietan partitiboa

Jakina denez, ezezko esaldietan objektu zuzena adierazten duen hitza partitiboan jarri ohi da eskuarki. Tartas ere puntu honetan idazle gehienen ildotik eta ohituratik dabil. Baina ez beti, ikusiko dagunez:

1. Baina ezta oraino jeneralIK (4).
2. Ezta oraino hil... lotenant jeneral handi haren memoria (5).
   – "Memoria" dio hemen, eta ez memoriaRIK, partitiboan.
3. Non ezpaita moienIK letra hontan ezar ahal dezadan (5).
4. Ezta hil oraino... jaun handi, kapitain zuhur, korajos haren memoria, akzione ederrIK eta sainduRIK egin du hark ere (5).
   – "Ezta hil haren memoria" dio, memoriaRIK jarri beharrean.
   – Baina bigarren zatian, indeterminazioa adierazteko, ongi darabilki "ederrIK" eta "sainduRIK".

---

* *Oharra.*–Adibide hauetan ikusten denez, Tartasek nahiko nahasi darabilzki ZONBAT, ZOINBAT, ZENBAT eta ZENBAIT.

5. Ezta hil... zure aita eta aita handien memoria (5).

   – Hemen ere berdin.

6. Etzela jagoiti izan egiazko ohore solidoRIK (11).
7. Ezta halaber hiltze onIK ezpada bizitze honIK (12).
8. Onsa bizi nahi denak eztu behar bekhatuRIK egin (13).
9. BekhatuRIK ez egitekotz ardura behar du herioaz... arhitu (13).
10. Eztirozu entzun bertze izenIK (14).
11. Pagano hark etzian legeRIK, fedeRIK, ebanjelioRIK, ez jenkoRIK (14).
12. Eztuzu nahi sinhetsi badela hiltzeRIK eta herioRIK (15).

    – Esaldi honetan, ezetzak ere zerbait agintzen badu partitiboan jartzeko, gehiago agintzen duela dirudi hiltzea eta herioa jeneralki hartzen dituelako.

13. Bena eztezazu dudaRIK har (15).
14. Miserikordiak eztu hemen lekhuRIK (19).
15. Haietan ezpada fedeRIK (20).
16. Agerturik ere, hil baliz beno aboro estu indarrIK, ez botereRIK (20).
17. Zeren haiek ezpaitute legeRIK ez fedeRIK (24).
18. Paganoa da legeRIK eztiana (24).
19. Eliza saindiaren manien kontre bizi denak eztu fedeRIK (24).
20. Behin damnatuz geroz, Jenkoak haier elezan eman graziaRIK (26).

* * *

Honelako adibideak ehundaka aurkitzen dira Tartasen liburuan: ezezko esaldietan partitiboan ezartzen obketu zuzena gehienetan. Baina ba dira bestelakoak ere. Eta horietako zenbait adibide ere eman nahi dugu hemen:

1. Justu baita gizonen faltak eta bekhatiak elitian barkha ez remeti hillez geroz (27).
2. Etzian uken aski indar haren kontre (34).

   – Ez diot esaldi hau gaizki dagoenik, agian bai hobeto egonen zela beste era honetara:
   Etzian uken indarrIK aski haren kontre.

3. Baina eztut ansia (38).

4. Eta bere bekhatiez, beldurrez elezan aski penitentzia egin bere faltez eta ikhusten zianian etziala bere bihotzian kontrizionia aski handi nigar egiteko (41).

   – Hemen, berriro, 2. adibidean bezala, ASKI hitzarekin ez darabilki partitibo amaierarik. Apika, berdin eta ongi dagoelako: aski penitentzia eta penitentziaRIK aski? Aski handi eta handiRIK aski?

5. Eta ez galdu Jenkoaren beldurra eta haren amudioa (45).

6. Eztut ansia neure onen galtziaz (47).

7. Eta zeren ez phenen beldurra ez rekonpensien amorioa ezin baitukegu herioaren beldurra edo amorioa gabe (133).

   – Esaldi honetan ba dirudi bi arrazoin daudela partitiboa erabiltzeko: aditza ezetz eran, eta gainera GABE preposizioa. Hala eta guztiz, "beldurrA" bi aldiz eta "amorioA" singularrean darabilzki.

8. Biziak emanen dro (sic) meritu, baina ez rekonpensia (135).

   – Ba dirudi, hemen, "meritu" eta "rekonpensia" partitiboan erabili behar zituela. Lehena mugagabe edo ezezagun bezala, merituRIK hobeki zegokeen. Eta bigarrena, ezezko aditzaren obketu zuzena bezala, rekonpensiaRIK behar lukeela izan.

   – Berdin gertatzen da eman dugun bigarren adibidean:

   Ba zirudien hobeto zegoela "ezta oraino hil... lotenant handi haren memoriaRIK".

-TARIK amaiera, elatiboan

Tartasek, NONDIK edo Elatiboan, ia beti, -TARIK amaiera darabilki -TATIKen lekuan. Hau, kasu gutxi batzu kenduz gero, sustantiboetan arrunta gertatzen bada, erakusle edo demostratiboetan beti agertzen dela esan genezake.

Hona hemen zenbait adibide:

1. Ene seme haurzurtzaren aita eta ama bieTARIK (4).

2. Jende heTARIK parte bat goiti zelurat joaten zela (7).

3. Badu oroTARIK zerbait (7).

4. Mundu honTARIK landan (8).

5. Erakarten zian bere pajeTARIK bat ohiaren aitzinera (14).

6. Zuk, aldiz, haieTARIK oroTARIK baituzu eta eliza zaindian bizi baitzara (14).

7. Bere gorteko kurtisan eta xarlatanen haueTARIK eta haren eskribieTARIK (15).
8. Deabriaren presundegieTARIK delibraturik (20).
9. Estatu hartan arima hura mundu hunTARIK partitzen denian (20).
10. Erhoit (sic) zaite munduko honeTARIK eztugula deus gurekila eramanen (22).
11. Bere aintzineko errege hillaren hezurreTARIK herrautsez beterik (24).
12. Mundu hunTARIK partitzen bada (32).
13. Lurrian zuhaintz haren pian diren frutieTARIK (33).
14. HeTARIK jan badezazu galdu zira (33).
15. Eta nola zeruko onak eta frutiak baitira alde oroTARIK on eta segur hala hola lurrekoak dira alde oroTARIK FALSO (33).
16. Eta haieTARIK jan ezazie (33).
17. Harrezazu kontrapozoa hunTARIK (34).
18. Edanari neure begietako nigarreTARIK (40).
19. Zeren jalkirik neure bekhatieTARIK (42).
20. Jenkoaren obreTARIK berhetzirik egon da herioa (130).
21. Gure bekhatieTARIK GURE GIBEL ERASITEKO (133).
22. Nork ni delibratuko nu gorpitz mortal honTARIKA? (134).
23. Kartzelu harTATIK libratu deno (137).
    — Hau da -TATIK erabiltzen duen kasu bereizi bat. Baina hurrengo esaldian eta hitz beraz -TARK erabiliko du.
24. Dabid Erregiak ere karzelu harTARIK jalkitia desiratzen zian (137).
25. Kartzelu honTARIK libra nezazu (137).

-IK, -RIK amaierak aditzen partizipioan, eta ez -TA, -DArik

Tartasek, eginDA, janDA, gordeTA, konsideratuTA... bukaerak partizipioan erabili ordez, beti -IK, -RIK amaierak darabiltza.

Hona hemen adibide gutxi batzu esandakoa frogatzeko:

-TA, -DA amai-eradun adibiderik ez dut aurkitu haren liburuan:

1. Mirail bat eginIK bere lumez (82).
2. Eta so bat eginIK bere zango eta hoin etsusier (82).
3. Bere lumaje ederra gordeRIK (82).
4. KonsideratuRIK nola jalgiten giren lurretik (82).
5. Gure urguilliak utziRIK (82).
6. Hoñak leze haren zolan bermatuRIK (83).
7. Bere besoez pareteko arbria tinkatuRIK, so eginIK (83).
8. Zaiñak trenkatuRIK erortzera zoela (83).
9. Ikhusi dut goitik so eginIk (83).
10. Ahoa zabaltuRIK (83).
11. Bertze danjeral oro ahatzera utziRIK (83).
12. Miseria horzaz orhituRIK (84).
13. nahi bazira salbatu onsa hilIK (84).
14. Eta hura ikhusiRIK nahi ezpazira zure hiltziaz orhituRIK (84).
15. Eta dolore handiz betheRIK (84).
16. Eta bere miseria ikhusiRIK (85).
17. Zer ere baita jarriRIK (85).
18. Bertze munduko bizitze eternalarekin konparatuRIK (86).
19. Herioak bere bekhatian atrapatuRIK (87).
20. Eta haren amoriaren suia galduRIK (88).

— Ez noa gehiago jartzea aspergarri gerta ez dadin. Beti berdin baita.

NON, NOIZ, NOLA eta antzeko kasuetan -TAN mugagabeko amaiera

Sail honetan jartzera noan adibideak ez dira guztiz berdinak elkarren artean. Zenbaitetan, NON edo Inesiboa adierazten du, argi eta garbi: LekuTAN, bularreTAN e. a.

Baina beste zenbaitetan, NOIZ denoraren esanahia dute: EguerdiTAN. Oso sarri, ordea, Tartasek beste esanahi bat adierazteko erabiltzen du mugagabeko -TAN amaiera: NOLA egin den edo esateko. Beste zenbait kasutan, ZERGATIK ere bai.

Aukeratu ditudan ondorengo kasu hauetan ongi ikusten dira ñabardura horiek.

1. Bere herriaren alde eta faboreTAN (5).
2. Eta hartu luma eskura euskaldunen faboreTAN euskaraz porogatzeko (7).
3. DudaTAN bizi izaniz (sic) (16).
4. HalaTAN onsa bizi eta hil nahi denak (18).
5. Haren faboreTAN egin zazu gerla gauaz eta egunaz (23).
6. Momentu oroz, goizian, eguerdiTAN, arratzian, hiltziaz... behar dugula orhit izan (35).
7. Semiak, aldiz, utzi du eliza saindia dudaTAN ala zen salbatu ala damnatu (38).
8. Zeren erresumako populia konduTAN eta roleTAN ezarten ziala (39).
9. Bekhatu haien punizioneTAN errege hura galdia zihoen (39).
10. Sinbesten dut... errege debot hunen imitazioneTAN zuhurki eta sainduki ordenatu diala (42).
11. EguerdiTAN eguerdizeiniak (joitia) (42).
12. Eta abertitzeko... aumens egunian hirureTAN berere (42-43).
13. Lehena egin zela arratsian, bigarrena goizian, hirugarrena eguerdiTAN hartakotz ELIZAN ezkillak hirureTAN joiten direla, arratsian, goizian eta eguerdiTAN (43).
    - Seigarren zenbakian gertatzen dena gertatzen da hemen ere: EguerdiTAN darabilkian bitartean, goiziAN eta arratziAN eta arratziAN edo arratsiAN darabiltza beste bi hitzak. EguerdiTAN mugagabe kasuan jartzen duen bitartean, horrekin batera eta kasu berean dauden beste bi hitzak singularrean jartzen ditu.
14. Eta hark oro sufritu... pazientzia handiTAN (46).
15. Denbora oroz zaudezte bijilant eta orazioneTAN (51).
16. Eta zien gorpitzak suTAN eta odoleTAN ezarriko ditut (52).
17. Bere buria pausatu ziala Jaunaren altzoan eta haren bularreTAN golkoan (53).
18. Jakin faltaz zein lekuTAN bolurra bide handian beha, aiduru, eta goaita zagoen (55).
19. Zeruko gloria eternalaren emaiteko zure hiltze onaren paguTAN eta rekonpensuTAN hiltze ona nahi baduzu (58).
20. Eta jokatu edo karteTAN edo datoeTAN edo bertze zonbait jokoTAN (60).

– Hemen ba dirudi nahasketa dagoela: KartETAN ala kartATAN? Ez bait dakit Tartasen garaian kartE ala kartA idazten zen. Ba dirudi datoETAN gaizki dagoela. DatoTAN izanen litzateke mugagabean, jokoTAN den bezala.

21. Gauerdiaren inguruTAN azantz eta oihu handi bat heldu da erraiten dialarik (62).
22. Zeren espos Jaunak ediren baitzutian gau herdiTAN bekhatu bage (66).
23. Anderia, egiaz erran behar drautzut zure penaren eta tribailluaren rekonpensuTAN eta paguTAN (95).
24. Hark igaren behar zian pena eta suplizioa patibuloko ziala haren lekuTAN (107).
25. Bere amorioaren eta adiskidetazunaren rekonpensuTAN gure amorioa (108).
26. Dugun izikiriba urhezko letereTAN bezala (109).
27. Ahalke handi batek begitartia estalirik konfusioneTAN baratu zen (111).
28. Eta soma handiTAN erosiak girela (113).
29. Jalkiten da eta tristura handiTAN harganik konjit hartzen (119).
30. Danjer eta peril handiTAN bizi dira (142).
31. Justoa zazpiTAN egunian erorten dela faltaTAN eta kulpaTAN (143).
32. Hanbat dira tentazioniak handi... non ezten bekhatuN erurten (143).

– Hemen ba dirudi bekhatuTAN idatzi behar zuela eta ez bekhatuN.

33. Andere onaren ohoreTAN (145).

BAT numeralaren erabilkera

BAT numeralaren zenbait erabilkera ikusiko ditugu ondoren. Lehenengo, BAT mugagabe bezala NON edo Inesibo kasuan. Gero BAT mugatua BATA eta BERTZEA formetan. Azkenik, BATen beste zenbait erabilkera mugagabe bezala.

BATETAN

1. Propheta hark berak dio bertze leku batETAN (40).
2. Edo bertze lekhu sekretu batETAN (55).
3. Kontinentzia handi batETAN mantentzen dituzte bere gorpitzak (66).
4. Heldu zen ItaliETAN (sic), Puzols deitatzen den hiri batETAN (sic), eta joanik eliza batETARA, zointan haren aitaren gorpitza ehortzirik baitzagoen hobe batETAN (103).
5. Ene libruto honek eta nik merexi dugula su handi batETAN erra gitian (13).
6. Laurak oro esperantza dut akordu hon batETAN izanen direla (13).
7. Bena batEK eztiala gizona eta emaztia hanbat edermenez, graziaz eta bertutez bethatzen nola herioaren miraill batETAN bezala (17).
8. Eta bertze lekhu bat-ETAN erraiten du hark berak (18).
(42) De mantenerse (o confirmarse) la estrecha analogía con *Romanzado, Navarzato, Sarracinatu* (cf. Michelena, *La lengua vasca*, pp. 16 y 29), —a los que se han acercado *latinado, aljamiado*, que presentan otros matices semánticos, también en su terminación— habrá que examinar si no es conveniente admitir para conjugar opiniones dispares, una extensión del término a regiones a las que sólo impropiamente se les podía aplicar el calificativo de **vasconicatae*, 'vasconizadas'. A alguna zona que, efectivamente, habrá sido "vasconizada" (en época medieval, e.g.), o si se prefiere —para no suscitar polémicas— "revasconizada", podía aplicarse ese término desde fuera, desde zona romance, con propiedad. Luego, por un fenómeno corriente, se habría extendido esa denominación, aplicándose impropiamente a zonas que no eran "vasconizadas" sino "vascas" desde antes. Ya en el siglo XVI hay documentación de "*vascongado*" con la acepción 'que habla vasco', opuesto a "romanzado": "a los (niños) vascongados los hacía romanzados", se dice en un documento que presenta Idoate, *La brujería*, 84 (cf. *ibid.* 78) refiriéndose a niños de zona vasca. La explicación *Vascongado* 'que habla vasco', aplicado a las provincias, no presentaría problemas "históricos", pero habría que ver si es esa la acepción originaria, contra lo que pudiera parecer. En ese libro de Idoate se encuentra abundante documentación de *lengua bascong(u)ada, basquence* (e.g. 299, 314, 321, 325, 340, 354, 355), con varios ejemplos de esa lengua (e.g. 231, 232, 303, 308, 314, 338, 340, 375, 377, 394).

(43) Véase Covarrubias, *Tesoro, s.v. Gascuña, Vascuña.* Ignoro si se han hecho entrar en escena para esta cuestión convenientemente las voces provenzales *guasca, guascon, gasconil, bascon*, etc. Más que por la forma misma por la extensión (geográfica) del término convendrá tener presente el pasaje de la *Chanson de Sainte Foi d'Agen* (versos 384-385): *Cisclaunl Bas-*

pistar. Quedarán con todo dudas en algunos casos, como en el trasfondo de *Vascus* 'vanus', 'nugatorius' del diccionario de Guarinus (44); por la forma de la palabra nos inclinaríamos a creer que ha de entrañar la acepción de 'vasco', y no la de 'gascón'; pero por el significado preferiríamos pensar en 'gascón', trayendo a colación el significado de 'fanfarrón, charlatán' que no le es extraño al francés *gascon*. Para *Vasco* del mismo diccionario y los derivados *Vasconia* 'regio eorum', y *vasconius* pensaremos más bien en 'vasco', a juzgar por la explicación que da Guarinus de ese nombre, por disparatada que ésa sea (45).

6.3.6. Pero volvamos a *basconica lingua* de Martín de Andosilla, 'lengua vasca'. Nos gustaría saber por qué razón escribe *basconica* con *b-*, distanciándose del uso más corriente. ¿Habrá pensado en formas análogas que conocería de su tierra, cual *bascongado o basquenz* del Fuero General? ¿O habrá querido, el autor o el editor, acercarse a *bascus, basclus, basculus*, que equivalían a 'vasco', para evitar malentendidos? Menos probable nos parece que esa grafía refleje cierta "aversión" a la *v-*, que se observará corrientemente, sobre todo más tarde, respecto al vasco, con fines que difícilmente encuentran su justificación en la tradición de la lengua.

6.4. Hemos propuesto tomar la indicación *s u a lingua montana vel basconica* como indicio de que el vasco no era la lengua materna del autor (46). El argumento principal es que sabemos dónde nació ese autor y qué lengua se hablaba entonces en su villa natal, Peralta. Acaso no esté de más lla-

---

con, que son d'Aran; / Dizon: "Per ren viva nonn an"; en el comentario histórico (tomo II) a este pasaje leemos que "pour l'auteur [de la Chanson], *le pays basque* ne comprend pas seulement la région occidentale des Pyrénées; il s'étend vers l'est et englobe le Val d'Aran"; al comentar en el tomo I los versos *Tota Basconn' et Aragons / E l'encontrada delz Gascons* (versos 23-24) se hace alusión al posible error del poeta que tiene al valle de Arán por *vasco* cuando en realidad sería *gascón:* los estudios sobre toponimia de Corominas hacen pensar que el error está en el comentarista, no en el poeta medieval, aun cuando sea necesario tomar en consideración la fuente de la *Chanson* antes de sacar conclusiones cronológicas. Comenta este pasaje Allières, *Manuel,* p. 23. Para *gascon* remitimos al DEAF de Baldinger, G3, 346-348. En una carta vasca de 1584 figura *de gascon* 'a la gascona', cf. Michelena, *TAV* 3.2.8. Sobre los nombres de los *vascos* y su lengua diserta Oihenart, *Notitia,* 2 y 395 ss.

(44) Martín de Andosilla consultó ese diccionario de Guarinus, al que se refiere expresamente (p. 46); de esa obra tomó la explicación de la palabra mágica *Ananisapta*, que "mala mors interpretatur, et quelibet littera representat unam dictionem, scilicet, antidotum nazareni auferat necem intoxicationis: sanctificet alimenta pocula Trinitas alma" *(s.v.)*.

(45) Recoge la opinión de Isidoro, *Etim.* IX, 2, 107.

(46) En el *De superstitionibus* encontramos dos citas en castellano sin que de su contexto se pueda colegir que esa era la lengua materna del autor: "Inde est proverbium vulgare: Los hombres hacen la guerra y Dios la victoria" (38), que no es más que la traducción de una cita en francés de Gerson: "Inde est proverbium vulgare: 'Les hommes font la guerre et Dieu la victoire' " (*Opera*, X, 130). Además cita Martín de Andosilla "...ut dicitur per quemdam concionatorem hispanicum: Amarillo hace el oro al que sigue su minero y temblador el tesoro de la azogue al del venero" (69). En un pasaje se tiene por "latino": "nos latini, ignorantes linguam grecam, non debemus uti eis [verbis graecis] propter superstitionem, non enim desunt nobis termini latini sermonis, ut queramus nobis terminos grecos et suspectos in tali materia" (46).

mar la atención sobre el peligro que encierra una deducción de ese tipo si no se tienen, o no se toman en consideración, datos informativos concretos y explícitos.

6.4.1. Permítasenos analizar en este contexto un pasaje de importancia para la historia de la lengua vasca en el siglo XVI, que no ha sido objeto, salvo error, del estudio que se merece, y que bien exigiría una interpretación aparte. Martín de Azpilcueta, refiriéndose a la conveniencia de traducir a las lenguas vernáculas el Padrenuestro, el Avemaría, el Credo y la Salve, nos informa que "ante circiter 35 annos quidam Cantaber pius, et doctus magna cum approbatione supremi Regis Catholici Concilii, parique utilitate Christianismi Prouinciarum, quae lingua Vasconica; (quae remotissima est à Latina, Itala, Hispana, et Galla) in finibus Hispaniae, et Galliae ad Oceanum utuntur, haec quatuor, et totam summam doctrinae Christianae vertit in linguam Vasconicam, simul et docuit..." (47).

6.4.2. Se nos habla de un vasco, piadoso y sabio, que tradujo la suma de la doctrina cristiana al vasco, y que la enseñó en esa lengua de que s e s i r v e n en las provincias cercanas a la frontera entre España y Francia, junto al Océano. Sería aventurado querer sacar de la forma espaciada la conclusión de que Martín de Azpilcueta no sabía esa lengua, o que no era su lengua materna, o que en su tierra no se servían de ella, o que él no la usaba. Dejemos de lado una distinción, tal vez justificada también en este pasaje, entre *uti* o *loqui*. El sujeto es, o son, las Provincias, de modo que la única persona verbal que se espera es la tercera plural, *utuntur*. El autor queda excluido del punto de vista gramatical, sin que haya implicación alguna en el enunciado en lo que atañe a su persona. Otra cosa hubiera sido si hubiese puesto por sujeto un étnico, cual *navarri*, o *vascones*, y hubiese usado la tercera persona plural: en tal caso podríamos inferir que él no se consideraba como parte de ese grupo, o que, por lo menos, no le daba importancia entonces a pertenecer o no a ese grupo. La indicación *utuntur* no conlleva pues ninguna información, ni negativa, ni positiva, sobre el conocimiento o desconocimiento del vasco por parte de ese autor. Es por completo indiferente en ese sentido.

6.4.3. Si deseamos una respuesta al respecto debemos recurrir a otros datos. Y según éstos podemos admitir con relativa probabilidad, casi con certidumbre, que Martín de Azpilcueta conocía el vasco, ya que en su pueblo, en Barasoain, seguía hablándose esa lengua todavía tres siglos más tarde (48).

7. Volvamos ahora, tras estas consideraciones más o menos estrechamente ceñidas al tema, a la frase de Martín de Andosilla *Jandone Martie*

---

(47) Martín de Azpilcueta, *Octogesimumtertium miscellaneum* de *Miscellanea centum de oratione*, en *Commentaria*, III, Lyon 1597, 503. Compárese nuestro artículo "Vicisitudes" p. 11 ss.

(48) En el mapa del Príncipe Bonaparte llega la zona euskalduna hasta ese pueblecito; cf. *FLV* 26, 1977, 315 ss; González Ollé, "Vascuence y Romance", & 6.

erroya. Este texto vasco no ofrece problema alguno de interpretación, correspondiendo exactamente a la glosa latina, lo que no quiere decir que no ostente peculiaridades: *Jandone* se analiza evidentemente *Jan* + *done*. *Jan* es la variante de *Jaun* 'señor' que encontramos en *Jangoiko* 'Dios', *Janko*, junto a *Jaungoiko*, correspondiente a "Jauna que es Señor, y Goycoa de arriba", por recordar el parecer de Garibay (49) seguido por tantos. *Done* 'santo', del que existen varios derivados, y del que Azkue indica que es poco usado entre el pueblo (*Dicc.* s.v.), está bien documentado desde el siglo XIII: *done Miqueleco* 'de san Miguel' (Michelena, *TAV*, 2.1.7, 36). También se encuentra el "femenino" *dona*, e.g. en *Donamaria aldeco* 'de la parte de Santa María' (*ibid.* 2.1.8., p. 38), junto al no menos castizo ni corriente *Andrea Maria* (Aimeric Picaud, *Guide*, 28; Michelena, *TAV*, 3.1.23). Idoate nos ha presentado varios breves textos "en lengua vascongada de esta tierra" (p. 303), alguno de los cuales ilustra el tema que tocamos: "aurrac, arnega eɔaɔuey jangueycoac eta andere dona Mariaz eta sayntu eta saynta guɔuez eta andre dona Mariac eta santa Annac eztuey aurric. Que, a la letra, quieren dezir en Romance: creaturas o chicas: renegad de Dios y de Nuestra Señora Santa Maria y de todos los santos y santas. Y nuestra Señora y Santa Anna no tienen hijos" (50).

7.1. De la vitalidad de *done* en otros tiempos dan testimonio, además de los derivados, los numerosos nombres de lugar que ostentan ese componente, cual *Donibane* 'San Juan', *Donostia* 'San Sebastián'.

7.1.1. También desde antiguo está documentando el sinónimo *sandu, saindu*, etc., cuyo étimo *sanctus* presentaba una base semántica más amplia que *dominus* que —al menos en teoría— se prestaba mejor para ir unido a nombres de persona que a nombres de cosa: *Erromaco eleyca santuac* (Michelena, *TAV* 3.2.6.), *bere gra(cia) sainduyan* (*ibid.* 3.2.8.). Del refranero vasco recordamos *Otu doneari ygarartean nequea* frente a *Othoi sainduari deraunsano ekaizari* (Michelena, *TAV*, 3.3.2., 545 y nota). Para otras correspondencias aducimos los dichos campesinos *Jaun done Laurenti, eski batean euria, bestean ilinti* 'señor san Lorenzo, en una mano lluvia, en la otra tizón' (Azkue, *Dicc.* s. *Ilinti*), frente a *Santo Laurendi, berroari ilindi* 'san Lorenzo, tizón (fuego) a la zarza' (Azkue, *ibid.*, s. *hilindi*), y *Done Emeteri Zeledon, porruereiaro on* 'por San Emeterio y Celedonio, buena sazón para sembrar puerro' (*ibid.* s. *done*).

7.2. La base para la evolución semántica de *dominus* > *'sanctus'* se encuentra en el corriente uso medieval de calificar a los mártires como *Domini*, y también como *Domini sancti*. En la Edad Media estuvo en uso *dominus* con el doble significado de 'santo' y de 'señor'. En el lenguaje eclesiástico los dos significados se confunden a veces, sin que sea fácil decidir si en expresiones cual *Dominus Deus, Dominus Jesus Christus* dominaba el primer significado o el segundo.

---

(49) Garibay, *Compendio*, 93.
(50) Idoate, *La brujería*, 303.

7.2.1. Probablemente haya que ver en el predominio del uso profano, acentuado por el feudalismo, la causa de la paulatina desaparición en latín de *dominus* con el significado de 'sanctus': a partir del año 1000 (51) faltan ejemplos seguros de este uso, constatación ésta que puede ser de interés para la cronología de *done* 'santo' en vascuence. En lo que se refiere a la proveniencia geográfica de esa acepción, el material estudiado ha llevado a pensar que se tratará de un uso importado de más allá de los Pirineos, donde están muy bien documentados nombres de poblaciones compuestos con *Dom-Dam-*, etc., con el significado de 'santo'. Tovar, *El Euskera*, a propósito de *Donostia, Donibane*, alude a este hecho, aunque trayendo oportunamente a colación el *nuestro duenno duenno Christo* de las glosas Emilianenses, en que no faltan elementos vascos, y que pudiera ser algo así como 'nuestro Señor Santo Jesucristo' (p. 111). Convendría analizar, antes de pronunciarse definitivamente al respecto, el material latino y romance de esta parte de los Pirineos, para ver si *dominus* o formas correspondientes equivalen también aproximadamente a 'santo' sea cuando aparece una sola vez, sea cuando aparece repetido (52). La famosa canción de peregrinos a Santiago de Compostela, conservada en manuscrito del siglo XII, reflejaría en el estribillo plurilingüe esta misma tradición:

Herru Sanctiagu
Grot Sanctiagu!
E ultreia!
E sus! eia!
Deus adjuva nos (53),

que nos recuerda la iglesia del Señor Sant-iago de Bilbao. Como quiera que sea, el vasco ha conservado en *done* 'santo' una acepción antes más corriente en amplias zonas de la Romania.

7.3. La forma *Jandone* de Martín de Andosilla viene a sumarse a las numerosas variantes que figuran en los diccionarios (Azkue, Lhande...): *Jaundone, Jaundoni, Jondane, Jondone, Jondoni.* Por si no bastara la forma *Jangoiko* frente a *Jaungoiko* para apoyarla podría aducirse de la toponimia antigua de Alava *Jandonequendiostea* 'detrás de San Vicente', de 1587, al lado de *Donequendi* 'San Vicente' (cf. Michelena, *Apellidos*, s.v. *done* y s.v. *-oste* 'parte trasera'). Una fase anterior de *Jaundone* y variantes la encontramos en el tan comentado pasaje de Aimeric Picaud que trae *Jaona domne* (en

(51) Véase Longnon, A., *Les noms de lieu de la France*, París 1923, 389 ss.; cf. *ZfRPh* 23, 1899, 180.

(52) Abundante documentación en Menéndez Pidal, *Orígenes del español*, véase el índice alfabético *s. domna, dompna*, etc.

(53) Compárese J.R.H. Smidt, *Les noëls et la tradition populaire*, París-Amsterdam 1932, 269. H. Anglès, *Historia de la música medieval en Navarra*, Pamplona 1970, pp. 134-136.

R *d(nē) Jacue,* glosado 'sanctum Jacobum' (54) que estará por *Jaon do(m)ne Jacue,* en Axular *Jondone Jacue* (cf. Michelena, *TAV,* 2.2.12).

8. *Martie* 'Martinus' ostenta la típica caída de la *-n-,* como en otros ejemplos vascos conocidos de la Edad Media (cf. Michelena, *TAV* 2.1.7.: *Martie Marra, Marti Esteveiz,* el último acaso con aféresis haplológica o haplográfica, cf. *ibid.* p. 34 y 26). Numerosos apellidos y algún topónimo vascos contienen igualmente esa base (Michelena, *Apellidos,* 434), que ha sido corriente para designar la fiesta del santo, según se infiere de *Jaundone Martie* de Isasti (55), a la que puede añadirse *Jondone Marthiari oloac pagazea* (*RIEV* 4, 231) y *Donamarthiri* (Michelena, *Apellidos,* 434), este último correspondiente a St. Martin d'Arberoue.

9. *Erroi* 'cuervo' aparece ya en el refranero vasco de 1596, en un refrán que, en grafía actualizada, reza:

Az ezak erroia, diratan begia,
ta mutil geiztoac kendu deike argia,

cuya traducción según esa colección es:

"Cria al cuervo, sacarteha el ojo,
y quitar te ha la luz el mal mozo" (136).

De la primera parte de este refrán vasco Urquijo reseña otras dos formas: *Erroia has esac, beguiac dedezac* 'Nourris le Corbeau, il te creuera les yeux' y *Maita ezac belea, ateraco dic beguia* 'Cría el cuervo y te sacará los ojos' la última con el fecundo sinónimo *bela* (56), de antiquísimo abolengo.

10. No menos antigua ha de ser la implicación supersticiosa de esa ave que se manifiesta en innumerables creencias de las más diversas regiones (57). Un testimonio más de esa superstición es la frase *Jandone Martie erroya,* cuyo principal interés para los filólogos reside sin embargo en la fecha en que ha sido impresa, el año 1510.

---

(54) *Guide,* 28.

(55) *Compendio.*

(56) Cf. Azkue, *Diccionario,* s.v. *bela,* que aparece a menudo junto al "sinónimo" *erroia.* Acaso sea posible, del punto de vista etimológico, relacionar *bela* con *beltz,* 'negro', según ha sido propuesto repetidamente, y *erroi, arrai* (cf. *otsoarrai, otsorrai* 'cuervo') con el graznido del animal. Como es sabido, muchas denominaciones del *cuervo* en diversas lenguas se basan en la imitación de su voz (e.g. *IEW* 567 ss.), otras en el color del animal (cf. *Aberglaube,* vol. 5, col. 1724). *Belats* 'corneja' y 'gavilán', *zapelatz* 'gavilán' (en la Cuenca de Pamplona es común *chapelach* como nombre de un ave de rapiña) y otras formas presentan paralelismo semántico con *otso-arrai* 'cuervo', *arrai* 'gavilán'.

(57) Pueden consultarse los índices de *Aberglaube, s.v. Rabe,* y especialmente vol. 5, col. 1724-1725, vol. 7, col. 427-457.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

GRAMATIKA LANAK KOORDINATZEKO BILERA

Hondarribian, 1980-IV-17

Fr. L. Villasante

Sarrera hitzak

Jaun-Andreak: Egun on eta ongi etorria denoi!

Gure bilera honi hasiera ematerakoan premiazko dela uste dut bilera bera zergatik eta zertarako egiten den gogoratzea.

Eskolastikoek zioten 'causa finalis', 'causa causarum' dela; azkenengoa izanik, nolabait lehenengoa ere badela eta beste guztien gain aginpidea duena dela. Guk ere xedea begien aurrean izanik, beharko ditugu bilerako lanak xedera artez eta zuzen gidatu. Hori behar-beharrezkoa da adarretatik ez ibiltzeko eta denbora alferrik ez galtzeko, zeren bilera egun batekoa soilki izango baita.

Dakizuenez, joan den urteko Abenduan Euskaltzaindiak Biltzar bat egin zuen Arrasaten, bere IX. Biltzarra, alegia, euskal gramatikaz eta bereziki sintasiaz zer-ikusi duten gaiak aztertzeko.

Oker ez banaiz, han zerbait berri ikusi genuen denok, Biltzar mueta berri bat, alegia. Nahi baduzue, beste Biltzarretan baino jende gutiago bildu zen, baina, hori bai, gramatika esparruko gaiak aztertzera ohitua dagoen jendez osatutako biltzarra izan zen. Eta hori urrats bat edo aurrerapen baliotsu bat da, dudarik gabe.

Euskal gramatikaren alorrean langile trebeak baditugula ikusirik iruditu zitzaigun horiek probetxatu behar ditugula gure gramatika lanak aitzinatzeko. Halako plangintza bat asmatu behar zela gramatika lanok koordinakunde baten barnean egiteko. Eta plangintza trazatzeko bilera berezi bat egin behar zela. Hain zuzen, euskal gramatika lanen plangintza edo koordinaketa modua asmatzeko antolatzen da gaurko bilera hau.

Bilera hau zertarako ez den, garbi dago, bada. Ez da Gramatikari buruz txostenak bertan irakurtzeko edo Gramatika punturen bat bertan eztabaidatzeko. Bestelakoa da gure gaurko egitekoa: lan plan bat bilatzea, horra.

Euskaltzaindia sortu zela badira 60 urte. Azkuek bere Morfologiaren hitzaurrean istorio hau dakar: "Apenas creada la Academia de Lengua Vasca, los que de ella tenemos el honor de formar parte venimos oyendo repetidamente: ¿Cuándo nos darán Vds. un Compendio de Gramática Vasca?".

Azkuek erantzuten du ttipia edo laburra egiteko, handia eta luzea egin behar dela lehenago. Argazkilariek bai, badakitela ttipitik haundia ateratzen, baina beste gainetiko guztiek ez. Lan luze-zabalak eta handiak egin behar dira lehen, eta gero horietarik laburtua egin ahal izango da.

Eta hala da, bai.

Dena dela, eta 60 urte Euskaltzaindia sortu zenetik igaroarren, Gramatika laburpen hori ez du oraindik egin. Ez da ahaztu behar urte horietarik erdiak erdi hilik eta lan egiteko biderik gabe egon dela. Baina kontua da lan hori egiteko daukagula oraindik.

Ezin esan daiteke, haatik, Gramatiketan euskal bibliografia hain antzu denik. Horra hor gogora datorkidan izen lerrokada —eta segur aski ez ditut denak aipatuko—: Martin Harriet, Pierre Urt-eko, Etxeberri Sarako, Larramendi, Lécluse, Archu, Añibarro, Zabala, Intxauspe, Bonaparte, Gèze, Lardizabal, Ithurry, Van Eys, Campion, Arana-Goiri, Azkue, Zabala-Arana, Zamarripa, Altube, Lertxundi, Lafitte, Gavel, Lafon, Arrigarai, Lopez-Mendizabal, Eyheramendy, Allières, Orixe-Oiartzabal, Altuna, Goenaga, Txillardegi...

Ez gaude, bada, horren pobre eta on-behar. Hala ere..., gramatika horietarik gehienak euskalki baten edo baten baino gehiagoren deskribapenak dira, eta beharko izan, euskara bat arrunta eta guztiona ez dugun bitartean. Euskara batu horren egintzan ari da Euskaltzaindia, eta zenbait urrats garrantzitsu eman ditu. Baina euskara batu horren Gramatika osoa oraindik ez dugu.

Ez ote da, jadanik, ordua heldu? Eta erabateko Gramatika osoa gehiegi eskatzea bada ere, Arrasaten esan zena: "Usadio Onaren Gida" moduko bat prestatzera poliki-poliki ez ote genuke joan behar? Frantsesez ba omen da liburu bat: *le bon usage.*

Idazterakoan gertatzen diren zalantza, auzi eta eragozpideetan han aurkitzen omen du idazleak argibidea. Esango dio, adibidez, honelako kasutan halako eta halako idazlek honela jokatzen dute, beste horrelakok horrela, etab. Beraz, gomendagarri diruditen bideak eskeintzen dizkio liburuak idazleari.

Gu, guztia beharrean gaudenok, ez genuke laguntza makala izango honelako tresna bat edukitzeaz. Idazteko ohitura pitin bat duenak badaki zenbat duda, katramila eta gurutze ttipi edo handi ateratzen zaizkion bidera, ia etengabe, luma darabilenari. Eta zalantzok garaitzeko nora jo ez daki.

Adibideak erruz aipa daitezke. Halako aditzek zer errejimen mueta eskatzen du; osagarria, alegia, 'dativo' deritzan kasuan behar da jarri, ala

akusativoan, mediativoan, edo nola? Juntagailuak eta beste partikulak —*ordea, noski, alabaina, behintzat, bada...*— perpausaren barnean zein tokitan kokatu behar dira?

Erregela orokorrak jakitea ez da aski, zeren hizkuntza batean beti baita salbuespen ugari, eta horiek jakin ezik ez da sekula hizkuntza behar bezala erabiltzen. Esate baterako, badakigu aditzaren Modu batzuetan (agintekera, ahalezkoa, subjuntiboa) aditzak bukaerako *-tu* eta *-i* galtzen dituela. Hori erregela orokorra da; baina gero idazle onen usadioa aztertzen hasten bazara, ikusiko duzu badirela salbuespenak. *Utzi* aditzean Axularrek mozten du *i* bukaera, Leizarragak, dirudienez, ez. *Arazi* aditzak, berriz, dirudienez, azkeneko *i* ez du sekula galtzen (Ikus Ax 76). *Landu* aditza *lant* bihurtzen da Axular baitan (Ax 12). Lotu, lot. *Ezagutu* aditzak, behar du *-tu* bukaera galdu? Edo *t* gutxinaz atxiki? Aditzaren bukaera kentzeaz frankotan okerادituak sortzen dira. Zilegi al da orduan erregla haustea? Zenbat honelako ditugu aidean!

Horra Axular-en pasarte bat:

Ax 325. Emaztetara emana den batek, eztu uste, emaztekin segitu gabe, nehor bizi ahal ditekeiela.

Kasu honetan guk ez genuke erabiliko *-la, -nik* baizik. Zeinek du arrazoin?

Interrogatiboen erabilera oihan beltza bihurtu da. Tradizioan zilegitzat jotzen ziren usadio batzuk gero zenbait gramatikalarik gaitzetsi dituztelako, ez dakigu zer egin. Hona hemen Axular-en beste pasarte bat:

Ax 214.Eta ez hain erraxki, nola lehenari, baina zeren kolera handian baitzaude, hari ere emaiten diozu eza, erraiten diozu eztakizula othoi gauza hartzaz mintza, zeren sobera zaudela errea, zaurtua, eta giharran ukitua.

Zeren eta *Ezen*-en erabilera gaitzetsia izan da, baina horrekin ez ote dugu gure tradizio osoa eta herri hizkuntza bera baztertzen?

Konpletiba batzuetan, ez denetan, Axular-ek *ezen* erabiltzen du. Adibideak:

Ax 43.Ordea badirudi ezen, noiz izanen den ezpadakigu ere, badakigula noiz izanen ezten. Zeren erraiten dugu ezen gero, bertze urthean onduko garela.

Eta beherago:

Ax 43. ...diozu ezen, haren zerbitzuan enplegatuko ditutzula.

Ax 325. Eta diot ezen, are mundu hunetan ere, giristino onek, jainkoaren partea dadukatenek, atsegin eta plazer gehiago gozatzen dutela, giristino gaixto Deabruaren partea segitzen dutenek baiño.

Bizkaieraz ere ezaguna da mintzatze molde hau: *Diñot ze...*

Kristau aroko latinean "quia" ikusten dugu horrelakoetan:

Mat 28,7 dicite discipulis eius quia surrexit

Mat 28,13 dicite quia discipuli eius nocte venerunt...

Dena dela, kompletiben mundu guzti hau ondo argitu gabe dagoela dirudi.

Eta kausalen munduaz zer esango? Gaur ikusten dugu *bait*-erabilera zabaltzen ari dela, baina ene ustez tradizioko erabilera legeak bat ere kontuan hartu gabe. Kausal koordinatuak eta subordinatuak elkarren artean berezi gabe, denak zaku berean sartuz, denei tratamendu bera ematen zaie. Ez da hori, ez herrian eta ez idazleen tradizioan ageri dena. Perpaus luzeetan partikularen bat aurrelari jartzeak mesede ederra egiten du, besterik ez bada, arnasa hartzeko eta datorrenaren berri emateko.

Ez dut esaten arkeologista edo zahar zale huts bihurtu behar dugunik. Baina hizkuntza bat sendotzeko eta aurrera-urratsak zentzuz emateko, hizkuntzaren tradizioa ezagutu beharra dago.

Nondik eta nola jakingo du idazleak guzti hori? Hiztegi Arauemaile, Usadio Onaren Gida: horrelako tresnak behar ditu. Baina horrelakorik inoiz egingo bada, lehenago azterketak behar dira: gure tradizioa —idazleetan ageri zaigun tradizioa— eta herri euskara bera ezagutu beharra dugu.

Asmo horrekin egin nuen nik *Axular-en Hiztegia*, aportazio gisa. Eta Serie Eleizalde-ko liburuxketan ere gure autoreen dokumentazioa pilatzen ahalegintzen naiz.

Gaur langileak, zorionean, baditugu. Idazle zaharren edizioak ere ugaritu-dira. Mitxelenaren Hiztegi handia atera dadinean, hor ere harrobi paregabea izango dugu.

Dena dela, Gramatika edo Usadio Onaren Gida bat edukitzeko, gramatika azterketak noraezekoak dira.

* * *

Une batean, bilera hau prestatzen hasi ginenean, pentsatu genuen Gramatika lanez gainera, Dialektologia lanen programaketa ere gaur egitea. Baina gero konturatu ginen egun bateko bileran tratatzeko gehiegi zela, bi gaiok, gainera, tratamendu bana eta guztiz bestelakoa galdegiten dutelarik. Hori dela eta, Dialektologia lanen antolaketa beste bilera baterako utzi da. Hara, bada, zein den gaurko bileraren gai bakarra: gramatika lanen plangintza edo koordinaketa egitea.

Bi sailotarako, berriz —Gramatika eta Dialektologia— helburua edo jomuga jar dezakegu mila bederatzirehun eta larogeita lauean (1984). Urte horretan ospatzen da Kanpionen Gramatikaren mendeurrena. Gertakari

horren kariaz, Biltzar bat, edo bat baino gehiago, antola daiteke urtemuga horren inguruan; Gramatika famatu horren mendeburua ospatzeko, alegia. Baina honelako Biltzarrak, ondo aterako badira eta emankor gertatuko badira, prestaera luzea eta zehatza eskatzen dute. Gaurdanik uste dut hasi behar dugula hartarako oinarriak ipintzen.

* * *

Arestian ukitu dut kontu hori, **Euskaltzaindia**k nolabait berea lukeen Gramatika eduki beharko lukeelako kontua. Euskara batuaren gramatika, alegia. Badakit eragozpideak elkarren gainean pilatzen zaizkigula. Alde batetik, eta hasteko, euskara batua ez da oraino gauza egina; egiten ari den zerbait da. Euskaltzaindiak erabaki batzuk hartu ditu, baina beste asko hartu beharko ditu segur aski gero ere; gainera, euskara hau, laboratorioko izaki geldi ez dadin, bizitzean, praktikan nola manaiatzen den ere behar da ikusi.

Beste aldetik, eta lehen esan dudan bezala, azterketak eskas ditugu: gure tradizioan zer erabili den, nork zer eta nola erabili duen hobekiago eta zehazkiago jakin behar da.

Eta bada oraino beste oztopo bat larria: Gramatikagintzan eskola berriak sortu direla. Gramatika bide edo metodo tradizional eta berrien artean gaur halako gudu, borroka edo ezin konpondua dago. Badirudi, nahitez, aukera bat egin behar dela gramatika tradizional eta berriaren artean, baina nola aukera egin, huts egiteko arrisku gabe?

Horra nik ikusten ditudan eragozpen nagusiak. Zer egin orduan? Besoak gurutzaturik egon eragozpenok berez urtuko direlako esperantzan?

Agian bada hemen 'círculo vicioso' edo gurpil zoroa deitzen den horietako bat. Euskaltzaindiak ez du bere Gramatika egiten halako eta halako eragozpen dagoelako. Baina beste aldetik, halako eta halako eragozpen dago, Gramatika hori egiten ez duelako.

Gurpil zoroa hausteko edo apurtzeko, nik ez dut bide bat baizik ikusten: abiatzea. Dabilenak berak urratzen du bidea. Eta egiten den lanak, erabat on eta betirakoa ez izanik ere, berak ematen du bide gero beste hobeago bat egiteko. Deus egiten ez bada, ordea, beti hutsean egongo gara.

Gramatikagintzan gaur eskola desberdinak egotea ez dut uste gu geldiarazteko arrazoi izan behar duenik. Azken batean eskola edo metodoak gauza honen funtsa ez dute ukitzen; zerbait azaleko edo gainetiko dira. Esan nahi dut: eskola batekin nahiz besterekin egin daiteke lana ongi, eta azken batean hori da behar duguna. Azterketak behar direla? Noski. Baina horiek ere gramatikagintzak berak aitzinatuko ditu. Eta Euskaltzaindiaren erabakiak berdin: Gramatika lana aurrera doan neurrian, lehen berde ikusten ziren puntu asko eta asko, erabakiak izateko sasoinera etorriko zaizkigu.

Ez dakit ametsetan nabilen. Behin baino gehiagotan esan dut: Gramatika batzorde iraunkor bat sortu behar litzatekeela Euskaltzaindian eta gure

gramatikaren hezurrajea —nolabait esan— batzorde horrek lan eginez, prestatu beharko lukeela. Oinarrizko edo azpiko lan hori gabe, beti egongo gara hutsean, edo, Kirikiñok esaten duen bezala, beti praille. Praileak ez omen du aldean txanponik erabiltzen, beti dago deusik gabe, eta **Euskaltzaindia** ere antzera, bere lanean sekula oinkada bat eman gabe.

Eta nor edo nortzuk aukeratu batzorde hori osatzeko? Azken batean pertsona taxuzkoak bilatzea eta haei mandatu ematea: horretan legoke arazoa. Eta zeri oldartu lehenik? Helduen diren gramatika parteei, eta gero, pixkaka, besteei.

Euskaltzaindiaren gramatikak badirudi, gainera, euskaraz egina behar lukeela. Hemen beste oztopo batekin egiten dugu topo: Gramatikazko terminologia euskaraz nola eman. Eta horregatik ere, deus egin gabe egon behar ote dugu beti, zerutik mana eror dakigun arte? Ez dut uste. Hemen ere, bidea urratuz, bidea egiten da. Gainera, izan ditugu lan honetan saioak eta aitzindariak: Harriet, Etxeberri Sarako, Azkue, Lertxundi, Goenaga, Txillardegi...

* * *

Bukatu baino lehen, bi puntu konkretu aipatzea dagokit. Bat, gure batzarreetako txostenena. Ahal dela beti edo ia beti behar genuke gure batzarreetan euskal gramatikaren alorreko edo inguruko txostenen bat. Orai arte ere egiten dira, baina ez daude programatuak. Nork zer dakarren, eta hura irakurtzen da. Batzuetan hala-holakoak izaten dira. Inoiz beldurrez egoten gara ez ote garen bat ere gabe geldituko.

Nik uste dut problema honi soluzio bat bilatu behar zaiola. Zenbait lan zenbait pertsonari, ordainduz, agindu, eta lan horiek gero batzarreetara ekarri. Batzarreetako lanen maila ere jaso behar dugu pizka bat, batez ere lan horiek gero aldizkarian argitaratzen direla jakinik. Baina agintzen eta ordaintzen ez badugu, ni beldur naiz lanen kalitatea ez dela oso goratua izango. Ez dakit. Nolanahi ere, arazo honek badu zer-ikusi hemen egin nahi den lanen programakuntzaz, eta horregatik aipatzen dut.

Eta beste auzi ttipi bat, gaur erabakitzeko utzi zena. Arrasateko biltzarreko lanak *Euskera*-n agertuko dira, noski. Baina hau da galdera: txostenez gainera, txostenen ondoko elkar hizketa eta eztabaidak ere agertu behar dira? Honetan pixka bat saiatu denak badaki zen lan gaitza izaten den zintatik eztabaida guzti horiek paperera aldatzea, eta gero ia beti kejak egoten dira: honako hau edo harako hura ez dela agertu, beste hori ez dela ongi jasoa, etab. Lan hori egin beharko lukeenak hau galdetzen du: esan dakiola garbi zer egin behar duen. Hiru bide edo soluzio ikusten dira: 1) eztabaidok bat ere ez agertzea, 2) ahal dela osorik eta dauden-daudenean agertzea, 3) elkarrizketa eta eztabaiden laburpen bat soilki agertzea. Hirugarren bide hau beharbada denetan zailena da, zeren eskatzen baitu aurretik dena aldatzea edo gutxinaz arretaz entzutea eta gero mamia laburturik ematea, eta horrek

ere bere arriskuak ditu. Dena dela, auzi hau aurreko batzarrean ukitu zen eta gaur erabakitzeko gelditu zen.

* * *

Eta besterik ez, jaunak. Gramatika lanen programaketa: horra gure gaurko egitekoa. Gaietan badugu zernahi, badugu zer aukera, gaiez gaindituak izateraino ere. Beharbada egin beharko duguna da gaietan premiatsuenak hautatu eta egutegia ere gogoan harturik urte honetan zeri emango zaion lehentasuna erabaki, datorren urtean zeri, eta hola. Eta gero lanok aztertzeko ardura nori egotziko zaion pentsatu. Hala ikusten dut nik arazo hau.

Baina gauzok denon artean galbahatu behar dira, noski.

HONDARRIBIKO BILKURAK DIRELA ETA

Hondarribia, 1980-IV-18

Koldo Mitxelena

Estuasun larrian jarri naute bilkura berezi honetan hizlari gisa hautatu nautenek. Bilkura hau, izan ere, Arrasateko Biltzarraren ondorio eta segida dugu, eta ni, jakina denez, ez nintzen hara agertu, beste istilurik banuelako neure gain. Beldur naiz, beraz, ez ote den sortuko halako *non sequitur*-en bat, eta ene erruz sortu gainera, hango eta hemengo jardunaldien artean.

Zorionez, han eta hemen eta bestetan egona den gure Euskaltzainburuak eskua luzatzen digu, hango eta hemengoak elkartzen dituen zubi erosoa. Honen hitzetan landaturik, bada, mintzatuko natzaizue Hondarribian, euskal gramatika lanen plangintzarako beharrezko omen ditugun lehen urratsak egiteko (hobeki esan, egiten laguntzeko) asmotan.

Mila bider esana da badituela Euskaltzaindi honek bi sail berezi, jagon eta iker-sailak, zeinek bere egitekoa duelarik, halaz guztiz, bata besteari lokarri gogorrez loturik aurkitzen direnak. Hizkuntzaren biziari dagozkion zenbait erabaki, izan ere, iker-lanaren ondorioetan funtsa daitezke bakarrik, inon funtsatzekotan. Iker-lanak, alderantziz, gogoan eduki beharko ditu, orain eta gero, euskara biziaren premiak.

Bereizkuntza honek badu, haatik, alde onik, bereizkuntzek maiz izan ohi ez duten horietakorik, alegia. Nik, behintzat, iker-lana beti onerako delakoan nago. Ez dio sekula kalterik egingo euskararen egoerari, zein ere larria den hau: laguntza ere ez da beti gehiegizkoa izango, baina, okerrenean ere, ez lituzke makurrak areago makurtuko.

Behin batean, aspaldi ez duela, honako galdera hau egin zidaten: zein ote litzatekeen har ditzakegun iker-lanen artean premiazkoena. Eta nik hitzetik hortzera erantzun aho hizkeraren azterketa zetorrela lehenbizi, hots, euskalkiena, dialektologiaren burusi zabalak estaltzen dituen eginbide horiena. Ez, behar bada, besterik baino garrantsitsuago delako beraz, baizik eta beste zein-nahi baino presakakoagoa dugulako. Euskara oraindik ere galtzen ari da zenbait eskualdetan eta, kimu berririk sortzen bada ere, hizkera berria ari dira landatzen, guttienik ere txertatzen, bertako zaharraren ordez. Labur baino laburrago, batzen ez dena galdutzat jo daiteke eta galtzen ez dena nolazpait ere batu egingo zaigu.

Gauzak ez daude horren larri, zori onean, euskalkiak, edonongo dialektuak bezalaxe, uste baino iraunkorragoak baitira. Iraungo dute, beraz, oraindik, batasunak batasun, eta bakarrik iraun ere. Ez dute ordea, bere hartan iraungo, batere aldakuntzarik gabe elkarren gainka eta bata bestearekin nahaste bizi garen zurrunbiloan. Arin baino arinago ibili beharko dugu, bada, zein bere nortasunean ezagutu eta jaso nahi baditugu.

Badakit badela gure artean jendea franko lan horretan ari denik. Nor geure aldetik gabiltza, ordea, eta batera behar genuke Euskal herriaren irudi orokor eta bateratua lortu eta hedatu behar baitugu. Eta hemen gogora datorkigu ezinbestean zorioneko Euskal Atlas hura, beti abiadan duguna eta, behin eta berriro abiatu arren, inoiz zertzen ez zaiguna.

Gai hori, nolanahi ere den, beste baterako utzia du Euskaltzaindiak. Izango omen ditugu geroxeago bai irakas-saioak eta bai bestelako bilerak prestalanak taxutu eta langileak prestatzeko noraezeko ditugunak. Bego, beraz, eginkizun hau ordura arte.

Egungo egunekoak ez ezik, inoizko euskalkiak ere aztertu behar genituzke eta honez gero zerbait eginik daukagulakoan nago, bai lekuizenen bitartez eta bai lehengo mendeetako testuak direla medio. Bukatuxe zuelakoan Euskaltzaindiak oraindik esku artean duen eta izango duen Izendegiak, esate baterako, badu arlo horretako azterlanen premia ederra. Testuei dagokionez, berriz, bistan da zerbait baino gehiago aurreratu dugula azken urteotan. Eta, hori aski ez balitz, hasia du, guztiok dakigunez, gure "Lekukoen" bilduma. Badirudi, gainera, jendea, lehen ez bezala, zaletua dugula eginbide horietan. Horrelaxe, gero eta ugariagoa izango dugu uzta hori, behin inprentan pasa ondoan nekez galtzen diren horietako baitugu.

Ez dut, noski, gogorazi beharrik, edonork baitu gogoan, hiztegi kontuan egiten eta agertzen den lanaren aberastasuna. Ez dut hemen aipatu baizik egingo eta, aipatu, hemen aipatu dut, aurrera segi baino lehen, lekuan lekuko hizkeraz dakiguna hiztegi eta hiztegitxoei eskerrak dakigulako gehienbat.

Honako honen gisako esaldiak egunoro irakur daitezke aspalditxoan: "Hizkuntza dugu, zeharbidez bederen, zentzuaren mundutik hotsen mundura joan eta itzuli bitarteko dabilen mandataria". Hotsek badute, bada, nahiz izkutuagoko zerbaiten ezaugarri izan, beren nortasuna, askori dirudienez maldagora egiten zaiona. Halaz guztiz, hotsei ere ekin beharko diegu bilketan hasten bagara euskalkietan barrena. Eta fonetika-fonologietan langile treberik behar badugu, trebatu beharko ditugu aldez aurretik, inor ez baita jaiotzen trebe, belarri onaren jabe izanik ere, ez lanbide horretan ezta beste askotan ere.

Ikaskuntza horiek ere, dena den, bestetarako utziak ditugu, Euskaltzaindiaren erabakiz. Egia da fonologia eta gramatika ezin puskatuzko loturaz elkarri datxetela, de Rijk-ek Arrasaten erakutsi zuen bezala. Metodoak, ordea, bereiz ditzake eta aska sortzez eta izatez baturik daudenak ere. Gra-

matikaren arbola soil eta murrizteko asmoz, bazterturik geldituko dira oraingoz hotsei zuzenean dagozten xehetasun guztiak.

Gramatika, euskal-gramatika, landua izan da aspaldidanik, eta ongi landua ere bai, zenbait arrotzek aitortzen duenez. Ez da, haatik, esan horrenbestez gramatikaren eremu osoa, alor eta soro, erabat eta berdintsu aitzurtua zegoenik.

Gramatikaren bi zati izan dira, oker ez banago, biziki gogoko izan ditugunak, besteen kaltetan zenbait aldiz: morfologia (eta morfologiaren barrutian, aditz-morfologia izan da beti nagusi) eta, hortik urruti xamar, hitzeraketa. Sintasia, berriz, oraingo zenbaitentzat (eta XVII. mendeko Sánchez de las Brozas-entzat) gramatika osoaren pare dena, erromes eta umezurtz ageri da sarriegi: ez duzue, diodanaren lekuko, Ithurry-ren *Grammaire basque* zabaltzea besterik. Gure arteko erregelaren ondorio baita, ez inolazko salbuespen.

Batasun-bideetan ere, morfologia izan dugu nagusi, hala beharrik. Formari lotu baikintzaizkion lehenik, zentzu-muinean sartu aurretik, eta ez zen burugabeko jokabidea. Axaleko ñabardurak dira, izan ere, nabarmenak eta itxurari gengozkiola sakoneko bereizkuntzak tapatu genituen, zikin garbinahiak egin ohi duenez.

Orain, ordea, goragoko mailara igoak gara eta formak oraingoz ahatz genitzake. Formarik gehienak, premiazkoenak behinik-behin, batuak daude. Inork esan dezake paperean daudela batuak, baina ez da agian konturatzen ez dela batasunik paperetik abiatuko ez denik. Badakit, ohartzen naiz, zenbat falta zaigun eginbide horretan bertan, baina hutsune hori hutsaren hurrengo da bestetan eskas dugunaren aldean.

Bestetango hori hauxe da: forma soilak nola erabil jakin behar dugu eta, jakingo badugu, nola erabili eta erabiltzen diren aztertu. Gramatika bideak, diodan bidenabar, bat baino gehiago dira (gehiegixko ere bai, ikasi behar dituztenentzat), baina guztiek helburu batera daramate. Nahiz gramatika harako filologiko-historiko gisakoa izan (a, *Ausführliche Grammatik* derizten haietakorik bagendu gurean!), nahiz tradizionalista, nahiz estrukturalista, hemengoa zein Ameriketakoa (sintasi kontuan aski elkorra izan da, Europan behintzat, joera hau), nahiz gisa bateko edo besteko sortzaile eta bilakatzailea. Izen berezien azpian izan komuna datza: hizkuntzaren joskera, aspaldiko hitzak oraindik ere balio baldin badu.

Nik ez dakit zer esan hauta ditzakegun aztergaiei buruz. Dena ez bada ere, egiteko dago gehientxoa. Arrasaten irakurri ziren lanak ez ditut, zoritxarrez, ezagutzen oraindik. Halaz guztiz, eta eskatu zidatelako bakarrik, gaizerrenda aurkeztua dut neronek, gehitzekoa, laburtzekoa, moztekoa edo zeharo ezabatzekoa.

Har genitzakeen bideen artean, bat iruditzen zait hobestekoa. Hor ditugu hemen, gure artean, agertu diren lanak, artikuluak eta liburuak: ez dut inor

aipatuko, besterik ixilpean geldi ez dadin merezi ez duelarik. Arrotzenak ere baditugu, agertu berriak: Jacques Allières-en *Méthode pratique de Basque,* lorategi eder batez hornitua, hain gogoko ez duenak jo beza Wilbur-en *Prolegomena to a grammar of Basque*-ra. Hor daude, gainera, besteak beste, Rudolf P. G. de Rijk-en lanak. Batzuek eta besteak irakurri ondoan, komeni litzaiguke eztabaida bizi bezain baketsuren bat izatea. Baten ordez anitz badira, hainbat hobeki.

Gaien aukera egiten hemen abia gaitezke eta orain bertan hasiko bagina erabakitzen zein litzatekeen aurrean ditugun auziak aztertzeko eta eztabaidatzeko modurik erosoena, ez genuke astirik galduko. Ea, bada batzuen eta besteen artean delako programaketari ekiten diogun.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

Apirilaren 17 eta 18an *Euskaltzaindiak* Batzarre berezi bat egin du Hondarribian, Arrasaten hartutako erabakiari jarraituz, gramatika azterketa lanei bultzada emateko.

Beharrezkoen ditugun zenbait gai aurkeztu ondoan, Batzordea izendatu da:

Buru: P. Lafitte
Buruorde: J. Haritschelhar
Idazkari: P. Goenaga
Idazkari orde: M.ª P. Lasarte

eta batzorde lagun Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, eta gaur egun gramatika lanetan sartuak direnak.

Batzorde hau irekia da gai honetan lan egin nahi dutenentzat.

Lehenbiziko bilera, Donostian, Maiatzaren 29an izango dute, aldez aurretik Batzorde zuzendaritzak prestatutako gaiak finkatu eta lanei hasiera emateko.

Hondarribian, 1980.eko Apirilaren 18an.

DIALEKTOLOGI BILERAK

Bera-n, 1980, Uztailak 31 eta Abuztuak 1

Fr. L. Villasante

Hasierako hitzak

Ongi etorririk amultsuena eman nahi dizuet guztioi, euskaltzain nahiz gainerakoei, bilera hauetara etorri zareten guztioi.

Bilera edo elkar hizketa hauen hasieran hitz batzuk esatea omen dagokit. Bego. Baina hitz motxak izango dira, alde guztietarik ere.

Bilera hauen lehen pentsua nola sortu zen, eta zein den beroien azken helburua laburzki adieraziko dut.

Bilera hauen sorreraz eta helburuaz. Arrasateko Biltzarraren ondorio dugu asmo hau ere. Biltzar harek nolabaiteko segida izan zezan, batzorde bat jarri behar zela esan zen han, Gramatika batzordea baitipat. Batzorde hori ezartzeko egin ziren Hondarribiko bilerak. Gramatika batzorde iraunkor bat jarri zen Hondarribian, eta abian da, eta guztiok uste dugu batzorde horren jarrera, batez ere gerora begira, guztiz ondoriotsua izango dela. Behar dugun euskal Gramatika oinarrizko hori prestatzeko asko lagunduko duela, alegia.

Urte muga bat ere jarri zen euskal Gramatikari buruz Biltzar ospetsu bat antolatzeko: 1984, Kanpionen Gramatikaren mendeurrena.

Baina berehala ikusi zen, Gramatikarenaz lekora, beste sail bat ere bazela lehen-bai-lehen bultzatu eta landu beharreko premia gorrian: euskal dialektologiarena. Batez ere hil zorian dauden hizkera muetak jasotzea luzapenik gabe egin beharreko lana zela, zeren gero beranduegi izango baita. Jasotze lan hau, ordea, edonork egin dezakeen gauza ere ez da. Halako eskola, teknika edo gidaritza baten jabe izan behar du horretan dabilenak, eta, hain zuzen, horretarako, jasotze lan horretan ibiliko direnei gidaritza hori emateko, beharko zela kurtsilo edo ikasaldi bat gertatu, zenbait espezialistari kurtsilora dei eginez. Aurretik beste dei bat ere egin beharko litzateke ikasaldi horretan zenbat ikasle guti gora-behera izango genukeen jakiteko. Ikasaldi hau noiz emango den ere esan zen: datorren urteko udaberri aldean edo. Noren izenaz bataia daitekeen, bai ikasaldia eta bai beronen fruitu izango den taldea ere

esan zen: Bonaparte printzipearen izenaz, zeren bera izan zen euskal dialektologiaren sailari berealdiko bultzada eman ziona.

Eta ikasaldi hori bera prestatzeko, beste bilera koxkor batzuen beharra ere ikusten zen, eta, hain zuzen, horiek dira gaur eta bihar hemen Bera-n egin behar ditugunak.

Oker ez banaiz, Gasteizen, Euskaltzaindiaren zuzendaritza bildu zeneko egun batean, hots, Otsailaren 12an, azaldu zen bilera hauen lehen pentsua. Mitxelena jauna izan zen, gainera, proposatu zuena.

Jakina, gauza hauek oraindik pixka bat airean daude. Zehaztu, findu eta mamitu beharra daukate.

Beraz, gaur eta bihar egingo diren bilera koxkor hauek heldu den urteko ikasaldi hori prestatzeko edo prestatzen hasteko egiten dira. Denon artean ikusi behar dugu, alegia, nola antola daitekeen ikasaldia, nola ikasleak deitu ikasaldirako, ikusi nortzuk izango diren bertan irakasle, ikasaldian zein gai edo ikasgai aztertuko den, etab.

* * *

Euskaltzaindia beti arduratu da euskal dialektologiaren sail honetzaz. Zilegi izan bedi, hori frogatzeko, Erizkizundi Irukoitza gogoratzea (nahiz eta, dirudienez, euskara baturako asmoz egin bazen ere). Laster emango dizkigu Ana Mari Etxaidek bilketa horiek edizio mardul batean. Guztiok dakigu, gainera, zer -nolako azterketak egin zituen Azkuek sail honetan: "Aezkera", "Particularidades del dialecto roncalés", etab. Aita Intzak ere Burundako euskalkia aztertu zuen. Etab.

Barandiaranen bilketa lanak, nahiz eta berez etnologiara buruz zuzenduak izan, herri euskara ezagutzeko zenbat lagundu duten ez da ez dakienik.

Nolakoa den biltzailearen asmoa, xedea edo helburua, halakoa izan ohi da bilketa ere. Etnologi gaien ondoren dabilenak eta hizkera bera jaso nahi duenak ez ohi dute beren lana berdin egiten. Guk hemen nahi ditugun bilketak hizkuntza bera dute helburutzat. Horretarako biltzaileak teknika berezi baten jabe behar du izan, eta teknika horretzaz jabe dadin izango da ikasaldia.

Itsu-mustuan eta bat-batean jendeagana joan eta hizkuntz galderak egiteak ez du gehienetan atarramendu onik izaten. Herriko jende xeheak nekez konprenitzen du zertarako egiten zaizkion galdera horiek, eta batzuetan ez dute ongi erreakzionatzen. Iruditzen zaie beste asmo edo intentzio gorde batekin gatozela, edo irri egitera, beren hizkeraz burla egitera edo ez dakit nik zer, eta orduan zabaldu beharrean itxi egiten dira, eta ez duzu deus ateratzen.

Behin fraide bati bere amarekin gertatua kontatuko dut. Fraideak hitzen bat entzun zion eta eskatu zion berriz esateko hitz hura, ondo ikasteagatik, noski. Eta hark hara nola erantzuten dion: "Hauxe dok pa. Oin etxuagu euskerarik pe jakingo".

Ateraldi honek zer salatzen du? Hizkera xelebre, barregarri, txarra edo zuelako konplejoa sartu zitzaiola, semeak galdera hura egin zionean.

Honelako konplejoak aienatzen ez badira, ez dago ezer egiterik.

Pertsonaren konfiantza irabazi beharra dago, eta behingo bisita batekin beharbada ez da hori lortuko. Behar da pertsonak naturaltasun osoz hitz egin dezan, beldurrik gabe, lotsarik gabe. Konfiantza lortzen duzunean, bai, egiten dituzu, beharbada, aurkiketa miraritsuak. Aita Gandiaga urte batzuetan Araozko auzoan apaiz lanak egiten ibili zen. Etxeetara joan behar izaten zuen gaisoak bisitatzera, etab. Horri eskerrak, etxekoen konfiantza zuelako, eta ez bestela, kanta zahar zoragarriak jaso ahal izan zituen: "Soldadu sartu nintzan", "Neskia soldau", etab.

* * *

Guk orain tresna bat daukagu, oraintsura arte ezagutzen ez zena: Magnetofoia. Gure aurrekoek tresna hori gabe lan eskerga eta estimagarria egin dute: Azkue batek, Barandiaranek, Barbier-ek, Mayi Ariztiak etab. Ondo gaitzesgarriak izango ginateke gu, tresna hori dugularik, deus egingo ez bagenu.

Batzuetan egoten naiz pentsatzen gerokoek zer esango ote duten gugatik. Euskal Herrian hizkera mueta asko daude hil zorian, ez daude jasoak, ez ditugu ongi ezagutzen, orain jasotzen ez badira gero berandu izango da, euskara batuak edo erdara batuak irentsiko ditu. Ikerketarako iturri baliotsuak betiko galduko dira. Lan hori egiten ez badugu, errudun izango gara herriaren aurrean eta gizaldi berrien aurrean.

Ez dut esaten deus egiten ez denik. Satrustegi jaunak badakit zinta piloa duela jasorik. Baina oro har, gutiegi egiten dela uste dut.

Aita Kandido Izagirre pazientzia handiz eta gehienetan magnetofoi gabe ibili zen Arantzazu inguruko hizketa aztertzen. Igande arratsaldeetan joaten zen baserrietara, agure zaharren bat sukalde bazterrean aspertzen zegoela zekien tokira. Holakoei galderak eginez burutu zuen bere lana. Saritzat puroren bat ematen zien berri emaileei, eta horrela, eta urteetan lan eginez, Arantzazuko euskera moduaren deskribapen bat utzi digu.

Txosten labur hau bukatu aurretik, Eskolaren inaugurazioan A. Villasantek egindako sarrera hitzalditiko bizpahiru ideia eskaini nahi nizkizueke, une hartako izpirituaren adierazgarri gisa. Itzulpenak gure artean dituen zailtasunen zerrenda egitean, Axularrek jadanik esan bezala euskarak beste hizkuntzekiko duen diferentetasuna aipatu zuen; bateratuta eta normalizaturik ez egotea, gizarte emaile eta eremu askotan gutxi erabili izana bezalako arrazoiak aipatu ondoren, azkeniko: "gu geuk, euskaldunok, geure mendean hain zuzen, gauzak diren baino zailago bihurtu ditugula" esan zuen A. Villasanten eta Kresalaren hitzaurrean Tx. Agirrek idatzia zekarren horren lekukotzat ("errezago ipiñi bearrean, dana ipiñi dogu geroago eta gatxago).

Hainbeste mendetako tradizioari uko egin eta hertsikeria baten ondorioz, euskara, zekarren bidetik saihestu eta bakar bidetik eraman nahi izan dugula zion Villasantek. Eta hara zer galdetzen zuen: Baina euskara bakar bidean jartzea ez ote da hilobira bidean jartzea, irteerarik ez dagoen *impasse* batera hizkuntza eramatea? Zuek, Eskola honetako ikasle-irakasleok, problema nahasi horietan argi egiten lagundu beharko diguzue.

Hona hemen Euskaltzainburuak egin zigun erronka. eta nik gaurko aukera honetaz baliatuz, euskaltzainoi, zuei guztioi ere egin nahi nizuekeena. Itzulpen on eta zehatzak, mezua ongi emanez euskararen berezko legeak errespetatuko dituenak, gero eta segurtasun eta ekonomi handiagoz egin nahi baditugu, alde batetik euskararen erabiltze soziala areagotzen biziki saiatu beharrean gaude eta bestetik ari garen bidetik, zentzuz eta orekaz, tradizioa eta euskara bizia uztartuz euskara finkatzen eta bateratzen ahalegindu behar. Ez dakizue zenbat eskertzen dituen itzultzaileak Euskaltzaindiak, azken aldiotan hartutako erabakiak, batzutan har zitezkeen onenak ez direla jakin arren ere!

Besterik ez, eskerrik asko entzuteagatik eta zuen eskura nauzue galderaren bati erantzun beharrik balitz.

POLIZI ERAKUNDE EZBERDINEN IZENAK DIRELA ETA EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

Bera, 1980-VII-31

Aspaldi honetako Autonomi giro berriak bultzaturik, euskarak gero eta sarrera handiagoa hartuz doa gure gizartean, eta Euskaltzaindiari gero eta eskari galdera gehiago etortzen zaizkio erakunde ofizialetatik, Udaletatik batez ere.

Zirkulazio-ezaugarri hiztegia aztertzerakoan, hitz batekin aurkitu da Euskaltzaindiko batzordea, erabilera zabala eta garrantzi politiko aski duena: *"policía"* hain zuzen, baina bere aniztasun guztiekin. Bestalde, zenbait Udaletatik, "policía municipal" hitzaren euskal bertsio eskatu digute eta honi erantzun beharra daukagu, ze era desberdinetara agertzen hasia baita.

Administrazio hitzak berez duen garrantzia eta eduki behar duen zehaztasuna kontutan harturik, Euskaltzaindiak antolatua du batzorde berezi bat eginkizun horretarako, eta beronen fruitua, han zuzen, oraintsu burutu eta onartu den Zirkulazio Hiztegia izan da.

Kezka berberori gogoan daukalarik eta polizia autonomoa laster eratuko den berriaren aurrean, erakunde hori, eta berorekin zerikusia duten besteak euskaraz izendatzeko moduaz, proposamen bat egitea nahi du, bai Gobernu, Legebiltzar, Diputazio, Batzar Nagusi, Foru Parlamentu, Udal eta gainerako erakunde eta elkargoei.

Zenbait oinarri:

Polizia.—Grekotik datorren hitz hau Europako kultur hizkuntza gehienetan onartua da (esp., port., kat., frants., alem., ing., errus, etab.) eta herriusarioan euskaraz ere ongi erroturik dago. Beharrezkoa dugu, gainera erakunde hori jeneralean esateko *("Alemaniako polizia", polizia sekretua, polizi elaberriak...")*, bai Euskal Herriari doakionez eta bai, zer esanik ez, atzerrikoa aipatzeko. Hitz internazionala da, beraz.

Zenbait hizkuntzatan, ingeles, aleman eta frantsesez kasu, zerbitzu edo kargu hori, batetik, eta bera betetzen duten pertsonak bestetik, izen ezberdinez bereizten dira: ing. *police / policeman (policewoman);* al. *Polizei / Polizist (Polizistin);* fr. *la police / le policier.* Hala ere, beste batzutan ez da horrela

gertatzen, kargu eta pertsonak izen berberaz adieraziz: esp. *la policía / el policía.* Beronen eraginez edo euskarak ere hitz bakarra du: polizia, biak adierazten dituena.

Ertzaina / Ertzaingoa.—Polizia hitza, oro har, nazioartekoa den arren, herri askotan horrez gainera ba dute besterik ere bertako polizia nazional propioa adierazteko, hala nola Frantzian *gendarmes* edo talian *carabinieri.* Gure ustez, hauxe da euskal polizia autonomoarekin gera daitekeena.

Dakigunez, 1936.ean Jose Antonio Agirrek *ertzaña* izenaz Euskal Gobernu Autonomorako polizi erakunde propio bat sortzerazi zuen. Erakunde honek gerra arazoagatik luzaro iraun ez arren, gutxienez, izenak halako tradizioa jarri zuen.

Izen hori, nolanahi ere dela, zenbait udaletan, bertako zainak adierazteko, *ertzaina, hertzaina,* berragertzen hasi da oraintsu.

Hori guztiori dela eta, euskal polizia autonomoa adierazteko *Ertzaingoa* (zerbitzu edo kargua) eta *ertzaina* (pertsona bakoitza), idazkera honekin ontzat ematea eskatzen dugu, bestearekin nahasterik ez sortzeko.

Herrialdeetako polizia propioak.—Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan ba dira edo berbiztuko dira, bestetik, lehendik datozen polizi erakundeak ere: Foralak (Bizkaia, Nafarroa); Miñoiak (Araba) —Ofizialki Bizkaiko Diputazioa ere hitz hori erabiltzen derrigortua izan zen—, eta Mikeleteak (Gipuzkoa). Gure ustez, eta Autonomi Estatutuaren arauera, beren horretan eta izen jator horiekin gorde beharko lirateke.

Udal polizia.—Aurrekoez gainera beste polizia ere ba da, udal eremuetan erabilia, erdaraz *guardia municipal, agente de la Policía Municipal* ere deitua. Honetarako, *udaltzaina* (pertsona) eta *Udaltzaingoa* (zerbitzu edo kargua) proposatzen ditugu, izen zehatzak izateko. Ez baita polizia bere zentzu osoan, ez eta, *ertzaina* = policía autónoma vasca.

Beraz, euskararen terminologi zehatz eta uniboko, polizi zerbitzu ezberdinen artean nahasterik sor ez dadin, Euskaltzaindiaren ustez, honako hitz hauek ontzat ematea komeniko litzateke:

Polizia: policía.
Ertzain: agente de la policía autónoma vasca.
Ertzaingoa: Cuerpo o servicio de la policía autónoma vasca.
Udaltzain: agente de la policía municipal.
Udaltzaingoa: Cuerpo o servicio de la policía municipal.
Zirkulaziozain: guardia de circulación.
Zain, -zain: guardia, agente de policía, de montes, etc.
Zaingo-zerbitzuak: servicios de orden.
X alderdiaren zaingo zerbitzua: servicio de orden del partido X.
Basazain, igurain: guarda forestal, montero.
Mugazain: guardia fronterizo, policía de fronteras.

Itsas-zain: guardia o policía marítima.
Urzain: guardia fluvial o de pesca.
Jagole: vigilante (Bizkaiko hitz hau "vigilante" adierazteko utzi daiteke, zain hitzari esangura gehiegi ez emateko).

Modu honetara, zerbitzu ezberdinen artean hitz banaketa egokia egingo genuke gure hizkuntzaren onerako, eta erakunde autonomoen terminologi finkatzearen mesedetan.

* * *

Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia sobre los nombres de diferentes instituciones policiales*

Gracias al impulso dado por las nuevas circunstancias autonómicas, la lengua vasca va progresivamente ocupando más espacios en nuestra sociedad, y a esta Academia le llegan cada vez más peticiones y consultas procedentes de las instituciones oficiales y especialmente de los Ayuntamientos.

A la hora de examinar el vocabulario de las señales de circulación, la Comisión pertinente de la Academia se ha encontrado con una palabra que tiene un amplio uso y bastante importancia política. Se trata de la palabra "policía", pero con toda su multiplicidad. Por otro lado, de algunos Ayuntamientos nos han pedido la versión vasca del concepto "policía municipal" y tenemos que dar una respuesta, teniendo en cuenta que ha comenzado a aparecer de formas diferentes.

Considerando la importancia que de suyo tiene la palabra administrativa e igualmente la precisión que debe poseer, la Academia tiene dispuesta al efecto una Comisión especial y su fruto ha sido el Vocabulario de la Circulación que acaba de ser concluido y aprobado.

Con la misma preocupación y ante la noticia de que pronto ha de organizarse la policía autónoma, desea hacer una propuesta sobre el modo de designar en lengua vasca esa institución y las demás que tienen que ver con ella, para el Gobierno, el Parlamento, las Diputaciones, Juntas Generales, Parlamento Foral, Ayuntamientos y demás instituciones y entidades.

Algunos principios:

Policía.—Esta palabra, que procede del griego, ha sido aceptada en la mayoría de las lenguas cultas de Europa (esp., port., fran., alem., ing., ruso, etc.) y también cuenta con un arraigo en el uso popular de nuestra lengua. Nos es necesaria, además, para nombrar de modo general a esa institución ("la policía de alemania", "la policía secreta", "novelas policíacas"), tanto por

* Traducción de la moción académica aprobada por unanimidad.

lo que respecta a nuestro país como también, claro, en relación con contextos de fuera de él. Es, pues, una palabra internacional.

En algunos idiomas, por ejemplo en inglés, alemán y francés, ese servicio o cargo, de una parte, y las personas que lo desempeñan, de otra, se distinguen con sustantivos diferentes: ingl. *police / policeman (policewoman);* al. *Polizei / Polizist (Polizistin);* fr. *la police / le policier.* Sin embargo, en otros no ocurre así, designándose con la misma palabra el cargo y las personas: esp. *la policía / el policía.* Por esta influencia seguramente, la lengua vasca tiene una sola palabra: *polizia,* con los dos sentidos.

Ertzaina / Ertzaingoa.—La palabra "policía", en general, a pesar de ser internacional, convive en muchos pueblos con otra que designa la propia policía nacional, v. g., en Francia *gendarmes* o en Italia *carabinieri.* En nuestra opinión, esto es lo que puede ocurrir con la policía autónoma vasca.

Es sabido como en 1936 José Antonio Agirre creó una institución policial propia para el Gobierno Autónomo Vasco con el nombre de *ertzaña.* Aunque esta institución, por los avatares de la guerra, no tuvo duración, al menos el nombre marcó una cierta tradición.

Sea como fuere, ese nombre ha comenzado a reaparecer hace poco en algunos Ayuntamientos para designar a los alguaciles municipales, *ertzaina, hertzaina.*

Ante estas circunstancias, pedimos que para designar a la policía autónoma vasca se dé por bueno *Ertzaingoa* (servicio o cargo) y *ertzaina* (cada persona) con esta grafía, con el fin de que no surjan confusiones con la otra.

Policías propias de las provincias.—Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya tienen y habrán de volver a darles mayor relieve, por otro lado, sus instituciones policiales que vienen de antiguo: los forales en Vizcaya y Navarra, los miñones en Alava —término éste que fue forzada a utilizar la Diputación de Vizcaya—, y los miqueletes en Guipúzcoa. A nuestro juicio, y de acuerdo con el Estatuto de Autonomía, debieran conservarse y hacerlo además con esos nombres.

Policía municipal.—Además de los anteriores hay también otra policía, que se emplea en las circunscripciones municipales, en castellano "guardia municipal", también designado "agente de la Policía Municipal". Para ésta, proponemos *udaltzaina* (persona) y *Udaltzaingoa* (servicio o cargo), para que sean nombres con la debida precisión. Y es que no es policía en todo su sentido, ni tampoco *ertzaina,* es decir, policía autónoma vasca.

Por consiguiente, para disponer de una terminología precisa y unívoca en lengua vasca, y con el fin de no crearse confusiones entre los diferentes servicios policiales, en el criterio de Euskaltzaindia convendría aceptar las siguientes palabras:

Polizia: policía.
Ertzain: agente de la policía autónoma vasca.
Ertzaingoa: Cuerpo o servicio de la policía autónoma vasca.
Udaltzain: agente de la policía municipal.
Udaltzaingoa: Cuerpo o servicio de la policía mnucipal.
Zirkulaziozain: guardia de la circulación.
Zain, -zain: guardia, agente de la policía, de montes, etc.
Zaingo-zerbitzuak: servicios de orden.
X alderdiaren zaingo zerbitzua: servicio de orden del partido X.
Basazain, igurain: guarda forestal, montero.
Mugazain: guardia fronterizo, policía de fronteras.
Itsas-zain: guardia o policía marítima.
Urzain: guardia fluvial o de pesca.
Jagole: vigilante (esta palabra de Vizcaya puede dejarse con la significación de "vigilante", para no dar demasiados significados a la palabra *zain*).

De este modo haríamos una distribución adecuada de palabras entre los diferentes servicios para bien de nuestra lengua, y en favor de la fijación de la terminología de las instituciones autónomas.

EUSKAL ALFABETATZE EKINTZAREN LEHEN ITURRIAK

Donostia, 1980-XII-19

Jose M.ª Satrustegi

Korrika Euskal Herria izeneko ibilaldi luzea egin berri da gure artean. Lehenbiziko kilometroa, Oñatiko Unibersitate aurrean lekukoa harturik, nik egin nuen. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeko eratzaileek ez zekiten orduan Alfabetatze mogimendu guziaren lehen abiadan ere, oraintxe dela hamabost urte, neu han nintzenik.

Honela gertatu ziren gauzak: Baionako *Musée Basque* delakoan egin zuen 1965.ko Azaroaren 28an hilabeteko batzarra Euskaltzaindiak. Hiru gai aipatzen zituen deiak:

- Lafitte: *Jakitatezko liburuez.*
- Satrustegi: *Euskaltzaindia zer den. Zer espero den laguntzaileengandik.*
- Haritschelhar: *Frantziako batxillerato ta estudio nagusien erreforma ta euskera.*

Hiru hitzaldi hauek ez ziren EUSKERA aldizkarian argitaratu eta aurrera joan baino lehen komeni da, behar bada, neuk esandakoak hitzez hitz hemen ematea. Hara zer nioen:

"Andere eta Jaun euskaltzaleak: egun on!

Beti aditu izan dut, nunahi mintzatzeko hiru gauza direla behar: erraiteko zerbait ukan, erran beharrak erran ta, gero, bakea eman.

Suiet faltan enaiz ixilik geldituko, bat dut nun zila! Ez nehori sala, bainan aski aitzinetik abisatia nintzen: banakien zertaz ari behar nuen.

Hortan dut, justoki, koropiloa. Odre batzu errezibitiak eta nihauk, bertzalde, nihaun erraitekoak ere ba! Ez sobera luzatu nahi eta ez jakin nundik has.

Erran zaharrak dioen hura, *apezak azken hitza bere* entzun ez dezadan, nihaunez abiatuko naiz lehenik.

Ene hezur mamien eta barneko ahalmen guzien bozkarioa zerbait zen berriz Iparraldera itzultzean, aspaldiko partez. Urte t'erdi anixko zitzai-

dan ziengana gabe. Aitaren eskutik auzo herriko festetara doan haurra bezala abantxu.

Zertako erran ikusteko haundia badudala ziekilan? Anitzek ezagutzen nauzue. Adiskide berriendako erranen dut, Luzaide erdi ziena duzuela —ez erraitaegatik zango puntatik bururainokoa—: eta ni arrunt luzaidartua. Nola ukatzen ahalko dut zuenganako atxikimendua! Gogoan ditut Belloc-eko bilerak, Euskaltzaleen Biltzarrak..., eta lagunarteko hainbertze oren goxo.

Anitz da nere zienganako zorra. Eskol ona atzeman nuen. Ahal guzia egin dut ziengandik ikasten. Nehor aipatu gabe, mila esker denoi. Hain bihotz onetarik hartua nuen adiskidantza ez dut berehalakoan kitatuko.

Hortako nintzen hain konten ziengana itzultzean.

Euskaltzaindiko lagun maiteok, barkatuko duzue ene ausartzea. Badakit ez nintzela huntara etorria. Bainan, bihotzak baditu arrazoinak ez ditzakeenak adimenak ikus.

Ene erraitekoak bi pundutan dira: 1) Euskaltzaindia zer den. 2) laguntzaileek zer egin dezaketen.

I. Euskaltzaindia

Ez alda hori hitz bitxia? Jaunak ez naiz kopletan ari. Mattin eta Xalbadorrek gustian irri egin lezakete. Bertze gisa ere aski atakatia naute; ez diet plazer hori emanen.

Hala ere, hain bitxia ote?

Ene iduriko, ez. Ahuntzak zaintzen dituena baldin bada *ahuntzaina,* eta ardien ondotik dabilena *artzaina,* xuxen da euskara eta euskararen gauzak zaintzeko karguan denari *euskaltzaina* erraitea. Euskaltzain horien elkargo edo batasunari erraiten diogu Euskaltzaindia.

Euskara zaintzeko lanbide honetan baditugu bi sailetako jokabideak: a) egunoroko bizian euskara edertzeko, zabaltzeko eta finkatzeko lana egiten dutenen maila, eta b) euskararen erroak, hitzen iturburua, eta bertze lengoaia batzukin dukeen ikustekoa xekatzen, ikertzen eta aditzera ematen dutenena.

Lehenbiziko mailan sartzen dira euskal besta, bertsolari txapelketa edo antzerki saioak egiten dituztenak. Baita ere, eskolak emanez, dantza ta kantuz, radioz ala egunkarietan euskal gauzen zaletasuna ta suia zernahi gisaz pizten dutenak. Eta bereziki, Euskaltzaindiari dagokionez, gure mintazira edatzen eta edertzen ahalegintzen direnak.

Orotan gertatzen dena: nork ez daki zer diren treinak, itsas untziak, airezkoak? Ez gara konturatzen zenbat gizonen izerdiak eta zenbat lan

mota behar izan diren munduan orain ditugun tresna horietara heldu orduko. Batzu dira paper hutsean aintzinamendiak asmatzen dituztenak, eta bertze batzu errauts koloreko leiho batzutarik mia-ta-mia handik hunat kurriazten dituztenak, ez aipatzeagatik beren xapel ilunekin bide bazterretako xeilak idek eta zerra ogia irabazten dutenak.

Eta denak beharrezkoak! Treinak egitea gauza haundia baldin bada, ibiltzailerik gabe zoin bere zokoan beharko luke egon. Ez eginaren pare.

Konpreintu duzue zer erran nahi dutan. Euskara aintzina ateratzeko lan huntan ere badira hortzak eta haginak untsa miatuz, xehetasunak jakin nahiz dabiltzen jakintsuak; baita ere, luzaz bizi dedin egunoroko bazka eta, giro hotza delarik su pindarrak hurbiltzen entseatzen direnak.

Bai maila batean nola bertzean euskararen alde lana eginez gehienik ageri gizonak sartzen dira Euskaltzaindian.

Baditugu, bertze alde, euskaltzain osoak eta laguntzaileak lankide hauen artean. Osoak hemezortzi izaiten ziren orain arte; hemendik aintzina hogei bat behintzat izaiten ahalko dira. Laguntzaileak, erran nahi bait da, euskararen alorrean serioski jokatuz zuen izenak Euskaltzaindiko laguntzailetzat ikusi dituzuenak bazarete askoz gehiago. Eta Jainkoak nahi dezala ez zaitezten ttipituz joan. Hori izango da gure euskara maitearen iraupenerako ezaugarririk hoberena.

II. Laguntzaileak

Hemen heltzen naiz orain, errana zidaten bigarren pundura: *zer espero dugun laguntzaileengandik.*

Euskaltzale maiteok: nik orain erranen ditudanak ez hitzezkoak, ez! Bihotzetik bihotzera biziaren odol gorriz, barneko suaz, amodioz..., ez dakit nola erraitekoak diren.

Norbait balitz hemen urre hotzaren atzaparretan erori eta diruarendako bakarrik bizi dena munduan, berdin izango zaio ez entzunik; ez nau konprenitzen ahalko. Aintzinamendia, tresneria edo teknika hutsa baldin baduzu jainko bakarra, joaiten ahal zira gustian zeure tresnetara; ez dute nere hitzek zurekin deus ikustekorik.

Euskara ez da tresna bat. Ez da lehen aipatutako treina, ez itsas-ontzia, ez airezko edo egazkina. Euskarak arima badu, oraindio bizi da. Harri bilakatzen hasia eta harjoa baldin bada ere, badu bihotz bat: hemen bildutako multxoa eta, gu bezalako bertze frangoren bihotz euskalduna.

Laguntzaile maiteok: zeren beha daukazuen, ez Euskaltzaindia bakarrik, hiltzeko zorian jarria dugun euskara batez ere? Zer espero dugun zuengandik?

Haize bolara frexkoa bularrak astintzeko, eta berogi puxi bat hotzak hiltzen ez uzteko. Sobera galdegiten duta?

Halta, horrekilan beharrezkoena bagenu. Hori gabe deus ez.

Etsairik haundienak ez ditugu kanpotik haunkaz ari zaizkigunak. Horiengatik milaka urte iraun du eta gehiago ere iraun lezake euskarak.

Ez dituzue ikusi oihanetako gaztain zaharrak? Haize eta mendebal guziak garaitu ondoan, odol hustuz, harrak janik, errausturik hiltzera dihoaz:

Joan da sortetxearen
amets zabala
negu aldean ainaren
siska bezala...

Hauxe Euskal Herriaren
ezin ahala!

Odol hustuz hilaren
hezurra dala
ah! gaztain haundiaren
azken itzala:

Hauxe Euskal Herriaren
hiltze petrala.

Euskaltzaindiak lehenik eskatzen dizuena ez da jakitatea, amodioa baizik. Euskarari buruz guk baino gehiago dakienik bada munduan. Anitzendako ardia hilik berdin balio du: hezur miatzen izango dute lana. Bihotz gabeko jakintza hori, jakitate hotza da. Ardia bizirik nahi duena artzaina da, eta Euskaltzaindiak horrela nahi luke euskara. Amodio haundi bat dugularik gure baitan ongi etorri jakinduria.

Zuen euskaltzaletasuna erakutsi nahi duzuenei erranen dizuet nola lana egin: gogotik, *nahikari haundi batekin*. Ahala baino mutil hobea, askotan, nahikaria.

Eta zertan lana egin? Edo nola? erranen du norbaitek.

Laborariak baino hobeki nork daki etxeko alorren berri? Zuk dakizu nun den zure herria, nola diren hango jendeak eta zer egin daitekeen. Bertzerik ez baduzu, hona hemen duela aste bat Erriberako jendetarik eta euskararik ez dakien lagun batengandik hartutako presenta: Bere sorterrian jendeek erraiten dituzten hitz euskaldunen bilduma. Ehunen bat hitz, hor nunbait.

Euskara mintzatzen ez den alorretan lana atzemaiten duenak gure laguntzeko, segur naiz zerbait eginen zuela euskaldun izanez eta euskaldunen artean bizi balitz.

Haundia da euskarari buruz gure jendeek gorderik daramaten aberastasuna. Herriarengana joaitean ikastera joan behar genuke beti, Plazer hartzen dute berek eta gu gaituzte aberasten.

Aisa da apez batendako katexima galdegitea; baina fantesi tzar bat baizik ez litzateke horrekilan bertze gauza guziak ere badazkiela uste izaitea. Aski luke edozein Perrando Amezketarrek ardiek zenbat hortz duten galdegitea, ala gainean edo beherean dituzten erranez atakatzea, behar bada, bere uste husteletarik ateratzeko.

Hor dira erran xaharrak, kontu kontari aditzen diren gauza politak, hitz guti ezagutuak, gertaerak eta bertze hainbat ikasgai.

Hor dira etxe guzien izenak; alor, pentze eta mendienak. Bakoitzak bere herrikoak bilduko balitu jakintsuek burua nun hauts izango lukete.

Musikaria bazara edo ta bertsuak maite badituzu loriatuko zara aditzen diren gauza polit nahiz ederrez. Erakuts zeuk ere, denbora berean beste kantu batzu.

Idazteko erreztasuna baldin baduzu, zeuk dituzun aberastasun horiek bertze batzuei edatu. Eta bertzerik egiten ahal ez baduzu, argitu, nolabait sua piztu ingurukoek egin dezaten. Nork du euskaraz idazten?

Euskaldun guzion egitekoa da Gaztain Haundiari xerto berrien lotzen laguntzea.

Jainkoari esker, oraindio bizi da euskara, hain zuzen ere, bizi bait da gure arrangura. Noiz arte?

Geure eskuetan daukagu erantzuna. Zuk ere:

Eman ta zabaltzazu munduan fruitua.

Ez zen baketsua izan hitzaldi xume honek sortu zuen giroa. Lehenbiziko zatiaren aurka, han bertan Gabriel Aresti haserre jaso zen.

— Euskalzaindia zer den esan du Satrustegik eta zer ez den isildu, izan zen bere salaketa sutsua.

Denok dakigu urte harietako Akademia birrantolatzen ari zen elkargo bat zela. Gerra ondoko urteak ez ziren euskara berpizteko egokienak eta hala ere, gutxi edo asko, Euskaltzaindiak bere lana egiten zuen. Nungo elkarteak esan dezake beste horrenbeste jego Euskal Herrian?

Baina, nunbait, gauzak bideratzeko politika ere sartu omen zen zenbait izendapen egiterakoan. Horrela entzuten genuen, behintzat. Egoera oso txarra sumatzen zen eta, behar bada, bide bakarra ere hori ikusten zuten.

Aresti adiskideak hori zuen gogoan, eta bere salaketa sutsua eta bizia gertatu zen. Dassance jaunak hitz eztiekin, "Panier Fleuri" jatetxera abiatu behar genuela erran zion Iparraldean eguerdiz bazkaltzen dutela adieraziz.

Bazkal osteko aipamenak Dassance, Labéguerie eta Arrue jaunak egin zituzten. Michel Labeguerie, Arestiren goizeko salaketa gogora ekarriz hasi zen mintzatzen, Euskaltzaindiaren lana, asmo berriak eta izen ona bere lekuan ezarriz.

Arestik jarlekutik zutitu eta moztu egin zion: "ni goizekoan nago!!" esan zuen, mahai gainean zanpako bat emanez.

Biharamunean "Basque-Eclair" egunkariak honela jaso zuen hitzaldiaren mezua:

> *Aimer l'eskuara.* M. l'abbé Satrustegui a presénté avec talent les objetifs de base de l'Académie basque et insisté sur le rôle des membres correspondants.
>
> Les membres correspondants sont invités à s'unir à leurs efforts. Ils peuvent assiter aux séances mensuelles de l'Académie et prendre part aux discussions.
>
> S'adressant tout particulièrment aux nouveaux membres correspondants, l'abbé Satrustegui les a exhortés à persévérer au service de la langue basque avec une ardeur accrue: "Nous ne vous demandons pas d'etre des savants, mais d'aimer et de servir avec tout votre coeur notre belle langue".

Arratsaldean Museora itzuli ginen berriz "Lauaxeta" saria Ricardo Arregi zenari ematera. Lehen aipatutako frantsez egunkariak honela jaso zuen han gertatua:

> *Le prix du journalisme basque.* La plupart des personnalités réunies sous l'égide de l'Académie, se sont rendues en fin d'après-midi dans les locaux du Secrétariat basque où ce dernier organisme décernait pour la seconde fois le prix du journalisme en langue basque.
>
> Le prix 'Lauaxeta', tel est son nom, qui couronna l'an dernier M. Juan San Martin, d'Eibar, a ètè remis cette année par ce premier lauréat au jeune et talentueux chroniqueur de 'Zeruko Argia' M. Ricardo Arregui.
>
> M. Davant avait auparavant prononcé une courte allocution. Le nouveau lauréat a remercie dans une brillante improvisation.
>
> Un vin d'honneur a cloture la manifestation.

Euskaltzain urgazleei buruz esandako hitzak ez ziren basamortuan erori. Pozgarri izan zen niretzat zenbait egunen buruan Ricardo Arregik idatzi zidan gutuna eskuratzea. Hara zer zioen:

> Andoain'dik 1966'go ilbeltzaren 17'an
>
> Jaun apeza: Zuk Baiona'n esandakoak kontuan arturik laguntzaille gazte batzuek gure eginkizuna bete nai dugu Euskaltzindiaren barruan. Ortarako gure adiskideekin batera euskeraz irakurtzen eta idazten ez

dakiten euskaldunei ori egiten erakusteko jokabide batean pentsatu dugu. Ori ikus dezazun emen bialtzen dizkitzut bi orri multikopian ateratakoak eta beste euskaltzaiñei ere bidalitakoak gure asmoak agertuaz.

Gaiñera zu naparra zeran ezkero beste zerbait esan nai nizuke, ez ote legoke Naparro'ko beste euskaldunekin beste orrenbeste egiterik? Gu, gazte talde bat, prest gaude edozertan laguntzeko. Erakusleak eta guk arkituko ditugu ta ontarako Naparro'ko buru diranekin artu-emanetan jartzea komeni ote litzake? Zuk beste iñork baiño obeto jakin lezakezu, orregatik galdetzen dizut.

Uste dugu gure asmoak gogo onez artuko dituzula ta gurekin ados bazera zure botua proposatze onen alde emango duzula. Gaiñera billera ortara etortzerik ez baduzu ta zure iritzi proposatze oni dagokionez baiezkoa baldin bada, errespeto aundienarekin zure iritzia emanaz alik eta lehen Euskaltzaindiari idazteko eskatzen dizugu.

Denbora galdu erazi ez dizugulakoan eta aurrez aurretik zure borondate borondatetsuagatik eskerrak emanaz agur dizu zure serbitzari den RICARDO ARREGI'k.

Ricardo Arregik gutunean aipatzen dituen multikopiaz egindako bi orriak Euskaltzaindiari zuzendutako eskariaren kopiak dira. Honela zioen:

Euskaldunen Alfabetizazioa

Euskeraz dakiten geienek ez dakite ez euskeraz irakurtzen ez euskeraz idazten. Erri batek indartsu bizi nai baldin badu kulturaren beharra du ta gaur egunean kultura geien bat idatziaren bitartez zabaltzen da. Beraz Euskalerriak erri bezela indartsu bizi nai badu idatziari bideak zabaldu behar dizkio. Ortarako beharrezkoa da euskeran analfabetoa del Euskalerria alfabetitzatzea.

Xede ori bete naiean "Jarrai" taldeko gazteok jokabide bat proposatzen diogu Euskaltzaindia'ri, ahal den euskaldun geienei euskeraz irakurtzen eta idazten erakusteko. Ortarako alfabetizazioko kanpaña batean pentsatu dugu.

Onelako ekiñaldi batek bi eratako problemak dakarzki gertatu garaiean:

I. Theoria aldetik:
   1. Ikasgaiak gertatzea.
   2. Erakusleak gertatzea.

II. Praktikaren aldetik:
   1. Erakusleak arkitzea.
   2. Erri bakoitzean erakustokiak antolatzea.
   3. Erri bakoitzean "responsableak" arkitzea.

4. Zabalkundea egitea.
5. Diru kontuak erabiltzea.

Lehendabizi: puntu guzti auek betetzeko eta zaintzeko beharrezkoa da Euskaltzaindiak batzorde bat, komisio bat izendatzea.

Bigarren: kanpaña au betetzen asteko lau epe dira beharrezko:

1. Ikasgaiak gertatzeko.
2. Erakusleak gertatzeko.
3. Erri bakoitzean zabalkundea egiteko.
4. Kursilloak ematen asteko.

Ikasgaiak gertatu

Behar bada eginkizunik nagusiena. Kanpaña oni aurtengo urrillean asiera eman nai baldin badiogu ikasgai auek uztarako gertatu beharko dira. Gai auek gertatzea euskalki guztietako euskaltzaiñen eginkizuna izango da. Auek dira, gure ustean, erakutsi-behar aundienak: irakurtzen eta idazten. Baiñan beste puntu batzuek ere kontuan artzezkerotan: kanpaña au izango dela okasio euskeraren barruan batasunera jotzeko (orregatik komeniko litzake gai auek prestatzerakoan Euskal Idazkaritza'k Baiona'n egiñikako billeran erabakitakoak onartzea), baita ere euskaldunen iztegia ugaritu egin behar dela ta ortarako beste euskalkietaz zerbait erakustea beharrezkoa izango dela, etab.

Erakusleak gertatu

Ikasgaiak antolatzen ari diran bitartean "Jarraikoak" erakusle billa ibilliko dira ta uste dugu udarako behar aiña arkituko ditugula.

Gaiak gertatu ta erakusleak arkitu ezkero udararen barruan erakusle oiei kursillo bat emango zaie (eta onena au E. U. T. G. n egitea izango da). Kursillo oien bukaeran eta azterketa batzuen ondorenean Euskaltzaindia'k agiri bat emango dio bakoitzari euskera erakusteko ahalmendua dagola adieraziaz.

Zabalkundea egin

Urrilla baino lehenago, au da, erakusketak egiten asi baiño lehen komeni da ahal den leku geienetan aldizkari, irrati ta beste bide batzuen bitartez zabalkundea, propaganda egitea behar aundi au zabalduaz.

Erri bakoitzean kursilloak ematen asi

Bitarte onetan "Jarraikoak" arkitu izango ditugu erri bakoitzean erakusketarako tokiak, moduak eta ikasleak. Aurreko iru epeak behar bezela gertatu ezkero uste dugu urrilla ezkeroztik laugarren epe onekin asi gindezkela.

Kursilloetarako matrikulatzea beharrezkoa izango da ta bukaeran Euskaltzaindia'k agiri bat emango dio ikasle bakoitzari.

Diru kontuak

Geien bat diru kontuak ikasleen diruekin egingo dira. Matrikulatzea beharrezkoa izango baida eta ez debaldezkoa. Jakiña asiera batean beste nunbaitetik atera beharrean arkituko gera.

Ori da guk Euskaltzaindia'ri proposatzen dioguna.

Jarraiko

(Ricardo Arregi, Iñaki Beobide, Mikel Lasa euskaltzaiñ laguntzailleak)

Azkeneko lerroa multikopiaz ez baino bere eskumakinaz egina du Rikardok niri bialdutako paperrean. Biharamunean bertan erantzun nion, esanez:

Urdiain, 1966'ren Ilbeltzak 18
Ricardo Arregui jaunari
Andoain'en

Adiskide:

Orai berean artu dut zure 6'eko idazkia. Beste lan bat eskutan artu baiño len erantzun nahi dizut. Zurearen mamia garratzitsua derizait; ez ori bakarrik: beharrezkoa.

Nola? Zuk bide bat zabaltzen duzu eta oso egokia, nere ustez. Beste batzuk zer-edo-zer egiten saiatu gera orai baiño len. Gurea etxe barneko lana izan da... ez baidugu kanpora ateratzeko giro onik atzeman baztarretan.

Elkarren berri jakiteko esango dizut, duela zortzi edo bederatzi urte asi nituela nik Luzaiden (Valcarlos), aurren eskolak. Lehenik euskaldunekin, idazten eta irakurtzen erakusteko. Au lan arina gertatu zitzaitan. Eskola onek, eskuara gutxi zakiten aurren artean, gura sortu zuen: eskuara ikasteko gura. Eta lehenbiziko urtetik banituen ameka ikasle. Politena izan zen, erriko andereñoa ere gurekin eskolan asi zela. Berez Iruñerrikoa (Huarte-Pamplona'koa), etzen eskualduna, eta eskuara ikasi nahi izan zuen. Onek giro egokia sortu zuen errian eta bigarren urtetik

banituen erdaldunak ere. Lugo'ko Guardia Civil baten seme alabak ere antxe nituen egunoro.

Eskola aien ondorea pozgarria izan zen. Gurasoak konturatu ziren beren utzikeriaz eta, uste dut famili asko eskualdundu genituela errian. Ez poliziak, ez karabineroak ez ninduten iñoiz lan ortan oztopatu. Inguruan ezin nuen ezer egin, Orriaga eta Auritze (Burguete) erdaldun bai ditugu. Berdin Espinal.

Orai Urdiain'en nago. Erri eskualduna, haur eskualdunekin. Lenbiziko saioak egin ditut zuzen idazten asiazteko. Badugu Naparroan "Umeen Deia" izeneko aldizkaritxoa. Ilabetero ikusiko dituzu Urdiain'go aurren lantxoak. Abendukoan ere bost Urdiain'go aurren izenak atera ziren.

Zer gehiago egin ginezaken Naparroan?

Itz batez esango dizut: giroa sortu. Langileak ditugun erritan lana egiten da. Eta lana egiteko bidea bada. Alferrak kokatu diren erritan ez dut ikusten zer egin ginezaken. Iru edo lau erritan eskolak zabaltzea onarturik daukagu 'Pr̃ncipe de Viana'ren ardurapean eta babesean. Ikusiko dugu zer ateratzen ahalko den. Gaineko bultzaldia ona da: alare ez da aski.

Langileak sortzea obe da eta azpitik gorako indarrak begia gehiago betetzen dit.

Nola nahi dela zure eskabideak nere ongi etorri beroena merezi du eta ala agertzera emango dut. Eldu den 28'ko billeran an egon nahi nuke, elurraren baimenarekin.

Euskal Idazkaritzak Baiona'n artu erabakiak onartuak izan ziren bere egunean Euskaltzaindian.

Agindu. Zure adiskide J. M. Satrustegi.

1966.ko ibeltzaren 28an Euskaltzaindiak Donostian egindako batzarrean aurkeztu zen pertsona helduen alfabetatzeko asmoa. Batzar agiriak honela dio: "San Martin, Arregi eta Lasa-k firmatuta eskabide bat artu da euskaldunen alfabetizazio kanpaña bat egiteko. Lojendio, Mitxelena ta Erkiaga-k aldezko iritzia bialdu dute. Batzorderako San Martín, Aita Altuna, Lasa, Arregi ta Beobide izendatu dira."

Eskaria aho batez onartua izan zela esan behar da. Batzar hartan bildu ziren euskaltzain osoak hauek ziren: Dassance, buru. San Martin, Lafitte, Irigaray, Lecuona, Villasante, Satrustegi, Haritschelhar, Larzabal, Arrue ta Irigoyen idazkaria.

* * *

Hau da "alfabetatze Euskalduntze" izenarekin ezagutzen den elkargoaren aurre-historia. Orduan, *Alfabetizazio kanpaña* deitu zuen Rikardok

berak, eta horrela onartua izan zen lehenbiziko batzarrean. Geroago, *Alfabetatze Euskalduntze* izen bikotea du Euskaltzaindiak legez beretzat errejistratua.

Izan diren joan-etorri guzien kondaira ekintzarekin batera hasten da, eta bada horren berri nik baino hobeki eman dezakenik gure artean.

Euskal Alfabetatze ekintza honen lehen iturriak dira, soil soilik, hemen aipatutakoak.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR AGIRIAK

80-I-25

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Urtarrilaren 25ean, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. L. Alvarez Enparantza, J. A. Arana, M. Atxaga, F. de Barrenengoa, I. Beobide, J. M. Etxaburu, J. A. Etxebarria, P. Goenaga, I. Goikoetxea, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, F. Mendizabal, J. A. Mujika, K. Rotaetxe, P. Sancristobal, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

J. M. Lojendio euskaltzain oso zenaren hil berria eman du L. Villasante jaunak. Manuel de la Sota eta Jesús Elosegi euskaltzain urgazleen hil berria, J. Haritschelhar eta J. San Martinek eman dute beraien lan eta merezimenduak aipatuz.

Azken batzarreko agiria irakurri ondoan, Alfabetoko letren izenei buruz bertan jasotakoari ohar bat egin dio X. Kintanak. Berak egindako txostena, alegia, gero A. Zatarain jaunaren ohar batzukin aurkeztua izan zela, nahiz pundu guzietan ez batera etorri.

GOIZEKO BILKUREN BERRI

Euskera aldizkariaren batzordetik, azpibatzorde bat izendatu da. Datozen lan eta txostenen balio eta garrantzia aztertzea izango da, batez ere, bere eginkizun nagusia, batzarrean irakurtzea eta gero argitaratzea merezi duten ala ez erabakitzeko. A. Irigoyen, P. Lafitte eta L. Villasante izendatu dira.

Alfabetatze-euskalduntze lantaldea Euskaltzaindiak sortu zuen eta bere gerizpean agertu da orain arte. Gaur egun duen eradura eta garrantzia kontuan izanik, E. K. N. eta lau Diputazioen ardurapean ofizialtzea erabaki zen Foruan. Koordinakundekoekin batera erakunde horiekin ofizialki negoziaketa egiteko, Euskaltzaindiaren Alfabetatze-euskalduntze batzordekoen artetik, azpibatzorde bat izendatzen da, honako hauekin: J. San Martin Jagon Sailburua, eta E. Knörr, P. Uribarren eta J. M. Satrustegi.

Arautegia. Foruan ontzat emandako bidetik, arautegia aldatu beharra ikusten da. Alde batetik, laguntzaile maila berri bat sortu nahi dugu, batzorde eta lan berezietarako lagungarri. Lanak eskatzen duen iraupenaz mugatua izango da izendapen hau.

Arautegiak, beste alde, badu beste hutsune bat: Euskaltzaindia, ondasun errejistratze eta kreditoz zorpetzeko gai dela adieraziko duen agerpena falta du. Diru kontuen begirale bat ere behai beharrezkoa du. Legegizonen esku uzten da idazkaritzak aurkeztu duen idazkiaren orraztapena.

DAGOZKIEN BATZORDEEN BILERA

Irakaslego batzordearen izenean X. Mendiguren mintzatu da. Euskaltzaindiko tituluen programaketa berria aurkeztu du. Aurtengoz ez da aldaketarik egingo.

Administral izendegia zertan den kontu ematen da. Hiztegi lanean jarraitzen dute. Batzordeari birmoldaketa bat eginaz, hain zuzen J. L. Lizundiak batzorde honen idazkaritza uzten du, F. Mendizabalek, kargua hartuz.

Herri Izendegi batzordea ere bildu zen Urtarrilaren 11an, Gasteizen. Udal Izendegiaren jarraipena egingo da orain, herri eta herrixka guzien, hala nola auzo nagusien zerrendak aztertuz. Lehen zerrenda egitea erabaki zen, eskualde hauek harturik: Araban, Ekialdeko Lautada; Bizkaian, Busturialdea; Gipuzkoan, Urolaldea eta Nafarroan, Bidasoaldea, Ultzama eta bere inguruko sei ibarrak.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak aipatu ditu J. San Martinek. Gomita bialduko zaien hizkuntzalarien zerrenda irakurri du, halaber, J. A. Aranak.

TXOSTENAK

Euskaltzaindiaren hileroko batzarretara ekarriko diren txostenen programaketa aipatu du J. L. Lizundiak. Urgazle berriei txostenak eskatzeaz beste alde, bertsolaritza, itzultzaileen eskola, euskal idazki zaharren aurkezpenak, etab., osotu dezakete urteko txostenen kopurua.

Arrasateko batzarraren jarraipenez, Apirilaren 10ean, bazko ostegunez, egitekoa da Bidasoa Bortzirietako batean gramatika txostengileekin bilera bat. Ikerlanaren eten gabeko ekintza finkatu nahi da horrela.

J. San Martinek irakurri du, azkenekotz, bertsolarien azken txapelketa nagusiaz batzordeak prestatu duen txostena.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Otsailaren 29an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, X. Diharce, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M.ª Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; N. Etxaniz, euskaltzain ohorezko jauna; P. Altuna, J. A. Arana Martija, M. Atxaga, F. de Barrenengoa, J. Berrojalbiz, P. Charritton, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. M. Iriondo, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, F. Mendizabal, P. Uribarren, A. Zatarain, J. J. Zearreta eta A. Zubikarai euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigarai, A. Irigoyen (goizeko batzarrean egon da) eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azken batzarreko agiria ontzat eman ondoan, Nemesio Etxaniz euskaltzain ohorezko berriari ongietorria eman dio Villasante jaunak, izendamen agiria emanez.

Gasteizko Teologia Fakultateak J. M. Barandiaran eta M. Lekuona jaunei eman berri dien ohorezko Doktor izendapena aipatu du gero euskaltzainburuak zorionak emanez, eta euskaltzain oso diren aldetik Elkargoaren poza erakutsiz.

Julene Azpeitia euskaltzain ohorezko zen anderearen hil-berria aipaturik, J. San Martin eta J. L. Lizundia jaunek egin dute bere goratzarrea.

GOIZEKO BILKUREN BERRI

Bazko astean Arrasateko txostengileekin egitekoa den bilera aipatu da lehenik. Hondarribian batuko gara datorren Apirilaren 10ean, ostegunez, egun osoko jardunaldia bertan egiteko. Nahi eta ez Bidasoa aldeko Bortzirietan egin beharrik ez da ikusten, hasieran besterik esan bazen ere. J. San Martin eta J. L. Lizundia arduratuko dira antolakizun lanetaz, Bordari adiskidearen laguntzarekin.

Gramatika-azterketa lanei jarraipena ematea da, noski, helburu nagusia. Garrantzi eta lehengotasunik gehieneko punduak zeintsu diren ikusi, mugatu eta langile bakoitzaren esku uztea, alegia.

Denbora berean, euskalkien berri jasotzeko egin beharra dagoen itaunketa ere bultzatu beharra dagoela esan da hizkuntzarekiko Atlas egiten joateko. Bigarren gai bezala ikusten da dialektologiaren hau.

Azkue bibliotekaz: J. A. Arana Martija mintzatu da, ia bost mila liburu eta aldizkari atzeratu sartu direla azken hilabete hauetan adieraziz. 8.000 fitxa egin dira, eta liburuen klasifikapena egitekoa da. Leku eskasia nabarmentzen ari da gero eta gehiago.

TXOSTENAK

Agustin Zubikarai jaunak, Azkue-ren hiztegian agertzen ez diren Ondarroako hitz eta esaera bereziak aztertu ditu, itsas arloko joskerak azpimarratuz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

80-III-28

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Martxoaren 28an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M.ª Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; L. Akesolo, P. Altuna, J. L. Alvarez "Txillardegi", J. A. Arana, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fz. Setien, X. Garmendia, J. Intxausti, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, F. Mendizabal, K. Rotaetxe, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria onartu ondoren, Bazko Astean Hondarribian egitekoa zen bilera irakasle zenbaiten eskariz, egunez aldatu egin da. Apirilaren 17an, "Ramery" etxean izango da, biharamunean Euskaltzaindiko batzarra bertan egiteko moduan.

I. GOIZEKO BILKUREN BERRI

a) *EUSKERA* aldizkariaren batzordeak datozen zenbakien berri eman du. Lehenbiziko alea, orain arte argitaratu diren guzien "Index" bat izango da, 1980 (I) bezala. Aurtengo bigarrenean, 1980 (2), Arrasateko biltzarreko lanak sartuko dira. Elkarrizketak sartu ala ez, zalantzan gelditu da. Azkenekotz, aurtengo agiri, txosten eta bestelakoak 1981 (1) zenbakian joango dira.

b) *Euskararen Lekukoak:* Etxepare-ren alea prest dagoelarik, argitalpenaren zenbait xehetasun ikusi dira. Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen aleen azala denetan tankera berdinekoa izan behar duela esan da. Argitalpenaren eskubideak, lehenbiziko aldian behintzat, argitara ematen duten alderdi bienak izango dira. Etcheberri Ziburukoarena eta Lapeire-rena aurrera omen doaz.

c) *Euskalarien Nazionarteko Jardunak:* zenbait hizkuntzalariren erantzuna jaso da. Hauekin bakarrik ere bilera hauen garrantzia segurtaturik dago. Bertan, harremanetarako beharren erantzunkizuna Euskaltzaindiak berak izango du. Zenbait euskaltzain eta urgazleren izenak aipatu dira. Jardunaldi hauek Gernikan irekiko dira eta Leioako Unibertsitatean jarraituko dute.

d) *Hiztegi berezien* lanak ere badoaz azurrera. UZEIkoekin egindako bileran, "Zirkulazio-ezaugarriak" eta "Euskara administrazioan" izeneko txostenak aurkeztu dira.

II. EGUNEKO GAIAK

Lojendio euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko, izen-aurkezpena egiteko epea bukatu dela esan du euskaltzainburuak. Behar bezala arrazoiturik proposamen bi jaso dira, Txillardegi eta Patxi Altunaren alde. Datorren hilabeteko batzarrean hautatuko da Arautegiaren arabera.

III. TXOSTENAK

Karmele Rotaetxe "Euskal prosodiaz" mintzatu da. Azentua, doinua, etab. adierazi ditu, gero harremanetan jarraipen luzea izan duen ikerlanean. Urgazle izendatu zenetik Euskaltzaindian agertzen duen lehenbiziko txostena du Karmelek, eta horregatik ongietorria eman dio Villasante jaunak hasieran.

X. Mendiguren, Itzulpen eta itzultzaileei buruz mintzatu da gero. 80 bat orrialdeko lan mardula aurkeztu du, geroko itzultzaileen eskola oinarritzeko zer bide hartu beharko litzatekeen adieraziz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

Hondarribiko Udaletxean, 1980.eko Apirilaren 18an, arratsaldeko lau t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin,J. M.ª Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. A. Arana, X. Aranburu, F. Artola, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. A. Etxebarria, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, P. Goenaga, X. Kintana, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M.ª Mugika, K. Rotaetxe, M. Ugalde eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzar irekia.

Azken batzarreko agiria onartu ondoan, aita Polikarpo Iraizozkoa, jaiotzez Agustin Zarranz Bermejo zenaren hil berria eman du Villasante jaunak. J. San Martinek egin du gero euskaltzain ohiaren aipamen berezia.

I. BATZORDE LANEN BERRI

Apirilaren 17an, egun guztian eta 18an goizean, Hondarribiko "Ramery" erakustokian, Arrasateko txostengileekin bildu da Euskaltzaindia, gramatika azterketei jarraipena eman nahian.

Euskaltzainburuak Arrasateko adierazpena irakurri du eta, gero, xedeen agerpena egitean, ez garela txostenak ekartzeko bildu esan du. Gramatika gogoan dugula, lan plangintzaren bila gabiltz. Saio zabalak egin beharra ikusten du lehenik, laburpenak gero egiteko. Arturo Kanpionen euskalkitako gramatika atera zeneko mendeurrena 1984ean izanik, bitarte honetan mamitu lanen agerpena egin daiteke orduan.

L. Mitxelena jauna mintzatu da gero. Dialektologia presa haundiko lana delarik, horretaz egingo den bilera berezia aipatu ondoan, gramatika arazoari ekin dio. Hitz eta aditz morfologia izan da orain arteko gure gramatika lanen arloa. Hizkuntzaren joskera hartu dezakegula gaitzat hemendik aurrera, esan du.

Gai zerrenda luzea agertu da bildutako guztien iritziak kontuan izanik. Lau sailetan sartu ditzakegu oraikoz aipatu direnak: I. Izen sintagmak, II. Aditz sintagmak, III. Perpaus bakunak, IV. Perpaus elkartuak.

Arratsaldeko bileran, banan-banaka gai guztiak sailkatu dira eta batzorde bat izendatu: Buru, P. Lafitte; buruorde, J. Haritschelhar; idazkaria, P. Goenaga; idazkari-orde, M.ª P. Lasarte; batzorde lagun, Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, eta gaur gramatika lanetan sartuak diren beste zenbait ikerleren izenak jarriz.

EUSKERA aldizkariaren batzordea bildu da, gaur goizean, toki berean. Arrasateko lanen argitalpena aipatu da. Elkarrizketa argitaratzeko eragozpenak ikusi-ta, eztabaida luze baten ondotik, txostenak bakarrik agertzea erabaki da. Beren lanak osotzeko gogoa agertu dute egile batzuk eta hilabete bateko epea eman zaie, datorren Maiatzeko bilera arte.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak: J. San Martinek eman du goizeko bileraren berri. J. A. Arana Martijak, erantzuna eman duten euskalarien zerrenda irakurri du gero, bakoitza nungoa den esanez.

Hauteskundeak: eguerdian euskaltzain osoek izan dute beste bilera berezi bat ere, J. M. Lojendio euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko hauteskundeak direla-ta. Hamabi euskaltzain inguratu dira eta beste hiruk beren eskubidea idatziz bialdu dute. Hamabost boto, beraz.

Izen bi aurkeztu dira: J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegi", A. Irigoyen, E. Knörr eta F. Krutwig jaunek izenpeturik ekarri da; eta P. Altuna, J. M.ª Satrustegi, A. Zavala eta P. Lafitte jaunek proposatua.

Arautegiko 33, 34 eta 35. artikuluak irakurri dira lehenik, hala nola Barne-Erregelen 34, 35 eta 36. hauteskundeen argibide.

Hiru bozketa egin dira. Lehenbizikoan 8 txartel atera ditu Txillardegik, 6 Altunak, eta zuri bat. Bigarrenean: Txillardegik 9, eta Altunak 6. Hirugarrenean: Txillardegik 8, eta Altunak 7.

J. M. Lojendio zenaren aulkia bete gabe gelditu da, beraz, eta aita P. Iraizozkoaren hutsunearekin batera, datorren Uztaileko batzarrean izango dira, Beran, bien bozketak. Bi hilabeteko epea dago izenak aurkezteko: Ekaineko batzarra arte.

II. TXOSTENAK

F. Artola "Bordari"k, Hondarribiko mintzairaz egin du txostena. Hondarribia izenaz bere kezkak agertu ditu, bertako esaera bereziez mintzatu da, eta ez ditu zenbait hondarribiar ospatsuen izenak ahantzi.

J. M. Etxaburu "Kamiñazpi" jaunak bertako joskera eta esames asko adierazi ditu bere txostenean.

P. Altuna "Etxepareren nahas-mahas" izeneko gaiaz mintzatu da.

Azkenekotz, Alfonso M. Oronoz, Hondarribiko alkatearen hitzekin amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

80-V-30

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Maiatzaren 30ean, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. M.ª Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. A. Arana, X. Aranburu, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, P. Charritton, J. M.ª Etxaburu, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, P. Goenaga, F. Ixurko, X. Kintana, J. M.ª Lekuona, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, K. Rotaetxe, I. Sarasola, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria ontzat eman da.

Madrilgo Kultur Ministeritzatik jasotako gutun baten berri eman du idazkariak. Sariketa zonbaitetarako norbait izendatzea eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Ongi ikusi dute euskaltzainek eta horrela erantzutea erabaki da.

Gipuzkoako Diputazioak, irakaskuntzarako gai den norbaiten izena eskatzen du, berak eratu nahi dituen euskararen ikastaroetarako. Euskaltzaindiaren eginkizuna izenak aurkeztea ez baino, aurkeztutakoen gaitasuna epaitzea dela erantzungo zaio.

Euskarazko antzerkien "Toribio Altzaga", eta olerkien "Felipe Arresebeitia", Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz eratutako sarien aldia delarik aurten, oinarriak zabaldu direla esan du idazkariak. Lanak ekartzeko epea Irailaren 30era luzatu da.

Era berean, eta azken aldiz, Carakas-ko "Euskera Lagunen Elkarteak" eratzen duen "Andima Ibinagabeitia" saria emango da Bera-ko euskal jaialdietan. USAko 1.000 $ izango ditu literatur gaien irabazleak. Lanak Ekainaren 27rako ekarri behar izango dira.

I. GOIZEKO BILERAREN BERRI

Euskaltzain osoen bilkuran X. Gereño egun erdiko lanerako diruzaintzan sartzea erabaki da. Beraren ardura kontuak eramatea izango da.

F. Mendizabal zirkulazio ezaugarrien zerrendaz mintzatu da, erabili dituzten iritzi eta oztopo nagusien berri emanez. Hilabete baten epean egin behar dituzte euskaltzainek beren oharrak, eta beste hilabete baten buruan ekarriko du batzordeak bere lana, azken baiezpena emateko.

"Erizkizundi hirukoitzari" buruz egin duen lana aurkeztu du Ana M.ª Etxaidek. Ikusi ez dituen beste zenbait esku izkribu badela jakinerazi diote, eta horien azterketa egin ondoan argitaratzea erabaki da. Euskaltzaindiak eta EUNSA-ak elkarrekin egingo dute, horretarako diruetxe zenbaiten laguntza lortzeko bidea omen dagoelarik.

II. BATZORDEEN LANAK

Herri Izendegiaren batzordea asteartean bildu zen Gasteizen. J. L. Lizundiak eman du bileraren berri. Ekialdeko Lautada, Busturialdea eta Urolaldea eskualdetako herrisken eta auzoen zerrendak onartu dira. Bidasoaldeko zerrenda amaitu gabe gelditu da.

Gramatika batzordeak hiru hilabetetik behin biltzea erabaki du, hamabost egun aurretik bakoitzak bere lanaren berri emanez. Datorren bilera Irailaren 19an izango da.

Irakaslego batzordeak E. K. N. gutun bati erantzuna emanez, D mailako tituluen etsaminetarako eginkizun teknikoa bere gain hartzen duela esan du. Deia egitea, eguna, ordua eta tokiaren baimenak lortzea E. K. N.ak bere gain hartuko ditu, hala nola mahai burukoen ordainketa. Horrela idatziko zaio E. K. N.ri.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldien berri eman du J. San Martinek.

Oinarrizko euskararen batzorde inguruan gertatu den Israelgo bidaiaz mintzatu da J. J. Zearreta.

III. TXOSTENAK

Magnetofoi bilketaren berri eman du J. M.ª Satrustegik. Ekintza honek bultzada gehiago behar du gaurko euskalkien lekukotasuna jaso nahi badugu. Zortzi cassette bildu dira iaz, Mezkiritz, Amaiur, Elizondo eta Lekarotz herrietakoak hain zuzen. Dialektologiaz batzarrea egin ondoan emango dira itaungida zehatzak.

Fermin Ixurkok irakurri du gero, aurkitu berri duen Joakin Lizarraga, Elkanokoaren, liburuaz bere txostena. Urgazle izendapenaren ondotik lehenbiziko txostena du ixurko jaunak, eta ongietorria ematean beste lan batzu ere ekarriko dituelako itxaropenean agertu du Villasante euskaltzainburuak.

L. Mitxelena jaunak "Udal izenen ofizialtasuna" aipatu du, erdaraz eta euskaraz gauza bi direla adieraziz. Besteak beste, eragozpen haundiak ekartzen ditu eta diru aldetik xahuketa izugarriak euskaraz bakarrik emateak. Nola nahi ere, Euskaltzaindiak euskaldunentzat eman dituela herrien euskal izenak erdarazkoekin sartu gabe, nolabait adieraztea komenigarri ikusten du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

80-VI-27

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Ekainaren 27an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J. San Martin euskaltzain jaunak; P. Altuna, N. Alzola, J. A. Arana, J. M. Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, P. Goenaga, I. Goikoetxea "Gaztelu", J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J. L. Lizundia, L. M.ª Mugika, F. Ondarra, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. L. Lizundia, Idazkari-ordeak, Idazkari bezala eginik.

J. M.ª Satrustegi Idazkaria eta E. Knörr euskaltzaina, goizeko batzarrean egon arren, arratsalderako beren ezin egona adierazi dute. J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre ta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria ontzat eman da.

Andima Ibinagabeitia sariketarako epaimahaia izendatzen da: E. Knörr, J. San Martin eta J. M.ª Satrustegi.

A. Polikarpo Iraizoz euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko, izenaurkezpena egiteko epea bukatu dela esan du euskaltzainburuak. Era berean, amaitu da Jose M.ª Lojendioren hutsarteko bigarren epealdia. Behar bezala arrazoiturik proposamen bat agertu da J. Haritschelhar, J. M.ª Satrustegi eta E. Knörrek izenpetua, Frantzisko Ondarraren alde, Iraizozen hutsartea betetzeko; eta L. Villasante, P. Lafitte eta J. M.ª Satrustegik izenpetua, Patxi Altunaren alde, Lojendioren hutsartea betetzeko. Datorren hilabeteko batzarrean hautatuko dira Arautegiaren arauera.

I. GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Arautegian hiru artikulu gehitzeko gestioa, hots, laguntzaile maila berri batena eta ondasun errejistratzearena egina dela kontu eman du Idazkari-ordeak. Unibertsitate eta Ikerkuntza Ministeritzak bere oneritzizko diktamena eman duela, Barne Erregeletan sartzea gomendatuz, adierazi du. Beraz, Barne Erregeletan ezartzea erabakitzen da eta abagadune hau aprobetxaturik, bide batez, euskaltzainen artean Irailerarteko epea irekitzen da, Barne Erregeletako beste artikuluren bat aldatzea edo gehitzea proposatzeko.

Zirkulazio ezaugarriak deritzan hiztegiari euskaltzainek egindako zuzenketak aztertu dira eta zerrendaren zati bat onartua gelditzen da. Ikusteko gelditzen diren oharrak batzordeak zuzenean tratatuko ditu ohargile bakoitzarekin akordio batetara heltzeko. Gainerakoan, hiztegia azken birrespena emanda gelditzen da.

II. DAGOZKIEN BATZORDEEN BERRI

Euskararen Lekukoen batzordea bildu da. P. Altunak, Etxeberri Ziburukoaren Manuel Devotionezcoaren lehen zatia prestatzeko asmoa duela adierazi du. A. Villasante eta M.ª Pilar Lasartek, Lapeyreren liburua nola duten prestaturik esan dute, bai grafia, sarrera, hiztegi eta beste xehetasunetan.

Beste zenbait lan asmoen berri eman da. J. Haritschelharrek dio, B. Oiartzabalek, Charlemagne Pastorala prestatu nahi duela. A Irigoyenek dio, Koldo Zuazo Peru Abarkaren edizio kritikoa ateratzeko asmotan dela, eta Alberto Mardones Erronkariko euskararen lekukotasun batzuena: Hualde Mayo, etab. N. Alzolak, Lehenagoko euskaldunak zer ziren, "Frère Innocentius"ena argitara nahi luke.

III. TXOSTENAK

A. Frantzisko Ondarra euskaltzain urgazleak, "Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan" izeneko txostena irakurri du. Euskara galdutako eremuan aurkitzen da Nafarroako ibar hau. Txostengileak eman dituen xehetasun eta oharpen ugariak oso interesgarritzat jo dira. Jarraian, gai honetaz elkarrizketa izan da zenbait galdera eginez.

Justo Garate euskaltzain ohorezkoaren, "Bergarako euskerari buruz" izeneko lana irakurri du euskaltzainburuak. Bertan, batez ere, bere jaioterriko toki izenen etimologiak ematen ditu.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

Beran, Udaletxean bildurik, 1980.eko Uztailaren 31n, goizeko hamaiketan egin du Euskaltzaindiak bere hiloroko batzarra. L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, J. L. Lavant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M. Satrustegi, A. Zavala euskaltzain jaunak eta; J. L. Lizundia, euskaltzain urgazle eta idazkari-ordea bildu dira; J. M. Satrustegi, idazkari dela.

E. Erkiaga, A. Irigaray eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Michel Labeguerie euskaltzain urgazle zenaren hil berria eman du euskaltzainburuak. Arratsaldeko lauretan Kanbon egingo diren elizkizunetara ordezkaritza bat joatea erabaki da.

I. HAUTESKUNDEAK

J. M. Lojendio eta aita Polikarpo Iraizoz, euskaltzain oso zirenen hutsuneak betetzeko izen bi aurkeztu ziren Ekaineko batzarrean. patxi Altuna eta Frantzisko Ondarra. Batzarre hasieran egin dira hausteskundeak.

Hamairu euskaltzain egon dira batzarrean. Larzabal jaunak, bestalde, Haritschelharri eman dio bozketarako ahala, eta Erkiagak, aita Zavalari. Hamabost, beraz. Hogeitabi euskaltzain dira gaur denak, eta hamabi boto behar dira Arautegiaren arauera izendapena egiteko.

P. Altunaren aurkezpen-agiria irakurri du, lehenik, idazkariak. Hamalau baiezko eta zuri bat izan ditu. F. Ondarraren txandan, halaber, hamalau euskaltzainek eman dute Baia, eta txartel bat atera da zuri.

Bi aurkeztuak izendaturik gelditu dira, beraz, eta idazkiz ofizialki berei jakinerazteko gelditu da idazkaria.

II. ZIRKULAZIO EZAUGARRIAK

Zirkulazio ezaugarriei buruz adierazpen bat bialdu du dagokion batzordeak, eranskin bezala. *Polizia* hitzarekiko erakunde ugari dugularik Euskal Herrian, bakoi-

tzari bere hitz berezia eta zehatz mugatua, emateko bidea dakar. Arazo interesgarria dela ikusi da eta ohartxoren bat egin ondorean, agerpena dagoen eran zabaltzea erabaki da.

III. PERTSONA IZENDEGIA

Hegoaldeko Auzitegietan pertsona-izenen legezko eragozpenak arintzen dituen erabaki (Zirkular) bat agertu berri dela esan du Satrustegik. Ia edozein izen ezartzeko eskubidea izango omen dute gurasoek. Hori dela eta, orain arte Euskaltzaindiak ematen zituenen gisako agiriak ez ematea eskatu du, nahi ez badugu traba sortzaile gurasoen aurrean agertu.

Iritzi guztiak entzunik, pundu hauek azpimarratu dira:

1) Orain arte egiten ziren antzeko agiriak, hemendik aurrera ez egitea.

2) Badirela izen tradizionalak iadanik bilduak, eta gero ere biltzen jarraituko dugunak. Hauetaz gomendio egitea.

3) Hizkuntzaren aldetik arduratuko dela Euskaltzaindia hitzen egokitasuna zaintzen.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

BERAko BATZAR IREKIA

Bera-ko Udaletxean, 1980.eko Abuztuaren lehenean, bertako *euskal besten* mendeurrena ospatuz batzarre ireki bat egin du Euskaltzaindiak.

Arratsaldeko seietan hasi da batzarra. Mahai buruan, Manuel Iriarte Berako alkatea, L. Villasante euskaltzainburua, Josu Goia alkate-orde eta Parlamentu Foralekoa, J. Haritschelhar, Jazinto Argaya Donostiako gotzai ohia, J. L. Davant, J. M. Satrustegi, Patxi Iñigo eta Bautista Irazoqui eseri dira. Bildu dira baita ere: E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, A. Zavala eta F. Ondarra euskaltzainak; A. J. Riezu, euskaltzain ohorezkoa; eta J. L. Alvarez Enparantza, F. Artola, M. A. Astiz, J. M. Azpiroz, J. L. Lizundia, K. Rotaetxe eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

Gipuzkoako Diputazioak X. Aizarna, Diputatu Nagusia bialdu du ordezkari, eta Bizkaiko X. Eizagirre eta P. Zurikarai diputatuak etorri dira. Nafarroakoak ez du erantzun eta ordezkaririk ere ez du izendatu. Paul Douturnier, Sarako auzapeza, Lapurdiko Auzapezen Biltzarburua ere Ordezkarien artean eseri da.

Berako alkate jaunaren ongietorriarekin ireki da batzarra.

Bezperako bilkuraren berri eman du idazkariak, eta Villasante euskaltzainburua mintzatu da gero, Euskaltzaindiaren helburu eta eskuarteko lanen berri emanez. Dilektologiari buruz dituen asmoak agertuz, hizkuntzaren atlas bat egin nahi dugula esan du. Gernika-Leioako Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak ere hor daude, aurtengo ekintza nagusi bezala.

J. L. Davant, Xuberoko euskaltzainak, "Antoinne d'Abbadie", joan den mendeko Euskal Besten sortzailearen bizia, nortasuna eta lanak aipatu ditu.

J. M. Satrustegik, "Bidasoaldeko berezitasun batzu" azpimarratu ditu, Euskal Bestak Iparraldeko idazle eskolak sortutako giroaren emaitza direla aitortzeko.

Patxi Iñigo mintzatu da gero, "Bortzirietako erakusleak" erabilkeran dituzten ezberdintasunak azalduz. Herri batetik bestera badira aldaketa aunitz, eta berdin herri berean auzo batetik bestera.

Bautista irazoqui Berako bi gizon ospetsuri buruz mintzatu da: "Aita Erramun Berakoa eta Juan Errandonea", izan ere, ospe haundiko jakitunak izan ditu Berak eta Euskal Herriak.

Azkenekoz, A. Irigaray euskaltzainaren lerro batzu irakurri ditu Isabel Ordoñez Irazoki andereak, eta besterik gabe eman zaio batzarrari amaiera.*

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

---

* *Oharra:* Abuztuko Batzar Agiria, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak* deritzan liburuan agertuko da.

1980-IX-26

Donostian, Diputazio Jauregian, 1980.eko Irailaren 26an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hil oroko batzarra, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knör, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, P. Ondarra, J. San Martin, J. M.ª Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. A. Arana, J. M.ª Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. M.ª Etxaburu, E. Etxezarreta, J. Garmendia, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, X. Kintana, D. Landart, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, I. Sarasola, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela. J. L. Davant goizean egon da.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

E. Etxezarreta eta D. Landart bi euskaltzain urgazle berriei ongietorria eman die Euskaltzainburuak.

I GOIZEKO BILERAREN BERRI

Euskaltzain osoak bildurik, goizean honako gai hauek erabili dira:

1. *Barne-Erregelen berritzea.* Gaur bukatzen da oharrak egiteko epea. Lizundiak ekarri ditu bere zuzenketak eta irakurri ondoan, txosten bat egiteko eskatu zaio. A. Irigoyen eta J. A. Arana arduratuko dira Liburutegirako aurre-arau bat gertatzen eta, era berean, L. Villasante eta J. L. Lizundiak ekarriko dute Lagun berrien mailako atala sartzeko proposamena.

2. Adoaingo Esteban aita kaputxinoaren heriotzaren mendeurrena betetzen da Urriaren hamaikan. Euskaltzaindiak bere goratzarrea egin nahi dio egun horretan, eta horretarako egitarau bat gertatu du. Arratsaldeko lauretan oroitarriaren agertzea Adoaingo Eneko, bere sortetxean. Esaera: Esteban Adoain, euskal predikariari. "Euskaltzaindiak La Real Academia de la Lengua Vasca por su labor euskérica. 1880-1980", J. M.ª Satrustegi, J. San Martin eta Ancin aita kaputxinoa mintzatuko dira 5etan, Santa Fe herrian.

3. Martin Ugaldek Euskaltzaindiari buruz gertatu duen liburuska ikusi eta zenbait ohar egin zaizkio.

4. RTVE saioetan euskara sartzeko asmoez, Euskaltzaindiak hizkuntzarekiko arau-ematearen ardura duela beregan erantzungo zaio Euskal Kultur kontseilariari, batez ere ebakiera eta joskerak gehienik kezkatzen duelarik.

Arazo hau delata, euskararen ebakiera edo ahozkatzea egokitzeko gomendioak beharrezkoak direla esan da. Horretarako batzorde bat sortuko dugu.

5. Frisiatik etorritako deiari erantzun zaio, Romantizismo eta Europako hizkuntza txikiak gaidun Kongreso batetarako. 1981.eko Apirilean ospatuko da, eta norbaitek horretaz txostenen bat egitea nahi badu, adieraz beza Zuzendaritzara, hainbat laisterren.

6. Jardunaldietako lanak argitaratu aurretik egile bakoitzak bere ohar eta eraskinak egiteko epea Azaroaren 16an bukatzen da. Ordurako bakoitzak berea zuzentzea eskatzen da, lehen-bait-lehen liburua argitaratzeko. Euskalariekin harremanak jarraitzeko Idazkaritza iraunkor bat sortzen da era honetara. L. Villasante buru; *Batzorde eragilea:* J. San Martin buru; J. A. Arana idazkari; J. A. Etxebarria; P. Sancristoval; X. Gereño; *Kontseilari batzordea:* L. Mitxelena, iker sailburua; J. M.ª Satrustegi; E. Knörr, ingl. jap. eremua; J. Haritschelhar; K. Rotaetxe, frantzez eremua; P. Altuna, aleman eremua; X. Kintana, sobiet eremua; J. Bilbao, Ipar Amerika eremua.

7. Euskaltzainek batzarretara etortzeko eragozpenik izan ez dezaten, Unibertsitate eta ikastetxe nagusietako erretor eta zuzendariei hilabetearen azken ostirala euskaltzainei libre uzteko eskatuz gutun bat egingo zaie, eta ahal balitz baita batzorde lan bileratarako ere.

8. Gramatika batzordekoak Irailaren 19an bildu zirela esan dute. Iadanik bi lan aurkeztu dira: P. Lafitte jaunarena *a* artikuluaz, eta P. Altunak *non* erabiltzeaz. Zokoratu beharrean, egin ahalean eskuz banatzen joateko txosten hauek multikopiaz ateratzea komeni dela esan da.

II TXOSTENAK

Arratsaldeko batzarrean txosten bi irakurri dira, ondoren ohi den elkar hizketa izanik:

A. Tovar-en: "Nuevo y más extenso texto arcaico vasco, de una carta del primer obispo de Mexico". Egileak bialdutako lana L. Mitxelenak irakurri du.

J. Garmendia Arruebarrena: "Euskaldun abizenak Sevillan eta Cadiz-en". Bigarren txosten hau J. L. Lizundiak irakurri du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
FR. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

1980-X-31

Donostiako Diputazio Jauregian, 1980.eko Urriaren 31-an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hiloroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Ondarra, J. San Martin eta J. M.ª Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, J. A. Arana, J. M.ª Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, E. Etxezarreta, X. Garmendia, I. Goikoetxea "Gaztelu", J. M.ª Lekuona, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, F. Mendizabal, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela. A. Irigaray goizean egon da.

J. Haritschelhar jaunak bere ezin etorria adierazi du.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria aho batez onartu da.

Xabier Peña euskaltzain urgazlearen hil berria eman du euskaltzainburuak. Xabier Gereñok gertatzen du bere aipamena.

I GOIZEKO BILEREN BERRI

Euskaltzain osoen goizeko bileran honako gai hauek aipatu dira:

a) Eusko Gobernuko Kultur Sailetik hartutako gutun bati erantzunez, Endrike Knörr eta Juan San Martin izendatu dira Euskaltzaindiko ordezkari, Eusko TV-ri buruz sortzekoa den batzorderako.

b) Autengo antzerki eta olerki sariketarako epea amaiturik, epaimahairako honako jaun hauek izendatu dira Bizkaiko Aurrezki Kutxaren eskariz: "Toribio Altzaga", antzerki sariketarako: Daniel Landart, Eusebio Erkiaga eta Iñaki Beobide. Hutsunerik balitz: Xabier Gereño.

"Felipe Arresebeitia", olerki sariketarako: Victoriano Gandiaga, Xabier Lete eta Juan San Martin.

c) Madrilgo Kultur Ministeritzatik, estatu mailan eginiko Itzultzaileen lehiaketarako Euskaltzaindiko ordezkari Xabier Mendiguren izendatu da. Bere ordezko, oztoporik gerta baledi, Fernando Mendizabal izango da.

d) Alfabetatze-Euskalduntze taldekoen berri eman du J. San Martin jaunak. Eusko Gobernuko hizkuntz-sailan sartzen omen dute talde hau. Babesa, beraz, Eusko Gobernuari eta Diputazioei eskatu behar diete. Laguntasuna edo kolaborazioa da guk eskaini diezaiegukeena.

e) *Euskararen Liburu Zuria* zabalpen eskasaren erruz gelditua dugularik salmentarik gabe, Gabon inguruan ateraldi bat ematea erabaki da.

f) Datorren hileko batzarrean hauteskundeak izango dira Euskaltzaindiko Zuzendaritzako karguetan, Arautegiak esaten duen epea bete bait da.

II BATZORDEEN BILERAK

Lekukoena. Bi idazle zaharren bildumak gertu dauzkate heuron antolatzaileek, eta beste birenak bidean. Honako hauek dira:

Etxeberri Ziburukoa. "Kristauak zer jakin behar duen", Patxi Altunak gertatua. Lan luzea litzakeela batean ateratzeko, eta lehenbiziko partea prestatu du bakarrik. Grafia aski urrundua dela ikusiz, bi grafietan ematen du: berean eta gaurkotuan. Eskola liburua da, ez ikerketarakoa. Gaurko euskal filologi ikasleak ditu gogoan.

Etienne Lapeire. "Kredo edo sinhesten dut esplikatua", L. Villasante eta M.ª P. Lasartek gertatu dute. Askaingo semea, apeztu eta filosofia irakasle izana. Sintasia ikertzeko ona izango da liburu hau.

Gazteluzar. "Egia katolikoak", eskulana egina du Lino Akesolok oharrik gabe. Grafia oraingotuan prestatu du berak. Makinaz kopiatzea eta abar erraztu behar zaizkio orain.

Michel Elissanburu, edo Fray Inocentius. Titulua: "Lehenagoko eskualdunak zer ziren" Nikolas Alzolak egingo du. Horretarako beste batzuren laguntza eskatzen du, etnografia lanetarako oharrak egitea komeni dela esanez. Laburra gertatuko den beldur ziren batzordekoak eta beste liburu ttipien batekin batera argitaratzea aipatu da.

Irakasleena. J. J. Zearretak eman du batzorde honen berri. Arazo berezia dute, izendatuak diren zonbait ez bait dira batzarretara etortzen. Izen berriz hornitutako beste batzorde bat izendatzea komeni dela esan da. Programaren edizio berria gertu dago. Azterketen egutegia ere ikusi da. D mailako tituluaren helburua zein den ez da oraikoz garbi ikusten. Puntu hori zehaztu beharra dago.

Dialektologiakoa. J. L. Lizundiak eman du Dialektologiako batzordearen berri. Datorren urteko ikastaroaz mintzatu dira, egunak eta irakasle zonbaiten izenak aipatuz. Harremanetan sartu beharra dago lehenbait-lehen. Azterketa egiteko itaunketak ere gertatzen hasi behar da, eta horretarako batzordeko pare bat lagun arduratuko dira. Laguntzaren bat lortzeko eman diren urratsen berri ere eman da.

III TXOSTENAK

Xabier Mendiguren, Itzultzaileen eskolaz mintzatu da. Lanean ari dira eta Madrilen egitekoa den ikastaro edo itzultzaileen batzar batera joatekoak dira. Erdarari bakarrik loturik ikasgaiak ematea ez ote den gaztelaniari morrontzan gehiegi lo-

tzea adierazi du Krutwig jaunak. Beste hizkuntza eta eskola asko badagoela, alegia. Oraikoz oso eskari konkretoak dituela eskola honek, Udal eta Parlamentu lanak alegia, eta hauek erdaraz dutela beren itzulpen gaia erantzun du zuzendariak. Beste alde, hizkuntza askolako ereduak dituela begien aurrean, oinarrizko agerpenean esan zuen bezala, eta horretara joko dutela geroan. Baina lehenbiziko urtea dela kontuan izan behar.

J. M.ª Satrustegik, Adoaingo Esteban agurgarriari bere heriotz mendeurrenean egin zaion omenaldiaren berri eman du. Oroit-harri bat ezarri zaio bere sortetxean.

E. Etxezarretak, euskal gotzaien eliz barrutian *Itun Berria* itzultzen egin dituzten lanei buruz mintzatu zen. Bere txosten hau euskaltzain urgazle izendapenari erantzuna emanez gertatu du, eta eskerrak eman dizkio euskaltzainburuak. Itzulpena egiterakoan hitzari bakarrik ez baino, edukiari begiratuz zer nola itzuli duten esan du, adibide batzu oinarritzat harturik.

Aurreko txostenari, itzultzaileen eskolakoari alegia, oso loturik dago gai hau eta arreta haundiz entzun dute batzartuek.

Besterik gabe, ohi den eran amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

1980-XI-28

Donostian, Diputazio Jauregian, 1980.eko Azaroaren 28an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin, J. M.ª Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak. Goizekoan J. L. Davant eta E. Larre jaunak egon dira; N. Alzola, J. A. Arana, J. M.ª Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, J. M.ª Iriondo, X. Kintana, J. L. Lizundia, L. M.ª Mugika, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Lafitte, P. Larzabal eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria ontzat eman da.

I. GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Euskaltzain osoen goizeko bilkuran aurkeztu den gai bakarra Zuzendaritzako kargu berritzea izan da. Hamazazpi euskaltzainkide botza ekarri dutenekin, hauteskundeak honela izan dira: L. Villasante Euskaltzainburu, 15 boto eta bi txartel zurirekin. J. Haritschelhar Buruorde, 15 eta bi zurirekin. J. M.ª Satrustegi Idazkari, 15 eta bi zurirekin. E. Knörr Diruzain, 14 botoz, bi zuri eta bat San Martinen alde.

Beste karguak ahoz onartu dira: L. Mitxelena Ikersailburu, J. San Martin Jagon sailburu, eta A. Irigoyen Liburuzain.

II. ZUZENDARITZAKO BILERAK

Errenteriako Lintzirin ostatuan bildu zen, Azaroaren 21ean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza. Gai hauek ukitu ziren:

– "Prentsa Euskaraz" kanpainari buruz izandako harremanak.

– "Korrika Euskal Herria" ibilaldiari buruz egindakoa.

– Bizkaiko Aurrezki Kutxak bere kontseilurako ordezkari bat izendatzea eskatu du. Euskaltzaindiak izendatu behar du eta X. Gereñoren izena proposatu da.

– Gipuzkoako Diputazioan Kultur Kontseilaritza berriztatzean, Euskaltzaindiaren izena baztertu dute. Diputadoekin hitz egitea erabaki da.

– Datorren urteko egutegiaren aurre-asmo bat ekarri da. Hobeki mugaturik datorren batzarrean Euskaltzaindiak aurkeztuko du.

– Idazlanei buruz, Gamiz arabarraren lanak ari zen prestatzen J. Goikoetxea Maiza jauna, baina gaixo antzean omen dabil eta atzeraturik daude. Nolabait aurrera eramatea eta Arabako Diputazioarekin batera argitaratzen ahalegintzea komenigarri ikusi da.

– *Argos* enziklopedian Euskarari buruz dakarrena berriztatzeko asmoa dute eta Euskaltzaindiari eskatu zioten lan hau. Mitxelenak egingo zuela esan zuen lehenik, baina ezin duela dio azkenean. Patri Urkizu jauna deitu eta zer dagoen esan ondoan, berak egitekotan gelditu da.

– *Orriaga* pastoralak zor haundia sortu omen die argitaratzaileei eta diru laguntza eskatu dute. Ez da hori Euskaltzaindiaren egitekoa eta ezetza eman zaie. Laguntza eskaini diegu salmentarako banaketa egiterakoan bultzadaren bat emateko.

Beste alde, Marzelino Oreja jauna ikusten izan da Zuzendaritza Azaroaren 24 an. Lehen ere Madrilgo gora-beheretan bere laguntza izan genuela kontuan edukiz agurtzera joan gara. Denbora berean, dirua lortzeko Madrilen zehar egiten ari garen zenbait eskariren berri eman zaio, hala nola Leioan izan diren zenbait euskalariri bialdu behar zaizkien emaitzak ere aipatu dira Atzerri Arazoetako Ministeritzaren bidez errezago bialtzerik balegokeen ikusteko.

III. GAURKO GAIAK

Batzordeak prestatu duen Administralgo hiztegia banatu berri da eta gaur irekitzen da zuzenketak egiteko epea. Datorren Abenduaren 31 arte bialtzen ahalko dira oharrak.

Iruñeko Udalak 300.000 pzta. eman ditu, Euskaltzaindiaren urteko gastuen lagungarri.

X. Gereño izendatu da Bizkaiko Aurrezki Kutxa kontseiluko Euskaltzaindiaren ordezkari.

IV. BATZORDE LANAK

EUSKERA aldizkaria gai bakarreko bi zenbakirekin, *Index* eta *Arrasateko lanak*, bete du aldizkariak 1980.eko aldia. Datorren urteko ale bietan 1980.eko lanak, agiriak eta txostenak argitaratzea erabaki da.

Itzultzaileen eskolako zuzendari X. Mendiguren Madrilen izan da, Itzultzaileen Nazioarteko batzarre batean. Hango lan eta giroaz berri ematen egin du txosten bat eta batzarrera bialdu.

Jardunaldietako liburua aipatu da beste alde. Epea amaitu ondoan lanak eskura direlarik, noiz, nun, eta nola argitaratu ikusi behar da orain. Aurre-gastuen aurkezpena zenbait argitaletxei eskatzea erabaki da.

V. TXOSTENAK

Patxi Altunak "*-na* Fray Bartolomerengan" izeneko txostena irakurri du. Eztabaida luzea sortu da gero *-na/-la* erabilketaren zabalkunde eta esan nahiaz.

Luis M.ª Mugikak "Hitz konposatu eta deribatuen ikuspegi fonetiko batzu" aztertu ditu. Lege horiek ukatu gabe, estu estuan jarraitu behar diren galdetzen zuten zenbaitek. Ea ez diren garaian garaiko lege eta erabilkera bereziak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
FR. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

1980-XII-19

Donostian, Diputazio Jauregian, 1980.eko Abenduaren 19 an, arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzaindiak urte honetako azken batzarra. J. Haritschelhar mahai buru dela. Bildu dira: J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M.ª Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, J. A. Arana, J. M.ª Aranalde, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. Fdez. Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M.ª Satrustegi idazkari dela.

L. Villasante euskaltzainburuak ongiezagatik ezin etorria adierazi du, nahiz goizeko bileran han egon den. A. Irigarai ere goizekoan egon da.

J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azaroko batzar agiriari buruz, Gamiz arabarraren idazlanak prestatuak eta P. Sancristoval eta E. Knörr jaunei utziak dizkiela jakinerazi du J. Goikoetxea Maiza urgazleak.

Besterik gabe onartua izan da agiria.

I. 1981.eko BATZAR EGUTEGIA

Goizeko bilkuraren berri eman aurretik, J. L. Lizundiak 1981.eko batzar egutegia aurkeztu du, ezin bait zen amaiera arte batzarrean gelditu. Loiolan egitekoa den Urtarrileko batzarrean, urte birako plangintza finkatu behar da. Eritzi, asmo eta oharrak Errege egunerako bialtzea komeni da, egitaraua prestatzen joateko.

II. GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Aste honetan bertan, Abenduaren 16an Zuzendaritzak egina duen bilkuraren berri eman du gero, idazkariak.

Jardunaldietako lanak argitaratzeko asmoz, kostuen aurrerapen bat eskatu zaie zenbait argitaletxeei. Hori delata, Aranzadi Iruñekoarekin hizketatu dira zenbait euskaltzain.

Memoriari buruz Israelen egitekoa den kongresorako lanen bat eskatuz idatzi diote idazkariari bigarren aldiz. Euskaltzaindiak norbait izendatu behar lukeela esan da.

Holandan udaberrian "Erromantizismoa eta hizkuntza baztertuen pizkundea" gaitzat harturik egitekoa den kongresora Haritschelhar joateko gelditu da.

Argitalpen berria. Aspaldi esku artean daramagun arazoa da argitalpen berriarena. *EUSKERA* aldizkaria, bibliografia eraskin bat geituz, dagoen eran uztea onartu da.

Batzordeen lanak e.a. argitaratzeko IKER izeneko beste argitarapen bat egitea erabaki da. Zenbaki bat eramango du izenburuaren ondoan: IKER-1 (2, 3.etab.). Azpian esaera osoa: *Idazlanen bilduma.* Euskaltzaindiaren izena ere atalaurrean agertuko da.

Jagon sailak bere argitarapena noizbait izango balu, era berean JAGON-1 (2, 3. etab.) izendatuko da.

Txartela. Euskaltzainon eta batzordeetan lanean ari direnentzat aurkezpentxartelak egitea komenigarri ikusi da. Eredutzat beste elkargo batzuenak eskatzeko gelditu gara. Bakarkako zenbait lan egiteko ez da txartel beharrik ikusten; gutun bat aski izan ohi da.

A. Irigarai jaunak, *Euskal Herria* hitza egunkari askok baztertzen dutela ikusirik, Euskaltzaindiak aho batez Baionan hartutako erabakia berriztatzea eskatu du. Euskaltzainak hitz horren alde daude, noski, baina ez dute garbi ikusten zergatik bigarren aldiz erabaki bera hartu behar den. Bototan erantzun hauek jaso dira: 5 ez, 5 zuri eta 3 bai.

Lehengo hilabeteko agirian ikusten den eran, aurrerantzean Zuzendaritzak gauza garrantzitsuetan batzarrari kontu eman diezaiola, eskatu zuen A. Irigoyen jaunak. Orain arte zertan ez duen konturik eman agertzera emateko erantzun dio idazkariak. Salaketa zertan datzan idatzirik ekartzeko eskatu zitzaion aurreko egunetan. Ez du zehaztasunik eman. Zerbaitetan errurik izan bada Zuzendaritza guziaren errua izan dela, adierazi dio J. Haritschelharrek.

Administralgo hiztegia aurkeztu du F. Mendizabal, batzorde idazkariak. Hitz arruntenen bilduma baizik ez dela esan du, administralgo arloko hitz berezien edo espezializatuen bilketa lana oso luzea izango bait da.

III. TXOSTENAK

I. Berriatuak Oinarrizko Euskararen batzordeak hiru urtez egin duen lanaren berri eman du. Metodo osoa argitaratua dela dio eta irakurgai berezi frango ere bai. Lan aldetik, marrazki egiten eta diru laguntzaz parte hartu dutenak aipatu ditu. J. J. Zearretak ekintza honen diru iturriak nondik diren agertu du. Jakina da HITZ EGIN metodoa Iberduerok diru laguntza emanik atera dela.

J. M.ª Satrustegik Alfabetatze mogimendua non, noiz eta nola sortu zen agertu du bere txostenean. Hain zuzen ere 1965.eko Azaroaren 28an Euskaltzaindiak Baionan egin zuen batzarretik hartu zuen Rikardo Arregik asmo hau. Bada Rikardo Arregiren gutun bat horrela aitortzen duena.

J. San Martinek *Korrika Euskal Herria* ibilaldiko amaieran gertatuaren berri eman dio batzarrari.

J. Haritschelharrek han ziren guziei Eguberri onak opatuz bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
FR. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.ª SATRUSTEGI

BATZAR-TXOSTENAK

EUSKAL ELIZBARRUTI ARTEKO 'ITUN BERRIA'
Itzulpen-xehetasunak historiaren argira

Donostia, 1980-x-31

Eustasio Etxezarreta

Sarrera

Euskal Herriko Elizak argitara eman berria du *Itun Berria*, liturgiarako egindako itzulpenaz baliatuz. 756 orrialdeko eskuliburua da. Iruñe eta Tutera, Baiona, Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutien ardurapean egina eta argitaratua. Elizbarruti arteko taldean eta euskalki desberdinetako lankideen artean urteen buruan egindako itzulpena da, orain euskara baturako erabakita dauden aditz-joku eta idazkeran emana.

Gure argitarapen honek kristauon fede-heziera du helburu nagusi. Itun Berriko 27 liburuen textuaz gainera, beste zenbait hitzaurre, sarrera, ohar, azalpen eta eraskin ematen da lagungarri.

Euskaltzaindiko nire sarrera-txosten honetan, argitarapen honi buruzko azterketa labur bat eskaini nahi dut. Bi punturen azalpena egingo dut zehazki: a) Itun Berriaren euskal itzulpenen historia laburra eta azalpena; eta b) Bibliaren itzulpenari buruz, azken urteotako irizpide berrien azalpena (1).

1. Itun Berriaren euskal itzulpenak

Herri-hizkuntzaren ateak liturgiarako zabaltzearekin eta ebanjelizatzelanetarako iturria Liburu Santuan jartzearekin, Vaticanoko II. kontzilioak Bibliaren itzulpenak egin beharra sortu du. Eta agindu ere agintzen du, itzulpen zehatzak eta egokiak egiteko, fededunek "bide zabala eta erosoa izan dezaten Liburu Santura iristeko" (*Dei Verbum*, 22), eta itzulpen hauek, ahal dela, jatorrizko textuetatik egiteko eskatzen du gainera (ibid.).

---

(1) Ez ditut hemen aipatuko, itzulpen-lanetan euskarari buruz erabili izan ditugun irizpide eta jokabideak. Gai hori Bergaran azaldua dugu, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean irakurritako beste txosten batetan: *Euskal Herriko Elizaren jokabidea euskarari buruz*. Ikus *EUSKERA* aldizkaria (1978), 829-855 or.

Ez da horrelakoa izan beti Erromako Elizaren jarrera bibli itzulpenei buruz. Ibilbide luzea izan da, Elizak, batez ere azken lau mende hauetan, egin duena. Kezka larria sortu zion Elizari XVI. mendean, Luterok eraginiko Erreformak. Eta Trentoko kontzilioak, sinesmenaren iturburu den Jainkoaren hitza bere garbitasunean gorde nahirik, neurri estuak hartu zituen protestanteen joeraren aurka: alde batetik, latinezko Vulgata-itzulpena aztertzea eta beraren argitarapen berri bat egitea erabaki zuen. Vulgata eraberritu hau hartu behar zen aurrerantzean Elizan Bibliaren textu ofizialtzat, bai liturgian, bai teologi irakaskintzan, baita itzulpenetan ere. Bestalde, Trenton bibli itzulpenen aldeko ziren gotzaiek lortu zuten guztia, itzulpen horiek ez debekatzea izan zen. Kontzilioak azkenean nazio bakoitzaren esku utzi zuen erabaki zehatzagoak hartzeko ardura.

Frantzian ere bai, baina batez ere Espainian gogor hartu zituzten gauzak. Inkisizioak Toledoko kontzilioan erabat galerazi zuen Biblia irakurtzea "en romance castellano o en otra lengua vulgar" (1551). Berrehun urte geroago (1757) Benedikto XIV.ak —eta hamabost urte geroago Espainiako Inkisizioak (1782)— askatasunean uzten zituen katolikoak Biblia herri-hizkuntzan irakurtzeko, baldin eta eliz baimenarekin argitaratuak bazeuden eta gainera pasarte zailak argitzeko oharrak bazituzten.

Ingurugiro honetan ikusi beharra dago, euskarazko bibli itzulpenen historia. Nire lantxo honetan, Itun Berriaren itzulpenak bakarrik izango ditut gogoan.

Joannes Leizarragak, Beskoitzeko semeak —apaiz katoliko izanik gero kalvinista bihurtuak—, itzuli zuen lehenengoz euskarara *Iesvs Christ gvre Iavnaren Testamentv Berria*, eta Nafarroako erreginaren laguntzarekin 1571n argitaratu zuen. Itzulpenerako oinarri-textu Ginebrako Biblia deritzan kalvinisten frantses itzulpena erabili zuen batez ere, Vulgata eta grekoa bera ere lagun zituela. Lapurdieraz itzuli zuen, nagusiki behintzat. Berak urte betean amaitutako lana gero lau artzai euskaldunen talde batek aztertu zuen, Olorongo Sinodoaren aginduz. Itzulpena bera ontzat ematen da azterketa honetan, baina euskalkien auzia agertzen da. Bigarren batzorde batek erabaki behar zuen auzi hau, baina ez ziren iritsi irtenbide egoki batetara, eta Testamentu Berriaren azkenean hiztegi labur bat sartu zuten, "çvberoaco herrian vsançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac" emanez.

Beste hiru argitarapen izanak ditu geroztik: 1900ean Estrasburgon; 1903an Londresen; eta 1908an berriro Londresen. Ba da beste argitarapen bat ere, Inglaterrako Bibli Elkarteek 1828an egina. Oinarrian Leizarragaren itzulpena da, baina norbaitek —edo agian norbaitzuk— Bibli Elkarte horien eskariz zuzendua. Argitarapen honek ez zuen harrera onik izan, eta gerora berriro lehenengo itzulpena argitaratu zuten.

Katolikoen artean ez dugu bibli itzulpenik aurkitzen, Trentoko erabaki mugatzaileen giroa samurtzen ez den arte. Joanes Haraneder apaiza, Donibane Lohizuneko semea, izan zen lehenengo katolikoa *Testament Berria* euska-

rara itzuli zuena. Protestanteen itzulpenari Testamentu Berriaren itzulpen katoliko batekin erantzuteko asmoz-edo, bere apezpikuaren gogoa bete nahirik hasten da lan honetan, eta 1740an burutzen du. Vulgata erabiltzen du oinarri-textu eta beste bi frantses itzulpenez baliatzen da: Sacyren eta Bouhoursen Testamentu Berriaren itzulpenez. Baina jakina denez, 1855 arte ez zen argitara emana izan, eta orduan ere ez osorik, baizik lau ebanjelioak bakarrik. Zenbait zuzenketa egin zizkioten argitaratu aurretik Haranederren itzulpenari Baionako bi apaizek —M. Harriet eta P. N. Dassantzek—. Pasarte zailak argitzeko oharrak ere jarri zizkioten, eta beharrezkoa zen eliz baimenaz azaldu zen.

Geroxeago Luis-Luziano Bonaparte printzeak eskaturik, Duvoisin kapitainak *Testament Berria* argitaratzen du (1865), bere *Bible Saindua*ren azken zati bezala. Honek ere, lege denez, Vulgatatik egiten du itzulpena eta lapurdieraz. Bibliaren textu hutsa nahi zuen Bonapartek, inolako oharrik eta azalpenik gabe, hizkuntzalarien zerbitzurako. Guztira 251 ale besterik ez ziren argitaratu, eta Erromako baimenik gabea izanik, ez zen kristau herrian erabilia izan. Hala ere joan den mendearen bukaeran Haristoy apaizak, Duvoisin hilez geroztik, *Ebanjelio Saindua eskuaraz* argitara eman zuen Duvoisinenetik hartuta, eta "behar diren baimen eta chehetasun guztiekin".

Ba da beste Testamentu Berri bat ere A. Fray J. A. de Uriartek itzulia. Honek ere Bonaparteren eskariz itzuli zuen, Vulgatatik itzuli ere, eta gipuzkeraz. Baina oraindik ez du argirik ikusi.

Orain dela ehun urte, aro berri bat hasten da katolikoen artean Bibliari buruzko ikerlanetan. XIX. mendean zehar, historiko-kritikoa deritzan metodoaren argira aztertua izan zen Itun Berria, eta hasiera batetan ondorio kezkagarriak atera zituzten azterketa horietatik. Horrek bultzaturik, katolikoak ere ikerlanak egiten hasten dira. Eta Trentoren garaiko egoera aldatzen delarik, Elizak ere jarrera berri bat hartzen du gure mende honen hasieratik honantz.

Leon XIII.ak 1893an "Providentissimus Deus" entziklikan ikuspegi berri bat agertzen du. Oraindik ere Vulgata izango da oinarri-textua itzulpenetarako, baina aintzakotzat har daitezke eskuizkributan aurkitzen diren latinezko beste zenbait itzulpen ere, eta eskubide ematen zaie katolikoei beren ikerlanetan aurrera egin dezaten. Gainera ekialdeko herrietako hizkuntzak ikastera eta kritikaren jakintza sakontzera eragiten die, Itun Berriak jartzen dituen mila korapilo askatzen saiatzeko.

Pio XII.ak 1943an "Divino afflante Spiritu" entziklikan pauso bat gehiago ematen du. Bide berriak zabaltzen ditu, bibli itzulpenak jatorrizko hizkuntzetatik egin ditzaten, jakintzaren laguntzak erabiliz, literatur motak bereiziz, textu-kritikaz baliatuz, eta abar.

Eta azkenik, Vaticanoko II. kontzilioak itzulpenen beharra eta balioa azpimarratzen ditu, kristau herriak berri ona ezagutzeko egokiera izan dezan;

eta itzulpenak jatorrizko hizkuntzetatik egin behar direla adierazten du (ikus *Dei Verbum*, 22).

Gure mende honetako eliz giro berriak era berriko itzulpen-sorta bat dakarkigu. Eta hauetan lehenengoa, garaiari aurrea hartuz bezala, Olabideren *Itun Berria* da; grekotik zuzenean euskarara lehenengo aldiz itzulia eta 1931n argitara emana. Katolikoen artean hau dugu euskaldunok kristau herriarentzat egindako lehenengo Itun Berri osoa, eliz baimenarekin eta pasarte zailak argitzeko oharrekin.

1961ean Arantzazuko fraide-talde batek, F. Mendizabal eta J. Goitiaren zuzendaritzapean, *Lau Ebanjelioak* argitaratu zituen gipuzkeraz; hauek ere grekotik itzuliak dira.

1966an J. Kerexetak *Jesukristoren Barri Ona* argitaratu zuen bizkaieraz, gero bigarrenez *Alkartasun Barria* tituluarekin 1972an argitaratua, eta azkenik 1976an *Euskal Biblia* bizkaierazkoaren zati dena. Kerexetak gaztelaniazko *Biblia de Jerusalén* erabili zuen oinarri-textu itzulpenerako.

1967an Orixe-Kerexeta-Zugastiren *Itun Berria* azaldu zen gipuzkeraz: Orixenetik lau ebanjelioak hartzen ziren —hauek grekotik itzuliak— eta gainerakoa A. Zugastik gipuzkeraz jarritako Kerexetaren itzulpenetik hartua zegoen. Ba da Itun Berri honen bigarren argitarapen bat ere, 1974ean egina.

1974ean *Jesukristoren Berri Ona* izeneko liburuska argitaratu zuten Belokeko Beneditarrek; liturgiarako egindako itzulpena harturik, lau ebanjelioak eta Apostoluen Egintzak eman zituzten lapurdieraz.

Oraintsu 1978an, F. Olariaga Jesusen Lagundikoak *Itun Berria*ren beste itzulpen bat argitara emana digu. Egileak sarreran dioenez, "griegotik euskerara ahalik zuzenen itzultzen saiatu" da, eta "euskera izkuntzan baterako lana egin nahi izan" du.

Eta azkenik, Elizen Arteko Biblia izeneko taldea itzulpen berri bat prestatzen dihardu, kontzilioak jarritako bidetik Eliza desberdinetako kristauek elkar hartuz. Ba dakigu itzulpena bera bukatua dutela eta azken irakurketa egiten ari direla Testamentu Berria argitara eman aurretik. Hauek ere grekotik egina dute beren itzulpena.

Itzulpen-sorta honetan sartzen da Euskal Elizbarruti arteko *Itun Berria* ere. Grekotik eta euskalki desberdinetako taldean egina izateaz gainera, ba du gure itzulpen honek beste alderdi bereizgarri bat: liturgian eta kristau hezieran erabiltzeko asmoz egina izatea. Ez bait da berdin jendaurrean irakurtzeko egindako itzulpena, eta exegesi azalpen zehatz baten zerbitzutan egin daitekeena, edo-ta hizkuntza baten alderdi bereziak aztertzeko egin daitekeena, eta abar. Eliza katolikoaren historian garrantzi haundiko erabakia gertatzen da, latina utzi eta herri-hizkuntza biziak erabiltzea. Baina bide hau zabaltzearekin, premia berriak sortu dira eta aldi berean irtenbide berriak asmatu ere.

2. Bibli itzulpenen irizpide berriak

Itun Berriaren orain arteko itzulpenak, beren hartan ez ziren liturgiarako erabilgarriak; beren garaiko erak eta kutsua zituztelako eta jendaurrean irakurtzeko ikuspegiz eginak ez zirelako. Horregatik, beste hizkuntzetan ere itzulpen berriak egin behar izan dituzte.

Biblia, berez, elkarte baten barruan sortutako idazkia da; herri baten bizitzan eta historian zehar sortutako idazkia. Gaur ere Bibliaren baliorik nagusiena eta lehenengoa Jainkoaren herriaren sinesmen-oinarri eta iturburu izatea da; eta, bakarka ere bai, baina batez ere batzarrean eta pasarteka irakurtzen den liburua.

Pasarte askotan ikus daitekeenez, ahozko literaturaren era bereziak aurkitzen ditugu liburu honetan: liturgi ospakizunetik sortu eta liturgi ospakizunerako egina izan den ahozko literaturaren era bereziak. Gure kasuan, beraz, hau da Bibliaren itzulpenean zaindu beharreko alderdirik nagusiena: jendaurreko irakurketarako behar duen egokitasuna; batzarrean bildurik, norbaitek agerian irakurri eta, entzunez, denek ulertuko duten itzulpenaren egokitasuna. Horrelako liburu baten itzulpenak, jatorrizko textuaren mamia eta erak jasotzearekin batera, itzulpeneko hizkuntzaren estruktura eta erak ere gordetzea eskatzen du, hizkuntza horretan egokiak eta jatorrak diren esaldiak moldatzea, alegia, entzuleek esanahia zuzenean jasotzeko moduan.

Bibli jakintzek aurrerapen haundiak egin dituzte gure mende honetan. Baina bereziki Bibliaren itzulpenari dagokionez, jakintza-mota berria sortu dela esan daiteke azken hamabost-hogei urteotan. Itzulpen-teknika berri baten bideak urratu dira. Itzultzailearen lege nagusia "leialtasuna" dela esan ohi da, eta hala behar du izan. Baina ez dira gaurregun lehenago bezala ulertzen leialtasun honen nolakotasunak. Lehen, itzulpen leiala, hitzez hitz, ezer erantsi eta ezer kendu gabe egindakoari esaten zitzaion. Gauza jakina da, ordea, sistema bat dela hizkuntza eta ez dagoela berdintasun osorik hizkuntz sistema batetik bestera. Eta hori ez bakarrik hiztegia aberatsagoa edo murritzagoa delako, baizik hizkuntza bakoitzaren barne-egitura berezia delako, literatur alorrerako ahalmen desberdinak dituztelako, hitzen esanahia bera aldatu egiten delako gutxi-asko, eta abar.

Itzulpen-irizpide berriek, "formazko berdintasuna" deritzana alboratu, eta "berdintasun dinamikoa" hartu dute itzulpen-eredu: hau da, balio berdineko indarra duen itzulpena (2). Formazko berdintasunak jatorrizko textuari

---

(2) Itzulpenaren eta bereziki bibli itzulpenaren teoria berri hau aztertzeko, ikus batez ere E. NIDA, *Towards a Science of Translating* (Leiden 1964), eta bereziki 8. kapitulua: "Principles of correspondence". Ikus halaber G. MOUNIN, *Les problèmes théoriques de la traduction* (Paris 1963); gaztelaniara itzulia dago: *Los problemas teóricos de la traducción*, Madrid 1971; W. W. WONDELY, *Bible Translations for Popular Use* (United Bible Societies 1968);

begiratzen dio eta hura hitzez hitz itzultzeari; horretarako erregela sinplea eta zehatza erabiltzen du: ahal dela, aditza aditzez itzuli behar da, izena izenez, adjetiboa adjetiboz, izenordea izenordez, genitiboa genitiboz, e. a.; esaldiak jatorrizko hizkuntzan diren bezala gorde behar dira itzulpenean ere; hiztegiaren berdintasunari eutsi behar zaio, baita hitzak adiera figuratuan erabiliak daudenean ere; esaerak eta modismoak ere hitzez hitz itzuli behar dira eta ez esanahiari begira... Hitz gutxitan esateko, itzulpen-sistema honek jatorrizko textuari begiratzen dio, eta bere helburu guztia textu hori hizkuntza berri batetan ahalik berdinena ematen saiatzea da, jatorrizko formak erabat errespetatuz.

Itzulpen-teknika berriak, ordea, irakurleari begiratzen dio, eta textu bat jatorrizko hizkuntzan irakurtzeko gauza ez denari hurbildu egiten dio irakurlearen hizkuntzara. Baina aldaketa hau egiterakoan, begien aurrean duen helburua hau da: textu hura gaurko irakurleari (edo-ta entzuleari) ulergarri ematea, jatorrizko irakurlearentzat ulergarri izan zitekeen neurri berean, eta gaurko irakurlearengan sentipen eta jarrera berdintsuak sortzea. Horrela, gaiari ematen zaio lehentasuna, formari baino gehiago. Hala behar izanez gero edo hizkuntzaren joerak hala eskatzen duenean, era honetako itzultzaileak ez du eragozpenik izango aditza izenez itzultzeko, adjetiboa adberbio bihurtzeko, eta alderantziz; ez du kezkarik izango esaldi bat bitan edo hirutan zatitzeko, eta beharrezko diren zehaztasun berriak sartzeko; arretaz bereiziko ditu hitz beraren adiera desberdinak; esaerak edo-ta atsotitzak ez ditu hitzez hitz itzuliko, esanahiaren arauera baizik; ongi bereiziko ditu literatur motak: prosa eta poesia, kontaera soila eta irakaspena, profeta-hitza, parabola, aholkua, hitzaldia, adore-hitza, esaera zaharra, e.a.

Itzulpen-sistema bat edo beste hartzen denaren arauera, hemen teori mailan esaten dena bi itzulpen-mota desberdinetan mamitzen da. Orain arteko euskal itzulpenak —guztiak ez bada ere gehienak behintzat— formazko berdintasunaren bidetik eginak izan dira, nahiz eta teoria hori estu-estu eta azken ondorioetaraino eraman izan ez. Euskal Elizbarruti arteko Itun Berriaren itzulpen honetan, ordea, batez ere azken aldian eta gehiago, itzulpenaren berdintasun dinamikoaren bideari jarraitu nahi izan diogu. Itzulpen-sistema hauen artean dagoen aldea ikusteko, adibide batzuk emango ditugu eta horien bidez azterketa-modu bat egingo dugu Itun Berriaren euskal itzulpen desberdinak elkarren parean jarriz.

1. *Izen abstraktoaren itzulpena:* Hizkuntzak maila desberdinak izan ohi ditu: ba da hizkuntza teknikoa eta goi-mailakoa, eta ba da elkarrizketa-mailako hizkuntza errazagoa. Zenbait izen abstraktok gorgotasuna eta zailta-

---

E. NIDA-Ch. R. TABER, *The theory and Practice of Translation* (Leiden 1969); laster azaltzekoa da gaztelaniazko itzulpena: *Teoría y Práctica de la Traducción*, Madrilgo Ed. Cristiandad argitaletxean; C. BUZZETTI, *La parola tradotta* (Brescia 1973); gaztelaniara itzulia dago: *Traducir la palabra*, Estella 1976; L. ALONSO SCHOEKEL-E. ZURRO, *La traducción bíblica: Lingüística y estilística* (Madrid 1977).

suna ematen dio hizkuntzari. Horregatik, herri-mailako hizkuntzak maiteago du aditz-adierazpena, abstrakzioa baino; ulerterrazagoa gertatzen da aditza, abstrakzioa baino. Adibidez:

1 Kor 10, 16 (3)

Gr ... ouchi *koinonia* estin tou haimatos tou Christou;
Vg ... nonne *communicatio* sanguinis Christi est?
Leiz ... ezta Christen odolaren *communionea?*
Duv ... ez othe da Kristoren odoleko *komunionea?*
Olab ... Kisto'ren odolarekiko *bazkuntza* ez ote-da?
Ker ... ez ete-da Kristo'ren odolaren *alkartasuna?*
OKZ ... ez ote da Kristo'ren Odolaren *artukizuna?*
Olar ... ez ote da Kristoren odolarekin *batze* bat?
Eliz ... ez al gaitu guztiok Kristoren odolean *elkartzen?*

"Elkartasuna" hitz ezaguna eta erabilia izan arren, bi genitiborekin loturik –"Kristoren odolaren elkartasuna"–, ilun geldítzen da; aditzez itzulirik, ordea, argiago ematen da esanahia.

St 4, 4

Gr ... ouk oidate hoti hê *philia* tou kosmou *echthra* tou Theou estin;
Vg ... nescitis quia *amicitia* huius mundi *inimica* est Dei?
Leiz ... eztaquioue ecen munduaren *adisquidetassuna*, Iaincoaren *etsaytassun* dela?
Duv ... ez dakizue mundu hunekilako *adiskidegoa*, Jainkoarekilako *etsaigoa* dela?
Olab ... ez al-dakizute, ... lur onekiko *adiskidetasuna* Yainkoaren *etsai* dala?
Ker ... ez al-dakizue, ... lur onetako *adiskidetasuna* Jaungoikoaren *arerio* dana?
OKZ ... ez al dakizute, ... lur ontako *adiskidetasuna*, Jainkoaren *etsai* dala?
Olar ... ez al dakizue mundua *maite* duenak Jainkoa *gorroto* duela?
Eliz ... ez al dakizue, mundu hau *maitatzea* Jaungoikoa *gorrotatzea dela?*

Kasu honetan, izen abstraktoa eta adjetiboa dira jatorrizko textuan aurkitzen ditugunak: "adiskidetasuna", eta "etsai"; gure itzulpenean aditzizenera aldatuak gertatzen dira.

---

(3) Ondorengo laburpenen esanahia: *Gr* = grekoz emana dagoen jatorrizko textuak; *Vg* = Vulgatak; *Leiz* = Leizarragak; *Duv* = Duvoisinek; *Olab* = Olabidek; *Ker* = Kerexetak; *OKZ* = Orixe-Kerexeta-Zugastik; *Olar* = Olariagak; *Eliz* = Euskal Elizbarruti arteko Itun Berriak.

Ef 6, 10

Gr	*Endynamousthe* en Kyriô kai en tô *kratei têsischyos* autou.
Vg	*Confortamini* in Dominio et in *potentia virtutis* eius.
Leiz	*Fortifica* zaitezte gure Iaunean, eta haren *indarraren botherean.*
Duv	Jaunaren baithan eta haren *ahal handitako indarrean gothor* zaitezte.
Olab	*Azkartu* zaitezte Yaunagan Aren *indararen kemenez.*
Ker	*Indartu* zaiteze Jaunagan, bere *indarraren adorez.*
OKZ	*Sendotu* zaitezte Jaunarengan, Aren *indarraren kemenez.*
Olar	*Sendo* zaitezte Jaunaren *indar bikainaz.*
Eliz	Zuen *indarra,* Jaunarengan eta bere *ahalmen haundian* bila ezazue.

Grekozko "ischys" hitzak berez "indar" esan nahi badu ere, Jainkoari buruz egokiago dirudi "ahalmen" itzultzea, Vulgatak egiten duen antzera, "virtus" esaten bait du eta ez "vis" edo "robur". Bestalde "en tô kratei" esatean ahalmenaren indarra edo eragina adierazi nahi da.

2. *Genitiboaren itzulpen-era desberdinak:* Balio eta esanahi desberdinak izan ohi ditu genitiboak: posesiboa, lokatiboa, tenporala, subjektiboa, objektiboa, kualitatiboa, partitiboa... Grekoz —eta latinez ere— genitiboz adierazia dagoena, euskaraz ere itzul daiteke genitiboz; baina genitiboaren esanahia argiago eman daiteke askotan beste bide batetik. Adibidez:

Ef 1, 1

Gr	dia thelêmatos *Theou*
Vg	per voluntatem *Dei*
Eliz	*Jainkoak* hala nahita

Ef 1, 4

Gr	pro katabolês *kosmou*
Vg	ante *mundi* constitutionem
Eliz	*mundua* sortu baino lehen

Ef 1, 13

Gr	tô penumati têspaggelias tô hagiô
Vg	Spiritu *promissionis* Sancto
Eliz	*agindutako* espiritu Santuaz

Ef 1, 13

Gr ton logon tês *alêtheias*
Vg verbum *veritatis*
Eliz *egiaren* mezua

2 Pe 2, 6

Gr poleis *Sodomôn* kai *Gomorras*
Vg civitates *Sodomorum* et *Gomorrhaeorum*
Eliz *Sodoma* eta *Gomorra*

Mt 15, 29

Gr para tên thalassan tês *Galilaias*
Vg secus mare *Galilaeae*
Eliz *Galileako* itsas bazterretik

Mt 16, 14

Gr *hena tôn prophêtôn*
Vg unum ex *prophetis*
Eliz *profetaren* bat

Kol 3, 12

Gr splagchna *oiktirmou*
Vg viscera *misericordiae*
Eliz bihotz *errukitsuz*

3. *Adiera figuratua:* hizkuntza bakoitzak bere legeak izanik adiera figuratuarentzat, semitarren kulturaren eta gaurko gure kulturaren arteko aldea kontutan izanik, eta grekoaren eta euskararen arteko egokitasunik-eza ikusirik, grekoz adiera figuratuan emandako esaldi batzuk hitzez hitz itzuliz gero, gaurko irakurleak ez dezake jaso esaldiaren esanahia. Beraz, itzulpen berezia eskatzen du. Adibidez:

1 Pe 1, 13

Gr ... anazôsamenoi tas osphyas tês dianoias ymôn,
Vg ... succinti lumbos mentis vestrae,
Leiz ... çuen adimenduco guerruncea guerricaturic,
Duv ... gogoak berorik,
Olab ... gogoa gerikatuz,
Ker ... estutu egizuez zuen adimenaren gerriak,
OKZ ... zuen adimenaren aldeak gerrikoz estuturik,
Olar ... gertu zuen gogoak,
Eliz ... eduki, beraz, erne zuen gogoak,

St 4, 4

Gr moichalides,
Vg adulteri,
Leiz adulteroác eta adulterác,
Duv bertzeen oheen khutsatzaileak,
Olab zantarok,
Ker zantarrok,
OKZ dollor oiek!,
Olar gizatxarrok,
Eliz sasi-jainkozaleok!

Profeten bidetik, Itun Berrian ere, fededunak Jainkoari zor dion leialtasuna adierazteko, senar-emazteen arteko leialtasuna erabiltzen da irudi. Leialtasun hori haustea sasi-jainkoak gurtzea da. Horregatik, "moichalides - adulteri" adiera figuratuan hartzen da hemen.

4. *Hitz beraren adiera desberdinak:* Ondorengo adibidean, "sôma - corpus" hitzaren hiru adiera desberdin azaltzen dira: lehenengoan, gorputzaren esanahi materiala adierazten da; bigarrenean, adiera figuratua, baina eliz hizkuntzaren haritik gure kulturan ere erabili ohi dena; hirugarrenean, berriz, "sôma" hitzaren bidez pertsona adierazten da.

Mt 27, 58
Mt 26, 26
Erm 12, 1

Gr ... êtêsato to *sôma* tou Iêsou.
touto estin to *sôma* mou.
... parastêsai ta *sômata* hymon...

Vg ... petiit *corpus* Iesu.
Hoc est *corpus* meum.
... ut exhibeatis *corpora* vestra...

Leiz ... esca cequión Iesusen *gorputzaren.*
... haur da ene *gorputza.*
... offrenda ditzaçuen çuen *gorputzac...*

Duv ... galdatu zioen Jesusen *gorphutza.*
Hau ene *gorphutza* da.
... eskain detzatzuen zuen *gorphutzak...*

Olab ...arek Iesu'ren *soña* eskatu zion.
Au da Nere *soña.*
... zuen *soñak* Yainkoari eskeintzeko...

Ker ... Jesus'en *gorputza* eskatu eutsan.
Au, neure *gorputza* da.
... zuen *gorputzak* ... eskiñi egiozuez...

OKZ ... Jesus'en *gorputza* eskatu zion.
Au Nere *gorputza* da.
... eskeñi zazkiozute Jainkoari zuen *gorputzak...*

Olar ... Jesusen *korputza* eskatzeko.
Au nere *korputza* da.
... eskein dezaiola, arren, norberak *bere burua...*

Eliz ... Jesusen *gorputza* eskatu zion.
Hau nire *gorputza* da.
... eskain ditzazuela *zuen buruak...*

5. *Semitismoak:* Semitarren hizkuntz joera bereziak askotan ez dira ongi erabakitzen hitzez hitzezko itzulpenean. Aramearrez, esate baterako, era askotara eta adiera desberdinez erabili ohi zuten "bar" (seme) hitza; itzulpenean, ordea, adiera horiek zehazturik eman beharrak daude, bakoitzaren esanahiaren arauera. Adibidez:

Kol 1, 13

Gr heis tên basileian tou *huiou* tês agapês autou
Vg in regnum *Filii* dilectionis suae
Eliz bere *Seme* maitearen erreinura

Mk 13, 26

Gr ton *huion* tou anthrôpou
Vg *Filium* hominis
Eliz Gizonaren *Semea*

Erm 9, 8

Gr *tekna* tou Theou
Vg *filii* Dei
Eliz Jainkoaren *seme*

Ap Eg 5, 21

Gr pasan tên gerousian tôn *huiôn* Israêl
Vg omnes seniores *filiorum* Israel
Eliz *israeldar* agintarien Batzarre Nagusia

Ap Eg 7, 23

Gr tous adelphous autou tous *huious* Israel
Vg fratres suos *filios* Israel
Eliz bere senide *israeldarrak*

Ap Eg 13, 10

Gr *huie* diabolou
Vg *filii* diaboli
Eliz *deabrukume*

Mk 3, 17

Gr *huioi* brontês
Vg *filii* tonitrui
Eliz *trumoikume*

Ap Eg 16, 1

Gr *huios* gynaikos Ioudais pistês
Vg *filius* mulieris Iudaeae fidelis
Eliz *ama* judutar kristaua zuen

Erm 9, 8

Gr ta *tekna* tês sarkos
Vg *filii* carnis
Eliz haragizko *sortzea*

Erm 9, 8

Gr ta *tokna* tês epaggelias
Vg *filii* promissionis
Eliz agintzariaren bidez *sortzea*

Ef 2, 3

Gr *tekna* orges
Vg *filii* irae
Eliz *hondamendirako*

Ef 2, 2

Gr en tois *huiois* tês apitheias
Vg in *filios* diffidentiae
Eliz *ume* bihurriengan

Mt 9, 15

Gr oi *huioi* tou nymphônos
Vg *filii* sponsi
Eliz *eztei-lagunek*

Lk 7, 35

Gr	edikaiôthê ê sophia apo pantôn tôn *teknôn* autês
Vg	iustificata est sapientia ab omnibus *filiis* suis
Eliz	Jainkoaren jakinduriari arrazoi eman diote bere *ikasleek*

6. *Metafora:* Bibli itzulpeneko kriterio hauen legeetan, metafora beste metaafora batez itzul daiteke, hori egoki egiterik izanez gero, edo-ta metaforaren esanahia adieraziz. Izan ere, metafora hitzez hitz itzuliz gero, ez zaio irakurleari ematen, jatorrizko textuan ordungo irakurleei ematen zitzaien edukirik. Adibidez:

Erm 12, 20

Gr	anthrakas pyros sôreuseis epi tên kephalên autou
Vg	carbones ignis congeres super caput eius
Leiz	suco ikatzac bere buru gainera bilduren drautzac
Duv	suko ikhatzak bilduko diozkatzu buruaren gainera
Olab	ieinti biziak aren burugañean metatuko dituzu-ta
Ker	ikatz gori pilloa jaurtiko dautsazu burutik beera
OKZ	illintiak pillatuko dizkiozu buru-gañean
Olar	lotsaz gorri gorri utziko bait duzu
Eliz	lotsaz gorriturik jarriko diozu aurpegia

Esaera Zaharretatik (25, 22) hartua dagoen esaldi honen esanahia ez da gauza garbia; baina San Agustinen eta San Jeronimoren iritziari jarraituz, "ilintiak" lotsaren ziztada gorria adierazi nahi dute, noski, lotsak sutan bezala jarriko diola, alegia, aurpegia.

7. *Modismoak:* Hizkuntza bakoitzak ba ditu bere esaerak, hitzez hitz itzulirik hutsean gelditzen direnak, edo-ta beren zentzu jatorra galtzen dutenak. Adibidez:

1 Kor 1, 10

Gr	hina to auto legête pantes
Vg	ut idipsum dicatis omnes
Leiz	gauça berbat erran deçaçuen guciéc
Duv	mintzaya berbatez mintza zaitezten oro
Olab	izpide berbera ezazute guziok
Ker	berbaera berbera erabilli dagizuela guztiok
OKZ	berbera esan zazute guztiok
Olar	gauza batbera esateko eskatzen dizuet
Eliz	izan zaitezte iritzi bereko

8. *Zeharkako esaldi bat zuzeneko bihurtu:* Batez ere elkarrizketa denean egin daiteke horrelako aldaketa, itzulpena argiago eta indartsuago geldi dadin. Adibidez:

Mk 8, 31

Gr Kai erxato didaskein autous hoti dei ton huion tou anthrôpou polla pathein, kai apodokimasthênai hypo tôn presbyterôn kai tôn archeiereôn kai tôn grammateôn kai apoktanthênai kai meta treis hêmeras anastênai.

Vg Et coepit docere eos, quoniam oportet Filium hominis pati multa et reprobari a senioribus et a summis sacerdotibus et a scribis et occidi et post tres dies resurgere.

Leiz Eta has cedin hayén iracasten, ecen behar cela guiçonaren Semeac anhitz suffri leçan, eta reproba ledin Ancianoéz, eta Sacrificadore principaléz, eta Scribéz, eta hil ledin, eta hereneco egunean resuscita ledin.

Duv Eta abiatu zen hekien argitzen, nola beharko zuen gizonaren semeak egarri; zaharrez, aphez nausiez eta Iskribauez arbuyatua izan; heriotzea jasan, eta hirur egunen buruan berriz biztu.

Olab Ta asi zan ayei azaltzen Gizasemea neke askotan ibili beará zala; ta zâŕ, apaizpuru ta idazlariek gaiztetsi ta ilko zutela; ta iru egunen buruan beŕpiztuko zala.

Ker Eta irakasten asi yaken: Gizasemeak oiñaze aundiak eroan bear ebazala, eta Lege-batzarrekoak, abadeak eta idazlariak baztertu egingo ebela, eriotzara galduko ebela, eta irugarren egunean barriro biztu egingo zala.

OKZ Eta adierazten asi zitzaien Gizonaren Semea asko ikusi-bearra zala, ta zaarrak, Apaizburuak eta idazlariak, gaiztoetsiko zutela ta illeraziko; bañan irugarren egunean piztuko zala.

Olar Eta Gizasemeak aunitz sufri behar behar zuela; zaharrek, apaizburuek eta idazleek Gizasemea astandu egin behar zutela, ila izango zela ta andik iru egunera piztuko zela erakusten asi zitzaien.

Eliz Eta erakusten hasi zitzaien:
—Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke haundiak jasatea: zaharrek, apaiz nagusiek eta idazlariek gaitzetsi egingo dute eta hil; baina hirugarren egunean biztuko da.

9. *Hitz-jokuak:* Bizitasun berezia ematen dio textuari hitz-jokuak. Itzulpenean ere esanahiarekin batera eginahalak egin behar dira bizitasun hori lortzen, beti erraza gertatzen ez bada ere. Adibidez, Mt 18, 22: San Mateoren ebanjelioan ikus daitekeenez, "zazpi" zenbakiari indar eta balio berezia ematen zaio. Eta garbi dago pasarte honetan hitz-joku bat egiten dela zazpiarekin.

Mt 18, 22

Gr	Ou legô soi heôs heptakis, alla heôs hebdomêkontakis hepta.
Vg	Non dico tibi usque septies, sed usque septuagies septies.
Leiz	Eztiossát çazpitarano, baina çazpitan hiruroguey eta hamarretarano.
Duv	Nik ez derratzut zazpitaraino, bainan bai zazpitan hirur hogoi eta hamarretaraino.
Olab	... zazpitan ez ezen, bai eta zazpitan zazpi amaŕeko ere.
Ker	Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeita amar bidar zazpi be.
OKZ	Zazpi aldiz ez-baña zazpitan zazpi amar aldiz.
Olar	Zazpi bider ez, zazpi zazpi amar bider.
Eliz	Zazpi aldiz ez, baizik zazpitan zazpi hamar aldiz.

10. *Eliz hizkuntzaren gaurkotzea:* Ba da beste alderdi bat bibli itzulpenarekin loturik dagoena. Elizak garaian garaiko hizkuntza erabili behar du. Eta Bibliak zerikusi haundia du arazo honetan, eliz ospakizun guztietan bibli pasarteak irakurtzen bait dira eta hitzaldiak ere hortik hartzen du gaia. Grekozko "metanoeite" damuaren bidetik itzuli izan da orain arte, Vulgataren itzulpenari jarraituz. Baina hitz honek damuaz gainera norberaren barnealdaketa eskatzen du, bizitzan bide berria hartzea eta hasierako bide jatorrera itzultzea esan nahi du. Azkenaldi honetan bibli teologiak harrotu du gai hau, damuaz gainera "bihotz-berritzearen" alderdi baiezkorra azpimarratuz. Ikus ditzagun bi alderdi hauek euskal itzulpenetan:

Mk 1, 15

Gr	metanoeite
Vg	poenitemini
Leiz	emenda çaitezte
Duv	urrikitan sar zaitezte
Olab	garbai izan zaitezte
Ker	garbatu zaiteze
OKZ	damu zaitezte
Olar	damu zazue
Eliz	bihotz-berri zaitezte

* * *

Hemen ez dugu adibide gutxi batzuk ematea besterik egin, itzulpenirizpide berrien adierazgarri. Beste azalpen asko egin daiteke, hala nola: jatorrizko textuan pasibaz emana dagoena aktibaz itzultzea, euskararen joerari jarraituz (ikus Lk 1, 26; 17, 25; Ap Eg 2, 33); edo-ta esaldi ezezkorra baiezkor bihurtzea (ikus Lk 22, 34); esaldi elkartuak zatitzea eta zenbait esaldi

subordinatu esaldi nagusi bihurtzea (ikus Ef 1, 3-14); izenordea berriro zehaztea, argitasunaren amorez (ikus Ef 1, 14); literatur motak bereiztea, batez ere poesiaren itzulpenean (ikus Lk 1, 46-55. 68-79; 3, 4-6; 4, 18-19); atsotitzak eta esaera zaharrak itzultzea (ikus Tt 1, 12; Lk 17, 37; 2 Pe 2, 22); zenbait hitz teknikoren —"prophetês", "presbyteros", "synedriôn"— eta horien antzekoen itzulpena, e.a. Eta honekin batera, edozein pasartetan, itzulpenaren beraren bizitasuna legoke aztertu beharra.

Bistan dago, bide honek ba dituela bere arriskuak: itzulpen subjetibo bat egiteko arriskua, textuaren interpretazioa egitekoa, alegia. Horregatik, bide honek are arreta haundiagoa eskatzen du, textuaren mamia emateko —zehatz eman ere— eta subjektibokerietan ez erortzeko. Hemen, itzulpen-bide honen berri-soila eta azalekoa ematen badugu ere, esan beharra dago sistema bihurturiko lan teknikoa eta zehatza dela izan. Hala ere, orain hogei edo hogeitamar mendeko kultura bateko textuen itzulpena egin nahi denean, derrigorrezkoa da kultura hartako zenbait alderdi itzulpenean bertan eta zuzen-zuzenean ezin argitu izatea eta bestelako azalpenen bidez adierazi beharra.

Inozokeria hutsa izango litzateke pentsatzea, gure itzulpen honetan teknika berri hau oso-osorik eta jakintsuen mailan erabili izan dugula, gure itzulpen honekin azken hitza esana gelldituko bait litzan. Itzulpen-teknika berriak zabaldu dituen bideetan abiatu bagara ere —batzutan senaren edo intuizioaren eraginez, beste batzutan gaurregungo beste zenbait itzulpenen laguntzaz—, konturatzen gara bide luzea gelditzen dela oraindik. Lan bakoitza bere garaikoa izan ohi da, eta hau ere hala izango da, bere akats eta guzti.

Lan hau taldean egina izatea alderdi on bezala ikusten bada ere —eta gure kasuan bereziki euskalkien arazoarengatik—, ez dago ukatzerik honek ba dituela bere mugak ere: esku askoren arrastoa ikusten bait da; bestalde, sistematikoki ez, baizik pasarteka eta askotan presaren presaz egina izanik, eta gainera urte-sail baten buruan, pasarte edo gai berdintsuak era desberdinean itzultzeko arriskua dago. Horrelako zerbait gertatu zen hasiera batean gure itzulpenarekin. Adibidetzat, "mê phobou" ("ne timeas") esaera har genezake, eta honen pareko diren "mê phobethês" ("noli timere") eta "mê phobethête" ("nolite timere"). Esanahi berezia hartzen du esaera honek Itun Berrian: itxaropenezko berri on bat eman nahi denean erabili ohi da. Gure lehenengo itzulpenetan, era askotara itzulia aurkitzen genuen esaera hori:

Mt 1, 20	etzazula beldurrik izan
Mt 10, 26	ez izan beldurrik
Mt 10, 28	ez izan beldurrik
Mt 10, 30	ez beldurrik izan
Mk 5, 36	ez izan bildurrik
Lk 1, 13	ez izutu
Lk 1, 30	etzaitezela beldurtu
Lk 12, 5	ez beldurrik izan

Lk 12, 7 ez beldurrik izan
Jn 12, 15 ez beldurtu
Apk 1, 17 ez ikaratu

Liburuen argitarapen nagusiak egiterakoan, horrelako ukitu behar asko azaldu zen han eta hemen. Horregatik, bi eratako orrazketa egin nahi izan dugu. Batetik, liturgian erabiltzetik egin izan zaigun zenbait ohar bildu genuen (probisionalki argitaratuta bederen, erabiltzen bait ziren itzulpen hauek liturgian, eta irakurtzen jendaurrean). Baina bestetik, itzulpentaldekoek hamar-hamabi urteren buruan egindako lana irakurri eta aztertu egin dugu berriro aurretik atzera, eta oraingoan bai, sistema bati jarraituz. Horrela, hasieran zenbait lan epearen larriaz egin behar izan baziren ere, gero zorionez astiro aztertu ahal izan dira, esaldiak bat-banaka gozatuz.

* * *

Zer esan genezake Itun Berri honetaz? Orain arteko beste itzulpenekin neurtuz gero, hauek dira gure argitarapen honen bereizgarririk aipagarrienak:

– *Gure egunetako itzulpena* da; orain artekoak kontutan izanik egina, baina gaurregun egindako itzulpen berria: azken aldi honetan bibli alorrean egin diren aurrerapenez baliatuz egina eta euskara gaurkotuagoan emana.

– *Elizaren aginduz egindako lana*, Elizan ofizialki erabiltzeko liturgi ospakizunetan eta kristau hezieran. Eliza katolikoaren historian, lehenengo aldiz gertatzen da hori.

– Itzulpenaren lehenengo helburu bezala *jendaurrean irakurtzeko* egina izatea, hori da beste alderdi bereizgarri bat, itzulpen-irizpide eta teknika berriak erabili bait dira.

– Eliz arduradunek garrantzi haundia eman diote, bestalde, *itzulpen bera* erabiltzeari *liturgi ospakizunetan eta kristau hezieran*, pasarte berdinetan behin eta berriz esaldi bera erabiltzeak erraztu egingo bait du pasarte hura buruz jasotzea eta tradizioa finkatzea.

– Kristau heziera-lanetan erabiltzeko asmoz egina izanik argitarapen hau, inoiz baino sarrera haundiagoa eman zaie, textuari buruzko *argibide eta oharrei*. Textuarekin neurturik, hirutatik batetaraino iristen dira alde-alde lagungarriak (Leizarragak % 13; Olabidek % 10; Kerexetak % 15).

– Bestalde, *euskalki desberdinetako lankide-taldean egina* izan da. Hamarren bat laguneko taldea aritu izan da urteetan zehar lan hau egiten, eta guztira hogeitamarretik gora izan dira, gehiago edo gutxiago lan honetan arituak.

Elizbarruti arteko Itun Berri honek Leizarragarena duela esan daiteke, antzik gehiena: Leizarragari ere kalvinisten Sinodoak eskatu ziolako itzulpe-

na; berak egindako lehenengo itzulpena gero lauko talde batek aztertu zuelako, euskalkien arazoari irtenbide bat eman nahirik; kristau hezierarako beste zenbait osagarri erantsi ziolako, hala nola: "Othoitza, Cathechismea, Kalendrera, eta ABC edo Christinoen Instructionea"; eta azkenik, jatorrizko textuari zor zaion leialtasunarekin batera, arreta haundia izan zutelako euskara eta euskaldunekiko leialtasunarentzat ere.

Bukaera

Nire esker ona agertu nahi diot Euskaltzaindiari, urgazle bezala hautatu eta bere barruan hartzen nauelako. Eskerrak, bereziki, Euskaltzaindiak eraginik eta beraren ardurapean, euskara zehazteko, gaurkotzeko eta indartzeko lanean ihardun izan diren eta diharduten guztiei, azken urteotan argitara eman dituzten arau eta laguntza guztiengatik.

Eta azkenik, nire eskerrik onena zor diet, hamar urteotan lankide izan ditudan Euskal Herri osoko lagunei. Eskola ederra izan da niretzat, horien ondoan lanean aritzea, gurasoengandik ikasitako euskara pixka bat lantzeko.

HIZTEGIA

R. M.ª AZKUE'RI JARRAITZEN

Augustin Zubikarai

Azkue'ren Iztegia aztertzean, itz batzuen utsunea igarri neban.

Oraingoz, berreun inguru artu dodaz nire erri onetan, bere eguneroko jardunetan erabilten diranak.

Jatorrak edo ez, emen dagoz.

Azkue bizi izan ba'litz pozik erakutsi ta eskiñiko neutsazan berari.

Besterik ezean, galdu ez daitezen be, lagunartean zabaltzea bidezko deritxat.

A

Abor: itxas esakeran: ezker aldea:
Babor.
Agagain: belak eskegi edo lotzeko agaetan ibilten dana:
mastilero.
Agaka: makillaka:
a palos.
Txomin Agirre'k erabilten eban.
Ainguratoki: ontzia lotzeko toki egokia. Kai barrua. Ondartza.
Fondeadero.
Aize oial: ontziak aizearen mende erabilteko belak.
Vela.
Akats: utsune, kakua:
defecto, falta.
Azkue'k erabilten dau, baiña beste esan-nai oneitan:
tajo mella, cacho, cola de melón, peldaño, tarea o pico de cuentas.
Alatean: ur gaiñean, azalean:
flotando.
Albateta: parrokian, alboko atea. Albatetatik sartu, esaten da, nai ta ate bakarra egon. Albatetako atea zabaldu:
puerta de un lado de la parroquia.

Allos: joko baten, bardin:
empate en un partido.
Allostu: jokoa bardindu:
empatar un partido.
Amandongillak: aragiagaz egiten diran pelota txikiak:
albondiguillas.
Amari ez emon: arrantzaleak diru partilla egiten dabenetan, etxean ez emotekotzak banatzen daben dirua:
dinero que los pescadores retraen en sus repartos con la indicación de no entregarlo en casa.
Amure: bildurti. Kezkati. Amure egon:
receloso. Estar receloso.
Amure emon: lokarriak arindu edo ainbaten azkatu:
aflojar las amarras.
Andrakilleta: neskatxoen jostaillua:
muñeca.
Anka egin: iges egin:
escapar.
Akesolo'k batzen dau Azkue'ren geigarrian.
Apan: zaratatsu:
afanoso.
Azkue'k "panadero" esan naiaz darabil.
Apetaldi: gurari:
ansia, deseo loco.
Ardau diru: arrantzaleak tabernarako gordeten daben dirua, partillatik atarata:
dinero que los pescadores retraen de los repartos con la indicación de dinero para la taberna.
Ari meia: gizon bildurtia, makala:
espíritu apocado.
Arlanka: aingura:
zumaia'n, iru eutsigarridunari, angulet.
Ancla.
Arlanpa: nasa ondotan, itxasora erasteko, arrizko beerakua:
bajada en los muelles, en plancha, para el agua.
Artalakatza: kortxoa:
corcho.
Txomin Agirre'k erabilten eban...
Artobero: oso-osoko, gaitzik bako gizon bat:
hombre tranquilo, sin inquietudes. Molesto y pesado.
En Eibar dan sentido de aburrimiento.
Artoberotu: aburrirse.
Atabaka: arrantzaleak tabakua gordeteko txalopetan erabilten daben kaixatxua:
caja de madera usada por los pescadores para guardar seco el tabaco y otros caprichos.

Azkue'k: urna de votación, cepillo de la iglesia, córbona.

Atako banda: kanporako ibillera:
rumbo a fuera.
Azkue'k ain zuzen orren aurkako dan esan naiekoa agertzen dau; au da: atako banda barik, ateko banda.

Atarra: olgetako gogoa, naastekeria:
ganas de juerga. Camorra.

Atxarrain: aitzetako arraiña:
pescado de roca.

Atzaparra: eskuko beatzak:
dedo.
Ondarroa'n bardintsu erabilten dira *atzapar* eta *atzamar*.

Atzazkal: atzamarretan min edo zaurietako gaiñetik ipinten dana:
dedal para las heridas de un dedo o para librarle de humedad.

Atzeko: itxas untzietako patroia, lemazaiña:
patrón de embarcación.
Azkue'k: cola de vestido, placenta.

Azartona: zoriona:
buena suerte.

B

Baka: arrantzan, arrasta-eran, bakarrik ibilten dan untzia:
barco de arrastre que trabaja sólo.

Bataparrabi: pelota jokoan erabilten dan itza:
palabra usada en el juego de la pelota. Al perder un tanto entre dos, cuando se juega en eliminatorias en cuadrillas, sin poder definir claramente a quien lo toca perder, siguen jugando los dos con la condición de retirarse ambos si el sacador les hace tanto.

Bazkaldari: bazkaltzeko laguna:
comensal.

Bazkarraldra: Txomin Agirre'k bazkaltzera deitua izan danari ezarten dautsa deitura ori.

Berandutu: berandu egin:
hacerse tarde.
Akesolo'k batzen dau.

Bere bostean: norbait, bere artean bakarrik izketan edo zerbaitetan:
a sus anchas.

Besigute: besigu denpora:
temporada de besugo.

Bixika: neskatoen jokoa:
juego de niñas, con cositas.

Bolintxa: sare bat:
bolinche.

Bozinga: uretan olgetan ibiltea:
jugueteo en el agua.
Brizak urten: gorritu, berotu:
sonrojarse, salirle los colores, sudores.
Bunbat: danbada bat:
golpe.
Txomin Agirre'k erabilten eban.
Burutik Berakoa: gaixoa:
meningitis.
Azkue'k: constipado.

D

Dar-dar: ukapen:
negación.
Azkue'k ez dau ukapen lez erakusten, "temblor" baiño.
Dardarakua: gozoa:
flan.
Deilari: deia joten dabena, arrantzale errietan:
señero.
Deizale: arrantzale errietan, deia joten dabena:
señero.
Txomin Agirre'k Azkue'ri egindako karte baten diño, ez dabela uste Txomin berak ezik beste iñok itz ori erabilli dabenik.
Despiska: arraiña saretatik askatzea:
desmallar la pesca.
Diamotxu: esakera bat:
diantre.
Dsanga: uretara jaurti igari egiteko:
saltar al agua para nadar.
Dsapart: norbaiteru gogor oratu:
apresar, coger a uno bruscamente.
Azkue'k: bofetada.
Dsastada: zirikada:
inyección.
Dra: igarri:
acertar.
Azkue'k: variante de dira.
Dramio: norbait oratu:
alcanzar a alguno. Acertar.
Dsinga: batel baten atzean erramu bakarragaz erramutan (arraunean):
remar con un remo en la popa de un batel pequeño.
Dsingaleku: jantzi baten atzeko etena:
se dice por la parte abierta atrás en un traje o abrigo.
Dongillak: pelota txikiak:
pelotitas.

E

Egata: arraiñaren ego aldea:
hijada. Aleta abdominal.
Azkue'k onetara diño: ruido que precede a la piedra que cae de las nubes.
Enparu: gogait eragin. Enparata laga. Enparu euki:
fastidio. Dejar hastiado. Tener hasto.
Enplastatu: enplastoz bete:
emparedar.
Erlaizea: olatu txikiak jasoten ditun aizea:
viento flojo.
Ernani: enara:
golondrina.
Erramu: arrauna:
remo.
Erramulari: arraunlari:
remero.
Erramute: erraunean egiteko era:
remada.
Erria: beratu:
arriar.
Erru: eutsigarri:
tentáculo.
Azkue'k: culpa, brío, valor, dificultad, consecuencia; abundancia; flema, gargajo; lodazal; piel que se renueva en la convalecencia.
Esku zurda: eskurako aparixua:
aparejo de mano.
Tx. Agirre'k erabilten eban.
Etxada: sarea uretara jaurtitzea:
arrojo del cerco o red a la mar.
Ezne tela: geuna:
nata de leche, o mejor, capa de la leche hervida.
Ezpeta: aga luzea, arrantzarako:
vara larga que se coloca en los lados de la embarcación para sostener a los aparejos.

F

Firo: kanpoan geratu:
hacer falta y quedarse fuera.
Fit: ezer gabe:
sin nada.

G

Gandu: andituera:
ampolla, hinchazón.
Azkue'k: catarata, bruma, paño de los cristales, aureola, desbrozar el lino, hierba mala.
Gantzeru: lapurra. Gantz ataratzallea:
sacamantecas, bandido.
Garagarrak egin: astoa beian, arrastaka ibilli:
revolverse en el suelo.
Garduera: kardua:
cardo dulce.
Azkue'k: kardabera.
Geuna: ezne egosiaren gaiña:
nata de la leche.
Goaldi: gooldia:
alga marina.
Azkue'k: ooldi.
Gogapen: pentsamentu:
pensamiento.
Txomin Agirre'k erabilten eban.
Gosekil: gosez bizi dana:
hambriento.
Akesolo'k, Azkue'ren geigarrian: Gosekilla: goseak illa.
Grak eta blast: joko bateko esaera:
acierto y tumbada.
Dale y fuera. Juego en que se pone un cuchillo metido en tierra, sobre una raya y se arrojan monedas sobre el mismo, siendo el premio mayor el dar al cuchillo y tirarle. Si solamente se toca, se dice: grak.
Gurma: bruma:
laiñoa: niebla.

I

Ingelesian: ume jokkua:
diruak marra batera jaurtiten.
Juego de niños, con monedas, a tirar sobre una raya.
Inka: moskortu:
emborracharse.
Inka: orma baten irarri:
fijar, pegar.
Iparra batu: dardaraka jarri:
pillar tembleque.
Ipartu: dardaraka jarri:
tartamudear por exceso de vino, emoción, etc.

Ipitxa kalia: kale txikia:
calle pequeñita.
Likona torrearen aurrean.
Itsu itsuka: joko bat. Edo gertaera bat:
a ciegas.
Itxasate: itxasorako sarrera edo urteeta:
barra, entrada al mar.
Tx. Agirre'k erabilten dau.
Itxasote: itxasoratze:
salida a faenar.
Itxastriku: itxasoko kirikixua:
erizo de mar.
Itxasbarru: itxas zabalean sartu ondoren:
mar adentro.
Itxasbide: itxasoan oi dan bide, zuzenbidea:
ruta marina.
Itxasertz: itxas egala:
costa.

J

Jirauletara: batekoz bestera:
al revés.

K

Kabillara: txoria. Gabiraia:
gavilán.
Kakota: moskorra:
borrachera.
Kakotu: moskortu. Zikindu:
emborracharse.
Kaixarra: kaio arra. Itxas txoria:
gaviota macho.
Kala: arrantza tokia:
cala. Caladero.
Arrantzalien artean kalak, arrain tokiak, askori emon izan dautse nortasun bat.
Ala:
andra kala
arrain kala
besigu kala
kostarren kala
justo kala, (Gaminitz'en)

motriku kala
tribis kala, (Izaro)
kala beuna: plomo para caladeros.
kala gizona: buen pescador.
kala pitxi: mariposa.
kala potin: calera.
kala txori: gaviota.

Kepireska: umeen jokoa, zer eskatuka:
juego de cara y cruz.

Kepireskaku: zer eskatuko ibilteko erabilten dan posporo kutxaren azala:
parte grabada de la cajetilla de cerillas que sirve para jugar a cara y cruz.

Killoi: un quillón.

Kinkilloi: Kopuru arrigarri bat:
cantidad exorbitante.

Kinkiña: zikinkeria:
suciedad. Melopea.

Kirrixka: karramarru baltz txikia:
cangrejo negro de los puertos.
Azkue habla de "crujidos", etc.

Koasta: ontziei, gogortzeko, atze ta aurrean ipinten yakoen burdin edo egurra:
codaste.

Kokon: trapalotea:
gordinflón.

Korren-korrenka: ume jokoa:
juego de niños.

Kortzeleko mamuak: ondarroa'ko eleiz gain inguruan dagozan irudiak:
fantasmas de la cornisa parroquial de Ondárroa.

Koskan erosi: ordain ordez, makilla baten egiten dan koska ezaugarri.

Saldu: dala erosi edo saltzea:
comprar o vender fiado.

L

Labako: okiñei, ogigiñei deitura:
panadero. De la panadería.

Labamin: ogia jagitekoa:
levadura.

Labatai: labako atadia:
portal del horno.

Lantxe: euri mea, laiñoa lakoa:
Especie de neblina. Lluvia débil.

Laskitu: des-egin:
desmenuzar, deshacer.

Lastua atara: gogor jo:
pegar fuerte.
Latiña: Arrantzaliak erabilten daben bela bat:
vela de embarcación.
Latiñeko palua: Latiñeko belaren aga:
mástil para la vela latina.
Lazka: kendu, lapurtu:
sisar, quitar un poco a escondidas.

M

Malluki: marrubia:
fresa.
Mallu txikia:
martillo pequeño.
Mandazketa: mandoak ura edateko askak:
abrevaderos.
Manjuba: arrain moltsoa.
Bolsa de pescado.
Mankal jasote: illen azken eleizakoa:
ceremonia religiosa a la terminación del luto parroquial por un difunto.
Manu egon: estar flojo, no tirante.
Marmitako: atuna bitarteko dala egiten dan lapikokoa:
cocido a base de bonito, patatas, etc., típico de los pescadores.
Mengeldu: bigundu, makaldu:
debilitarse.
Mongoliño: magurio:
caracolillo. Carraquela.
Morkona: andre itsusi, zikin:
mujer sucia, grosera.
Morkondu: baldartu, zikindu:
abandonarse, caer en suciedad.
Muskar: ondo, kirten. Aza muskar:
La parte del tallo de una col, berza, etc.
Mutxarri: arrain txiki bat:
pez sin sangre, pequeñito y débil.
Azkue: Mutxarreri.

O

Obako: joko bat:
un juego.
Obildu: batu:
ovillar.

Ogi-ogi: labamiñaz erabilli ta jaso gabeko ogikiñaren zatia:
masa sin cocer de harina tratada con levadura y sin fermentar.
Olezko popia: jezarleku baten azpia, anka barik:
base de una silla, que las rederas ponen sobre el suelo para sentarse.
Olezko popia: berez otza dan neskatil bat, ikutu eginda be aldatzen ez dana:
Mujer temperamentalmente fría y que no hace caso de determinadas caricias.
Olezko oñetakuak: olezko traskuak:
choclos de madera.
Olona: belakia:
tejido para velamen.
Azkue: olana.
Ondar azpiko: arraiña.
Bai eta ondartzetan ibilten dan zomorroa, ikutu egin ezkero min andia emoten dabena:
pez similar al traquino. También insecto muy dañino de las playas.
Ooldi: Gooldia. Itxas bedarkia:
alga marina.
Otanti: arpegi andi:
carota.
Otzakil: otzak errez kikilduten dabena:
fiolero.
Akesolo'k: frío lento.
Ozkil: otzakil, bai eta nastetsu, setatsu edo antzeko.
Azkue le da significado de friático, enclenque, persona apocada, pero también se llama así al individuo ensimismado, terco.

P

Pael: txalopetako beia bardintzeko ipinten dan ola:
panel para igualar la curvatura del fondo de una embarcación.
Papuak: pautsak, okots ordeak:
papos.
Azkue: mejilla, carrillo, herida, papada de cerdo.
Peazu: andi. Ori da gizon peazua!
Grande.
Erderazko pedazotik etorriko da.
Pizketa: zatitxo bat:
pedacito.
Pla: busti-busti egiña:
todo mojado.
Pla-pla: zabal zabalik:
abierto. Anchoas pla-pla, abiertas rebozadas.
Popakeixu: zirin, geldi eziña.

Popakoxu: inquieto.
Potozorri: txatxar, estu, gizon txikia:
ladilla. Hombre apurado, fastidioso.
Prakaman: gizon lodi, prakazabala:
regordete, abierto, de pantalones anchos.

S

Sagar ume txikin: sagarra jan ondoren geratzen dan ondakiña:
residuo de la manzana. Quizá degeneración de "Muskiña", pero en Ondárroa se dice así.
Sapalan: azpi lana:
trabajo de engaño.
Sare mamiñak: sare zatiak:
pedazos gruesos de la red.
Sare papuak: sare geigarriak:
añadidos de la red.
Sarramuskada: atzamarrekin urratzeko egitada:
acción de refunfuñar.
Sarrazkio: arrerako asarrea agertu:
amenazar de entrada.
Sartu urtenak: ikustaldi laburrak:
visita rápida. Entrar y salir.
Sazkildu: txiki txiki egin:
dejar una cosa hecha birria.
Serotetxe: eleiz zaintzallearen etxea:
casa de la serora.
Sidol: zirikatzalle, adar jotzalle:
tentador. Bromista.
Sirol: tentador. Bromista.
Sorgintsua: sorgiñen egitada:
brujería.
Sorgin ume: kajatik ekarritako umea:
niña de la inclusa.
Sota patroia: ontzi bateko patroiaren ordeko:
patrón ayudante.
Suezta: uretako kapela:
sombrero impermeable para el mar.
Suge landara: ormetan ibilten dan sugekia:
lagartija.
Susunkorda: ezegaz konturatu barik:
pensando en babia.

T

Takin: une:
instante.
Akesolo'k, *takean.*
Takean-takean: a menudo.
Tantza: esku zurda:
pita.
Tenteko: aga luzea:
palo largo.
Tertixuan: aldartzeko, konparatzeko erabilten da:
en comparación de...
Tollanak emon: gogor jo:
pegar fuerte:
tolla arrain gogorra da, ta arrapatuta gero, ilteko, gogor jo bear izaten da.
Tonk: gelditze:
parón.
Trebol: aparixuak lotu edo batzeko egurra. Traola:
cuadrilátero de madera para aparejos.
Tripitrapu: igela:
rana.
Troku: zati bat:
un pedazo.
Trunpail: aragi anditze bat:
chinchón.
Azkue: Trumpilo.
Txangil: etxegille?
Txankar: ainka luzedun gizona:
hombre de pierna larga.
Txarta-txartaka: saltoka:
saltando a la superficie (peces).
Txartona: txartu:
empeorar. Aumentar el mal.
Txatuela: ultze txikia:
tachuela.
Txibikorain: txibitarako aparixua:
aparejo para la pesca de jibiones.
Txingaleku: txamarraren etena, atze aldian:
corte de la chaqueta, gabardina, etc., en la parte trasera.
Txintxirrika: umien joko bat:
jugar con un pedazo de piedra lisa, pasando cuadros.
Txintxoleta: arrain andi bat:
chincholeta. Pez.

Txipar: galdaratik ataraten dan ur beroa:
agua a presión que se extrae de la caldera.
Txirikilloia: izen ori daroan ume jokoan erabilten dan zotza:
palito que se emplea en el juego de la toña.
Txirikillote: Ik. txirikilloia.
Txitxiña: gizonaren txisbide txikia; umeena:
aparato genital (menudo).
Txoko: gertaera ona:
buena ocasión, oportunidad.
Txurla: batelak erabilten daben albo-alboka:
balanceo de las embarcaciones de un lado a otro.
Tuer: begi okerra edo bakarra:
tuerto.
Tukur: kerten:
tallo.
Tuntux: tente: zutik:
en varios juegos, situación de la moneda o cuchillo al quedar empotrado y de pie.
Azkue: tuntuiz: boya.

U

Ume txikin: frutu baten ondakiña:
resíduo de fruta, que se arroja.
Urandiko arrain: urandietako arraiña:
pez de mar profundo.
Fig. hombre de mucho prestigio.
Utzalapiko: diruak gordeteko kutxatxoa:
hucha.
Uzkar ume: sendi baten azken jaioa:
el último nacido de los hijos de una familia.

Z

Zas: utsik. Zasian ibili. Diru barik ibili:
sin dinero.
Zazkildu: zatitu:
hacer pedazos, añicos.
Zazpiki: gizon estu, keixua:
nervioso, inquieto.
Zibot: barri:
de estreno.
Azkue: capullo de gusano.

Zirin-zirin: beruzkoa:
diarrea.
Zirrimarra: nastea:
revuelto.
Azkue: a la ligera.
Ondarroa'n esaten da:
-zirrimarra andia dauka itxasoak:
hay mucho mar de fondo.
-Zirrimarra dabiz olatuak:
las olas andan atrás y adelante.
Zirzarteko: bat bateko:
tajante. De rompe y rasga.
Zixe: atzerantz eragin:
ciar. Frenar.
Zoraize: gangarkeri:
venada. Locura pasajera.
Zorogangar: zorakeriz beteta:
loquillo. A lo loco.
Zurda: tantza.
crin. Pita para aparejos.
Zurdazkaize: aize gogor, larri:
viento fastidioso, muy molesto.
Zurtzilluak: sudur zuloak:
fosas nasales.
Zuskulu: eskuta leku.

ARRAIN IZENAK

Azkue'k agertzen ez dituenak

Abadio
Abadira: itz bi oneitan "Gadus Poblachius" eta "Merlucius Merlucius" nastuta erabilten dira.
Batzuk Abarixua esan naira joten dabe, besteak lebatzari izena aldatu.
Batera nai bestera, biak Abadio-tik datoz.
Abixui
Abixuia: pez plata.
Abriña: kolaioa.
Motriku'n erabilten dabe: colayo.
Abrota: "spanis pagus".
Aibarte: Azkue'k Jibarta lez erabilten dau.

Aitzekabra: itxaskabra, kabrarroka:
sakillo.
Aker mujoia: chicha: Sargo picudo.
Atalua: itargi arraiña:
"mola-mola".
Alatxa: kodaka:
sábalo, salveo, sable, alosa arencón, sardina arenque.
Albokarte: antxoa, bokarte.
Aliba: ikara:
raya.
Aingeru guardakua: matrana, zabalera:
pez ángel, angelote, mermejuela.
Aolatza: letxera, pospolua:
ababurda, madre de congrio.
Aota dabeta: lazuna:
muble.
Arrigorri: burriyua, kurrukurrua, neskazarra:
"trigla cucculus."
borracho, perlón.
Armiarmarrai: salbera, xabiroia:
araña, escorpión, salbario.
"trahinus Draco."
Armiña: kolaioa.
colajo.
Arrainbaltza: perloia. Perloi baltza:
borracho, rubio perlon: "trigla guirnaldus."
Arrain batzaya: luia. Palabaltza:
doncella. Julia.
Arrain bizardun arraingorri: barbariña, izoki semea.
Arraingorri: escarcho.
Arrain gurbil: muxarra, txopa:
ollaca, choa, cántara.
Arrain mingaña: ezpata:
pez sable, aguja. Paladar.
Arrain suge: culebra de mar.
Arrain txingola: cinta.
Arrain txirola: putxano:
chiflete.
Arramuy: itxas trutxa:
trucha de mar.
Auntzarraiña: auntza:
cabra: "paracentripristis cabrilla."
Barbadiña: barbariña, izoka semea.
Berrugeta: antesa, merua:
corvina, berrugueta.

Bitsarrain: korrokoi, buru zabal:
corcón, albura, mules.
Bollarrain: iragi arraiña:
pez luna.
Bumiltxuri: gobio.
Burriota: kakajale, gurbi:
verrugato de fango.
Burriyua: kukurrukua, neskazarra:
garneo, rubio, escacho: "trigla lyra".
Burtai: gaotza, galatza, pikua.
Dragoitxiki: xabiroia.
Egaletsu: rubio, volador.
Egarrain: txoriarrain:
juriola, pez volador.
Erastun arrain: anillo.
Ernabeira: erla:
pez herrero, perla.
Errege: rey.
Erromero: rémora.
Esneduna: letxera, merlana:
merlán, plegonero, sarreta.
Ga-atz: lija.
Gaatz galatza: cailón.
Galatza: lija.
Gardia: kardia:
ganabota, boquidulce.
Gasteke: arrain zabala:
raya, raya santiaguera.
Gaatz andiena: lija mayor.
Gobio: katuxa, murela, talamazoka:
gobio.
Gurbi: gurbiya, burriota:
corvina, verrugato.
Ikarayua: eskuikara:
ortiga, torpedo, temblón, tremilga.
Ilisatsa: aitzeko kabra.
cabracho, escorpio, rascacio.
Itargi arrain: atalua:
pez luna.
Itxakatua: gata de mar.
Itxas azeri: guadaña, rabosa, zorra del mar.
Itxas barbo: barbariña:
barbadin o barbo, salmonete.
Itxas danboliña: rapé o pez tamboril.
Itxas maillu: martillo de mar.

Itxas orratz: pez aguja.
Itxas otso: tintoleta:
marrajo, tiburón.
Itxas oillo: gallineta.
Itxas potsu: lanpua, litxa:
palometa blanca.
Itxas zaldi: caballo de mar.
Kapelan: barbada, carajuelos.
Kardia: gardia:
boquidulce, ganabota.
Katuarraiña: mielga.
Kokarta: sardineta.
Kollako: buztanbaltza, txopa.
chopa dorada, oblada.
Kurru-kurru: arraingorri, burriyua, neskazarra:
escacho, gallina, garneo, trigla.
Lamparda: lanpria:
lanprea marina.
Larlotza: cazón.
Luxarra: ollaca.
Maillu arrain: pez martillo.
Makael: makarela. Betandi.
Martiña: mutxu Martin:
san Martín, gallo francés.
Mastrana: lotza:
brotola de fango.
Miarrai: lenguadua, zola.
Lenguado, suela, perdiz de mar.
Mujoi: mujoya:
mujarra, pardo, sargo.
Mutxu Martina: martiña. Pez San Martín.
Ollaka: cántara.
Ondaleko auntzarraiña: cabra de hondura.
Ortz errosel: denton.
Parritxa: sardiña. Parrocha.
Patxikornia: pez de rato.
Perpeluste: dorada.
Peskit: durdo.
Pitarrosa: lixa txikia.
Polaka: kolayua.
Pospolu: ao-latza, ababurda, mollareta.
Putxano: arete, rubio.
Salbiya: berbel, salpiya:
salpa, salema: "boops salpa."
Sardiña igarra: arenque.

Saubiya: boa, boba: "boops boops."
Sola sola: suela.
Sautarroi: dorada.
Tolla: katuarraiña:
callado. Cazón, mozuela.
Txiritu: doncella.
Txistu: lucio.
Txitxare: cría de lamprea.
Txope: muxarra:
chopa, pañoso, sargo.
Txori arrain: ega arrain:
juriola, pez volador.
Turbota: errebollua:
rodaballo, sollo.
Tutxuela: maruca, barruenda, pez de bacalao: "molva molva."
Uerba: betandi:
gaballa.
Ugotso: esturión.
Urre arrain: dorada.
Urrezko arrain: dorada.
Ursuge. Usuge: dragón. Primita.
Zabalo: platusa.

AZKUE HIZTEGIARI GEHITUZ

Jose M.ª Azpiroz

Abailla: con intensidad, con fuerza:
euria egin du abailla. Hantxe hari duk abailla lanean. Abailla demonio etorri nintzen.
Aisa: abundantemente, con holgura:
bota jauna aisa azukrea kafiari.
Ajari: carcajada:
ajariz egoten zen.
Aldabio: plantación de robles, hayas etcra:
pago-aldabiora joana dugu aita.
Aldaka: cera torcida, cerilla que se pone en las argizaiolas. El dia del entierro, la oveja y la cera torcida que llamamos ALDACAS se vuelven a casa de tal hermano cofrade difunto. (*Libro de la Hermandad de los sacerdotes de la villa de Lesaca.* Año 1677.)
Aldatu: mudarse de ropa:
aldatu abudo mutikoa; Mezarako tenorea da ta.
Alde-alde: 1.º poco más o menos, aproximadamente:
esazu alde-alde zer balio duen soiñeko horrek.
2.º Bastante:
alde-alde lan egin dugu gaur.
—A(h)alean: conforme... Distingue el pueblo entre —ahalean y —ahala:
Zuk ekarri ahalean y zuk ekarri ahala. Zuk ekarri ahalean es: conforme vayas trayendo; y Zuk ekarri ahala: cuanto puede traer. Zuk ekarri ahala diru, nik gastatuko dut. Gastaré el dinero que puedas traer. Zuk dirua ekarri ahalean, nik gastatuko dut. Conforme vayas trayendo, conforme traigas dinero, yo lo gastaré.
Aldean y aldera: aproximadamente. ALDEAN con verbo en tiempo pasado:
hamarrak aldean etorri da. ALDERA con verbo en tiempo futuro:
hamarrak aldera etorriko da.
Aldearteka: aprovechando intervalos:
baratzeko lana aldearteka egiten dut.
Aluxka: revoltoso, inquieto:
mutiko Aluxka.

Alabaza: arreo de boda que lleva la novia a la nueva casa.
Ankari: andarín.
Apirilarraia: salmón de 3 a 4 kilos.
Argi: bi begietako argia balio: valer los ojos de la cara.
Argullu: sinón; de ARGUDIO. Ruido de palabras, gritos.
Argumentu: querencia, inclinación.
Arkidi: lugar pedregoso.
Arlas: caja pequeña:
poxpolo arlasia.
Arte: agüero:
hori ezin daiteke arte onekoa izan. Arte txarrekoa da.
Arraldaka: en tropel.
Arraza: Indicio de una enfermedad:
pulmoni arraza.
Arriskatu: arriesgar, se.
Arrisko: peligro.
Arnasbero: respiración movida.
Arnasestu: respiración fatigada:
Asots: rugido:
itsasoaren asotsa aditzen da Agiñatik.
Aspaldi y aspaldian: aspaldi etorri zen:
ASPALDIAN CON VERBO EN TIEMPO FUTURO: hace tiempo.
ASPALDI en oración afirmativa: aita aspaldi etorri zen.
ASPALDIAN en oración negativa: aspaldian ez da inor etorri.
Aspeska: 1.º Boca abajo. Var. de Ahuspeska.
2.º Encorvadura: Aspeska aire piska bat izandu dut betí.
Astelehengo: responso que se rezaba o cantaba los lunes, recorriendo el interior de la iglesia.
Atrebintzi: atrevimiento, osadía.
Atsanka: suspiro.
Attor: 1.º Fértil:
lur attor onekoa.
2.º Simpático, abierto de carácter:
jende attorra.
Aitor eman: darle la razón a alguien.
Aurre hortan: hace poco tiempo:
aurre horretan gertatu zen.
Autsa il: limpiar, quitar el polvo:
autsa hiltzeko haina euri egin du bakarrik.
Autsi: bidea autsi: Volverse para atrás:
artzak, gizona ikusirik ere, ez du biderik austen.
2.º Acobardarse:
zer uste duk; nik ez diat iregatik biderik autsiko.
3.º Desacostumbrado:
ordu autsian etorri zara gaur.
Azi: especie de cuchillo con 2 mangos para refinar y pulir las tiras de material

de castaño para hacer cestos. Azkue sospechaba la existencia de un instrumento cortante que llevase este nombre. Conf. Azk. *aZi* 4.º.
Aztin: var. de Arestian. Hace poco tiempo.

Bakarrantza: soledad.
Bano: sin consistencia, sin solidez:
pausoa banoan eman da autsi dut zangoa.
Bego: sinón. de ASKI. Basta:
ardo gehixago edanen duzu. Ez; bego, bego.
Behin utsik: sinón. de Behin bakarrik. Una sola vez.
Beketsa: glotón.
Benik: siquiera, a lo menos. Sinón. de: bedere, bederen, bederik.
Berantiatu, berantsi: tardar.
Berebiziko: muy grande.
Bererik ez eman: no dar ganancia alguna, provecho alguno:
pinuak ez du bererik ematen.
Berri-berritik: de nuevo.
Besainga: ramas principales de un árbol desmochado.
Bete: emocionarse.
Bildu: eskura bildu: recoger con la mano: eskura biltzen den sagarrak, aunitz geio irauten du.
Birakatu: urteak birakatu: contar los años de dos en dos:
zaharren adinean urte birakatuak izaten dira.
Bizpildu: gaztainak bizpildu: tajar, atarazar castañas para cocerlas mejor.
Biska: querencia, inclinación.
Beztu: ennegrecer.
Bukia: centro de rueda.
Buru: capital (en dinero):
bururi sosik kendu gabe bizi naiteke.

Danda: campanada:
bi dandak jo ditu.
Derrotatu: quedarse saciado de comer y beber.
Derrotian edan: beber mucho y de golpe, de una vez.
Dizipule: erisipela.

Eginkari: hecho extraordinario.
Egoskor: persona de carácter difícil, rebelde.
Ekarkio: de EKARRI y sufijo KIO. Un vecino del bersolari Lasarte de Leiza me dijo refiriéndose al bersolari: bertsotako gogo berezkoa ekarkio: resulta que traia una afición innata a los versos.
Enpoa: enpoa egin: comer hasta hartarse.
Entrama: apetito voraz.
Erdibena: a medias.
Erdibena(tu): repartirse una cosa a medias.

Erpa: extremidad inferior de un vestido:
galtza-erpak loiez zikindu.
Errada(tu): llenar hasta el colmo de una medida:
saskia erradatu arte ziza bildu dugu.
Errepexa: sinón. de eskaxa: jale errepexa da gure mutikoa.
Erroi: torpe, tosco, poco bonito.
Eskualdi: relevo en el trabajo: bidasotik Endarara eramaten genituen paketeak, eta hemen egiten zan eskualdi berria.
Eskutil: mango:
haziaren eskutilak.
Estoka: especie de tenaza que se coloca a las caballerías para sujetarlas y dominarlas.
Estringa: freno de los carros.
Esku: esku arina; esku sendorra: literal. Mano ligera, mano pesada. Se dice del oficial que cobra poco o mucho por su trabajo:
gure herriko zurginak esku arina, sendorra du.
Etorki: ganancia:
nekazariak lan haundia eta etorki txikia.
Ezbai: sinón. de EZTABAIDA. Discusión:
ezbairik gabe jo zuen.
Ez bat eta ez bi: inopinadamente; de buenas a primeras.
Ezki: tímido.

Falsikeri: tradición. FALSIKERIAN. Traidoramente.
Filda: persona sin carácter, sin fundamento.
Furi: velocidad, rapidez. (De FUROR latino o castellano.)

Gaizopilla: buenazo.
Galangalako: de lo bueno lo mejor:
galan galako bazkaria egin dugu gaur.
Galarreta: tablillas que se ponen debajo del calzado para no hundirse en la nieve.
Gañatu: eltzia gañatu: preparar el puchero con todo lo necesario para el cocido y ponerlo a cocer.
Gardail: bien desarrollado físicamente; ni gordo ni flaco, de buena osamenta:
zerri gardaila, ez flako ez gizen, ezur egina.
Giñartu: hacerse, crecer del todo, desarrollarse el árbol del todo.
Gogaldu: quedarse sin conocimiento.
Goibel-adarr: nube.
Gorroto: beroaren goroto: amenaza de tormenta después de un calor sofocante.
Grano: nadie:
kanpoko granorik ez da etorri gaur festara.

Ielierr: gizon ielierra, fundamenturik gabekoa.
Igandebetx: Domingo de Pasión. "Hasta aquí pagados los cirios de Igandebeltz": año 1796: *libro de Fundaciones.*

Igetsi: cosa ajada. Var. de Igesi, Igetzetu.
Ikuskari: visión extraordinaria.
Ilberri: toque de campana a muerto cuando la persona fallecida, aunque nacida en Lesaca, vivía fuera. Tiene gugar el domingo siguiente al fallecimiento.
Illaki: la punta de leño que está a punto de quemarse del todo.
Illegurutze: remolino de pelo.
Illoki: comida combinada de hierba fresca y paja para ganado vacuno.
Inkari: hecho extraordinario, insólito.
Inki: var. de INKA: queja.
Iñoizbeinka: de vez en cuando.
Ipurdimotx: murciélago.
Itsu: las cartas que en el juego de mus corresponden a un jugador ausente y con las que juegan los compañeros de juego.
Itsutu: begirik ez itsutu: no dormir:
gau guztian ez dut begirik itsutu.
Iturri: agua potable: ura: agua en general.
Ixurtu: inclinarse, propender:
gutako bat, zer ikusi hura ikasi ixurtzen da.
Itzbeste egin: Cambiar de conversación:
itz-beste egin da utzi ninduen.
Itzontzi: estúpido, simplón.
Izaki: de IZAN y sufijo KI. Según Azkue se aplica también este sufijo KI a infinitivos, formando cierto gerundio: v. g. IZAKI, habiendo sido; IBIKI: habiendo andado. En Leiza no tiene sentido de gerundio. La traducción sería: resultó que entonces... aquel día... Donostiara joan nintzen berakin egoteko asmotan, baina bera Tolosan izaki egun hartan, eta ez nintzen egon.
Izamendi: var. de GIZAMENDE: generación:
izamendi ona etorriko omen da; bidaxkak bide, bidiak karretera, eta atez-ate ostatuk elizarainokoan. (Era paradisíaca. Huele a Milanarismo).
Izate: hacienda, posesión. Var. de Izana.
Izerdi: izerdi-uretan, izerdi-patsetan: IZANA. Sudando copiosamente.
Ioki: comida combinada de paja, nabo y argoma para el ganado.

Jo: suponer:
jo dezagun aberastu naizela.

Kaletra: enfado, mal talante:
hori mutiko horren kaletra!
Kaldar: pequeño, defectuoso.
Kanpatu: famoso:
gizon kanpatua.
Kargua hartu: pedir explicaciones, exigir responsabilidades.

Klarezi: claridad.
Kamarra jo: pendenciar:
sekulako kamarra jo dute.
Kastaki: casta, linaje:
kastaki haundiko gizona.
Kendu: vencer:
leitzarrak kendu dio Aisoarrari.
ARDANZA, Esteban, s. XVI.
AREIZA o AREILZA, Andres de, 1561; en Vitoria y Vergara, 1638.
AREXITA, Juan de, de Eibar, 1512; en Eibar, 1529.
ARMORA, Miguel de (Irún), 1585, en Arequipa; en Tolosa, 1618.
ARTAECHE, Pedro (escribano), 1587 en Sevilla; sin fecha.
ARRIANO, Pedro de (Alava), 1510 en Sevilla y en Alava.
ARRIEN, San Juan de, Zumaya, 1565 en Sevilla, en Errigoitia, 1768.
ARRIGOERRIETA, Martín, en 1600 en Sevilla; en Zaldibar, 1664.
ARRISTE, Ariste (?), Juan de, 1649 en Sevilla, en Zuberoa sin fecha.
ASCAÑO, Juan de, 1624 en Sevilla; sin fecha.
ASCORRA, Juan de, 1537 en Sevilla; sin fecha en Bilbao.
ASTINA, Gaspar de, nat. de Tolosa, 1600 en Cádiz; en K., 1726.
ASPURU, Martín de, 1540, en Sevilla; en Oquendo y Vizcaya, 1749.
ASTEIZA, de Durango, 1527 en Sevilla; sin fecha.
ATIBAR, piloto, 1579 en Sevilla; Villarreal de Urrechua, 1581.
AZCORRA, Juan de, 1547, en Bilbao, y 1639, Guatemala.
AÇURI, Santiago de, 1536; en Uruguay.

* * *

BASORI, Sebastián de, 1557, Sevilla; alcalde de Portugalete, 1566.
BASUALDO, Juan de, Gordejuela, 1534, Sevilla.
BEDIA, Ortuno de (mercader vizcaino), 1511, Sevilla.
BENGOLEA, Juan de, 1646, Sevilla.

BERESIARTU, Martín Pérez de, 1511, Sevilla; en Beasain, sin fecha.
BERNACA, Juan de, 1580, Sevilla; en Colombia, sin fecha.
BURUTARAN, Pedro de, Irún, 1615, Sevilla; en San Sebastián, sin fecha.
BUXETA, Juan de, Orduña, 1512, Sevilla; en Navarra, sin fecha.

* * *

CARASA, Gaspar de, 1600, Sevilla, sin fecha en K.
CASTAETA, José, 1795, Cádiz; trae en K. sin fecha.
CELAYANDIA, Juan de, guip., 1608, Sevilla; trae sin fecha en Usurbil.
CERTUCHA, Martín de, 1573, Sevilla; trae sin ninguna fecha.
COLARTE, Joseph de, 1686, Cádiz; sin fecha.
CUTUNEGUIETA, vec. de Eibar, 1514; trae en Bilbao 1640, 1664.
CHAVARRI, Martín de, Dima, 1536, Sevilla.
CHAVARRIA, en Sevilla, 1581.
CHOPERENA, Joseph de, 1691, Cádiz, trae K. sin fecha.

* * *

DARIETA, Martínez de, 1552, Sevilla; en Alza y Lezo, 1625.
DOBARAN y ZAVALA, Pedro, 1824; trae sin fecha.

* * *

ECHAGOYA, Juan de, 1575, Sevilla; trae en fecha de 1664.
ECHAVARNE y MENDIONDO, Miguel de, 1790, Cádiz; trae sin fecha.
ELUSA, Juan de, 1634, Sevilla, 1637.
ENDERICA, Pedro de, 1513, Sevilla; en Bilbao, 1688.
ERRASURRIZ, Ramón, Cádiz, 1797; pasaron a Buenos Aires y Chile.
ERRIQUENA, Juan Antonio de, 1805, Cádiz; sin fecha.
ESNOS - ESNOZ, Martín de, 1686, Cádiz; sin fecha.

GUEMES, Fernando de, 1561, Sevilla; en 1614; Marín, caballero de Calatrava, sin fecha.

* * *

HAZA LLAGUNO, Santiago de (cap) 1682, Cádiz; en Trucios, 1815 y en Colombia.
HELUSA, Diego de, vec. de Oñate, Sevilla, 1511; en Anzuola, 1637-41.

* * *

IBARTOLA, Iñigo, 1538, Sevilla; en Deva, no trae fecha.
IBARRUETA, s. XVI; sin fecha, Uruguay.
ICELA, Lope de, Sevilla, 1548; en Elgóibar, 1649.

YDOYAGA, 1535, Sevilla; en Tolosa, Albistur, Isasondo; sin fecha.
INDO, Domingo de, vec. de Elgóibar, 1534; en Cestona, sin fecha.
INSAHURBE, 1511, Sevilla; en Orozco y Arratia, 1769.
INURRIÇA, 1604, Sevilla; en Zarauz, sin fecha.
ISASBIRIBIL, José de, 1807, Cádiz; Mazmela, Escoriaga, sin fecha; Mazmela, Eskoriaga; sin fecha.
IRRUETA, Juan de, 1643, Sevilla; en Uruguay; sin fecha.
ISARRAGA Nicolás de, Azcoitia, 1537, Sevilla; Juan, 1646; sin fecha.
ISASOLA, Miguel Ibáñez, vecino de Deva, Sevilla, 1538.
ITURRIBALCAGA, Domingo de, 1583, Sevilla; en K. fecha tardía.

* * *

LABAQUI, Juan Francisco, 1773, Cádiz; Miguel, 1723; en Navarra, Chile, Argentina, sin fecha.
LANDAVERDE, Nicolás de, 1618; caballero de Calatrava, 1633.
LATADI, Juan, 1613, Sevilla; en Arízcun, sin fecha.
LAURAGA, Andrés de, 1508; Juan Bta., 1594; en Uruguay.
LEOQUI, Javier de, Navarra, 1775, Cádiz; sin fecha.
LEÇCOYA, Martín de, 1581, Sevilla; en Berriatua, 1593.
LORIAGA, Iñigo de, 1584, Sevilla; en Laburdi y Argentina.
LORRIAGA, Hernando de, 1513, Sevilla; en Alava, sin fecha.
LUBELÇU, Juanes de, 1556, Lubelza (?), 1646.

* * *

MALLEA, Jacome, vizc. 1540, Sevilla, natural de Eibar, 1558.
MANDOJANA, Pedro de, 1518, Sevilla; en Alava, 1595; Guipúzcoa, 1586.
MARTIARTU, Martín de, 1561; en Erandio y Baracaldo sin fecha.
MARULANDA, Antonio de 1698, Cádiz; no trae fecha en K.
MEAURIO, Agustín de, Portugalete, 1816, Cádiz; sin fecha.
MENDECHIRAGA, Juan de, 1553, Sevilla; sin fecha.
MENACA, 1534, Sevilla; trae fecha tardía.
MIQUELENA, Martín de (cap), 1683, Cádiz; en Azpeitia, 1769.
MINGUEZ - MINGO?, Manuel de, 1810, Cádiz; sin fecha.
MUGABURU, 1567, Sevilla; en Oquendo, fecha en Bilbao, 1771.
MUNECAS, Pedro de las, 1585, Sevilla; en Orduña, 1751.

* * *

OGIRONDO, Domingo de, 1633, Sevilla; Oxirondo sin fecha, Vergara, Oñate.
OLARTE y CERON, Juan de, vizc. 1650, originario de Luyando, Alava; en Azpeitia, 1642.
OLLALLA o OLAYA, Andrés de, 1675, Cádiz; sin fecha.
OLLOQUIEGUI, López, Juan de (cap), 1675, Cádiz; en K., 1709.

ONAIARTE, Pedro de, 1561, Sevilla; Oñarte, 1787.
ORIBE, Miguel de, 1535, de Orduña, Sevilla; fecha tardía en K.
OYO, Martín del, 1584, Sevilla; sin fecha en K.

* * *

RENTERIA, Prudencio de la, vizc. 1650, Sevilla; en Bilbao, 1736.

* * *

SAGASTUY, Juan de, 1581, Sevilla; en Alava, 1600.
SAN MARTIN ALBERDI, Bartolomé, guip. 1650, Sevilla; fecha tardía.
SOLARTE, Sebastián de, 1581, Sevilla; fecha tardía, 1686.
SOLAUN, Pedro de, 1655 Sevilla; fecha tardía en el valle de Llodio.
SOLORÇA, Francisco de, 1676, Cádiz. Vizcaya; fecha tardía.
SURIA, Alonso de, 1649, Sevilla; sin fecha.

* * *

TRABUDO, Pedro Ochos de, 1549, Sevilla; sin fecha.

* * *

UBAYA, Martín Sánchez de, 1603, Sevilla; sin fecha.
UGARA, López de, 1526, Sevilla; en Vizcaya sin fecha.
URAMENDI, Miguel de, 1643, Sevilla; en Vizcaya sin fecha.
URDAYRE, Juanes de, 1598, Sevilla; en Oyarzun Urdaide, 1625.
URENA, Leonis de, 1564, Sevilla; en Colombia sin fecha.
URESPEROETA - UREZBEROETA, 1640, Sevilla; Zarauz sin fecha.
UROSBURUETA, Francisco de, 1633, en Sevilla; sin fecha.
URQUIDI, Ignacio de (cap), 1652, en Sevilla; fecha tardía.
URQUIZA, Juan Pérez de, 1650; Sancho 1568; fecha tardía en K.
URRAMENDI, Miguel de, 1642, Sevilla; en Vizcaya sin fecha.
URZAINQUI, Juan Francisco, nav. 1791 en Cádiz; sin fecha.

* * *

VEDIA, Asensio de, vizc. 1540, Sevilla; Galdácano, Valmaseda; en Valladolid. 1597.

* * *

ZANDIETA, Pedro de, Oñate, 1511 en Sevilla.
ZARACONDEGUI, Cádiz, 1797; en Bedarona (v) y Chile.
ZARRICOLEA, Domingo de, 1645 en Sevilla; sin fecha.
ZUZUGANA o SUSUGANA, Antonio de, 1648, Cádiz; sin fecha.
SUASNABAL o ZUASNABAL, Fabián de, 1626, Sevilla; trae en Argentina, fecha tardía.

V.eraskiña: askotan, euskal ikurdi ta abizen liburuetan, auek Euskalerritik zuzenean saltatzen (igarotzen) dira Ameriketara: Colombia, Uruguay, Venezuelara...

AGUERREVERE o AGUIRREBIRE, Juan Miguel de, 1793. Cofradía de Cádiz. En la obra de Kerexeta dice: en Laburdi y Uruguay.
AUDIZABAL, Ignacio, San Sebastián; Habana (Argentina).
ALBARRATEGUI, Gaspar de, 1720, Cádiz; se dice, en Uruguay.
ARGAIZ, Fermín, Cádiz, 1797; Corella, Arnedo y Colombia.
ARRIONDO, Cádiz; en Vizcaya y Uruguay.
ARCHULETA, ARECHULETA o ARECHULOETA, Juan López de, 1519 en Sevilla; sin fecha en Vizcaya, Chile y Colombia.
ASTAIZA, de Durango, en 1527 en Sevilla; en Colombia.
ASUNSOLO, Martín de, 1650, Sevilla; en Vizcaya y Colombia.
ASCAR, Zuri, de Rentería; en 1610 en Sevilla; en Uruguay.
AZCORRA, Juan de, en Sevilla en 1547; en Bilbao, 1639 y Guatemala.
AÇURI, Santiago de, Guernica; en Sevilla en 1536; en Uruguay.

* * *

BARACIARTE, Francisco de, Cádiz, 1797; en Uruguay y Venezuela.
BELZUNZABURU, Bernardo, Pasajes, Sevilla.
BERECOCHE, Francisco de; en Sevilla, 1787; en Sara, Laburdi y Argentina.
BERNAGA, Juan de, en 1580 en Sevilla; en Colombia.
BERROGAIN, Agustín, Quito; en Argentina.

* * *

DOLAGARAY, Juan Francisco Deogracias, en 1807, Cádiz; Uruguay.

* * *

ECHAURREN, dueño de una fragata; en Guipúzcoa y Argentina.
ERRIETAN, Juan, en 1537 en Sevilla; Uruguay.
EZNARRIAGA, Andrés de; en 1683, Cádiz; en Oquendo, Ayala y Colombia.

* * *

GORRINDO, Nicolás Jacinto, Cádiz; 1808, Argentina.

* * *

HAZA LLAGUNDO, Santiago de (cap), Cádiz, 1682; en Ituren, Trucios, 1815 y en Colombia.
HERGUETA, en Navarra y Colombia.

* * *

IBARNEGARAY, en Benavarra, Bolivia y Uruguay.
IBARNETA, s. XVI. Sevilla; en Uruguay.
IRRUETA, Juan de, 1643, Sevilla; en Uruguay.
IZARBE, en Colombia.

* * *

LABAQUI, Juan Francisco, 1773 y en 1723 Miguel en Cádiz; Navarra, Chile y Argentina.
LAGARRAGA, Pedro de, de Plasencia, 1536, Sevilla; en Uruguay.
LAURAGA, Andrés de, 1588, Sevilla; Uruguay.
LORIAGA, Iñigo, 1584, Sevilla; en Laburdi y Argentina.
LUBERIGA o LUBERIAGA, San Juan de, Deva, 1562, Sevilla; en Tolosa, Azcoitia, 1625 y Uruguay.

* * *

MARCOTEGUI, Martín Pérez de, 1547, Sevilla; en Argentina.
MUSATADI, Vizcaya y Colombia.

* * *

OCHANGARAY o OCHAGARAY, Uruguay.
OLOCEAGA, OLOSAGA, OLOZAGA, Juan de, 1581, Sevilla; en Colombia.
ORUNA, Cádiz, 1797; Venezuela y Uruguay.

* * *

SATIZABAL, Colombiá

* * *

UBAD, Juan de, 1693, Cádiz; sin fecha en Uruguay.
UJUETA, Colombia.
URENA, Leonis de, 1564, Sevilla; en Colombia.

* * *

ZUASNABAL, Fabián de, 1626, Sevilla; Argentina.
ZUGARRONDO, en Navarra, Uruguay y Argentina.

Guk egin degun ikerketa txiki au egin bearra dagoen ikasketaren sarrera eta asiera bat besterik ez da, noski. Baiña bearrezkoa oso ainbeste euskaldunen ibilketak Sevilla, Cádiz eta Andaluzian jakin nai baditugu. Venezuela'ko euskaldune'kin egin zen bezala Amezaga'tar Andrease'k bere liburuan *El elemento vasco en el siglo XVIII venezolano*. Ta gezurra badirudi ere, aien abizenak Espaniako mutur artan leenago ezagutzen direla aien errian baño. Ta zer esanik ez, Amerikan baiño.

Bukatu dezagun. Barkatu mesedez eman dizuedan nekea. Lan au egin baño leen, eskertu nai izan zaituztet, Euskaltzaindian zuen lagun ta kide izatera deitu nauzutelako. Utzi didazue itzaldi au bukatzen, gure arbasoek eman ziguten arnasaz, eta gure gurasoek erakutsi ta esaten ziguten bezala: "ondo esanak ondo artu, ta gaizki esanak barkatu".

AHOZKO LITERATURA

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA-1980

Donostia, 1980-I-25

J. San Martin, Jagon Sailburua

Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun giroagatik eta herri mailan euskararen alde ikusten ditugun premiegatik iduritu zitzaion Jagon sailekoei Bertsolari Txapelketa Nagusia eratzea. Baina beste arrazoirik ere ikusten genuen ekintza hau berbiztearen bultzagarri: Herriagan bertsolari zaletasuna indartzea, bertsolari berriak sortzeko bidea eta abar. Honegatik, 1978ko Abenduko hilean egin genuen lehen bilera Bertsolari batzordeakin.

Baina, duela hamabi urte utzi ziren txapelketak berriz martxan jartzea uste baino lan zailagoa gertatu zitzaigun. Bertsolari Erakundearen batzordeakin harremanetan jarri ginen. Era askotako iritziak zituzten txapelketen alde eta kontra. Batzuk txapelketetarako hain trebeak ez izatearena, beste batzuk lehendik hartua duten goi maila arrisguan ez jartzearren, guti batzuk egungo politika egoeragatik eta abar. Eragozpenok lehen ospea harturik zutenetatik zetozten batez ere, eta guk, hain zuzen, hoiek behar jaialdi egokia gertatzeko. Gainerakoan, gehientsuenak konforme zeuden.

Harremanon ondorioz, txapelketa eratzeko arautegi bat egin behar izan genuen, bertsolaririk gehienak onar zezaketen eran. Azkenik, Bertsolari Erakundeko batzordearen onespenez plazaratu zen asmoa eta Txapelketa antolatzea martxan jarri zen. 1979.eko abenduaren 23 eta 30ean Arrasaten eta Gernikan egingo ziren lehen eliminatoriak azkena, 1980an, Donostian jokatzeko.

Txapelketan partaide izateko eskubidea izango zuten lehenago Euskaltzaindiak eratu zituen Txapelketa Nagusietan agertu zirenek eta gainerako sariketarik aipatuenetan irabazle izan direnek. Aburu honekin hautatu ziren 16 bertsolari: Amuriza, Arregi, Azpillaga, Egileor, J. Enbeita, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Gorrotxategi, Iraola, Larrañaga, K. Lizaso, Mitxelena, Mugartegi, Narbaiza, Xanpun. Eta horietatik inork huts egingo balu, Zeberio, Zabala "Lexo", Mitxel Xalbador eta Mañukorta ordezko. Parte hartuko zuten 16 bertsolariekin bazkari bat ere egin genuen Azpeitian, antolakizunaren berri emanaz.

Antolakizun batzorde bat izendatu zen, gai jartzaileen talde bat osatu eta epai-mahaia izendatu. Azkenik, Bertsolari batzordeak, epai-mahaiak bertsoak baliatzeko oinarrizko aburuak markatu zituen: a) *Gaia:* gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu. b) *Hizkuntza:* esateko moduaren edertasuna. Era poetikoak aurkituz. c) *Egitura:* saioaren sarrera, jarraipena eta bukaera. Gai guziari lotura bat eman zezaten. d) *Neurriak eta puntuak:* neurria musikaren arabera. Puntuetan, potoez gainera, puntuok ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zitzaion.

Arrasateko saioaren ondotik J. Mitxelena erretiratu zen, osasunagatik, eta bere ordez Zeberiok hartu zuen parte Gernikan, baina puntuazioetarako baliorik gabe. Abenduko bigarren saioan, Gernikan eman zen aurrera pasatuko ziren 8-ren berri: Amuriza Azpillaga, Enbeita, Etxeberria, Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga eta Xanpun.

Finala, Erregen egunez jokatu zen Donostian Karmelo Balda pelotalekuan. Goizean, bi orduz eta arratsaldez, hiru, oso goi mailan azaldu ziren ber-
tsolari guziak. Arratsaldeko lehen ekinaldiaren ondorean, epai-mahiaren erabakiz, Amuriza eta Enbeita pasatu ziren aurrera, bien artean azkena jokatzeko. Azken erabakia: Xabier Amuriza txapeldun eta Jon Enbeita bigarren.

Euskaltzaindiko idazkariak jarri zion Amurizari txapela eta E. K. N.-ko Kultur kontseilariak Oteizaren eskultura trofeotzat; gainerako zazpi bertsolarientzat ere, diruz gainera trofeoak banatu ziren Diputazio, Aurrezki Kutxa eta bertso saioak eratu diren hirietako Udaletxeen partetik.

Arrasate eta Gernikan ez zen bildu jendetza gehiegirik; egualdiak ere ez zuen lagundu. Baina, Donostian frontoia ia beterik egon zen. Lau mila pertsona ziren entzuleen artean, txaloz eta errepikak kantatuz, egun oroz giro ederra gordeaz.

Azken egunean bertsolariak hain ondo egon zirelako, antolatzaileok geuk uste baino Txapelketa hobea lortu zen. Lasai esan genezake aurtengo final honek ez diola aurretikoeri zorrik, eta txapeldunaren azken saioak inoiz txapelketetan ezagutu diren onenetakotzat jo genezazkela. Oraingo hau hain ondo irtetzeak gerokoen segurantzia ematen digu.

Bukatzeko, Txapelketan parte hartu duten bertsolariei eta eratzen lagundu diguten guziei eskerrak eman beharra dago, baina batez ere, Jose Mari Iriondo eta Antxon Aranbururi, lanik gehiena eta neketsuena berengan eraman dutelako.

Bertsolari Txapelketa honetako bertsoez liburua osatzeko eskubidea A. Zavala euskaltzain jaunari eman zaio, Auspoa Liburutegiaren bidez gai honetaz egiten ari den lanagatik. Kasetak grabatzearena ordea subastara atera zen, gastuetan laguntzeko. Erakuntzatik espero zen defizita ordaintzea babesle izan den E. K. N.-ko Kultur Kontseilaritzak eta Gipuzkoako Aurrezki



Jorge Oteizak bertsolarien txapelketarako buruturiko irudia.

Arrasate-Gernika 1979-XII-23 - 30
Donostia 1980-I-6



Jose Mari Satrustegik, Euskaltzaindiko idazkariak, Xabier Amurizari txapela ematean.

Donostia, 1980-I-6

Kutxa Probintziala, Bilboko Aurrezki Kutxa eta Lankide Aurrezkia arduratu dira.

Heldu den urtetik bailararik bailara eta herriz herri Txapelketak eratzea nahi genuke, bertsolari berriei aukera emateko eta hurrengo Txapelketa Nagusirako hautaketa berria lor dezagun.

Ondorean xehetasun gehiagorekin, batzordeko idazkari den Jose Mari Iriondok emango du bere berri.

BERTSOLARI TXAPELKETA ERATZEAREN BERRIAK

Donostia, 1980-I-25

Jose Mari Iriondo, Bertsolaritza batzordeko idazkaria

Arratsaldeon.

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIko kontu-ematea egin behar dudala gaur esan didate, ahalik labur eta zehatzen. Erabateko lan oso bat egiteko, denbora eskasi gogorra izan dut. Eta hala ere, bihoaz zenbait datu Erregen egunez haundikiro Karmelo Baldan amaitu zen Txapelketa horri buruz. Bestalde, emango ditudan datuek balio bezate, gaur edo bihar, azterketa bat nik baino sakonago egin nahi lezakenarentzako, ez bait dut uste TXAPELKETA NAGUSIA bertan behera uztekoa denik. Izan du alderdi makurrik; baina balantza batetan jarriz gero, alderdi on gehiago izan duela aitortuko nuke, txapelketa ondorengo egunetan egunkari eta aldizkariek ere horrela egin dutela gogoraziz.

Txapeldun berri bat

Hamabi urtetako etenaren ondotik egin dugun BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK, txapeldun berri bat eman digu. Izen berria, txapelketetan lehenengo aldiz azaldua; eta bertsolari berria, estilo aldetik ere. Xabier Amuritzak, Basarri-Txirrita-Uztapide izen haundien zerrendara igotzeko merituak egin ditu; eta, hor dago. Bertso-aro berri baten hasiera da, agian, bat baino gehiagok esan duenez.

Bigarren saria ere, bizkaitarrek eraman dute: Jon Enbeitak.

Ez dut uste zer esanik dagoenik, juradoaren iritziarekin bat etorri bait dira lehen aipatu egunkari eta aldizkarietako kritikoak ere. Pozgarri da hori guretzat; eta epai-mahaiak merezi txalorik onena ere horixe dela esango nuke. Goiz Argi, Zeruko Argia eta Anaitasunako azken zenbakietan iritzi berdintsuak eman dira, juradoaren lanari buruz: "Epailarien lanari dagokionez, zuzen jokatu dutela esango nuke, dio Ramon Garaik. Gizon jakintsuak ziren eta oso ongi neurtu izan dute lana".

Zer txalo hoberik?

Orain 45 urte hasitako Txapelketak, eta lehen esan bezala 12 urtetako etenaren ondotik, zuzperraldi ona izan du, beraz, Erregen egunez.

Eta bertsolaritza ere, gauregungo gizarteak eskatzen eta esijitzen duen sail urbanoago batetarako gai dela ikusi izan da.

Jaialdiak

Bertsolari Txapelketa Nagusia, hiru egunetan zehar egindako SEI jaialditan erabaki da.

Arrasate eta Gernikako Polikiroldegietan, 1979.eko Abenduaren 23 eta 30an. Eta jaialdi nagusia, finala, Donostiako Karmelo Baldan, goiz eta arratsalde ere, Erregen egunez, 1980.eko Urtarilaren 6an.

Lehenengo bi egunetan giro ona izan ba genuen, Karmelo Baldakoa ikusgarria izan zela esan behar, nahiz eta prentsak eta irratiak ere, ez dakigu zer arrazoi ixil dala medio, laguntza haundirik ez zigun eman. Eskupekoa hartzen ohiturik edo grinaturik dagoen zenbait "kazetari" guztiz euskal-zalek, edozein proba edo aizkol-apustu baino ondotxoz ere guttiago aipatu digu Bertsolari Txapelketa Nagusia. Errua, geurea izan da, agian. Ez bait genuen uste edo... ez genuen sinetsi nahi horrelako esijentziak izango genituenik.

Baina, ekina egina da. Eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 1980,hor dago, Amuritza txapeldun eta, Enbeita Jon, bigarren dituelarik.

Txapelketarako lehen urratsak

Antton Aranburu zirikatzaile genuelarik, aspalditxotik genbiltzen alde batera-bestera, txapelketa egin behar genuela ametshaundiak eginez. Dozenerdi bat bilera egin ondoren, beti amets hutsetan ibil ez gintezen, Euskaltzaindiko bertsolari batzordea Donostian bilerazi genuen 1978.eko Abenduaren 22an. Juanjo Zearreta, Juan San Martin, Abel Muniategi, Mariano Izeta, Fernando Artola, Jose Mari Aranalde, Antonio Zabala, Mitxel Itzaina, Alfontso Irigoien eta ni nerau bildu ginen. Eta bertan behera, Euskaltzaindiaren ardurapean, Urtarrilaren 12rako bertsolariek duten Batzordeari dei egitea erabaki genuen, berekin elkar lanean zerbait egin genezakeen aztertu eta ikusteko. Bildu ginen bildu. Ez genuen bilkura hartatik animo haundirik atera. Bertsolariek ez zuten begi berdinez ikusten Txapelketa hori. Honelako ekintza bati lotzeko, hotz eta motz aurkitu genituen. "Herria borroka armatuan ari den artean txapelketa bat egitea, bitxikeria merkea izango litzateke" bota zigun bertsolarietako batek. Ez zuten askorik balio gure argudioek.

Alabaina, bertsolarien batzordeko bi-hiruren iritzia zela soilik-eta, berriro Loiolan bertsolari guztiekin bildu nahi genuela bota genien. Baina orduan ere, hiru-lau lagunek bakarrik erantzun zuten. Hasi genuen bideari uko egite-

kotan ez geunden ordea; eta Maiatzaren 5ean (1979koan) beste bilera bat egin behar genuela eskatu genien bertsolariei. Eta, bat eta besteari geuk ere dei egin genion badaezpada. Lazkano, Agirre, Larrañaga, Gorrotxategi, Igarzabal, Sebastian Lizaso, Aittola, Zeberio, Narbaiza, Azpillaga, Iraola, Murua, Mendizabal eta beste bakarren bat etorri zitzaizkigun. Luzez hitzegin eta diskutitu ondoren, batzuen ezezkoa nabarmena zen. Baina, beste norbaitzuk konformatuko ziratekela ohartu ginen.

Elkar-lanerako genituen amets politak utzi, eta... "baldintzak seinala genitzala" eskatu ziguten. "Nahi zuena etorriko zela eta nahi ez zuena ez". Orohar, iritzi hori jaso genuen.

Oinarriak eta deia

Bertsolariekin elkar-lanerako girorik ez zegoela ohartu ginenean, Euskaltzaindiko Bertsolari batzordekook, oinarriak antolatu eta Euskaltzaindiari aurkeztu genizkion, Irailaren azkenengo bileran. Baldintzaz batean, lehen eta bigarren mailako bertsolari gehienen zerrenda ere egin genuen, nondik-nora hasi kontuak ateratzeko. 90 bertsolariren izenak damazkigun zerrenda hor dago. Ez daude hor denak. Beste hogei bat falta direla ikusi dut geroztik.

Euskaltzaindiak aurrera egiteko bidea eman zigun bezain azkar, 1979.eko Urriaren 20an berriro bertsolariekin bildu ginen Loiolan, eta baldintzak entregatu genizkien, etorri ez ziren lehen mailakoei korreoz bidaliz. Oinarrietan, lehen mailako 14 edo 16 bertsolari behar genituela esaten genuen . Eta kopuru hori lehen mailakoz osatzen ez ba zen, zenbait txapelketa eta sariketan nabarmenduriko Gazteak onartuko genituela.

Bertsolari bat baino gehiagok, lehenengo momentutik erabaki zuen parte-hartzea, beste askok lehenengo momentutik ezetza erabaki zuen bezelaxe.

Azaroaren 15 artekoa eman genien erantzuteko, telefonoz nahiz idatziz, eta nahiago zuenak hitzez-hitz.

Epea bete zenerako, lehen mailakoetatik 11 bertsolarik baiezkoa eman zuten. Eta bigarren mailakoetatik, beste 16k.

Ezezkoen artean, arrazoi desberdinak eman zitzaizkigun. Ez dago izenak zertan aipatu. Baina, norbaitek, urteen pixua zuen aitzaki. Beste batek, osasuna. Beste hark, ez zuen bide garbirik ikusten. Besteak, ez zela txapelketako gizona esan zigun. Norbaitek, bitxikeria zela eta gabonak lasai pasatu nahi zituela. Eta, gogorragoa dena, beste norbaitek, EUSKERA pikutara ba doala eta ez duela erremedio merkeetan ibiltzeak balio. Funtsean, beldurra eta ikara zegoen. Eta, guk konprenitzen dugu beldur eta ikara hori, beste aitzakiak deusik balio ez ba digute ere.

Txapelketarako bertsolariak hautatzea

Lehen mailakoak 11 eta bigarrenekoak beste 16,27 bertsolari geneuzkan 16 postu betetzeko.

1979.eko Azaroaren 22an, Donostiako Diputazioan bildu ginen berriro Juan San Martin, Juango Zearreta, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu eta ni nerau. Abel Muniategik etorri ezina adierazi zuen. Kriterio desberdinik bai bait zegoen, eztabaida luzea sortu zen lehen mailakoen osagarri hautatu behar genituenez. Baina, iritziak-iritzi, arautegiak esaten duenari lotu gintzaizkion:

"Txapelketa honetarako izena ematen duten lehen mailako bertsolariak gutxiegi balira, azken urteotako Bertsolari Gazteen Txapelketa eta Sariketetan nabarmendu diren bertsolariei dei egingo zaie".

Eta horren araberan, eskaintzea eginda zeuden hamaseitatik, Jon Enbeita, Patxi Iraola, Angel Larrañaga, Koxme Lizaso eta Jon Narbaiza hautatu genituen, Amuritza, Azpillaga, Arregi, Egileor, Etxeberria, Ezponda, Garmendia, Mitxelena, Mugartegi eta Xanpun-ekin hamaseikoa osatzeko. Gazte horiek, IdiazabalGo Zepai sariketan, Añorgako Orixe sariketan, Gipuzkoa eta Bizkaiko bertsolari gazteeen txapelketan, Loiolako herri irratikoan, Zaldibikoan etab., txapeldun izanak bait ziran.

Suplentetzarako, Xabier Zeberio, Santi Zabala "Lexo", Mitxel Xalbador eta Mañukorta aukeratu ziren, ordena horretan.

Lantaldeak

Egunak gainera zetozela-eta, Donostiako bilera horretan berorretan lantaldeen hautaketa ere egin genuen, egun horretako akta-agirian Euskaltzaindiari kontu ematen zaionez:

a) Epai-mahaia: Antton Aranburu (idazkari), Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi, Mitxel Itzaina, Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi", Jose Mari Aranalde, Antonio Zabala, Juan San Martin, Alfontso Irigoien, Fernando Artola "Bordari". Arautegian 10 gizon behar direla esaten bait da.

b) Gai-emaile eta aurkezlari: Joxe Mari Iriondo.

c) Gai-batzordea: Antton Aranburu, Antonio Zabala, Jose Mari Aranalde, Juan San Martin, Fernando Artola "Bordari", Juan Mari Lekuona eta Jose M. Iriondo.

d) Antolaketa eta Publizitate batzordea: Juanjo Zearreta, Iñaki Beobide, Antton Aranburu, Juan San Martin eta Jose Mari Iriondo.

Esan gabe doa batzuen lana errazagoa eta arinagoa ere izan dela besteena baino. Baina ekipoak antolatzea ezinbestekoa ikusi zen, lan asko

zegoen-eta egun gutxitan egin beharrekorik. Bestalde, Gabon eta Urte Zahar-Berri ingurua ez da lanerako garairik onena ere.

Kultur kontseilaritzarekin harremanak

Bere laguntza pozarren emango zukeela adierazi zigun Kultur Kontseilaritzak, Imanol Olaizolaren bidez. Eta halakoxe "ofizialtasun bat lortzeko" eta gisa honetako ekintzek oraindainokoan izan ez duten babesa izan genezan, eskuhartze hori interesgarria iruditu zitzaigun. Horrela jakinerazi genion Euskaltzaindiari Juan San Martin eta Jose Luis Lizundiaren bidez. Eta ontzat eman zen.

Eskuhartze horrek bere alderdi makurrik era ba zuen, edo izan zezakeen. Baina eginik genituen presupostoetan 950.000 pezetako koska gelditzen zitzaigunez, eta Euskal Diputazioetara eta Aurrezki Kutxetara hurbiltzeko bide ona zen. Eta bestetik, irratia eta prentsarekiko harreman guztietarako ere, irrati eta prentsa ofizialen kasuetan behintzat, egokia zirudien, gero nahi genuen eta agindu zitzaigun guztia lortu ez ba genuen ere. Azkenengo jaialdi nagusia, osorik eta zuzenean telebisatzeko hitza eman zitzaigun. Eta Urtarrilaren 3an Bilbora deitu nuenean, gauzak zer-nola ote zeuden jakin nahiez, ez zegoela ez zuzenean eman eta ez video egiterik ere esan zidaten. Harri eta zur utzi gintuzten. Baina errealitatea hori zen. Ordainez, pelikula bat egin zezatela gutxienez ere eskatu genien; eta... horrela egin zuten. Egin ba zuten egin! Akerraren hadarrak baino bihurriago gertatu zitzaigun lan hori, berrogei minutu erreportaia bat bi aldiz eman ahal izan ba zen ere.

Gainerakoan, prentsa eta irratiak, salbuespen batzuk aparte, ez zigun gehiegizko laguntzarik eman. Geure erruz, agian. Hurrengo batetarako ere esperientzia ona dela deritzagu. Eta inola ere ahaztu ezinezkoa, gainera.

Argitarapen eskubideak

Txapelketako bertsoak argiratzeko eskubideei dagokienez, gero sor zitezkeen arazoak eta nahaspilak aldez aurretik lotu nahi izan ziren. Bertsoak liburuan argiratzea, berak horrela nahi ba zuen, Antonio Zabalak Auspoan egin zezan uztea erabaki zen, bestela subasta egiteko.

Lan hori, bere gain hartu zuen; eta oker ez ba gara, azkenengo jaialdikoak argiratuko ditu.

Grabaketari buruz, lan hori subastatu egin zen. Eta eskerrak horrela egin zela. Bilboko Xoxoa argitaletxea eta Elkar-iz-herri gogoa hirukoaren eskaintzak izan zirEn. Hiruko honek, urak bere errotara eraman zituen, bost urtetako eskubideak 525.000 pezeta ordainduz. Kaxeteak plazaratzen ari direla ikusi dugu. Eta ongi ikusten dugu, bertso-zaletasuna zabal dadin.

Sariak

Bertsolari Txapelketa honen beste puntu diskutigarria, norbaiten iritziz, sarien saila izan bide da. Alabaina, bertsolaritza edozein literatur sariketaren mailara jaso behar zela uste genuen. Eta horregatik eskaini zen horrenbeste sari, ez bertsolaria zirikatzeko. Eta gehienez ere, bi ikuspegiak lortu nahiez.

Lehenengo saria, 200.000 pezeta, Euskaltzaindaren txapela eta Eusko Kontseilu Nagusiaren izenez, Jorje Oteizaren ertsolaari irudia, Xabier Amuritzak eraman zituen.

2.—100.000 pezeta eta Eskualtzaleen Biltzarreko Makila, Jon Enbeitak. Gainerako sariak, alfabeto-ordenaren araberaz, honela:

- 50.000 pezeta eta Arabako Diputazioaren saria, Jon Azpillaga.
- 50.000 pezeta eta Bizkaiko Diputazioaren trofeoa, Etxeberria.
- 50.000 pezeta eta Arrasateko Udalaren trofeoa, Gorotxategi.
- 50.000 pezeta eta Donostiako Udalaren trofeoa, Anjel Larrañaga.
- 50.000 pezeta eta Gipuzkoako Diputazioaren trofeo, Txomin Garmendia.
- 50.000 pezeta eta Gernikako Udalaren trofeo, Xanpun.

Doinu desberdinik gehien erabiltzen zituenarentzako, Iz-Elkar-Herri Gogoaren saria, Patxi Etxeberriari eman zitzaion. Eta doinu Berri gehien erabiltzen zituenarentzako zegoena, Xabier Amuritzari. Biotatik lehenengo saria, Argentinatik etorrita hemen zebilen Pedro Mari Otañoren alabak eman zuen.

Bertsolarien taldekatzea

Bertsolari Txapelketa Nagusia, hiru egunetan egin da, lehen ere aipatu denez.

1979.eko Abenduaren 23an, Arrasateko Polikiroldegian, Jose Mari Arregi, Jesus Alberdi "Egileor", Patxi Etxeberria, Txomin Garmendia, Joakin Mitxelena, Jon Narbaiza eta Xanpun-ek kantatu zuten. Arratsaldeko jaialdian berriz, Xabier Amuritza, Jon Azpillaga, Jon Enbeita, Ezponda, Jose L. Gorrotxategi, Patxi Iraola, Anjel Larrañaga eta Jon Mugartegik. Taldekatzea, zortzi egun lehenago hamasei bertsolariekin egindako lagunarteko bazkarian erabaki zen, horretarako zotz eginez.

Abenduaren 30ean, Gernikako Polikiroldegian, alderantziz kantatu zuten. Arrasaten goizetik kantatu zutenek, arratsaldez; eta arratsaldez kantatu zutenek, goizez (1).

(1) Mitxelenak Arrasaten ondoeza izan zuen. Honen hutsunea,, Gernikan, Xabier Zeberiok bete zuen; puntuaziorako baliorik gabe.

Gernikako bi jaialdiak amaitzean, eta... Arrasate-Gernikako saio osoaren araberaz, epai-mahaiak, Amuritza, Azpillaga, Gorrotxategi, Enbeita, Etxeberria, Garmendia, Larañaga eta Xanpun klasifikatu zituen Donostiarako.

Azkenik, Donostiako jaialdia, Karmelo Baldakoa alegia, goiz eta arratsaldez egin behar zela erabaki zen, bertsolarien oniritziz. Eta puntuaketari zegokionez, hutsetik hasita egin behar zela azkenengo jaialdia.

Zortzi bertsolariak goizetik eta zortzi arratsaldetik aritu ziren. Baina, lehenengo eta bigarrenaren arteko norgehiagoka bat planteatu zen azkenean, aldez aurretik bertsolariek egindako eskabidea onartuz. Bigarren-hirugarren-laugarren arteko auzia ilunagoa zatekeen momentu hartan; baina, horrela erabakirik zegoen aldez aurretik, esan dugun bezala.

Epai-mahaiaren aburuak

Epai-mahaiak, berak ere neurketarako abiapuntu bat izan zezan, eta bertso-zalea nahaspila ez zedin, honako aburu hauez baliatzea erabaki zuen juradoak:

a) Gaia: gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu behar du bertsolariak.

b) Hizkuntza: esateko moduaren edertasuna.

c) Egitura: gaiaren sarrera, jarraipena eta bukaera.

d) Neurriak eta puntuak: neurria musikaren araberan, puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zaio.

Juradukoak 1979.eko abenduaren 20an, Arrasaten, egindako bilera batetan onartu ziren oinarriok.

Amaitzeko

Aurrera begira, zer?

1980.eko BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA hor gelditu da. Ikasbide ederra, hurrengorako ere. Horretan ari izan garenok, autokritika sakon bat egin beharko dugu, eta zuzendu eta hobetzeko dagoenik zuzendu eta hobetu ere. Hiru urtez behin txapelketa egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Hiru urte, laster joango dira. Laster, herrietako, bailadatako eta probintzietako SARIKETA antolatzaileekin hizketan hasi beharko. Añorga, Idiazabal, Errenteria, Mallabia, Mungia, Zaldibi, Gabiria... Sariketak egiten,

antolatzen ari denik ba da Euskal Herrian. Euskaltzaindiak beroiekin kontatu beharko du aurrera begira, lanak errazteko, lan berdintsuetan dabilen jendearekin batean lanak egiteko, eta... zerotik abia ez gaitezen.

Guztiau aipatu besterik ez dut egiten. Goraintzi, eta hortik aurrekoa, denon eginkizuna dela deritzat.

HONDARRABIKO MINTZAIRAN BERTAKO BERRI

Hondarribia, 1980-IV-18

Fernando Artola, "Bordari"

Euskaltzáindiko Abá-nagúsia, Aita Villasánte adiskídea, beste gáñeko euskaltzáiñ eta urgázleak, lagúnak zuék ére, herritár eta emén zatén dénakeri, agúr ta ongi-etórri biyótzetik. Ta bestérik báge neré estarrátian sartúko naiz.

Aspáldi báteko denbóratara ez náiz fángo ní jayó nitzén herrí honétako sustráyen billá. Papér zárregiak ez báitute déus haundírik esáten, ero esáten báute, nón dire papér óyek? Iñórk ez díttu atzemán oáñ árte. Dúdik báge bái dírela, atzemán eíñ biár. Begíra. Herríko-etxé honétako hamabostgárren gizáldiko papér bátek haú esáten du: "Honélako ero álakok Segóbian, Alkázarren, oáñ dela bostehún urtéko papér bat leíttu zuela, ta bértan arkíttu guré herríaren eta Mutríku izénak". Ez dut usté Fuenterrabía jarríko zuénik. Badúgu béste gáuza bat argíttu bihárra. O'Reilly'k beré *Sitio de Fuenterrabia* izéneko libúruan, haú esáten du apárteko erakútsi bezéla: "En el año 943 de Nuestro Señor Jesucristo, convocóse un Concilio en Fuenterrabía" ta, haú ta horí, ta hurá... Bértatik sortú níri kézka. Nólako izéna zuen neré herríak amargárren gizáldian? Leíttua nuén *Geografía del País Vásco-Navárro'n,* lenbíxiko aldíz Ondarríbi ero Hondarríbi izénarekin agértzen déla nafárroako Sántxo Jakíntsuen izkríbu bátian Léittua báita, mílla ehún ta berrogeitahamár urtéko agíri bátian, Afóntxo Zortzigárrenak berdíñ déitzen dióla guré herríyari. Izén gábeko áurreko arrástuak ere badíre. Nafárroakoak omén giñén 1076'gárrenian, urté honétan Kastíllara pasátu, berríz 1123 gárrenian nafárroara bueltátzeko. Géro, azkénian 1.200 gárrenian berríz ere Kastíllarekin baltz egín genuén. Ta, órtan gaudé. Ikúsiak ikúsi, léittuak léittu Alkázarreko papéra agértzen ez dén bitártian, zéra esán nahi nuke: Délako hamargárren gizáldiko Kontzílio horrén arrástuak billáka ibíllia naizelá. Choysi izéneko abáde bátek, Frántziako Akadémikoa béra (1644-1724), Elízako hixtóri bat eskribíttu zuén eta gero Esteban Gazan délako bátek erdéraz jarrí; háu dio: Alízikan, Narbónako Arnusto apezpíkuak, Tarragónakoen órdez giyátu zuéla dálako kontzílioa Fuenterrabían. Madriléko Bibliotéka Nazionálean eskú ártian ibílli dut Gazán'en líburua. Géro, nik ez dákit zénbat líburu haundí Kontzílioaki burúzkuak ere examiñatu ditút. Délako Arnústo Narbónako horí askótan agértzen da burú-nagúsi, biñon ez dut arkíttuz ez Ondarríbi kútsuzko izénik ez eta Font-arrabía'ren itxúrazkorik. Fontanis, Font-froide,

Fontcouverte, Fontfreda ta hólakuak bai. Choysi'ren *Histoire Générale de l'Eglise,* ez dut eskú ártian ibílli. Anka sartú zuén neré ustéz frantsés abateak. Fiyázittez zú líburu aundíyekin askótan, Espasa'k San Juan de la Kruz, nació en Fuenterrabia esáten baidu, Fontiberos'ko izánik. Nafartárrak giñéla ta 75 urtétako tártia agértzen da izénik gábe. Planplónako papér zárretan billátu bihárko ziértoro nóla déitzen ziotén guré herríyari jakítteko. Errománuak nóla bataiátu zutén? Bátek báleki! Istílla, pútzua, lóya, ondárra ta íya izángo zen ugári Oleárso-Haizkíbel'en óñetan egúzki aldétik eta arkáitza ta itxásoa ifárretik. Izéna? Fontis-rrabide leítzia posíble da Bayóna'ko amasei garreko gizalitigan apezpikuen larruxko agíri bátean. Ortik garbí atéra genezaké ondóriyua: Ondarrábide. Laureun urtéko tártia da ordía. Behóbia're Beobíde oté? Zé inpórta du! Hemén, Birásua itxásuarekiñ bat egíttera difánian, ondárra puntálian, ondárra eskúñ-ezkér, ondarráizu, ondarra erdíko-pláyan; ondárra, ondárra, ta irundárren ábotan (burlóso alénak) "Onyarrabíko kanpanttórrian karramárruak dántxan". Guré ttiki dénboretan Onyárbi deítzen ziguténian, burla bezéla artzén nungún. Oañ, estropáretan bandéra irabáztean, Aupa Onyárbi, dióte irundár anáyak biótzetik. Ta, gú kontent ainbéstez. Neré belárriyak eméngo zárreki Ondarrabíya entzun izan ziyen beti. Gero Ondarríbi ero Hondarríbi agértzen zéla mixíko aldíz papéretan, ta álako moda berrí bat jayó zen Mugika-Sagartzazu-tarren ingúruan. "Satarka" olerkáriya Ondarríbi izénaren zale zen. Nik esáten niyón: "Juan Lazkáno beltzerána / Gipúzkoako kapitána / frantsés ósteak jakingo dik/ Urá Ondarrabíyan zaná.— Ori gerókua duk erantzun ere. Ondarribi izena naiko zabáldua zen, biñon bértakuak Ondarrabíya esaten zuten oaindik. Gero ardipat balíyo ez duen hutskeria bátegatik, iyá denak katxéteka hasi giñen. Birásoko urak nahiko kotaminatuak etortzen dire oañ eta izéna zikindu egin dela, hori da déna. Zikindu ero garbíttu. Bakotxak nor bere oponíyua dugu hortan. Gipuzkoako mugan dago Ondárruako itxáso-baztérra. Han, ur garbíyaguak? Hemén auzúan Ondarraizu, ta guk oañ emen Hondarribía. Begó. A, izena ta izana! Lana falta izugárriya déla? Ondár alé dénaki hátxea jarrí nahi diónak balúke náhiko lan. Lana erréxagua da billátzen jornála biñón. Barkátu broma.

* * *

Guré Herríya múrru ta arrésis ingurátua izan tzen. Guré áurrekoak gerra bizi-biziyan bizítu ziréla agíri-agírian dago. Gerra dagón tókiyan soldáduak ere badíre. Hemén bértakoak ézik kánpoko askó noski; kastilláno askó esan nahi dut. Nozpátt kaskóñak ere bai, Arkoll, Gorgot, Panpinot, eta holako izénak adirázten dutenez. Honékin esan nahi dut, bértako mintzáirak izándu dittuéla nahíko kontráyo. Elízan ere nahíko erderazále; hainbéste soldáro, sarjénto, kapitán ta agintári-burú'kin ez da arrítsekua. Esku-ártian erabílli izándu dut (ibilli ketu dut) eskuz eskribíttutako líburu lorí bat. Aspáldikua. Nahiko aberátsa zen jakingárriz. Oañ eztákit non den. *Biaramúna* hítza bestérik etzén agértzen euskéraz, prógu húrrengo egunéko meza gora-béra'ri eskribíttu záti bátian. Tokátzen den bezéla, euskérazko apellídu askó ere bai. Guré herrí hóntan baserritárrak eta arrantzáliak gorde dute gehien bat gure

mintzaira. Neré ttikí dénboretan kastillánoz tútik etzékiten arrantzále ta baserritár askó zirén hemén. Oándik ezer gutxi dakitén batzuek izango dire. Herrí pollíta da Hondarrabíya. Bayóna ta Donostíya'ren bidé erdíyan esán ditteké déla kokátua. Horrégatik bildúko zirén hemén, gizaldi honén lehenengo urtéan "Euskeltzale Biltzarra" sortzeko asmotan jakintsu askó.

* * *

Jardiñ eta árbola edérren ártian, bazén órduan Kasino-Restaurant galanta bat "Miramar" izénekua. Oañ, 30'ren bat urte bota zuten; eta batzuek bart lo egiñ duzuten etxé izugárrizko hori bertan áltxa. Kasínu ártan bildú zirén euskal-gizon jakíntsuak. Urrengo urtían, bértan bildú ere Sabino Arana ta beré lagunak, euskéraz eskribítzeko lege berriya portxaz ifiñi nayean. Déna zillegardátzeko ta azpíkoz gora bótzeko kontu horí, ez da oáñgua, béraz Birasóz aruzko anáyak nahiko haserratu ta gelditu omen ziren. Gizon gutxi bátzuetik kánpo, nahiko arlotia zen hemengo jendia; euskal-gíro haundírik etzen sortúko. Aurrez-áurre daukagú, hor Ondarráizun, Château D'Abbadie. Egun pasa joaten giñen eskólako umiak urtéro bértara. Guría bezéla jótzen genuen. Oañ beré tókiyan baldin bádago ere, apartátu egiñ zaigu; eztá milagro hainbeste fíltro ta komérirekin. D'Abbadi'ren izéna, zar batzuek, maiz xamar aipatzen zutén beré argúriotan. Astromónua zéla esáten zutén.

* * *

Oroitzapén orí, "EuskálJáyen/kútsua, dúdarik báge. Euskál-Jáyak ziréla ta azkéneko gizáldiya akabátzeko zazpí urté fálta zirélarik, sóna aundíko euskaldún bátzuek sáriak irabázi zituztén emén. Arrése Beítia etzén nornái Arzak bazén zerbátt, ta Klaudio Otaégi, naiz zegamárra izán, Ondarrábiyako maíxua zánez, bértakua bezéla zen, ta zerbátt miñón geyágo ere bazén. Poeta aipagárria ta ugáriya. Or daude beré lanak testígu. Udarregi, Pello Errota, Otaño ta Gorriya bertsolári famátuak aríttu zirén bértsotan Kale nagúsiyan. Euskál-Jáyak géroztik irú aldíz izándu dittugú. 1914'koak sóñu aundírik gábekuak, Europako gerra zela mériyo. Aita Erramún Bérakua ta Aita Dámaso Intza sarittuak izandu ziren béste bátzuen ártian. Géro 1925 gárrenean, óndo oroitzen naiz, euntálako fiéstak: Lóre-jókuak, "Satarka" irabaztún. Axkoláriak, bertsoláriak, dantzáriyak, orfeóyak, músika-bándak; miñón nolákuak! Amabost urté nittuén. Don Anjel Telleria, bértako orgañístak sária irabázi zuen, baita Karraskedo Olárrak'ere, Aita Elizondo kaputxínuak ere bai. Euskál-Jai auen 50'garren urte muga zela-tá, orain bost urté, franko ondo beté genuen légea. Oaíndik fréxko dagó gauza ta eztut deúsere esango. Onéla den, zuéntzat óbe gañikéra, náiko itzóntzi naiz eta, asítzen naizénian. Amabérjiñetan, erríko jáyetan, urtéro izáten ditugú bertsoláriyak. Txirrita, Frantxesa, Gaztelu, Saiburu, Basarri, Uztapide, Xalbador; itz bátez, garáyan garáiko bertsoláriyak, púnta púntakuak, jakiña, pasátzen dire Hondarribíyatik. Bértako bertsoláriak? Gutxi. Afizíyo aundíya dago, biñón sagardotégitik

kánpora ibíltzeko mórukuak gutxi ziren. Labandibar anáyak agertzen dire Irun'go Euskal-Jáyetan, eta gero Bilintx'ek eméngo Joxépa'ribótzen diyo enbídua. Oañ berandu xamar da Joxépa nor zen jakítteko. Claudio Otaegi ta áyek etzíoten kasu géyegerik eiñ, ta oáñ fáz billátzera!

* * *

Lézo'ko semia zen On Joakín Ollo, hemeretzigárrengo gizáldiyen azkén mutúrrian Hondarribíyako bikáyo. Jaizkíbel'go Ama Guadalúpekua'ren maitále sútsua. Askó maité zuten ondarribitárrak. Izan ere bérak berríttu zuén Guadalúpeko Elízatxua. Karlísten gerrátian txétua geldíttu bai zen. Daukan tórria ta kanpáiak, bérak jarrí hasíak, ta elízatxo ondóko harrizko gurútzia, géro azkéneko gure gérran txétua, bérari gráziyaz txuttíttua. Harrí kóntuak aparte, horrézaz gáñera euskéra pallakátzeko biríak ere jarrí zittuén. Don Pedro Antonio Díaz Zamorano'k, bertako apaizak, kastellánoz egíñako Novena euskerátu arazí zuen. On Alfonso Maria Zabalakoak, apaiza, "Hondarrabíko Ama Guadalúpekoaren Ziazáldea edo Kondáira" egiñ zuen. 1883'an Donostíako Lore-Jókutan saríttua izandu zen. Aita Arana Josulagunak, hamaika bertsu eder egiñ ere egiñ zittuén "Agur Jesus'en Ama" berak egiña da, ta beste kantu askórekin ondarribitárrak asko maite dugún líburutxu apáña argitarátu ere. Heméndik bost urtétara izango da, ehungárren urtemuga, líburu hau agértu zánekua. Ha zer nólako omenáldiya, dagon bezela, norbattek berríz agertu arazíko bálu!

* * *

Birían guazen ezkéro justízi pixar bat egiñ nahi diyot nere aurreko báteri. Nere áttaren attóna zen Frantzisko Artola Larrañaga, 1898.hilla. Yon Bilbao'k bere Bibliografían agértzen du bi kántutxoren egílle bezela. Bigarren apellídua ez du jartzen. Ramon Arrola Larrañaga poeta ugári, on eta ezagúnaren anai zarrena zen. Tolosárra. Liberála. Don Joakín Ollo'k asko goraipatzen du bere elízari buruzko eskribu batzutan. Eliz kantuak ezik, honek euskerátua zuen arestiyan aipátutako Diaz Zamorano, bértako apaizak erdéraz egiñ zuan Novéna. Nola estimátzen eta kantátzen dugún ondarribitárrak bederátzihurren horí!! Ni, nahiko harró nago horrégatik. Allakuidáus! Oahindik geyágo. Tolosárra zela esan dut. Ba, Antonio Zavala adiskídeak Auspoa'ko 129'garren líburuan hau esaten du: "Nor ote degu bertso-hartzaille ori? Guk beintzat, beste laguntzarik gabe, ezin somatu. Bertsogintzari eta erabiltzen dituan arrazoi bideai begiratuta, ez degu uste mendiko bertsolariren bat denik, gizon eskoladun bat baizik" Tolosa'ko F. A.'k izenpetutako Fueroak'i buruzko Bertso-paper bati buruz esaten du hori. F. A. hori nere bisabuélua da, dudárik báge. Eskoladuna zen. Ta Ondarribiko bertso-kanta papéretan ere F. A. dator. Tolosa'tik honera igesi etorria, ta hemen liberálak entxufatua izango zen, nere áitaren paidíya zen, eta honen jayot-agírian "Investigador de bienes Nacionales" zela esaten du. Komeni dela esatia uste dut. Erderaz "Estribillo" esango genukena, bere kanta-paperetan "Euscarichoa" ipintzen du.

Beste askok bezela. Azkue'k ez du aipatzen. Betíko kóntua; gérra zikíñ óyek! Beré erretrátu ta karpéta guzíyak Irun erre zénian galdu ziren. Nere aitaren léngusu bat bizi da oandik, 83 urte, dittu. Honen amak esaten omen zun bere attóna osó gizón jakíntsua zela. Ni, gaztea nintzéla, aittón baserritár bátek esan ohi zian: Hik attóna Frantxískuren ateráldiyak dituk". Zuek atéra kóntuak.

* * *

Claudio Otaegui'k, Bonaparte Príntzipiarekin izandu zittuén hartuemánen berrí badúzute; laguntzálle pizkórra ta abílla gertátu zitzaion. Azkue haundíya heméndik ibílli zen ez gutxi ta bai asko. Aita Jesuita Lhande ere baita. Nik biyéri meza lagundu niyotén behiñ baño gehíagotan ttikiya nitzénian; neré laguntzágatik bi-sósekoa ematen ote ziatén ez dakit. Arturo Kanpion etxéko bezéla genuén. Baserríz baserrí ibíltzen omen zen. Guk kamíyo erdíttik pasátzen ikústen genuen maiz, guardasol gris haundí bátekiñ, beti ankútsik eta birían atzemáten zittuén behi-káka fréxko guzíyak zanpátzen. Osasúna'rentzat óna omén da. Lurra ongarrítzeko behintzat bai, ta gizónak nola lurretik sortuak geran, ba, aúskalo! Don Serapio Mújika hemen bizítzen zen ta bere etxéra juáten zen askótan.

* * *

Bertso zar kantári askó zen hemén, garai hártan. Pentsá, berrogeien bat sagardotégi ba ziren ta! Xelextino tanborréruak, honéla kantátzen zittuen banduak, Sagárduarenak: Yártzanian sagárdo-berríya, hamabóst, xántimuan lítrua! Ero... Ondarrabíko mollátik Endáyako móllara bitártiera galdu diréla bi zíra, atzemán ttuénak entregá ditzalá Kontséjuan, berrikéta gútxirekin alajáinkua! Guré gazté dénboretan Eujenio Lexo (nik doi-doia ezagútu nuen) askó famátzen zutén. Míllaka histórí, kóntu, dítxo, kánta zar, belar eta txorí guzíyen izénak bai omen zezkiyén. Orduan etzén orángo maxínarik. Hondarribían maxína erozeñ gáuza zen. Ok ttuk maxínak, ok, esángo lioteké manetofónari oañ. Euskéraren ónerako ta Fédearen ónerako, jakiña, badá Hondarribíyan fráille koméntu bat. Amúten dago. Kaputxínuak diré. Bérako Aita Erromán, Aita Diego Altzokoa, Aita Oyerégi, Aita José Lézokoa, Aita Yúrre, Aita Ladisláo donostiarra, Aita Iñazio Larrañaga, obispua. Zértako luzátu endana? Hemendik pasátzen ziren filosofí-ikasketak egíttera denak. Sermolari aparatatk ere baziren. Azpeitiko Aita Laureano. Ataun'go Bonipagi. Honen sermoiak aba xabalik entzúten nittuén nik, orain dela berrogeitaka urté. Bátian, Aitta Dámaso Intza, azkéneko gerra dénboran, paisáno jantzia ikúsi ketu dut, hiltzeko tránzian zegón gizón báti apaiz-laguntza emáten ikúsi nuen. Nolako otoitzak, ha, begí háyen fédea ta santutasúna! Dena euskára edérrean, Nólako euskára! Gizon zar (min bizíyak hartua zegon) harékin batian híltzeko gogúa emáten zuen. Sermoiak bide ona dire euskáraz ikasteko. Gure gazte dénboran Aita Tirso karmelita etzén makala. Mixiolári bezéla goguan dittut Aita Laskíbar ta Aita Aizpurua! Nólako sermolíriak. Gero ere Arántzazu hórtik ónak etórtzen ziren; Abaunz apaiza're etzen batere txarra.

Basamortua ta jergoya, jargoia esango zuten, noski, dizkanta batek dió bezela, lur-ikara ta Titanic; ni gustura egoten nintzen. Oañ ere badugu oso euskaldun hizlari ona. Martin Iturbe. Onak hartu baña. Euskal-zalétutako apaizak baziren ta, ni ere apur bat kutsútu. Don Silbéstre Muñagorri, Azkue'ren adiskide haundíya zen; honen etxían egítten zuen ló heméndik zebilléla. Karrera ta Sunsundegi ere txit euskaldúnak ziren. Baita, sékula santa áztuko ez dután Don Carlos Lasa apaiza ere. Aztu ez, zérgatik? Ni, beré monagíllua nitzén, ta neré átta Parrókiko Sankristába. Bátian, áttak mandátu bátekin biáli niñun Don Carlos on gana. Hurbildu nitzen, ta nik... "Attak esan nau", ta Zápla! masálleko haundi bat emántzian. Bere boza loriyakin: "Aitak esan DIT", esaten zuela. Nik, negar egiñ, jakiña. Handik berrogei urtétara, gutxi gorabéra, konturátu nitzén zérgatik emán zirán masállekua. Múñetaraño sartúak ttugú hondarrabitárrak: "Ikusi diot, zuri ikusi, esan nau ta olakuak" Ta okérregua déna kosta egítten zaigu ondo ikasten. Ohitura txárrak ez omen dire errex kentzen hala esaten zuten sermoláriyak kúlpittotik. Neuníri ere, tárteka duda edérrik sortzén zait! Zérdakigu ba, herríak eta eskóla gutxi daukagúnak zer den Akusatíbua, Datíbua ta, ¿el neutro no tiene plural? Ta, neri bezela masálleko bat gaxki esan bakótxian emán bihar baldin báda; hamaika parttíttu bihárko lirazké egúnen barrúan, guré ayéka onétan. Iparragirre zenak "zibillak esan naute" esan zuélako zaplátekorik merézi ote du? Edo Mattin bertsoláriak, denak karkailka jartzen gattúnak, *dit*en ordez *nau* esaten duen bakotxean takétako bat hartu bihar al du! Títa, tíraa, jóyok hiré ámari nabáduk!

* * *

Dénbora áurrera dijoakitt eta zegarréran bédere aipátu nahi nuke Urbíñeneko Itxúa. Hasera'ko *Zeruko Argi* háyetan (nere gurasuak arpidetuak ziren) bertso polit askok, nere ordúko iritxiz behintzat, agertzen zittuen. Ha, zer nólako fiura kuadro bat eitteko! Itxua, begi txiki gorrixka batzuek, bruxa beltza aztálataraño, urritz-me bat eskútan bide lagun, tik-tak tik-tak paréta ta kroxkak juaz, bakar-bakárrik fango zen mézatara. Norbattek bildúko balíttu haren bertsuak? Gutxi ero askó han egongo dire Lekarotz'en.

* * *

Eziñ ba, Baxúrko ta Satarka, bértsoegille ta olerkari apañak, neré lagun haundíyak aipátu báge egon. Satarka'ren bizitza iñork baño hobéto oxkilduko luke beré illoba Xabier Aranbúru'k. Lan horí egingo al du nozpatt. Ez dela hondarrabitárra? Ez du inporta. Leittu al duzuté "Txantxangórri kantária" Ataño'k egiña? Auspoa liburutégiak atéra berriya du. Zoragárriya da. Txit gustagárriya! Pralle da, Bordaxar'eko semea, Altza-tarra. Líburua hemen orétua ta ogíttua. Ta, laxter beste nobela bat aterako du Auspoak. Hemengo baserritar batek, Zaldunborda-Berri'ko Juan Jose Irazustak egiña, larogei urte hurbil gizon prestu gaztea. Ikúsiko dute zer nobéla pollíta eskribíttu duen. Zer, zer? Bai, bai. Hondarribitárrak ba gera, bagira bagara, bagare.

* * *

Honek esan nahi du, hemen beti bizittu izan dugulá euskal-giro bat. Luxesko ari naiz ta oraindik interesántiendik pollitena falta zait eta zaizkit esateko.

Aldiyan aldíko Teatro tálderik etzen faltátu gure erríyan. Luixtarrak eta Hijas de Mariakoak bakótxak beré aldetik, dalefuego ibiltzen ziren, ta ibiltzen giñen. Esan bezela mixíko bátian emakúmezkoak eta gizónezkoak aparte. Gero "progresista" óyetakuak giñen ta, neská mutíllak alkárrakin hamaika funtzíyo egiñak gera. Ez giñen izango artixta onak, biñon alegrántziya ta fiesta jartzén genuén ikústera etortzen zirénen ártian, ta... ez da gutxi. Ha, oañ hainbeste egingo bálute!

* * *

Gu ttikiyak giñénian karabinéro-kume guziyak euskéraz ikasten zuten. Biharko, gurékiñ ibiltzekotan! Pako Peto'k (Pako Prieto)iyá, iyá kastillánua antzi zuen. Gero Pasaira fantzen bizítzera ta bertako iñ. Pillotári ona, arraunlári hobia, gizon jatorra. Euskaldún odolik etzuela, lagun báti "euzkotar odola" eskatu ziyon ta bere záñetan sartú arazí. Bizkáyan hil-tzen gizájoa, Euskaldun batallói báteko kapitan. Guk, ttikittan "kalleja" deitzen genien, karabinéro-kúmeaki. Bátian, Zeferíno izéneko batek, bere ámari, káletik balkóira; "Amá, aquí todos me llaman kalleja."

—Amak, balkóitik:

—qué vamos haser, hijo, bastante desgracia tenemos.

Dénak ikásten zutén guk bezéla euskáraz. Bértako egítten ziren denak. Oáñdik bizí diré batzuek Irun'en. Elkar topatzen euskáraz mintzatzen dugu. Oañ, beráka haundíya hartu du euskarak. Negar eitteko moduan. Bestélakuan, arrantzáliak eta baserritárrak oáñdik euskáraz mintzátzen dira. Portu aldi horrétan, belarriak erne ibíllitare, ez duzu konprendíttuko zer esaten duten batzu-batzuek. Apettíttu haundíkuak dire'ta hítzak jan egitten dittuzte. Horrégatik daude añ gizon ederrak. "Ur-ixtérrian-eskrapóiyak". Joan esan behárrian: Fá, faz, fáki, fákiyaz, fango, fázte. Hau, zuréna da, hau guréna. Zurék egiñ nabaúzute. Honoko haú; ókenekua duk. Zé arízte? Eldúki yaz? Azen, ázemizu hemendik. Altxa zemiziá. Altxa zemizuté. Guázemizia. Guk banúgun. Jan núgun. Zuk esan zuzún. Zueki esan diziá? Ba dízia? Badakiziá? Ta honelako pitxi-lora tarteka: Uráyek izáki ziren. Enak arí, enán arí. Aríri nabaduk. Ze arí zazté! Beti'ren orde kaláro: kaláro mozkórra, kaláro dirua eskáka. Du, dut, badugu. Elízan "Sinisten det Jaungoiko Aita guztiz poderoso". Ta, orain dut esan bihar dela agindu duténian: Sinisten det, Sinisten det! goyerritárrak bezela. Guk badígu. Ez, izan bábe! Atoz agúro! Egón, heldú naiz. Tragóxkarekin ézik, hítzakin eré ába bustítzen dugú kaláro ero máixko. Attá. Attóna. Battúgu. Emánttiat. Matte-matté. Panttóka, battíat. Orain Gure Aita'n "Ez gaitzazu tentaldira eraman" esan behar da. Hemen? Sorki eman ere. Tentazíra edo tentazíora solfa luzátuz esáten dute. Tontáldian egon bihar du batek tentáldira esáteko. Kañabéra hítza honéla aldátzen

dute batzuek: Kanibéla, kabinéla. Aláteko astúa! Ixíllik agó, astó aléna! Ayua hitza asko erabiltzen dugu. Etxéko áyua. Sémien áyua. Zórren áyua. urrikutárra. Berrizkotik mixí! Atxéna, azkena ordez. Atxén, atsedén da; ta Atséñ, atsegíñ. Gañikera, hí ni miñón zarrágua yaz. Ikúsi ketu, jan ketu, barkatu ketu, izan ketu... Anguxá, anguxá éiña etórri nak. Anguxátua, ni? Hi, bai kuskúsian. Hik, nere íngriya duk, nere íngriya! Txoria alátu, txoria típe, txoria tipátu. Hori txori ballára! Arrai motxokára eerra bai! Azkúrriari bixkúrria, ta Placton'i bixínua. Zer, zer? Alízikan, perratxíko gáxki ezagútua jánttula, bai, ta bigár zortzíttan intiérrua! Hitzeókiak ttuk horíyek hik esáteko! Ese ta zéta ez díra beréxten géyegi. Zú átzetik sú, esáten zián neré ámak. Nik, hori apaiz bateri esan, Bidániko Don Luis Zufiríari, ta baietz, baietz, euskárak ere ese bai zuela. Nik, ókiyago biárrez eta ustéz euskaldúnaguak zirelakoan, zabéla, zúa, sartú, zári, ta zagárra eskribítzen hasí nitzén.

* * *

Tónto eérra ni, Analogía, Sintáxis, Prosódia ta Ortografía ikásteko.

Gramátika parda ikásteko biré géhiago izándu dittút. Kóntu nerékin.

San Juan de Luz'eko donijuanetárraki hartúak gehiénak, frantsés kútsuko hitz askó ibiltzen ttugu. Malkarrót, txikána, maxína, bufára, maráma, atáule, fuya-fúya, abántian, arrút, hála hemendik! Han atxiki; hemen Itxeki fuerte. Kalátu ála arráya atzemáten zuélako, norbáttek esángo zuen: horrek kálaro zerbatt atzemáten dik. Kálaro arraya. Hortik, nik uste (zuen barkaziyuakin dator beti'ren ordez kalaro hitza. Kalámu ta Kalaméndi ez oté datoz, kalátzeko kánttua nolapátt markátzen dutélako?

* * *

Beste gauza bat. Hemén eré aúña ta auñázua esáten zayó olátuari, ta, Azkuek diyonez Hondarrabíyan bakárra esáten zayo Trapáza bárran lertzen den olátuari: Trapáza. Ba, Caro Baroja jakintsuaren *Brujería Vasca*'n ehungarren orrialdean honela esaten du: (Badákizute Hondarrabíyan sorgíñak bái zutelá parte) (Gaxen testigu) "Y Maria de Uroart u Kpanes de Goyburu refieren que estando una noche bailando en el aquelarre de Zugarramurdi, vino a él una moza francesa (del aquelarre de Trapaɔa reino de Francia) que era grande bailadora, y en el baile daba unos saltos tan altos como altos son los tejados" ta abar. Saltaríña beraz Trapáza sorgíña. Nólako sáltuak egítten dittuén guré bárran, olátuak! Trapáza pertxéntaren izénatik oté datór guré itxasolátua? Itxúrak badíttu. Nik ez dut báyetzik eta ézetzik esango. Trapáza emen bakárrik esaten dela bai. Pasai Donibánen esáten da "Trapalla", itxasua nasia denian. Trapála hitza ere ekártzen du Azkue'k (desgarbado bezela).

* * *

Txokóltia esaten dute irundarrak. Guk Txokolátia. Atzó emakúme batek Fernando, galderéya bat iñ bar dizút (galdera baten ordez) eta gero bes-

te batek; bigarko Ayuntaméntuko asuntu horrek noiz izango du bukaye'ra? Gañikéra, bukayéra, galdeyéra, dénakeri, ta honélako ehunka txirla; batzuek betíak, bestiak hutsak, tárteka, ostra bat edo beste, perla, kolórezko perla interesdúnakin. Ni, enaiz biltzalle jatórra, sayátu nahi duenak atzemángo littuzke ubari.

* * *

Bukátzera nua. Agíntzen duénak gogor jótzen baldin bádu, Hondarribíyan ez dá euskára galdúko. Erárian sartúak, euskáraz mintzátzen gara Ikastóletako haurttoak ere gu ttikíttan bezala arí dire, jostátzen arí direlare: euskaldunez. Berrogei urtéko zolúa, hondó haundiko erreka; Askatasun eguzkiak eta itxásuak ekárriko duen euskal-ondárrak betéko du; dabéneko entzúten da "Urrezko trunpeta". "Jaiki, jaiki etxékuak gure mintzáiraren párekorik ez da múnduan".

HONDARRIBIKO IZKERARI BURUZ

Hondarribia, 1980-IV-18

J. M. Etxaburu, "Kamiñazpi"

Arratsalde on denoi.

Gaurko batzar ontan Hondarrabia'ko izkerari buruz zerbait esanez itzalditxo labur bat egiteko eskatu dit Euskaltzaindia'k. Eta euskeraren alde eskatzen didatenari ez baidakit ezer ukatzen, emen nago zerbait azaldu naiean. Baiña ontarako baietza ematean gaizki egin otte dedan bildur naiz. Esango det zergatik.

Erri ontako izkeraren berri ematea da agindu didaten gaia ta ni ontan ez naiz aukerakoa. Berrogei ta amar urtetik gora nituela aldatu giñan erri ontara ta oraintsu arte artu-eman gutxi izan det emengo jandearekin. Etxean ondarrutarrez itz egiten degu; lantegian, geienak, Ebro'tik aruntzago jaiotako emakumeak nituen lagunak eta kalean bbakarren bat edo beste noizean bein berriketaldiren bat egiteko. Itz batean esateko, ez naiz errotu erri ontan eta orregatik ez det batere sakondu emengo izkeran.

Alaz ere gauzatxoren batzuek esan nitzazke ta esango ditut.

Euskal Herria aundia ez bada ere, guztiok dakigunez, eta askotara itz egiten degu euskaldunok. Zortzi izkelgitan berezi zuen euskera ontan lan aundia egin zuen Luis Luziano Bonaparte printzipeak. Baiña, izkelgi edo dialekto bakoitzaren barrenean ere ba da naikoa desberdintasun. Errialde bakoitzeko izkerak geienetan ba du bere kutsu berezia eta askotan erri bakoitzekoak ere bai.

Egia esateko, erri bakoitzeko izkerak duten bere itxura ori, asko, doiñu edo tonuak ematen diena da; baiña guztia ez. Itzetan ere batzuek zerbait berezia izaten dute. Itzak ala edo ola laburtu ta beste iñun esaten ez ditan itz eta esaerak erabilli.

Guk, umeak giñanean, au esaten ikasi genuen: Lekeittio'n yausi, Ondarru'n jausi, Mutriku'n amilddu ta Deba'n erori.

Umeok umekeria bezela esaten genuena izan arren erri bakoitzak, izkeran, bere zerbait ba duela baieztuten du orrek.

Nik, bein baiño geiagotan, bultzian edo noala, aoa zabaldu duten ordurako ezagutu izan ditut nere erriko gazteak. Bereala galdetu izan diet:

– Zer, ondarrutarrak?

Eta auzo errietakoei ere antz ematen diet.

Olaxe, Hondarrabia'ko izkerak ere ba du bere kutsua.

Emen gauden denok edo geienok dakigu, erri ontako izkera, esaten dutenez, ez dala gipuzkera goi-naparra baiño. Bere urbillean dauden napar errietakoen antzeko izkera eukitzea ez da arritzekoa, ori berezkoa da, naturala. Gipuzkoa'ko beste aldean ere berdintsu gertatzen da. An, Eibar inguruan da, bizkaieraz itz egiten da.

* * *

Nik bezela dakizute guztiok Hondarrabia'ko izkera geien aztertu zuena Luis Luziano Bonaparte izan zala. Bere zaletasuna orixe izan zan, izkuntzak ikasi ta aztertu. Ta euskera ikasi ta aztertu ziarduela Hondarrabia'ko emakume batekin ezkondu baizan, beste iñungo izkera baiño emengoa ikasteko aukera obea izan zuen eta ala egin zuen. Emengo ta inguruko izkerari buruzko lan bat idatzi zuen: *sur le basque de Fontarrabie et d'Irun* izena jarri zion bera lan oni.

Nik gramatika gutxi ta frantsesa oraindik gutxiago jakiñik ezer esatekorik ezin jaso izan det bertatik. Bonaparte'k bere lan ontan erakusten duena iru zatitan banatu genezeke: Hondarrabia'ko izkeraren berezitasun batzuek; iztegi labur bat, hondarrabitar, frantsesez, gipuzkoar eta lapurtar itzak jarriaz, eta M. Vineon'ek irundar idatzitako San Mateo'ren berri-onaren zati bat aztertu ta oarrak jarri.

Ez dakit Bonaparte'ren idazlan au euskeratua dan ala ez. Egin gabe izan ezkero merezi luke euskeratzea, bere azalpenak nik jasi ditudan baiño obeki edonork jaso sal izateko.

Ta itzaurre naikoa luzetxo onen ondoren sartu nadin gaiaren barrenean.

Hondarrabia'ko izkeraren berezitasun nabarmenetako bat gure sintetikoaren ordezko era da. Beste edonun edo geienetan "noa", "dakart" eta antzera esaten diranak, emen (eta bear bada inguruko errietan ere bai) "joaki naiz", "ekarki dut" eta antzera esaten dira.

Mezatara joaki naiz. = (Mezatera noa.)

Ze ekarki duzu buruan? = (Zer dakarxu buruan?)

Izkera era au aditzen oitu gabe daudenei, berau, sintetikoen denborakoa danik ez zaie idurituko. "Joaki naiz" orrek, "noa" baiño "joan naiz" geiago dirudi guretzat.

Hondarrabia'ko aditz era onek bi denbora ditu: oraiña ta leena:

Joaki naiz. Joaki nitzen.

Ez zuzeneko osagarria, zear osagarriak ere artzen dute era auek:

Aitari emaki diot. = Se lo llevo al padre.
Buruko miña eldu nau. = Me viene dolor de cabeza.

"Eldu" aditza, era ontan erabiltzen dan "ki" atzizki gabe esaten da geienetan; baiña atzizki ori ez zaio gaizki etortzen. Ta *zait* en ordezko *nau* ori geroago aipatuko degun utsa da.

* * *

Hondarrabia'ko izkerak duen beste berezitasun bat ere aditzean arkitzen da.

Guztiok dakizkigu aditz izenak artzen dituzten erak nola diran: ekarri, ekarriko edo ekarriren, ekartzen eta ekar.

Emen oietaz gaiñera beste era bat ere bai: emen "ketu" atzizkia eramaten dute olako modu ta denboran:

Ni juanketu naiz. = (Ni joan izan naiz).
Ori guk eginketu dugu. = (Ori guk egin izan dugu).

Ikusten danez, au ere bietara erabiltzen da, bai transitiboz, eta bai intransitiboz.

* * *

Beste berezitasun bat izenari atzizkia lotzeko eran ikusten da.

Izenak, bakarra danean, bat ere mozketa ta aldaketa gabe artzen du atzizkia, preposizioa, izkelgi guztietan; Hondarrabia'n ere bai:

gizona
gizonari
gizonaren
gizonarentzat

Ordea, izena askokoa, plurala danean eskotasuna erakusten duen *K* kendurik artzen du atzizkia:

gizonak
gizonei
gizonen
gizonentzat

Baiña Hondarrabia'n ez; Hondarrabia'ko izkeraz askokoak ere beren askotasuna galdu gabe artzen dute preposizio atzizkia:

gizonak
gizonakeri
gizonaken
gizonakentzat

Kontu onen barri jakiteko Hondarrabia'ra aldatu bearrik ez nuen izan. Nire emazteak (Hondarrabia'koa bera), Ondarru'n bereala ikasi zuen ango izkera; baiña kontu ontan lenean jarraitu zuen eta seme-alabak ere ondarrutar itz egin arren amaren bidea artu zuten. Ola itz egiten ikasi zuten:

Neskakeri emotsat. Mutillakena da. Andrakentzat ekarri du. Au da, ondarrutar, hondarrabitar usai apur batekin.

* * *

Erri danetan zerbait gaizki itz egiten da euskeraz. Erri batean ontan uts egiten da ta bestean artan. Ta ontan edo artan gaizki itz egite joera orrek ere ematen die bere kutsua errietako izkerei.

Hondarrabia'ko izkerak ere ba ditu beste edozein erritakoak bezela okerrerako bere joerak. Ta oietariko nabarmenen bat edo beste aztertuko degu.

Hondarrabitarrez, datiboan, *DIT*en ordez *NAU* esaten da:

Maixuak esan nau.
Aitak eman nau.

Baiña *DIT* esaten ez bada ere bere beste lagun guztiak esaten dira:

dizu
dio
digu
dizue
die

Nork eman dizu ori?

Baiña, osagarri datiboa askokoa danean nola esan ori? Olakoetan *NAU* aditz-lagun pertsonalari ezin sartu dakioke bere askotasun erdizki edo atzizkirik. Ezin esan daiteke ondorengorik:

Aitak eman naitu.

Ba da ori baiño irteera egokiagorik. Datiboari dagokian askotasuna sartu ta kito; *ZKI* erdizkia sartu:

Aitak eman nauzki.

Olaxe esaten da Hondarrabia'n.

Ta, *DIT* esan bearrean beti *NAU* esaten dalako datiboko aditz lagunaren ordez akusatibo pertsonala esateko joera dagoanik ez dezagun uste izan. Alderantzira geiago egiten da; aditz pertsonalaren tokian datibokoa esatea geiagotan gertatzen da.

Elizan ikusi diot Jose'ri.

* * *

Beste hondarrabiatarkeria bat (nolabait esatearren), arako "goittik betti" da.*Nora* galderari erantzuten dioten itzak beste edonun bezela *-ra* atzizkia eramaten dute.

Eliza*ra* joan gera. Berandu dator etxe*ra* Joseba.

Baiña ba dira bi itz *-ra* orren ordez *-ti* edo zeatzago ezateko *-tti* eramaten dutenak. Bi itz oiek *GOI* ta *BE* dira.

Areoplanua goittik betti erori da.
Aur au egun guztian geldittu gabe dabil,
goittik betti ta bettik goitti.

Gai au dala ta Hondarrabia'ko arrantzale batek esan zidana kontatuko det.

Batean, beste askotan bezela Donostia'ra arrain saltzera joan omen ziran. Ta bere lanean an ari omen ziran, bateko "goitti eraman au" ta besteko "bota betti otarra" ta olakoak maiz esanaz. Alako batean an begira zegoan donostiar arrantzale bat ainbeste aldiz *goittik* eta *betti* entzunaz aspertu edo, abotsa naikoa jasoaz ola ekin omen zien.

— Zer arraio zabiltzate ainbeste aldiz *goittik* eta *bettik* esanaz? Goitik bera ta betik gora!

Ta ori esan eta alde egin omen zuen, hondarrabitarrak buruz bera zer esan ez zekitela utzirik.

Hondarrabia'ko izkeraren izakera naguzienak azaldu ondoren, lan au bukatzeko, esaldi batzuek jarriko ditugu, ondarrabitarrez eta gipuzkeraz. Hondarrabitarrez, ia guztiak, gipuzkerarekin zerbaitetan bereizten diranak bereziki jarriak dira:

gipuzkeraz	*hondarrabiatarrez*
Nork ekarri ditu gastaiña auek?	Nok ekarri ttu gastaiñ ok?
Guk ekarri ditugu.	Guk ekarri ttugu.
Zure aitak dirua eman dit.	Zure aittak dirua eman nau.
Biar laranjak ekarriko dizkit.	Biar laranjak ekarriko nauzki.
Zuri ere emango dizu dirua.	Zuri ere emango dizu dirua.
Elizan ikusi det Joseba.	Elizan ikuxi diot Jose'ri.
Txakoliña gustatzen al zaizu?	Txakoliña gustatzen dizu?
Bai, neri gustatzen zait baiña nere aitonari ez zaio gustatzen.	Bai, neri gustatzen nau baiña neri aittonari ez dio gustatzen.
Ba-dator autobusa.	Eldu (elduki) da autobusa.
Lolita emen dabillela denpora asko da.	Lolita emen ibilki dela denbora asko da.
Zer daramazu txapelean?	Zer emaki duzu kapeluan?
Txoria daramat.	Txoria emaki dut.

Lanera ninjoala dirua arkitu nuen.
Zer dakarzu otarrean?
Ezer ez.
Zu joan izan zera bide ontatik.

Ori guk egin izan degu.
Nire semeak nai izan balu jakingo zuen (zukean) frantsesez.
Jakin izan banu gaur eguraldi ona egin bear zuela mendira joango nintzan (nintzakean).
Nai duena egin dezala Sabintxu'k.
Nai dezuna egin ezazu.
Nai dezutena egin ezazute.
Ori esan el dute' Ezin diteke.

Utzi ezaiozu pakean aurrari.
Arratsaldean Frantzi'ra joan bear dezu.

* * *

Zer ari zera?
Zure soiñekoa josten ari naiz.
Aurra besoetan artuta joan da.

Au egitean ekarriko det.
Zu baiño kontentuago (pozago) bizi naiz.
Ni ere kontentu (pozik) bizi naiz.
Dena goruntz dijoa.
Biarko etorriko da aita.
Gizonena gizonentzat eta mutillena mutillentzat.

* * *

Deneri begira egoten da.
Igandetan osaba Martiñ'en etxean bazkaltzen degu.
Bereala etorriko naiz.
Au ordua lanera etortzeko!
Fabrika ontatik danak iges egiten dute.

Lanera joaki nitzela dirua atzeman nuen.
Ze ekarki duzu otarrian?
Deuserez.
Zu juanketu (fanketu) zera bide ontatik.
Ori guk eginketu dugu.
Nire semeak nai bazuen jakingo zuen prantsesez.
Banekien gaur eguraldi ona egin biar tzuela mendira joango (fango) nitzen.
Nai duena egin zala Sabintxu'k.
Nai duzuna egin tzu.
Nai duziana egin tzia.
Ori esan dute? Ezta posible. Ezin diteke.
Lajazu pakian aurrari.
Arratsaldian Frantzi'ra fan (joan) biazu.

* * *

Ze ari zera?
Zure soiña josten ari naiz.
Aurra soiñean artuta joan (fan) da.
Au egittian ekarriko dut.
Zu baiño kontenago bizi naiz.

Ni ere konten bizi naiz.
Dena goittitzen ari da.
Bigarkoz etorriko da aita. Gizonakena gizonakentzat eta mutillakena mutillakentzat.

* * *

Denekeri begira egoten da.
Igandetan osaba Martiñ'en itxian bazkaltzen dugu.
Abian etorriko naiz.
Au tenoria lanera etortzeko!
Fabrika ontatik denak itzuri egiten dute.

Egun auetan gaizki ibilli gera.
Atarian egongo naiz zure zai.

Berandu bada ere etorri da Miren.
Atzo errez irabazi nion baiña gaur ez.

Egun oketan gaizki ibilli gera.
Sotuan egongo naiz zure esperuan.

Berandu berik etorri da Miren.
Atzo aixa irabazi nion miño (baiño) gaur ez.

BERGARAKO EUSKERARI BURUZ

Donostia, 1980-VI-27

Justo Garate

BERGARA IZENA. Bi gauza oartzen ditugu lehengo mendi-gañetik gure erri aldera begiratzen badugu. Ibai bat erdian eta eskubian ibar bat, Bergara zarra deitzen genukena. Eta beraxago eta ezker aldera beste ibar bat, len etxe-gabeko eta orain erdi beterik, ill-erriaren ondoan.

Busca Isusi'k Gasteiz'ko berringi edo egunkari batean berriz darabil, Arana'k eta Eleixalde'k eman ziguten itxorkuna edo iturria, adierazteko zer dikurren Bergara itzak. Ibar-garai bezela ikusten zuten arek biak usun edo ara (haya y vega) ori. Busca'k bere aldetik uste du Deba ibai guziari begiraturik zela, baña Bergara eztago ibai orren balladako goialdean. Larramendi'k ere ori uste zuan, gure jayoterria Goyerrian jarririk.

Obeto zebillen Larramendi'k idatzi zuanean Bergara'n Bizkaiko aditza zerabiltela eta orregatik izketan bizkaitarrak giñala. Baño bere COROGRAFIA ederra etzan irarri edo inprimatu 1882 urterarte eta ori Barcelona'n eta josulagun katalan bateri esker: aita Fidel Fita'ri.

Orregatik lelengo ori liburu batean atera zuana, prinzipe bat izan zan: Louis Lucien Bonaparte, arriturik bergararrak ori entzun ziotenian.

Tellechea'k esaten digunez, andoaindarrak idatzi zuan liburu arras eder ori, COROGRAFIA gipuzkoarren laudorio andia, iñork emen ezagutu gabe, barrenean zekarren jakintasun sakona.

Utzi daigun orain Larramendi eta goaz berriz arira.

Toki izen aunitz eta abizen ugari ikertu ditut asmakizun batera eldutzeko, berrogei ta sei urtean.

Nere eritziz ezta zuzena itxorkun ori. Nere ustez adierazten duana auxe da:

Ara da erdarazko *vega* eta itz au, askok ezjakin-arren, euskal jatorria du, Menéndez Pidal eta Joan Corominas'ek irakasten diguten bezela, *Ibaiaga*'tik Santander eta Asturias'en —nere eritziz aspaldiko euskal lurrak biak—, atera zuten *vega* itz ori.

Orain *Berg-* zer dan ikusi daigun. Homboldt'en España guziko ibillaldi eder, sakon eta miragarria alemanetik itzuli nuanean gastelara (Buenos Aires, 1946'an) aurkitu nuan Madrillen Grezia'ko izketa erderara itzultzen zuen napar irakasle bat, Berguiza, eta orduan, *-iza* ori kendurik *Berg-* gelditzen zan, gure erriko izenean bezela. Itz ori erabilli da Nafarroan eta billatzen du Joxe Mari Iribarren, idazle andi eta azkarrak, bere VOCABULARIO NAVARRO delakoan (80 orrialdean) Nabaskoitze'ko errian. Eta berdiñ dakar Juan San Martín eibartar idazle aberatsa eta begi zorrotzdunak, Luis Peña'rekin ango ibar batean; Urraul goikoa. Itzultzen dute erderaz *mimbre, mimbrera* edo *mimbredo* letxe eta euskerazko mimentza, zumeta edo zumaketa edo zumelzuren antzera.

Ori landara bat izanik, gure zumel, zumaka edo zigorra (?), begiratu daigun aldeko itzak zer esaten digun, beste toki-izenetan.

Bergaz eta Bergasa itzetan bigarren zatia erreka da, Rikardo Arregi'k billatu zuan bezela. Bergasilla berdina da.

Berganza eta Berganzo'n bigarren zatia ere ori bera edo pantano litzake. Bergantxi eta Bergantxi'nean orobat.

1929 aldean ibillaldi batean Araba'ko Berguenda'n nengoalarik, agertu ziren Lizasoain eta beste Aldundiko gipuzkoar batzuek eta ezagutu nuan erria. Toki *illun* bat zan erreka ondoan (Az-illona, Arama-yona, Llona, Rekielun, Le-yun, Arbayun'en erara) eta erreka ondoko landarak agertzen ziren bakarrik.

Lenagoko iritzi zar asko eta toki-izenean lekuak eta antzekoak beste albistari egokiago baten argitzeko asmoa dut, bergararrak geyegi aspertu gabe.

Beste landara batzueri ere antzeko izenak ematen zaizkio. Adibidez Errioxa'n Goicoecheak digunez olio-abar edo zugaitzari deitzen zayo Berguizo erderaz. Eta Rafael Castellano'k bere atal polit eta ezagungarri baten dakar *berga*, irusta (iru-osta edo trifoliun edo trébol) basatiaren izentzat.

Irakorri nai nituzke besteen eritziak goiko itzari eta iruditu zitzaidanari buruz, ia orrela batzuen artean gauza ori argitzen degun ongi.

* * *

ABRAIN. Ezdut izen au billatzen Arana-Bergara auzeko lerrokadan, Linazasoro'k egindako liburu ederrian. Baña oroitzen naiz orko mutil bat juaten zala gure Don Angel'en eskolara eta uste dut alako baten ingurutik igaro giñela, Done Martín Agirre jayo zan etxe eta basa-eliz txiki baten ondoren. Esango nuke ori eta ABARAIN, berdiñak direla eta Abaria, Abariz edo Apraiz, Abarisketa eta Abaroa'ren senidea dela.

Itzuliko nuke erderara "valle de árboles" bezela, gure "zugaitz arana".

Abar baliteke *aba-adar*'etik ateria izatea. Baño basoa ere adierazten du

toki izenetan, adibidez, Abar-oa eta Abar-zuza. Au lenago Abar-zuazo izango zala deritxot.

ALIETZERA. Nere ustez au izango da *al iritzira*'tik ateria.

ANGIOZAR. Gure "zelai zarra" litzake agian, nere eritziz. Bere senideak aurkitzen ditugu bai Errioxa'n Anguiano lez, baita ere Anguila Burgos'eko Anguitan, lenago Angieta seguru asko. Aingeruekin ezdu zer ikusirik, danak gogo batekoak dira.

ANTXITXIKA edo ANTXINTXIKA. 1936 urtean atera izan bazuen nere Seigarren zerga edo Kontribuzionea Euskal iztegirako, irakorriko zenuten ateratzen nuala itz ori Azkue'k ez ikusia, baño Olabide'k bere ITUN ZAR ETA BERRIAN'n bildua.

Gudaren erruz, amasei urte igaro ziren 1962'an nere lanen orren aprobak billaturik Urquijo'ren liburutegian, Luis Michelena'k atera zuala nere lana eta bertan agiri da, lenengo itza bezela gañera. Berandu atera zelako nik Zortzigarren zerga deitzen diot.

Martin Gallastegi'k, Moyu-alde ez izenakin agertu zuan lan bat Donostia'ko berringi batean, gogoeta politekin eta bertan esatzen zigun bere eritziz *aintzin-aintzika*'tik zetorrela, nik uste bide onetik (1).

ARIA. Euskal-erriko zaldun Laguneri opaturik agertu zan Donostia'n, seigarren zenbakian, Aldundi'ko lantegian, Gipuzkoa'ko historia zala-ta. Aizpitarte elgoibartarren lan batzuek Arocena eta Michelena'k 1965 urtean, 99 orrialdetik asi eta 126'rañok atera zituzten.

Ikusi daigun orain zer zion elgoibartar ospetsuak itz oni buruz.

Diño 107 orrialdean: "La voz simple *Aria* con la significación de zaguán o entrada de una casa, sólo es corriente y se entiende en Vergara (a lo menos en Guipúzcoa)". Beko oarrean dio auxe; inprimatua eta bertan erderazko *sala* itza bezela itzulia dagoala 117 zenbakian (Refranes y Sentencias).

Azkue'k eztakar itz au eta gañera, ez dio zenbakirik edo numerorik ematen *motivo* adierazten duan bere ataleko zati bateri.

Beste errietan eta Bergaran bertan *ataria* erabiltzen da. Beñere ez nuan entzun *aria* itz ori gure errian, nere gaztaroan.

* * *

ARR-URRIAGA. Ori da arrizko etxe baten tokia. Baliteke gure lenengo eskola —don Angel Elustiza'rena— zegoan etxe aundiak, izena etxabide edo kaleari ematea. Baña orain Artekalean dago.

---

(1) Antigualeko denpora edo garai igesiéri begira, idatzi zuan ori, liburutegiko arratoinak bezela. Baita ere Artekale, calle de la encina itzuli zuanak, zeren bitarteko kalea izanik, eta beste izketa edo elietan erdiko-kalea ugari billatzen dalarik, gogoeta ura ahantzi edo aistu bear da bereala. Artetxe bezela; ardi-etxe, Ataun eta Amezkoa'n.

Lelengorako oroitu gaitezen esaera zar batekin; ez goiko, ez beko; bai bien *arteko*.

BETERIXO. BITERI. Norbaitek ateratzen du erederazko Beaterio'tik. Nere ustez oldoztu bear da orobat PRESBITERIO erdal itzetik ote datorren.

Baliteke agian *presbiterio* gerkar, latiñ eta gaztelazko itzaren seniden izatea, edo obeki esanaz, bere zati bat. Biteri, Arrasate'ko abizena, ortarik ote dator?

Berdin agertzen dire beste itz batzuek Apatamonasterio, Monasterioeguren eta Monasterio-bide. Orrek gure Euskalerrian artu ziren erara, sartu zitekean presbiterio itza ere.

BITXURTU. Eztakit zer dan. Ez ote zan lenago Bereziartu edo alakoren bat, landara igertuen izenakin? Edo bestela atxurtua edo azkenengoz urtu erderazko desmonte, artiga edo roza adierazten. Urrutxurtu'n erara? Laguntza eskatzen dut itz ori argitzeko danon artean.

EGIAGA. "Es un corte de terreno intenso y largo, con dos asientos de piedra en el extremo superior, labrados por la Naturaleza o alguna... sorgiñ enamorada. El paisaje desde allí, es maravilloso. No hay agua, es como un hachazo... del tiempo" idazten zidan Bergara'ko sendagille Orueta jaunak. Juan Irigoin'ek bere PLEITO DE OXIRONDO liburuan (31 orrialdean) jartzen du "eguiara-eguiazabal" eta orrekin alperrikako lana eman zigun Azkargorta, Elias Garate eta neri.

EGIARA. Liburu berberean 149'orrialdean, dakar itz ori, orain Bergara'n erabiltzen ezdana, *bolu* eta *errota* baizik bere ordez. Ixaka'ren iztegiak dakar *giara* eta erderaz molino. Antzekoak dire igara eta Igarondo Tolosa'n eta *eyhara* edo *eyhera* gure iparraldean. Agian Irigoyen'ek etzuan nabaitu zer ote zen.

Eleizalde. Luis zana, il zitzaigun Garilla'ko 24'an, 1923 urtean (Uztailla), (ni Bilbao'en bizi nintzela), José Antonio Zabala'k Riev delakoan ikertu dian bezela. Eta ez 1924'an EUSKERA albistariak 1957'an esaten digun bezela, ille ortako azken egunean. Urte onetan ni Freiburg errian bizi nintzen.

Azkue'k esaten dio Eleizalde'ri bere eskutitz batean, soñulari anditzat zeukala eta asko zekiala gai ortan. Eta Azkue norbait zan soñu gauzetan.

Nai dutenentzat zenbaki ortan —Azkue'ren gorasarrea—, elkarrekiko bien idazkiak daude *326'tik 334 orrialderaño.*

ETXAPLIRO. Itz au asko erabiltzen da bai Bergara'n —nere erri maitean— baita ere beste erri askotan, Sartaldea'n beintzat.

Sarritan egon naiz pentsatzen, ia nundik ote datorren itz ori. Ez nion euskal antzik edo urriñik billatzen.

Ortan su-gurpilletan edo suzko-erruedetan bezela, gure begiak ikusten dutena, geien oartzen dana izaten da eta ez entzuten degun zarata.

Azkenean J. R. Jimenez'en PLATERO erderaz irakurtzen nuala, aurkitu nuan atal bat COHETES deitzen zana.

Orregatik, ori irakurri arte, eznuan bein ere oldoztu *estampido* itzarekin zer ikusi idukiko zuanik. Eztakit seguru ia ortatik datorren, baño itz bi oiek —*etxapliro* eta *estampido*— irudi andia dauke alkarrekin. Eta nere ustez, jarraitu bear genuke bide ori sakontzen.

Gaztelerak bere aldetik itz ori artu zuan doitxe edo alemanetik *stampfen* eta onek gotiko zarretik *stampjan* adierazten dutenez W. Reinhart (Homenaje a Menéndez Pelayo, I, 551) eta Juan Corominas'ek itzultzen du erderaz "machacar y retumbar".

Román Bera, buruñurdunak dakarzki ortarako "zirirriko, Ziziriki, zipumpa, seskain eta su-egazki". Don José M.ª Satrustegi'k dakar etxaju (114 y 115)...

* * *

EULI-MANDOA. Bergara'n. Azkue... Obeto litzake *mando-eulia*. Gure eulia gerkeraz *eulai* da.

FUNDAMENTO. Gure errian asko erabiltzen zan itz au euskeraz eta erderaz. Alako batean ziri batzuk bota zizkaten Pío Baroja'ri, Madrilleko Akademia'k ezpai zekarren erderazko *seriedad*. Baña Foronda'k era ortan zerabillen eta Martín Fierro Argentina'ko poema andian, alaxe irakurtzen dugu (I, 35 orrialdean eta 1172 estrofan).

Itz asko dauzkate sartu behar litezkenak Erdel Iztegia'n beste ainbesteraño loditu eta gizentzeko.

GABI, GABIL, GABILONDO, GABIR, GABIRIA, GABINA, GABIKA, GABIOLA. Irakorririk gure ola zarretako agarik andiena *gabi* izena zuala, pentsatu nuan izen ori zugaitz luzeren batetik artua izango zala. Gañera azkeneko -ri ori Gabiri'n, sarritan zukaitz mordu bat dagoanean jartzen da itz azkenean pagadi, sagardi eta lizardi'ren antzera. Ostian, *ondo* azkenakin ere askotan *aba* edo *zugaitz* izenak datozte, Lizarrondo, Gaztañondo. Eta *-untza* edo zelaiakin, adibidez Gabil-uncia Ezcaray aldean, Errioxan. Antzekoak dire Askunce, Azkarruntz eta Abaunza.

Orregatik jarri nuan Gabil, aba edo zugaitzen, izen bat erreskadan, nere Iruña'ko lan batean (Fontes Linguae Vasconum, 1973, 331 orrialdean).

Gero oartu nintzan erderaz itxasontzi andietan tramankuku batzueri *gavia* deitzen zietela. Zer ikusi ba ote zuen alkarrekin?

Telesforo Aranzadi bergararrak gaztelerara itzuli zuan Wilhelm vom Humboldt'en liburu baten (LOS VASCOS, Donostia, 1925) Eusko Ikaskuntza'k zorionez inprimatua. Eta 164 orrialdean, auxe irakorri genezake, nik euskeraz jarria: "Geyenian Gipuzkoa eta Bizkaya'n iñauzi edo adaondu (podar) egiten zaye aba edo zugaitzeri bi gogamengatik. Lenena egurrakin iketza egiten dalako burdiñ oletarako. Eta bigarrena politika bide, zeren Erregearen Itxasontzidi edo Marinak orain arte (1801), bere eskualde berezietan, eskubi-

dea zuan zugaitzak autatu eta mallatzeko bere enborrak itxasontzietan eragiteko. Ordutikan etzan eren jabe lenagokoa, baizik erregea eta onek legez ordainketa bar bakarrik ematen zionari. Agintza ori kaltegarria zan basoentzat eta egizko jaberentzat; orregatik kendu da gutxi dala. Ezta geyago zugaitzik mallatzen (marcar); (1) jabiak egin lezake orain erekin andi eso txiki, nai duana eta erregeak bakarrik du aintzindegi edo preferentziarako eskubidea (2).

Nola erderaz *gavia*, mastelero andiena da, Madrillera jo nuan bertako Museo Naval delakoan ia aga edo enbor andiaren euskal izenik ezagutzen zuten. Enuan ihardespen edo erantzunik eskuratu: La callada por respuesta. Latiñez ere ezaguna da itz ori. Juvenal'en III satiran ikusten da "la tosca Gabia" eta seigarrenian "los Gabios".

Gero etorri zitzaidan burura, jakiñik Elias'en bere adiskide bat José Atin *gabiritarra* zela, aren bidez oni galdetzea ia zerbait ote zekian zugaitz mallatze orri buruz, bere erriak Gabiri izena zeukanez gero. Eta ikusi zer jakin dugun bere bitartez. Bere aitona zanak aunitz aldiz esaten ziela seme eta illobatxoeri, erri ortara juaten ziela noizean bein Espaiñia'ko gudu itsastarrak (marinos de guerra) eta pago luzietan, koxka, mallatze edo marka bat jartzen zutela, itsas-ontzietarako. Geyenetan ori egiten ei zuten Kiskitza (3) basoelizaren inguruan. Pagari ori, oraindik zutiñik dago, naiz eta ainbeste enbor luze bertatik itsasora eramanak izan. Baña aritzekin ere berdin egiten zan eta erderaz esaten zieten *árboles bravos*. Gaztelako Enrique IV erregeak eman zigun gipuzkoarreri ikurde edo armadi (escudo) bat eta bertan zetozten iru aba edo zugaitz. Jakiñik Euskaldunen laguntza itsasaldean, bai burruketan eta bai sal-erostean, uste dut etzirela agiñak (texus, tejo, if, Eiben, yew-tree) baizik pago eta aritz luziak, gure *gabiak* itxas-ontzietan aga luze bezela jartzeko. Gañera itxasoa agiri da zugaitz-pean, escudo ortan. Eman ei zuan errege arek 1453 eta 1463 urte bitartean. (Serapio Muxica'ren 32 orrialdean).

GORLA. Uste dut Michelena'k atera zuala *Agor-ola* toki-izenetik eta egoki iruditzen zait. Nai nuke jakin ia ola lanaren arrastorik gelditu dan bertan edo inguruan.

-KE. Luis Eleizalde'k ekartzen du itz au baño nere ustez lotuegi *txeke* bezela. Ikusi itz au: -ke da gabe edo barik. Ixaka'k dakar *ge* (367) eta Labayen'ek idazten du galtzeke (14) eta egiteke (20).

* * *

LAMAU. LAMARIANO. Lamari-ano edo Labari-ano. Amarica Araban, Amariaga da nere ustez.

Lamariano, ere izan liteke, labatik ateria. Nafarroan abizen bat dago

(1) Ondarru'n, kurutzez markatu aritzak (Zubikarai, 20).
(2) LOS VASCOS, Auñamendi, 58.
(3) Pagoaren izen zarra ote zan?

Labari eta Argentinan beste aunitz bezela, italianotzaz artzen dute. Erderaz litzake Hornero eta Fournier, Forner, Fornari beste erromatar izketetan.

Lau-mari-koa (Lau marabedikoa) ezdut uste senide deniken.

Juan Antonio Mogel'ek uste zuan itz azkenean *ola* etzala erderazko ferreria (La Historia... 368) baño Agorrola, Zigarrola, Urola, Azaola, Anzuola, Bernaola eta beste itz batzuetan agiri dago erruan zegoala eibartar andi ura.

Bizkai'ko olarik ederrena izan zitekean Lebario'koa Abadiño aldean. Lebario eta Labari itzak antz andia dute elkarrekin, eta Le'tik La'ra laister igarotzen da, adibidez Lasaga eta Lesaka, biak adierazten dutela "Erreka tokia". Baño Lebaria'k badu antza ere Legaria'kin eta au "Erreka arritsua" litzake, Lesarri bezela.

LASPIUR. Lats-bogur edo erreka bigurritua (arroyo retorcido), Riutort, eta Retuerto, Retortillo, Biuzko, Beuzko.

LESARRI. Arri asko dun erreka (Lez).

MOSTEI. Eleizalde'k irakatsi zigun gañera, Monasterio-bide, itz luzetik izugarri laburtua dela itz ura.

MOSTRUN. Ori berea Monasterio-eguren'etik.

OKAN-CHIVILLO. Peru aldeko liburu batean. Hildebrandt andereñoak idatzia ikusi dut basakaranari *chivillo* deitzen diotela (erderaz endrino).

Naparroko FONTES'en erakutsi dut olaxe nola sartu zan Bergara'n erderazko itz bat *okan-chivillo* esaterako, bein ere entzun ezdutena beste inguruko errietan.

OSTAGA. Madrilleko Akademia'k diño Noruega'tik datorrela itz ori, baña nik billatzen diot gure basoen edo oyanen urrin edo usain pixkat, zergaitik *osta*, orriak dire eta *aga*, adar bat zugaitzean.

OZKARBI. Cielo despejado y sereno. Eleizalde'k Azkue'ri (327, EUSKERA, 1957).

OZAETA. Neretzako da erderazko vado edo paso fluvial eta euskerazko *ibiate, oza* edo *arpausua.* Toki izen oiekin, daude orain zubi asko, erderaz esaten dan erara; Pasar del vado a la puente. Luze mintzatu naiz ortan nere FONTES LINGUAE VASCONUM'go lan batean Iruña'n 1972 urtean, Gipuzko itzaren itxorkuna ateratzen (133 orrialdetik 148rañok).

* * *

Ori bera adierazten dute edo dikurre beste itz abek: *yurre, ate, oz, os, osa, ossa, otxa, uz* eta *utxa.*

Sarritan itz bi alkartzen dire, gauza bera izentzeko, adibidez Atutxa, eta At-otxa, Donostia'n Bilbao'n etabar. Toki oyetan egin dire geroago (eskualde

edo erria aberasten danean) zubiak. Lemona'n ere badago Atutxa bat. Bergara'n aña zubi, erri gutxietan billatuko dira.

Ozenzio da Gipuzkoa'ko basa elizatxo bat, baña ez dakit nun dagon.

SEATU TA IGARA. BERGARA. Itz abek (Bergara itzaren aurretik) esaera zar bat (546) egiten dute. Busca Isusi'k Gasteiz'ko berringi batean (NORTE EXPRESS) galdetzen dit lagunkiro ia zertatik ote datorren esaera zar ori. Ezdut billatu ez Lope Garcia de Salazar, Urquijo, Guerra, Mendieta eta Gorostiaga'n ezer ere ori bera argitzen. Baño nere ustea da erderaz esaten duena "a lo que obliga el consonante" olerki edo soñu antzekoak erabiltzeak, jarri duan bearra dela. Orregatik badakigu zelako itzak jarraitzen dien *Mondragón* eta *Alavés* itzeri. Auzokoak beti gaitz- izenak jartzen dituzte eta norbaitek ezpadit sinesten, Jose Mari Iribarren idazle andi naparraren liburuetan aurkitu ditzake ainbat zakarkeri Nafarroako erri aunitzentzat. Baita ere, Alcarria'n Cela'k dion bezela.

Erderaz señatu, santiguar bezela jartzen dute 1596'an, baño nere ustez signar (eta persignar) itzetik datorkigu.

Santiguar da aitaren egitea (Mogel'ek 394 bere LA HISTORIA liburuan).

URIAUZO. Juan Irigoyen'en auzi-liburuan dator itz ori eta ene ustez Arane eta Elosu aldean galdetu bear litzake ia orren astarrenik gelditu ote dan. Bertzenaz Errietxeko artxibuan.

Elosu eta Arane'ko ibarra edo balladia ote zan nago, Ariznoa ondorengo auzoa agian. Juan Irigoyen'ek ezdigu bere xehetasun edo zertzeladarik ematen.

TZEKE. Eleizalde'k idazten du ortaz eta irakorri genezake EUSKERA delakoan, 1957ko 329 orrialdean. Irakorri dugu zerbait ortaz lenengoko edo goiko atalean. Baño esan bear dut *-ke* bakarrik dela eztasun atzizkia (sufijo de carencia) erderazko sin bezelakoa. Baña *tzea* dala izena edo substantibo egitekoa bakarrik; afaltzea eta bazkaltzea erderaz direlako, el cenar y el comer al mediodía.

Afatze-ke itzuliko nuke "sin la cena" gaztelaraz. -Tze ori dago du infinitoboari bere tokia kendurik: afal-*du*, bazkal-*du*. Tolosa'n ere badarabilte.

UBERA. Azkue'rentzat erderazko vado da gure *ibi* edo *oza*.

UZARRAGA. Antzuola zarra, mendian zegoan eta ez ibarrean. Orregatik agian antxiñako izena URI-ZARRAGA izango zan, Erri-zarra adierazten.

ZIERO. Totalmente, Eleizalde'k Azkue'ri (EUSKERA, 1957, pág. 329).

ZUPIDE. Neretzako da aldapa bat, bertan botatzen baziren enborrak (troncos), Jovellanos'ek Burgos eta Santander'en ematen digun bezela.

(Jarraitzeko).

LITERATURA

ETXEPARERENAK NAHAS MAHAS

Hondarribia, 1980-IV-18

Patxi Altuna

Ez nator ezer irakastera, ikastera baizik, eta neure buruari aspaldi honetan isilik egin diodan zenbait galde orain hemen ozenki zuen aurrean egitera, zuetariko zenbaitek, iparraldeko euskalkiak ongi ezagutzen dituzuenok batipat, erantzunik emango didazuelakoan. Egun gutxiren buruan agertuko bait da ene Etxepareri buruzko hirugarren liburua, hots Etxepareren obra osoaren Edizio Kritikoa, eta orduan nornahik izango bait du lan hori nola egin dudan ikasteko egokiera, haren berri orokarki eman beharrean hiruzpalau puntu xehe hartu ditut mintzaldi labur honen gaitzat. Stempf-ek eta batez ere Lafonek ondu zituzten lanei esker, Etxepare oro har aski erraza da gaur edozein euskalarirentzat ia hitzez hitz ulertzen; ez du, alegia, mixteriorik ez pasarte ilunik ia batere. Dituen gutiak ere Lafon jaunak argitu dizkigu, edo argitzen ahalegindu bederen, eta, egia esan, ia beti guztiz egoki argitu. Bizpahiru pasartez dioenak ez nau erabat betetzen, ordea, eta horien azalpen berria, neure baitarikoa eta hainbestez dudamudazkoa, dakarkizuet gaur zuen iritzia entzun nahirik.

1. *Amore gogorraren despita* deritzan XII. kantuak honela dio 37garren bertsoan: *Iauna gerthuz hic daducat porfidia handia.* Ez da dudarik *hic daducat* hori, Lafonek dioenez, inprenta hutsa dela. Lafonek baino lehenago Schuchardt-ek ere gauza bera esan zuen eta honela irakurri behar zela proposatu: *hic dadutac.* Lafonek ontzat ematen du eta bere egiten zuzenketa hori: "Il faut, comme Schuchardt l'indique, lire *dadutac* (cf. *liadutanic*, II, 20) au lieu de *daducat*; litt. "tu as pour moi une grande importunité". ("Notes pour une édition critique...", or. 170). Hainbestez *-tac* behar lukeena *-cat* idatzi zuten inprentan eta bi euskalariek eskaintzen diguten *dadutac* forma berria *nor-nori-nork* forma litzateke; hots, hic neri dadutac porfidia handia. Ene ustez, zuzenketa hori ez da ona. Hala izatekotan *diadutac* behar zukeen: ikus kantu berean 40garren bertsoan, ahapaldi berean alegia, *Hiretaco eztiaducat guerthuz neure buruya* eta baita Lafonek berak *dadutac* horren alde aipatzen duen *Amore bat nahi nuque liadutanic eguia* (II, 20) ere. Horren ordez nik beste bat proposatzen dut, inprentako hutsa bai, baina Schuchardt-ek eta Lafonek nahi dutena baino txikiagoa litzatekeena eta hainbestez inprimalariak egin izana bidezkoago eta egiantzekoago bihurtzen duena. Nik proposa-

tzen dudanak, gainera, oso antz handiko beste bertso bat du Etxeparegan berarengan —antz handiko bertsoa eta antz handiagoko adizkia—, eta horrenbestez nere hipotesia arras sendoturik gelditzen da. Beste bertso horrek honela dio: *Bethi daducaçu tema borthiça* (X, 32). Batak *porfidia* dio, besteak *tema*, biak guztiz antzeko hitzak. Horiek horrela direla, eztabaidatzen ari garen bertsoa honela irakurri eta adizkia honela zuzendu behar da, ene ustez: *Iauna guerthuz hic daducac porfidia handia; nor-nork* forma soila, alegia. Hutsa honetan zetzan soil soilik, beraz: hitzaren azkenean *-c* idatzi beharrean *-t* idatzi zuten inprentan.

2. Beste bertso batean ere adizkia dago, itxura guztien arabera, oker emana eta Lafonek hau ere inprenta hutstzat dauka. Nik ere bai, noski. Kontua, ordea, lehengo bertsoan bezalaxe, honetan datza: zeren ordez dago horko adizki hori? Bertsoa XIgarren kantuko laugarrena da, hots kantu txikiaren azkena, lau bertso baizik ez bait du kantu horrek, tituluaz gainera. Honela dio: *Merexi duçuna narçaque sarri.* Zer da *narçaque* Hori? Lafonek "Formes n'appartenant à aucune racine connue" titulupean sartzen du adizki hori bere "Le système du verbe basque..." liburuan (or. 367) eta *narraque*-ren edota *naçaque*-ren ordez egotea badaitekeela dio, baina ez dirudi oso seguru dagoenik. Ni ere ez, noski, beste neure ustezko honetan. Ene ustez *narçaque* delako hori *nacarque* irakurri behar da: *-rça-* ordez *-car-*, beraz. Ez da, damurik, Etxepareren obran *merezia ekarri* esapidea bestetan ageri. Ziburuko Etxeberrigan ere, eginahalak egin ditudan arren, ez dut hori bera aurkitu; bai, noski, *merezia eman* eta baita *merezien pagua eraman* ere. Bera ez bada ere, *eraman* eta *ekarri* ez bait daude elkarrengandik oso urrun, ni *nacarque* irakurtzearen aldeko naiz, harik eta inork besterik eta hoberik ez dakarreño.

3. Aztertzera dakardan hirugarren bertsoaren adizkiak —hemen ere adizkia bait dago auzitan— ez du hutsik berez Lafonen ustez, ez eta nerez ere; bai, ordez, Akesolorenez. Lafonek dagoen dagoenean ontzat ematen duen arren, adizkiaz eta bertso osoaz ematen digun azalpenari ez deritzat zuzen, ordea. Akesoloren iritzitik abiatuko naiz, beraz, honek adizkia aldatu egiten bait du. Pasarteak honela dio:

Eya horrat apartadi nor uste duc niçala
Horlaco bat eztuc uste nyc icussi dudala

Zortzigarren kantuaren, *Potaren galdacia* deritzanaren, boskarren eta seigarren bertsoak dira biok. Gauza bat esan behar dut aldez aurretik: kantu honetan, besteren batetan ere bai, gizasemea eta emakumea ari dira elkarrizketan eta, Etxeparek ez badiosku ere nor noiz mintzo den, ia beti asma daiteke nori dagozkion hitz batzuk eta nori besteak. Hemen, gizasemeak lehen ahapaldi osoa eman ondoren, bigarren osoa —bi bertso horiek ere bai, beraz— emakumearen ezpainetan jarria dago. Dagoen dagoenean 6garren bertsoak ez du ikusi batera zentzurik. Ikusi batera, diot, itzulpena hau bait litzateke *eztuc uste* horrek "tú no piensas" esan nahi baldin balu: "Ea, aléjate ahí, ¿quién te imaginas que soy? No piensas que he visto otro tal". Hala dio Lafonek ere: "...on n'obtient pas un sens satisfaisant: "tu ne crois pas que j'ai (encore) vu

une chose de ce genre (ou quelqu'un de ce genre)?" ("Notes pour une édition critique...", or, 163) eta hori dela bide, Akesolok *eztut uste* irakurri behar dela dio, perpausa adierazkorra –ez, Lafonek nahi duenez, galderazkoa– bailitza.

Baina hori ezina da, emakumeak, hitanoz ari zaionez gero, *eztiat uste* esan behar zukeelako. Eta, garbi geldi bedi, ez zukeen poetak horrela ezin idatzirik, *eztiat* eta antzekoak bi silabatakoak bait dira maiz Etxeparegan, *-i-* vokalerdi eginik. Irakurketa hori bazterrera uzten dut, beraz, eta *eztuc uste* dagoen dagoenean ontzat ematen. Baita Lafonek ere; ahapaldi berean, gainera, beste bi bider ageri da sintagma bera bigarren pertsona berean: *uste duc* eta *uste duyana*. Zentzurik izango badu, ordea, Lafonek honako irakurraldi hau proposatzen digu: "Eia horrat apartadi; nor uste duk nizala? / Horlako bat? Eztuk uste nik ikusi dudala?" Bertsoa bi zati egiteaz gainera, biak galderazko perpaus egiten ditu. Hona itzulpena ere, inork dudarik izan ez dezan: "Ah! va-t'en! écarte-toi. Pour qui me prends-tu? / Pour quelqu'un de ton espèce? Tu crois que je ne l'ai pas vu?".

Baina interpretazio hori ezin daiteke, ene ustez, inola ontzat eman eta ez, noski, aski gogorra delako bakarrik, baizik eta galdera izatekotan, nahitaez Etxeparegan *-a* atzizkia behar lukeelako adizkiak: *Ez duka uste...?* Eta hemen ere, zer esanik ez, bertsoaren neurri aldetik ez zuen poetak ezineginik, *-a* eta *u-* diptongo gisa ahoska bait zitezkeen, mila bider egiten duenez. Zer esan, hortaz?

Hona ene iritzia: 1) Ahapaldiaren beste hiru bertsoetan inperativoak edota horren kidekoak ditugu: *apartadi, eztarradala, erran albaytiça.* 2) Oihenarten *bu, bute* denok ezagutzen ditugu. 3) Ziburuko Etxeberrigan –eta besterengan ere bai, agian– honako hauek ageri dira: "eztuela ahalqueric", "eztuquela solassic", "eztuquela herabe" eta abar; hirurak bigarren pertsonakoak, *hik* alegia, 4) Gaurko iparraldeko euskaldunek "begirauk", "begirauzu" esan ohi dute eta Ziburuko Etxeberrik ere bai: *Confessio eguitera beguirauc ahantztetic.* Horiek horrela direlarik, eta oker esateko arriskuak gorabehera, *eztuc uste* hori inperativo da, ene ustez. Hots, "No pienses que he visto otro igual que tu". Bigarren pertsonako ezezko inperativo horri gogortxo iritziko dio gaurko euskaldunak, agian, mugaz honaindikoak batez ere; guk "zatoz", baina "ez zaitez etor" esan ohi dugu, izan ere, eta ez "ez hator", "ez toz", baina "ez zaitez etor" esan ohi dugu, izan ere, eta ez "ez hator", "ez hatorrela", ez ere Ziburuko Etxeberrik bezala "eztaguizula". Baina gureak gorabehera, inork erakus liezadan nahi nuke nola esan behar zuten edota nola esan zezaketen antzineko idazleek euskaraz "No creas", "No pienses", *uste* zerabiltelarik. Ez bait zuten beste biderik: edota *eztuk uste* esan behar edota *eztuquela, eztuela uste,* Ziburuko Etxeberrik bezala. Guk, noski, **ezan*-en forma sartuko genuke eta sartzen dugu: "ez ezak uste"; baina antzinekoei ez zitzaien hori zilegi, antzinekoek **ezan* laguntzaile hutsa zenean bakarrik, hots, aditz erroarekin batean zihoanean bakarrik, erabili bait zezaketen, ez *nahi, uste, ahalke, kupida, solas* eta gainerako izenekin. Horra nere uste apala.

4. Orain aipatzera noan beste bertso honetan adizkia zuzen emana

zen baitzioen, hari, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak azken bi kantuetan izan ezik, beste guztietan ez bait ditu grafiaz *-z-* eta *-tz-* bereizten, biak honela, *-ç-*, idazten baizik, *liçaten* dioen bertso hau bitara uler daitekeela dio Lafonek. Hona bertsoa: *Hon liçaten gaztiguric aguian ençun liroyte* (II, 4). Bi zentzuak hauek omen lirateke: *liçaten* hori *nor* adizki soiltzat hartzetik sortzen dena, hots azpi egituran *hon litzateke guztigua* bere baitan edukiko lukeena eta horrenbestez *hon lizaten* gaurko grafiara aldatu beharrekoa; eta bestea, aldiz, *nor-nork* formatzat hartu eta azpi egituran *hon litzateke gaztiguak*, amorosak alegia *—hark haiek*, beraz— izkutatzen lukeena eta *litzaten* gaurko grafiara aldatzekoa: "car *gaztiguric*, étant au partitif, peur aller avec une forme verbale au singulier ou au pluriel" ("Notes pour une édition critique...", or. 148). Itzuli ere, honela itzultzen du: "Ils entendraient peut-être des critiques qui leur feraient du bien". Bigarren honi eta beronen alde eman digun arrazoiari aski bitxia deritzat; esan al daiteke, izan ere, euskaraz "Ezagutzen nauten gizonik..."? Ni lehenaren aldeko naiz horrenbestez; hots, *liçaten* bertso honetan *nor* formako adizkitzat hartzekoaren aldeko.

5. Hona azkenik bestea, gehiegi luza ez nadin. Ahapaldi osoa aldatuko dut, bi bertsotan bait ditut esatekoak:

Andre honac vqhen dici ederretan gracia
Ehorc hura gaixteriaz ecin leçan inbia
Bana vistaz hilcen çuyen nahicari saxuya
Figuraren eqhustiaz daquiqueçu eguia (II, 51-54)

Lafonek honela dio: "L'adjectif *eder* est employé ici comme substantif...; il signifie "en fait de belle chose" ou "parmi les (=ses) belles choses". Hori lehen bertsoaz; eta hirugarrenaz honela, haren esanak laburtzen ditudalarik: *hilcençuyen* dena batera idatzirik omen dago fac-similean; ezin omen daiteke *hilcen çuyen* irakur, testu inguruak indikativoko inperfektua ez omen duelako onartzen: "mais elle éteignait par son aspect le désir impur" n'offre pas un sens acceptable"; *hil cençuyen* irakurri behar omen da, beraz, *cençuyen* genitivo plurala delarik (Ikus "Notes pour une édition critique...", or. 149-150). Nere iritzia bestelakoa da, egia esan: *ederretan,* batetik, guk gehienetan *ederren artean* esan ohi duguna da, edo "emazte ederretarik"; ez dagokie, beraz, Ama Birjinaren beraren "gauza edo dohain ederrei", baizik munduan diren emakume ederrei; alegia, *Ehorc hura gaixteriaz ecin leçan inbia* delako dohain hori Mariak bakarrik du eder guztien artean. Hirugarren bertsoak ere, ene ustez, zentzu biribila du, nahiz eta begiratu batera adizkien aldiak aurreko perpausean eta beste honetan desberdinak diren, eta indikativoko inperfektoa guztiz egoki dago. Egoki, gainera, bi aldetatik: edukiaren eta formaren aldetik. Poetak hauxe esan nahi du: "Ama Birjina, beste emazte ederrak ez bezala, inork gaizki ez desiratzeaz gainera, Berak hiltzen zituen bere begitartez nahikari satsuak". Honen zentzua atzemateko aski da jakitea aszeta guztiek Mariaz esan ohi izan dutena. Geure idazle klasiko baten hitzak, Axularrenak, entzun, mesedez: "Zeren baldin Elizako doktor batzuek dioten bezala, Ama Birjinak, ere mundu hunetan zenean ere, nori ere, eta nork ere beha-

tzen baitzioen, hari, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak iraungirik, heken lekhuan gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk pitzten eta emaiten bazerautzan, etab." (n. 241). Hori edukiaren aldetik, esan bezala. Adizkiaren formari nagokiola, hauxe diot: *Hilcen çuyen* delako hori inoiz hala gertatzen ohi zen gauza da; inperfekto jatorra, beraz; eta bestalde, nik glosa gisa eman dizuedan perpaus horren lehen zatia poetak zehar hizpidez *—vqhen dici gratia*-ren konpletivaz— eman bait digu eta antzineko idazle guztiengan lehenaldi hurbila ("vqhen dici") "tiempo secundario" derizten horietakoa bait da (ikus, beste askoren artean, Etxepareren beraren honako hau: *Harc eryo haritu dic hiri leyan vicia* (I, 43): *—leyan*, ez *deyan—*, poetak ezinbestean *ecin leçan inbia* esan behar izan du; baina, jakina, adizki horren azpi egituran beste hau dugu, inongo dudarik gabe: "ez zuen inork hura gaixteriaz inbiatzen". Ondoko "Bana vistaz hilcen çuyen"-en erabateko kidea, beraz.

Pasarte horren itzulpena, esanak esan, nik honela emango nuke, Akesolorengandik ia hitzez hitz harturik, Akesolok ere lehen bertsoa, *ederretan* delakoa alegia, nik bezala ulertu bait du: "La Santa Señora ha tenido entre las hermosas la gracia / de que nadie la desee con malicia; antes bien ("sino que" dio Akesolok) con la simple vista extinguía el mal deseo...".

JOAKIN LIZARRAGA, ELKANOKOAREN LIBURUAZ

Donostia, 1980-V-30

Fermin Ixurko

Sei dira txostenaren atalttoak:

1. Lizarraga hunen aurkiketa nola.
2. Nork ekarria zitekeen.
3. Eskuiskribua nolako den.
4. Eskuiskribuan zitatzen den zenbait iturri.
5. Zenbait pasarte autobiografiko.
6. Ematen da hitz-zerrenda ez ezaguna.

1.—Aurkibidea nola

Baneramatzen hiru hilabete Aldatzen, (Larraungo herri polit bat da Aldatz.) Noiznahi zenuke ordu apezetxeko liburu gaixoei begikolpe baten emateko, esan zidan emakumezko batek.

Banuke, banuke, erantzun nion, eskatzen zidanik egiteko gogo handirik gabe. Izan ere, orok murrizturiko liburu pilan, zein arrain atera behar nuen nik? Zazpi urte hartan, Gipuzkoako arrotz baino arrotzagoko familia biren peskisan egona baitzen apezetxea.

Konta: Direlako prekaristek, Donostia barna ziren liburu hunen edo horren balioaz galdezka. Eta kontent zartagi ipurdia garbitzeko erabili ez zituztenean. Halabeharrak salbatu du Lizarraga hau. Beste behin egiztatu da harako esankizun hura: Habent sua fata libelli.

2.—Nork ekarria zitekeen

Ene ustez, 1816an, bere jaiterri Aldatzen hil zen Mariano de Muguiro Errctorearena zen. Zer arrazoi dudan horrelakorik finkatzeko? Arrazoirik ez dakit, eskueskribuak ez baitio hitzik. Baina bai aierurik.

Hasteko, bi obra nagusiak zeinetarik hartu baitira eskueskribuko etsenpluak, hots: Martinez de Parraren:

"luz de Verdades Catholicas, Año 1760" eta
Clausen: "Spicilegium Catechetico-Concionatorium, 1750", liburu pilan daude, egon ere, "soy de Don Mariano de Muguiro" jabe-izenarekin.

Ribadeneira, S. Francisco de Borja, eta infinizio bat liburu gehiago, Mugiroren izenarekin heldu da halaber.

Bere izen-deiturekin zegoen liburu batetan, prediku-eskema bat aurkitu dut, zeintan, Mugiroren letra ezagunaz, jokoari buruzko pasarte hau baitator: "Virtutezco edo cillegui den jocute LAZQUI GUCHI ecusico dituzue munduan, ceren cillegui izateco condicio ascoco bearda. (Aitzinaxago) "Ez du cillegui izatecotan izan bear jocuec pecatuco vide edo ocasio, ez gaiz bide, edo escandalo edo exemplo gaisto; eta ARE GEIAGO etzaio jocu artaic ere calteric etorri bear".

Orain, bada, nork larraungok erabili du egundaino LAZQUI GUCHI esanmoldea, baizik bere Lizarragan hura irakurtzen zuen Mugirok?

* * *

Bada gehiago. 1797, Pedro de Añibarro eta Joachin de Sarove erakarri zituen Zarautzetik, frantsesek suntsituriko gurutze-bidearen eraikitzera. (24 imajina hizkali ziren erreketan.)

Lekukotzat, elkarrekin datzate aipatu frantziskotarren eta Mugiroren sinadurak.

Bestalde, Anibarrok ekarri ote zion, bere liburu batetan aurkitu dudan "Copia del decreto real que permite imprimir libros bascongados" delakoa? Mogel-i buruzkoa da.

Ba ote zuen harremanik Mogelekin?

Hunela dio aipatu dekretuak hitzez hitz:

"Don Juan Antonio de Moguel y Urquiza de Marquina en el Señorio de Vizcaya ha representado a S. M. que haviendo travajado una obra en idioma bascongado despues de haver sido examinada y aprobada por el ordinario de Pamplona, recurrió a ese Consejo pidiendo Licencias necesarias para su impresión; que los juezes se hallaron embarazados para concederlas, por una carta orden que poco después de la expulsion de los Jesuitas comunico a aquel tribunal el Conde de Aranda, en que se mandava a los juezes no dar licencias para imprimir libros *Bascongados*; haviendo dado cuenta al Rey de dicha representación, y enterado su Magestad de no ser aplicable la citada Carta a las circunstancias actuales por los perjuicios que pudieran seguirse de su ulterior observancia, se ha servido resolver, que se permita la impresion de

la enunciada obra de Moguel si no hubo otra causa que la orden prohibitoria expresada para impedirlo, y que el Consejo de Navarra no se oponga en lo sucesivo a la publicación de las obras que se quieren dar a luz, por solo estar escritas en idioma bascongado, siempre que no haya tropiezo en lo substancial de religión, moral, y literatura. Participalo a V.E. de orden de S.M. para su inteligencia y devido dumplimiento por parte del Consejo. Dios guarde V.E.s a. Sn. Yldefonso 29 de Agosto de 1799. Mariano Luys de Urquijo=S.r Marques de las Amarillas".

Inondik ere, euskaltzale zen, eta jakitate ez gutitako, Mariano Mugiro, aldatztarra. Aierurik aski, ene ustez, Lizarraga eta Mugiro aldi-kideak –hiru urtez hau zaharrago–, elkarrekin erlazionatzeko.

3.–Esku-iskribua, nolakoa

471 orrialdeko liburu mardula da. Ongi, agitz ongi kontserbatua, eta emaztekiek tirriatuko luketen larruz bildua.

Huna gerria: "Serm. s de Dominic. s per ann. Item de viciis cap. Item de Pass.e D." Esanik da hunenbestez zer gaiz diharduen. Artarian, guti-gora-behera, bere beste etsenplaretan eman ohi dituen latinezko kontseiluak datoz. Ez dator autore izenik. Urte zenbakia soilik: 1785. Beraz, 37 urte zituen autoreak, 1748an jaio baitzen.

Presiku gairik nabarmentzekotan, aurkibideko bi titulu hauek nabarmenduko nituzke: "Sermo de aliquibus virtutibus specialius acquirendis a viris.", eta

"Sermo de aliquibus virtutibus specialibus acquirendis a faeminabus".

Bizio-buruez dakarrena da halaber azpimarragarri. Zazpi prediku, bata baino bestea atseginago, bata baino bestea zalegarriago.

Eguberritakoa da agian giharrena. Zer bihotz isuri hunkigarria prediku horretakoa! Dirudi "primitif" direlakoen pintura bat. Zein poliki dakusan, esate baterako, zer begikaldu plastikoz, Ama Birjina daraman astokoa! "Baut uste animale fortunosoac ere usmatzen duela magestade daramana gañean: Ain grave nola baitoaiepolon polon" (33 orr.).

Aitzitik, ahula da, ahulenetako, Bazko nagusikoa.

Liburu osoko kapitulurik alferrena enetzat, harremanez diharduena du. Hasteko, den bitxiena da kapituluko lehen partea, zeintan kontatzen bait "españoleo zebilzquite (la) Moroac –Clavijokoan– ala nola erbicumeac".

* * *

Bigarren partea, gutien komentzitzen dutenetakoa da. Hamarrenen kapitulua, bestela ere, beti ikusi izan dut begi etsaiz. Herririk pobreenetan eman

dut ene gaztaroko apezgoa. Bada, ttipienetan ere, behartsuenetan ere —edo beregainki hauetan—, parroki liburu penagarri eta "aborrecigarri"enak, hamarrenetakoak izan ohi ziren-Tazmiakoak teknikoki esateko.

Elkanon halaber. Zer besterik da, izan ere, prediku horren bigarren erdia, baizik orok larrutzen duen nekazariari, arrazoi parrasta baten botatzea? Ordainez, arrazoiak ematen batzaizkio nekazariari. Ihaurtikitzen ez zaizkinean!

Zenbat samintasun gorde ote dago. Autoreak arrazoi gabetzat ezesten duen kexu zahar hunetan: "Erratendena necazarien costus vici dela mundu gucia"!

Nekazarien mingostasun eta frustrapena sendatzeko arrazoimendu propioena ote zen Lizarragaren hau:

"Gueurec, Jauna, inenguinduza Apezlanac. Ori da erratea Zeuroc izainzinatela Sacerdote, ta alas edo olas estaiquela Sacerdotericgabe: solamente bercebatzuc oraicoen lecuan. Baña nola leizque eguin batec officio lurrecoac ta sagratuac? Nola leizque icasi eracutsibeardirenac? Cer indecencia litzaque pasatzea alorretic aldarera? Utzi laiac, alzurra, ta berce oficioetaco instrumentuac, ta berla administratzera Sacramentuac, vestitzera ornamentuasandues, ibiltzera elizan aingueru guisa lenchago zebilena lurreco itecoetan lurrecoa becala ciquinduric escuac, ta estaquit nola gañaracoan ere. Certaco darducat claro dena?" (232).

* * *

Itzul nadin harira. Ez dut esanahi, gainerako gaiak ez direnik aipagarri. Bada urtean zeharkako predikuetan makina bat horrialde atsegin. Aspergarririk ere baden bezala. Penitentziako Sakramendura daramate ia prediku guztiek, behialako bide guztiek Erromara zeramaten bezala.

Edozein modutan, konkretua da liburua, herrikoia da. Idaztankera laburreko da, arraiko, zirtolariko ere.

Humore ttanttoak darizkio ez bakan, hala nola Axular gogarazten duen pasarte pipertsu huni:

"(Bizi-estadua ongi hautatzen ez dutenentzat da gesittoa): Bearda estadoa ere autatu fingorrequi (hots, Jainkoa zerbitzatu ta gloria iragazteko finarequin) ta cein den propioena bacochaindaco finori logratzeko; ezperen adió: esta faltaco norequi gastigatu goraintziac an bera." (57-58 orr.).

Liburuan gehien miresten dudana, itzulpen lana da. Eskritura Saindutikakoa. Trinkoak baitira itzulpenak eta sotilak. Nolazpait Axular gogarazten dute. Eztabaidarik gabe, itzulpenak dira liburuko zati landuen eta borobilenak. Ez da miresteko, bestalde, zakukoak ateratzea Jainko Hitzaren bihurtzean. Errespetoaren "casos", begiramenduaren "utses", Autoreak bezala esateko.

4.—Esku-iskribuan zitatzen den zenbait iturri

Ez bakan alferrik dakartzan etsenpluak —ez baitira etsenplu, irudipen baizik—, esan bezala, Martinez de Parra eta Claus jaunen baitan aurkitu ditu. Andradek, Ribanedeyrak, eta bestek oraino, burutzen du etsenplu ornia.

Espreski zitatzen du Florez-en *Clave Historica,* ann, 1273 atxekiz. (Etsenplutzat ekarri gertakizunaren egiatafedetan, nik uste.)

Teologia baitango iturririk ez dut aipatuko, aipatu beharrik ez delako. Izatekotan, San Buenaventuraren izena nekarke, hunen anitz pasarte dakarrelako bizio-buruetan.

Erakargarri litzateke halaber mairuen salbazioari buruz aitortzen edo profesatzen bide duen teologia atzeratua.

Eskritura Sainduko bizpahiru leku, Barradas autorearen argiz argitzen ditu; argitu ere gaurko begiak jasan ez dezakeen argi parrastaz, egia esan, sarri dakuskezuenez.

Pasio Sainduko hutsuneak, "Agreda Serore Venerable"aren errebelapenaz hornitzen ditu.

Etimologi atalean —eta "terminachos"enekoan—, Larramendirengana jo ohi du, eta behin hunela:

"Avaricia, edo codicia, edo Autorebatec diones, guticia, baita oroat nola guti-gucia, ceren gucia guti baizaio berecoiai. (Larramendi, *Dictionar. triling.*)" (366).

Emazteki atalean, berriz, Aita Feijoorengana du isuria, eta Feijoorik hoberengana, haren: "in theatr."eko zuhur baino zuhurragoko aburu hau baitakar:

"Disputatzeunte oteden aimberce entendamentu emastequietan nola quizonquietan; bada defendatzenduenic aimberce dutela aiec nola guizonquiez (Feijoo in theart.) cerengatic alcabo esta ez arr ta ez eme arima, ta arimaren potencia da entendamentua: Emanendu pasionericgabe sentencia pleitugontan estenac quizon ta ez emaztequi: Cierto dena da ezi ala nola cenbait guizonec baitamate avantalla cembait emastequiri, ala berce cembait emastequiec pasatzentutela cembait guizon prudencian, entendamentuan ta discrecioan". (344 orr.).

"Da bada tonteria gaizqui erratea generalqui emastequiguendeas ala itsu itsua berchsigabe cein bai cein ez, eta dion becala Autorebatec. (R. Feijoo theatr. crit. defens. faeminar.) nabarmencendire aquian yago gaizqui erretagontan aietas diotenac passione yago." (347).

* * *

Zitatu Iturbururеb gardenari igertzen ahal izateko –azken ekarri bi iturramena izan ezik, uraren ezagunegiaz–, lehen erakusburua, etsenpluen gainekoa izan bedi, hala atalaren zabalaz nola beraren dotoretasun eta bitxiaz.

"Ellegatuze confesatzera Apez Jaunbatengana gaste-iduribat presencia ederrecoa; joanze confesatus aimberce becatu, ta ain enormeac, ezi confesoreac errancio, mila urtes vicituric ere etzuque la in cion adiña. Errancio arc, mila urte baño yago tut. Milla urte baño yago? Bada norr zara zu? Ni naiz Demonioa, errancio arc. Emen confesoreac eta i confesatzera? Noizas gueros? Cerc moguitu au? Arc orduan, nindego beira ellegatzenzirenac onara, ta batzuc ni bezain itsusi ariman, ta itzultzenzirela garbi ederr, solo confesaturic errecibitzearequi adsolucioa. Orrgatic etorrinaiz ni ere, albadezaquet logra dicha bera, ta orgatic confesatu naiz nere becatuenpartebates, ta naibadu, confesatucotiot guciac. Orduan confesoreac, bada erranzac au sollic, nere Jaun Criadorea, gaizqui eguindut orren contra, ta damu dut ortas, barcabezada. Ori estut errain nic, erranzue Demonioac, ta joanze andic voladan (II5).

Taiu beroak dituzu gainerakoak. Esate baterako, eriaz ukitzen bezala zuen "gertakizun" bat ("azquen joanden gendamendean, 1613 urtean Madrilen aguitua", bere hitzekin esateko), lilurakeria huts-hutsa da, naiz betor Andraden burujoperekin. Etab.

* * *

Bihoa hurrengo erakusburua Ebanjelioko historiari buruz.

"(...) nola guero naizuelaic Herodesec ilaraci aurr divinoa, argatic (kasu datoari) ibaizitue aimberce MILLA aurr inocente." (49).

Ebanjelioko hutsuneen betetzeari buruzkoa, Serore Venerablearen testu hau izan bedi: ("Azotucaldi emanziote" mementoan gara):

"Tunica orai diogungai cela dio Agredaco Venerableac ura berbera, ceintas vestitu baizue A, a Birginac aurttoa celaic oñes paratuzuelaic, ta gorputzarequi batec joan omen zen azis ta anditus auchi ta ciquindugabe beñere. Asize edequitzen humil ta obediente Jaun divinoa, ta idurituric ministrogaiei berantzen zuela, edequiziote berec indarrca ta prisaca. (Kasu datoari) Guelldituze buluchsiric gorputz utsean, salvo oialgaiec, cein paratubaizitio alaber Ama Santissimac aurra celaic, ta joanbaicire azis berarequi bateo. Prevenituric lancegau paratucizquio Ama prudentissimac decenciagatic, ta onen contra etzute licenciaric ez Deabruec, ez verdugoec, ez lenago, ez lancegontan, ez guero biluci zutelaic gurutzificatzeco, baicic ere naibazute pasatu aguian decente-ongui idurietzun amostraciorenbatera, bereala ilac becala guelditzencequizquiotela besoac ta escuac dio Agredaco Venerableac, ta nic sinestatzendut, chsaquinic Jan.en amorioa honestidadeari diona." (448 orr.).

5.–**Zenbait pasarte autobiografiko:**

bi apuntamendu arras jakingarriak baditut ataltto huntan. Bi-biak autorearen izenari dagozkio, eta bigarrena –kapitulu kronologiaz bigarrena–, autorearen jaiotegunari. Inkontinenti damazkizuet.

Lehena:

"Nic cembait aldis erraten diot nere buruari contsolatzeco, aguian Jang.o onac maite du Joaquin! eta Jang-c maite barimbadu Joaquin, banaique consola: estut adisquide gaichstoa. Cer zaida gañaracoas? Fortunosoa ni banu Jang-a nere! Pensamentuguebequi ta esperanzattoarequi dulzatzen ta arrotzenda biotza edocein aflicciotan, eta eldudire bozkariundes beguietara negarr dulceac. Baña contraco aldetic barimbadio bati gogoac, etzara Jangoicoaren, despeitu duzu zeure culpas, ausentatuda, artuzaitu beguietan. Ayené! icaratzenda biotza solamente gogoratzeas. Certaco jaio ala izatecos?" (182 orr.).

Bigarrena:

"Contatzeco Jesu Christoren pasio ta eriotzearen historia, naiago ta bearrago nuque S. Crancisco Assis (nere izeneco Sanduaren) espiritua, ezi ez Julioren itztundea, eta mintzaera. (...) Baña (Sanduaren izena badut, bere llaguen egunean jaioa naiz) estut ordea Sanduaren espiritua, ta biotzaren alaco nobleza. "(419)

(Makina bat buruauste gutiago bazen munduan, beste horrenbeste esan balute beren jaiotegunaz hilezkorrek).

Lehen lekuan ekarririko pasarte autobiografikoari hain estu datxekon beste hau oraino:

"Esta asqui Christoren saldoan contatzea barimbada anchume, ta ez ardi ona, erran becala. Ceintaic otenaiz ni? (...) Bada ontara doaie guzia. Penabates gau ta egun antsiaturic vici naiz, ay ene Jauna Jesus, salvatucootenaiz. Jang.en beguietan cer otenaiz?" (173).

6.–**Ematen da hitz-zerrenda ez ezaguna:**

zeintan ez baitator orain arte Lizarraga baitan aurkituriko hitzik. Azkuek, Aita Polikarpok eta Apezetxea jaunak aurkiturikakorik ustez ez behintzat. (Fagoaga zenduaren zerrenda ez dut ikus al izan.)

Hanbatenaz, beraz, zailago lana, zenbatenaz gai berberak –edo kasi– aztertzen baitira batzuen nola besteen hiztegittoetan.

Arazoa, halaz, guztiz, bestetan zetzan, hots: ea ekarri behar zen halako edo beste halako hitz arrunta. Batipat arras arrunt zirudienean hitzak.

Halakorik ere hartu egin da inoiz, kontestu atseginean balin bazuen kokamendu. Bestalde, zer igurik dezakete ondokoek guk dena emanda? Nondik atera hainbeste eta hainbeste tesina eta txosten nola etorriko baita?

Utz diezaiegun halatan, kapituluen zenbakiak ekartzeaz landako lanik ere.

Ehun hitzetik goiti bada bilduman. Adieraz dudatzen banaiz, esaldi osoa ematen dut, uztatzen dakienak uzta dezan.

Aldizkarirako utziz hitz-zerrenda, hitz jakingarriren bat edo beste irakurriko dut soilik; ordea, irakurriko, noiz ere hitz horrek egin baituke bere kafia esanmolde ausart edota historio atseginen baten altzoan.

Eta luzamendutan ibiltzeko, Karamarro-Amak du txanda:

"cangrejo edo Caramarroa dabila guibelca, edo atzerat. Naiomenciote bein eracutsi caramarro-amac humeei ibilcen alcinerat, gaizqui irudizuela, ta peligroso aien ibiltze-modua. Erranciote nola ibilbearzuten; astenzire alcinca, baña icustearequi ama atzerat, berla aiec oroat. Ez ala, nere humeac, baicic alcinca. Goacen bada; assi ta len becala. Certan paratuze? Ama ta humeac len becala macurr atzerat." (298)

Txanda, orain, San Antonioren predikuak du:

"S. Antonio Paduacoa predicatzeco cegonbates etze norc aditu, ta joanic itsasbasterrera convidatuzitue arraiac aditzera Jang.en itza. Gauza miragarria! Etorriric arrai genero infiniciobat, ta atraric buruac ur-gañera egoncire atento aditzen becala, ta ondorean arturic sanduaren bedeicioa joancire barnera cein bere alde. Baña gure asuntoraco balea bale guelldituze nola len, itsasotsoac seguituzue errobatzen, caramarroac edo cangrejoac ibiltzen atzerat, ainguirac irristatzen, olagarroac edo pulpoac apegatzen peñatarra, ta berce guciac ario berera." (103).

* * *

Azkenik, zilegi izan bekit quizpurr-en ekartzea, Ixurko naizenez neroni:

"Esta sin necoso orrastatzea bilo medianoqui legun ta bardin dagona; necosoago da orrastatzea bilo QUIZPURR nasi aspaldian orrachsac uquitu estuena" (141).

* * *

Nerea izango da hemen irakurri den txostenik xinpleen eta ahulena. Halaz guztiz-barka ahoberokeria—, ez da areto jakintsu huntan, Lizarraga aurkitu berriaz nik baino gehiago dakienik.

Esan dut.

* * *

A

Achanini: ulifarfalla (169).

Adartu:? parabalezazute alcinean vasobatean ardo generosoa, cein costatubaizio necazariari anitz egin ta neque moldatzen lurra, *adartzen,* garbitzen, ta lanac ematen ardanzeari, biltzen (mahatsa), etc. (52).

Alde: desordenatzendu gucia (gulak), fuera templanza, betorr jatera, betorr edatera, *cer asqui ta asqui alde, cer garai ta garai alde?* (384).

Alquichsela: scabellum pedum (200).

Andientsu: majestaderekin (441).

Aragueia: luxuria (371).

Aragueiti: haragikoi (201).

Arramale: erremala (449).

Arramilleta: lore-sorta (102).

Arranzcai: arrantzako tresna. "S. Chrysostomoc galdeguitendio galanqui, cein da diozuna zuc, Pedro gucis sandua, utziduzula? Cañabera, sareac, barcoa, ta gañaraco *arranzcaiac?*" *(214).*

Arrcuma: neke:
"baña asco alaco gogaizda epel (nahi, borondate epel) dire perezoso goiz otzetan erdi lo jaiquinai taez nai daudenen *arrcumac.*" (64).

Arresti: begitartetsu:
"eta bitarte *arresti* alegre amorosas erratenciola" (66, 208 etpassim).

Arrullatu: guapear, bere burua erajutsi:
"berce vicioetas atratzen da cerbait excusa-iduri, estute valio, baña ala itenda: subervoac dio itenduela ezdezaten desprecia, beardela *arrullatu.*" (391).

Aspertu: desahogar(se):
"baña gucietan bearda prudencia, ta caridadea, de manera ezi estaien eguin acarr edo erreprehensioa colera *aspertzeagatic* (297).

Aspinchatu: auspeskatu?
"eta especialqui oracio ta obra onetan bearda garaitu locuma, edo postura necosoan egones, edo chutiric, edo *aspinchatus.*" (399).

Atzeman: ernatu, fruitu eman:
"baña ay cein eraicio chipia! Cein izanda causa? Francotan ez *atzemanez* edo ernatus ceape aziacbiotzean (89).
"Azia bera da, itza Jangoicoarena egobatetic doaiena berbera da, ta alaere batean *atzematendu* graciaren medios arguitus entendamentua,

moguitus biotza; bercebatean guelditzen da utsal deus berritugabe (99)."

Auno: koldarkeria. (Nagikeriaren) Bederatzigarren (alaba): da *aunoa,* edo cobardia (401).

B

Bagade: uhin barna (30, 303).

Baieta: bai emate:
norc naidio zervitzatu Jang. ai? Nic bai, nic ere bai, nic ere bai, erraindute guciec. *Baieta* merque (333).

Bam bam bam (beti garrac) (129).

Baque-aldi: tregua (168).

Bapedra-ren arima (94).

Baratze-belar: arbusto (89).

Baratz: geldiro (58).

Barnaestalia: misterio. Trintateren misterioa edo *Barnaestalia* dago izatean irur batean (195).

Beaquidez: en atencion a.:
ezi oredestinacioaren videa estoaie gendaquien *beaquidez,* baicic Jang.en gtaciaren, etc. (58).

Beguitarte: facciones: fala nola Semea iduribaize lazqui Amari aurpeguiaren *Beguitartean,* colorean, edertasunean, etc. (464).

Bereganic beregana: (Judas) len ainguiruttobat lurrecoa, guero zapobat liquits ocagarria. Cer diferencia *bereganic beregana* (91).

Berorde: especie:
ezperen barcatzenbaituzu sentidoac divertitus, jan edanes, aitus, jarduquis, ibilis, ta icusis nola nai, bilducouzu azi eraiquiaren guisara, joainda gogoa betes especie edo *berorde* gaichstoes, atz eman ta azicoda malicia, ta erdicoda becatuas (121).

Bezala (221): (hemen soilki *bezala,* beste lekuetan *beçala.*)

Bideicabezqui: ugari:
bideicabezqui Jang.c emanbezote ondasun yago ta yago (343).

Borboraca cerio odola (449).

Bortizquiro: trágikoki? Ilzelaic bada Jesus ain *bortizquiro,* auchizio eriotzeai bere punta zorrotza, etzezoten sentirazi aimberce bere hume maiteenei (78).

Botradaca: otso kolpeka:
orgatic da conveni artzea lenetic vicimodubat moderatua erdicoa, ez gueiegui erchia, ta ez gutiegui, ezi fervoreain *botradac* estire iraupetsu; eta obeda mediano constante, ezi orai anitz, ta guero baterez (401).

Bururdico: edredón:
sagubat sentitzeas *bururdicoan* lotsatzendirenoc (200).

C

Carachori ? alare ain sreno (galvide eman duena) nola baliz *carachorien* chiruca (247).

Carmenco ? esta sarna, ez *carmenco,* ez pocio ain gaistoric, nola becatu mortalea arimaindaco (293).

Cascazapo: tortuga? O! eta onera ala dena baliz gaitzeraco ala! baña ah cembat direnac laneraco ta oneraco gueldi *cascazapoen* guisa, dire erbien ta galgoen guisa zalui gaistaqueriaco (400).

Caso aida: adinazak:
Pedro lo. Icusteunzie au pachorra? Biramonean ilbearr, ta ain arro? *Caso Aida:* esta aitzen ere (77).

Catalunia-co Viscorrai (25): **Catuli:** katilu. Ez da errata, bariantea baizik.

Contrestatu: buru egin, kontra egin (123).

Cozcorr(ardo): ardo arrancioa baño yago pitarrac, *cozcorrac,* ta farrascac (65).

CH

Chinchurria: latines deitzen da gula (387).

Chistetto: xehadura (=detalle)? (77).

Chsarrechi(ezin), "Arrasteatu" (ezin): inbestigable:
o Jang.enchsaquintasun gora ta barna! Cein incomprehensibleac diren beraren juicioac, ta *chsarrechiestaizquenac* beraren videac! (39).

Chufeatu: listukatu? Iraindu (22).

D

a) **Dateque** (326): Behin aurkitu dut.

b) **Desauraude:** desarreglo:
baña gucien gaichstoena da gorputzaren *desauraude* macurr lissiatua gaitzera (63).

Doain ofratu: oparitan eskaini:
eta errancio Jesusec (leguenartibati), beira, ez erran niori, baicic joan ta

aguerzaite Sacerdoteai, ta ofrazozu Moysesec manatuzuen *doaina* testimoniotaco (61).

Doanditu: goraipatu:
bere arimac *doanditzendu* Jang.a (361).

Doatsuera edo bienaventuranza (361).

E

Eder-itsusi: amor propio?
Dio ere (S. Buenavebturak) (luxuria) dela zaldi frenoicgabecoa becala galtzenbaita furiarequi aldapabera; ala ura auchiric alquearen, belduррaren, modestiaren, ta *eder-itsusiaren* frenoac doaie itsuturic vide gaduas (377).

Eguberri: orgatic ongui deicenda gure uscaran egungau *eguberri,* edo egun berri, berritubaizitue Christoc bere jaiotzarequi egunac ere, ta demborac, ta gauza guziac (35).

Eracutsia: exhibicionista:
baña idazu persona juiciosoa... Izainda alquecorr, modesto, cortes..., ez alquegabe, *ez eracutsia,* etc. (167).

Erdara: hizkera:
baña leproso daucanai sarturic zain ta ezurr-munetaraño bere culpas sucarr venenatu eriozcoa (lizunkeriazko sukarra), idurizaio *erderagau* (garbitasunaren gainekoa) an berce munducoa, etc. (66).

Erratza: ? Latines ta erdaras persona humanoa duzu oroat nola beracha, affablea, humila, *erratza,* on-tzarra, etc. (209).

Erregaera: erriego: cein dire virtuteac jaio ta aziestaizquenac Jesusen odolaren *erregaeras?* (411).

Esne-guende: lacticinios (106).

Esquinancia: eskilantza, angina:
dio lenic (S. Buenabenturak) dela (gula) nola *esquinancia,* edo chinchurrico mina propioqui (387).

Estalquintza: estalki:
ezdezaquet utzi advertitzeco beardela izan atencio ta zelo decencia gucias arimaren penan, estaien obra misericordiascoa (ostatu ematekoa) itzuli *estalquintza* condenacioscoa, ta ciquintegui aterrbea (325).

Estargoa: gula (384).

Estenqueriac(bearr): gauza desegokiak:
cer lastima litzaque bada ellegabaledi templo materiale icustendugungau izatera abreen tegui, aldareen lecuan gambelac, ornamentu ta vaso sagratuen lecuan apareju ta *bearrestenqueriac* (184).

Ezcutarma:
alanola duenac Erregueetaic bere etorquia, daramalaic Erregueen insignia ta *ezcutarma* noblea (97).

Ezinde: ahuleria (348).

F

Fado: frinko, garbo:
gauza guzietan bearda vicitasun justobat bere neurrian, itendena indaien *fadorequi,* ta ez il ila (183).

Fidande: fidantza (61).

Fierratu: minkar:
cembat ardo on itzulidire hozpin *fierratuac!* (401).

Futfut: huts:
gende vono-utsa gucis da miserable (...) munducoec ere ezaunduric aien antustea, irri ta desprecio iteunte nola cañabera utses, nola ichaurr *futfutes* (308).

G

Gaitzartu: besteren onez eritu (Invidia bada (...) persona villauen etica ta tisica rabiosoa, *berceen ones gaitzarcenduena* (bearbaitu ustu arras christioac biotzetic) (43).

Gaitzeraguille: fómes peccati:
guci guciec Adan ta Evaren hume becala dacarte berequi aien desobedienciaren effectoa cutsus becala, generacios ta castas, becatu originalarequi bateo inclinacio gaichstoa *gaitzeraguillea,* sucarria, ta becatugaia (371).

Galmende: desolacioa:
egun berriz erratendiote (Apostoluei) icustenduzielaic desolacioaren, edo *galmendearen* abominacioa (317).

Galquidatu: lur jo:
dañu gularenac sei dio direla: laurgarrena ondasunen *galquidatzea* (390).

Galtier: galdun, galtzaile (250).

Galtzacorda: cáliga:
estazu nai gaistoa viciquidea, estare humea, estare nirabea, estare echea, estare tresena, estare atorra, estazu azquenean gaisstoa nai *galtzacorda,* eta alaere naiduzu izan gaisstoa vicitza, ta arima gaisstoa? Estima otoi vicia yago ezi galtzacorda (332) (1).

---

(1) Axularrek *zapata* dakar San Agustinen textu berean.

Galyurr: caldurr (117).

Griego(su).

Gosetiro: antsiarekin:
ala nola olloac baitoazi artus ale-picorrac *gosetiro,* beiratugabe cein escuetaic elduzaioten (modu berean hartu behar du eliztarrak predikua) (101).

Gozaera: onkailu:
murmuracioa, atoz zu orai plazara (...) Zu jarduquiaren gatza, zu janaren postrea, zu diversio gucien piperra, zu lan gucien *gozaera* deicen echebarnetan, carriquetan, campoetan (72).

Gudari: edo peleazalle (365).

Guenasi: agitación?
Baña nere atencio gucia darama Christoren lo egotegarrec sereno aimberceco *guenasiain* erdian (68).

Guezurrac: gezurti orde:
icustenda (...) batzuc guciac onac, amoltsuac, edo humillac...; bercebatzuc guciac guezurrac (59).

Guizarco: varonil:
dio ere dela pereza letargoainguisa, (...) erremedioa da erresoluciobat *guizarco* sin valientea (402).

Guizona: guizona uscaras gucia ona, edo gure itz ona, edo alaco gauza ona (209).

Gurpe: poma:
al rebes cembait zarr badire secula ondugabe, len verde, orai ustel, ta ondu ez, gurbeac becala (177).

Gurutzada: deicenda gurutzadacoa (Bulda), ceren onen graciac baitire idurituac emanzirenei goratuzelaic *gurutzada* (358).

Gurutzalapil: cara o cruz:
bercebatzuc vici gucian dabiltza jaiqui erorca aldaquetan, ain fite nigarres, ain fite irriabarres; salvatzecos ebec bearda izan fortunaz, eben salvacioa doaie *gurutzalapil* (358).

I

Ibilderia: callejeo:
alferqueriai darraizquio atzetic ta saietsetaic (...) *ibilderia,* embusteria, triposqueria, etc. (309).

Ilcara: erdi-hila:
Ilcara dago fedea, edo es asqui vici? (411).

Ichsticatu: zapali, prensatu:
inchsticatzen matsa (53).

Ilberri, iltzarr, ilbete, iluts: ilarguia becala aldatzen dela tontoa, dio Espitu Sanduac (**Eccli** 27) ya *liberri,* ya *iltzarr,* ya bete, ya *iluts* (221).

Iluncara: ilunxko (85).

Importacio: garrantzi:
(ez fruituric atratzea dago) guti barnatzean gauzen *importacioa* (54).

Iraunde: iraupen (165).

Irurquide: trinitate:
trintateren izengan daique itzuli gure euscaran irurtasuna, edo *irurquidea* (195).

J

Jaun goico (196): Forma horretako leku bakarra.

Joanquera: ibilkera:
gorputzaren aldeco gauces antuste izatea, nola indarres, nola irudias, nola talleas, nola bercelako on-iduries, parte da engañua, parte simplequeria, parte reteria, etc. (362).

L

Lagotero: adulón (284).

Laguncoi: jendarteko:
guizona da animale-motabat *laguncoia* (366).

Lagunquida: adikidetasun:
egungo leprosogarrrec ezanduric bere laceriain andia, ta alcaizun bortitza, ezin atra gendeen alcinean, ezin goza berce guizonen *lagunquida...* nolaco ansia bidezue garbitzeco? (62).

Latzcara: nekoso:
eta *latzcara* iduribadu ere (kofesatzeak), esta errealqui sobra, beiratzen bada ongui (31).

Laueretan oguei (207).

Legarauquiro: legitime (certaverit):
eta S. Pabloc dio, estela corona, baicic peleatzenduenaindaco *legarauquiro* (160).

Lembiz:
Ala izaindire azquenac *lembiz,* ta lembicicoac azquen (94).

Lendu: aurreratu:
eta *lentzen* direla, Christoc erran becala, arrapatzera catedrac Jangoicoaren erreinuan guizon galduac, ta emastequi infameac (116).

Liquirdatu: enviscar(se):
perezac indiote lequedabat ceintan dauzquioten *liquirdaturic* becala escu, oñac, ta gucia ongui iteco (400).

Lollo ? Christoren alorra da Eliza, alorgatan gucietaic da, on ta gaichsto; bada grano, bada agotz, bada ilaun, bada *lollo,* bada ilindia, bada zizaña bere (253).

M

Maguira, maguiratu: maginaratu:
ta itzuliric S. Pedrogana errancio, itzulazu zeure ezpatoi bere *maguira* (426).
Baña ala nola orduan manatubaicio *maguiratzeco* bere ezpata (113).

Maindreco: oial:
eta inguratuzue oial edo *maindrecoes,* zuec deiceunziena mayolatzea (36).

Malhurreria: zorigaizto, ezbehar: (Aita Polikarpo osotzen dut):
icustenduzielaic galmendearen abominacioa lecu sanduan, dio Christoc Judioei, orduan igues oianetara, ezi elduda azquen *malhurreria* (318).
Ah cer exempluak paranezazquen emen, banu dembora, eritasun, laceria, desastre, ta *malhurreria* genero gucietai (176).

Mendu: haserre:
ocurritzenda ira edo *menduaren* tirricacioa, etc. (122).

Muchsiu: jauna?
berriz Pedro guechsurr, *muchsiu* trampa, veleta, berecoi ta apasionatugaiec: certaco tuzu? (344).

N

Nacaitz (ukan): kupida ukan:
o concienciaren gracia, ezpaitu beldurric iltzeas, ez vicitzeco ere *nacaitzic,* erranzena S. Martines (73).

Naguicara: lazo:
baña errepugnatzendelaric *naguicara* (pentsamendu txarra) ta ez ain vizcorrqui nola beartzen, orduan izainda leve descuidoaren ariora (119).

Naigarri: opagarri:
gaitzac orrequi (Jaunarekin) dire on dulce *naigarri* (182).

Nasi: mixtum:
ezi Jaunaren escuan dago caliza ardo puroarena beteric nasis, eta saietstudu arat onat, baña esta ustu arren ondarra, edanbeatu lurreco becatari guciec (ps. 74) (71), (Plenus mixto).

Nerduca(n): nuen hitza:
bada aditzegontas (aditzeas obeditus) *nerduca* (53).

Nolanaiac. gogara direnak:
munducoen aisurac, gustoac, ta nolanaiac (175).

O

Onetsia (maite): kutuna:
zu zara nere seme *maite onetsia* (196).

Otapurr: apur:
(arrazoi betea du Aita Polikarpok; errata da *atapur*).

P

Pataratero: itxurati (304).

Plautu: suntsitu, ezabatu:
biz comparaciotaco, Erregueren esposa izambearduenari, edo solamente maiera convidatuai atrabalequio sarnabat itsusia, naiz sendaturic artaic, ez berla atrevileique presentatzera, aliqueta *plautu* arteo señaleac eta cuntzeac (293).

Plegu: era:
naitut ecarri emen beraren itzac, naiz ez seguitu predicuaren ordena ta aria gucis, ezi esta assuntoa au caso iteco itz eguitearen maneras edo *pleguas* (112).

Pompari: ponpazale (37).

Prego: banco:
entregaracicio premio aguindua *pregoan* (343).

Q

Quejos (esan):
Daique erran deus ontan Nausi Jangoico onaren *quejos* (386).

Quinola (335): karta jokoan darabilten terminologia. Berdin esan bedi *pericon, pericain* (260) hitez.

S

Salsa: (S. Bernardoren) = gose ona (386).

Secura: sekate, legorte:
chipreco Islan ce *secura* bat andia, ta orrtaic peste bat lotsagarria (189).

Semin: erdimin:
eznuquenai gogoradaquizien emen (Jesusen jaiotzean) *seminic,* ciquintasun, ta gañaraco miseria darraizquionetaic becatu originalai (35).

Sencilde: xalotasun (348).

Son: soineko:
cembates habilago den ucatzendiona bere tripai, *soñai,* diversioei, convenienciei, ta humeei ere, emateco Jang.ai pobrea baitan? (223).

Sorcara: sor samar (260).

Suplitu: ornitu, ugaldu:
aietaic (igorri diluviotic salvatuzire zorzi personetaic) *suplituze* berriz mundua.

T

Trast:
trast auchiric instante viciaren ari-birua (368).

Tripili trapala:
ta diru guciac urtiquizitue (Jesusek) *tripili trapala* (124).

U

Ubarne: profundum:
Non absorveat me profundum, neq.e urgeat super me puteusos os suum, cio Davidec, Eznadiela ondatu *ubarnean,* eta ezdezala erchi butzuac agoa ene gañean (32).

Uboil: ubel?, polea?:
ala nola errotabatera urbil doaiena vicitzes, lembicico gauetan novedade itendio urain arroituac, ubolain, arriain, ta clascain ibiltzeac (281).

Utsgune: leku, utsarte (128).

Z

Zangoza: norc icustean Xavier mutico gastea asitzen Xavierren, estudiatzen *Zangozan,* pasatzen Iruñera videgoiec barna; guero ya andiago lucitzen, ta garbeatzen Parisco Ciudadean, etc. (7).

Zaranda: irazki:
quidari itsuac, elchobaten pasatzeco maunca edo *zaranda* billatzenducienac, ta bitarteco iresten camelloac (69).

Zarretsiric egon: inveterado:
irugarrenac (Lazarok, hobian ehortzirik ia laur egunez) significantzendu dagona sarturic, ta *zarretsiric* costumbre gaistoan (314).

Zorrquindio: zor?

pasatuei (urteei) beiraturic icuscodugu... gure ganic anitz obligacio bai, baña correspondencia on guti, asco becatuen zorr berriac lenecoen gañetic: becaturic ingabe ere anitz *zorrquindio* (333).

GOÑIBARKO EUSKARA XVIII.MENDEKO SERMOIETAN

Donostia, 1980-VI-27

Francisco Ondarra

Euskaltzainburu jauna,

Euskaltzain Jaun-Andreak, agur!

Munarrizko sermoiak

Duela ia hirurogei urte izan ziren arkituak lan honen iturri nagusia izango diren sermoiak. Garai hartan Intza'r Damaso A. Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia prestatzen ari zen eta handik eta hemendik gaiak biltzen. 1921. urtea zen hura. Fernando Ak. —Mendozako Fernando dela uste dugu, arabar kaputxinoa— Munarrizko parrokian, Nafarroako Goñibarren, arkitutako sermoi bat ekarri zion, eta gehiago ere bazirela jakin-arazi zion. Damaso A. belaxe konturatu zen literatura aldetik ez zuela baliorik batere sermoi harrek, bainan aditz jokoaren aldetik eta eskualde hartako euskararen lekuko bezala, oso interesgarria zela, eta eskatu zion parrokuari gordetzeko eta ez austeko, eta aukerarik izanez gero bialtzeko besteak ere, bere lana obeto egiteko beharrezkoak zituela ta.

Ez dakigu noiz eta nola, bainan agirian dago Damaso Ak. eskuratu zituela Munarrizko parrokuari eskatu zizkion predikuak. Bere sarrera itzaldian aipatzen ditu agiri hauek eta zenbait aditz jokoren berri ematen du; bestalde, apez etxean arkituak izan zirela esaten du (1). Aspaldi hontan Iraizozko Polikarpo Aren. kontura egon dire, berak gorde ditu, gehienak irakurri eta jakingarriak atera. Bere eriotzea hurbil zegola sumatu edo, eta hil baino zenbait hilabete lehenago nere kontura utzi zituen, nik gorde eta ixtudiatu nitzan.

---

(1) INTZA'r Damaso Aita. "Naparroako aditz laguntzalea", *EUSKERA*, II (1922), 11 z., 26.

Zenbat diren

Sermoiak 54 dire eta badago gainera, eri dagonari ongi hiltzen laguntzeko horri bat. Ia denak osorik daude; bainan 23. predikuan horri baten erdia falta da, ezker-eskubi, eta 36. sermoia ez dago osorik ta 37. a ere ez. Badira baita ere, 6 hitzaldi erdaraz, euskarazkoen garai berekoak, bainan eskuak ez dire berdinak. Erdarazko hoietako batean esaten zaigu nun eta noiz izan zen predikatua, hots, Izun 1707. urtean eta Arazurin 1732. urtean: baita ere Asiain, Etxauri eta beste herriren batean. Ez du honek esan nahi herri hoietan euskara galdua zegonik, bada, hain zuzen, Izun izan zen predikatua euskarazko dotrinetako bat, eta 50 urte geroago predikatua ere.

Nork idatziak diren

Ezin dugu esan nork idatzi zituen, bainan amabi bat idazle badirela badakigu. Esku asko dire, eta esku bakoitzak euskara berezia du, zenbat esku hainbat euskara, beraz 12 bat autore. Gehiena idatzi duenak, 16 eman dizkigu; gutxienak sermoi bakar bat utzi digu.

Berrienak karmeldar batek eginak dire, XIX. mendean; hoietako batean —nere sailetan 53. sermoian— hau irakurtzen dugu: "Ayta lumbier nere erreligionetaco Ayta D.º batec" (9v.º, 2, 8). Aita Lumbier XVII. mendeko teologu eta predikari bat izan zen, karmeldar oinetakoduna (2). Besteren bat frantziskotarra edo kaputxinoa izan daiteke, 47. predikuan leitzen bait dugu: "gure Aite S. franciscoc" (2v.º, 1, 3); sermoi bakar baten egilea dugu hau. Beste erlijiosoren bat ere badaiteke izatea autoreen artean; bainan pentsa daiteke gehienak herrietako apaizak izan zirela, gero sail bakoitzaren zehetasunak emango ditugunean esango dugun bezala.

Noiz idatziak

Gehienak, hala uste dugu, XVIII. mendean izan ziren idatziak, zaharrena 1743. urtean. Dudarik gabe, 23 mende hortakoak dira, eta zazpi XIX. mendekoak; besteak XVIII. mendekoak edo XIX. mendearen hasierakoak izan daitezke. Bai euskarazkoak eta bai erdarazkoak XIX. mendean izan ziren berriz predikatuak, 1817.etik asi eta 1832.eraino: beraz, garai hartan denak norbaiten eskuetan zeuden bildurik. Badago arrazoirik pentsatzeko besterik ere izango zuela eta galdu egin direla, edo oraindik gorde eta estalirik daudela.

---

(2) LUMBIER Raymond, carme chaussé, théologien et orateur (1616-1684). *Dictionnaire de Théologie Catholique*, IX (1926), première partie. Más breve en *Espasa*, s. v.

Euskara nongoa duten

Lehen esan dugun bezala, zenbat esku edo idazkera hainbat euskara, beraz 12 edo 13 euskara, gure ustez. Lau ez beste guziak Nafarroako euskaraz daude; lau hoiek —43.enetik 46.erainokoak— gipuzkoarren batek eginak direla esango genuke, baina saiatzen da nafar kutsua ematen. Besteak Goñi eta Oltza aldekoak; eta ezin dugu oraindik esan Ultzama edo Ezkabarte aldekoaz ote dauden beste zenbait, edo horko kutsuarekin. Baztango aditz jokoa ere ageri da zenbaitetan, hots, XIX. mendean karmeldarrak idatzi zituenetan.

Euskara nolakoa den

Bat-banaka emango ditugu sail bakoitzaren zehaztasun bereizgarriak; bainan lehenbizi goi-nafar hegoaldeko euskalkiaren bereizgarri nagusiak aipatuko ditugu, horretarako gure aurrekoek —Bonaparte, René Lafon, Angel Irigaray, Juan Apecechea, Manuel de Lecuona, Policarpo de Iraizoz etab. (3)— esan dutena gogoan hartzen dugula.

Goi nafar hegoaldekoaren bereizgarriak

1. *-n* galdu egiten da lehenaldian: *ze* 'zen', *zue* 'zuen', *zego* 'zegon'. Bainan esaldi konposatuetan ez da galtzen, gorde baizik: horrela, erlatiboetan eta abar.
2. *-ki* atzizkia erabiltzen da *-kin*'en ordez: *gizonareki.*
3. *-s* atzizkia erabiltzen da *-z*'ren ordez: *gizonas.*
4. *-sko* atzizkia *-zko* atzizki konposatuaren ordez: *egiasko, gizonesko.*
5. *-st-* bihurtzen da askotan arteko *-zt-* bikotea: *estute, tuste.*

Fonetika eta morfologia aldetik horiek dire bereizgarririk nabarmenenak, azaletik eta sakondu gabe begiratuta.

---

(3) BONAPARTE, Louis-Lucien. *Le verbe basque en tableaux.* Londres, 1869.
LAFON, René. "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques", *Pirineos*, XI (1955), 109-133 (batez ere 117 eta 127-128).
IRIGARAY, Angel. "Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional", *IV Symposium de Prehistoria Peninsular*, Pamplona 1966, 261-269.
APECECHEA PERURENA, Juan. *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*, Pamplona, 1978 (bere beste lanetan ere bai, bainan hontan batez ere).
LECUONA, Manuel de. "Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella". *Fontes Linguae Vasconum*, 1973, 369-390.
IRAIZOZ, P. Policarpo de. "Versos euskéricos del siglo XVIII". *Fontes* 1976, 65-75.

A bokalaren itxidura edo inflesioa

Badago gure sermoietan, denetan ez baina zenbait sailetan bai, beste fonetismo bat, orain Baztan'en, Ultzama'n eta abarretan egiten dena. Fonetismo horretan, *a* bokala *e* bihurtzen da, *u, i, ñ* eta *ll*'ren ondoan agertzen denean. Zenbait kasu bereizi ditzakegu hemen:

1. *u-a* aldatu eta *u-e* egiten da: *fundedore, au de.*

2. *i-a* berriz *i-e* egiten da: *arime, andibet.*

3. *a-u* oso gutxitan *e-u: deuquete* (27, 1v.º) 'daukate'.

4. *a-i* askotan *e-i: neiz, geisto.*

5. *a-ñ* ere *e-ñ: beñe* 'baina', askotan *i* epentetiko bat sortzen dela: *deiñu* 'dañu'.

6. *ñ-a: ñ-e*, eta hola *bañetu, entraiñe.*

7. *a-ll* ere *e-ll: mellu* 'mallu', *eillegatu* 'allegatu'.

8. *ll-a* ere bai: *mellerik* 'mellarik'.

9. *i* eta *ñ*'ren eragina zenbait aldiz aurrera eta atzera batean ailegatzen da: *beñe* 'baña', *engeñetu* 'engañatu' eta *beite* "bait da'.

Fonetismo hau dela-ta, hitzak oso aldaturik gelditzen dira batzutan: *emein* 'emanen', *joein* 'joanen', *beite* 'bait da'; eta hori bera dela-ta, arkituko dugu *Eingeru* eta ez *Aingeru, belorrei* 'bela' eta ez *belorrai* etab. Bestalde, gerta daiteke ere noizean behin *e-u* aldatu eta *a-u* bihurtzea, beraz *e* hori ireki edo zabaltzea: *zauque* 'zeukan', *daus* 'deus', *zaure, naure* eta *gaure.*

Sail bakoitzaren zenbait bereizgarri

1. Sail honetan sei sermoi sartzen ditugu (1-6), 1743. urtetik 1753.erainokoak. Autorea nor eta zer izan zen ezin dugu esan; baina bere euskara, sintasia batez ere, gaizkara dela ezin ukatu. Fonetika eta morfologian, ia beti *-ki* eta *-s* erabiltzen ditu, beti *-sk-*, bainan ez du inoiz kentzen *-n* eta ia beti *-zt* dakar; ez da ia inoiz ere gertatzen *u-a* eta *i-a*'rekiko fonetismoa. Hiztegian, ikusgarriak dire *compañea* (I. sermoi, 2. orrialde, I. parrafu), *arrazobea* 'arrazoia' (2, 1v.º, 3) *gogortasona* (1, 2, 1), eta aditzean *egin dechagun* 'ditzagun' (4, 2, 2), *ecuszachaten* 'zaitzaten' (1, 2, 1) eta holakoak, Ultzama aldean arkitzen diren bezalakoak. Sintasian aipatuko dugu "final" direlako esaldiak egiteko agertzen den *salbazecoz* 'salbatzeko' (2, 1, 1), eta horren antzekoak.

2. Lau sermoi (7-10); XVIII. mendekoak edo XIX. mendearen asierakoak. Autorea parrokuren bat izan daiteke, esaldi hau arkitzen bait dugu sermoi horietako batean, tabernaz mintzatzen ari dela: "gure erricoa" (7, 5v.º,

2). Aurrekoak eta hurrengo hamaseiak baino euskara garbiagoa dauka, aberatsagoa da hiztegiaren aldetik. Sintasia ere aurrekoak baino hobea du, ez ordea hurrengo hamaseitakoa bezain ona; hala ere ergatiboan huts egiten du zenbait aldiz. Fonetika eta morfologia: beti *-ki*, ia beti *-s* eta *-n*, beti *-zt-* (baina *gaisto*) eta *-sk-*; fonetismorik ez *u-a* eta *i-a* arloan. Saileko lehenbiziko predikuan, *h-* asko; oso gutxi hurrengo bietan eta frango xamar laugarrenean; *-h-*'ren bat hitzaren barruan: *ihartuac, iho* 'eho', *auhec* (bi aldiz). Aditzean hauek ditugu, besteak beste: *huduquibeche* 'iduki bitzate' (7, 4v.º, 2), *guardachezu* 'guarda itzazu' (8, 3, 2), beti *-che-* eta ez *-cha-*.

3. Hemen hamasei "doctrina" sartzen dira (11-26). Hauetaz gero hitz egingo dugu.

4. Bost sermoi (27-31), XVIII. edo XIX. mendekoak. Parrokuren batek eginak, beren sintasia gaizkara da, eta euskara Goñi aldekoa izan daiteke. Fonetika eta morfologia: *-kin* (sic) eta *-s* beti (baina *berriz*), ez du beti galtzen *-n*, beti ipintzen *-st-* eta *-sk-* (bainan *ezkerra*), *h-* ia bat ere ez, datibo pluralean *egui; u-a* eta *i-a* normalki *u-e* eta *i-e* bihurtzen. Hiztegian: *issiñic* 'pizturik, allumé' (27) (aparte dagoen papertxo batean), Bonaparte'k Goñikoa bezala ematen duena (Oltzan *ichiki* delarik). Aditzean, *goude 'gaude' (28, 3, 6), zoude* 'zaude' (30, 2, 4), *deuquete* 'daukate' (27, 1v.º), *doden* 'dauden' (27, 1v.º), *duze* 'duzue' (27, 1) eta *zace* 'zazue' (27, 1). Azkeneko biak Goñi aldekoak, Oltzakoak *ducie* eta *zacie* direlarik.

5. Lau sermoi (32-35), aurrekoen garaikoak, horietako bat —32. predikua— 1822.urtean berriz predikatua. Beren idazleak, Bizkai aldeko erlijiosoren bat izan daiteke, Larramendi zalea, sintasia txar xamarra du, ergatiboa gaizki ipintzen du eta beste hutsik ere badago aditzean: *digu* 'gaitu' -ren ordez eta horrelakoak. Lehenbiziko sermoian zenbait gauza zuzendurik, lerro tartean eta, beste hiruetan gauza asko zuzendurik, ia borradore bezala zenbait tokitan. Fonetika eta morfologia: Ia beti *-ki* eta *-s*, gutxitan *-n* eta horietatik batzuek zuzentzaileak erantsiak; ia beti *-zt-* eta *-sk-*; oso bakan *h-*'ren bat; *u-a* eta *i-a* aldatu gabe gelditzen; datibo pluralean *-eri*, ergatibo transitibo plurala *-ek* dela uste dugu. *Gañin* (32, 1, 2) eta *oianin* (34,1,1) 'gañean' eta 'oianen' esateko. Hiztegian, *urrundea* eta *urrundetu* (32,1,2) 'ausencia eta ausentarse', Larramendiren hitzak noski, beste hauek bezala: *ugemarra* (34,1v.º,1) 'sirena', *escumaquilla* (34,3,2) 'bastoi' eta *ceaguigurteco, edo idolatriasco* (32,2,2). Aditzean, Bizkaiko *guengozan* (33,3,4) arkitzen dugu, baina zuzentzaileak aldatu eta *gueunden* bihurtua; Oltza aldeko *zacie* (32,2) eta *ducie* (ib.) ere badira. Erakusleetan, *gauzagau* (32,1,3) eta *guizongoni* (33,21): lau bat aldiz guztira.

6. Bi sermoi (36-37), XVIII/XIX. mendekoak. Sintasia eskasa dute, ergatiboa ez dago beti ongi, aditza ere ez. Fonetika eta morfologia: Ia beti *-kin* (sic), beti *-s*, batzutan *-n* eta bestetan ezer ez, *u-a* eta *i-a* gehienetan aldatu gabe, datibo plurala *-egui*. Hiztegian, *ellementu* (36, 1), *merchede* (36, 2 v.º), *lurra* eta *llurra* (36, 1 v.º) etab. Aditzean, *degu* eta *dugu, doque* 'dauka'

(26, 2 v.°, 2), *dira* 'dit' (36, 2 v.°, 2), *zaida* 'zait' (36, 1) eta Goñi aldeko *zace* (36, 2) etab.

7. Hiru sermoi (38-40), XVIII/XIX. mendekoak. Idazlea parrokuren bat da, honela leitzen bait dugu prediku batean: "Eliza ontan, ta nere puebloan" (38, 3, 1). Aurrekoak baino euskara hobea, ia hamasei sermoiko sailekoak bezain ona. Fonetika eta morfologia: ia beti *-ki* eta *-s*, esaldi konposatuetan bakarrik *-n; -zt-* gehiago, *-sk-* beti (gutxitan arkitzen), *h-* oso bakan (*hume* eta *honesiceco*), datibo pluralean *-egui* eta *-ei*, ergatiboa *-ek* gehienetan, *u-a* eta *i-a* gutxitan aldatzen. Hiztegian, *mendi* eta *oyan* erabiltzen ditu, eta Goñi aldeko *isiguin* (40, 3, 1) edo *itssiguicen* (40, 3 v.°, 1) 'irazeki', baita *itsaguizazu* ere (40, 3 v.°, 1). Aditzean, *dramagu* eta Goñi aldeko *duce* 'duzue' (38, 4, 1).

8. *saila,* sermoi bat (41), XVIII/XIX. mendekoa. Eskua aurreko hiruena bezalakoxea da, baina hala ere aparte ipintzen dut, ez bait nago horretaz seguru, eta beste arrazoirik ere badago hortarako. Euskara on xamarra. Fonetika eta morfologia: *-ki* ia beti, *-s* beti, *-n* beti kentzen (baina konposatuetan gordetzen), *-st-* beti, *-sk-* ezin esan, *u-a* etc. ia beti aldatzen, *-ogui* (4) datibo pluralean, *-ek* beti (?). Aditzean: Goñi aldeko *duze* (41, 3, 2).

9. *saila,* elizakoak hartzen laguntzeko horri bat (42). Parrokuren batena; euskara ona, Goñi edo Oltza aldekoa. Fonetika eta morfologia: beti *-ki, -s, -zt-* eta ia beti *u-a, i-a* aldatzen, *-egui; -ek* ezin esan. Hiztegian: Goñi aldeko *iche* (42, 1 v.°) 'etxe'.

10. *saila,* lau sermoi (43-46), goikoaren garaikoak. Sermoiegileak Gipuzkoa aldekoa dela ematen du, bere euskara ez da Nafarroakoa, hemengo kutsua ematen saiatzen bada ere. Fonetika eta morfologia: ia beti *-kiñ* (hiru aldiz *-kin*), beti *-z, -n* eta *-zt-; h-* ez; ez dira aldatzen *u-a*, etc.; *-oi* datibo pluralean; *-zat* eta *-gandik.* Hiztegian: *arrazoi, beste, ateratu,* bainan *orditu, bezala, aniz, aiziñean.* Aditzean: beti *det, dala, naizala, diozcazu, didiñ.*

11. *saila,* sermoi bat (47), aurrekoen garaikoa. Autorea frantziskotarra edo kaputxinoa dela uste dut, honela esaten bait du: "gure Aite S. franciscoc" (47, 2 v.°, 1); aipatzen du baita ere "Jacopone Beato-ore" (3, 3). Euskara ez da txarra, Goñi aldekoa. Fonetika eta morfologia: beti *-ki, -s* (baina *verriz*); *-n* kentzen esaldi nagusietan; beti *-st-*; beti (?) *-sk-*; bost aldiz *h-*; ia beti *u-a*, etc. aldatzen; *-egui* datibo pluralean; beti (?) *-ek.* Hiztegian: beti *Juangoicoa,* Goñi aldeko *lore* (Oltzan *flore*); aditzean Goñi aldeko *duze* 'duzue'.

12. *saila,* sermoi bat (48), 1758. urtekoa. Euskara on xamarra darabil. Goi nafarra, bainan egoaldekoa ote? Fonetika eta morfologian: *-ki* ia beti, *-s* beti; *-n* beti ipintzen, *-zt-* ia beti; *ua*, etc. ez aldatzen; datibo pluralean *-ai*

(4) Hau bakarrik arkitzen dugu: "sufritu beartugule *gaurogui* itendaquizquigun agrabioac" 2 v.°; eta *guziogi* 1 v.° ere bai.

(bein *-ei*). Hiztegian: *iche, bost, mendi* eta *oian, atera* eta *aberasa;* aditzean: *chegun* 'ditzagun' (48, 3, 2).

13. saila, zazpi sermoi (49-55), XIX. mendekoak. Autorea karmeldarra da, honako hau esaten bait du: "Ayta lumbier nere erreligionetaco Ayta D.º batec" (53, 9 v.º, 2), eta goian esan dugun bezala, A. Lumbier XVII. mendeko karmeldar bat izan zen, teologu eta oradore handia, Nafarroako Zankozan jaioa. Euskara interesgarri xamarra, oro har, akats haundiak ere izan arren: ergatiboa gaizki askotan, aditzean singularra eta plurala nahasten etab. Gauza asko tatxaturik, lerro tartean ezarririk eta abar. Euskalkiak nahasirik: Oltza aldekoa eta Baztango zerbait; adibidez, aditzean *dacu* 'digu' (50, 3 v.º, 2), *dabetedan* 'dietedan' (49, 2 v.º) eta gehiago. Esan daiteke autorea baztandarra dela eta bere euskalkia eta Oltza aldekoa edo nahasten dituela. Fonetika eta morfologia: gehienetan *-kin* eta *-z*; ia beti *-n* ipintzen; *-zt-* gehienetan; *-zk-* eta *-sk-* erabiltzen; *-zat* atzizkia *-dako*'ren ordez. Hiztegian, *arzai* (49, 1, 2), *arzain* (49, 2, 2) eta *arzañac* (49, 1 v.º, 3), *sortu* (beti hola) 'jaio', *presuna* 'pertsona', *arrazoin* (50, 4, 1), *arrazoñez* (ib.), *christiño* (50, 3, 2) eta beste. Aditzean *dacu* eta *digu, ducie* —Oltza aldekoa— eta *duzue.*

Goñibarko euskara Munarrizko sermoietan

Hirugarren saileko hamasei sermoi edo doktrinak —izen hau ematen die beren egileak— izango dira gure iturri eta oinarri nagusia. Ez dakigu nork izan ziren idatziak, baina esan dezakegu parrokuren bat dela. Garbi ageri da hau 20. dotrinan —hamaseiko sailean 10.a da—, esaten bait du: "arimen cargue dauquegun sacerdote ogui" (20, 1, 1), "guri, zuen arimen artzei ogui" (ib.), "Xto gure arimen artzeiec manatzen digu guciogui, niri, eracutsitzadela, eta zuegui..." (ib., v.º, 1). Hamasei sermoi dira berak idatziak, baina gehiago ere idatzi zituen noski, bost dotrina prometatzen bait ditu konfesioaz (15, 5 v.º) eta ez dira hemen agertzen. Ezagutzen ditugunak, 1755. eta 1773. urteen tartean izan ziren predikatuak. 136 Horrialde, 210/215 X 147/154 mm.; makinaz aldaturik, 132 folio betetzen. Euskara ona dutela uste dugu, gero eta hobea sintasiaren aldetik; hiztegian, erruz hartzen ditu erdaratiko hitzak. Euskalkiz, garbi dago goi nafar egoaldekoaz daudela eginik, bere legeak bete betean gertatzen direla.

Goñibarko euskaraz

Ibar honetako euskara nolakoa zen ezagutzeko, Bonaparteren lanetara jo behar dugu. Noizean behin aipatzen du bere *Le verbe basque en tableaux* (5) izeneko lanean. Bainan badago beste lanik, autore honek berak egin eta

(5) Ik. Deuxième partie. Observations, X, XII, XXV, XXVII; eta Oltzakoaz: X, XI, XII, XXV, XXVII, XXIX, XXX eta XXXI; Gares edo Elkanokoaz: XII, XIX, XXIII, XXV, XXVII eta XXX.

argitara gabe gelditu direnak, eta horregatik ez direnak oso ezagunak eta ixtudiatuak, gure ustez. Bizkaiko Aldundegiko Arttxiboan daude gorderik horietatik zenbait, Elkano, Gares, Oltza eta Goñiko euskalki barianteak ekartzen dituztenak, herri edo ibar horietako hiztegi eta aditz-jokoen bilduma bat egiten dutela, fonetika aldetik ere interesgarriak (6). Gure sermoi hauek Goñi ibarrean izan bait dira arkituak, berezko zen pentsatzea ia horko euskaraz ote dauden idatziak. Bestalde, horietako bat —13. predikua— Izu'n izan zen predikatua, goian esan dugun bezala, beraz Oltzako Zendean; sail honetako beste hamabostetan —hirugarren saila da hau— ez du inoiz ere esaten non izan zen predikatua, noiz izan zen beti esaten duela. Gainera, lehenago esan dugun bezala, badira erdal sermoiak ere, eta horietako batean jakinarazten zaigu non izan zen predikatua, hots, Asiain, Etxauri, Izu, Ororbia (?) eta Arazuri'n. Goñi eta Oltza inguruan ari gara bada. Bonaparteren hitz zerrendak ikusten baditugu, konturatuko gara alderdi honetako euskara dela, eta ez Elkano edo Gares aldekoa, gure sermoien euskara. Ikus ditzagun zenbait hitz:

Elkano	*Gares*	*Oltza*	*Goñi*
lañu 'brouillard'	lañu	laño	leiño (64)
oñestur	relampa*ro*	iñeztur	oñeztur (67)
peña 'rocher' ? (sic)	peña	barga	barga (100)
peñazulo	peñazulo	bargazulo	bargazulo (102)
zain	bena	zain	zein (107)
argizari	argizai	argizeri	argizegi (309)
erlanch 'vautour'	agila	erlanch	arrano belch (440)
otsorrai 'corbeau'	cho	belorrai	belorrai (437)
lore	flore; lore	flore	lore (565)
echeki 'allumer'	ichigi	ichiki	ichsin (1077)
nigor	igor	iñor	igor (22)
aurtzutu	aurtzut*a*	aurtzitu	aurtzutu (14)
gastezutu	gaztetasun	gaztezitu	gaztezutu (14)
zartzutu	zartzaro	zartzaro	zartzaro (14)
gonei	oni	onei	oni (19)

Gure sermoietan arkitzen ditugu *leiño* [8] (17, 4), *barga* (22, 3 v.º), *argizegi* (22, 3), *arrano* (21, 2): "Ave rapiñecoac, ceimbeitire Arranoa, Alcona, eta Aguile", beraz 'buitre, vautour', *belorrei* (19, 5 v.º), *lore* (16, 4 v.º), *isziqui* (19, 5 v.º ta 25, 1 v.º) *ior* (11, 4 v.º), *aurzutu* (15, 2), *gastezutu* (11, 4), *zarzaro* (11, 3 v.º) eta *oni* (14, 2). Euskara hau Goñi eta Oltza alderdikoa da, eta

(6) GONZALEZ ECHEGARAY, C. "Catálogo de la Colección del Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se guarda en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya". *Euskera*, VII, 1962, 219-258. Ik. 48 (239. horrialdean), 69 (244) eta 78 (246).

(7) Ik. 48. zenbakian aipatzen diren orriak.

(8) Gure sermoietan bi aldiz arkitu dugu, baina ez du esan nahi 'brouillard', baizik 'odei, nuage': "icusicodute etortzen, gizonaren semea...leiño eder eta argui batean" 17,4. Bestalde, ageri da *odei* ere esanahi honekin berarekin 17, 3 v.º.

gañera esan daiteke Oltzakoa baino hobeto Goñikoa dela, hor ikusten bait ditugu *oñeztur, zein* –fonetismo hau Oltzan baino gehiago Goñin gertatzen da, hala uste dugu–, *argizegi, arrano, lore, aurzutu, gastezutu* eta *oni*, Oltzaren alde *ichiki* (9) bakarrik dagolarik. Aditza ere Goñiren alde dago, beti beti erabiltzen bait ditu *duze, zaze, dakize* eta holakoak, Oltzako *duzie, zazie* eta *dakizie*'ren ordez.

Goñibarko euskara nolakoa

Eskualde honetako euskarari buruz, honela hitz egiten du Bonapartek (10): "Goñi (localité appartenant à la variété d'Olza, faisant partie du sous-dialecte haut-navarrais méridional ultra-pampelunais)". Orain ikusiko ditugu berari buruzko zenbait zehetasun, bai fonetika eta morfologia, bai sintasi eta hiztegiaren aldetik. Esan dezagun aurretik bere idazkera, sermoi hauetan, garai hartako bestetan bezala, gaztelaniaren antzekoa dela; baina saiatzen da fonemaren bat berezten: *ssocu* 'xoku', *chiquitio* 'txikitto' eta abar.

Fonetika

Bai fonetika eta bai morfologiaren aldetik, bete betean goi nafar hegoaldekoaren aurrean gaude. Aipa ditzagun zenbait fenomenu fonetiko:

1. *-st-* egiten *-zt-*'ren ordez *estie* 'eztia' (20, 3 v.º), *esta* 'ez da', *zaituste, geisto*, salbuespen bakanen bat badagola: *Eztuce* 11, 2.

2. *tr, br* eta *dr* egiten *ter, ber* eta *der/dar*'ren ordez: *atra* (12, 4), *abrats* (13, 3 v.º), *bapedrac* 'batbederak' (19, 2 v.º), *dramazquigun* (16, 5), *gindraman* (16, 5 v.º) eta besteren bat.

3. Aurretik *e-* bat ipintzen *kendu* hitzean: *equendu* (16, 2). Ikusi baita ere *eziñegotzi* 13, 4 eta *ezinegotzi* 13, 4 'zinegotzi'.

4. Hitzaren bukaeran *-e* bat erasten erdaratik datozen hitzetan: *mortalebat* (11, 1), *Arbole, eta* (17, 3), *celestiale* (15, 1). Fenomenu hau ia beti gertatzen dela uste dugu.

5. Bokala diptongatzen zenbait hitzetan: *auñece* 'oñaze' (16, 2 v.º), *araigui* eta *areigui* 'aragi' (14, 1 v.º, eta 14, 2), *beigui* 'begi' (13, 5), azaltzen direla baita ere *oñece* (16, 7) eta *begui* (12, 4), ez ordea *aragi*.

6. *A* bokalaren itxidura kasu guzietan egiten da, salbuespen bat bakarrik dagolarik: 3. kasua ez da azaltzen, beraz *a-u* ez da aldatzen.

---

(9) Beste sail batean, hamaseidunaren ondokoan, saileko 27. sermoian arkitzen dugu *issiñic*. Ik. goian, 4. saila.

(10) *Le verbe basque... Deuxième partie. Observations*, X, 28. zenbakia.

7. *Idugui* 'eduki' 13, 4 v.º eta *iregui* 'ireki' 13, 5 hitzetan kontsonantea soinudun egiten da.

8. Ia beti *ezp-* da, oso bakan *esp-*'ren bat ikusten dela: *espaut* 'ez badut' 23, 3. *Esn-* bakanen bat ere badago *ezn*'ren ordez: *esneitequela* 20, 1 v.º.

9. Bi aldiz arkitu dugu *adisquidia* 21, 3 v.º, *adisquidea*'ren ordez, bainan salbuespen hutsa bezala.

Morfologia

1. Goi nafar egoaldekoaren fenomenu *morfologikoak beti* gertatzen dira; beraz, aditzean lehenaldian *-a-* dago *-n*'rik esaldi bakunetan; eta izenetan beti, huts egin gabe, atzizki hauek arkitzen ditugu: *-s, -ki* eta *-sko*. Horregatik: *ce* 'zen', *cego* 'zegon'; *sues, nequees, penas* 18, I; *odolesco* 13, 4 v.º; *gurussebatzuqui* 16,4 'guraiza batzukin'.

2. Deklinabidean jakingarriak:

Ergatiboa plural transitiboetan *-ek* da, salbuespenen bat kenduta: "eritasun*ec*, oñece*ac* (sic) afrent*ec*, deshondr*ec*... estzaquete iñ" 16, I.

Genitibo edutezkoa laburtu egiten da singularean, gehienetan esango nuke: "Jangoico*an* gracie" 12,2.

Datibo pluralean *-egi*: *becatoregui* 11, I v.º; zenbait hitzetan singularrean ere bai: *ioregui* 'inori' 19, I v.º, *eribetegui 'eri bati' 11, 2 v.º*.

Destinatiboa: *-dako*.

Ablatiboa gehienetan *-tik* da, baina askotan *-ti*; pluralean *—tatik*, eta batzutan *-tati*.

Inesiboa: *beiten* 'baitan' 12, 4 v.º.

Ablatiboa, bizidunetan, *-ganik*, eta adlatiboa *-gana*.

3. Aditzarekiko zenbait fenomenu ere aipatuko ditugu:

-larik atzizkia beti hola (Elkanoko Lizarragak gehienetan *-laik*): *altzazquiquelaric* 14, 4 'ahal zituelarik'.

Geroaldia adierazteko, *-n*'rekin bukatzen direnek honela egiten dute: *emanen, egonen, izanen*, hemen sartzen dela *hillen* ere 20, 3 v.º: ageri da ere *emaiñ* eta beste horrelakorik.

Aipatzekoa da ere nola idazten dituen *errezibizituz gero, galduz gero* eta holakoak. Esan daiteke beti *-eskeros*, dena batean, idazten duela: *galduesqueros* 15, 2, *iñ esqueros* 15, 2, *errecibitu esqueros* 15, 3.

4. Erakusleak hauek dira:

au, ori, ore; onek, orrek, arrek; abek eta *ebek, oiek, aiek* eta *eiek*; *ontan, ortan, artan.*

5. Aldi askotan *-bat, -at* eta *-batzuek, -atzuk* izenarekin lotuak ageri dira, atzizki iduri: *tiranoat* 11, 2 v.º, *andiegoatzuc* 11, I v.º, *arimebat* 11, I, *gendeinfielbatzuegui* 11, I.

6. Adjetibo posesiboak:

ene eta *naure, zure* eta *zaure, gure* eta *gaure, zauren, bere* eta *beren, eien* 'leur', *aurorrec, zaurori, zaurorrec.*

7. Hemen sartuko ditugu, aditza dela-ta gertatzen diren konglomeratuak, gehien agertzen direnak, hauek direla:

Baldin eta aditz laguntzailea: *barimezuere* 'baldin bazuen ere' 13, 2 v.º, *bari maute* 'baldin badute' 19,5 eta abar.

Ba eta aditz laguntzailea: *bauce* 'baduzue' 12, I v.º.

Bait eta laguntzailea: *veinte* 'bait da' 16, 2 v.º, kontestu hontan ageri dela: "ceiñ veinte".

Behar eta laguntzailea: *beaurce* 'behar duzue' 13, 2 v.º, *beaurte* 'behar dute' 19, 2 v.º, *beaurzu* 'behar duzu' 19, 3, *beirtuzu* 'behar dituzu' 19, 3.

In eta laguntzailea: *indunt* 'in dut' 14, 4.

Nahi eta laguntzailea: *naut* 'nahi dut', 15, 2, *nauce* 'nahi duzue' 11, 4.

Sintasia

Lehenbizi zenbait gauza berezi ipiniko ditugu, eta gero esaldi konposatuak, aditz jokoen aberastasuna ere kontuan hartzen dugula.

I. Esaera edo esateko modu jakingarrietan hauek ditugu:

Adjetibo posesibo edo edutezkoa: "Ay *ene* tristea!" 14, 4.

Bide hitza 'ematen du, dirudi' adierazteko: "*bide*du" 17, I.

Diot hitza 'esan nahi dut' adierazteko: "Etorrico da egun artan, Juicioco egunean *diot*" 17, 2.

Genitibo eta aditza, akusatibo eta aditzaren ordez, askotan gertatzen da, adibidez: "sartucé, Bersabe Erregueren Ama, *graciebaten* escatzera" 19, I.

Gure dotrinetako euskararen jatortasuna, ipintzera goazen pasartea bezalakoetan ikus daiteke: "lendabissico aldien etorcen bezala aur ssaio berrie, escuec fajaturic, otzac, negarres" 17, 4.

2. Esaldi konposatuetan honoko hauek, besteak beste, dira jakingarri eta aditz jokoen iturri:

Baldintzazko esaldiak: "sartu *baledi* Jizon (sic) bat, eiñ abilidade, eta podore anditecoa, ece eman*balezazu* de repente osasune gucie, beiguiec icusteco, bearriec aitzeco, mie mintzetzeco, escuec icutzeco, eta oñec ibiltzeco; eta artas landara libratzen *bacinduzquique* vrquebeti: au guciau zuri iñ ondoan balie*bacindeitze* mies gizonarri maldio (sic) egotzitzeco... oñes, eta escues, eritzeco... eta osticoca vre, ibiltzeco, cer erranenluque zutes munduec?" 16, 2 v.º - 3.

Ondoriozko aditz-jokoetan aberatsa: "au ongui, pensá balezate becatorec, cembat probechu atraco *luquete*, Jangoicoac, beren onetan, ematen dizquioten trabajuetati! Ceiñ paciencie andierequi, eramoco *lireque* trabajuec! Cer conformidadearequi, emanen *lequizquioque* Jangoicoari graciec, trabajuengatic! Beñe... galtzen tuste; paciencietan, eta Jangoicoan icen*an* eramotzearequi, irebacico *luzqueten*, meregimentuec; galtzentuste... emeiñ *leoqueten* consueloa" 18, 4.

Subjuntibozkoa: "Cer manatzen du demonioan legueac? *Etzazule* amatu Jangoicoa, aborreci *zazule* projimo lagune, *etzazquizule* obeditu... Aite, eta Amac... in*tzezule* lan sseietan... eta *etzazule* iñ casoric Jangoicoas" 16, 2 - 2 v.º.

Agintaldia ageri hemen: "Ene semea...alibie*tzazu* gureatsoen zarzaroa, estzazquizule, inquietatu...sufri*tzezquizu*, eta...faltac barimedituste, disimile*tzozquiotezu*" 19, 4 v.º.

Ece erabiltzen da esaldi konpletibo, esajeratibo eta konparatiboetan: "Cierto da *ece*" 15, I v.º; "iago...*ece*" 15, 5; "eiñ...*ece*" 17, 3.

-gatik atzizkia *zergatia* eta *zertarakoa* adierazteko erabiltzen da behin baino gehiagotan: "San Juan Bautiste gloriosoa arquitzencela preso, eta cateas veteric, gartzele batean, eguiec *prediquetzeagatic*, eta cerengati, escandaloat equendu, neizuen" 18, I; "estute artzen... Jangoicoac... salba *deitzenagatic*, egortzen dizquioten, nequeac" 18, 3 v.º.

Cerengatic eta *cerengati*'ren bitartez adierazten da normalki zergatia: "*cerengati*, escandaloat equendu, neizuen" 18, I.

Atal hau bukatzeko, egilearen prosaren bizitasuna ezagutzeko aproposa dela uste dugun pasarte hau emango dugu:

"Cer signifiquetzendu, Christio fielac, beicic descuido andibet salbacioan gueiñen, icusitzea, ez sollic ast*r*eegunetan (aic), becic (sic) aun sseitan ere, ain desamparaturic Templo sanduau mezacoan, eta vezperetacoan; eta ein gendes beteric larreiñoiec, echeoiec, eta zocoiec, ia barajarequi, ia murmuretzen, eta anitz gaste Jangoicoan ofenditzen llanecequi. Eta norc du culpe? *ll*endabi*ss*icoa echen jabeec lecu emateas, biguerna Aite, eta amec, eta Nausi, eta echecoandrec, ez ecarriaracitzeas beren mirabeac, eta beren vmeac, Meza

nausire, eta Vezperetara; beñe cermilagro da, ez etortzea *c*uen (sic) humeac, eta mirabeac, ezpazarate etortzen zauroc. Eta ebetas landara dute culpe ezinegotzi jaunec, ez embarazatzeas plazaco, eta echetaco diversioac oficio Divinoen demboran, eta lomismo arrastan, zortzietati landara, egondirembecela anitz aldis, bedratzi ama*r*ac (sic) artio, quimerarembat iqueteco ocasioarequi, eta quimera iquen, edo ez iquen, dute obliguecio Eciñegotzi jaunec embarazatzeco diversio guciec zortzietatic landara" 13, 3 v.º - 3.

Hiztegia

Hemen ipiniko ditugun hitzak ez dira izango bitxi eta arraroak; hitz arruntak izango dira eta egunerokoak, euskalki guzietan erabiltzen diren horietakoak. Gerta daiteke hala ere euskalki batean *guzi* esatea eta beste batean *guzti; andi* eta *aundi; saindu* edo *santu; txiki* eta *txipi*; *bezela, bezala, bekela* edo *bekala*; toki batzutan *ahaztu*, bestetan *ahantzi* edo *atzendu; beste* eta *bertze*. Holakoak izango dira gehien parte aipatzera goazen hitzak, horien bitartez euskalki eta euskalki-pekoen mugak ezartzeko.

abrats 'aberats' 13, 3 v.º.
aitzine 24, 4 v.º (behin bakarrik) Ik. *eitziñe.*
alor 16, 3.
andi 13, 4 v.º. Hamar bat aldiz; aundi; beste guzietan, *andi.*
alketu 'lotsatu' 15, 5.
anitz 'asko' ia beti.
araigi 14, I v.º eta *areigi* 14, 2 'aragi'.
ardantze 'mahasti' 14, 3 v.º.
argatik 14, 1.
arime 14, 2.
arkitu 13, 3 v.º.
arrazio 'arrazoi' 13, 4 v.º.
atra 'atera' 12, 4.
atzendu 'ahaztu' 13, 2.
auñeze 'oinaze' 16, 2 v.º Ik. *oñeze* ere.
aurrean 13, I eta abar.
aurzutu 'aurtzaro' 15, 2.

bage 'gabe' 14, I v.º etab. (ia beti); *gabe* oso bakan.
bai eta *bei* 'baietz' esateko.
barga 'harkaitz' 22, 3 v.
beiten 'baitan' 26, 3.
begi eta *beigi* 12, 4 eta 13, 5.
bekatore 14, I v.º. Hiruzpalau aldiz bakarrik *bekatari.*
beldur 24, I v.º.
belorrei 'bela, bele' 15, 2. Elkanon *otsorrai.* Azkeneko *-ei* fonetismo izango da, *-ai*'ren ordez.

bekela eta *bezela* 15, I v.º, Lehenbizikoetan biak, azkenekoetan *bekela* bakarrik.
bertze 14, 3 v.º.
bre 'bere' 13, 2. Normalki *bere* da.
burriñesco 'burnizko' 16, 6.

damutasun 14, 4 v.º.
daus 'deus' 13, 4 v.º.
dretxoa 'deretxoa' 12, 2 v.º.
ebagi 'ebaki' 13, 5.
ebatsi 'ostu' 16, 3.
egorri 'bidali' 18, 3 v.º.
egotzi 'bota, jaurtiki' 15, I.
egun 'gaur' 15, I.
Eingeru 15, I v.º. *A-i* fonetismoa dela-ta *Eingeru*, eta ez *Aingeru*.
eitziñe 'aurrera' 24, 3 v.º. Behin bakarrik, *aitzine* bezala.
elur 19, 5 v.º.
-en: geroaldian *-n*'dun aditzetan, eta hola *egonen* 18, 3. Gehienetan horrela, baina zenbait aldiz *egoiñ* ere bai 18, 3; eta *hil: illen* 20, 3 v.º
ene 'nere' 13, 4. Ik. *nites*.
entendatu 13, 3. Bainan *entendimentu* 12, 2.
ekendu 'kendu' 16, 2.
eramo 'eraman eta sufritu' 13, I.
eregi ta *erigi* '*erein*' 20, 2 v.º.
ertxi 'itxi eta *mehar*' 14. 1 v.º eta 13. 4 v.º.
erran 'esan' 14, 1 etab.
eskubiko/ezkerreko 17, 1 v.º.
eskeros 13, 1 v.º.
eze 13, 2 v.º. Esaldi konpletiboak eta osatzeko.
etxekoandre 13, 4 v.º.
ezinegotzi 'zinegotzi' 13, 4.
Eziñegotzi ere bai 13, 4.

fite 'azkar, agudo' 14, 4.
frutu 22, 3.

gabe 17, 1. Ik. *bage*.
gastezutu 'gaztaro' 11, 4.
geñen eta *geiñen* 'gainean' 11, 4 v.º eta 11, 4.
gogargi 'inspiración' 17, 2. Larramenditik hartua da; ez gara ohartu badago jatorri horretako beste hitzik.
gise 'era, modu' 19, 2 v.º.
gizon 17, 1. Bi modutara ageri da idatzia: *guizon* eta *gizon*.
guti 'gutxi' 13, 3.
guzi 'guzti' 13, 3. Beti hola.

iago 'gehiago' 13, 2 v.º eta beti.
idugi 'eduki' 13, 4 v.º.
iguzki 12, 3.
illoba 'biloba' 19, 5.
iken 'izan' 13, 4. Gehienetan *iken; izen* azkenekoetan, batez ere.
illergi 'ilargi" 12, 3.
in 'egin' 11, 1 v.º: "indituen".
intres 'interes' 19, 5.
ior 'inor' 11, 4 v.º.
irebazi 'irabazi' 26, 3.
iregi 'ireki' 13, 5.
Iruñeko 16, 6 v.º.
izerrak 'izarrak' 12, 3.

Jangoikoa 13, 1.

Kristio 'kristau' 13, 1.

Madrilgo 13, 1 v.º.
Madrille 13, 1 v.º Nora adierazteko.
mereji eta *meregi* 13, 4 v.º eta 19, 3. Gehienetan lehenbiziko idazkera; esakera izan daiteke, gaurko euskal idazkeran, [merexi]. Ik. *xaio*.
mintzetu 'hitz egin' 19, 3.
mirabe 'morroi' 13, 3 v.º.
moldegueitz 'trakets, kankail' 26, 3 v.º.
mutil 'gizaki gazte' 13, 3 v.º "*Mutil*, eta nescato".
nausi 'nagusi' 13, 3 v.º.
nekazari 'laborari' 13, 1 v.º.
neskato. Ik. *mutil*.
nites 'nitaz' 14, 4.

oian 'mendi' 13, 2. Taborko mendiaz ari da.
oñeze 'oinaze' 16, 7 etab. *Auñeze* ere bai.
orditu 'mozkortu': "*orditu* artio" 16, 3.
orai eta *orei* 'orain' 13, 4 eta 12, 4 v.º Ia beti bigarrena.
oraitu eta *oreitu* 'oroitu' 17, 4 v.º eta 13, 2 v.º.
orla 'horrela, hola' 13, 3.
ortzegun 'ostegun' 22, 3.

sandu 'saindu, santu' 13, 1.
serbitu 13, 1 v.º. Gehiena hurrengoa erabiltzen da.
serbitzetu 13, 1.
sollik 'bakarrik' 13, 1 v.º.
soro, eta ardantzetan 14, 3 v.º.

Trinte 'Trintate' 12, 4.
Trintete 'Trintate' 21, 1.

txiki 'txipi' 13, 4. Beti hola.
txoill "txit, oso' 13, 3 v.º.

xaio eta *xeio* 12, 4 eta 24, 1. Bere idazkera honela da: *ssaio, sseio, geio* eta *jeio*. Ez da inoiz ere *sortu* 'jaio' erabiltzen.
xai eta *xei* 'jai' 16, 2 v.º eta 16, 2 v.º.
xakiñ 'jakin' 13, 4 v.º.
xan 'jan' 16, 4 v.º. SS bikoitzaren gainean marratxo bat.
xantzi 'jantzi' 19, 2.
xarri 'jarri' 19, 4.
xauzke(rako) 13, 4: "diversioraco, eta *ssauzqueraco*". Ematen du 'dibertsio' nahi duela esan, *xauzi* 'jauzi'-tik behar bada.
xegi 'jeiki' 24, 4: "gau erdicoan *sseguitzen* ce (Errege Dabid), oracio itera".
xoku 'joku' 16, 3. Marratxo bat *ss-* bikoitzaren gainean. Berdin *xokatu* 16, 4 v.º.
xosten 'josten' 24, 4 v.º.

ugelde 'ibai' 13, 4 v.º.

zarzaro 11, 3 v.º.
zelestiale 13, 2 v.º: "Glorie celestialea".
zetako 'zertako' 16, 4 v.º.
zetan 'zertan' 16, 3.

Aditza

Zati hau zenbait pundutan banatuko dugu, horretarako beste hainbeste fenomenu jakingarri berezten ditugula.

1. Goñikotzat ematen ditu Bonpartek (11) ZUEK pertsonak, beren bukaeran *-ze* dutelarik *-zue*'ren ordez, Oltzakoek berriz *-zie* egiten dutela. Bere esana beti ageri da hemen baieztaturik: *duze* 'duzue' 11, 3, *tuze* 'dituzue' 11, 4, *dizet* 11, 1, *dakize* 'dakizue' 12, 1, *daukeze* 12, 1 etab.
2. De- askotan galdu egiten da: *zakegu* 'dezakegu' 12, 2 *zazule* 'dezazula' 11, 3 v.º, *zola* 'diezaiola' 12, 2, *zozu* 'diezaiozu' 12, 4 v.º, *zadazu* 'iezadazu' 16, 4 v.º; bainan *dezoten* 'diezaien' 15, 1 v.º.
3. Di- galtzen da askotan, bainan ez beti: *tuste* 'dituzte' 14, 1, bainan *dituste* 11, 3.
4. Barnean laburturik: deizke 'daitezke' 15, 2, *nuzke* 'nituzke' 16, 2, *zeiste* 'zaitezte' 15, 2.
5. -E'ren ordez *-ote: diote* 'die' 14, 1, *dakiote* 'zaie' 11, 1 v.

(11) BONAPARTE, Luis-Lucien. *Le cantique des trois enfants dans la fournaise.* Londres, 1869. Elkano, Gares, Oltza eta Goñiko euskaraz dago, Goñi eta Oltzako itzulpenetan sei hitz ez beste guziak eta fenomenu fonetiko eta morfologiko den-denak berdinak direlarik. Ikusi baita ere 6. oharpenean aipatutako orriak, batez ere 78. zenbakian daudenak.

6. *Pluraltzaileak bat baino gehiago dira: bezazqui* 'bitza' 13, 4 v.º, *dauzkizu* 'dauzkazu' 12, 4 v.º, *beigezazki* 'biezazkigu' 13, 5, *ginduzki* 'gintuen': "crietu *guinduzqui* (Jangoikoak)" 21, 2 v.º, *zazkigu* 'ditzagun': "eitz*ezquigun*" 'adi ditzagun' 11, 2, *zitue* 15, 1, *dakizkio* 'zaizkio' 12, 2.
7. *Izan* aditzaren lehenaldia hau da: *neiz, da, gara, zara* eta *zada, zarate, dire; dut, duzu, du, dugu, duze, dute.*
8. Azkenik, zenbait aditz-joko berezi ipiniko ditugu.

banitz 'banintz' 16, 1 v.º.
dakiola 'dakiola': "Jangoicoari nei *daquila*" 13, 4; 'zaiola' 14, 2 v.º.
dakiote 'zaie' 11, 1 v.º Ik. baita ere *zeiote.*
dakizkitzu 'zaizkizu' 11, 2.
daritzo 'deritzo' 24, 1.
doie 'dihoa' 11, 3.

ginduela 'genuela' 15, 3 v.º.

idezu 'eman iezadazu' 12, 2.

laudeke 'leudeke' 14, 3 v.º.
likezu 'eman liezaizuke' (?): "derrepente illic erortzeco, eslitzeque bertzeric bear, beicic Jangoicoac *liquezun*, arguitasun pisquebat, icusteco, ceiñ" 16, 5 v.º.
nitze 'nintzen': "*nitzen* becela" 12, 3 v.º.
nitzeke 'nintzateke' 12, 3 v.º.

zeikio 'zitzaion' 11, 2.
zeiote 'zeie' 13, 4.
zindue 'zenuen' 11, 2 v.º.
ziñue 'zenuen' 11, 2 v.º.
zindute 'zenuten' 15, 2.
zeritzon 'izeneko': "Can *ceritzonac*" 19, 4 v.º.

Bukatzen

Ez dugu arazo honetan dogmatikoak izan nahi. Beraz, esan dezagun dotrina hauek Goñi aldeko euskaraz izan daitekeela idatzirik. Badago, hala uste dugu, arrazoirik hori sustengatzeko, bai kanpotiko bai barrendikoak. Espero dugu arkitzea noizbait beren egilea, ia horrela segurantza handiagoa lortzen dugun. Bestalde, ez dugu ahantzi behar badagola beste semoirik ere bilduma honetan Goñi (eta Oltza) aldeko euskaraz idatzirik.

FRAY BARTOLOMEZ PUNTU BATZUK

Donostia, 1980-XI-28

Patxi Altuna

Fray Bartolomeren *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* liburuaren morfosintaxiko bizpahiru puntu bakarrik ukituko ditut hemen, nahiz askoz gehiago liratekeen ukitu beharrak, ene ustez. Zuen artean bizkaiera, eta batez ere bizkaiera zaharra, ongi ezagutzen dutenentzat gauza berri gutxi dakart, baina iparraldeko antzineko idazle batzuk ikertu ondoren neri atentzio bizia eman bait didate, agerian ipintzea merezi zutela iruditu zait.

1.1. Eta hona lehen puntua: *perpaus konpletiboetan -la eta -na.* Altuberen iritzia ezaguna da. Honela dio: a) *-la:* fuera de Bizkaya casi en todas las regiones euskaldunas parece ser el sufijo común para los tres casos; alegia, "*Oraintxe dátorre-la*" *(diño onek),* perpaus konpletiboa bera galdegaia duena;*Orain datorre-na ("onexek" díño* (galdegaia "onexek" duelarik); *Orain datorre-nik ("ez"tiño ónek),* ukapena bera delarik galdegaia. Eta honela darraikio gero: "En Bizkaya se le emplea, ordinariamente, en la forma señalada en los ejemplos precedentes, o sea, cuando el sintagma en cuestión constituye el miembro inquirido de la oración principal. Cuando no concurre esa circunstancia, por lo general se emplea en Bizkaya, b) *-na:* si la oración principal es de carácter afirmativo. Aun en bizkaino se emplea, excepcionalmente, el sufijo *-la* como característico de sintagma oracional inquirido; en este caso la significación que imprime ese sufijo a la frase difiere en algo de la de su concurrente *-na;* véase, *Umeak ostu dabe-la ("zeuk" esán dozu)* (aquí no se da como cierto ni se niega que el niño haya robado); *Umeak ostu dabe-na ("zeuk" esán dozu)* (Aquí se da como cierto que el niño ha robado). c) *-nik:* si la oración principal es de carácter negativo. Se exceptúan las frases cuya oración principal está formada por una flexión simple del verbo sustantivo (Izan); se dice, pues, *("ez"ta egíya) etorri nintza-na o nintza-la,* y no *("ez"ta egíya) etorri nintza-nik*".

Ez dut nik hemen Altuberen eritzia gezurtatzen denborarik galduko, ez bait dakit zenbatetaraino den gezur ere, gero ikusiko dugunez; denok dakigu, ordea, nik uste, egia ere ez dela, egia osoa ez bederen. Aski da horretarako Fray Bartolomeren aipatu liburuko honako perpaus hauek, beste gehiagoren artean, irakurtzea. Honela dio gure fraileak:

"Dinodan guztia, eguiya dana, ezaututeco, inoc dudaric badauca, contu imini begui, ta icusico dau... (or. 59-60).

Perpaus horretan konpletiba galdegaia da eta *-na* dio, halere. Beste biotan, ostera, konpletibak ez dira, noski, galdegai eta *-la* hartzen dute, halaz guztiz ere:

"Errazuazco olgueetiac, esaten da bada, ezdabela eragozten Jaungoicua serbidutia. Ez, aldia bateti, edo besteti erreguelati campora daguan olgueetia gaiti" (or. 20).

Perpaus horren galdera hau da, izan ere: *"Nork* esaten da ez duela eragozten...?, bigarren zatiak (ondoko "Ez, aldia bateti, edo besteti.." horrek) garbi erakusten digunez. Perpaus hori gaztelaniaz honela litzateke, alegia: "Es, pues, la diversión razonable la que se se dice (o, decimos) que no impide el servicio de Dios; no la que por uno u otro motivo queda al margen de la ley".

Eta ikus beste hau ere:

"Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jaunac, ta religiosuac, eureen estádu santubagaz aaztuta... saraubeetan dantzan eguiten daveela" (or. 168).

Horko horretan "ez" litzateke galdegaia, Altube jaunaren beraren irakatsien arabera. Utzi ditzagun alde batetara, gainera, galdegaia zein den erabakitzen oso zailak diren pasarteak. Honako hau, esate baterako:

"Orregaiti Santo Tomasec esaten dau ainbeste lecutan, ta beti: alaco ocasinoetara juatia pecatu dala" (or. 158).

1.2. Baina Altubek berak ematen dio, ene ustez, azpikolperik gogorrena bere eritziari lehenxeago irakurri ditudan haren azken hitz haietan: "Se exceptúan las frases", esan digu, "cuya oración principal está formada por una flexión simple del verbo sustantivo (Izan)" eta adibide hau ezarri:

("Ez"ta egíya) etorri nintza-na o nintza-la.

Aurreko lerroetan erakutsi digunari balegokio, ezin lezake aukerarik eskaini: nintza-*na* edo nintza-*la*. Perpausa ezezkoa denez gero eta ukapena bera galdegai ("ez" horregatik dago komila artean), *nintza-na* bakarrik eman beharko zukeen ontzat.

Bestalde harrigarria da, ene ustez, *-na* duten exenpluak auzi honen batere kezkarik ez zuten idazleengandik (Fray Bartolome, Urruzuno eta Azkueri Erronkaritik idatzi zion batengandik) hartuak eta jasoak izana eta besteak, aldiz, Altubek berak asmatuak edo Azkuerenak.

1.3. Azkuek bere aldetik *-na* atzizkiari buruz honela diosku bere Hiztegian: "Sufijo verbal que vale por "que". Se usa con verbos como "saber, asegurar, negar, creer, conocer, ver, decir..." y otros semejantes. No es exactamente lo mismo que el sufijo verbal *-la,* pues *-na* significa más bien "el hecho

de que" (cf. s. v. *-na*) eta lau exenplu aipatzen ditu. Bere *Morfología Vasca*-n Altuberen irakatsia bere egiten du eta esaten: "El uso de estos sufijos *-na* y *-nik* exige también... que la oración subordinada, por ellos caracterizada, no constituya el miembro principal o inquirido de la proposición principal" (or. 74).

1.4. Duela urtebete Arrasateko biltzarrean Patxi Goenagak eta Jose A. Mujikak txosten bana aurkeztu zuten konpletiboen auzi hau jorratuz. Lehenak Juan Bautista Agirreren obratik abiaturik erakutsi zigun idazle honek ez duela *-na* inoiz ere erabiltzen, beti *-la* baizik, eta atzizki hori honako aditz hauen mendeko perpausetan ageri dela: *adierazi, aditu, aditzera eman, agindu* (prometatu), *aitortu, ahaztu, atera, begiratu, beldur izan, kontatu, kontuegin, dio, demagun, hitz eman, ikusi, erabaki, erakutsi, erantzun, eritzi, esan, ezagutu, gaztigatu, gogoratu, gogora ekarri, igerri, iritsi, dirudi, jakin, oroitu, sinistu, ukatu, uste.*

Jose A. Mujikak bere aldetik, Leizarragaren zenbait zati oinarri harturik, *-la* eta *-na*-ren arteko bereizkuntza argitu nahiz, huts txiki bat egiten du, ene ustez, artikulua ongi ulertu baldin badiot: *-nik* atzizkia noiz erabiltzen *dugun* —Leizarragak ez omen bait du *-na* ez *-nik* erabiltzen— ikertu du lehenik eta hortik hartu abiadura gero *-la* eta *-na*-ren arteko aldea zein izan daitekeen ateratzeko. Baina bide horri ez deritzat zuzena: *-na* noiz eta nolako perpausetan erabili den eta erabili behar den ez dakigun bitartean, alferrik ariko gara, ene ustez, *-nik*-ek zer esan nahi duen eta nola eta noiz horrezaz balia gaitezkeen mintzatzen. Horrezaz gainera, Altubek bezalaxe, Patxi Goenagak eta Jose A. Mujikak berek asmatutako edo bere belarrien arabera moldatutako perpausen testigantza dakarkigute paperera eta horri ere ez deritzat bide zuzena. Gaur zer esaten dugun ikertu eta esaten dugunetik argudiorik atera baino lehen, esaten duguna zuzen ala oker esana dagoen garbitu behar da eta horretarako bide bakarra dugu: zaharren lekukotasuna, zaharrek ere zenbait gauza oker esan zezaketela egia den arren, egiantzekoagoa bait da guk gauza gehiago oker esatea. Esate baterako, 623. orrialdean aipatzen duena berak asmaturik: *Ez dugu entzun deus egin duenik* edota ez da ezer euskaraz edota, ezer bada, azpiegituran hau dauka izkutatua: "Egin du zerbait" eta hori entzuna ukatzen du, hain zuzen.

Modu berean, *Ez esan inori alkate zarenik* dakar beste pasarte batean (or. 622) exenplutzat eta horrezaz baieztatzen, ez omen dugula hori esatean suposatzen elkarrizketaria alkate denik. Hori eritzi bat besterik ez da. Nik hauxe diot: perpaus horrek berekin nahitaez ez badakar mintzalaguna alkate izatea, gutxienez badakar mintzalaguna esaten aritua bera alkate dena.

1.5. Baina gatozen Fray Bartolomerengana. Hemen dut *-na* ageri den pasarte guztien zerrenda, baita *-la* konpletiboa daramatelarik perpaus nagusian datozen aditz guztiena ere. Azkenok hauek dira: *aituten emon, aitu, agindu* (= manatu), *atera contua, autor(tu), esan, egia izan, ezautu, erakutsi, erabagi, erantzun, entzun, eduki* (= "seguirse de ello"), *eritzi, *io, ikusi, ira-*

kurri, jakin, gauza jakina izan, konpesatu, pensau, probau, sinistu, uste izan, topau. Patxi Goenagak J. B. Agirregandik harturik eman digun zerrendarekin erka badezagu, esan dezakegu ia guztiak berberak direla. Hari Fray Bartolomeren hauek falta zaizkio: *agindu (manatu* esan nahi duelarik), *entzun, eduki, irakurri, konpesau, pensau, probau, topau.* Fray Bartolomeri, ostera, Agirreren besteok falta: *adierazi, agindu (prometatu* esan nahi duelarik), *ahaztu, begiratu, beldur izan, kontatu, kontu egin, demagun, hitz eman, gaztigatu, gogoratu, gogora ekarri, igerri, iritsi, dirudi, oroitu* eta *ukatu.* Gero ikusiko dugunez, Fray Bartolomek ere badarabiltza aditz hauetako batzuk, baina *-na* dutelarik, hain zuzen, ez *-la* dutelarik, Agirregan bezala.

1.6. Hona orain perpaus konpletiboan *-na* daramaten perpaus nagusiko aditzen zerrenda eta perpaus guztiak, lan honen gorputz gisa:

1.Jakin

"Mundu guztiac daqui bada: ardao pusca bat edanac, ta endemas cerbait gueijago edanac... luxurijaren suba viztu eraguiten *davena*" (or. 49).

"Verbeeta onetan ecer gueituta *ezdaguana,* piesta zale guztiac daquijee" (or. 55).

"Baita da eguija, plazaco piestara, ta dantzara duazanac... ondo daquijeela bigarren juate aldico... leleengoti azquenera luxurija guztiaren testigu izatera *duazana* (or. 99-100).

"...ondo daquijeela, dinot, ...duazan guztian luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau, ta gueijago icusico *daveena,* ta sentiduco *daveena*" (or. 100).

"Ondo daquijeela... eurai bere sarritan, edo gueijeenian, edo beti esan *deutseezana,* ta eguin *deutseezana* pecatu zatar, loi areec guztiac (or. 100).

"Nic icentau bagaric, daqui gentiac ondo, onetarico Ermita asco *dagozana* Vizcaijan, ta Provincijan. Ta urrin errijetati legua ascuan gentia juan *oidana* erromedijara piesta egunian" (or. 106).

"Bada au, irugarren Aguindubaren contra berez pecatu mortala *dana,* edoceinec daqui, edo jaquin biar dau" (or. 109).

"Erregue Jaunac, ta Legueguinac ichi leguijue errijetaco gentiari, piestaac, ta dantzaac eguiten, pecatu *diriana* eurac jaquin arren, eurac pecaturic eguin bagaric, dino Santo Tomasec" (or. 147).

"Alaco gauzac pecatu *diriana* jaquin arren, jazoten isteen deutsee Legueguinac, eurac pecatu eguin bagaric" (or. 149).

"Baquijee cristandadeco Aguintari Jaunac, lecuban lecuban *dagozana* nasaijac, Jaungoicuaren bildur bagacuac" (or. 149).

"Noc ezdaqui, orduban vijotza prestauta *daguana,* pecatuban jausteco, pecatubari obeiduteco, ta verenuagaz ilteco?" (or. 161).

2.Gauza jakina izan

"¿Ta ezda gauza jaquina, plazaco apaindurijac, ta gorputza ondo prestaubac luxurijari sarri dei eguiten *deutsana,* ta su gueijago emoten *deutsana?"* (or. 51).

"Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten *eveena* Jaungoicotzat" (or. 140).

"Santo Tomasec dino... ez dala pecatu. Baina sartuten bada indecencijazco gauzaric danzaan gauza jaquina dala, pecatu *DANA* (or. 157).

3. Ikusi

"Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua, ta arteza *dana.* Baita nire eguina ezer *ezdana* bere" (or. 5).

"Escritura Sagraduco lecu onetan... gueure piesteetaco dantza madaricatubac Jaungoicuaren gorrotua, ta zamaija eureen gainian *dauqueena,* edoceinec dacuts" (or. 78).

4. Ezagutu

"Dinodan guztia, eguija *dana,* ezaututeco, inoc dudaric badauca, contu imini begui, ta icusico dau... (or. 59-60).

"Ezaututen davee, olgueeta areetan arimac osasun onic ez *dauqueena*" (or. 195).

5. Ukatu

"Baina inoc ucatu ezin legui, pasiuaren achaquijagaz gauza chaar asco eguiten *diriana*" (or. 32).

"Ezin inoz ucatu legui, dantza zaliac au ondo *daquijeena*" (or. 101).

"Ezin ucatu legui, arriscu gueijago *dauqueena*... persona libriac" (or.).

6. Erakutsi

"Ezbada... guztiac eracutsi daveela Eleisaco Santubaquin, dantzaac pecatu mortalecuac *diriana*" (or. 91).

"An eracusten dau Santubac Eleisaco Gurasuen, jaquitunen, ta erra-zoiaren goitute osuagaz, esan dirian naasteco dantzai jarraitutia pecatu mortala *dana*" (or. 84).

"Au esanda gueratu da leen. Baina olgau biar *dana,* edo, gaztiac olgau biar *daveena,* ez deuscu inoc eracusten" (or. 189).

7. Egia izan

"Verbeeta onec uts eguite bi daucaz. Bata da: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar *daveena*. Ezda au eguija" (or. 189).

"Eguija da, nosbait olgueetia naturaleciac escatuten *davena*. Baita, cetan, edo atan olgau *leitequiana* bere, bai zaarrac, ta bai gaztiac, bai Prailiac, ta Monjaac bere" (or. 189).

8. Sinistu

"Ezda errez sinistuten... Ta ezda, orraco... piesteetara, ta erromedijeetara juanda, guizon, ta emacumeen artian, nesca,ta mutilen artian naastian sartuta, olgueetan ibilten *diriana* bere" (or. 158).

"¿Sinistuco ete dau au alaco Eleisa-guizonac, descuiduan inor bada, onan *dana?*" (or. 171).

9. Autor(tu)

"Oneec autor davee, piestaac, ta erromedijaác, eta biguiraac, eta saraubac chaárrac *diriana*" (or. 195).

10. Esan

"Santo Tomasec, ta beste juicijua dauqueen guztiac, esaten davee, dantzan eguitia berez pecatu *ezdana*" (or. 156).

1.7. Egin dezagun zenbait gogoeta gorputz honen aurrean:

a) Arestian mendeko perpaus konpletiboan *-la* zeramaten aditzak eta orain *-na* daramaten besteok elkarrekin erkaturik, lehenik esan behar da ia aditz berak ageri direla inoiz atzizki bata inoiz bestea dutelarik. Hala nola *jakin, gauza jakina izan, ikusi, ezagutu, erakutsi, egia izan, sinistu, autor*(tu) eta *esan.* Hots, bat ez, gainerako guztiak. Bat hori *ukatu* da. Zergatik hori? Dena den, Azkuek bezala, halako aditzek *-na* hartzen dutela esatea, ez dirudi aski denik, berberek *-la* ere hartzen bait dute.

b) Elkarri kopulatiba gisa *eta*-k loturik dauden perpausetan ageri direla batzuetan bata eta bestea nahasian, ez elkarrekin zer ikusirik ez duten perpaus bakanduetan bakarrik. Esate baterako:

"Baquijee cristandadeco Aguintari Jaunac, lecuban lecuban *dagozana* nasaijac, Jaungoicuaren bildur bagacuac, Ceruba galdubac, edo irabatzijac penaric emoten ez deutseenac, odolaren, ta arguijaren artian loituta vitzi gura deveenac; ta asco izan arren ceruraco deitubac, guichi izango **diriala** ceruracuac" (or. 149-150).

Modu berean, ikus or. 84, 91, 100-101, 168.

c) Hogeitamaika pasarte horietarik zortzitan konpletiba perpaus nagusiaren aurrean kokatua dagoela eta beste hogeitahirutan atzean.

d) Perpaus nagusia zortzitan ezezkoa dela, formaz eta itxuraz bederen, nahiz zortzi horietarik bitan perpausa galderazkoa denez gero, baiezkoaren balioa duen. Hots, *Noc ezdaqui...?* eta *Mundu guztiac daqui* berdintsu diratekе balioz; era berean, *Ezda gauza jaquina...?* eta *Gauza jaquina da* ere bai. Ostera, *Sinistuco ete dau...?* formaz baiezkoa den arren, balioz ezezkoa bailitza hartu behar da. Eta gainerako zinezko ezezkoetan zergatik ez dugu *-na* ordez *-nik?*

e) Ostera *-la* hartu duten konpletibak, nahiz hemen bildu eta eskaintzen ez dizkizuedan, sines iezadazue, otoi, berrehundik gora direla eta guztiotarik bik bakarrik dutela perpaus nagusia ezezkoa.

f) *-nik* ere ageri da; behin bakarrik, hori bai, edo hiru bider, nahiago bada, baina pasarte berean eta elkarren segidan, *ezta* kopulatibak elkarri lotzen dizkion hiru perpausetan. Geroago aipatuko dut pasarte hori.

1.8. Punturik meheena eta zailena gelditzen zait aztertzeko, taxonomia maila hutsean neure lan hau utzi nahi ez badut. Zer alde dute bi atzizki, *-la* eta *-na,* horiek? noiz erabiltzen da bata eta noiz bestea? Hobeki esan, noiz erabiltzen ditu Fray Bartolomek? Nahiago nuke galdera hauei bestek erantzungo balie, neronek ez bait erantzun osorik ez gogobetekorik. Baina beldurrez eta herabez bada ere, eta are hanka sartzeko arrisku galantez, hona berriro beste gogoeta batzuk:

a) Latinez guztiz ezezagunak dira, oker ez banago, euskarazko eta gaztelaniazko "Ez dut uste..." eta "No creo que..." horien antzeko liratekeen "Non opinor" edo "Non aestimo"-zko perpaus konpletibak. Horien ordez "Non ita aestimo" eta horien kideak erabili ohi ziren, beti ondoko perpaus konpletibaren ordez "ita" edo "tale" txertaturik, edota, jakina, perpaus nagusiko adizkia baiezko forman emanik: "Opinor eum non esse venturum", mendeko perpaus konpletiba osoz. Euskaraz, gaztelaniaz bezalaxe, ukapena mendeko perpausetik nagusira jauzi da, beraz. "Non credo", "nescio" edota griegoz ou φημί (= *ukatu,* ez *ez esan*) ez dira, agian, gauza bera. Hauek bere ukapen eta guzti, egitate positiboa den konzeptua adierazten dute.

b) Har ditzagun Fray Bartolomeren hiru azkenak. Bitara irakur, eta hainbestez adi ere bai, daitezke: *Oneec autor davee (zer autor davee?) ...saraubac chaarrac diriana.* Edota, *Guztiac esateu daree* (zer esaten daree?)... *berez pecatu ez dana.* Edota, *Au gaiti esaten dira (zer esaten da?)... chito gauza asco...: Au eguin davena... onan ibili dana... an izan eizana...* Baina denok konturatu zarete ez dela hori irakurraldi zuzena, ez duela hori esan nahi. Betiko kontua dugu hemen: *Esan dít / híl delá,* batetik, eta *Esán dit híl delà,* bestetik. Berdin da perpausak trukatzea: *Híl delá / esan dít* eta *Híl delá esan dît.* Bi gauza dira. Azentoz ere guztiz desberdin, jakina. Baina azentoz bakarrik ez. Batak —bi multzoetarik bigarrenak— onartzen du eta ia ia eskatzen, gero hitzez esango bada ez bada ere, ondoren adbersatiba: *Hil dela esan dît, baina... noiz eta nola hil den ez,* esate baterako! Besteak, aldiz, kopulatiba onartzen du gehienez: *Hil dela / esan dít eta... zu hara ez joateko.*

c) Hona orain nere susmo ausarta —eta barka ausardia—, Fray Bartolomeren hiru azken horietarik lehena behar bezala irakurriz: *Oneec autor davee* ("Estos *ya* admiten...") *saraubac chaarrac diriana,* beste *Esan dit hil delà* bezala. Hau bezalakoak, hots, *Esan dit hil delà, baina...* honen kideak direnean, ez ote da erabiltzen *-na?* Alegia, ez ote ditu Fray Bartolomek bereizten: *Esan dit hil denà* eta *Esan dit / hil delá?* Lehena mintzagai litzateke; bigarrena, aldiz, galdegai.

d) Honetarako susmo bizia, arrazoi gehiagoren artean, honek sorrerazitzen dit. Badakizue Fray Bartolomek liburuan barrena tesi nagusi hau frogatu nahi duela: "Olgetea ona da, baina dantzan eginez, batikbat zenbait modutara eginez, olgetea bekatu mortala". Behin eta berriro ageri da gogoeta hori liburuan zehar, bidezko denez. Baina idazleak lehen aldiz hori proposatzen duenean, perpaus konpletiban *-la* atzizkiz ematen digu. Hala nola: *Areec esan davee: dantzia berez ezdala pecatu. Ta bestiac: dantzia berez pecatu izan ez arren, eguiten dan moduban, ta naturaleza jausijac guizon, ta emacume naaste eguin leijan moduban, pecatu dala, edo pecatuco ocasino urrecua dala* (or. 9-10). Ostera, irakurlea horrezaz aski jabetu dela iruditzen zaionean hasten dira bekatu dela esateko -na konpletibak agertzen. Alde honetatik guztiz interesgarri dela uste du jakitea *-na* duten hogeitamaika konpletibetarik zazpik "pecatu dana" edo "diriana", "pecatu mortala dana" edo "pecatu mortalecuac diriana" diotela. Besteetan, beti 'bekatua' izendatzen ibili gabe, luxurija hitzaz baliatzen da eta lau bider dio: "luxurijaren suba viztu", "luxurija guztiaren testigu izan", "luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau icusi" edo "luxurijari dei eguin". Horrez gain eta lehenxeago esan bezala, olgetea berez gauza ona dela ere garbi utzi nahi du, inork pentsa ez dezan olgeta guztiak gaitzesten dituela, eta *-na* duten lau konpletibaren perpausek hala diote, hain zuzen: "olgau biar daveena", "olgau leitequiana", "olgueetan ibilten diriana" eta "olgueetia naturaleciac escatuten davena". Hogeitamaikatarik hamabostetan, beraz, liburuan barrena mintzagai den leloa da *-na* konpletibaz emanik ageri dena.

1.9. Zer esanik ez, *-na* duten konpletiben edukia ez dela beti aurreko lerroetan hitzez hitz esana ageri, beti mintzagai dela frogatu ahal izateko. Hori txulada handiegia litzateke eta liburu batean ezin gertatuzkoa. Hori gehienez ere elkarrizketan gertatzen da, baina orduan ere nekez, hiztuna ez bait dago beti elkarrizketariaren esanaren baitan zerbait esateko, baizik eta hark zerbait esan ez arren, susmo egin dezake, edo bestetandik jakin, hark zer pentsatzen duen. Halaz ere, *Esan dit hil denà*-ri adbersatiba dagokiola esan bait dut, agerian ipini nahi nuke bizpahirutan *baina,* beste batzuetan aurreko lerroetan esan guztien bilduma eta ondorio gisa *bada,* besteetan adbersatiba baten balioa duen *ta...* darabiltzala Fray Bartolomek.

1.10. Punturik ilunenetakoa —orain artekoa aski ilun ez baldin bazen eta oraindik ere ez balitz bezala— zera da: zergatik darabilen *-la* bitan eta *-na* zortzitan perpaus nagusia ezezkoa delarik, *-nik* esan beharrean. Esan bezala, bai bait daki behin bederen *-nik* erabiltzen. Orain arte esanak egia badira, erantzuna hau litzateke: *-na* (nahiz *-nik*) erabiltzeko ez da aski perpaus nagusia ezezkoa izatea; horrez gain mintzagai izan behar du. Entzun ezazue, arren, edo irakur, hobeki esan, banatu dizkizuedan orrietan bait dago pasarte osoa idatzirik, zazpigarren kapituluaren hasiera:

> VII. *Gaztiac, cetan, edo atan olgau biar davee.*
> "Zazpigarren lecuban dinue dantzaarijac: *Gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela.* Verbeeta onec utseguite bi daucaz. Bata da: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar *daveena.* Ez da au eguija. Eguija da, nosbait olgueetia naturaleciac escatutén *davena.* Baita, cetan, edo atan olgau *leitequiana* bere, bai zaarrac, ta bai gaztiac, bai Prailiac, ta Monjaac bere. Au esanda gueratu da leen. Baina olgau biar *dana;* edo, gaztiac olgau biar *daveena,* ez deuscu inoc eracusten. Ezdogu iracurten Jesucristo olgau *zanic.* Ezda Ama Virginia olgau *zanic* bere. Ezda San Juan Bautista olgau *zanic bere*" *(or. 189).*

Zer dugu hor? Perpaus adierazkorra ager daitekeen lau moduak ditugu lerro gutxi horietan barrena. Lehenik, *...olgau biar davee;* gero, *...olgau biar daveela;* gero, *...olgau biar daveena;* azkenik, *olgau biar daveena, ez deuscu-(-la) inoc eracusten* baieztatu ondoren, mintzagai bait da dagoeneko, *Ez dogu iracurten Jesucristo olgau zanic* eta abar dio, hortxe bertan *-nic* ordez *-na* esan berria duen arren, perpaus nagusia ("ez deuscu inoc eracusten") ezezkoa zelarik ere. Ohar, gainera, hitzez hitz dioela "Au esanda gueratu da lehen", mintzagai dela, alegia, eta baita "Baina" ere.

Horregatik esan dut lehen Joxe A. Mujikaren *Ez esan inori alkate zarenik* hura zela eta, elkarrizketaria alkate den ala ez aurrez suposatzen ez badu, bai bederen suposatzen duela bera alkate dela esaten ari dela mintzalaguna.

1.10. Eta Altuberen teoria zer, hortaz? Altubek ez zekien, agian, eta nik ere ez oraintsu arte, mintzagaia zer zen. Laster argitaratuko da Mitxelenaren lan bat, *Galdegaia eta mintzagaia euskaraz* deritzana. Mintzagaia ingelesek *comment* edo *rhema* deritzatena omen da. Altubek *-la* perpaus konpletiba gal-

degai zenean erabili behar zela erakutsi zuen, eta gainerakoetan *-na* edo *-nik*, perpaus nagusia baiezkoa edo ezezkoa izatearen arabera. Ene ustez, *-na* eta *-nik* mintzagai direnean erabili behar dira; *-nik* erabiltzeko korrezaz gain perpaus nagusiak ezezkoa izan behar duelarik, jakina.

2. Bigarren puntua. Zer esan nahi du honako perpaus honek? *Ceuc ondo daquizun ustiagaz, ta neure arimaco, ta vijotzeco gogoric zintzuenagaz, ceure escu jotsijeetara bialduten dot, Jesus Curutzecua, ibiliera, ta olgueta santubeen NEURRIA, euqui leguizaneen GATZA, ta ezin leguizaneen OZPINA" (or. 5). Azkeneko bi leguizaneen* horiei buruz da ene galdea: zein da itzulpena eta zer dira bi *leguizaneen* horiek? Liburuaren hasierako *Jesu-Cristo gueure Jaun curutzian josijari* delako eskaintzan dago sartua. Irakurri batera aski ilun gertatu zitzaidan eta argi beharrez liburu osoan barrena ageri diren *-gi-* erroko adizki guztietara jo nuen. Hona azken fruitua.

Mundu guztiak dakienez, *-gi-* gainerako euskalkietako *-za-* erroaren ordaina da bizkaieraz. Hala nola liburuaren hasierako hitzotan: *Nori, Jauna, ceuri, baino besteri esquini neguijo nic...?* Gure *niezaioke* edota *diezaioket*-en gisakoa da hori, noski. Baina honek ez zizkidan inola argitzen goiko *leguizaneen* bi haiek. Nork "euqui", izan ere? Adizki guztiak azterturik, ondorio honetara heldu naiz: *-za*-ren ordaina, hots, laguntzaile iragankorrarena, ez ezen, *-gi-* bada ere berez aktibo diren eta pasibaz emanak dauden aditzen laguntzailea. Alegia, Fray Bartolomek argiro bereizten ditu biok: *jazo leiteque, jausi ditezen, vizi ditezala* eta abar, batetik, hots, berez eta izatez iragangaitz diren aditzen laguntzailea, eta beste hauek, bestetik: *esan ezin leijan, ezin imini legui, ecarri leguizan* eta abar. Azken hauetan INORK ez du *esan, imini, ecarri...*, baizik pasibak dira: "no se puede decir", "no se puede establecer", "se pueden traer". Aditza berez iragangaitza denean, *-di-* da, beraz, laguntzailearen erroa; aditza berez aktibo izan eta haren bidez zerbait pasibaz esaten denean, aldiz, *-gi-*. Baita, noski, iragankorra den aditza aktibo bezala erabiltzen denean. *Esan legui* bi gauza izan daiteke, beraz: *inork zerbait esan* edota *esan daiteke*-ren parekoa; *etorri* edo *joan* darabilenean, ostera, beti *leiteke* esan ohi du.

Aipatu ditudan exenplu horiek pasibak direla sines dezazuen, entzun, otoi, pasarte osoak. *Conciencija garbijac beragaz dacar, ezdaquit celaco contentu bat, poz bat, alegrija bat, ta esan ezin leijan, vijotzeco nasaitasun bat, eta libertade bat"*. Bigarrena: *Onaco aparteco bacocharen gogoco olgueetac gaiti, ezin erreguela seguru bat imini legui"*. Hirugarrena: *Juicijo on baten erreguela pera ecarri leguizan, ta casic gueijenac nai oiditubeen olgueetac dira: Jocua, Eitza..."*.

Honenbestez garbi dago zer esan nahi duen lehen pasarte hark: "Con la confianza que Tú bien conoces y con la más recta intención de mi alma y corazón, envío a Tus manos clavadas, Jesús Crucificado, la *moderación* de las santas andanzas y diversiones, la *sal* de las que pueden tenerse (i. e. lícitas) y el *vinagre* de las que no pueden tenerse (i. e. ilícitas).

Hau honela izateak arrastoa ematen digu, bestalde, jakiteko zein aditz jotzen zituen Fray Bartolomek aktibotzat eta zein ez. Zergatik dio, esate baterako, *poztu gaitezala, consolau gaitezala, ta alegrau gaitezala?* (or. 22). Erantzuna argi dago, ene ustez: "animarse, consolarse, alegrarse" ez direlako "consolar" eta "alegrar" aditzen pasibak.

3. Hirugarren puntua: nola bereizten ditu Fray Bartolomek *-z, -gaz* eta -kin beren artean? Honela: *-kin* beti plurala da: *andijaquin, guztiequin, umiaquin...*, *-z* soila mugagabea da eta, nolazpait esateko, "lleno de", "cosido a", "perforado por" eta antzekoetan erabiltzen du soil soilik. Ikus honako pasarte hau: "Curutze orretan ceure Gorputz biguna, ederra, garbija, ta Jaungoicozcua arantzaz, ta ultzez zulotuta, colpez zaurituta, azotez eratzita, autsez, ta luurrez ezainduta, biaztunez, ta ozpinez mingochtuta, odoltuta, illunduta, minduta, eseguita, burlaz, ta desondraz estalduta, oinac, ta besuac burdina zorrotzez josita, gueu gaiti illtzen zacustazanian bateti..."; azkenik *-gaz* singular mugatua denean erabiltzen duela esango nuke: ikus *bategaz, balijuagaz, ustiagaz, zintzuenagaz...*

4. Laugarrena eta azkena gaurkoz, zuen pazientzia ahitzen hasia bait dateke, agian: bokaleen elkar jotzean, hitzaren erroa bokalez amaitu eta mugatzaileari lotzean, alegia, fonetika aldakuntza biziak sortzen direla edozeinek daki. Bakarra aipatuko dut, oso fenomeno ezaguna bait da: zer gertatzen da *-a* eta *-a* elkartzean? *-Ia* sortzen da, noski. Ez, ordea, beti; ez, alegia, pluralean *(dantzaac, olgueetac);* ezta singularreko inesiboan ere *(dantzan, eusqueran, gauzan...).* Salbuespen bakarra aurkitu dut: *eitzian,* baina ez da erabat salbuespen, *eitza* eta *eitze,* biezaz baliatzen bait da.

GRAMATIKA

EUSKAL PROSODIAZ

Karmele Rotaetxe

Donostia, 1980-III-28

Seber ALTUBEren urteurrena ospatzean, Euskaltzaindiaren urgazle berri sartu naizelarik, gure filologo honek sakonki landu zuen pundu bati buruz —azentua, alegia— zerbait aurkeztu nahi nuke. Bide batez, Altubek berak bereizi ez zuen entonazioaz mintzatuko naiz. Dena dela, Altuberi eta azentuaz arduratu diren beste lagun askori omenaldi gisako bat eskeini nahi dizkiet lerro hauek.

Aukeratu dudan izen-burua ez dut oso gogoko: "prosodia" antzinako hitz bat dela ta, konotazio ugari dakarzki. Baina, haren ordez jarri daiteken "supra-segmentala" hitzak ere zenbait istilu darama: azentua eta entonazioa, joatekotan, ez bait doaz hitzen gainean, barruan baino. Horregatik, beste hizkuntzetan bezala, "prosodia" gordeko dut zera adierazteko: azentua eta entonazioa, bien artean konparaketa bat egiteko asmoz.

Gainera, "euskal prosodiaz" izen-buruaren aukeraren alde beste arrazoi (eta helburu) batek bultzatu nau: 1958an, MITXELENAren artikulu bat agertu zen EUSKERAn, hain zuzen: "Euskal-Azentuaz" (1). Hemen aukeratu dudan izen-buruak paralelismo bat dakar eta haren bitartez nolabait azpimarratu nahi nuke ze baliotsua izan zaidan euskal azentua indarrezkoa zela lehenbizikoz aipatzen zuen artikulu hori (2).

Muinean sartu baino lehen, terminologiari buruz zerbait esan behar dut: "soinu" erabiliko dut "sonido", "son" edo "sound" adierazteko (3). Jakina denez, soinu batetan hiru parametro bereizten dira: fisikari dagokionez, luzera, bibrazio-anplitutea eta bibrazio frekuentzia. Entzule bati, hiru parametro

---

(1) MITXELENA: "Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea jaunak egindako itzaldia eta Mitxelena jaunaren erantzuna —Euskal-azentuaz—", in *Euskera,* III, 1958, 29-44 orr.

(2) Jakina denez, Zuberoko mintzairetan azentua indarrezkoa zela, LARRASQUET-ek 1928.an azaldua zuen. Cf. J. LARRASQUET: *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiées dans le Basque souletin,* Paris, 1928 eta *ibid. ibid.* (thèse complémentaire), Paris, 1928.

(3) "Fonema" hitza finkaturik dago euskaran eta, erabiltzekotan, ez litzateke ulertzeko prolemarik izango; bastalde, gaiari egoki ez zaiolako, ez naiz sartuko unitate diskreto den ala ez orain ari den eztabaidan.

hauek honela etortzen zaizkio: lehena, *iraupena* bezala; bigarrena, intentsitatea edo *indarra* bezala (eta bigarren hitz hau gordeko dut); hirugarrena, goiera bezala eta honetan lehenbiziko fundamentalaren frekuentziaz gainera, tinbrea eta *doinua* sartzen dira; horregatik eta ohituragatik, *doinua* gordeko dut (4). Azentua eta entonazioa errealizatzeko, hiru parametro hauetarik bat edo batzuk *gailentzen* dira, bereiziki, eta gailendu "destacar" edo "mettre en relief" bezala erabiliko dut, gailentze, ing. "prominence", fr. "mise en relief" izanik.

Geroago ikusiko denez, entonazioak doinua erabiltzen du melodiaren aldaketak lortzeko. Azentuak erabiltzen duen parametroa, berriz, hizkuntza batetik bestera desberdina izan daiteke: gazteleran, adibidez, indarra da; frantsesean, ordea, doinua; nahiz eta kasu bietan hitz bera erabili "acento" edo "acent", ingelesak, esaterako, baditu hitz bi azentu-mota desberdin hoiek izendatzeko: "stress", lehen kasuan, "pitch", bigarrenean. Ohar hauetan gaudenez gero, ezin ahaztu da Maurice GRAMMONTek aspaldian erakutsi zuena: indarraren (intentsitatearen) gailentzeak erakartzen du beti doinua eta iraupena, nahiz eta alderantziz ez gertatu:

> "L'intensité entraîne toujours avec elle la durée et sauvent la hauteur; la réciproque n'est pas vraie" (5).

Prosodiaz arduratzen den azterketa batek argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuena zein den eta, beste alde batetik, azentu-arrealizazioak eta melodiaren gora-beherak zein harremanetan gelditzen diren. Nire ustez, hau lortzeko, teoriaren mailan bi fenomenu direla onartu behar da, bakoitzak bere markoa duelarik. Hau ez da bakarrik nire eritzia, baizik eta ni baino jakintsuagoak diren beste askoren ustea. Gure hizkuntzara goazenean, baina, diferentzia hau ez da errez egiten. Betidanik, eta teorianmailan hain zuzen, fenomenu biak nahasturik agertzen zaizkigu. Honela, Altubek berak *El acento vasco* liburuan erabiltzen ditu "entonación", nahiz "acento" hitz bien artean alderik -edo behintzat, alde teorikorik— egin gabe:

> "Para el estudio del acento euskérico, es pues de absoluta necesidad que después de practicar el brevísimo examen que requiere la *entonación* de los *vocablos aislados* (entonación, nik azpimarratua) y libres de sentido afectivo, nos internemos decididamente en el campo complejo de las tonalidades de expresión emotiva o *sentimental* y de las que corresponden a los sintagmas o grupos sintácticos" (6).

---

(4) Cf. P. LEON, Ph. MARTIN: *Prolégomènes à l'étude des structures intonatives,* Studia Phonetica 2. Montréal, Paris, Bruxelles, 1969. 9-11 orr.

(5) M. GRAMMONT: *Les vers français, ses moyens d'expression, son harmonie,* Paris, 1913. S. KARCEVSKIJ-ek aipatua "Sur la phonologie de la phrase", in TCLP, 4 (1931), 118-228 orr., eta 201 ber. Behar bada, horregatik ere, indar-azentua benetako azentutzat harturik izan da, askotan.

(6) ALTUBE taŕ Seber: *El acento vasco* (en la prosa y en el verso), Bermeo, 1932, 219 orr.

Gure filologoen zerrenda luzeegi ez egitearren, beste lekuko bat bakarrik aipatuko dut. Hona zer dioen R. M. de AZKUEk:

> "Por lo general, los lingüistas modernos incluyen tres conceptos en el vocablo acento (...) El *acento* (la *entonación*) comprende –nik azpimarratua– (7).

Honelako egokeran, edozein teoriak, nahitaez, bere oinarriak finkatu behar ditu, azentua eta entonazioa zer diren jakiteko. Zeren, oinarri batzuk finkatu ta gero, iker-langileek ondorio berdinetara hel daitezke edo ez; dena dela, eztabaida dezakete. Baina, oinarri teorikorik gabe, ezin hel daitezke ondorio berbera ez eta eztabaidarik eduki. Horregatik, linguistika orokorrak proposatzen dituen printzipioak kontutan eduki behar ditugu.

1. Oinarri teorikoak

1.1. AZENTUA

Jakina denez, soinuen trukez agertzen diren unitateak –fonemak– balio bereizgarri bat dute funtsezki. Azentua, ordea, ez: unitate batzuen arteko *kontraste* bategatik gureganatzen dugu. Bestela esanda, fonemak ardatz paradigmatikoan aurkitzen dira eta azentua, berriz, sintagma-ardatzean. Horrek esan nahi du kateko unitateen artean bat gailentzen denean (doinuagatik, indarragatik, iraupenagatik), unitate hori azentuduna da. Horregatik ere, nire ustez, definiziorik onenetariko bat Paul GARDEgan dugu:

> "mise en valeur d'une syllabe –unité accentuable– dans le cadre du mot –unité accentuelle" (8).

Definizio hori N. S. TRUBETZKOIEen ideia jasotzen du "mise en relief culminative" (9), R. JAKOBSONen "relative prominence" (10), A. MARTINETenarekin konforme delarik "mise en relief eccentuelle" (11), linguista ezagun batzuk aipatzeko.

Ikusten denez, goiko definizio horretan, gauzak ez daude a priori emanak. Adibidez, jakin behar da zein den hizkuntza bakoitzaren barruan unitate azentugarria ("unité accentuable") eta, hizkuntza askotan silaba baldin bada ere –definizioak aipatzen denez–, beste hizkuntza batzuetan segmento txi-

---

(7) R. M. de AZKUE: "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos", in *Euskera,* VI, 1930, 282-297, orr., 282 ber.

(8) P. GARDE: *L'accent,* Paris, 1968, 53 orr.

(9) N. S. TRUBETZKOY: *Grundzuge der Phonologie.* J. CANTINEAU-k *Principes de phonologie,* itzulpenetik, Paris, 1967, 221 orr.

(10) R. JAKOBSON, G. FANT, M. HALLE: *Preliminaries to Speech Analysis,* The M. I. T., 1955, 13 orr.

(11) A. MARTINET: *Eléments de linguistique générale,* Paris, 1960, & 3-31.

kiago bat dugu, mora, hain zuzen. Euskarari aplikatzeko orduan, pundu hau erabaki behar da. Bestalde, azentudun unitatea ere ("unité accentuelle") ez dago a priori emana. Adibidez, hizkuntza gehienetan, grafiari dagokion unitate txikiago bat ez bada ere, bistan dago handiago bat izan daitekela; horrela, hizkuntza batzuetan azentua hitzari dagokio (gazteleran, adibidez, "limpio/-limpió"), eta beste batzuetan –frantsesa esaterako– hitz-taldeari: / de la sálad(e) /baina / de la saladauxanchóis /; / une tárt(e) / baina / une tartauxfrúits / etab. Bigarren kasu hau izatekotan, hitz-taldearen hitzak harreman estutan egon behar direla suposa daiteke. Bistan dago, euskal azentuaz mintzatzeko, jakin beharko dugu zein den edo izan daiteken *azentuaren markoa*. Hain zuzen, azentuaren garrantzirik handiena bere *funtzio kontrastiboan* datza, eta hau marko batetan gertatzen da eta gertatu behar da. Hori dela ta, azentudun unitate batetan –marko batetan– sortzen diren kontrasteek eragiten dute *azentu-egituratzea* edo *azentu-itxuraketa* deritzana –"configuration accentuelle"– (12). Beste moduz esanda, funtzio kontrastibo horregatik, marko bateko unitate azentugarri guztiek –gailendurik daudenek ez ez daudenek– moldatzen dute azentu-itxuraketa. Euskal azentuaz arduratzean, konzeptu hau ere zaindu beharko da, nahiz eta gure estudioetan berria izan. Laburki esateko, azentuaren azterketa batek finkatu behar ditu:

a) unitate azentugarria: silaba? mora?

b) azentuak bereziki erabiltzen duen parametroa (indarrak doinua eta iraupena dakarrela kontutan edukiz).

d) azentudun unitatea: hitza? hitz-taldea?

1.2. ENTONAZIOA

Entonazioaren funtzioa ez da azentuarena. Entonazioak ez du kontrasterik bilatzen hitz batetan, ez eta hitz-talde batetan. Entonazioaren bidez, eta hau hizkuntza guztietan, perpausen motak bereizten ditugu. Esan gabe doa, hizkuntza guztietatko hiztunok zenbait bide dugula benetako zalantza (ala sasi-zalantza) batetan garela adierazteko, "deklarazio" bat (baiezkoa edo ezezkoa) bat egiten ari garela adierazteko edo agindu bat ematen ari garela komunikatzeko. Baina ditugun hiru perpaus-motak, hitzek soilik ez dituzte beti bereizten. Sarritan eta, batez ere, ahozko erregistroan, hitzek (eta hemen hitz-ordena ere sartu behar) egiten ez duena, entonazioak, hain zuzen, egiten du. Adibide batez baliotuko naiz: Frantsesezko honelako hitzen kate bat

/ qui vois-tu Marie / eta, bada ez bada ere, aurreratu nahi dut / qui tu vois Marie / ordenarekin gauza bera izango litzatekela, hiru perpaus izan daitezke:

(12) "Configuration accentuelle" itzultzeko hitzok Mitxelena jaunak proposatu dizkit eta, hemendik, eskertu nahi diot.

1) / Qui vois-tu, Marie? /
2) / Qui vois-tu? Marie? /
3) / Qui vois-tu? Marie. /

eta, Ingelesezkoari bardin gertatzen zaio:

/what do you say Mary /

1') / What do you say, Mary? /
2') / What do you say? Mary? /
3') / What do you say? Mary. /

edo Gaztelerazkoari:

/ que dices Mary/

1") / Qué dices, Mary? /
2") / Qué dices? Mary? /
3") / Qué dices? Mary. /

eta baita ere Euskarazkoari:

/ zer esan duzu Miren /

1"') / Zer esan duzu, Miren? /
2"') / Zer esan duzu? Miren? /
3"') / Zer esan duzu? Miren. /

Kasu guztietan, honako honetaz ohar gaitezke: perpaus-mota bakoitzari dagokion entonazioa jartzen ez dugun bitartean, *ez dago mezurik.* Beste zerbait gehiago erakusten digute goiko adibideek: mezu desberdinak adierazteko, perpausaren *zati baten doinua* aldatu behar dela.

Ikuspundu honetatik, entonazioa fonologiari dagokio, nahiz eta hiztunen artean errealizazio bat baino gehiago agiri: funtsez, baina, hizkuntza baten barruan guztiok eskema berdin batzuk gordetzen ditugu. Askotan gainera, eta problemari oso "grosso modo" begiratuz, eskema minimo batzuk hizkuntza desberdinetan aurkitzen dira. Honela, aipatutako adibidei buruzko kurbak, gutxi gorabehera, hauek izango lirateke:

1) Lau hizkuntzetan: zati bi ditugu; lehena goitik behera doala eta eten ahul bat izan eta gero, bigarrena gorantzeko joera bat duelarik, sostengitzen da:



2) Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera joan eta gero, eten handiago bat dugu eta bigarren zatia behetik zeharo gora doalarik (ingelesez erditik gora):



3) Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera; eten handi bat (onartu behar dugu hemen bi hiztunek hartzen dutela hitza) eta bigarren zatia goitik behera zalantzarik gabe (13):



Ohar interesgarri batzuk atera daitezke hemendik:

a) entonazioaren markoa ez da azentuarena. Entonazioak perpausa du markoa.

b) erabiltzen den parametroa doinua da beti.

d) perpausaren barruan entonazio-talde batzuk sortzen dira, askotan joera oposatua dutelarik; hau da, esaterako, "deklaratibo" perpausaren kasua, tema ta remari dagozkien kurbak konsideratzen direnean, batez ere.

2. Hipotesiak

2.1. AZENTUA

Goian jaso ditudan galderei erantzuten saiatuko naiz:

a) espektrogramei esker, euskararen unitate azentugarria silaba dela eta ez mora ikus daiteke. Euskararen azentua doinuzkoa zela hain sarritan aipatua izan delako, eta orain dela gutxi:

---

(13) Hizkuntza desberdin batzuetan, funtsezko eskema batzuk gordetzen direla ikusteko, cf. adibidez, A. DI CRISTO: "L'enseignement de l'intonation franoaise: exercices structuraux pour la classe", in *Le Français dans le Monde,* 80; 10-16 orr. eta ibid. ibid. 82; 16-21 orr., edo R. GEFFROY: "Les tableaux structuraux et l'enseignement de la grammaire", in *ibid.* 82; 25-31 orr.; edo P. DELATTRE: "L'intonation par les oppositions" in *ibid. ibid.,* 64; Paris, 1971 eta azkenez aipatutakoa, 1969. Ikus daiteke, baita ere, G. FAURE "L'intonation et l'identification des sons dans la chaîne parlée", in *Proc. IV International Congress of Phonetics* Sciences, Helsinki, 1961.

"(...) differential pitch rather than stress is the primary manifestation of this accent" (14)

unitate azentugarria mora zela suma zitekeen. Zalantza hau argitzeko, espektrogramez gainera beste bide bat erabili dudala esan beharrean nago. Jakina denez eta B. MALMBERGek erakutsi duenez, sueko-k mora du unitate azentugarria. Hortaz, Suetziatar lagun bati —euskalduna ere dena— bere hiskuntzaz grabazio bat eskatu nion eta bien artean euskarazko eta suekozko grabazioak konparatu genituen. Suekoan entzuten ziren silaben barruan etenak ez ziren euskaraz entzuten (15).

b) silaba bat gailentzeko erabiltzen den parametroa *indarra* da espektrogramen azterketek erakusten dutenez. Doinuaz, geroago arduratuko naiz. Eta iraupenari dagokionez, fonemen azterketak argitzen duena ohartzen da: iraupena ez da hatz bereizgarri bat, beste hatzek, automatikoki, ekarritako bat baino (16).

Jakina, Paul GARDEk dioenez, belarrira parametro guztiak "en vrac" etortzen zaizkigu (17) eta, makinarik gabe, ez da erraz jakiten zein den parametrorik nagusiena. Halere, batzueten, gure gramatikoek "juzgatu" egin dute euskal azentua "ona" vs. "txarra" izan behar balitz bezala. AZKUEk, esaterako, zenbait euskalkiren azentuaz ari denean aitortzen du:

"El dialecto suletino y en la variedad altonabarra de Bortzarieta (...) tiene la misma intensidad que en español, con la diferencia de que los suletinos cargan su *extraño* acento en la penúltima sílaba, por lo general, mientras que los navarros de la citada comarca tienen lo mismo que en castellano vocablos agudos, graves y esdrújulos (...) *Afortunadamente,* es muy otro el acento *tónico* en otros dialectos y subdialectos vascos" —nik azpimarratua (18).

Gaur egun, honelako ideologiak —zientziarekin zer ikusirik ez dutenak— gainditu ditugula, espero behar.

d) ri erantzuteko —hau da, azentuaren markoari buruzko galderari— jarraitu diodan taktikaz hitz bi esan behar aurretik.

Beste herrietan, beste hizkuntzetarako egiten duten bezala, hitz baten azentua aurkitzeko, baldintza batzuk kontutan eduki behar dira. Esaterako,

---

(14) W. H. JACOBSEN: "Nominative-Ergative Syncretism in Basque", in *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo,* VI, San Sebastián, 1972, 67-109 orr., 79 ber.

(15) Aspalditik, gure ikastola batetan lan-egiten ari den Margareta ALMGREN nire adiskedeari eskerrak eman behar eta nahi dizkiot bere laguntzagatik.

(16) Honetaz, cf. adibidez: Karmele ROTAETXE: "Interpretación silábica en la lengua vasca" in *Estudios ofrecidos a Emilio ALARCOS LLORACH,* V, Universidad de Oviedo, 1980. Lan honetan, *la*(tza) / *laa*(tza) oposizioa aztertu dut eta bigarren *laa* zatiak bi silaba dituela agertzen da, espektrograma batzuen esker.

(17) P. GARDE. Op. cit. in (8), 52 orr.

(18) R. M. de AZKUE. Op. cit. in (7), 283-284 orr.

delako hitza kontesto berezi batetan sartu behar da, balio metalinguistiko bat emateko asmoz eta entonazioaren efektutik at uzteko. Perpaus "ad hoc" honetan, interesatzen den hitzak hartu behar duen lekurik onena erdikoa omen da. Honela egiten dute bai Pariseko "Institut de Phonétique", bai Madrideko "Consejo Superior de Investigaciones Científicas" diren lekuetan, behintzat. Nik antolatu nituen inkestetan (19) hau zen kontestoa: / Ostabe... diñot /. Jakina, intesatzen zitzaidan unitatea mugaturik geratzen zen horrelako kontesto batetan, baina entonazio gabeturik (20). Pentsa daiteke baina, aktualizatzailea edo artikuloa, hau da *-a,* enklitiko delako (eta Bizkaieraz ere enklitiko dugu atzizkia erabiltzean), berez azentugabeturik dela, enklitiko guztiak bezala. Espektrogramen azterketek erakusten zuten *hitz*aren (edo *base*aren) silaba bat beste bat baino gailenduagoa zela. Gainera, intentsitateen kurbek gailentze hori *indarrak* ekarritakoa zela erakusten zuten. Eta, gailentze hori azentua zelako, indar-azentua zela sinestu behar da. Ondorio berberera heldu ginien belarriz interpretatu genituen azterketen bidez (21).

Bidenabar, eta honetan datza nire iker-lanaren alderik interesgarriena, honetaz ohartu naiz: *singularrean,* artikuloa kokatzen den silaba altua da; silaba horren frekuentziaren armonikoak gorantz doaz, nahiz eta indarra handitu gabe. Horrek esan nahi du, nire ustez, silaba horretan *azentu-oihartzun* bat dugula eta oihartzun hori *doinuaren* bitartez lortzen dela.

Interpretazio honen alde, zera dugu: bisilabadun homofono batzuk indar-azentuaren lekuagatik bereizten dira: báso/basó edo txístu/txistú etab. (22).

Eta, nire hipotesian, bi silaba baino gehiago dituzten unitateetan, *azentua duen silabatik eskumaldera, doinua mantengitzen da.* Horregatik, nire ustez, entzuten dugu / adiskide / edo / lengusina / edo / batasuna / edo / aurrerakada/ eta ez dugu inoiz ere entzuten / adiskide / ez eta /adiskide / ez eta / adiskidé /. Eta horregatik ez dugu entzuten (behar bada eta zoritxarrez ikasgela batzueten ez ezik) / batasúna /, / aurrerakáda /; baina arrazoi berberagatik —doinua mantengitzen ez dutelako— euskara entzuteaz ohiturik ez daudenengandik entzuten da maiz / Euskadiko Ezkerra / eta mila eta mila antzeko adibideak.

---

(19) Karmele ROTAETXE: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* & 2. (2.1. eta 2.2.), L. Zugaza, Durango, 1978.

(20) K. MITXELENAren eritzia ezagutzeko, cf. bere lan berri hau "Mintzagaia eta Galdegaia Euskaraz", & 2, fotokopiaturik, 1980.

(21) Inkesta guztia interpretatzean, adiskide dudan Arantza ANUNTZITAk —Bilboko Orkesta Sinfonikaren 1n. Bibolina denak— laguntza baliotsu bat eskeini zidala adierazi behar dut. Lerro hauetatik, bihotzez eskertzen diot.

(22) Adibide hauetan ibili ditudan azentuaren signoak guztiz konbentzionalki ulertu behar dira, gailentzeak honelako azentu grafiko baten bitartez (´) adierazi baititut. Ortografiari dagozkion azentu-erregelen proposamendu baterako, cf. Karmele ROTAETXE, op. cit. in (19) & 4 eta 4.2 ber.: "Términos marcados y notaciones acentuales".

Ohar honek esan nahi du delako azentu-oihartzuna zabal daitekela *"sapalda"* batetan (plateau accentuel), azentudun silabatik eskumara. Eta hipotesi hau zuzena izanez gero, hobeto uler daiteke —eta justifika daiteke— zergaitik hain sarritan aipatu den euskal azentua doinuzkoa zela eta zergaitik ALTUBEk, adibidez, esan zuen:

"la palabra vasca es impulsivamente isotónica, o sea que todas las sílabas se pronuncian con igual fuerza impulsiva" (23)

edo

"(...) la definición del acento euskérico: en este idioma, el tono de las palabras aisladas normalmente pronunciadas es de una uniformidad casi absoluta" (24).

Nire ustez, indar-azentua duen silabak eta doinua mantengintzen duten hurrengo silabek (eskumaldekoan direnak) ematen diote entzuleari —guztien artean— *azentu-itxuraketa*. Globalki konsideratzen —eta entzuten— itxuraketa horretan, doinuak duen balioa handia da, sortzen diren oihartzunakatik. Gainera, ohar daiteke azentu-oihartzuna sapalda bat bezala errealizatzen delarik, unitate batetik bestera zabal daitekela, azentudun hitz-talde bat emateko. Hau gertatzen da izena eta izen-lagun atributoren artean, adibidez. Hurrengo sintagmak / ume ona / edo / etxe ederra / etenik gabe entzuten dira normalki eta *-mé-* edo *-txé-* silabetatik aurrera doinua geratzen da / uméóná / eta / etxédérrá / emateko.

Nahiz eta inguruko hizkuntzetan azentu-oihartzun fenomenu hau ez gertatu, errusieran gertatzen omen da eta japonieran, adibidiz, antzeko gauza bat dugu kontrako sapalda bat izanik. Bainera, eta guretzat harrigarria ez da, japonierari buruz ere —euskarari buruz bezala— askotan esan da azenturik ez zeukala (25).

Azaldu dudan fenomenua —*oihartzuna*— nire datuekin *ez da pluralean gertatzen*. Hau da, pluralizatzailea °g, hitz baten egituran sartu eta gero, jesartzen den silabaren armonikoak *beherantz* doaz, espektrogramek erakusten dutenez. Azentuari dagokionez, morfema honek oso efektu berezi eta garrantzitsu bat duela esan daiteke, hemengo euskalkietan behintzat. Enklitiko delako azentu gabeko izanik, bi bereiztasun ditu: alde batetik, ez du azentu-oihartzunik hartzen eta, Ondarroan

---

(23) ALTUBE taŕ Seber: *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de D. Resurrección M. de Azkue*. Euskeratik atera izan zuena, Bermeo, 1934.

(24) ALTUBE taŕ Seber, op. cit. in (6), 21 orr.

(25) E. Polivanov: "La perception des sons d'une langue étrangère", in TCLP, 4, 79-98 orr. Iker-lan horretan argi ta garbi egileak dio: "La conviction régnait chez les savants russes qu'en japonais il n'y avait pas d'accent du tout", 87 orr. cf., bestalde, nire hipotesia hobeto ulertzeko N. S. TRUBEZKOY-ek dioena MIE-ko (Nagasaki-n) euskalki japonesari buruz: "La mise en relief accentuelle peut embrasser toute une suite de prosodèmes, de sorte que cette série de prosodèmes peut éventuellement former un mot tout entier", op. cit. in (9), 218 orr.

behintzat, hitzaren azentua, bera, atzeratu egiten du, aurreko silabara bidaliz: *etxé* (mugagb.) eta *etxí* (abs. sing.) baina *étxik* (abs. plur.), *etxík* (erg. sing.) baina *étxik* (erg. plur.) edo *onék* (erg. sing.) / *ónek* (abs. eta erg. plur.), etab.

Hortaz, pentsa behar da azentu-itxuraketa morfologiarekin loturik dagoela eta azentu-markoa finkatzeko morfema bakoitzaren efektua kontutan eduki beharrean gaudela. Arrazoia hau da: base bati lotzen zaizkion formanteak edo morfemak atzizkiak direlarik, bakoitzaren efektuak alda dezake hitz-taldearen muga eta azentu-itxuraketa. Nik egin dudan formanteen banaketaz —azentuari begiratuz— izen forma lotuta batetan sartzen direnek ez dute efektu berdinik (26).

Hitz batez, hona nire hipotesiak:

— unitate azentugarria silaba da.

— euskal azentua indarrezkoa da.

— azentu-oihartzun bat agertzen da, doinuaren bitartez, azentudun silabatik eskumara, eta oihartzun hau sapalda batetan zabal daiteke.

— forma lotuetan, pluralizatzailea °g agertzen denean —hau da pluralezko forma guztietan— °g horren silabak ez du oihartzunik hartzen eta bere eskuman dauden silabek ere ez (esan gabe doa, nire ustez edozein pluraleko forma loturen egitura honela da: °Base-a-g-morfemak...).

— bisilabadun hitzetan, °g-ren efektu atonizatzaileak hitzaren azentua atzera bidal dezake: / etxéá / -hitzak bigarren silaban azentua dakar eta hirugarrenean oihartzuna, baina / étxeak /.

— euskaran, azentuaren markoa hitz-talde bat izan daiteke beti eta lexikoaren unitate desberdinen artean sor daiteke talde hori, sintagma baten barruan: ume ona ahozkatzen da normalki / uméóná /.

— bestalde eta hitz-taldeari buruz, gure hizkuntzan, *etenek* pentsatu den baino askoz garrantzi handiago bat dutela onartu behar da —entonazioaren etenak? edota azentu-taldearen etenak? (27).

2.2. ENTONAZIOA

Nire azterketan aurkitu ditudan kurbak beste hizkuntzetarako aurkezten direnekin paretan jarrita, ez da alde handirik ikusten. Funtsezko eskemak,

(26) Cf. Karmele ROTAETXE, *op. cit.*, in (19) & 4 eta 4.1 ber. "Clasificación acentual de los morfemas".

(27) Karmele ROTAETXE, *ibid. ibid.* Conclusión, 689 orr.

gutxi gora-behera, geratzen dira deklarazio bat egiteko, galdera bat egiteko edo agindu bat emateko. Dena dela, ohar bat egin behar da euskararen entonazioari buruz: Ondarroan hartu nituen datuetan, galdegaia eta aditzaren artean *etenik ez dago inoiz,* bi unitateek talde ritmiko bat egiten baitute. Ondarroako perpaus honetan: / sapatun beran aitaz zinea du /, hau da "larunbatean ber aitarekin zinera doa" (28) eten bat ohartzen da / sapatun / eta / berenaitaz / unitateen artean, txikiago edo handiagoa izan daitekena, erritmoari begiratuz. Eta / beranaitaz / eta /zineadu / unitateen arteko etena derrigorrezkoa dela nire ustez, perpausaren zati nagusi bi bereizteko. Baina / *zineadu* / *talde bat delako,* / zinea / eta / du / -ren artean ez da etenik kabitzen. Gauza bera ohar daiteke / Juan Etxebarria Ondarrun bizi re / perpausa entzuten denean: etenik bakarra / Juan Etxebarria / esan eta gero dator, besterik izan gabe. Ez da harritzekoa: entonazioaren zatiak –eta hauek ekartzen dituzte etenak– hiztunak komunikatzen duenekin lotuta doaz eta, alde hortatik, *galdegaia tematik at delarik, remaren zati bat izan behar dela* dirudi. Pundu honetaz, K. MITXELENAren egin berri duen txosten batetan irakur daiteke:

> "Galdegaia (...) horixe da (...) informazio berria daraman edo dakarren perpausaren zatia" (29).

Badirudi ere, eta hau oso "grosso modo" harturik, entonazioaren gorabeherak ez direla, gure hizkuntzan, oso markaturik. Interesatzen dena, halere, aldaketak eta etenak dira. Zehatz eta mehatz ez ditut hemen kurba-mota guztiak aurkeztuko, nire ideaik argitaraturik egon baitira (30).Batzuetan, soilik, gelditukо naiz:

a) *Perpaus asertiboa*

Nire hipotesian, dugun kurbak bi zati ditu: lehena, gorantz doana (tema) eta bigarrena (rema) beherantz oso doinu graberik hartu barik:

/ gaur goizean ≠≠ erosketa egin dut /, galdegaia / gaur goizean / izango balitz, banaketa honela izango litzateke:
/ erosketa ≠≠ gaur goizean egin dut /.

Kasu bietan, lehen zatia gorantz doa eta bigarrena beherantz, eten bat izan eta gero, gutxi gorabehera:



(28) Karmele ROTAETXE, *ibid. ibid.* & 2.2. 181-188 orr.
(29) K. MITXELENA, op. cit. in (20), & 7.
(30) Karmele ROTAETXE, op. cit. in (19), & 2.2.

Eta, honelako zati batzuen barruan, zenbait hedatze sar daitezke: izensintagmari dagokionez, esaterako, erlatiboa hedatzea da. Orduan, eta printzipioz, erlatiboa eta dagokion sintagmaren artean ez dago etenik. Hau erlatibo determinatiboetan argi eta garbi entzun daiteke. Baina, erlatiboa apositiboa denean —eta nire ustez, honelako erlatiboak ere euskaran eduki ditzakegu— eten txiki bat egin daiteke. Adibidez, eta ≠≠ eten nagusia ≠ eten txikiago bat adieraziz, honelako etenak (eta melodiaren aldaketak) ditugu:

/ erosi doten orixu ≠≠ txarra da /, /erosidotenorixu / talde bat izanik, edo

/dendanerosidotenorixu ≠≠ txarra da /, lehen taldea / dendanerosidotenorixu, /, izanik. Baina,

/horko orixu ≠ neuk erosi dotena ≠≠ txarra da /, /neuk erosi dotena / erlatibo apositiboa izanez.

Enumerazioetan, zera ohartzen da: sintagma bakoitzaren artean etenak izaten dira, melodia bat errepikatuz eta perpaus asertibo guztietan bezala, etenik handienak zati bi ematen dizkigu:

Ondarroako:

/ oxige ≠ esni ≠ azukri ≠ ta orixu ≠≠ dana karotu re /, eta beste hau

/ ogia ≠ ardoa ≠ okela ≠≠ dena gustaten zait /,
kurbari, eskemari dagokionez gauza bera dira:

(31)

b) *Galderak:*

b.1. Zuzenak izaten direnean, kurba behetik gora doa. Ondarroatik kanpo, entzun daiteke eta entzuten da:

/ kaferik hartuko duzu? /, honelako kurbari moldaturik:

(31) Perpaus deklaratiboen burba hauetan zera ikus daiteke: kurbaren gailur handiena ez dagokio temari edo —Mitxelenaren terminologiari jarraituz— mintzagaiari, baizik eta *remari* edo *galdegaiari;* goiko kurba honetan, kasuz, *dena* da unitaterik altuena. Honetaz, gure eskemak Heles CONTRERASek aipatzen duenekin ados daude: "por la colocación de la cima melódica que la unidad comunicativa "nueva" que quiere traer a la conciencia...", cf. H. CONTRERAS: *El orden de palabras en español,* Madrid, 1978, 17 orr.

b.2. Galderezko morfema batekin hasten diren perpausak, beste hizkuntzetan bezala, doinuaren gailurra morfema horretan egoten da. Euskaraz, nire ustez, kurba, geroago, beherantz dator baina azkenengo zatia ez doa oso behera:

/ Nora zoaz? /, / Zer nahi duzu? / etab.

b.3. Zehar galdera:

Nahiz Ondarroako:

/ preuntateoste ≠≠ zeinden Jon / perpausean, nahiz

/ galdetu didate nor den Jon / beste honetan eskema bera ikus daiteke. Zati bi ditugu: lehena goitik behera, etena eta gero bigarrena behetik gora baina galdera zuzenean baino beheago gelditzen da.



d. Azkenez, *esklamazio*koek eta *agintze*ko perpausek goitik beherako kurbak dituzte:

/ Etorri hona! /

edo Ondarroako hau:

/ Zelako txikixe! /

3. Konklusioak

Oker ez banago, ni izan naiz lehenbizikoa euskal entonaziozko kurbak presentatu ditudana. Eta, Ondarroako materialaren bitartez delako kurbak

eratu nituelako, ahaleginak egin ditut geroago, Ondarroatik kanpo neure eskemak konprobatzeko. Nire ustez, Ondarroatik at ere aurkeztu ditudan kurbak balio dute. Gainera, pundu honetaz ezer ekartzekotan, nire iker-lanak hari gidari bat ekarri du, horrelako inkesta batzuk aurrera eramateko. Baina, dakidanez, inork ez du beste kurbarik aurkeztu. Eta behar-beharrezkoak ditugu alor bitan behintzat.

Alde batetik, nire ustez sakondu beharko litzateke entonazioetenen eta azentu-taldeen arteko harremanetan, teoria mailan. Adibidez, neure hipotesiaz, perpausaren barruan, azentudun silabak mantengitzen dira; ez dira, baina, beti mantengitzen azentu-oihartzunak, melodiaren barruan sartu ta gero. Suposa daiteken arrazoia hau da: biek, oihartzunek eta melodiaren aldaketek doinua erabiltzen dute.

Beste alde batetik, eta behar bada interesgarriena zaigu gaur, premiazkoena delako, entonazioa *irakaskuntzara* eraman dehar dela bistan dago. Hau da, *linguistika orokor* mailan egiten dena kontutan edukiz, *euskal entonazio*ari buruzko lortzen diren ondorioak *linguistika aplikatura* eraman behar dira, lehen bai lehen. Batek baino gehiagok esan dugu euskara hiskuntza bizi bat baldin bada, liburuen bitartez bakarrik ezin dela irakatsi ez eta ikasi. Hitz-egitea eta hitzak egitea ez da gauza bera. Eta, hitz-egiteko, *entzun* behar da lehenbizikoz: ez, baina, hitz sakabanaturik baizik eta entonazioak perpausari ematen dion *melodia* (ritmoa, eten-motak etab, sarturik). Beste hizkuntzetarako ikasleek duten materiala, gureak ere eduki behar dute: gutxietxienez, metodoetan agertzen diren perpausak *kurbekin* etorri beharko lirateke. Bitartean, irakasleok arbelean jarri dezakegu perpaus bakoitzari komeni zaion kurba. Nik neuk euskara irakastean, beste hizkuntza bat irakastean bezala, horrela egin dut eta ikaslei laguntza handi bat izaten zaiela konturatu naiz. Noski, beste hizkuntza bizi batzuen irakaskuntzaz ohiturik gaudenok ez dugu inola ere ulertzen ahozko hizkuntzatik kanpo hizkuntza baten irakastea.

Bigarren helburu hau lortzeko, lehenari begiratu behar. Esaterako, orain urte bi ta gehiago proposatu nituen kurbek, onarturik edo arbuiaturik geratzeko, kritika bat eskatzen dute, batez ere irakaskuntzaz arduratzen diren lagunen artean kezka bat sortzeko.

Hori gertatzen ez den bitartean, irakaskuntzan entonazioa sartzen ez den bitartean, nolako ikasle irtengo dira (behar bada irtetzen ari dira) ikasgeletatik: euskaldunak ala liburuxkoak?

* * *

Azentuari buruz, zer esan? Euskal gramatiken historiaren zehar, pundu zailenetariko bat agertzen da beti azentua. Eta onartu behar da Euskal-Herriko leku guztietako azentua ez dela gauza bera; W. H. JACOBSEN-ek erakutsi duenez (32), euskal azentuari begiratuz, hizkera mota bi ditugu:

(32) W. H. JACOBSEN, op. cit. in (14).

azentuaren bitartez singularra eta plurala bereiztuten dituztenak eta bereiztuten ez dituztenak. Proposatu (eta hemen proposatzen) dudan hipotesia lehenengo motari dagokio; teoria mailan, baina, nahiko zabala da zenbait moldaketa onartzeko. Bere alde zerbait dakar: "falseable" baita (33), edo, beste modu batez esanda, edonork presupuesto desberdinen bitartez, beste teoria bat adierazi dezake. Eta hau ere premiazkoa da (34). Hain zuzen, *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* agertu eta gero, aldizkari internazional batek artikulu bat eskatu zidan, euskal azentuaz. Eta, 1978 an *La Linguistique* aldizkariak "L'accent basque (Observations et Hypothèses)" argitaratu zuen (35). Artikulu hori zabaldu da gero, Ameriketako COUNCIL OF ABSTRACTS SERVICES delakoak "abstract" bat eskatu zidan *Language and Language Behavior Abstracts* delakoan agertzeko (36). Linguistikaz arduratzen garenei "Abstract" bat edukitzea ohore zaigu, zeren horrelako laburpenak 55 herrialdetan zehar zabaltzen dira. Baina bitartean, hemen, gure herrian, gure artean, inork ez du ezer esan aurkeztu nituen hipotesiei buruz. Eta, jakina denez, kritikarik gabe, ez dago benetako zientziarik, ez eta jarraitzeko akulurik.

Egia esan, inon ere ixiltasun-taktika komenigarria izaten ezbada, gure mundu kultural txiki honetan askoz ere gutxiago: hemen egitea dena, geuk, behintzat, kontutan hartu behar dugu, dagoen lekutik atera behar dugu, neurtu behar dugu, geuri batez ere dagokigulako... Itxaropen honetan, eskerrak eman nahi dizkizuet; eta, euskarazko edota euskarari buruzko hitzaldiak amaitzen direnean ohitura den bezala: "gaizki esanak, barkatu".

---

(33) Geroago, hain sarritan erabili den nozio hau edo, behar bada hobeto dena, *hitz* hau Karl R. POPPERen hiztegitik datorkigu, ingelesezko "falsify"-tik, hain zuzen, Gazteleraz, "falseable" geratu eta finkatu da; frantsesezko itzulpenerako, baina, egileak berak aitortu zuenez, "réfutable" nahiago izan zuen. Cf. Karl R. POPPER *Objective knowledge,* 1972 eta Catherine Bastyns-ek egindako frants. itzulpena: *La connaissance objective,* Bruxelles, 1978.

(34) Orain dela gutxi agertu den artikuku batetan (Bermioko euskarari buruz), hitzek azentu grafiko bat daramate (cf. Anton ERKOREKA "Gorputz izenak", in *Fontes Linguae Vasconum,* 31, en.-abril 1979, 51-58 orr.) Beste alde batetik, Imanol LASPIUR-ek argitaratu berri du "Azentu diakritikoa Eibarko Euskaran", in *Euskera,* XXIV (2. aldia), 1979, 175-268 orr. Egile hoiek kokatzen edo proposatzen dituzten azentuaren lekua eta nire hipotesiak, gehien bat, ados daudela esango nuke. Baina gure oinarriak zeharo desberdinak direlarik, benetako konparaketa bat zaila bihurtzen da. Batez ere, nire hipotesian, nahitaez kontutan eduki behar dira azentu-oihartzunak, azentu-itxuraketa adierazteko. Eta, jakina, bereizitasun hau izaten ez duten hizkuntzetatik ezin har dezakegu eredurik, euskal ortografiarako (cf. pundu honetaz, nik proposatzen dudana in (19) & 4).

(35) Karmele ROTAETXE: "L'accent basque. Observations et hypothèses", in *La Linguistique,* 14/2, Paris, New-York, 1978, 55-77 orr.

(36) Karmele ROTAETXE: "L'accent basque" ABSTRACT, in *Language and Language Bahavior Abstracts,* Vol. 13 & 4 - San Diego, California. 1980.

HITZ KONPOSAKERAREN ZENBAIT FENOMENO FONETIKO

Donostia, 1980-XI-28

Luis Mari Mujika

Aldaketa fonetikoak hitz konposakeran

Euskal lexiko-arloa erromantzeena baino konplexuagoa dela uste dugu, fonetikari dagokionez behintzat. Oraindik orain, gaurko euskarak aspaldiko konstanteak mantentzen ditu gehienetan, eta hori nabarmena da toponimiari eta tradizioari begiratzen badiogu. Alabainan, batzutan urradurak edo erosioak ere eginak ditu bere kalteak.

Ondoren, prezeskiago, gure lexikoaren zenbait fenomeno fonetikoz mintzatuko gara. Hau garrantzitsua da lexikografia tekniko berria taxuz eraikitzeko, ezen-eta gaurko aportazioek kontutan eduki behar dute hizkuntzaren tradizioa, euskara bera saldua senti ez dadin.

1. *Hitz-konposakeran eraskinak.*

Eraskinek (adiciones) hitz-konposakeran deribazioko funtzio bera dute, hau da, elementu laburregiak lotzeko eginkizuna, nolabait kontsonante-talde gogorregien artean halako eufonia sor dadin.

Epentesiaren fenomenoak hemen ere bere jarraipena du, nahiz-eta intzidentzia apalagoaz.

Hurrengo konposatuok, kurioski, T. epentesia daramate eta beste batzuek -TE infinitabalaren hondarra:

jaioTetxe B, G: casa de nacimiento
ikasTetxe c.: colegio
ikusTaldi c.: visita
jaTaurre B.: antes de comer
jaioTerri B, G.: pueblo de origen
suTondo c.: fogón, junto al fuego
sorTalde AN.: oriente, este
sarTalde B, G.: occidente, oeste
beTerri G.: región baja
suTarri BN, R.: cuarzo

jaioTetxe B, G.: casa natal
jaiTegi AN.: lugar de nacimiento

epentetika ematean:

jaTaurre B (ja-TE-aurre): antes de comer
jaTetxe (ja-TE-etxe): restaurante
jaTontzi (Azkue) (ja-TE-ontzi): cazuela
ekiTaldi B. (eki-TE-aldi): ejercicio
egoTaro B. (ego-TE-aro) estancia/descanso
egoTaldi (Ego-TE-aldi): c. estancia
jaTordu B. (Ja-TE-ordu): hora de comer

K epentesia:

zakurKume G.: perrito, cachorro
etxeKonde B.: casita
kataKume B, G. gatito
arKume AN, B, G.: cordero

Kasu batzutan K, epentesia ordez -KO deklinatiboaren hondarra izan daiteke: goikalde (goiko-alde), sorkalde (sor(tze)ko-alde, eta, probableki, ere bai sukalde (suko-alde) hitzean.

2. *Fonema batzuen kenketa.*

Konposatuetan lehen konposagaiaren azken-fonema galtzea oso ohizko fenomenoa da gurean. Aski da, beraz, gure edozein hiztegira edo-ta gure toponimiara begiratzea. *Bi silabatik* gorako erroetan azken bokalaren elisioa oso maizko gauza da.

Fenomeno hortan zerikusi dezake, nolabait, alde fonikoak; beraz, mintzatzaileak konposatuetan elkarpen azentua (paratonikoa, adibidez) bigarren konposagaiko silabatara korritzen du, elementu erantsien funtzioa nagusituaz. Honela *basa* hitzak azkenaurreko intentsitate leuna *baserri, basurde, basabera* eta horrelakoetan bigarren elementura pasatzen du nolabait: *baserri, bas-urde, basabere.* Korrimendu edo lerradura fonikoak lehenendo konposagaiaren azken bokalearen erorketa sor dezake (basa/*bas:* bas-erri *harri/-kar* = harlandu) Konposatuetan bigarren konposagaiak intentsitate foniko larriagoa du. Beraz, *astoa* hitz bakanak *o* bokalean duen intentsitatea *astamenda* kasuan, lehen konposagai bilakatzean, azentu proklitikoa enklitikoa egiten da (astoa-tik *astamenda*-ra).

Lehen konposagai bisilabadun, hirusilabadun eta gorakoen azken bokalea eliditzeaz aparte (iturri / *itur*, harri / *har, burdina / burdin*) gerta daitezke beste erorketa eta aldaketa konplexuagoak. -DI, -GI, -GE, -RI kasutan bezala, aldaketa fonetiko bereziak sortzen dira. HARAGI hitzak, adibidez, HARAT / ematen du konposakeran, ERREGE hitzak ERRET, ZOHI hitzak ZOT, etab.

Dudarik gabe, kontsonantez amaituriko lehen konposagaiak ez dute hainbeste problemarik hurrengoarekin lotzeko bokaleaz hasten bada (honela: puTZ / putzontzi, HamaR / hamarratz, hil / hilotz (cadáver), etab.

Hona hitz-konposatuak, zeinetan azken bokalea erortzen dena:

herrI / ergoien B.: barrio alto
herrI / erbeste B, G.: destierro, tierra extraña
erhI / erpuru Bn.: yema de dedos
harrI / harlandu B, G.: piedra labrada
burdinA / burdinsarda BN.: horca
laminA / laminiturri (Top. Ojacastro-n Errioxa Garaian)
harrI / harkaitz BN / G, L, S.: roca
anaiA / anaitasunA
iturrI / iturgoien (Herria Nafarroan, Goñi)
iturrI / iturmendi (Top.)
eztarrI / eztartzulo G. fauces
kanpaiA / kanpantorre B, G.: campanario
ardanO / ardanbera G.: madre de líquido
neurrI / neurraldi AN.: medición
orrI / orbela AN, B, G.: hojarasca
itsasO / itsastxakur B.: nutria
zintzarrI / zintzarrots AN, G. sonido de cencerro

Bokalearen erorketa berdina hitz deribatuetan ere eman daiteke anaiA / *anaitasun*, ala egiA / *egitasun* kasuan.

Lehen konposagai bisilabadun eta goragoekoetan bokale-erorketa normala da; hala ere, -ETA eta -AGA atzizkiez toponimian ez da hori gehienetan gertatzen (harrI / harrIeta, harrIaga, iturrI / iturrIeta / iturrIaga (AltziturrIeta, Ataun-go baserria).

Zenbait konposagai berezik ere ez du galtzen gehienetan azken bokalea; adibidez, *zori uri / iri, aldi* eta horrelako batzuk. Beste kasutan eman daiteke alternantzia: burUzut / burtzoro, orriburu, orbel, burUkide / burkide B.ark Bn, R.

Elisiozko adibideak heda daitezke erruz oraindik. Hona beste batzuk:

esI / espilla AN (Ataun-go baserria): cercado de seto
esI / esparru / esi-barru B, G.: seto, cercado
egarrI / egarbera B.: sediento
harrI / artxintxar B.: piedrecilla
harrI / arbel B, G.: pizarra
harrI / arluzea (Araba-ko herria)
errI / erbarren B.: barrio bajo
elorri / elorburu (Nafarr. herria)
elorri / elortzuri: espina albar (*elortza* deribazioan)

Salbuespen dire iturribarreta (XV mendea), iturribide (Bilbo) eta beste batzuk. Kolorga B. (incoloro) berban atzizki aurreko *e* bokalea erori da (kolor*e*).

* * *

Era berean, nahiko normala da lehen konposagaiak azken N / R fonemak galtzea; fenomeno berdina gerta daiteke deribazioan.

jakiN / jakituria B.: sabiduría
eraNtsi / eraskin B, G.: añadidura
eguN / eguarte B, G.: hasta el mediodía, entredía
eguN / eguasten B.: miércoles
edaN / edagiro AN, B, G.: tiempo de sed
izaN / izapide BN.: índole
uR / ubide AN, B.: acequia
luR / lubeltz G.: tierra negra
LuR / lugorri BN, G.: barbecho
luR / luberri AN, G. S.: campo noval
luR / lumami G.: tierra labrantía
zuR / zuhirin (Oih.): carcoma (polvo de madera)
zuR / zuhaitz BN, L, S.: árbol bravío
zuR / zubihotz S.: interior del árbol
zuR / zubeltz B.: coscoja
iztaR / iztazain BN, R, Sal.: corva
akeR / akelarre (Naf. Zugarramurdi-n)
akeR / akesolo (Bizk. deitura)
adaR / adabeso B.: rama principal
adaR / adapuru B.: cepa de árbol
adaR / adapo B.: base de rama
jaunN / jausoro (Azkoitiko deitura)
akeR / akemendi (Errezil-go hauzoa, Gip.)

UR, ZUR, LUR bezalako konposagai monosilaboekin azken R-ren erorketak eta ondorengo bokalearen topaketak H-ren akoplamendua darama maiz sortaldeko euskalkietan (BN, L, S.) eta G sartaldekoetan (B, G. AN). Hona adibide batzuk:

H-z akplamendua	*G-z akoplamendua*
zuR zuHarotz: carpintero	*zuGarotz AN*
zuR zuHaitz BN, L, S. árbol bravío	*zuGaitz G.*
zuR zuHar BN, L.: olmo	*zuGar BN, G.*
zuR zuHirin (eih.): polilla	*zuGirin B.*
uR uHarri S.: piedra de río	*uGarri B.*
uR uHaran (Duv.): depresión de río	*uGaran AN, Bn, G.*
uR uHobi (Silv. Peurr.): desembocadura	
uR uHate S.: compuerta de saetín	*uGate B, G.*
uR uHolde BN, L.: aluvión	*uGolde G.*

uR uHalde L.: torrente	*uGalde B, G.*
uR uHer BN.: turbio	*uGer An, B.*
uR uHarte: entrambasaguas	*uGarte B, G.*
luR luHartz (Silv. Pouvr.): alacrán	*LuGartz AN, B, G.*

Aldaketa antzekoa konstatatzen da (beste arrazoinez edo) honako alternantzi hauetan: zuHur BN, L. (prudente) zuGur AN, ziHur BN. (seguro) ziGur B, G. Eihara BN IGara AN, L. (molino).

Bestalde, ez da beharrezkoa adieraztea aditzak: bai atzizkiekin eta bai konposakeran -TU / DU ala *i* primitiboa galtzen duela. Arau hau konstante bat da guregan (neurTU / neur-KETA, ekarrI / ekar-KETA, ibilI / ibil-BIDE, ikusI / ikus-PEN). Hontan kolokadura bakarrak erro monosilabikoetan ematen dira: hazI / hez-BIDE / hezIbide, hasI / has-ERA / hasIera, hazI / haz-GATX B / hazIkaitz G. (persona que crece poco). Kasu hauetan ere sortaldeko euskalkien joera TU / DU, I galtzekoa da (1). Bestalde -KI -GI -RI, -DIZ-z amaituriko aditzek ezdute ezer galtzen deribazioan (erabaKI / erabaKIera, eduKI / eduKIera, ebaKI / ebaKidura (bainan, exzepzionalki ebate, ebatuna (grieta de mano) bizkaieraz). *Geltoki gelditoki* ordez gaurko ausarkeria bat dirudi.

Izen erroekin ere deribazioak antzeko elisioak dauzka, garbi dagoenez (anaiaA / anaitasun, iturrI / iturgintza, etab.).

Gaurko sorkuntza lexikalak fonetika lege hauek kontutan eduki behar lituzke. Euskaraz hitz konposakeran eta iuxtaposizioan azken bokalearen erorketa normala delerik tradizioko zenbait atzizkiak ez du oztoporik azken *a* galtzeko (-AIA (-AI) -TURA -TUR, literatur), -GINTZA (-GINTZ, etxegintz problemak) -ANTZA (-ANTZ), -KERIA / ERIA (-KERI / ERI), etab. Batez ere, gipuzkera eta bizkaieraren bokale galeraren joera (mozkorker*i*, zurike*ri* etab. konposaketaren elisio fenomenoetan datza, *artikulu beraren* nahasmenduaz aparte).

Tradizioan ez dira falta azken elisio hoiek edonon. Leizarragak Kristo hitza *Krist* formulan eliditzen du frantzes-gaskoinaren joeraz, nonbait ("Jesus-Krist"), Ubillos-ek *dotriñ* dakar *dotriña* ordez "Cristau dotriñ berriecarlea" = Gipuzkeraz berdin gertatzen da imajin (imajiña), diñ (diña), birjiñ (birjiña) hitzez.

Bide hontatik legezkoak deritzaizkigu hitz multzo edo esaldi hauen erorketa bokalikoak:

irakasKUNTZ sistema: sistema docente
fuselAI ahokadura: acoplamiento de fuselaje

---

(1) Lege honen araura partizipioa galtzen ez duen tradizioko zenbait formula okertzat edo sekundariotzat eman daiteke; sorterri BN, R. ordez *sorTUerri* BN, R. (Fr. Bartolome), pentsakizun ordez *pentsaTUkizun* (Fr. Bartolome), uzketa ordez *utzIketa* (Añib.) hemen ere erro monosilabikoa. Idazle batzutan aurkitzen den oro ez da beti jatorra izaten... SalDukeria G (salkeria ordez) eta helDUtasun erro silabakakardunaren *(sal-, hel-)* inferentziak dira.

zabalKUNTZ programaketa: programación expansiva
finANTZ kontabilitatea: contabilidad financiera
kulTUR mugimendua: movimiento cultural
vekTOR lerroa: línea vectorial

Sistema berdina erabiltzen du gipuzkerak, kasu, "mozkorkeri joera" (mozkorkeriA joera ordez) esatean, eta gaurko -IA hitz tekniko kasutan (geologi, teologi, etab.) Adibideak:

acción económica: ekonomi ekintza
estructura geológica: geologi egitura
sistema ecológico: ekologi sistema

-IKA-z amaituriko hitzak (*politika, etika, kimika*, etab.) oposiziozko izen bezala aurrejartzean elisioa nahiko eufonikoa dute. Honela: "propaganda politika" = *politIK propaganda*, "ley física" = *fisIK legea*, "función técnica" = *teknIK funtzioa*. Hitzak berak (geologiak, ekonomiak etabarrek bezala) izen bakan bezala jardutean ez dute azken *a* hori galtzen, gaur euskara *batuan* nahiko ezarria dagoen bezala.

* * *

Hemen aipatutako elisioa berrikuntza arbitrario ordez, gure fonetika tradizionalarekin akor datorren zerbait da; aski da toponimiaren jokabidea aztertzea. Beste arrazoin bat ere eman daiteke honelako elisiotarako. Esan genuen bezala, hitz konposatu eta antzekoetan aurrekaldeko intentsitate fonikoak atzekaldetara lerratzen edo korritzen du (baso / bas-erri, arto / artamakila). Horrek ere erorketak sortzen ditu, noski.

Adjetiboa konposakeran sustantibo bezala muturretik, doanean, komeni da kontutan edukitzea prezisio hau:

geologIAR, baina geologI geruza (estrato geológico)
politIKA, baina politIK ekintza (acción política)
teknIKA, baina teknIK egoera (situación técnica)
autopsIA, baina autopsI azterketa (examen autópsico)

Bestalde, esaldia oso luzea ez denean, euskarak elementu edo konposagaien loturara joko du, nahiz-eta hori bera gaztelaniaz bi hitzetan bakandurik eman. Honela, *arditurri* (fuente de ovejas, bi hitz), *errotarri* (piedra de molino, bi hitz). Era berean, ez dugu oztoporik ikusten zenbait lotura berri gaur ere egiteko laburduraren araura: *fluorargi* (luz fluorescente) adibidez, *atomoindar* (energía atómica), *gurutzargi* (luz de cruce, en coches); alabainan ez dirudi itxurazkoa: *geologikusmen* (perpectiva geológica), *antropologioinarri* (base antropológica), *nuklearkutsadura* (contagio nuclear) eta antzeko bitxikeriak, konposagaien *luzaduragatik*. Konposagaiak labur direnean ere, nahasketarik balego, hobe bereiztea. Gaztelaniaz *avutarda* (*ave tarda* etimologiaz), *bocacalle, cuentarrevoluciones, sacaperras* etab. bide hortatik doaz, baina zuhurduraz jokatuta.

Gaurko beste paratzizki tekniko zenbaitek ere -PLEGIA, -ALGIA,

-FONIA, -TROFIA, -DOXIA etab. *elisioa* har dezake. Beraz -ERIA, -IA kasutan hala izan bada hemen ere eman daiteke. Alabainan, zentzunagoak izan behar ginateke gure belarriari nolabait gogor litzaioken berrikuntza zenbaitez; hala nola, *-IST* -ISTA ordez, *ET* -ETA ordez (biziklet lasterketa), *-AT* -ATO ordez (*bikarbonat* nahasteta) etab. Hemen gaurkoa gure tradizioaz lotu behar da kontu guztiaz, fonetika gehiegi *bortxat*u gabe. Etxeko erroak eta kanpoko erroak mugapen -irizpide, askotan, izan daitezke. Beraz, ez da berdina -ARA, -ERE, -RI kasutako sinkopazioa (abERE / *abeletxe*, euskARA / euskaldun, afARI / afalondo) eta usarioz hain tradiziozko edo autoktono ez diren formula hipotetikoak *bulegAL* bulegARI-tik, fimAL *filmARI-tik, adibidez, erabiltzen hastea. Azkeneko formulok ausartegiak deritzaizkigu.*

R + S, N + S, L + S talde kontsonantikoetan, bai etxeko hitzetan ta bai maileguetan, komeni da T epetentikoa tartekatzea, nahiz-eta tradizioan beti ez azaldu. Honela Etxeberri Ziburu-koak *ansia* idazten du besteen *antsia* ordez, eta berdin *zirkunzidatu, absenzia, lanza* etab. bere "NOELAK" liburuan. Hori nahiko konprenigarria da gure fonetikara oraindik makurtu gabeko mailebutan. Beste kasutan axolakaberiak ere badu zerikusia; erronkarieran eta zubereran barne-joera ere izan daiteke. Euskara normalizatu batean, ordea, lege orokorrenak jarraiturik, epententika erabiltzea egokiagoa deritzaigu. Hori delarik, hona erabiltzea komeni den eskema:

NS / NZ = NTS / NTZ (konbenTzionalismo)
RS / RZ = RTS / RTZ (perTsonalitate)
LS / LZ = LTS / LTZ (emulTsio)

Beste talde kontsonantiko berezietan (BSTR, NST, SNP, etab.) beste hizkuntzen gisara, bide kulteranoa jarrai daiteke hitz oso abstratu eta teknikoetan. Kasu: *inspekzio, abstrazio, konstituzionalitate;* gure ustez horrelako hitzetzetan fonetismoak eta arrunkeriak utzi egin behar dira hizkuntza kultuen portaera kontutan edukiaz.

3. *Bokale-elisiozko kasu nabarmenak.*

Gorago lehen konposagaiaren azken bokale-erorketa aztertu badugu, orain fenomeno berdina bi konposagaien arteko topaketa kasuan ikusiko dugu (1).

---

(1) Eraskin bezala ohar hontan lehenengo konposagaiak bere muturrean galtzen duen bokale kasuak ekarriko ditugu; joera sekundario hau toponimian eta ohizko deituratan ematen dira: Txaburu (Etxaburu) Bizkaian, Txaleku (Etxaleku) Zestoa 1798, Roteta (Erroteta) Aia-ko baserria, Recabarren (Errekabarren) Txile-ko deitura, Lorgorri (Elorgorri) Iruña-n (Araba), Roitegi (Erroitegi) Murua-Zigoitia-n, Turtza (Iturtza) Ezkarai-en (Errioxa), Turburu (Iturburu) Aiala-ko baserria (Araba), REtaburu (Erretaburu) Araba-n, Lizaberria (Elizaberria) Becerro de Irache 180, 1124, Barrundia (Ibarrundia) Araba-n, Rigoitia (Errigoitia) Bizkaian, Recarte (Errekare) Azpeitia 1570, Leizaldea (Elizalde), Recaleor (Errekaleor) Mendiola (Araban), etab.

Gaztelanian elisio kasuak ez dira urriak, eta silaba osoarenak ere bai konposatuetan. Honela: *arisblanca* (arista blanca), *san* santo ordez (San Andres), *buen buenO* ordez (buen dia), *gran granDE* ordez (gran fiesta). Beste zenbait hitzek, *fuente, valle* eta horrelakoak azken silaba galtzen dute oso maiz toponimoetan. *(Fuensanta, Valdemoros, Valdepeñas.)*

Aunitzetan adierazi dugun bezala, loturazko bide hau euskaraz konplexuagoa eta biziagoa da, *bepera, lekune, arakin, zotazal* eta horrelakoek isladatzen duten bezala.

Hemen, konkretuki, bokalen topaketak kontsideratuko ditugu. Gehienetan hau baieztatzen da, alegia, topaketan bigarren elementuko bokaleak prioritatea duela eta hizkuntzan erori egiten dela. Konstatapen hau nahiko nagusia da gure hizkuntzan, eta hori ematen ez den kasu gehienek hemengo legea betetzen den alternantziaz kontatzen dute oso maiz (kasu: *ormaEtxe, errotaEtxe*, baino bada *ormEtxe* eta *rotEtxe*).

Hori delarik, alternantzi kasutan guk lehenengotasuna elisiodun formulei emango genioke. Gure arrobiko ez diren hitzetan ere irizpide fonetiko berbera jarraitzekoaren aldekoak gara, salbuespenak onarturik, noski. Honela, nahiago guk *elektrindar elektrAIndar* truke, *presidentOrde presidentEOrde* truke, *elektrEtxegailu elektrAEtxegailu* truke, etab.

Hona hemen, laburki, konposaketako bokale elisio kasu nagusienak. Bokale berdinetan bigarrengoak du lehenengotasuna, bestetan adierazi dugun bezala:

a + a = a
e + e = e
i + i = i
o + o = o
u + u = u

Era berdinean, lehenengo bokalea diptongoaz topatzen bada erori ohi da: karE-aitz = *karAItz* G., lorE-auts *lorAUts* BN, gorrI-aire = *gorrAIre* (rojizo). Fusioak ekar dezake, batzutan, aspiratuaren erorketa sortaldeko euskalkietan ere: zeda-Harri = *zedarri* BN, L, S. muga-Harri = *mugarri* c.

Etimologi joerazko hitzetan, konposagaiak hobeto nabarmentzeko, gorde ala idatzi ohi da aspiratua edo-ta bokale homofonoa. Honela lotsAAriak eta obAAsun Mogel-engan. Toponimi zaharrean San Emiliaga-ko kartularioan (85-an) *larreHederra* dator, kurioski.

Esan dezakegu, zalantzarik gabe, elipsia dela konposaketaren printzipio nagusia. Ala ere hitz batean, lehenik eman daiteke iuxtaposizio soila, geroago, ordea, lotzen joan ohi da elisio bitartez, batez ere, solaben laburdurak laguntzen badio. Honela *mugarri* hitzean lotura-hipotesi hau prozeduraz ezar daiteke.

1ngo. muga harri (hitz bakanak)
2-gn. muga-harri (lotura marra bidez)

Bestalde kuriosoa gertatzen da ikustea gaztelania zaharrak (toponimoetan, batez ere) bi eta hiru kontzeptu edo-ta kategoria gramatikal aunitzetan lotzen dituela hitz konposatu batean. Joera hau, nabarmenki, noski, euskaran biziagoa da. Hona beste adibide batzuk: Cantalapiedra (Salamanca) cantalpino (Salamanca), saltacaballo (Santander).

3gn. mugaharri (lotura iuxtaposizioaz)
4gn. mugarri (lotura elisioaz, *definitiboa*).

Prozedura berdina aplika dezakegu *amorde* B, G. (madrastra) hitzari. Prozedurako laugarren maila da konposaketaren teknika aldetik helduena.

1ngo. ama orde
2gn. ama-orde
3gn. amAOrde B, G. (bokale elisiorik gabe)
4gn. amOrde B, G. (bokale elisioaz).

Laugarren kontrakzio prozedurak loturaren gailurra adierazten du, kasu hontan behintzat. Antzeko prozedurak pasa dituzte gaurko *baserri* (basa-erri-tik), *eguberri* (egun berri-tik), guruzpide (gurutze bide-tik) etab. Beste batzutan inolako elisiorik gabe eman da lotura (kasu: zori on / *zorion*, on bide / *onbide*).

Laugarren estadioko konposatuek lehenengo eta bestetako iuxtaposizio, marra egoera eta elkarketak baino morfologi heldutasun nabarmenagoa adierazten dute.

Gure ustez, zehazpen hauek garrantzia dute gaurko terminologiaren sorkuntzarako ere. Hona hemen guk hobetsiko genituzkeen formula batzuk gaurko kasutan:

atomogai, atomo-gai ordez
filmagile, filma-egile ordez
elektrindar, elektra-indar ordez
fluorargi, fluor-argi ordez.

Esan beharrik ez dago lehen konposagaiak monosilabikoak (eta gehienetan bisilabikoekin ere bai) direnenean hobeto ematen dela lotura.

Ondoren, hona enpirikoki bokale elisiozko zenbait kasu zahar. Hemen ez daude, noski, gure idatz eta aho-tradiziozko adibide guztiak.

a) **Bokale homofonoen arteko laburdura**

I) *a + a isobokalikoetan:*

berbaro B. (berbA-Aro) ruido confuso de voces
uztaro AN, B, BN, R. (uztA-Aro) año de buena cosecha
aldarte G. (aldA-Arte) mudanzas
kontraurre B, G. (kontrA-Aurre) proa popa
etxandra B. (etxE-Andra): dueña de casa
astalde An, BN (astA-Alde): rebaño de asnos (1)

(1) Hemen ohartu, batzutan, lotura lehen elementuko apofoniakin egiten dela: *bidA* / bidarte, *atA* / atarte, *labA* / labalde etab. batez ere, bizkaieraz. Hori bera gertatzen da *lepazur* hitzean *(lepA-Azur)*, gure *lepo-ezur* ordez.

teilarte An. (teilA-Arte): rendija entre tejas
gizalde (Azkue) (gizA-Alde) multitud de hombres
harrikaldi BN (harrikA-Aldi): pedrada
ateraldi G, L. (aterA-Aldi) ocurrencia
autaldi (Azkue) (autA-Aldi): elección
amandre G. (AmA-Andre): abuela
lepazur B. (lepA-Azur): nuca
errotarri AN, B, G. (errotA-Arri): piedra de molino
basarto B. (basA-Arto): sorjo
amama B. (AmA-Ama): abuela
aitaita B. (aitA-Aita): abuelo

Sinkopatu gabeko salbuespenak lotsAAri (partes pudebundas), edAAri (Mogel-engan) etimologismoaren fruitu dira. *Edari* kasuan e*da* erroari -ARI atzizki latinoa erantsi zaio. Hemen -ARI horrek objetibozko semantika dauka latinezko *argentARIA, vestuARIA* ala *ferrARIA*-k bezala. Mogel-ek kasu hoietan erroa eta atzizkiaren mugak nabarmenarazi nahi izan ditu.

II) *e + e isobokalikoetan:*

aizerauntsi BN, G. (aizE-Erauntsi): temporal
biderdi B, G. (bidE-Erdi): medio camino
bideman B. (bidE-Eman): incitar
erregosi B, G. (errE-Egosi): trabajo de cocina
erretoretxe G. (erretorE-Etxe): casa rectoral (1)
alkatetxe (alkatE-Etxe)
aldetxe B, G. (aldE-Etxe): tejavana junto a la casa
alderdi c. (aldE-Erdi): paraje
aurresku B, G. (aurrE-Esku): delantero en el baile
atzezku B, G. (atzE-Esku): postrero en el baile
goldezur BN, L, S. (goldE-Ezur): madera del arado

III) *i + i isobokalikoetan:*

seileko G. (seI-Ileko): semestre
egibar (Deitura, top.) (egI-Ibar)
iribar (Top.) (irI-Ibar)
erbiñude B, G. (erbI-Iñude) comadreja
arrikatz AN, B, G. (arrI-Ikatz): hulla
begillun G. (begI-Illun): triste
argillun G. (argI-Illun): claroscuro.

Gaztelaniaz ere elisio antzekoak, konposatu auetan: *claroscuro* (clarO-Oscuro), *tapagujeros* (tap-Agujeros), etab.

---

(1) Nire jaioterrian (Lizartza, Gipuz.) hitz honek *ertotxe* sinkopa du ordain, eta berdin Gipuzkoako Beterriko beste herri batzutan ere.

IV) *e + e isobokalikoetan:*

jainkorde (Duv.) (jainkO-Orde): ídolo
burukorratz AN, B, G. (burukO-Orratz): alfiler de mantilla
fagondo L (fagO-Ondo): haya
errondo BN. (errO-Ondo): cepa / rastro S. Añib.
lepondo B, BN, L, R. (lepO-Ondo): cerviz.

V) *u + u isobokalikoetan:*

burutsik AN, B, G. (burU-Utsik): cabeza descubierta
eskutsik B, G. (eskU-Utsik): manos vacías
lekune AN, B. (lekU-Une): ámbito
ingurune (Axul.) (IngurU-Une): contorno

a) *Homofono ez diren bokaleen kontrazioa*

Laburdura edo kontraziozko fenomeno berdina eman daiteke topaketan desberdin diren bokaleen artean. Salbuespenak, nahiz-eta sarriagoak izan, hizkuntzaren joera nagusia laburduran datza; gainera, laburtzen ez diren konposatuak, sarritan, sinkopaturiko alternantziak dituzte (kasu: errotAEtxe / *errotetxe*, amAOrde / *amorde*, aitAOrde / *aitorde*).

Ikusten denez, euskaraz topaketan *bigarren* bokalea gelditzen da garaile. Hona hemen adierazitako kontrazio nagusienak:

a + e = e
a + o = o
e + a = a
e + o = o
o + a = a
o + e = e

Beste toki batean adierazten genuenez, lehen konposagaiaren i bokalea erori egiten da besterik gabe (ez baitu apofoniarik), eta hori bisilabadunetan, hirusilabadunetan, etab. (Honela: arrI / arr-etxe / *arretxe*, arrI-arr-obi / *arrobi*, azI / az-aro / *azaro*, etab.)

Goian aipaturiko kasuetatik aparte eman daiteke ere e + u = u (urtE-Ume = *urthume* Oih.) eta e + u (basA-Ur = *basur*), bainan kasuok ez diran hain ohizkoak.

I) *a + e bokaleen kontrazioa:*

baserre B. (basA-Erre): monte quemado
ankezur R, S. (ankA-Ezur): nalga
galtzerdi (galtzA-Erdi): calcetín
baserri B, G. (basA-Erri): caserío, población de montaña
basetxe (basA-Etxe): casa de montaña

asteme (G. AstA-Eme): burra
kontraspalda B, G. (kontrA-Espalda): proa a popa
lokezur (G. LokA-Ezur): articulación
triperre B. (tripA-Erre): terco
trabegur G. (trabA-Egur): galga
lepezur B. (lepA-Ezur): nuca (1).

Lokezur hitzak *lokAEzur* alternantziaz kontatzen du gipuzkeran.

II) *a + e bokaleen kontrazioa:*

larrolo G, L. (larrA-Olo): bromo (Bot.)
tripontzi B. (tripA-Ontzi): comilón, glotón
lastontzi BN. (lastA-Ontzi): jergón
gabon AN, B, G, L, S. (gabA-On): buenas noches
lemorratz B, G. (lemA-Orratz): pernio de timón
aitobe B. (aitA-Obe): abuelo
basoilar c. (basA-Oilar): abubilla
ankoker B. (ankA-Oker): patituerto
gizotso BN (gisA-Otso): duende
aitorde BN (aitA-Orde): padrastro
amorde B, G. (amA-Orde): madrastra
tranpol (tranpA-Ol): agujero de trampa
atondo G. (atA-Ondo): portal
ukondo (Mikoleta) (ukA-Ondo): codo
Elizondo (elizA-Ondo): top. Nafarroan

Atal hontan kontrazio gabeko alternantzia batzuk: adibidez, *aitAOrde* B, G. aitorde ondoan, *amAOrde* B, G. amorde ondoan, *larrAOlo* larrolo ondoan. Gure iritzian, kontraziodunak gailentzea komeni da.

III) *e + a bokaleen kontrazioa:*

urdalde AN, L, BN, S. (urdE-Alde): piara de cerdos
urdama AN, G (urdE-Ama): cerda
gaztaro (Oih.) (gaztE-Aro): juventud
aldazpi L. (aldE-Azpi): reverso
etxarte c. (etxE-Arte): callejón

Hemen ekarritako zenbait hitzetan apofonia ere eman daiteke, *etxarte* (etxA-Arte) kasuan, adibidez. Ez beste batzutan, ordea, *urdama* / urdEAma

(1) -ERA atzizkiaz bokale topaketak, gehienetan, mantendu egiten dira (portAEra, esAEra, jokAEra, etab.) *Aitader* R. (padrino) eta *alabader* R (ahijada) arau honen aurkakoak dira: seguraski *alabAEder* -etik (belle-fille, frantzesez), *aitAEder-etik* (*beau-père*, frantzesez) datoz. Hauetan eroria ez da behengo bokalea, *bigarrena* baino. Adierazi beharrekoa da, bestalde, deklinabidean ere laburdura normala ematen dela, hau da, *amen* / amAEn ordez, *txapelen* / txapelAEn ordez, *alaben* / alaBAEn ordez.

L. *urdalde* / urdEAlde AN, L. *aldazpi* / aldEAzpi L formula ez-sinkopatutan azaltzen danez. Hala ere badira euskaraz apofoniadun ordainak hitz beretan (*urdA-*, *aldA-*, etab.).

Kontraziorik ez dago, bestalde, hitz oso ezagun hauetan: *astEAzken* AN, BN, G, L, R. (miércoles) eta *astEArte* AN, BN, G, L. (martes).

IV) *e + o bokaleen kontrazioa:*

emaztorde BN (emaztE-Orde): concubina
umuntzi BN (umE-Untzi) (umE-Ontzi): útero
karobi B, G. (karE-Obi): calera
etxondo BN, S. (etxE-Ondo): casa solariega

Hala ere, kontrakzio gabekoak: etxEOrde G., etxEOndo L. Baina bada *etxondo* BN, R. ere.

V) *o + a bokaleen kontrazioa:*

atzekalde AN, B, G. (atzekO-Alde): parte posterior
aurrekalde AN, B, G. (aurrekO-Alde): parte anterior
oilar c. (oilO-Ar): gallo
goganbear (Axul.) (gogOAn-behar): recelo

Besazpi AN, *gogarte* (Añib.), *albate* B. hitzetan apofonia ematen dela interpreta daiteke, beraz, a + a = a taldekoak direlarik (besA-Azpi, gogA-arte, albA-Ate (albO hitzetik). Berdin pentsa daiteke, agian, oilar hitzaz (*oilA-*Ar), oilategi formula deribazioan ematen baita. Bestalde, kontrakzio gabeko *egoalde, errealdi, jokoaldi* hitzak ez dira ahaztu behar, nahiz-eta *jokaldi*-ren B. alternantzia eman. Dena dela, kasu hontan kontrakzioa ez da hain konstantea.

VI) *o + e bokaleen kontrazioa:*

Hemen eman daiteken zenbait adibidek apofonia du, a + a = a taldekoa bilakatuaz: besO / besA-Ezur = *besezur*, otsO / otsA-Eme / *otseme*, c, mandO / MandA-Euli *mandeuli* B, G. albO-albA-Erri / *alberri* B. Emandako adibidetan kontrazioa gertatu da. Toponimikoetan hor dago *Andiketxe* (andikOEtxe) Gautikiz-Arteagako (Bizk.) baserri izena. Baina *AurrekOEtxea, UrrutikOEtxea, BerakOEtxea, BengOEtxea, GoikOEtxea, GaraikOEtxea* deiturak... Beraz, -KO deklinatiboa gehienetan *eutsi* egiten da.

VII) *a + u bokaleen kontrakzioa:*

basurde AN, B, G, L, R, S. (basA-Urde): jabalí
triputs G. (tripA-Uts): esquivez
paguso B. (pagA-Uso): paloma torcaz
landur B. (landA-Ur): llovizna
basur BN, S. (basA-Ur): agua torrencial
Paguso B. hitzak pagAUso B 1-m. formula ere badu.

VIII) *e + i bokaleen kontrazioa:*

nekizerdi BN, S. (nekE-Izerdi): trabajo fatigoso
aldiri (Leizarr.) (aldE-Iri): arrabal
sugillar AN, B, G. (sugE-Illar): neguilla (Bot.)
semizun BN. (semE-Izun): hijastra

Baina, laburdurarik gabe: *semEIzun* L. *subEIllar* G. Atal hontan laburdurak ez du desarroilo handirik; agian, bokaleen eustea, gehienetan, *normalagoa gertatzen da.*

Hemen tradizioa konstaturik emandako adibideak jokabide gertatu behar lirateke sorkuntza lexikal berrietarako. Hiztegigintza ez daiteke inprobisa tradizioa ikusi gabe, hizkuntzak salketarik izan ez dezan. Konposatu berri batean, bi konposagaiak kanpokoak eta berriak direnean, noski, zuhurtazunez jokatu behar da, bortxaketarik egi gabe, adibidez apofonia kontuan kasu atomo, lo eta horrelakoetan apofonia sortuaz. Teknika hitzetan bide kulteranoa ongi legoke.

4. *Elisio nagusia analogiagatik.*

Kasu batzutan talde silabiko antzekotsuak haplologiagatik-edo sor dezake sinkopa nagusiago bat. Fenomeno hau nabarmena da usariozko zenbait hitzetan. Hona batzuk:

sagardo AN, G. L. sidra (lit. sagAR-ARdo)
garagardo cerbeza (lit. garagAR-ARdo)
larrosa B, G. rosa silvestre (laRRE-Arrosa)
zapategi zapatería (lit. zapaTATEgi)
ernagi B, G. fruta o flor tardía (lit. erNE-NAgi)

Hauetan sinkopazioa fonia antzeko silabetan eman da, kakofoniarik gerta ez dadin.

Beste batzutan laburdura herri xehean elementuen ekonomiagatik eman daiteke. Hala dirudi *astelenita* AN, G. kasuan *astelen-iñauterieta-tik*, eta bardin *asteartita* AN, G. kasuan. Logikoa da herri-hizkerak sinkopazioaren joera edukitzea (gaztelaniak hor du *hidalgo hijo-de-algo*-tik, *pezuña* latineko *pedis ungula*-tik). Hona kasu batzuk:

Etxarren (Top. Nafarroan) (lit. Etxabarren)
atsalde G. tarde (lit. arratsalde)
Sorakoitz (Top. Nafarroan) (lit. Sorabakoitz)
umerri AN, nueva cría de animal (lit. umeberri)
amortz (Leizarr.) quince (lit. amabortz)
andrauren (Refr. y sent.) mujer principal (lit. andraguren)
Etxarri (Top. Nafarroan) (lit. etxebarri)
albiste AN, G, L. nuevas (lit. albiriste, albricias erromantzez)
emeretzi AN, B, G. diecinueve (lit. amar-bederatzi)

elhauso BN. avalancha de nieve (lit. elhur-lauso)
Jainko c. Dios (Jaungoiko)

5. *Kontsonante guztiz berdinen elisioa.*

Bokale isofonoak konposatuetan laburtzen ziren bezala, kontsonante-taldeak ere labur daitezke, bigarren konposagaiko aurre-kontsonanteak mantenduaz. Bustidurak *(ll, tt, dd) txikidura, maitasun, mespretxuzko* nabarduretan ezik (gehienetan) euskara batuan kendu egiten dira. Kontsonante bikoitzak edo germinatuak soilduta gelditzen dira batasun irizpidez (nn- = n, tt = t, ss = s, etab).

Hona topaketako adibide batzuk:

baratzai G. (Lizardi) hortelano (baraTZ-Zai)
nonahi doquiera (noNNahi)
giltzain S. llavero (gilTZ-Zain)
ilunabar AN, B, G. (iluN-Nabar)
orratzain AN, B, BN. atardecer (orraTZ-Zain)
sabeloi B, G, L, cierta costra (sabeL-Loi)
itsasuge (Azkue) murena (itsaS-Suge)
orobatsu AN, L. casi igual (orobaT-Tsu)

Hauetako kasu batzutan zenbait idazlek nahiago du marra erabiltzea. Guk ez dugu beharrezkoa ikusten, goian emaniko hitzak ez baitira neologismoak, tradiziokoak baino. Dudarik gabe, euskarak (eta beste hizkuntza aunitzek ere bai) talde kontsonatiko pilatuegiak soildu egiten ditu. Hartarako elisioaz baliatzen da nagusiki, batez ere TS / TZ digamak elkar topatzen direnean.

* * *

Hona tradizioko beste elisio batzuk:

ekaiztsu (Duv.) tempestuoso (lit. ekaiTZ-TSu)
oskarbi G. cielo despejado (lit. oST-Garbi)
onheski (Duv.) honestamente (lit. honeST-Ki)
arrunki BN, L, S. vulgarmente (arruNT-Ki)
arkaiztsu rocoso (lit. arkaiTZ-TSu)

OneSTKi (Axul.), galaNTKi, arruNTKi (Axul.) antzeko alternantziak etimologismo nabariak dira.

Euskarak NST, NZT kasutan ere ST / ZT laburpen joera jatorra du euskalki gehienetan (jaNTZi / jazten, eraNTSi / erasten, ireNTSi / iresten (janzten, eransten, irensten ordez). Formula laburtuak askozaz orokorragoak dira. Adibidez *jazki* jaNZKi ordez, *eraskin* eraNSKin ordez. Bestalde, sudurkaria erori egiten da gerundio eta infinitibaletan (*eramaten* ez eramaNten, esaten ez esaNten, jatea ez jaNtea).

Kontutan eduki behar dira, ere, beste kontsonante-topaketa batzuk; adibidez, igurzkaria afrikatuakin / afrikatua igurzkariakin, etab. (TS + TZ, TZ

+ TS, S + Z, etab.). Kasu bakoitza tradizioan elisioaren teknikaz askatzen da hemengo konposatu eta deribatu hauen arabera: TZ + TS = STS (ekaiTZ-TSu / ekaiZTSu (Duv.) arkaiTZ-TSu / arkaiZTSu, S + Z = TS (dakuS-Zu / dakutSu, TS + Z = TS (deuTS-Zuet / deuTSuet, TS + TX = STX (ameTS-TXar / ameSTXar, TZ + TX = ZTX (ariTZ-TXori / ariZTXori G., TZ + Z = TZ (haiTZ-Zulo / haiTZulo, Z + Z = TZ (eZ Zaituet / eTZzaituet), etab. Arau hauek ez dira, noski, hertsiak, bainan bai nahiko orientagarriak. Batzutan marraz balia daiteke, noski. Bestalde, kontutan har RTZ konponentea S / Z formulara soiltzen dela, batez ere, mendebaleko euskalkietan (hoRTZki / *hozki* (dentera), oRTZ(e)-Garbi / *oSKarbi* (cielo despejado). TZ formula ZT bilaka daiteke batzutan; adibidez, ikaTZ-obi *ikaZTobi.*

6. *Sudurkariaren berragerpena konposakeran.*

Euskal konposakera eta deribazioaren beste fenomeno fonetikoa N sudurkariaren berragerpena da. N hori galdu egiten baita, batzutan, egoera normalean.

Lege hori, batez ere, AO, AE, OE, AI, AU, EA hitz soilen bukaeretan ematen da; konposakeran sudurkaria berragertzen da. Arau hau, nahiz ez izan betikoa, nahiko ezarria dago oraindik hizkuntzan. Honela *kanpai* hitzak *kanpaNtorre* B, G. (campanario) ematen du, kateak *kateNbegi* B. (anillo de cadena), *komioak* (camino) *kamiNburu* (Azpeitiko baserria). Berdin gertatzen da *morroi* / *morroNtza*, artzai / *artzaNtza* BN, L. arrai / *arraNtzale*, pozoi / *pozoNatu*, gaztae / *gaztaNbera*, ardao / *ardaNbera* kasutan. Ez dago esan beharrik pozoNadura frantzeseko *poissoN*etik edo-ta ponzoNatik datorrela. *Arrai*, morroi, *artzai* etab. ez dute sudurkaririk mendebaleko zenbait euskalkitan; alabainan, sudurkaria azaldu egiten da konposakeran, adierazi dugunez. Hona berragerpenezko beste kasu batzuk:

kanpaNarto B. Maiz de campana kanpaNa-tik
orgaNbide (Nafarroako muino bat) orgaNo-tik
ardaNbera G. madre de líquidos ardaNo-tik
kateNorratz B, G. pie de cadena kateNa-tik
urdaNbelar R. cierta planta (urdaNo-tik?)
urdaNdegi AN, BN, G. pocilga

UrdaNdegi, arraNdegi eta *ardaNdegi* (taberna) kasuek garbi adierazten dute fenomeno fonetikoa deribazioan ere eman daitekela.

Ez dugu uste, inolaz ere, lege hauetara makurtu behar direnik OI-z amaituriko mailegu teknikoek *elektrOI, protOI, neutrOI* eta horrelakoak (honoka: *protOI prozesu*, eta ez *protoN prozesu* hipotetikoa).

Guk gure hiztegi nagusian ez dugu beti aplikatu arau fonetiko hau, batez ere, aldaketa bitxia ala ulertezina gertatzen zenean.

7. *Apofoniaren hedadura hitz konposatuetan.*

Goian nahiko zabal ikusi dugu apofonia edo erroaren azken bokalearen irekiera deribazioan. Apofonia, beraz, etengabeki ematen da -GARRI,

-TZAILE, -KUNTZA, -KETA eta horrelako aditz-erroei erantsitako atzizkietan. Berdin esan daiteke -ETSI, -BURU, -BIDE, -MIN eta antzeko paratzizkietan.

Lege fonetiko hau, atzizkietan, ez da konposakeran e / o / u bokaleek (**u**-k gutiago) pairatzen duten irekieraren luzapena baino. Beraz, -BURU, -BIDE eta antzekoek propioki hitz-konposatuak sortzen dituzte, baina bere maiztasunak atzizki antzeko jokera erasten die.

Aski da tradizioko edozein hiztegi begiratzea (Silvan Pouvreau, Larramendi, Añibarro, Lhande, Azkue) apofoniaren zabalkudeaz ohardun gertatzeko. Batzutan euskalki batek ez emanarren (eta hori erosioagatik ere gerta daiteke) alternantziak ugariak dira. Honela: astAmenda AN, B, G. / astOmenda L, astAlarrosa B, G. / astOlarrosa, artAburu B, G. / artOburu BN, Duv. etxAlegor B / etxElegor G. etxAleku (Axul.) etxeleku L.

Gehienetan, *apofonía* eusten duten alternantziak kontutan hartu behar dira, baldin-eta, behintzat, konposagaien ulermena biziki gutitzen ez bada (honela hobe: *astA-, erlA-, mandA-, basA-, otsA-* etab.). Beste kasu urriagotan, ordea, flexibilitate handiagoa eduki behar da, ulermena eta ohikotasuna arriskuan ezarri ditekenean (adibidez, gu, geure hiztegian, nahiko malgukorrak (flexibleak) izan gara kasu batzutan. Adibidez: etxe / *etxA*, bide / *bidA*, ohe / *ohA*, aho / *ahA* kasutan bi joerak erabili ditugu. Konkretuki *ahAzabal* kasuan *ahOzabal* ulergarriagoa deritzaigu, eta berdin *sarEbide* (*sarAbide* ordez).

Apofoniak ez du itzali behar hitzaren esanahi etimologikoa. Beste kasu aunitzetan, ordea, apofonia ez da oztopo ulerpenerako (kasu: *mandAbide, otsAkume, erlAkizten, basAkatu*, etab.).

Gaztelaniazko konposaketa *i* bokalearen itxidura XIV mende ezkerrezkoa da, lehenik *bocArrasgado, patAbiarto* idazten baitzen eta gero *boquIabierto, patIabierto, casquIvano, manIalbo, cachIporra, cabIzbajo* etab. (hauek, noski, boc*a*, pat*a*, casc*o*, man*o*, cach*o*, cab*e*za, formuletatik datoz).

E bokalearen epofonia-*a*-ra kasik etengabea da (erlE / *erlAkizten*, galdE / *galdAtu*, etxE / *etxAgintza*, atE / *atAburu*). Berdin *o* bokalearen kasuan (astO / *astAputz*, mandO / *mandAzain*, usO / *usAkume*, baso / *basAgain*, basO / *basAkatu*, etab.) *U* bokalearen apofonia maizenik aditzaren kasuan ematen da (kantU / kantAtu, pagAtu, ernegU / ernegAtu). Iadanik esan dugun bezala *i* bokalearen kasuan apofonia ordez erorketa eman ohi da gehienik (harrI / *harlandu*, herrI / *erbeste* / *ergoiena*, iturrI / *iturrama* / *iturgoien* / *iturralde*, etab).

Latinak berak, akzidentalki, baditu bokale aldaketak konposakeran; adibidez, longImanus (esku luze), orIdius. Italieraz fenomeno berdina *capivolte* eta *capIrrosso* hitzetan (*capO*-tik).

Apofonia kasutan, lehen genionez, tradizioa jarraitzea komeni da, flexibilitate guztiaz, baina erosioari amore eman gabe. Adibidez, ondorengo kasu hauek etzaizkigu taxuzkoak iruditzen, inolaz ere:

basOkatu *basAkatu* ordez
katUkume *katAkume* ordez
jokOtu *jokAtu* ordez.

Apofonia ez aplikatzeak idazle batzutan (eta hoietan Duvoisin bera), erosio ez-ezik, euskal fonetikaren ezjakintasuna adieraz dezake soil-soilik.

Neologismo tekniko berrietan (*atomo, iodo, semaforo* eta horrelakoetan), noski, ez dago gure arrobiko (eta mailebu zaharretako) formuletan bezelako apofonia erabili beharrik.

Hona hemen apofoniadun zerrenda edierazgarria:

a) e-tik a-ra apofonia:

sarE / sarAtu B, BN, L. rozar terrenos
bidE / bidAtxior AN sendero
bidE / bidAgurutze AN, encrucijada
bidE / bidAsoro (Oiartzun-go baserria Gipuzkoan)
galdE / galdAtu AN, BN. reclamar
sugE / sugAlindara B. lagartija
sugE / sugAmats B, G. (cierta planta)
errE / errAsumin (Oih.) escozor
errE / errAberri R. asado
erlE / erlAkizten AN, G. cirro
erlE / erlAmando B. zángano
luzE / luzAbide B, BN, G, R. demora
eznE / eznAperritxiko B. (cierta seta)
bahE / bahAkatu BN. cerner
ilE / ilAbete AN, B, G, L. mes completo
orE / orAmahi B, BN, R. artesa de pan
orE / OrAparaB. pala para amasar
ernE /ernAmin B. germen de semilla
lorE / lorAburu G. capullo de flor
lorE / lorAeste AN. corola
urtE / urtAbete G. (Arakil) cabo de año
urtE / urtAmuga G. (Arakil) cabo de año
zornE / zornAbelar AN,G. lechetresna (Bot.)
ohE / ohAlarru AN. funda de colcha
ohE / ohAzeru AN, B, G. L. pabellón de cama
ohE / ohApuru G. cabecera de cama
labE / labAsari B. hornaje
labE / labAtxori B. petirrojo

umE / umAmin dolor de parto
emE / emAkume AN, B, G. L, R. femina, mujer
emE / emAsabel B, G. matriz
atE /atAburu B, G. dintel de puerta
atE / atAhuri (Sanemiliagako Kartularioan, 105)
atE / atAkarri B, G. puerta de horno
larrE / larrAgoiti (Zeberio-ko baserria, Bizkaian)
ilE / ilAgende BN. ganado
etxE / etxAberri
etxE / etxAuri /essAuri (Leire-ko Bezerroan, 80-81)
etxE / eltxAleku (Nafarroako herria Imotz-en)

E bokalez amaituriko lementuek, batzutan, kolokadura dexente dute euskalkien arabera. Hona, horregatik, apofoniarik gabeko alternantzia batzuk:

atAburu / atEburu B.
labAsari / labEsari G.
urtAbete / G. (Arakil) urtEbete AN, B, G.
urtAmuga G. (Arakil) urtEmuga AN, BN, G, L, R, S.
bidAgurutze AN / bidEgurutze BN.
bidAtxior AN / bidEtxior AN, G.
bidAnabar AN / bidEnabar BN.
orAmai B. / orEmai B, G.
erlAkume / erlEkume AN, B, G.
erlAmando B. / erlEmando AN
errAsumin (oih.) / errEsumin AN, G.
ohAzeru AN, B, G. / ohEzeru BN, L.
umAzurtz (Har.) /umEzurtz AN, B, BN, G, L.

Alternantzia hauek gure hizkuntzaren etengabeko kolokadura edo fluktuazioaren adieragarri dira; kasu batzutan ezarpen soziala kontutan eduki behar da, eta konkretuki guk apofoniarik gabeko formulok onartzen ditugu besteen artean: umEzurtz AN, B, BN, G, L. umAzurtz (Har.) ordez, urtEmuga AN, BN, G, L, R, S. urtAmuga (Arakil) ordez, errEsumin AN, G. errAsumin (Oih.) ordez.

Esne, urte, erre, sare, ohe eta beste batzuen kasutan guk ez dugu apofoniarik erabili gure hiztegian (ulermen eta ezarpen sozialaren problemagatik), salbu konposatu urri batzutan bakarrik. *GaldEtu / galdAtu* kasuan apofoniari semantik mugapen bat eman diogu. GaldEtu "preguntar" adierazteko, eta *galdAtu* "caldear" adierazteko. Antzeko mugapena ematen da *sendOtu/sendAtu* (consolidar/curar) eta *osOtu/osAtu* (completar/curar) kasutan.

b) o-tik a-ra apofonia:

mandO / mandAbide G. camino abrupto
mandO / mandAbelar AN (cierta hierba)

mandO / mandAtresna R, AN, B, arnés
artO / artAberde B, G, maíz de segunda siembra
artO / artAburu B, G. panoja/imbécil (exozentrikoa)
lastO / lastAziri AN, B. palo de mata de paja
lastO / lastAmeta B, G. montón de paja
albO /albAdar B. ramén
albO / albAgela B. aposento lateral
ahO / ahApeka L. en secreto
ahO / ahAzabal (Axul.) hablador
ahO / ahAgorri BN, L. paciencia (Bot.)
apO / apAburu AN. renacuajo
astO / astAmenda AN, B, G. mastranzo (Bot.)
astO / astAkume AN, B, G. pollino
astO / astAkaiku G. imbécil
oilO / oilAgor B, G. becada
oilO / oilAloka G. clueca
usO / usAkume AN, B, G. pichón
usO / usAbedar B. (cierta planta)
otsO / otsAlizar G. fresno silvestre
otsO / otsAlar AN, G. mosqueta
otsO / otsAporru G, R. puerro silvestre
osO / osAbide B. tratamiento de curación
sendO / sendAbide AN. remedio
zorO / zorAbiatu B. atolondrarse
zorO / zorAburu L. columpio
ondO / ondAlan AN, R. cava con laya
sorO / sorAburu (Oiartzun-go baserria, Gipuzkoan)
basO / basAjaun L, S. señor de las selvas (Mit.)
basO / basApizti AN, G. alimaña

E bokaleaz amaitutako erro eta konposagaietan bezala, apofoniarik gabeko alternantziak nahiko ugariak dira. Euskara batuaren bidean, ordea, ezin daitezke erabil alternantziak; bat hartu beharra dago kolokadura fonetikotik nolabait irteteko.

Hemen ere, jokabide bezala, ulermen problemarik ez dagoenean, hobe apofonidun formulak gailentzea. Alternantzia euskalki bat berean azaltzean, euskalki hortako sub-euskalkiren baten bariantea adierazten da, gehienetan.

Hona alternantzia batzuk:

artAberde B,G. / artOberde L.
artAburu B,G. / artOburu BN. (Duv.)
astAkume AN,B,G. / astOkume (Duv)
lastAmeta B, G. / lastOmeta AN,B,G.
ahApeka L. / ahOpeka L.
ahAzabal (Axul.) / ahOzabal B,L,R,S

basAsto B,G. / basOasto B.
mandAbide G. / mandObide (Duv.)
solAguren B. / solOguren B.
usAkume AN,B,G. / usOkume BN, L.
otsAlizar G. / otsOlizar AN.
oilAloka G. / oilOloka B,BN,R,S.
basAjaun AN,BN;L,S. / basOjaun (Azkue)
usAtortola B, G / usOtortola B.

Zerrenda hontan *ahAzabal* bezalako kasu problematikoagoak utzita, apofonidun formulak onargarriagoak dira. Beraz, *otso, mando, beso, baso, uso, asto, lasto, arte,* eta beste kasutan apofoniak ez du iluntzen esanahia.

Goran adierazten genuenez, *sendO* hitzaren kasuan apofoniak *(sendAtu)* berezitasun *semantikoa* darama euskalki batzutan. Berezitasun hori mantentzea ondo deritzaigu, eta berdin *osOtu / osAtu* AN,B. (completar/curar B) kasuan, nahiz-eta osAtu formulak AN,BN,G, L. euskalkietan "completar" ere adierazi.

c) u-tik a-ra apofonia:

Dudarik gabe, *u* bokaleaz amaituriko erro eta konposagaien kopurua besteena baino eskaxagoa da; alabainan, apofonia nahiko sarritan ematen da aditz-erroei erantsitako atzizkien kasuetan (-TU, -DU, -GARRI, -MEN/ MENDU, -KETA adibidez).

Konposagai sustantibaletan katU da gehienik apofonidun joera duena; katAgorri AN, G. (ardilla), katAkume B, G. (gatito), katAnarru B. (escarcela) katAgure G. (garduña) adibidez. Ez da agertzen apofoniarik, ordea, katUmamu B. (cierto gato montés) eta katUtxori B. (mochuelo) formuletan.

Hona aditz-atzizkietako apofoni-kasu batzuk (denak mailebuak):

pagU / pagAtu c. pagar
sostengU / sostengAtu BN socorrer
kantU / kantAtu AN, BN,B,G,L,R. cantar
pentsU / pentsAtu c. pensar
arnegU /arnegAtu AN, BN,L,S. blasfemar
taiU / taiAtu B. arreglar

Hemen baliteke apofonia sinkopaz nahastea, beraz latinezko mailebuak *a* atzizkia baidarama -ATUS/ATA/ATUM formulan; eta gaztelaniaz hori dirudi gertatzen dela erroari (cant-, pens, pobl-) -ADO/ADA erastean.

Apofoniarik ez dute (ala erorketarik), ordea, damU/damUtu B,G,L. (arrepentirse), itsU/itsUtu AN, B, BN, G,L. (cegarse) eta mutU/mutUtu c. (enmudecerse) kasuek. TaiAtu aditzak gipuzkeraz apofoniarik gabeko alternantzia ezagutzen du (tajUtu).

8. *Konposaketa eta deribazioko aldaketa kontsonantiko batzuk*

Orain gure hizkuntzan oso berezi den zenbat fenomeno fonetiko aztertuko dugu, eta baita ikusi bigarren konposagaiaren haserako oklusiben gogordura (ensordecimiento). Atal hontan, zalantzarik gabe, nabarmena da euskarak konposakeran eta deribazioan duen konplexitatea eta jatortasuna. Hau dena aztergarri da gure hizkuntza sakonkiago ezagutzeko; oraingo sorketa lexikalak fenomeno hauek kontutan eduki behar lituzke.

*a) Lehenengo konposagaiaren N/R-*ren *erorketak sortutako aldaketak*

Aurreko atal batean ikusten genuenez, R fonema H-z ordezkatua da sortaldeko euskalkietan (uR / uHarte / uHalde, zuR / zuHaitz / zuHirin), sartaldeko euskalkietan (AN,B,G.)G fonema ematen den bitartean (Ur / uGarte / uGalde, zuR / zuGaitz zuGar). Beste kasu batzutan R itzali egiten da kontsonante aurrean (luR / **lubaki, / lubizi / luberri,** hamaR / **hamabi, hamalau).**

Baita lehen konposagaien azken sudurkaria (N) eta R erori ohi dira, askotan, bigarren elementuko oklusiba ozenean gogordura sortzen delarik. Honela:

esAn / esaKura B. significación (esaNGura ordez)
jaN / jaTun B. comilón (jaNDun etimologikoa ordez)
adaR / adaPuru B. (copa de árbol) (adarburu AN,G. ordez)
luR / luPeko AN. alacrán cebollero (lurbeko etimologikoa ordez)

Konposatu batzutan N R bilakatzen da; fenomeno hau, itxuraz, nahiko fosilizatua dago. Hona kasu batzuk:

jauN / jauRegi c. palacio
jauN / jauRgo (Silv. Pouvr.- Leizarr.) señorío
egUn /eguRaldi AN,B,BN,G. (Detxep.) tiempo atmosférico
soiN / soRbalda c. espalda (1)
oiN / oRthuts BN, L. descalzo
oiN / oRkoi AN, L. horma de pie
oihaN / oiaRzabal (deitura, Azpeitia 1348-an, berdin oiaRbide)

Azkenik, T epetentika erro monosilabikoen ondoren sarritan azaltzen dela adierazi behar dugu (2). Hozkari horren azalpena konposatuaren luzadura *eufonikoan* datza. Adibideak:

---

(1) Luis Mitxelena-k bere *Historia de la Fonética Vasca* azaltzen duen iritzia taxuzkoa deritzaigu *soRburu* soiNburu-tik eratortzean. Gure iritzi apalean *soRbalda* hitzak soiNbalda (agian soiN-espalda-tik) formulan du jatorria. Iturri berdina, probableki, *sorbeltz*-ek (vencejo) soiNbeltz-etik. Beste kasu batzuk oiN-atik: oRpeko S. (pedal) eta gure oRpo B,G. (talón).

(2) EzaguTezin, loTaillu R. (atadura), loTzur (lot-ezur-en sinkopasutan) T hori ez da epetentikoa, erroaren fonema propioa baino, berez ezaguT, eta loT baitira erroan, oroiT bezala. SuTarri BN,R. (cuarzo), suTalde B. (brasero), suTargi B,BN (lumbre), ezkonTide (Oih.) (consorte), ezkontohe (Duv.) (lecho nupcial), ezkonTadin B. (edad núbil) kasutan, ordea, epetentika eta -TE infinitibala da, noski.

jaN / jaTordu B. hora de comer
jaN / jaTetxe restaurante
ikas / ikastaro período escolar
su / suTondo c. fogón
sor / sorTetxe AN,BN,R,S. casa natal
sor / sorTetxe AN,BN,R,S. casa natal
sor / sorTerri AN,BN. pueblo natal
jaio / jaiTegun B,G. día de nacimiento
jaio / jaioTetxe B,G. casa de nacimiento
jaio / jaioTerri B,G. pueblo natal

b) -DI, -GI, -HI etabarren elisio ondorengo aldaketa fonetiko bereziak

-DI, -GI, -HI-z amaitutako erroak T-ra erreduzitzen dira (edo-ta-gogortzen), azken bokalea galduaz. Arau hau gure hitz-konposakerako berezienetakoa da. Baiezta daiteke fenomeno hau (nahiz eta intzidentzia urriagoaz) beste bukaera batzutan ere ematen dela esanaz (adibidez, -GU (saGU/saT, -GE-erreT kasutan). Aldaketa fonetiko horrek, noski, bigarren konposagaiaren lehen aklusiba ozenari gogordura ekartzen dio. Hau guztia argi dago honoko hitz hauetan:

beGI / beT / beToker B. (begi-oker) tuerto
beGI / beT / beKain AN,BN,B,G,L. (begi-gain) ceja
arDI / arT / artetxe (top.) (ardi-etxe) redil
arDI / arT / arTzain (ardi-zain) pastor
iDi / iT / iPuruko AN (idi-buruko) frontal de bueyes
eGI / eT / eKain (egi-gain) ladera alta
zoHI / zoT / zoTazal B. (zoHI-azal) tepe

IPuruko, bekain eta *ekain* hitzetan oklusiben gogordura hemengo eskema fonetikoaren araura eman da:

t + g = k (beT-Gain = beKain) AN,B,BN,G,L.
bosTGarren = bosKarren B,G.
t + b = p (iT-Buruko = iPuruko
(baT-Batean = baPatean B,BN,G,L.
t + d = t (baiT Du = baitu, bait Gera = baiKera)

D(I-U), G(I-E-U), HI sustituitzen duen T gogor horren arrazoina (1) D/G ozenak silaba bukaeran ozentasuna galtzeko duen joeran datza, itxuraz. Fenomeno fonetiko hau ematen da nolabait ere beste hizkuntza batzutan, aho-hizkeran behintzat.

T gogorra, ikusi denez, bokale aurrean eta kontsonante zenbaiten aurrean mantentzen da (s/z aurrean adibidez), baina erori egiten da oklusiba ozenen aurrean (kasu, beT-gain = beKain, haraT-Gin = haraKin).

---

(1) Ikus Luis Mitxelena: *Fonética histórica vasca,* op. cit., 238 or.

I) *-DI duten erroetan gogordurazko aldaketa:*

iDI / iT / iTegi BN,G. (idi-tegi) cuadra de bueyes
iDI / iT / iTzain (idi-zain) boyero
iDI / iT / iPuruko AN (idi-buruko) frontal de bueyes
zalDI / zalT / zalPurdi (zaldi-burdi) (Azkue) carro de caballos
gurDI / gurT / gurTarrasto AN,G. (gurdi-arrasto) surco de rueda
gurDI / gurT / gurTede AN,B,G. (gurdi-ede) correa de carro
gurDI / gurT / gurPide (gurdi-bide) camino carretil
ipurDI / ipurT / ipurTandi (ipurdi-andi) culón
erDI / erT / erKordin S. (erdi-gordin) medio crudo
erDI / erT /erKhose S. (erdi-ghose) medio hambriento
erDI / erT / erTaro BN (erdi-aro) época de reproducción
arDI / arT / arTzain B. (ardi-zain) pastor
arDI / arT / arKazte B,G. (ardi-gazte) oveja joven

Bai kasu hauetan eta bai ondorengoetan T gogorra desagertu egiten da kontsonante-pilaketetan (T+B, T+G, T+D), halako egoera fonetiko gogorregiak, nolabait, aldentzeko (horregatik *erkordin, arkazte, bekain,* etab. *erTGordin, arTGazte, betGain* formulen ordez) Formula laburtuak eta ez laburtuak, bestalde, usariozkoak dira zenbait euskalkitan: beturdin/begiurdin, betarte B./begitarte B,G,BN,R. bepera B/begibera B,G. beteri B,BN,L./begieri BN,R. beterre AM,B./begierre B.

II) *Erroan -GI dutenen aldaketa:*

haraGI / haraT / haraTegi B,G. (haragi-tegi) carnicería
haraGI / haraT / haraTuzte S. (haragi-uzte) abstinencia de carne
haraGI / haraT / haraKai AN,BN,C,L,S. (haragi-gai) AN,BN,C, cebón
oGI / oT / oTordu AN,B,BNG, R. (ogi-ordu) comida
oGI / oT / oKin AN,B,BN,G,R. (ogi-gin) panadero
oGI / oT / oTaza B,G,L,R. pan camuña
arGI / arT / arTizar B,G,L,R, Sal. (argi-izar) lucero de la mañana
beGI) beT / beKain AN,B,BN,G,L (begi-gain) ceja
beGI / beT / beToker B. (Begi-oker) tuerto
beGI / bet / bePera B. (begi-bera) B. de mirada sumisa
arGI / arT / arTurratu AN (argi-urratu) alborear.
eGI / eT / Ekoien - Equoien (Becerro de Irache, 119) (egi-goien) Top.
zaraGI / zaraT / zaraTazal (zaragi-azal) parche (1)

(1) GOTZON izen berria arau fonetiko honen legera egina dago, agian (gogo-on, goT-z -on) Got formulak konposakeran oso urriak dira tradizioan; baina hor dago gothor BN. S. eta gotsene BN. (ahijado). *Gotzain* neologismoak egikera berdina du (gogo-zai, goT-zain).

-HI silabaz amaituriko erroen kasua ez da oso sarria euskaran. Hala ere adierazitako lege fonetiko ematen da, konkretukioa *zoHI* BN,L,S. hitzaren kasuan, *zoT* bilakatuaz konposakeran (zoTarrain G, zoTal AN,B,BN,G,R. zotalautsi AN, zoTazal B, zoTarro B, etab.) Goi-nafarrerak zoGI bariantea dauka. LoHI hitzak probableki loT ematen du *lotin* (tierra húmeda) kasuan. (Hemen ere bada loGI bariantea, H/G-ren alternantzia ohizkoa jarraituaz zuHait/zuGaitz, iHar/iGar kasutan bezala. Fenomeno berdina beHi (beKorotz = behi-gorotz), erHI (erPuru = erHiburu), erKain L. (erHi-Gain) kasutan.

III) *-DE, -GE, -GU duten erroen aldaketa:*

seniDE / seniT / seniTarte B. (senide-arte) parentela
iñuDE / inuT / inuTaur G. (iñude-aur) criatura con nodriza
abaDE / abaT / abaTetxe B. (abade-etxe) casa rural
abaDE / abaT / abaTei (Azkue) B. (abade-dei) tañido de campana
hilDO / hilT / hilTerreka (Azkue) S. (hildo-erreka) surco de regata
kupiDA / kupiT / kupiTetsi (kuppida-etsi) compadecerse
erreGE / erreT / errePIde (errege-bide) camino real
erreGE / erreT / erreTzubi (errege-zubi) *(Pontes Regales* Nafarroan)
erreGE / erreT / erreTorde (errege-orde) virrey
saGU / saT / saTabia B. (sagu-abia) nido de ratones
saGU /saT / saTsuri (Oih.) L. (sagu-zuri) campañol, ratón de campo
saGU / saT / saTandera AN. (sagu-andera) comadreja

Adibideak adierazten digute konposagai hauen jokaera berezia. Horrelako fonetik aldaketak ez dira, gehienetan, aplikagarri oraingo hitz berriei, arau hauek fosilizapen itxura dutelako. Bestalde horrelako sinkoparik ez duten formulak (begioker, begilun, bezala) ez dira horrelako aldaketak gertatzen.

c) *T-ren beste eragin fonetikoak*

Erro lexikala afrikariez (TS/TZ) amaitzen denean, digama hori S/Z bilakatzen da, horzkari gogorra (dental sorda) erantsiaz konposagaien loturan. Honela ikaTZ-obi ikaZTobi B.

Era berdinean horzkari lotzailea aurkitzen dugu RTZ (ortze) kasutan talde kontsonantiko hori ST bilakatuaz (oRTZargi/*oSTargi* AN,B,G,L. boRTZ/*boSTeun* AN,B,G., Honekin zerikusia dute gure *oSKarbi* G, (cielo despejado) *oSTadar* S. (arco-iris) *ostarte* B,G. etabarrek, etimologiaz ortz/e)-garbi, ortz(e)-adar eta ortz(e)-arte baitira.

ORTZ (diente) hitzaren kasuan *ozki* deribatua dago (dentera, AN,G,L.); hemen RTZ taldea z-tan soildu da.

Goian adierazi genuen bezala, T fonema B/D/G ozenekin topatzean sortutako gogordura (P/T/K) (beT-Gain = beKain, arT-Gazte = arKazte, zoHI/zoT-Berri = zoPerri G (terreno recién labrado), zoHI/zoT-Buru = zoPUru AN,B,G. (parte alta de una heredad), zoHI / zoT-Bizartu = zoPizartu G (quitar hierba de los topes), naHI / naT / -Gaitz = naKhaitz L (repugnancia) (1) gure konposakeraren lege fonetiko *berezienetakoa* da.

d) *TS-TZ digama afrikarien ondorengo gogordura*

Ongi ezaguna denez, lehengo konposagaiaren (ala erroaren deribazio kasutan) TS/TZ ondoren gogordura dator bigarren elementuko (edo-ta atzizkiko) oklusiba ozenetan. Horrela B, D,G fonema ozenak gogor (P, T, K) bilakatzen dira, digamaren T horzkaria erortzen delarik.

Gogordurazko fenomeno berdina eman daiteke S/Z igurzkarien ondoren *(ikusKarri, ikasKai),* alabainan gutiago. Beraz, gogordura afrikarien ondoren ia beti (hiZTtun, husTgune eta antzeko etimologismoak kenduta) ohizkoa den bitartean, ez da hain sarritazkoa S/Z ondoren. Horregatik hainbeste alternantzia igurzkarien ondoren: hezGaitz / hezKaitz, ikasGura AN / ikasKura ura B,G. (1). Guk gure hiztegian erabaki bat hartu genuen kasu hontan, alegia, S/Z ondoren ozena gorde alternantzia kasutan, eta tradizioa jarrai besterik gabe formula *bakarretan.* Kasu batzutan, ala ere, sozialki inposatuena onartu dugu (esParru, ikusPegi, adibidez).

Ez dago esan beharrik (gero ikusiko dugun bezala) gure atzizki aunitzek adierazitako gogordura pairatzen duela. Honela -GAITZ KAITZ bilakatzen da, -GAILU KAILU, -DURA TURA, -DI TI, etab.

Bestalde, kontutan eduki digamaren T horrek ez duela erorketarik jasatzen hitzaren bukaeran absolutua denean (adibidez, bakoiTZ, mendizorroTZ, neurtiTZ, etab.) Hitz konposatu hala deribatuaren barnean, ordez, erori egiten da eskema honen araura:

TS / TX / TZ bukaeran
S / X / Z tartean

Kasik etimologismo baztergarrik dira arau honen kontrakoak. Gaur bertan ere Euskal Herriko kale, denda eta etxe izenetan topatzen da zenbait etimologismo baztergarri: alaTZne, aiTZpea, aiTZgorri, zarauTZtar. Axularengan hauek jaso ditugu: uTZten, hiTZtun, huTSgune.

---

(1) Kontutan izan, batzutan, bigarren elementuak aurretikoan gogordura sor dezakeela asimilazio antza; PiKor (bikhor ordez), KurPil (gurpil ordez) kasutan gertatzen den bezala. Hitz hauetan -kor eta -pil gogorrek gogordura hedatu dute (itxuraz) aurreko partera.

(1) Hona beste alternantzia batzuk: irabazBide BN,R / irabazPide AN,B,G,L,S. egosBera B,BN,G. / egosPera AN,G. ikusBide AN,B. / ikusPide S. Baina formula gogorrok alternantziarik gabe: bizPairur AN, BN, L, S, ezKauza B. (menudencia), izPazter B (costa eta Bizkaiko herri-izena).

Kasu batzutan marra erabiltzea irtenbide eroso eta egokia litzateke, bainan gehiegi erabili gabe. Honela bioTZ-bigun, bihoTZ-bero, etab. onar daiteke konposatu ezpropio edo ezlotu bezala (azken afrikatua eutsiaz), bainan, inolaz ere ez, bihoTZbero bezalako grafia guztiz lotuak. TS/TZ digamen topaketa kasuan gogordurazko eskema tradizionala hau da, kasu askotan:

TS + B = SP sinheTS-Bera / sinheSPer L. siniSPera B,G.
TS + D = ST sineTS-Dun / sinesTun G.
TS + G = SK ameTS-Gaitz / ameSKaitz G.
TZ + B = aiTZ-Burua / aiZPurua (Deitura)
TZ + D = ZT iTZ-Dun / iZTun G.
TZ + G = ZK aTZ-Gordin / azKordin B.

Alternantziak sinisGaitz G, sinisgatx B. / sinesKaitz AN bezalakoak hor daude, baina arau nagusiena eta jatorrena hura da, noski.

Eskema antzekoa baliozkoa da S/Z ondorengo gogordura kasuetarako:

S + B = SP (esBarru / esParru) B,G.
S + D = ST (ikasDun / ikasTun) AN,B,G.
S + G = SK (eS Gara / eS kara) B. (no somos)
Z + B = ZP (eZ Dut / eZ Tut, eZ Dakit / eZ Takit) (no sé)
Z + G = ZK (eZGauza / eZKauza B, eZGara / eZKara) AN,B,G.

Nahiz-eta eskema hau ere konstatu euskal fonetikan, ez da noski goikoa bezain konstantea. Fonetismoak joera berdina dute sarritan

TX/TZ ondorengo arau fonetikoa gure konposakera garrantzitsuenetakoa delarik, hona hemen zerrenda luze bat, maiz, toponimikoez osatua:

AZKoien (Nafarroako hiria) a(i)TZ-Goien-dik
ASParren (Nafarroako herria) a(i)TZ-Barren-dik
AZPE (Ennecones de AZPE, Becerro de Leire, 149) a(i)TZ-Be-tik
aZKordin B. (sabañón) aTZ-Gordin-etik
haSPerapen BN, L, S. (quejido) haTS-Berapen-dik
aZPelar G (azafrán de campo) aTZ-Belar-etik
AZPeitia (Gipuzk. hiria) a(i)TZ-Beitia-tik
AZKoitia (Gipuzk.hiria) a(i)TZ-Goitia-tik (1)
AiZKorbe (Nafarr. herria) aTZ-Gorbe-tik
aSPero G. (calor sofocante) aTS-Bero-tik
aZKura G. (rascazón) aTZ-Gura-tik
aZPizar B. (padrastro de dedo) aTZ-Bizar-etik
ameSKaitz G. (pesadilla) ameTS-Gaitz-etik
boSPasei (Duv.) (cinco o seis) boST-Ba(t)-sei-etik
gaiZPera G, L. (achacoso) gaiTZ-Bera-tik
AySPe (San Miguel de Excelsis, 7087 urtean) aiTZ-Be-tik

(1) Baliteke bere etimologia *aranaTZ-Beiti aranaTZ-Goiti* izatea (nahiz-eta guretzat hori probatu gabe egon); kasu hortan ere TZ digamak gogordura sortzen du.

AuriZPerri (nafar. herria) AuriTZ-Berri-tik
aiZKorri (Gipuzk. mendikatea) aiTZ-Gorri-tik
AiZKorreta (Oiñati-ko deitura, 1592-an) aiTZ-Gorreta-tik
areZKuenaga (XIV mendeko deitura) are(i)TZ-Guenaga-tik
AZKarate (nafar. herria) a(i)TZ-Garate-tik
AiZPurua (deitura, Azkoiti-ko baserria) aiTZ-Burua-tik
aiTZPitarte (desfiladero) aiTZ-Bitarte-tik
LarraZPuru (Azkoitiko deitura, 1602-an) larraTZ-Buru-tik
laSPiur (deitura) (retuerto / río torcido) laTS-Biur-etik
AZKuendaran (Albistur-ko mendia, Gip.) aiTZ-Guendaran
aiZPakar (Besalgo-Bergara-ko lurra) aiTZ-Bakar
puZKar AN,BN, G. (cuesco, ventosidad) puTZ-Gar-etik
herSKailu L, S. (atadura) herTS-Gailu-tik
hoZPera BN,L,S. (friolero) hoTZ-Bera-tik
hoZPiko B. (azada bidente) horTZ-Biko-tik
sineSKaitz AN. (uncrédulo) sineTS-Gaitz-etik

* * *

Zerrendako adibide batzuk aldaketa fonetiko gabeko barianteak dituzte; aldagai hoiek, maiz, hizkuntzaren erosioaren ondorio izan daitezke eta bestetan euskalki berezi baten joera. Gure ustez, formula gogorrak primatu behar dira, gehienetan, alternantzietan. Hona formula bikoitz batzuk: aSPero G. / aSBero NB., aZKordin B. / aZbordin BN, aZPizar b. / aTZbizar, bioZTun G / bihoZDun BN, L,S. herSKailu L,S. / herSGailu S. ikaZKin G,S. / ikaZGin B, BN, R. hoZPera BN, L,S. / hoZBera BN, sinisPera B,G. / sinheSBera L.

TS ondorengo gogordurari uzkurrena (reaccio) -ETSI aditz-paratzizkia (parasufijo) da deribatuetan: mireSGarri AN,BN,G,L. onheSGarri (Duv.) gaitzeSGarri (F. Segura), etab. Alabainan gogortuta: sinheSPer L. eta sineS-Kaitz AN.

Baita ohargarria da gogordura ez-ezik, talde kontsonantikoen leundura edo laburdura ere ematen dela, elementu lexikalak soilduaz. Irizpide hori darama STK, NTK taldeak SK, NK bilakatzean. Gure ustez, mailebu zahar eta etxeko hitzetan bide hori jarraitu behar litzateke.

Adibideak:

deshoneSTKi (Leizarr.) baino onHeSKi (Duv.)
galaNTKi (Axul.) baino galaNKi G.
arruNTKi (Axul.) baino arruNKi BN, L, S.
baleNTKi (Leizarr.) baino baleNKi L.
ausaRTKi (Axul.) baino ausaRKi BN,G,S.

Dudarik gabe, formula leunduak eta laburtuak bestelakoak baino hedatuagoak daude, eta gure fonetik joerarekin hobeto datoz.

e) *Konposakeran gogordurazko beste kasuak*

Fonetikaren jatortasun bidean euskarak baditu gogordurazko beste kasuak; kasu hoiek berrindartu egin behar dira alboko erromantzeen joerak ahulduz. Toponimiak (aro aspalditakoa delako, gehienetan) joera jator hoiek hobeki gordetzen ditu; orduan ez baitzegoen gaurko diglosiarik eta hizkuntz tartekadurarik.

TS/TZ digamen eta S/Z igurzkarien ondorengo gogordura jarraiturik, hona beste krokis bat beste zenbait topaketa kontsonantikorako:

T + B = P (baPeder / baT-Bedera-tik) uno mismo
(baPatean / baT-Batean-dik B,BN, G,L.) de repente
(baPez / baT-Bere ez-dik B.) nada
(loPide / loT-Bide-tik L,S.) (nexo), zoPerri / zoT-Berri-tik G.
T + D =T (baiTut / baiT-Dut -etik, baiTira baiT Dira-tik)
T + G = K (loKarri / loT-Garri-tik B,BN,G,L.) lazo
(bosKarren / boSTGarren-dik) quinto
(zenbaKarren / zenbaTGarren-dik (Azkue) ordinal
(loKune / loTGune-tik R.) siên
(beKain / beTGain-etik AN,B, BN,G,L.) ceja
(okarKabe /oharTGabe-tik) inadvertido
K + B = P (baitiPat /baitiK Bat-etik) sobre todo
(beinePein / beiniK-Bein-etik G) al menos
K + D = T (neriaK Tie / neriaK Dire-tik (Holmer)
K + G = K (egonaK-Kera / egonaK Gera-tik (Lexoti)
(gizonaKaz / gizonaKGaz-etik B.)

Bestalde, euskarak joera bizia du B / D / G oklusibak edozein egoeratan gogortzeko. Edozein elisio, edo galera (bokal soil bat adibidez), partizipioaren erorketa, ala edozein topaketa bitxi aitzaki gerta daiteke gogordura sortzeko. Datozen hitzok esandakoaren adierazpen dira:

usteKabe AN,BN,G,L,S. (ustegabe) besterik gabeko lotura
helKaitz (Duv.) (helDUgaitz) -DU partizipioaren erorketa
etorParri B. (etorrIbarri) -I primitiboaren erorketa
arKaitza AN,G. (arrIGaitza) *i* tematikoaren erorketa
hespIlla BN,L,S. (esIbilla) i tematikoaren erorketa
hezKaitzBN,L. (hezIgaitz) *i* primitiboaren erorketa
helPide L,S. (helDUbide) -DU partizipioaren erorketa
saPelar B. (saPAbelar) -PA tematikoaren erorketa
irtePide B,G. (irteNbide) N tematikoaren erorketa
adaPuru B. (adaRburu) R tematikoaren erorketa

Beste adibideok ere gogordura daramate bigarren konposagaian, ukiduraren poderioan: doha / dohaKaitz BN,L,S. ohe/ohaPuru G, su / suPazter AN,BN,L. gozo/gozaKaitz AN,G. aho/ ahoPizar B,G, etab.

f) *Topaketa kontsonantikoaren zenbait fenomeno*

Atal hau, nolabait, gorago ikusia dago, bainan zenbait prezisio edo zehaztapen falta da. Esana dugu sudurkari konponenteak plus igurzkariak (NS / NZ eta NX) bitartekotzat T bat hartzen duela, NTS / NTZ / NTX bilakatuaz. Fenomeno fonetiko hau nahiko konstantea da ia euskalki guztietan, eta arau bezala euskara batuan aplikatzea egokia da, bai etxeko ta bai kanpoko hitzetan (hitz teknikoak utzi gabe).

Adibideak:

funcionamiento = funtzionamendua
incidencia = intzidentzia

Hitzak gure harrobikoak direnean eta konposakeran:

lan + sari = lanTsari
lan + saio = lanTsaio

Lehen konposagaia laburra denean komeni da bi konposagaiak besterik gabe lotzea, marrak utziaz.

T-ren tartekadura berdina R + S / R + Z / R + X kasutan (RTS / RTZ / RTX bilakatuaz) eta L + S / L + Z / L + X multzotan (LTS / LTZ / LTX).

Gure ustez, disminutiboetan eman ohi den zenbait alternantzia busti *xerri/txerri, xori/txori, xistor/txistor, xoko/txoko* etab. batzutan hitzen topaketa berezitik sortu da (adibide, mutur-xuri *mutur-Txuri* bilakatuz, nafarxerri *nafarTxerri* bilakatuz, lotzean). Baiespen honek balioa du, behintzat, hitza soilaren muturrean igurzkari (fricativa) bat dagoenean. (kasu: *xerri, xori, xirula, xister,* etab.) Mendebaleko euskalkietan (B,G.) T hori ia beti ematen da, agian, fosilizazio prozedura batez.

Bestaldetik, ez dago esan beharrik euskaldunak kaxo artean eta fonetismo mailan hitz desberdin asko batzeko joera duela, adierazitako T tartekadurak emanaz. Puntu hontan aski da Holmer-en liburua aztertzea.

Gipuzkeraz fonetismo batzuk:

jUn Tzan (joan zen)
ekarri omeN Tzun (*Tzoon,* Goierri) (ekarri omen zuen)
ekaR Tzazu (ekar ezazu)
aR Tzak pa (har ezak bada)

Adibide hauetan N / R ondoren T horzkaria tartekatu da.

* * *

9. *ARI, -ARA, -ERE, -ERI* konposagaietan aldaketak eta elisioak. Adjetiboaren egoera berezitasunak

-ARI, -ARA, -ERE konponentez bukaturiko hitzak R fonema L bilakatzen dute, azken bokalea erortzen delarik. Fonema hau konposakeran (afARI

/ afaLondo) eta deribazioen ematen da (euskARA / euskALdun) eta batzutan konposakera ezpropioan ere bai (EuskaL Herria, merkataL negoziaketak).

Adierazitako konponenteak hitz (guztiz) bakan edo independientetan ez dira aldatzen. Aipatutako fenomenoa, batez ere, konposaketakoa da *(abELetxe* / abERE-etxetik, *afALaurre* / afARI-aurretik, *gALburu* / gARI-buruutik) (1).

Hemen komentaturiko araua nahiko zabala da euskal hitzkonposakeran, nahiz-eta zenbait hitz *(hiri / uri, zori, isuri, itxuri* eta norunzko -RA deklinatibodunak aldaketarik ez jasan, gehienetan. Horregatik, gure ustez ARGITALETXEA konposatuak (argitaRA-etxetik) formula fonetiko txarra du.

* * *

Aldaketa fonetikoaz konposatuak:

atARI /atALburu AN, G, dindel
afARI / afALondo BN,G,L. poscena
dendARI / dendALdegi (Urnieta-ko baserria, Gip.)
bazkARI / bazkALdu AN, B, BN, G, L. comer al mediodia
gosARI / gosAlaurre AN,L. antes de almorzar
ugARI / ugAldu B,G. multiplicarse
gARI / gALaundi G. trigo chamorro
gARI / gALauts AN,B,G. residuo de cascabillo
gARI / gALondar B. residuo de trigo
ERI /ELbarri AN,BN,G. tullido
ERI / Elgaitz BN,L,S. fiebre
ERI / Elgorri B,G. sarampión
ERRI / Elbarren G. (población de abajo, Lizartza-ko hauzoa)
EURI / EULbera B. llovizna
atARI / atALondo AN. portal
abERE / abELgorri AN, B,G,R,S. ganado vacuno
abERE / abELetxe (Bergara-ko baserria, Gip.)
abERE / abELbide (Ulibarri-Ganboa, Araban)
euskARA /euskaALerri (Vasconia, país del euskara)
euskARA / euskALdun c. (vascófono, "el que posee el euskara")
erdARA / erdALdun c. (extraño o vasco que no sabe euskara)
gARI gALburu AN,B,G. espiga de trigo
gARI / gALeper AN,B,G. codorniz
gARI / gALbae AN,B,G. criba de trigo
zamARI / zamALburu (Arabako herria)
zamARI / zamALzain S. palafrenero

(1) Nolabait antzeko fenomenoa (nahiz-eta ez guztiz berdina) ondoko gaztelanian latinezko -ARIUS-etik datozten botanika-kasu batzutan. Latinak -ALIS eta -ARIS-en alternantzia ezagutzen du (legALis eta familiARis). Horregatik gaztelaniaz -AR/AL gastañAR / castañAL, manzanAR / manzanAL, hayAR / hayAL hitzak. Eta herbARIUS -etik herbAL.

Berandu asimilatutako hitzetan (bulegari, atomari, unibertsitari eta antzekoetan) ez dut uste aldaketarik komeni denik *bulegAL, atomAL univertsitAl* eta horrelakoetara. Hori hizkuntza bortxatzea litzateke, agian. Tradizioko mailebutan *merkatal, teologal* (Xurio) ibiltzea usariozkoa da, bestalde.

Euskaraz erromantzetako adjetiboa (aurretik) erabil daiteke izen-konpositibo bezala. Beraz, euskaran bestetako adjetiboak konposakera moduz aurretik erabiltzea oso gurea da, sustantibo bihurtzen direlarik (euskaraz ez baidaiteke adjetiboa aurretik: *gizon ona* / ez ona gizon). Inglesean ere nabarmena da antzekoa jokaera, *thecnology-power,* kasuan adibidez.

Adjetiboa euskaraz aurretik joan daiteke -ZKO atzizki objetibatzailea duenean (*lurrezko* eltzea, *plastikozko* mahia, etab.) Joanes Etxeberri Ziburukoaren "Manual debozionezkoa" bezalako formulak sekundarioak dira.

Hori delarik, gaztelaniazko adjetibo aunitz euskaraz izen muturrean doa konposakera mailan. Hala nola, hori gertatzen da *erdal, euskal* hitzen kasuan konposaketan jardutean; hitz hoiek euskaraz adjetiboak ez baina *sustantiboak* dira, hots, *erdara* / *euskara* hitzen sinkopak.

Gaztelaniazko adjetibo aunitz sustantibo bilaka daiteke euskaraz izenari aurrezartzean (*teknik* indarra, *psikologi* konplexitatea, *geologi* egitura, etab.)

Orain dela gutxi txartel politiko batean esaldi hau zetorren: "maiatzak ean lan ezaren aurka sindikal burruka". Txartel hori ez da onargarri dagoen bezala, *sindikal* formula adjetiboa delako, eta hala izanik, *burruka* izenaren ondoren joan behar duelako (burruka *sindikala*). Izen aurretik ezarriaz gero, erabili izen formula, hots, *sindikato* hitza, ez *sindikala* litzateke (beraz, *sindikato* burruka). Zenbait politikari gehiago saiatu behar da gure sintaxiaz eta fonetikaz.

Euskaraz ez da berdina *komunista alderdia* (partido de individuos comunistas) eta *alderdi komunista* (partido comunista, como tal), atribuzioz bezala. Ondorio gisa, baztegarriak dira expresakera hauek: *fiskal* zerga, *ofizial* erabakia, zerga *fiskala* eta erabaki *fiskala* ordez. Bainan azken hau konposakeran ere erabil daiteke, *fisko zerga* formulapean.

10. *Onomatopeien arau fonetikoak*

Hitz-konposaketaren morfologiaz jardutean zenbait konposagai onomatopeiko ikusteko okasio izan genuen. Euskarak horrelako konposagai aunitz du. Azkue-ren hiztegi handia ikus-miratzea aski da gure hizkuntzaren onomatopei joera nagusia aztatzeko. Bestetan formula *para-onomatopeikoak* ematen dira.

Guk atal hontan onomatopei-konponenteak fonetika aldetik aztertuko ditugu. Aldaketa hoiek laburki hauek dira:

a) Bigarren konponentearen lehen fonemak B / B hala P darama (ikusi-Makusi, isil-Misil, zurru-Purru).

b) Lehenengo konponentearen i bokalea a-ra aldatzen da bigarrenean (zIrtI-zArtA, zIplI-zAplA, zIst-zAst, etab.)

Bigarren konponentean M daramaten onomatopeikoak:

isil-Misil B. cuchicheando
hizki-Mizki G. naderías
kuku-Mikuka al escondite
ulu-Mulu hablillas
angula-Mangula ibili caminar haciendo eses
kokolo-Mokolo B. indeciso
aiko-Maiko B. indeciso
zili-Molo B,G indispuesto
autsi-Mautsika BN,L. con interrupciones
inku-Minku medianamente
iskil-Miskil poquedad
itzuli-Mitzuli rodeo
uxuluka-Muxuluka B. hablar secretamente
ingura-Mingura circunloquio
elhe-Melhe BN. burla
koloka-Moloka B. balanceándose
erran-Merranak L. dichos, habladurías
txirri-Mirri B,G. insignificante / persona algo alegre R.
aldo-Maldoka BN. caminar haciendo eses
zitzi-Mitzi L. bisbiseo
ixtorio-Mixtorio fábulas
duda-Muda vacilación
zirri-Mirri G. insignificante
ez-Mezean B. dudando
zozo-Mozo azoradamente
xoro-Moro en la inopia

Kontutan eduki beste zenbait hizkuntzek ere fenomeno berdina duela, bigarrenean M hori ezarriaz. Gaztelaniak, adibidez, kasu hauetan, behintzat: *ceca-Meca, tiquis-Miquis, troche-Moche.*

Oraindik badira gurean adierazitako aldaketa fonetikoaz beste adibideak:

zinkulin-Minkulin L. lastimoso
handi-Mandi L. magnate
inguru-Minguru G. alrededores
tteke-Meke R. provocando
xiri-Miri B,G. suavemente / llovizna
zizka-Mizka BN,L. golosina
irri-Mirri L. risa burlona

keka-Meka B. indeciso
kili-Molo B. indeciso
txutxu-Mutxuka cuchicheando
sino-Mino BN, gesticulando
zurru-Murru B,G. remolino-Murmullo
ikusi-Makusi B. acertijos
zangala-Mangala torpemente
zulu-Mulu B. terreno quebrado
zehar-mehar B,G. rodeo
txirula-Mirula cantando

* * *

Bigarren konposagain B hala P duten onomatopeidunak

zurruBurru S. confusiones
txiri-Biri S. conversación frívola
ez hitz ez Bitz B. nada
zizi-Baza egin cecear
txitean-Pitean B.
zirri-Parra B,G. embrollo
hitza ta Pitza (dario) hablar mucho
txala-Patxala B. charlando
zurru-Purru G. confusión de gente / ronquido B.
zitzi-Putzi L. bisbiseo
txutxu-Putxuka B. cuchicheando

* * *

Beste kontsonantez ere eman daiteke aldaketa, adibidez, L txiru-Liru B,G. (cantando) kasuan.

Beste batzutan ez dago aldaketarik bigarren osagaian:

zanga-zanga torpemente / beber mucho
mauka-mauka comer mucho
kras-kras B. suavemente
ttapa-ttapa AN,B,G,R. a paso corto
barra-barra G. profusamente
txor-txor ari G. suavemente
muxi-muxi S. lastimoso
fara-fara B. suavemente
mara-mara G. suavemente

Fonetikoki ere, beste adieragarria bigarren osagaiaren aldaketa bokalikoa da (*a* bokaleaz ematen dena). Gure hizkuntzan bere intzidentzia nahiko nagusia da; alabainan fenomeno berdina daukagu (urriago noski) gaztelaniaz ere:

zIg-Zag
tIc-tAc
pIf-pAf

Eta katalaneraz:

xIne-xAno pausadamente
crIc-crAc ruido
balIga-balAga persona poco seria

Kasuak gurean:

Ikusi-mAkusi acertijo
zIrti-zArtA rasgando, resolutamente
txIplI-TxAplA AN,B,BN, chapoteando
plIstI-plAstA chapoteando
zIrrI-zArrA a la ligera
tIrrikI-tArrakA arrastrando
pInpI-pAnpA golpeando
zIrt-zArt B,G. resolutamente
trIkIlI-trAkAlA AN,G,L. torpemente
fIrrI-fArrA B. sin ton si son
tIkI-tAka B. andar con dificultad
pIrrP-pArrA profusamente, abundamente
bInbI-bAnbA golpeando
zIrkun-zArkun B,G. dando tropiezos
zIrI-zArA AN,B,G. destilarse suavemente
txIplI-txAplA B,G. chapoteando
zIngulu-zAngulu B,G. arrastrando los pies
zIpIrrI-zApArrA B. chapucear
fIrrIst-fArrAst AN. torpemente
InkI-AnkA al tuntun
zIrrIn-zArrAn B. arrastrando los pies
zIst-zAst resolutamente
tIrrIkI-tArrAka arrastrando los pies
tIpI-tApA a paso corto

Ikusten denez, oso sarri, aldaketa bigarren osagaiaren bokale guztietara hedatzen da.

TOPONIMIA

UDAL IZENEN OFIZIALTASUNA

Donostia, 1980, V-30

Luis Michelena

Autonomi-bideetan barrena abiatuak garen edo abiatzekotan gauden une hauetan, maiz entzun ditut besteren kezkak gure hiri-izenak (batez ere) direla kausa, eta gezurra nioke nerau ere artega nabilela aitortuko ez banu. Sartua baitago gure artean izenak edozein lekutan eta edozein testu-ingurutan euskal ortografia soilez ematea edota euskal izena bakarrik, erdarazkoa bazterturik, ager-eraztea. Badira ere, gainerakoak aski ez balira, euskal izenak berak euskalduntzen edo euskalduntzenago eginahalean ari zaizkigunak.

Hori guztiori eta gehiago ongi irudituko litzaidake zin-zinetan uste banu horrela euskara indartzen eta zabaltzen dela. Baina, izena duen edozerk izana ba omen du ere, diotenez, hark ez du hau gehiegi aldatuko.

Gure asmoa eta gogoa Euskal herria egunen batean egiazko Euskal herri bihurturik ikustea da, noski: gure ondorengoek ikustea, alegia, geure begiz ikusiko ez duguna. Badakigu, haatik, beste hizkuntzarik ere ezagutuko dela, ezagutu eta erabiliko, bai gure herrian bertan eta bai batez ere gure herriak besterekin izan behar dituen tratuetan. Onenean ere, ez baitugu euskara herri eta nazioarteko tratu-hizkuntza mailara jasoko, zein ere jasotzen dugun.

Gure hiri, auzo eta eskualdeen izenak bitara esan eta idatzi ohi dira edota, nahiago baduzue, bitara esan eta idatzi behar lirateke: euskal-jantzian eta erdal-gisara, eta erdara gaztelania da bazter hauetan, besteetan frantsesa orain. Bataren eta bestearen arteko aldea grafia kontu hutsetan datza maiz aski (*Gopegi* nahiz *Gopegui, Zumarraga* nahiz *Zumárraga,* inork horrela apaindu nahi balu, eta abar), hortik goragoko aldaerak ere usu aurkitzen dira (hala nola *Galdakao / Galdácano,* etc.) eta badira azkenik elkarrekin jatorrizko zerikusirik ez duten izen bikoteak ere (*Luzaide / Valcarlos, Iriberri / Villanueva),* hotsei dagokienez bederen.

Ez dakigu zergatik, este baterako, *v* bat duen erdaraz *Vergara*-k, baina horrela agertzen da Nafarroako dokumentuetan behintzat XI-XII.mendeez geroz; ez dakigu, orobat, nondik daramaten *Hernio*-k edo *Hernani*-k (garai batean erdaraz bakarrik) izenburuko letra hori. Gaur egun, *Bergara, Hernio*

eta *Hernani* idatziko genuke, nik uste, euskaraz; aspaldi ez duela, berriz, *Bergara, Ernio* eta *Ernani*. Nolanahi ere, aldaera horiek ez diote gehiegi kentzen ez gehitzen izenaren euskal izaerari. Etorkiari buruz, alferrik da (erdaraz ari garelarik) *Kadreita* nahiz *Opakua* idaztea, bekokian baitute ageri latinaren eta (lehenbizikoak) erromantzearen bitartekotasuna.

Bergara nahiz *Vergara* (erdaraz diot, berriz ere) oinarritzat hartzeak baditu ondorio larriak eta alde askotarik (ekonomiarenetik, batipat) arras kaltegarriak. Munduan barrena abezez sailkatuak dauden izenak, erabat aldatu behar ote dire, dozenaren bat zinegotziri gogoak eman dielako? Ala konputatzaileei buruz erakutsi behar ote diegu nola ezagutu *Errenteria* itxuran (*Orereta* itxuran ez baldin bada) agertzen zaien *Rentería* izena?

Nik ez dakit ongi nondik noraino jo dezakeen, nahi izanik ere, Euskaltzaindiak auzi honetan. Funtsezko zimentarri bezala, honako puntu hauek azpimarkatuko nituzke nik:

1.—Euskaltzaindiak (*Izendegia*-ren eta honek izango dituen osagarrien bitartez) hartu dituen eta har ditzakeen erabakiak euskaraz ari garenean, hitzez nahiz izkribuz, erabili behar diren izen propioez (izen propioen formez) dira.

2.—Euskal izen horiek berezko dute ofizialtasuna eskualde honetan eta Euskaltzaindia ofizialtasun horren alde agertu da beti.

3.—Euskaltzaindiak ez du, ordea, inolazko eskubiderik izenok erdaraz nola erabili behar diren esateko. Hori besteren esku dago, eta, batez ere, gure esku, erdal izen horiek gure herrian duten itxura lauzpabost mende zehar Euskal herrian bertan hartu dutena baita batipat. Erdaraz ari ziren euskaldunek eman diotena, beraz, besterik baino gehiago.

4.—Ezin sar daiteke Euskaltzaindia besteri dagozkion eginbideetan, baina adieraz dezake, gutienez, euskararen alde jokatu nahi duenak (bere eskualde, hiri nahiz auzoan) baduela inguruan zeri ekin. Izen-aldaketa axaleko kontua besterik ez dela egiteko larri horretan. Zertarako dugu euskarazko izen bakarra, bertako hizkuntza bakarra edo nagusia erdara baldin bada?

5.—Erdal normak ez ditu Euskaltzaindiak ematen Erdaltzaindi batek edo bestek baizik. Begiramena merezi dute, haatik, hauek ere, gure ondasunen kontra ez dabiltzan guztian. Eta badirudi tradizio luze batek guregana dituen izenak, nahiz erdaraz erabiltzekoak izan, errespetoa merezi dutela, baita horiek ere.

6.—Gauza jakina da zer gertatu ohi den gehienbat horrenbeste aldiz egin diren izen aldaketekin: hor ditugu, urrutiago jo gabe, hainbeste kale, plaza, eta gainerako. Joku alfer horretan sartzeak, bada, ze probetxu ekar dezake, ezinbestean egiten ez baldin bada?

BERRIAK

AURTENGO TXOSTENEN PROGRAMAKUNTZAZ

Donostia, 1980-1-25

J. Luis Lizundia

1979.urteko txostenen programakuntza batetarako apunte batzu eskatu dizkit euskaltzainburuak. Berak oso beharrezkotzat joten du hori, azken orduan eta beti banan banan eskaka orainarte —zerbait programaturik ez dagoenetan— bezala ibili ordez.

Txostenen programakuntzarako ardatz batzu ikusten ditut, hala nola:

1.—*Euskal Erria* aldizkariaren mendeurrena, Berako Euskal Bestena eta Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak. Hirurok aurtengo egutegirako iragarriak. Beren inguruan, garaiz programa daitezke zenbait txosten, baita ere txostengileak aukeratzen hasi ere. Gero zehaztuko dugu hobeto.

2.—Euskaltzain urgazle berriei txostenak eskatu. Hori orain lau urte egin zen eta gehienek erantzun zuten. Orain bigarrenez egin genezake. Jadanik euskaltzainburuak idatziko zien, denei lanen bat eskatuz. Euskaltzain osoek bezala obligaziorik ez badute ere, oso komenigarri da. Elkargo lagunen aurrean bere lanerako gogoa eta Akademiarenganako atxikimendua erakusteko. Gainera Azkuek bere garaian eskatzen zuen eta badugu gure Lafitte haren lekuko. Zehaztuko dugu pundu hau ere.

3.—Arrasateko Biltzarraren jarraipena. Gure ustez larunbatean txostengileekin izan genuen bilerak, eta Biltzar Adierazpenaren ildotik segituz, ekar dezake gramatika lanetarako mesederik. Igaz, Bergaratik arrez gerokoek etenik gabe lan eta erabaki zehatz batzuen fruitua ekarri baitigute, beste hainbeste espero dezakegu, Adierazpenaren puntu hau ongi kunplitzeko bideak asmatzen baditugu, alegia:

"3.—Bide honetan barrena jarraitzeko lan talde batzuen beharra, premia eta nahia erakusten du. Horretarako batzordeak sortuko ditu".

4.—Toponimia lanak. Argitaratua dugu Udalen Izendegia eta berriz hastekoak gara Batzordekook lanean, Herri Izendegiko beste zerrendekin, hots, udal maila ez dutenekin: herrixka, kontzeju, elizate, kofradia eta auzo gotorrenak. Bestalde hor ditugu Diputazio batzuk berriztatzen edo egiten hasi diren 1:5.000eko mapak. Benetan lan nekeza eta luzea, dedikazio handikoa

eta lankide berriak eskatzen dituena. Hortaz ere, lanen nondik norakoa agertuz, iturri bibliografia, lekuko eta beste txosten batzuk batzarretara eramatea, oso interesgarria gerta daiteke, besterik ezean nolako lantzurekin esku artean Euskaltzaindia eta Euskaltzaindiakoak dabiltzan, jendeak jakin dezan.

5.—Lanean diharduten beste batzorde batzutara joko nuke baita ere, hala nola Lelukoenera, Herri Jakintzakora, Aditzekora, adibidez. Eta beren idazkariei, hots, Villasante, Satrustegi, Altunari eskatu akulari lana egiteko. Segur nago, txosten interesgarriak burutuko direla, lehen ere agertuak baitira. Iker Saileko batzordea ez bada ere, oso gaurkotasunez betea ikusten dut bertsolari batzordea, hara hortaz zer zien *Deian*, J. M. Torrealdaik oraintsu: "Instituzioen iniziatiben artean bi bakarrik aipatuko ditut. *Euskaltzaindiarenak* bi-biak: gramatika finkatzeko *Euskaltzaindiaren* IX Biltzarra Arrasaten, eta Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa".

Eta Erregen egunean *Eginek*: *Euskaltzaindiari* esker, aurten, berriro, Euskal Herri osoko Txapelketa jokatuko da gaur Donostiako Balda frontoian. Ez dira Txapelketan, diren guztiak, baina parte hartu dutenak adoreaz eta kanoreaz gainera, bertsolari onak ez direnik ezin esan. *Euskaltzaindiak* prestatu duela Txapelketa, esan da. Egia. Euskara zaintzea dagokio *Euskaltzaindiari*. Euskara kultur mailara jasotzea. Inor bada *Euskaltzaindia* baitago herriak egunero egiten duen euskararen alde. Baina, hainbeste desberdintasun delarik, desberdintasun guzti horiez baliatuz, euskararaen batasuna nahi du, egiteko horretan ari da, ekin eta jarrai, aspaldiko urte hauetan. Bertsolaria da herriaren ahotsa. Nola utz zezakeen bazter, *Euskaltzaindiak*, herriaren arimaren bozeramale den bertsolaria".

Beraz azken txapelketa hauen kronika izango den txosten bat beharrezko dugu, ahal bada Urtarrileko batzarrerako, dossier eran egina. San Martin, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde eta gehiagok —behar bada— idatzi dutena ere bilduz.

Batzorde idazkariei idatzi, edo denen arteko bilkura bat egitea komenigarri izan daiteke. Bakoitzak batzorde lagunei buruagandik hasita, lehen aipatutako akulari zeregina egin dezaten, hots, txostenak eska eta programatu.

6.—E. Knörrek eta J. San Martinek, Iker eta Jagon saileko bere —Foruko txostenetan— zenbait lan aipatzen zituzten. Berrikuste bat eskatuko nizkieke, gai batzuri buruzko txostenak eskatzeko, beti ere posibilitate eta prioritateen arabera.

* * *

Goazen orain puntu batzu zehaztera:

1.1.—*Euskal erria* Aldizkariaren mendeurrena dugu aurten. 1880.ean sortu zen, prezizkiago, bigarren seilebetekoan. Aldizkari honek, eta beronen garaiko beste zenbaitzuk, hurrats interesgarri bat suposatu zuten euskal alorrean. Egutegian aipa bezala, Donostiako batzar bat, arratsaldeko bat, espreski

eskaintzea litzateke asmoa. Baina gaurko gaiari lotuz pentsatzen joan behar duguna, txostenak enkargatzea da, horretarako bibliografia edo hemeroteka zaleen artera begiratu behar dugu eta badauzkagu. Garaiz agindu ezkero (Arratiako zentzuan, hartzen dut *agindu* hitza), oso txosten baliatsuak burutu daitezke, *Euskal Erria*-ren ingurua hobeki ezagutzeko aproposak, eta gaur egun euskal aldizkariak dauden egoera ikusirik mesedegarri gerta daitezkeena.

1.2.—Berako Euskal Besten mendeurrena ere badugu. *Euskal Erria* aldizkariari esker, badakigu haren berri zehatza. Ospakizun horretarako nolako txosten eta nori eskatu ere pentsatzen joan beharra dugu. Nik neure kontutik, eta honek ez du ideia baten balorea besterik, Caro Baroja euskaltzain ohorezko berria ikusten dut aproposa; erdi beratarra izanik, eta baita, Ondarra ere, honi Bidasoa eskualdeko, Caro Barojak nunbait "el pais del Bidasoa" deitzen dion euskara, toponimia edo beste zerbait aztertzen has dadila erregutuz.

Berako batzarraren inguruan; Uztailaren ondarrean, igaz Foruan egindako Barne Jardunaldiaren gisara bigarren saioa egin genezake. Gehienon ustez oso probetxugarriak izan ziren, bai gure arteko konbibentzia aldetik, eta bai gure Elkargoaren barnera azterketa begirada bat emateko. Lantzean herrialde batean egitea komeni zela aipatu zen. Ba, Nafarroan daukagu aurten aukera. Bortzirietan toki xarmantik bada eta aukera genezake bat. Horrekin literatur edo hizkuntz txostenik aipatzen ez badut ere, barnerako prestatu beharra egongo dela, diot.

1.3.—*Nazioarteko euskalarien Jardunaldiak* ditugu Abuztuaren azkenalderako iragarriak. Horretarako dagoen batzordeak hautatuko ditu txostengileak eta gaiak, noski. Mitxelenak, oker ez banago, Jardunaldi horiek nolabait Unibertsitatearekin lotzea ere nahi zuen. Behar bada ez legoke txostenen batzuk, Jardunaldiko egun batetan, Leioan eman ezinik, ez baitago Gernikatik urrun, eta gainera, unibertsitateko irakasleren batek. Dena dela, hau berarekin eta beste batzordekideekin tratatu beharra dago.

2.—*Euskaltzain urgazle berriei* txostenak eskatzea, banan banan bakoitzaren espezialitatea aztertu behar dugu. Linguistika alorrean Karmele Rotaetxe, Patxi Goenaga eta Jose Antonio Mujika baditugu, hirurak Arrasaten txostendun, eta bereziki gipuzkoar biok, gramatikalariak, eremu horretako txostenak eskatzea da bidezkoena. Telletxea Idigoras, Garmendia Arruebarrena eta Apezetxea euskal idazle bati buruzko ikerketak egiten saiatuak, berauen lanak Euskaltzaindiko batzarretara eta bide batez EUSKERAra ekartzeko modua izango dugu.

Junes Casenave pastoralgintzan eta Daniel Landart teatro lanetan ez dira lankide txarrak eremu bi horiek gure batzarretara ekartzeko.

Federiko Barrenengoa eta Periko Sancristovalek toponimia lanetan eskaini dezakete beren emaitza. Bata, Aiara eskualde gutxi ezagunaren ikertzaile zehatza eta bestea, Diputazioaren bidezko Jagon Sailaren bideko langile

izan badaiteke ere, geografi azterketan aritua. Ondarrak ere ezagutzen dituela uste dut toponimia lanak, beste ikerketa mota batzuren artean.

Pedro Pujana, gramatika eta aditz lanetan aritua dugu, batez ere Oleta herrixkan eta ia beronen inguruan: Otxandio, Ubide, Bilerlen, bakarrik gordetzen den Arabako euskararen dialektologia ikerketetan txosten interesgarririk ekar ditzake. Nafarroa Beherekoan, Jean Batista Etxarren-gandik espero dugun bezala.

Eustasio Etzezarreta bere Euskalerriko Liturgi Idazkaritza leihotik, Elizarekiko ofizialkidetasun esparruko kronika-txostenik eskainiko digulakotan nago, karguaren salbuespenak kontutan izanik, eskatzen badizkiogu. Baditugu lehendik ere frogantzak.

Azkenik, Jose Antonio Arana. Lehendik ere txosten interesgarririk, egina da. Azkena Azaroan, durangar euskal idazle ezezagun biren xehetasunak emanez, eta aurreraxeago Kanalaetxebarria gernikar idazlearena. Beraz, gehiago ere itxoin dezakegu, Azkue Bibliotekari buruzko langintza edo kroniketatik, gainera.

3.—*Arrasateko biltzarraren jarraipena.* Badu hemen Euskaltzaindiak lan eta txosten anitzen iturria, konpromisua ere.

Hau behar den bezala programatzeko ideia hau aurkezten dizuet: Bazko astean Euskaltzainak Arrasateko txostengileekin eta behar bada beste gramatikalarieren batzuk, egun oso batez toki lasai bate bildu eta Adierazpenean aipatzen diren lan taldeak zeintzu izan daitezkeen, nolako lan eremukin, zelako lan plan eta abar tratazeko. Epe laburrerako, Arrasateko txostenak osotzeko egin daitezkeen beste zein txosten aztertu eta epe luzerako, euskal gramatika batetarako, nolako urrats eman daitezkeen ere ikutu beharko lirateke egun horretan.

Seguru asko, biharamonean, euskaltzainak, hautatzen den batzordeño eratzaile batekin, zenbait erabaki hartu beharko lituzteke, hala nola, bezperan erabakitakoa sistematizatu, batzorde batzu izendatu, eta lan *aurreplana* asmatu.

Txostengintza iturri jario honek, ba du bere garrantziarengatik serioski hartu beharra.

* * *

Toponimia lanak. Hemen, arestian aipa bezala, ba da ikerketa lanik. Bi azpimarratuko nituzke; bata, gutxienez hamabostero berriz Gasteizen biltzea eskatzen duena, alegia, Herri Izendegiarena. Zenbait eskualde ikusiak dira jadanik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bina eta, Nafarroan, lau. Oraindik ba dugu tarea!

Bestalde 1:5.000 mapagintza aipatu dut. Hau honetatik dator: bi arkitekto etorri zaizkit langintza bat eskatzera. Bien artean Markina buru duen

eskualdearen hirigintza planaren errebisio osoa egiteko ardura hartu dute Bizkaiko Diputazio Foraletik. Txema Basañezek, Artibai ibarreko herrietako ardura dauka; besteek, Eduardo de Felipek, Lea ibarrekoa. Eta eskabide hau izan da, hain zuzen: 1:5.000ean dauden eskualde horren mapetako zuzenketak egitea. Lan nekeza, Udaletxe bakoitzean azterketak egitea eskatzen duena; Jabego Erregistroan ere bai, Markinako karmeldarren liburutegia begiratzea, bibliografia, ahantzi gabe. Azkenik, auzoz auzo edo bertako terminologia erabiliz, kofradiaz kofradia ibili, lekukotasunak jasotzeko. Desafio honi, desafio bat baita, ene ustez, hainbat azkarren erantzun beharra daukagu.

Eta kasu honetan ni izan anintz ere arduraduna, beste batzu baletoz, ezingo nuke. Lankide berriak behar ditugu, eta are gehiago, beste Diputazio batzuk, langintza hori erabakitzen baldin badute. Federiko Barrenengoa batekin pentzatzen nago orain eta beste batzu ere izango dira edo bilatu behar ko ditugu. Esate batetako, A. Ondarra bat, Nafarroarako?

Lan hauen finantzabiderako Diputazioei eskatu behar zaie laguntza, baita ere Herri Izendegiaren lanerakoan ere. Bestalde guk EUSKERA eta separatetan argitaratu arren, bakoitzeko Boletin Ofizalean agertzea litzateke interesgarriena, Udaletxe guztietan hartzen baita, bide batez funtzionarien artean horrek ematen dion itzala kontutan izanik.

1.979.eko MAGNETOFOI BILKETA

Donostia, 1980-V-30

Jose M.ª Satrustegi

Zortzi lan aurkeztu dira 1979an, eta ontzat eman daitezke. Lau cassette Luis Mari Igartu-ak bildu ditu. Komeni litzateke hemendik aurrera biltzailearen izena harian ere ematea. Beste laurak Mezkirizkoak, neuk bildu ditut.

1. LEKAROTZ. Jesus Goñi-ri jasoa, (alde biak.)
2. BAZTAN:
   a) Jesus Goñi, Pakita Otxandorena.
   b) Elizondoar bikote baten elkarrizketa.
3. AMAIUR: Alejandro Iribarren, (alde biak.)
4. AMAIUR: Juanita Inda, "Makitenea" (alde biak).
5. MEZKIRITZ: Perpetua Sargüeta, Festa, sineste eta lanbide.
6. MEZKIRITZ: Marcos Saragüeta, Kuxetilia (Cucharero).
7. MEZKIRITZ:
   a) Martin Errea, 68 urte, nekazaritza.
   b) Perpetua Saragüeta, Trinidad Urtasun bertsolariaren bizia, (haren emaztea da.)
8. MEZKIRITZ:
   a) Prudencio Esnoz.88 urte. Ipar-ameriketako artzain biziaz.
   b) Euskal kantuak.

* * *

Gordailurako zenbakiak, hauek dira:

8 Lekarotz

9 Baztan

10 Amaiur I

11 Amaiur II

12 Mezkiritz I

13 Mezkiritz II

14 Mezkiritz III

15 Mezkiritz IV

Hauetako bakoitzaren bilketa saria, 2.000 pta.

Beste alde, "Horas Grandes de Navarra" izeneko kondairaren *lau aleak* eskuratu ditut Euskaltzaindi-ko gordailurako, doan.

ETXEPARENREN EDIZIO KRITIKOA AURKEZTEAN

Donostian, 1980-VI-27

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak:

Jaun-Andreak: Arratsalde on denoi Jainkoak!

Orain dela bi urte Euskaltzaindiak erabaki zuen liburu sail berri bat sortzea. Sail horren titulua: "Euskara eta euskal literaturaren lekukoak". Horretarako txosten bat aurkeztu zen batzarrean sail berri honen asmoak, helburuak eta beste xehetasunak aztertuz. Txosten horretan hara zer esaten zen: "Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatur muetatan euskara landu duten autore eta hizlariekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak —arrazoi bategatik edo bestegatik estudiatuak izatea merezi duten testuak izan beharko dute, noski— ...Bilduma huni esker, euskararen lekuko hoiek gaurko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan jartzeko aukera egongo da". Ikus *EUSKERA* (1978), 343.

Edozeinek daki gaur euskara sustraitik aztertzeko tresnen eskasiaz topo egiten dugula. Eta edozeinek daki era berean zein beharrezko diren tresna horiek zerbait egin nahi baldin bada. Egia da azkenaldi honetan Hordagok autore piloa eskeini digula, edizio faksimilean atereak, eta hor-hemen beste zenbait autore zahar edo berriagoen edizioak ere prestatu direla. Ongi etorriak izan bitez guztiak. Baina ez gara oraindik inolaz ere geure premiei erantzutera iritsi.

Premia hauei erremedio zerbait jartzeko sortu zen, bada, liburu bilduma hau. Gainera, gure saileko liburu hauek sarrera, ohar, hiztegiz eta abar hornituak joango dira, azterketarako egokiagoak izan daitezen.

Orain arte bi zenbaki edo liburu agertu dira bilduma honetan. Lehenbizikoa, Elkanoko Lizarragari eskeinia, J. Apezetxea jaunaren ardurapean prestatua. Eta bigarrena, gaur kaleratzen den Etxepareren edizio kritikoa, Aita Patxi Altunak paratua.

Gaur kaleratzen den liburua, Etxeparerena da, bada. Etxepare, euskal literaturaren aitzindaria, bidea urratu zuena eta hargatik —eta besteak beste— molde berezi batez gure eskerrona merezi duena. Egia esan, euskaldunek, joan mendeetan, ez diote esker on handirik erakutsi. Ahaztua, zokoratua eta ia betiko galtzeko zorian egon da. Gure mendean, zorionez, esker hobea aurkitu du. Urquijo, López-Mendizábal, Gil Reicher, Lafon, San Martin, Haritschelhar, Huarte, Berriotxoa, Akesolo, Mitxelena eta bestek, edo liburua bir-argitaratu edo beronen gainean lan egin dute.

Baina, edo guztiz oker naiz, edo Patxi Altunak marra guztiak iragan ditu, Axularrek esango lukeen bezala. Hiru liburu gotor ateraberri ditu Etxepareri buruz: bat,

bere tesis doktorala, haren bertsogintza aztertuz. Bigarrena, Etxepareren hiztegia dakarren liburua. Eta hirugarrena, gaur kaleratzen den hau: Etxepare beraren edizio kritikoa, anitz ohar eta xehetasunez jantzia.

Uste dut horrenbeste lanen ondoren nekez gelduko dela zirrikiturik edo zokomoko argitu gabekorik gure autorea baitan.

Zorionak eta eskerrak, Aita Patxi!

Gainerakoan, ez noa deus esatera liburuari buruz, zeren hemen baitaude maisu espezialistak, eta beroiei ematen diet hitza.

ETXEPARE LAUREUN URTE GEROAGO

Donostia, 1980-VI-27

Lino Akesolo

Gizon andien ospea, askotan, illerriko lorea izaten omen da, illondoko gertaera; geroko gizaldiek geitu eta ozenagotua. Ala gertatu da idazle andi izan diran askorekin. Alaxe gertatu da euskerazko leen-idazletzat dugunarekin, euskerazko leen-liliak eman zituen Etxepare-rekin.

Dakusagun.Aren gorputza lurrak estali zueneko, aren izena eta euskal-lana ere lurpeak iretsi zituela dirudi. Non gelditu ziren euskerari mundu guzira zabaltzea opa zionaren amesak? Nolako arrera izan ote zuen euskaldunen artean? Zer erantzun asmatu eziñik gaude. Oraintsu jakin dugunez, bigarren edizioren bat ere izan omen zuen euskerazko leen-liburu ark (Erroanen, Rouen, Morront-enean), eta luzaro gabe, dirudianez, utsez josia bazan ere. Leenbiziko edizioak ale bat bakarra utzi du; bigarrenaren aztarnarik ere ez da azaldu. Euskalerriak nolako arrera egin zion nolabait asmatzeko, argi-zirrintatxo bat ere ez zaigu agertzen. Aipamen labur bat edo beste, besterik ez: Martinez Lopez Isasti giputzarena bat, eta Oihenart Zuberotarrarena bestea. Bion egunetakoa da Sara-Ziburuko idazle-taldea, izen andi mordotxoak osatzen duena, Etxeberri Ziburukoa eta Axular andia tartean dirala. Eta badirudi talde onek ez duela Etxepare ezagutu, edo beintzat ez duela onen lana aintzat artu. Sara inguruko talde orrentzat, Etxeberri Ziburukoa izan da Jainkoarekiko gaiak, kristaugaiak euskal-bertsotan leenbizikoz erabilli eta landu dituen idazlea.

Ala ere, badakigu Etxepare-ren bertso-puska bat edo bestek Euskalerriko elizkantuetan gure egunetaraiño iraun dutela. Bai Azkuek eta bai Aita Donostiak elkarrengandik naiko urrun dauden errietan entzun eta bildu zituzten: Aezkoan, Saraitzun, Olazagutian eta Bizkaiko Murelagan ere bai. Erriarenak ala Etxepare berarenak? Or dago, noski, auzia. Ori da argitu bearra. Baiña Etxepare-renak balira ere, erri kantariak ez du jakin norenak ziran, eta Etxepare ez-ezagun gelditu da edonola ere.

Ez ezaguna an eta emen, Iparraldean eta Egoaldean. Noiz arte? Parisen gordetzen zuten eta duten ale bakarra aurkitu eta argitara zuten arte.

Egun zorioneko gogoangarri ori ez zan gertatu liburuaren iragarren menderarte. Egun ori Etxepare-rentzat berpizte eguna izan da, eta ez irugarren eguneko berpiztea, ez irugarren urtekoa ere, irureun urte geroagokoa baizik. Irureun urtez illunpean, lurpean bezala, egona, orduantxe dator argitara, Brunet, Arxu eta Michel, iru gizonon laguntzaz edo egitez. Urtea 1847garrena zan. Etxepare-ren liburua, euskerazko leenbizikoa dalakoa, frantses itzulpen eta guzti eman zuten.

Urrengo argitaraldia, Vinson eta Hovelacque jaunen eragitez, 1874 garrenean dator. Aurreko edizioaren utsak zuzenduz eta testoa bera osoago emanez. Beste irugarren bat, Van Eys zanak prestatua, amaitu gabe gelditu zan Berlingo *EUSKERA* aldizkariaren orrietan. Azkenez, aleman batek, Stempf zanak, emango zuen joan dan mendeko ediziorik osoena eta zeatzena, zatika eta batean, 1888.etik 1893garrenera, aleman itzulpenez ornitua. Etxepare-ren euskera zaarra ulertzen laguntzeko, bi iztegi ere atera zituen, bata alemanez, frantsesez bestea.

Orduan da garaia Euskalerriak Etxepare-ri nolako arrera egin dion ikusteko. Etxepare-ren inguruko dantza au izkuntzalari eta jakitunen artekoa izan dan arren, erri xeea ez da kanpotik begira eta gose utsean gelditu. Manterola, Labairu eta aldizkari batzuk izango dira bitarteko. Batez ere, Manterolak, bere *Cancionero Basco* delako euskal-poeten bilduman, Etxepare zarrari leku emanez gaiñera, Michel-en iritziak bere egiñez, ia eder-iritzi osozkoa ematen dio gure leen-idazlearen bertso-lan geienari. Gai batzuetan ez omen da arnas andiko poeta; baiña beste batzuetan, gai ariñetan, maitezkoetan, oso yayoa omen da, guztiz xarmanta, atsegiña, poesiaren eder eta graziduna, askotan biotz beroduna. Teokritoren eta antziñateko eglogalarien xalotasuna, antzea eta antza aurkitzen dizkio gure poetari. Orra Mitxel-en iritzia, Manterolak berea egin duena.

Geroago, Orixe zanaren iritzia ez zebillan ortik guztiz urruti. Orixek ere ez zuen aurkitzen Etxepare "biotzaldi aundietako poeta, baño bai leguna, itz utsik eztuna, jasoa (correcto), lenbizikoa ez ezik gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra, ta muinduna du, ebakia eta erraza". Lafitte jaunarentzat itzez urria baldin bada, Orixerentzat ori ez da pekatu, orri itz utsik, alperreko itzik ez izatea esaten dio. "Zathi ederrak baditu, esaten zuen bestalde Lafitte maixuak berak ere, "baina" bat jarriaz. "Baina —egia egiari zor— aphez batek segurik egin behar ez bezalako hetarik ere bai parrasta bat".

Azken iritzi au, orraitio, ez dezagun uste apez batena bakarrik danik. Stempf eta Michel, ez bata ez bestea, ez ziran apez, baiña iritzi beretsukoak bai. Arxuk ez zituen puska batzuk argitaratu ez frantsesera itzuli eta Michel-ek Arxuk egiñari on iritzi zion. Stempfek, berriz, puska berak alemanera itzultzerakoan, ez zituen bada ezpada alemanez jarri, latiñez baizik.

Orrela, Etxepare-ren berpiztea joan dan mendean ez zan gaizki asi. Baiña gure mendeak, Etxepare-ren laugarren mendeak jarri bear zion gallurra arteño egindako lanari.

Eta gaillurra jartze au orain Aita Altunak burututako lana dugu. Ez da, ala ere, berez etorri. Beste askok, zeiñek bere lanaz eta esku ezartzeaz, jarri diote oiñarria, aurrekoek egiñari ekiñez eta jarraituz. Stempf jaunak leenago egindakoaren arabera, Aita Altuna ere berdintsu saiatu da Etxepare-ren testoa alik osoen eta garbien ematen, aren iztegia alik eta zeatzen finkatzen eta argitzen. Bi lanok egiten saiatu da Altuna, leengoek egiña bilduz eta aurrerago eramanez. Baiña goazen poliki. Aurreko langilleen izen batzuk aipa ditzagun. Eta ona bi, aazturik ez uztekoak: Julio Urkijo eta René Lafon.

Urkijok eman zigun, leen aldiz, Etxepare-ren edizio facsimil delakoa. Orrekin, nik uste, idazlearen laugarren mendeurrena ospatzeko oiñarriak jarri nai zituen, 1945ko mendeurrena, egun beltz illunetan etorri zitzaiguna. Ala bearrik, zorionez, urte orretan atera zen aldizkari berri bat: *Boletín de la R. S. B. de los Amigos del País*. Egiñ-egiñean, mendeurren orren oroitzapena egiteko garaiz zetorren. Eta oroi-

tzapen beroa eskaiñi zion Etxepare-ri Fausto Arocena jaunaren lumaz. Bazan zerbait. Baiña ez aski. Ixillean bazan Etxepare-ren omenerako zerbait geiago egiten ari zanik. Batez ere René Lafon.

Jakintsu au aspalditik asia zan gure idazle zaarren euskera, aditz eta itz, aztertzen eta argitzen. Beronena dugu Etxepare-ren frantses itzulpen bat, eta edizio kritiko baterako gaiak prestatzeko asmoa, eta asmo au aurrera ere eraman zuen. Aita Altunak ongi baliatu du ark egindako lana.

Laster datoz Etxepare-ren bi edizio berri: Bilbon, La Gran Enciclopedia Vasca argital-etxeak emana, Gaztelako erdal-itzulpenarekin, facsilezko edizioa, bata. Eta bestea Donostian *Txertoa* etxeak eragiña, testoa oraingo ortografiara aldaturik duela, eta bi erderetara, Frantziakora eta Gaztelakora itzulia. Edizio biok, batak eta besteak, bigarren ateraldia izan dute. Arrera ona izan dutelako ezaugarri.

Gaur, aurreko guztiari gaillurra ematera datorkigu Aita Altunarena. Oraingo onek Etxepare-ren berpizte eguna egun betera dakarrela argi dago. Oraingoan, Exepareren omenak Euskalerri osoa jo bear du. Oraingoan, Etxepre-ren ames eta kezkek beren betea lortu bear dute: "Euskara, jaldi adi kanpora! Euskara, jalgi adi plazara! Euskara, abil mundu guzira!" Eta ames onek beste gure mendeko olerkari baten amesaz bat egin bear du: "Baña nik, izkuntza larrekoa, / nai aunak ere noranaikoa; / jakite-egoek igoa, / soña zar, berri gogoa...".

Ez al dakusagu euskera plazara ateraten, ikastoletan sartzen, Ikastetxe Nagusietako ateak joten, edozein gai erabiltzeko gai egin naiez, mundu guztia barruan artu bearrez?

Ez da, bearbada, dana jatorra eta garbiegia. Egia da kalean euskal oiu asko entzuten dala, paretak eta bazterrak euskal-zirriborroz belzturik ikusten ditugula, geiegitan euskal-gaiztozko zirriborroz. Ez zan ori, noski, Garaziko semearen amesa. Euskera kanpora atera al izateko, barnean eraman eta bizirik gorde bearrean gaude. Gaur, Garaziko semearen oiu orri beste geigarri bat erantsi bearko genioke: *Euskara, sar adi barnera, sar adi euskaldunen etxeetara.* Euskera biziak iraun dezala gure etxeetan. Etxepare-ren egunetako bizia izan dezala. Euskerak askozaz giro obea zeukan aren egunetan, euskalerrietan, euskal-etxeetan. Itzuliko al gera berriz giro orretara, lanak emango baditu ere, Etxepare-ren oiua jatorkiago bete dadin.

Gaiñerakoan, gaurko oroitzapen onek, liburu-aurkezte onek badu beste alderdirik, alderdi pozgarria, benetan. Laureun urte igaran ondoren, Etxepare berriz geuretu dugula esan dezakegu, euskaldunok atzerritarren eskuetatik atera eta geurera ekarri dugula. Leen, orain arte, atzerriko izkuntzalari eta jakintsuen eskuetan utzia genduena, orain euskaldunen eskuek artu dute eta darabillate aztergai. Bikainki gaiñera. Leen atzerrietan argitaratzen zana orain Euskalerriak bein eta berriz ematen digu. Zordun andi gaude au egitea lortu dutenentzat, Urkijogandik asi eta aurrera. Zordun andiago aita Altunaren aldera.

Gaur, Etxepare berarekin esan dezakegu: "Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia".

Laureun urte joaten utziz gero, euskaldunek euskaldunoi eman digute Etxepare zaarra obeki ezagutzeko, aren lana obeki baliostatzeko eta gozatzeko aukera. Laureun urte igarota, bazan ere garaia!

ETXEPARENREN EDIZIO KRITIKOA AURKEZTEAN

Donostia, 1980-VI-27

Koldo Mitxelena

Honako hitz hauek utzi zizkigun Etxeparek "Sautrela" delako azken poeman euskararekin ari delarik hizketan:

Lehenago hi baitinzan lenguajetan azkena,
orai, aldiz, izanen iz orotako lehena.

Hitzok aldaturik eta bihurriturik esan dezakegu Etxepare lehenago izan genuela orotarik lehena ehun urtez lehenago asmatuak izan ziren prentsetara euskara eraman zuenean. Baina gero ere, oraindik orain eta orain bertan, ez da azken gelditu gure autore zahar eta berriei eskaini zaizkien iker-lanetan. Ea beste nork erakuts ditzakeen bildurik horrenbeste edizio, itzulpen, hiztegi eta nolanahiko azterketa.

Ez natzaizue, horrenbeste lagun gailenagoren ondoan, Etxepareren berri ematen eta, are guttiago, haren goresmenak errepikatzen hasiko. Beharrik ere ez delako, noski. Egundainokoan, banaka batzuek guttietsi eta are esetsi izan dute Etxepareren bertso-lana: gehienek, ordea, miretsi egin dute eta miresleak ez ditu urteen joanak urritu, ugaritu baizik. Eta hona zergatik gertatu den hori, behar bada: hain zaharra izanik, zaharrena dugularik hobeki esan, oraingotzat jo dezakegulako hainbat eta hainbat puntutan. Hor dugu, izan ere, obraren mamia bera, hain bakanka arrotz gertatzen zaigun hizkera, olerkariengandik baino bertsolariengandik hurbilago dabilen neurkera...

Ikerketan azkeneko agertu zaigunak aurreko guztien markak hautsi ditu. Inori deus kentzen ez diolarik eta besteren lanaz baliatzen delarik (hori baita lanbide honetako legea), gainak eman dizkie, alde batetik baino gehiagotarik. Echepareren neurtizkera aztertu zuen lehenbizikoz, *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación* deritzan liburu mardulean. Hor, euskal bertsogintzaz azaldu izan diren iritzi eta teoriak arakatuz gero, axalak eta mamiak, hotsak eta zentzuak, fonologiak eta sintasiak elkarrekiko dituzten harreman estuak miratzen dira, luzaro eta astiro.

Etxepareren hiztegia. Lexicón dechepareano etorri zen gero, iaz argitara irtena hori ere. Honen gainean, aski izan bekigu ez luzatzearren antzinako Stempf-ek prestatu zuen hiztegia, hamaika zerbitzu on egin duena haatik, zeharo baztertu duela esatea.

Eta heldu gara azkenik orain aurkezten dugun "Euskararen lekukoak" saileko bigarren ale bezala agertu den *Linguae Vasconum primitiae*-ren edizio kritikora. Eta hain eskas gabiltzan alorrean eredutzat har dezakegulako, merezi du, nolakoa den aditzera ematea, bizpairu hitzetan bederen.

Euskalaririk ezagunenak edo ezagunenen gehiengoa behintzat saiatu dira, usu edo bakanki, Etxepareren obra goibe eta gainbarren zabaldu eta sakondu beharrez. Bada, ordea, horien artean, beste inork ez bezalako azterlan bortitza egin duena: aspaldi ez duela galdu genuen René Lafon irakaslea.

Poema hauen itzulpena inprimaturik utzi zigun: Lafonen frantsesa eta Aita Lino Akesoloren gaztelania edozeinek ikus ditzake orain "Txertoa"-ren izena daraman argitaraldian. Ohar ugari ere argitara zuen Lafonek aspaldidanik egin gogo zuen edizio kritiko hartarako. Edizio hori, ordea, ez dakit bukatu zuen, baina bai ez zela inoiz kalera agertu. Eta orain, askok espero ez zuenean, Lafonen

desir hura konplitu du Azpeitiko naturak,

eta Euskaltzaindia eta Ediciones Mensajero izango dira, horrela mintzatzekotan, Bernard Leheteren lekuan aurkitzen ditugunak, nahiz ez diren Bordelen bizi.

Testua dator, beraz, orain Patxi Altunak paratu duen edizioan; testua itzulpenik gabe, baina ohar aberatsez hornitua behe-aldean. Ez dut besterik hauetaz esango, astiro irakurri eta astiroago ausnartzekoak direnez gero. Testuaz, bai, eta testuaren letraz-letrazkoaz badago zerbait esan beharra.

Aspaldidanikako arazo eta eztabaida-gai da gure artean antzinako autoreak nola argitara genituzkeen erabakitzea. Grafia kontuaz ari naiz, batez ere, hor izaten baitira istiluak. Nori berea ematea litzateke, noski, onena, baina zirt-edo-zarteko jendea omen garenez ez ditugu erdi bidea ez bitarteko zubiak begi onez ikusten. Zaharra berri bihurtzea ez da, ordea, lan erraza izaten beti. Zenbaitetan, ederki xamar molda gaitezke, behar litekeen letra-aldatzeak (zilegi izan bekit adierazi nahi dudana horrela adieraztea, *itxuraldatu, tokialdatu* eta antzekoak onartuak daudenez gero) eragozpenik (eragozpen larririk, behinik-behin) ez dakarrelako. Leizarraga, esate baterako, erraza genuke aldaketa horretarako, baita, nekezago gertatzen badira ere, Axular eta XVII-XVIII. mendeetako lapurtarrak. Bestalde, zail amorratuak dira Tartas eta baita Oihenart bera ere. Alde honetako mende horietako autoreek ere badute bere orapiloa, *z* eta *tz*, *s* eta *ts*, eta gehienbat bereizten ez dituztelako. Eta gu hasten bagara bereizten, beldur izatekoa da ez ote dugun guk ebakitzen duguna ipiniko haiek, beren ebakeraren arabera, adierazi nahi zutenaren ordez.

Altuna ez da luzaroan *Gordion*-en zalantzan egon. Ezpata eskuan harturik, berehala eman dio bakoitzari, zahar eta berrien usarioari, zor zitzaiena. Bi testu dituzue, bada, hemen, aurrez-aurre, zaharra eta berritua. Eta azken honekin konforme ez dagoenak hor dauka bestea, Etxeparerena berarena, oker ustekoak bere eskuz alda ditzan.

Hori baita, nik uste, kritikaren ezaugarririk nagusiena. Nork bere iritzia ager dezake; ez, ordea, gogoak ematen diolako, horretarako dituen oinarriak ongi azaldu ondoan baizik. Eta horixe da Altunak hemen egin diguna: bereak eta besterenak, hango eta hemengo usteak, paperean garbi ezarri, bakoitzak izan ditzakeen habe eta harroinekin, eta gero zuzenen uste duena hauta.

Lan honekin, *facile princeps* agertu zaigu Altuna euskal filologian. Hor dugu eredua eta eredu horri, urrutitik bederen, jarrai gakizkion. Segur naiz, hoberik agertuko balitz datozen urteetan, bera ere biziki poztuko litzatekeela, ni ere poztuko naizen bezala. Hasiera ahul hark izan du segizio bortitzagorik.

NOLA ETA NORENTZAT EGINA LIBURUA

Donostia, 1980-VI-27

Patxi Altuna

Ni baino lehen mintzatu diren hizlariek neurtu dituzte eta pixatu gaur Euskaltzaindiak jendartera dakarren nere liburu honen alde onak txarrak eta, egia esan, gauza gutxi dut horien esanei erasteko eta berretzeko. Ni mintza nintekeen baino hitz zuhurragoz eta alderdikeria gabekoagoz mintzatu dira. Hirurei eskerrak demazkiet biziki. Hainbestez nahiago nuke bilera hau hemen amaituko balitz eta horien esanek eragin dizueten aho-zapore gozoa garrazteko eta mintzeko bide ez balira nere hitz tentelok. Ohitura denez gero, ordea, liburuaren egileak ere hitz batzuk lardaskatzea, utzi nazazue, arren, liburuaren sorrera nolakoa izan den eta norentzat taxutu dudan laburkiro zuei aditzera ematen.

Liburu honen sorrera, noizbehinka sortzen diren zenbait haurrena bezalaxe, besteren sorrerari lotua dagokio. Bizkiak, baita hiruzkiak ere, izan ohi dira zenbait haur eta liburu honek ere bera mundura baino lehen izan du beste bi haurride ia batera sortua. Lehenari zor diote sortzea beste biek. Hauxe esan nahi dizuet: nere lehen xedea dotore tesia egitea izan zen eta huraxe da, hain zuzen, hiruzkiaren lehen liburua eta senide zaharrena. Hura egin ondoren, Etxepareren HIZTEGI osoa eta EDIZIO KRITIKOA ere taxutzeko gaia bildua nuela ikusirik, beste biak munduratzeko gogoa erne zitzaidan. Lehena gabe ezingo nituzkeen, nik uste, beste biak behar bezala oratu.

Baina gaur hemen hirugarrena aurkezten delarik, honen xehetasun eta argibide batzuk emango dizkizuet soilik. Liburuaren izenburutik bertatik hasten naizelarik, EDIZIO KRITIKOA zergatik izendatu dudan eman nahi dizuet aditzera. Batek baino gehiagok galdatuko bait du, agian, eta galdatu bait dit dagoeneko, nola litekeen EDIZIO KRITIKOA, Etxepareren liburuaren argitaraldi bakarreko ale bakarra gureganaino heldu delarik eta horrenbestez hemen aukerarik eta osakuntzarik egiten ibili behar ez zelarik, bat baino argitaraldi gehiagotakoak direnean eta aldakuntzak dituztenean egin behar izan ohi denez. Hala da, noski; hemen ez dugu zer hautaturik eta zer inausirik, ikusi batera bederen. Etxepareren obra pixka bat ezagutzen duenak badaki, halaz ere, zenbait pasarte ilunxko baduela eta horiek lehengo mendeetan eta gure honetan, batez ere, aztertu dituzten filologoak ez direla iritzi bereko pasarte horiek argitzeko eta azaltzeko moduaz. Baina ez da hori bakarrik, horrek beste gabe ez bait luke testoa bera ezertarako auzitan jarriko. Noiz edo behin testoa bera nola irakurri behar den eta honako edo harako hitz hura, dagoen dagoenean zentzurik ez bide duelako, inprentako hutsa ote den ala ez eta hainbestez aldatu egin behar ote den ala ez ere, eztabaidako gai gertatzen da. Hitz batean esateko, testoa bera dago han edo hemen auzitan.

Adibide bakarra aipatuko dizuet: Ilgarren kantuko 53garren bertsoak honela dio: *Bana vistaz hilcen çuyen nahicari saxuya* eta, beste gehiagotan ere gertatu ohi denez, *hilcençuyen* batera idatzirik bait dago faksimilean, batek ez daki *cençuyen* (hots, *zenzuien,* gure *zentzuen*) irakurri behar den hor, Lafonek nahi duen bezala ala *hilzen zuien,* Akesolok eta biok uste dugunez. Nolanahi den, ni beste arrazoi batek bultzatu nau batikbat EDIZIO KRITIKOA izena liburuari ezartzera: Lafonen beraren usteak. Beste lan gehiagoren artean bat utzi zigun hizkuntzalari bikain eta Etxepareren ikertzailerik hoberen hark, honelako izenburua zuena: "Notes pour une édition critique...". Argi dago, beraz, Lafonek *edizio kritikoa* egin zitekeela uste zuela eta, uste izateaz gain, egunen batean inor hartara berotzen bazen –tamala da bera ez ausartu izana hura egitera!–, ia berrehun ohar eta argibide utzi zizkion.

Zer esanik ez, Lafonek artikulu horretan eta gainerakoetan egin zituen ohar guztiak begien aurrean edukitzeaz gain, bildu eta neure liburuan sartu ere egin ditudala, ia batere baztertu gabe. Horrek ez du esan nahi, noski, guztiekin bat natorrenik eta dudamudazko iruditu zaizkidanean eztabaidatu gabe neureganatu ditudanik. Ez, noski. Baina bai, esan nahi du, liburua paratzeko laguntza izugarria eman didatela. Lafon izan da, dudarik gabe, ikertzaile guztien artean gure poetarik zaharrena hobekien ezagutu duena; haren hizkeraz eta metrikaz argibiderik zehatzenak eta zorrotzenak egin dituena. Ez da, ordea, beharrik bakarra izan; izan du aitzindaririk eta ondorengorik eta hauen lanez ere baliatu naiz liburuaren oharrak egiterakoan. Aipa ditzadan, besteak beste, Schuchardt, Stempf, Lewy, Van Eys eta geure etxeko ditugun Akesolo eta Mitxelena. Lagun askoren ekarlanak sorrerazi du, beraz, honako liburu hau.

Etxepareren grafia bera, faksimilean datorrena deus ere aldatu gabe, dakar liburu honek ezkerreko orrialdeetan eta horren gaurko grafia –ez, noski, euskara batura aldatua, baizik Etxeparek berak hura bera, gure gaurko letrez baliatuko balitz, emango ligukeen modura– eskuinekoetan. Bi grafia horien arrazoia eta bakarraren, bataren nahiz bestearen, aski ez izana, guztiok ulertzen duzue. Gaurko grafiazko idaztankera beharrezko zen, noski, euskaldun guztiak ez bait daude ohituak antzineko autoreen grafia irakurtzera eta nekezago egiten bait zaie. Ikerlanik egin nahi duenak, ostera, ez dauka zer fidaturik inork egin duen transkribapenaz eta nahitaezko du maiz hitzak autore zaharrak idatzi zituen era berean ikustea eta ikertzea. Horregatik ezarri ditut bi grafiak. Ez diot liburuari, ordea, gaztelaniazko itzulpenik erantsi, gaztelaniara nahiz frantsesera lehendik ere Akesolo jaunak eta Lafonek eginak baditugulako; beste hizkuntzetan ere antzineko idazleen horrelako argitaraldiak egiten direnean, inoren hizkuntzazko, are gutxiago euskarazko, itzulpenik eman ohi ez delako; nik gogoan izan ditudan irakurle-ikasleek horrenbeste euskara badakitelako; eta azkenik, liburua lodiagotu eta garestiagotu egingo zukeelako.

Gogoan, izan ere, irakurle-ikasle xeheak eta arruntak izan ditut gehienbat, ez hizkuntzalariak. Honelako liburu batetan ez da lekurik izaten teoria orokorrak agertzeko nahiz eztabaidatzeko, eta nik ere ez dut hemen horrelakorik egin. Hori nahi duenak lehen liburura jo beharko du, han ematen bait dut zehazkiro aditzera. Etxepareren metrikaren, morfosintaxiaren, euskal ritmoaren eta abarren berri xehe eta zehatzik. Hirugarren liburu honek lehenaren errainua ageri du, halaz ere, eta ezin zitekeen bestela izan, biek aztergai bera eta sortzaile bera izan dutenez gero. Lehenean proposatzen dudan teoria orokorraren aplikazioa da, nolazpait esateko, hirugarren honek dakartzan orripeko ehunka oharretan ikasleari eskaintzen diodana. Aski oparo, ene ustez; oparoegi, agian, inoren ustez, ez bait dut iruzkindu gabe utzi –jakinaren gai-

nean ez, bederen— inolako nekerik, ardailarik eta trabarik ikasleari sor ziezaiokeen punturik. Bertsoz bertso, ia hitzez hitz dago aztertua Etxepareren obra osoa. Ez, ordea, Stempf-ek bezala (*Munduyan:* inesivo singularra; erroa *mundu-; -an,* kasu atzizkia; *-y-,* erroaren azken bokalea eta atzizkiaren lehena bakantzeko letra; esanahia, "en el mundo") horrelako zehaztasunez ez, noski, lehen esan bezala euskara badakitenak eduki bait ditut nik gogoan, eta Urkixok Stempf-ez esan zuenaz balia nadin, hots, benediktino baten lantegia burutu zuela— ni ez bait naiz benediktinoa. Badakit Willbur Ameriketako hizkuntzalaria ere halako zerbait prestatzekotan dabilala. Nik, haiek ez bezala, hori eta askoz gehiago dakiten ikasleentzat paratu dut neurea eta xehetasun horiek bazterturik morfosintaxiaren eta metrikaren aldetik nabarmen iruditu zaizkidan oharrez hornitu dut liburua.

Zenbait puntutan neure iritzien aldeko eta sendogarri eta, bereziki, Etxepareren zenbait bereizitasun Etxeparerenak bakarrik ez, baizik garai hartako beste euskalki batzuenak ere bazirela agerian ipintzearren, Leizarraga, Axular, Oihenart, Tartas, Ziburuko Etxeberri eta abarrengandik harturiko exenpluak aipatzen ditut. Batak besteari argitasun handia ematen dio, izan ere; baita, egia esateko, bakoitzaren ezaugarri eta bereizitasunak hobeki ezagutzeko inoiz laguntzen ere.

Eta besterik ez; hobe da ene ordez liburua bera mintza dadin eta liburuak eman diezazuen aditzera nolako idazlea zen gure literaturaren aitagoia. Eskerrak azkenik Euskaltzaindiari bere EUSKARAREN lekukoak deritzan bilduman nere liburua sartu nahi izan duelako eta hemen bildu zareten guztioi harrera atsegin hau egitera etorri zaretelako. Gabon!

CARLOS GARAIKOETXEARI

CARLOS GARAIKOETXEA JAUN,
EUSKO KONTSEILU NAGUSIAREN
BURU EDO LEHENDAKARI HORRI:

Bilbo, 1979-IX-26

Fr. Luis Villasante

Arantzazun, eta Arantzazuko Amaren egunean, hain zuzen, agurtu zindudanean, agertu nizun zein zen gure gogoa: zurekin egoteko gogoa, alegia. Eta zuk gogo bera eta asmo bera zenuela esan zenidan.

Gaurko ikustaldiak ez du beste xederik gogo hori betetzea baizik.

Arrazoi bat baino gehiago zegoen, noski, ikustaldi hau guk zuri egiteko.

Lehena, Eusko Kontseilu Nagusiaren Buru zaren aldetik, geure aitorra eta agurra egin nahi dizugula.

Badirudi autonomiarekin egoera berri eta egunsenti berri baten atarian dela Euskal-Herriaren zati hau, sartaldeko zatia esan nahi dut. Euskararentzat aukera berriak, orai arte ez bezalakoak, izango direla. Eta Euskaltzaindiak, berari dagokion aldetik, bere emaitza eskeini nahi dizu. Eusko Kontseiluko Buru horri esan nahi dizu, alegia, bera prest dagoela azalduko den lan gaitza burutzen laguntzeko, beti gure Elkargoaren xede eta egitekoen barnean eta gure ahalmenen neurrian.

Beste arrazoi bat ere bada ikustaldi hau zurekin eduki nahi izateko, hots, elkarren berri jakin dezagun. Elkarren berri izanez, informazio faltaz —edo txarrago dena, informazio okerraz edo saihetsekoaz— sort daitezkeen oker-adituak zuzen eta argi ditzagun.

Eta uste dut badela horren beharra.

Frankismoaren garaian, gauza asko, ziren bezala, esaterik ez zegoelako, elkarrenganako susmoak, errezeloak eta uste okerrak errazki sortu eta ugaritzen ziren.

Egoera hura pasatu da. Baina orai ere alderdikeria, setakeria, inor beztutzea eta laidoztatzea, dogmatismoa eta besteen jokabidea norberaren dogmatismotik epaitu eta gaitzestea: hori ez da, ez, gainditu, egunoro ikusten ari garen bezala.

Horregatik, hain zuzen, behar dugu elkarren berri jakin.

Akademiak nahi du, bere nortasuna eta autonomia aitortuz, utz dakiola lan egiten, zeren horrela eta orduan, eta orduan eta horrela bakarrik egin baitezake lan jatorra, emankorra eta benetan onuragarria euskararen alde. Baina besteek epaitu behar baldin badute zer egiten duen ongi eta zer gaizki —haren lana beren ikusmoldeetarik

epaituz— orduan akabo, orduan gureak egin du. Etxean gelditzea hobe. Egin dezatela berek lana, eta kito.

* * *

Duela egun guti entzuten nion jaun argi bati nolako lan gaitza datorkion gure herriari egoera berri honetan. Autonomia lortzea gauza handia eta desiragarria izanik ere, horrekin ez dago dena egina. Autonomia —zion jaun harek— lauki baten lau oholak bezala dira, baina barrunbea hutsik dago eta edukinez bete behar da. Zulo eta huts ikaragarriak ditu gure herriak, eta horiek ez dira goizetik gauera beteko. Eta bide txarra izango litzateke —zion jaun hark— hutsune horiek betetzeko alderdi politikoetara jotzea, epaia horien eskuetan uztea.

Beste alor askotan ere eskas eta onbehar gara, baina aipa dezadan gu hurbilenetik ukitzen gaituen alorra: euskal kulturaren alorra. Edonork daki gure herriak gaur arte ez dituela izan bide eta aukerak euskal kulturaren alor hau behar bezala lantzeko eta bere heldutasunera eramateko. Zerbait egin da, baina egiteko dagoena askozaz ere gehiago da.

Eta okerreko bidea hartuko genuke euskal kulturaren gidaritza alderdien eskuetan utziko bagenu edo haien irizpideak kulturan dogmatzat ezarriko bagenitu. Edo zinezko euskal kulturarik ez da sekula egonen —behintzat izen hori merezi duen kulturarik— edo kultura horrek autonomia bat beharko du bere zeregina libreki aurrera eraman dezan. Dauden instituzioei lan egiten utzi, lagundu, baina ez inolaz ere aurre iritziak inposatu. Hori uste dut dela bidea.

Barnean istiluak eta auziak ditugula? Bai, eta non ez daude? Horiek konpontzeko, ordea, hor dugu geure Arautegia eta hor ditugu geure ibilpide legeak. Gauza bat da onartu ezina: kanpoko inposaketa.

Kritika behar dela? Bai, noski. Baina behar den mailan. Euskaltzaindiak, adibidez, ez du uste Instituzio bezala bere zeregina denik Eusko Kontseilu edo Diputazioei gobernu kritika bat egitea.

Barka, jauna, Frantziskano bati dagokion basati itxurako idekitasunaz gure kezkak azaltzen badizkitzut. Kultura ez dadila izan alderdien morroi. Aitzitik, bera izan dadila gure herrian aginpidea duena eta euskal etxeari benetazko oinarri sendoak jarriko dizkiona. Orduan joango dira gauzak ongi, eta ez bestela. Eta horretarako autonomiaren beharra du kulturak gure herrian.

Hau beharbada pixka bat idor eta zurrun atera zait, baina uste dut gozatuko direla gauzak guztiok anaitasunean mintza gaitezenean, eta erraz iritxiko gara, nik uste, puntu nagusietan iritzi bateko izatera. Hau da behintzat gure gogoa.

* * *

Alderdiei buruz zein den Euskaltzaindiaren jarrera garbi dago. Berez, Euskaltzaindi denez, ez dago ezein alderdiri lotua; beste maila bateko sorkaria da, kultur mailakoa, eta kultura eta alderdi politikoak ez daude lerro berean. Horrek ez du esan nahi euskaltzainak partikularki politika edo alderdi batekoak edo bestekoak izan ez daitezkeela, baina Euskaltzaindia bera politikatik ate gelditzen da. Uste dut hau izan zela Euskaltzaindiaren jarrera gerra aurreko garaian ere, eta orai jarrera berbera du.

Ez du bere burua bat egiten alderdi honekin edo horrekin, baina horrek ez du esan nahi kontra dagoenik ere. Bera bere mailan irauten saiatzen da. Euskaltzainak,

aldiz, pertsonalki alderdi batekoak edo bestekoak izan ziren lehen ere eta orai ere izan daitezke.

Euskaltzaindiak bereizkeriarik gabe hartzen ditu bere lankideak. Euskara maite duena, lantzen edo aztertzen duena, eta alor honetan merezimenduak dituena, beste gabe, gai da Euskaltzaindiko izateko, gainerakoan, politika arazoetan joera batekoa edo bestekoa bada ere. Euskarak biltzen gaitu eta bat egiten gaitu. Eta hala jokatzean uste dut zerbitzurik ederrena egiten diogula geure herriari, zeren euskara guztiona baita, herri baten altxorra, alegia.

Euskaltzaindia ofizialki eta publikoki Euskal-Herriko lau Diputazioek sortua da euskarari buruzko arazoetan eta bereziki euskara batuaren arazoan gidaritza hartzeko. Herriko ordezkarien eskutik hartutako mandatuaren arabera lanean ari da etengabe, eta aritu da urterik txarrenetan ere. Denen gustora ez dituela gauzak egiten? Eta nork egiten ditu? Baina bere ahaleginen eta argien neurrian saiatzen da euskararen problemei atarramendu on bat ematen.

Halaz guztiz, aitortu behar dut nolabait Euskaltzaindiaren babespean dabiltzan talde batzuek, inoiz, guk agindutakoaren kontra, hautsi dutela erregla hau eta aukera politiko jakin batzuen alde jarri direla. Jokabide hau, ordea, guk ez dugu onartzen eta makur horiek zuzentzeko asmoa dugu.

* * *

Euskara gaur eguneko arazoak adierazteko tresna egoki eta trebe bihurtzea: horra gure helburua. Askotan uste den baino lan korapilotsuagoa da hau. Bada hemen problematika bat aitzingibel askotakoa eta, iduriz, gure kritikariek kontutan hartzen ez dutena. Badirudi askotan hizkuntza bat zeharo garbia baina hila nahi dela, Museoko bitrinan jartzeko baizik balio ez duena. Euskaltzaindiaren bidea ez da, ezin izan daiteke, hori.

Guk nahi dugu euskara gaitu, gaurko munduko gauzak adierazteko trebe bihurtu. Horretarako, ordea, beharko du besteekin har-emanean izan eta beharbada gairik asko hartu ere bai. Euskarak orai arte iraun baldin badu, aspaldidanik bide horretatik sartu zelako izan da, eta orai ere, itxuren arabera, neurri batean halatsu egin beharko du. Ez ote zigun Altubek erakutsi garbikeria dela biderik zuzenena euskara hilobira bultza arazteko? Guk nola onart dezakegu geure mintzoa hilobira eramatea?

Garbitasun eta funtzionaltasunaren artean bistan da zein den gure bidea. Horrek, bestalde, ez du kentzen garbitasunari ere bere lekua aitortzea.

Hizkuntza bat, nahi duzun bezain beste garbi izanagatik, behar diren gauzak esateko balio ez baldin badu, tresna alferra da, eta mintzatzaileak, idazleak eta abar zokoratu egingu du. Gure hizkuntza gai bihurtzea: hori da euskaragatik arduratzen garenok dugun egiteko handia eta zaila.

Euskaltzaindiak badaki berak bakarrik ezin egin dezakeela dena. Herri osoaren lana da, baina gidaritza nolabait berari dagokio. Eta guk ez dugu eskatzen besterik gurea den esparru honetan behar den autonomia utz dakigun baizik.

Gainerakoan, eta bukatzeko, gure eginbidea da dauden Erakunde, Diputazio etab. aitortzea, horiei gure zerbitzuak eskeintzea eta horiekin leialki jokatzea. Eta hala egingo dugulako hitza eman nahi dizugu, jauna, behiala Azkuek Agirre lehendakariarekin egin zuen bezala.

MEMORIA DE ACTIVIDADES - AÑO 1980

A lo largo del año 1980, la Real Academia de la Lengua Vasca —EUSKALTZAINDIA— ha proseguido su labor en los campos definidos por sus Estatutos y reconocidos por el Real Decreto 573/1976: Investigación de la Lengua y fomento y tutela de la misma.

Euskaltzaindia, como otros organismos oficiales, planifica y lleva a cabo sus actividades por medio de su Junta de Gobierno, sesiones plenarias mensuales y reuniones de sus diversas comisiones. En la actualidad dentro de los diversos campos de actividad de Euskaltzaindia funcionan las siguientes comisiones:

1. **Comisiones de EUSKALTZAINDIA**

   1.1. *Egiturazkoak:*

      1.1.1. Zuzendaritza

      1.1.2. Ordezkaritzen Koordinaketa

      1.1.3. Ekonomi Batzordea

      1.1.4. Azkue Biblioteka

      1.1.5. EUSKERA eta Argitalpenak

   1.2. *Iker Saila:*

      1.2.1. Herri Jakintza

      1.2.2. Aditza

      1.2.3. Euskararen Lekukoak

      1.2.4. Herri Administralgo Izendegia

      1.2.5. Herri Izendegia

      1.2.6. Gramatika Batzordea

      1.2.7. Euskalkien Batzordea

      1.2.8. Euskalariekin Harremanak

1.3. *Jagon Saila:*

1.3.1. Bertsolaritza

1.3.2. Elebitasun Harremanak

1.3.3. Irakaslegoarena

1.3.4. Oinarrizko Euskara

1.3.5. Alfabetatze-Euskalduntza

1.3.6. Itzultzaile Eskola

En nuestro órgano oficial, EUSKERA, y en otras publicaciones, algunas de las cuales, se mencionan en esta breve memoria se recoge el fruto de los trabajos o queda constancia de ellos.

2. Conmemoraciones de escritores euskéricos

Dentro de su actividad de tutela y fomento del euskara, Euskaltzaindia ha celebrado, a lo largo del presente año, varias conmemoraciones de vascólogos ilustres o fechas importantes en la historia de nuestra lengua. Podemos citar, la sesión pública celebrada en el Ayuntamiento de Bera de Bidasoa el 1 de agosto dentro de las fiestas programadas en conmemoración del centenario de las "Fiestas euskaras". Asimismo, debemos mencionar la participación en los actos conmemorativos del centenario del venerable P. Esteban de Adoain en Urraul Alto (Navarra).

3. Participación en jurados de premios literarios

Siguiendo la tradición de años anteriores, *Euskaltzaindia* ha participado como miembro de jurado en diversos certámenes literarios.

1. Premio teatro: Toribio Alzaga.
2. Premio poesía: Arresebeitia.

Ambos premios organizados por *Euskaltzaindia* en colaboración con la Caja de Ahorros Vizcaina.

3. Premio de cuentos Ayuntamiento de Bilbao.
4. Premio Novela y Poesía "Resurrección M.ª Azkue", organizado y patrocinado por la Caja de Ahorros Municipal de Bilbao.

Por primera vez, ha participado como miembro del Jurado en dos premios organizados por el Ministerio de Cultura:

1. Premio de Traducción entre Lenguas Españolas.
2. Concurso Concesión Ayudas a la Creación Literaria.

4. Comisión de profesorado

No podemos dejar de mencionar, la colaboración de nuestra Comisión de Profesorado, en infinidad de tribunales de nuestros Ayuntamientos y Diputaciones Forales. Ha sido continua la solicitud de nuestra colaboración con estos organismos a fin de calificar el conocimiento de euskara de los aspirantes a ocupar las plazas vacantes en sus más diversos puestos.

Por otra parte esta Comisión de Profesorado ha seguido en su trabajo de Convocatoria de exámenes para la obtención del título de profesor de euskara en sus dos niveles: inferior y medio. Durante el año 1980 ha realizado 24 convocatorias, 2.605 examinados y 1.223 títulos expedidos.

Asimismo, esta Comisión ha preparado un nuevo programa para la obtención del título de profesor en su nivel inferior, programa que fue aceptado por la Consejería de Educación, como parte correspondiente a la lengua, y completada por otra parte dedicada a la lingüística, sociolingüística y glotodidáctica, elaborada por la propia Consejería.

Este programa fue publicado en el Boletín Oficial del Consejo General del País Vasco (N.º 37).

5. Concurso Oficial de Bertsolaris del País Vasco

Aprovechando la clausura de nuestro IX Congreso, Congreso cuya reseña ofreceremos en esta memoria, dio comienzo el Concurso Oficial de Bertsolaris del País Vasco, concurso interrumpido hace 10 años y que tanta aceptación popular ha tenido en cuantas ediciones se han celebrado. Este Concurso dio comienzo el 23 de diciembre (fase clasificatoria) en Mondragón y el 30 de diciembre (fase clasificatoria) en Gernika, celebrándose la gran final en el frontón Carmelo Balda de San Sebastián el día 6 de enero.

6. "Azkue" Biblioteka

Obligada por su precaria situación económica, Euskaltzaindia no ha podido prestar ni la atención ni la consignación necesaria a su Biblioteca. A partir de principios del 79 se reestructuró el personal y se destinó a nuestra Biblioteca Azkue (Ribera, 6 - Bilbao), a dos de nuestros empleados con el fin de clasificar el fondo allí depositado desde nuestra fundación y de ir completando las colecciones existentes y adquirir las obras de reciente publicación sobre lingüística general o aplicada y temas en torno a nuestra lengua. Podemos afirmar, con profunda satisfacción que en estos dos últimos años el fondo de nuestra Biblioteca ha aumentado en unos 8.000 volúmenes y se han realizado unas 13.000 fichas, preferentemente de artículos de revistas.

7. Escuela de Traductores

Euskaltzaindia ha visto, con satisfacción, ponerse en marcha una vieja aspiración: la creación de la Escuela de Traductores.

Hace ya bastantes años, la Comisión de Profesorado venía tratando este tema en sus reuniones periódicas, acuciada por la cada vez mayor demanda por parte de organismos públicos, entidades bancarias, empresas, organismos culturales, etc, solicitando todo tipo de traducciones, tanto de textos legales, como deportivos o científicos, o invitaciones a actos como un bautizo, primera comunión, o una boda.

En setiembre de este año ha comenzado a funcionar la Escuela de Traductores bajo la dirección de nuestro académico correspondiente Xabier Mendiguren y con asistencia diaria de 33 alumnos.

8. Comisión "Oinarrizko Euskara"

Esta nuestra Comisión, que fue fundada el año 1977, como consecuencia de un viaje-estancia de nuestros académicos correspondientes Imanol Berriatua y Xabier Kintana al Estado de Israel, ha continuado en su trabajo de elaboración del método de enseñanza del Euskara Básico (Oinarrizko Euskara), denominado HITZ EGIN.

El año 1978 se publicaron el HITZ EGIN-1 (libro del profesor, alumno, ejercicios y 3 libritos de lecturas redactados en el euskara de este nivel).

El año 1979, a su vez, se publicaron el HITZ EGIN-2 (libro del profesor, alumno y ejercicios y 3 libritos de lecturas redactados en el euskara de este nivel).

El presente año 1980 se ha publicado el HITZ EGIN-3 (libro del profesor, y alumno), y en estos momentos se está elaborando el libro de ejercicios.

Pero esta Comisión de Oinarrizko Euskara deseaba que el profesorado obtuviera el máximo provecho del empleo de estos libros.

Para ello, y aprovechando la relación de intercambio tenida durante los últimos años con profesores de euskara, organizó a fines de junio un viaje (para 50 profesores) de estudio al Estado de Israel, a fin de conocer in situ la experiencia israelí en el campo de la enseñanza del hebreo, y especialmente del hebreo básico.

7. Colección "Euskararen Lekukoak"

Euskaltzaindia ha iniciado la publicación de una colección de libros titulada "Euskara eta euskal literaturaren Lekukoak" (Testigos del euskara y de la literatura euskérica).

En ella irán apareciendo, en nuevas ediciones, provistas de introducciones, aparato crítico, vocabulario, etc., libros de todos los dialectos, que de ordinario no están al alcance del público general y se juzgan de interés para un conocimiento profundizado del idioma.

Hasta la fecha se han publicado dos volúmenes:

1. Juan Apezetxea: Joakin Lizarraga Elkanokoa,

Doctrina Christioaren Cathechima, Pamplona, 1979.

2. Patxi Altuna: "Etxepare: *Linguae Vasconum Primitiae*".

Edizio kritikoa, Bilbao, 1980.

10. A fines del pasado año (diciembre, 20-23), Euskaltzaindia celebró en la Escuela Politécnica de Mondragón, su IX Congreso, Congreso denominado "Centenario de Severo Altube" ilustre gramaticólogo y uno de nuestros primeros académicos.

El tema del Congreso fue la *Gramática Vasca*, al que se presentaron 21 ponencias sobre los diversos temas gramaticales. Las ponencias presentadas a este IX Congreso ha sido publicadas recientemente en el tomo XXV de nuestro órgano *EUSKERA*.

En cumplimiento de una de las conclusiones de este IX Congreso, en el mes de de abril se celebraron unas jornadas de trabajo en Fuenterrabía con el fin de activar la investigación gramatical y de ir preparando un futuro Congreso en torno a la Gramática Vasca, a celebrar el año 1984 dentro de los actos conmemorativos del centenario de Arturo Campión, uno de nuestros miembros fundadores y autor de la "Gramática Vasca de los Cuatro Dialectos".

11. **Comisión "Herri Izendegia"** (Nomenclátor de Entidades de Población)

Siguiendo su ininterrumpido trabajo de estos últimos años, y una vez terminado el trabajo correspondiente a los pueblos con Ayuntamiento propios y que fue publicado en colaboración con las Cajas de Ahorros Municipales de Bilbao, Pamplona, San Sebastián y Vitoria, esta Comisión ha acometido el trabajo de elaboración del Nomenclátor del resto de entidades menores, barrios, etc.

Hasta el presente se han elaborado las listas correspondientes a:

Provincia de Alava - Llanada Oriental.

Provincia de Vizcaya - Merindad de Busturia.

Provincia de Guipúzcoa - Valle del Urola.

Provincia de Navarra - zona del Bidasoa y Ultzama y sus valles.

12. **Zirkulazio Ezaugarriak** (Señales de Circulación)

Trabajo elaborado por nuestra Comisión de Vocabulario de Administración en colaboración con otros organismos públicos y particulares y revisada y aprobada por *EUSKALTZAINDIA*.

13. **Index (EUSKERA, 1920-1979)**

Este trabajo, índice por autores, por materias y varios, ha sido elaborado por el académico de número y tesorero de Euskaltzaindia: Juan San Martín con la colaboración de otros miembros de nuestra Corporación.

14. Encuentros Internacionales de Vascólogos

Y como colofón a esta breve memoria de algunas de las actividades más sobresalientes de *Euskaltzaindia* en el año 1980, hemos de mencionar los Encuentros Internacionales de Vascólogos.

Estos "Encuentros" se inscriben, como otras muchas, entre las iniciativas que han sido posibles gracias a la campaña "Bai Euskarari".

Como muy bien ha declarado nuestro académico de número y presidente de la Sección de Investigación el profesor D. Luis Michelena, podrá achacarse a estos "Encuentros" el mantenerse en un plano de estudios teóricos, cuando hoy entre nosotros preocupan más las cosas prácticas. Pero no hay que olvidar la incidencia que tienen los estudios teóricos sobre la práctica.

Durante una semana (agosto, 25-30) hemos tenido la suerte de albergar entre nosotros a ilustres y sabios especialistas de diversas naciones, preocupados por los diversos enigmas que plantea el euskara: Austria, Alemania, Francia, Inglaterra, Japón, Polonia, Suecia, URSS, U. S. A. El brindarles esta ocasión de reunirse junto con nosotros y convivir en el país era una ocasión única para pasar revista al estado de los estudios vascos, para que se conocieran ellos mismos entre sí, para establecer lazos permanentes de colaboración entre ellos y nosotros, etc.

Ha sido la primera vez que se ha realizado algo de este género.

Esta convocatoria quería ser el reconocimiento de una vieja deuda, honrado en la persona de los vascólogos actuales a tantos otros que en línea ininterrumpida se han ido sucediendo desde que el prusiano Guillermo de Humboldt diera a conocer en los ambientes cultos de Europa el caso de la lengua vasca.

Creemos que estas jornadas memorables servirán para dar un nuevo impulso a los estudios vascos y tendrán su repercusión entre nosotros en el sentido de que el pueblo vasco tome a pechos la causa de la conservación de su lengua. Como decía Suzuko Tamura, la cosa no depende exclusivamente de medidas políticas, sino de que haya un verdadero y sincero querer: *nahia.*

REALIZACIONES EN PERSPECTIVA

1. Atlas lingüístico

La próxima primavera se proyecta organizar un curso sobre Dialectología con el fin de preparar personal, especialmente joven, equipado con los conocimientos necesarios para dedicarse a las encuestas lingüísticas.

El objetivo principal, aunque no único, del curso será ir preparando las bases y el terreno con el fin de realizar el Atlas Lingüístico de la Lengua Vasca sueño, nunca hasta ahora realizado. La realización de un Atlas llevado a cabo con criterios actuales se juzga también como un objetivo necesario, pues como se expresaba el presidente de nuestra Sección de Investigación:

"El euskara sigue perdiéndose en bastantes comarcas, a pesar de que algunos estén recuperando su lengua materna, pero están estudiando una nueva habla, al

menos la están mezclando, con la propia del lugar. Lo que no se recoja, hoy mejor que mañana, se puede dar por perdido, y nosotros queremos conocer y recoger las hablas tal como son."

2. Cuestionario del Atlas Lingüístico

Tal como se menciona en el apartado anterior es urgente y necesaria la realización del Atlas.

Pero para ello es imprescindible la confección del cuestionario, base sobre la que se van a realizar las encuestas. Pero opinamos que el cuestionario debe ser realizado de acuerdo con los adelantos técnicos y el nivel de investigación correspondiente a nuestros días.

Desgraciadamente, no disponemos entre nosotros, de especialistas en este campo de la investigación, debiendo por ello, recurrir a especialistas nacionales o extranjeros, recurso que nos va a suponer un desembolso importante.

3. Publicaciones

Sin otro afán que su constancia, he aquí algunas de nuestras publicaciones en perspectiva para el año 1981:

3.1. *Actas de los Encuentros Internacionales de Vascólogos* (Gernika-Leioa, 1980)

3.2. Colección "Euskararen lekukoak"

- 3.2.1. P. Villasante: *Etienne Lapeyre: Kredo edo Sinhesten dut Esplikatua*
- 3.2.2. P. Altuna: *Etxeberri Ziburukoa*
- 3.2.3. P. Villasante: *Catecismo inédito vizcaino en parangón con otro labortano, en el que se inspira aquél*

3.3. *"Oinarrizko Euskara":*

- 3.3.1. I. Berriatua: *itsasoa eta ni* (Yo y el mar) (3. nivel)
- 3.3.2. *Zenbait irakurgai* (lecturas - 1. nivel)
- 3.3.3. *Zenbait irakurgai* (lecturas - 2. nivel)
- 3.3.4. *Zenbait irakurgai* (lecturas - 3. nivel)

EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK

Gernika-Leioa, 1980-VIII-25-29

J. M.ª Satrustegi

Euskaltzaindiko idazkaria

Seber Altube zenaren mendeurreneko ospakizunak Gernikan hasiak zituen 1979-an Euskaltzaindiak, eta Gernikan bertan eman zien amaiera, Arrasateko Biltzarra ere lan-urte honen barnean egina zela ahaztu gabe. Horrela, emaitza ugari eman du bai iker arloan eta bai jagon sailean omenaldi honek.

1980.eko Abuztuak 25, egun haundia izan zen Gernikako Arbola agurgarriaren itzalpean elkartu ginen guziontzat. Nazioarteko Jardunaldietara etorriak ziren euskalariei ongietorria eman zitzaien goizeko hamarrak inguruan.

Eusko Gobernukuko lehendakari Karlos Garaikoetxea, Hezkuntza kontseilari Pedro Etxenike, Kultur sailburu Erramun Labaien eta Hegoaldeko lau Diputazioen ordezkariei, Arabako Miñoiek egin zizkieten Juntetxe aurrean ohore bereziak.

Mahai burura orduko, Gernikako "Andra Mari" koralak *Agur Jaunak* eskaini zuen, bertako guziok isilune betean zutik entzunez.

L. Villasante euskaltzainburuak hartu zuen lehenik hitza, gertakizunaren berri eman eta bertakoak agurtuz, atzerritarrei ongietorri pozgarria adierazteko.

Euskaltzaindiko idazkariak, gero, euskalarien agerpena banan banaka izendatuz egin zuen, eta aipatutako bakoitzak bertan zutituz erantzun zien han zirenen txaloei. Suzuko Tamura emakume japoniarrak, jendeaurrera aterarik, bere herriko ohituren arauera itzuli zuen agurra. Antonio Tovar jaunaren izena aipatzean entzun zen goiz hartako txalorik estuena.

Hasiera hitzaldia

Jean Haritschelhar euskaltzain buruordeak *Euskarari buruzko ikerlanak gaur egunean* zertan diren agertuz, eman zien Jardunaldietako lan saioei hasiera. Ondoko egunetan aztertuko ziren gaiak, orain arteko saioetan zertan ziren adierazi zuen.

Lehenbiziko txosten honen ondotik, Gernikako "Andra Mari" koralak Euskaltzaindiko zenbait musikarien lanak eman zituen, J. Olaizola, R. M. Azkue, J. A. Donostia eta Seber Altube bera barne zirela, Jardunaldi hauen batzorde idazkari den J. A. Arana Martijak antolatu duen "Gernikako Arbola"-ren armonizapen berriarekin bukatzeko.

Eusko Gobernuko agintariek hartu zuten gero hitza. Kultur sailburu, Erramun

Labaien mintzatu zen lehenik. Euskaraz eta frantsesez egin zuen bere txostena. Hezkuntz-kontseilari Pedro Etxenikek euskaraz eta ingelesez hitz egin zuen. Azkenekoz, Karlos Garaikoetxea lehendakariak, euskaraz eta gaztelaniaz zuen bere agerpena eta, besterik gabe, irekitzat eman zituen Nazioarteko Jardunaldiok.

Ikuskariak

Eguerdi aurrean, Santimamiñeko haitzuloak ikustera sartu ziren euskalariak, antolatzaile zenbaitzukin; Jesus Altuna gidari. Bertako *Lezika* baserrian gertatu zuten lagunarteko bazkaria.

Arratsaldean, hizkuntzalarientzat agerpen berezia izan zen bertsolariena. Gernikako herri-plazan parte hartu zutenak: X. Amuriza, J. Enbeita, J. Azpillaga, J. Agirre eta Xanpun, Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldetik etorriak.

Gernikako pilotalekuan txisteraz jokatzen ikusi ondoan, amaitu zun egun honetako egitaraua.

Jardunaldi hauen helburua euskalariok elkar ezagutzea zen, alde batetik, eta Euskal Herriaren ikuspegi zabala eskaintzea, bestetik. Ezagutapenen eguna izan zen, besteak beste, lehenbiziko hau.

Leioa-ko hitzaldiak

26 asteartea: Euskal Herriko Unibertsitatean eman ziren Jardunaldietako txosten eta agerpenak. Ehunen bat entzule izango zela jotzen zuten antolatazileek eta era horretara gertatu ziren entzungailuak. Baina, beste horrenbeste gehitu zen izena eman zutenen kopurua eta hitzaldiak ematen ziren gelan denak sartzerik ez. Bigarren barne bat irekiarren, ez ziren denak kontent gelditu.

André MARTINET, Columbia eta Sorbonako irakasle ohiak, *Euskararen Fonologia sinkroniko eta diakronikoa* gaitzat harturik, irakaspen sakon eta garrantzitsua burutu zuen lehenbiziko txosten honetan.

Hiru agerpen etorri ziren gero: *Euskal Fonetika* izenburuko lana aurkeztu zuen euskaraz, Kilburn Mac Murraugh Ipar-Ameriketako ikerlariak. Lege fisikoen bidez ari da euskararen ebakiera aztertzen.

Azpitarteren Hiztegiaz txosten eta gutun berri batzuk, aurkeztu zituen Endrike Knörr euskaltzainak bere agerpenean. Azkenekoz, Pedro Sancristoval jaunak ere idazki berri batzuren xehetasunak aztertu zituen euskaraz, *Mogelen lau gutun berri Prestamero artxiboan: Triquerosko pitxerraren gainean,* bere lanaren izenburua.

Lehenbiziko egun honetan itzulpenen entzungailuek bazuten akatsik aski. Uda partean gertatzeak badu, antolatzaileen bakardade eta inoren laguntza ezin lortuz beste alde, tresneriaren arduradunekin zer ikusia ere. Oporretan den jendearekin, nekez eta ahal den bezala bete ohi dituzte zuloak. Hori bera gertatu zen Unibertsitateko harremanen arazoan.

Arratsaldeko ibilaldia. Ater gabeko euri ziztrinarekin egin genuen Arantzazuko itzulia. Bertako ostatuan bazkaldu ondoan, Euskal Herriko inprimategi zaharrenetako liburuen bilduma erakutsi zigun K. Zubizarretak, eta eliza berriaren aldare atzean eginak dituen marrazkien argibide ernagarria eman zuen gero X. Egaña margolariak.

Oñatiko dantzariek bertako dantza saio batekin egin ziguten, gero, agur eta ongietorria Unibertsitateko kalostrapean. Alkate jaunaren hitz batzuren ondotik Gipuzkoako Protokoloen artxiboa eta bertan dauden idazki baliotsuenak agertu zizkigun J. M. Agirrebalzategi gordailuaren arduradunak.

* * *

27 asteazkena: Jardunaldiotako egitarau estuena genuen hirugarren egun honetakoa. Bi txosten eta zazpi agerpen, zerrenda luzeegia da goiz batean ahozkatzeko. Baina, ez zen hori ere hala beharrez gertatu: agerpenak ez ziren oso berandu arte etorri, eta nolabait hutsunea bete nahiz hasi ginen zenbait euskaltzain geureak prestatzen. Azken orduan, uste gabeko lan parrasta bazela ikustean, egitarau tinko batez denen laburpena ematea erabaki zen.

Antonio Tovar mintzatu zen lehenik, *Konparaketa: lexiko-estadistika eta tipologia* gaitzat harturik. Beste herrialde batzutako joera ikusiz, gure hizkuntza zaharrari gertatzen zaiona eta bere etorkizuna argitu zituen.

Bigarren txostena, Terence H. Wilbur, kaliforniako Unibersitatean Indoeuropar irakasleak eman zuen, *Euskal sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea* ukituz.

Euskara eta beste hizkuntza batzuen arteko konparaketaz izan ziren egun honetako agerpen gehienak. Hans G. Mukarovsky-k bi lan eman zituen *Hamito-semitiko eta euskararen arteko berdinak: B protofonemaren zenbait ale,* zioen lehenbizikoaren izenburuak. *Euskararen eta Manda hizkuntzen artekoak,* bigarrenean. *Lexiko-estatistika ikerlan projektu-gaia, Fula-ri buruz ohar batekin.*



Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietarako Eduardo Txillidak buruturiko irudia.

Euskara eta iberieraren arteko harremanak sustrato teoriatik ikusiz izan zen Oroz Arizkuren jaunak ekarritako lanaren mamia.

Euskal eta Kartveliar izen batzuren kidetasunaz aritu zen X. Kintana. *Kaukasiar eta euskal azterketak* ikertu zituen Jan Braun poloniarrak.

G. Brettschneider, aleman baztandarra zioen berak, *Euskara, hizkuntzen tipologia ta hizkuntzen unibersalak* gaiaz mintzatu zen. Eta azkenekoz, Jean Baptiste Etcharren jaunaren ordez, P. Lafitte jaunaren lana irakurri zen *Lizarraga Elkanokoaren aditz konparaketa* eginez.

Nola edo hala, *EUSKERA* aldizkariaren *Index* orokoraren aurkezpena egiteko unetxo bat ere izan genuen. J. San Martinek prestatu du lan hau eta 1920-tik 1979-ra bitarteko lanen zerrenda eta egileen aipamena dakar hirurehun orrialdetan.

Atxondo aldera jo genuen egurdiz. Bertako baserri batean bazkaldu ondoan, folklore ikuspegi bizi eta zabala eman zitzaigun Garai eta Berrizko dantzekin, harrijasotzaile, aizkolari, gurdijasaile, ahari-apustu eta beste herri-kirol arloko ekintza ikusgarriekin.

Damurik, ekintza gehiegi bazen arratsaldeko jaialdiotan ere denen ahogozatzeko. Elorrioko Udaletxean ongietorria eman zitzaigun, eta herriko parrokia ikusi gabe ezin joan, eusko-gotiko oso berezia bait da. Eta ilundu ondoan. Argiñetako hilobi zaharrak ikusiz amaitu zen egun honetako ibiladia.

Gaiez kanpo bazen ere, kazetarien kezka atzerriko euskalarien aurrean *euskara batuarena* izan da orain arte. Tovar-engandik hasirik, behar beharrezkoa ikusten zuten denek hizkuntza batua euskarak iraunen badu.

Euskalarien gela guzietan, beste alde, Euskaltzaindiak daraman batasuneko ekintzaren aurkako orriak agertu ziren. Ez zioten hauek, dirudienez, garrantzi gehiegirik eman arazoari.

* * *

28 osteguna: Jacques Allières, *Dialektologia* gaitzat harturik, Euskal Herrian gaur-gaurkoa dugun arloan sartu zen argibide onik emanez.

Aditzaren morfologia aztertu zuen Robert L. Trask irakasleak bere txostenean.

Agerpenen zerrenda ez zen bezperan bezain luze eta tinkoa, alde batetik, eta abiatu ere bere orduan hasi zen ikastaroa. Bakoitzak egindako laburpenekin, eguerdiz lasaiago amaitzeko era izan genuen.

Sei agerpenak hauek ziren: *Ziburuko Etxeberriren aditza dela eta,* Patxi Altuna-k; *Euskal forma alokutiboen gainean,* Georges Rebuschi jaunak. *Eibarko aditz laguntzailearen paradigmak,* J. San Martin, Jardunaldiotako zuzendariak. *Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan,* J. M. Satrustegi-k. *Ba- ta ez- aurrizkiak fonetikaren aldetik,* Txillardegi-k. Eta azkenekoz, *Haur ola zirola: elementu deiktikoak euskaran,* Alfonso Irigoien jaunak.

Bilbo parte-zaharreko Elkarte batean bazkaltzeko ginen, bainan emakumeak sartzeko eragozpenagatik Erzilla hotelean geratu ginen denok. Filologia saileko ikasleekin elkarrizketa luzea egin zen arratsaldean.

Atzerriko txostenlari eta kazetarien arteko gertakizun aipagarria ikusi genuen goizean. Allières jaunak gaztelera badaki, eta euskara hobeki. Trask jaunak euskaraz

oso ongi eta gazteleraz ez. Kazetariek, beste alde, gutxik zekiten euskaraz eta euskaratik itzultzeko norbaiten beharretan aurkitu ziren.

* * *

29 ostiralea: Jardunaldien azken egun honetan txosten bakarra Koldo Mitxelenak eman zuen. Gaia: *Iker premiak aurrera begira.* Baina dialektologia aldetik eta atlas delakoari begira badago nun lana egina. Gazte asko ibili da Jardunaldiotan, eta ikastetxeetan ere euskal azterketetan sartzen doa jendea. Itxaropentsua da hori.

Lau agerpen aurkeztu ziren: *Linguistika teorikoa - Linguistika aplikatua,* Karmele Rotaetxek. *Gaur eguneko euskal silabaren antz batzuen ikerketa deskriptiboa ordenadoreez,* Olarte ta Azurmendik. *George Borrow eta euskara,* Tadao Shimomiya-k. Eta saioaren amaierako, Jeffrey Heath jaunak, *Euskararen zeresana gaur eguneko teoria linguistikoan* adierazi zuen.

Egun bakoitzak izan zuen bere ezaugarri berezia, eta laugarren egun honetan erantzunkizun kutsuko giroa sumatzen zen zenbait entzunleren artean. Euskalariekin mintzatzeko paradarik ez zitzaiela eman, alegia, ikasle gazteei. Eskaria arrazoizkoa izanik ere, ez zitzaien antolatzaileei aurrez gogora etorri, ez bait zen hori Jardunaldien helburuan sartzen. Nazioarteko euskalarien harremanak sortzeari begira egindako bilerak zirela esan zen haste hastetik; ez ikastaro eta Kongreso zabala.

Hala ta guztiz ere, agerpenak ematen ari ziren denbora berean, beste gela batean elkar ikusteko modua eman zitzaien bildu nahi zuten euskalari eta ikasleei.

Eguerdi garaian, Leioa eta Bilboko Udalen ordezkariak mahai buruan zirela eman zitzaien Jardunaldi hauei amaiera ofiziala.

Batzuen ustez, hizlarietan ginen euskaldunok ez omen dugu euskara behar zen neurrian baliatu. Ipar Ameriketako irakaslea euskaraz ari zen bitartean, eta berdin alemana eta japonesa, ulergaitza omen zela diote euskaltzainek frantsesez, inglesez eta gazteleraz ihardutzea. Nazioarteko batzarrak zirelarik, beste alde, ez dut uste hain kaltegarri izan denik euskaltzainek hizkuntza arrotzetan beren jakintza adieraztea. Dena dela, harrabotsa izan du pasadizoak eta guk jaso egiten dugu.

Azken ibilaldiak

Getariako Udaletxean zai genituen, dantzariekin, bertako agintariak. Alkatearen ongietorria eta arrantzarien Elkarte batean eman zitzaigun marmitakoak, aipagarriak dira Elkano zenaren sorterriko oroigarrietan. Giro oso ona bazkal ondoan marinel doinuek ekarri zutena.

Festa giroak ez zuen, halare, laneko gogoa moztu. Arratsaldean, Urdanibiako plaza ondoan, Jardunaldi hauen nolabaiteko jarraipen bat lortu nahian pundu batzu eztabaidatu ziren. Harremanetarako idazkaritza bat behar beharrezkoa ikusi zen. Denbora berean, ikerlanen berri elkarri ematea euskararen arloan, eta argitaratzeko bideak zaintzea izango litzateke idazkaritza honen helburu berezia. Aldizkariaren arazoa ez zen, beste batzuren eritzian, hain arazo larria.

Honenbeste urtetik behin kongresoren bat prestatzea aho batez baiezten zen.

Jaizubia jatetxean bildu ziren eusko-sukaldariek moztu zuten elkarrizketa beroa, hango eztabaida ez bait zen gau guzian amaituko bestela. Jardunaldi hauen

eginkizuna euskalarion ezaupena baldin bazen, adiskidantza sendorik ere sortu dutela esan dezakegu.

Afariak baretu zituen bazterrak. Euskal Herriko sukaldari berrien lana girotzeko, Linazasoro Tolosako alkatea genuen mahai tartean txistulari.

Biharamunean, Araba eta Nafarroa aldera joateko ez zen hainbat lagun bildu. Aste beteko nekea nabari zen. Gasteizen Txillida-ren zuzendaritzapean egindako Foruen plaza ikusi ondoan, Errioxako Bastida, Biasteri, eta Nafarroako Biana, Dorreaga eta Lizarra ezagutu zituzten bidelariek. Eta merezi omen zuen Lizarrako harreraz jabetzea. Bertako alkateak eman zien Udaletxean ongietorria. Hitz bero eta anaitasun zinezkoz hartu zituzten euskalariak Lizarran.

Besterik gabe, horretan amaitu ziren Nazioarteko Jardunaldiak.

1981. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Donostia, 1980-XII-19

Jose Luis Lizundia

Datorren urteko batzar egutegia egiterakoan, azken urteotan egin diren bezalaxe, kontuan izan ditut euskal idazleen mendeurrenak eta euskaltzainen sarrera edo ospakizunak. Horretarako Villasante eta Onaindiaren liburuetan oinarritu naiz, batez ere.

Hiru euskal idazle edo euskalarien mendeurrenak ditugu heldu den urtean, Juan Jose Mogel, J. B. Arxü eta Jose M.ª Iparragirrerenak, hain zuzen.

Juan Jose Mogel eta Elgezabal 1781. Apirilaren 26an jaio zen, J. San Martinek B. R. S. V. A. P. 1966, 3.ean agertu zigun bezala, Debako herrian. Beraz, berrehun urte betetzen dira datorren Apirilean. Haren lanik aipagarrienak hauek dira:

Baserritar nequezaleentzaco escolia, edo icasbidiac guraso justu ta jaquitun familija ondo azi ebeeneen exemplu ta eracutsijetan (Bilbao, 1816).

Eguneroco lan on eta erregubac, meza santuba ondo enzuteco: confesino eta comuninoya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zucenbidiac (Bilbao, 1820).

Mayatz-illeraco berba-aldiac (Tolosa, 1885).

* * *

J. B. Arxü, Altzürükün jaioa 1811an eta La Réole (Gironde)n 1881an hila. Francisque-Michel eta Bonparte printzearen laguntzailea, eskoletako inspektora izan zen. *La Fontaineren alegiak* zuberotarrera itzuli zituen eta baita *la Marsellesa himnoa* ere. 1882an, *Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina,* bere lana argitaratu zen. Beste zenbait itzulpenen egile, bai frantsesetik euskarara eta euskaratik frantsesera ere, batez ere, *Oihenarten poesiak.*

* * *

Jose M.ª Iparragirre, 1881an hil zen Itsason. Urretxuar honen zehaztasunik ez dago hemen ematerik, ezta eman beharrik ere. Haren bizitza eta lanek euskal literaturatik aparte badute garrantzirik. Kantagile bezala, *Gernikako arbola* batez ere; eta *Ara nun diran, Ume eder bat, Agur Euskalerria, Nere andrea,* etabar dira ezagunenak.

* * *

Euskaltzain oso berri diren sarrerak ere ospatu behar ditugu. Bata, A. Patxi Altuna eta bestea, A. Franzisko Ondarra. Honetarako dagoen ohiturari jarraiturik beren jaioterrian edo inguruan bederen, egingo dute sarrera, Altunak Azpeitian bertan eta, Ondarrak, bakaikuarra izanik, ondoko eta Burunda ibarreko herririk gotorrena den Altsasun.

Beraz, 1981.eko egutegirako ospakizun edo bilkura berezi hauek proposatzen ditut:

– Urtarrilaren 24ean, arratsaldean, San Sebastian, herriko zaindariaren astean, Patxi Altunaren sarrera batzarra. Egun berean, goizean eta bezperan, hilaren laugarren ostiralean, egun guztian, euskaltzainen eta batzorde arduradunen bilkura bereziak, 1979an, Foruan egindako antzera.

Beronen helburu nagusia, 1981-1982 urte bikoari begira, Euskaltzaindiaren plangintza burutzea:

* * *

– Martxoaren 22an, Altsasun, Franzisko Ondarraren sarrera. Aurreko egunetan, seguru asko, Dialektologi batzordeak antolaturiko ikastaroa egiteko asmoa dago, nahiz eta oraindik zihurtatu gabe egon. Hala balitz, 19an, ostegunez, hasiko litzateke.

* * *

– Apirilaren 26an, Juan Jose Mogelen mendeurrenaz batera, Deban, ospakizun batzarra, aste bukaera berean 23an hasita, dialektologi ikastaroaren bigarren zatia egingo litzateke, Deban bertan. Beraz, esan genezake datorren urtean-eta plangintza egiten denean, zehatzago ikusiko dugu– Euskaltzaindiak ba duela euskalkien, batez ere, dialektologia alorreko lanetan nabarmentzeko asmoa.

– Ekainean, Arxüren mendeurrena ospatuz, Euskaltzaindia Zuberoara joango litzateke. Bertakoei, Ekainaren 27a proposatu zaie, bezperan Baionan, azken ostiral bezala, ohi den hileroko batzarra eginik.

* * *

Iparragirreri buruz, Urretxun, kultur hamabostaldi bat antolatzekoak dira. Bere lanen argitaratzeaz badago asmoren bat eta Euskaltzaindia hortan lankide izan daiteke. Beste erakunde edo elkargoren batzuekin batera, zenbait ekintza berezietan parte hartzeko ere prest egon behar genuke.

* * *

Ekintza hauek eta gainerako hileroko batzar arruntak ikusirik, egutegi hau proposatzen dut, laburki, datorren urterako:

– Urtarrilaren 23 eta 24ean, Euskaltzaindiaren bilkura bereziak eta Patxi Altunaren sarrerako batzar irekia, Azpeitian.

– Otsailaren 27an, hileroko batzar arrunta, Donostian.

– Martxoaren 22an, Franzisko Ondarraren sarrera dela eta, Altsasun batzar irekia. 19tik 22ra, dialektologi ikastaroa, herri berean.

- Apirilaren 26an, Juan Jose Mogelen mendeurreneko ospakizun batzarra, Deban. 23tik 26ra, dialektologi ikastaroa, Deban bertan.
- Maiatzaren 29an, hileroko batzar arrunta, Donostian.
- Ekainaren 26an, hileroko batzar arrunta, Baionan, eta 27an Altzürükün, Arxüren mendeurreneko ospakizun batzarra.
- Uztailaren 24ean, hileroko batzar arrunta, Donostian.
- Irailaren 25ean, hileroko batzar arrunta, Donostian.
- Urriaren 30ean, hileroko batzar arrunta, Donostian.
- Azaroaren 27an, hileroko batzar arrunta, Donostian.
- Abenduaren 29an, hileroko batzar arrunta, Donostian.

OINARRIZKO EUSKARARAKO BATZORDEAREN AZALPENA

Donostia, 1980-XII-19

Imanol Berriatua

Donostian 1977.eko Urtarrilaren 28an egindako batzarrean, oinarrizko euskararako batzorde bat eratzea proposatu nuen. Proposapena onartua izan zen, eta, batzordea osotzeko, nitaz gainera beste hiru izendatu ziren. Batzarre hartan bertan, Joseba Intxausti jaunak eskatuz, oinarrizko euskarazko metodo bat prestatzeko enkargua eman zitzaion batzordeari. Hurrengo batzarrean, Otsailaren 26an, batzordearen buru izendatu ninduten eta Joanjo Zearreta idazkari. Beste batzordekide batzu ere izendatu ziren.

Ordurik hona hiru urte iragan dira. Hiru urte hauetan, *Hitz Egin* deritzan oinarrizko euskarazko metodo osoa bukatu dugu. Hiru mailatako metodoa. Maila bakoitzak hiru liburu dauzka: Irakaslearen Liburua, Ikaslearen Liburua eta Ariketa Idatziak. Guztitara, bederatzi liburu. Bederatzigarrena inprimategian dago oraindio, eta datorren hilabetean agertuko da. Hortaz gainera, sei liburuxka argitaratu ditugu, hiru lehen mailan eta beste hiru bigarren mailan idatziak.

Erabiltzen dugun euskara, zertan esan ere ez, oinarrizkoa da eta mailakatua.

Egiaz oinarrizkoa izan dadin, baztertu egin ditugu beharrezkoak ez diren egitura zailak. Adibidez, ez dugu inoiz hiketazko adizkerarik erabiltzen, eta, potentzialtasuna adierazteko, *ahal izan* eta *ezin izan* aditzez baliatzen gara, *naiteke, dezaket* eta antzeko adizkerak baztertuz.

Lehen mailan, esaldi guztiak nagusiak dira. Esaldi bakoitzean aditz bat baino ez da agertzen, eta berau jokatua. Ez dago menpeko esaldirik. Adibidez: *Egunero joaten naiz eskolara. Eskolan euskara ikasten dut. Gero titulua lortuko dut, eta euskarazko irakaslea izango naiz.* Aditzaren presentea, futuroa eta perfektua bakarrik erabiltzen dira, eta laguntzaile gabeko inperatiboa. Adibidez: *Ikusten duzu, ikusiko duzu, ikusi duzu, ikus.*

Bigarren mailan, aditz jokatu bat daukan menpeko esaldi bat bakarrik onartzen da. Adibidez: *Honan etorri zarenean, nork esan dizu ixilik egoteko?* Aditzaren presentea, futuroa, perfektua eta laguntzaile gabeko inperatiboaz gainera, iragana erabiltzen da.

Hirugarren mailan, aditz jokatu bana duten menpeko esaldi bi baino ez dira onartzen, eta subjunktiboko adizkerak eta baldintzazko esaldiak irakasten dira. Adibidez: *Euskaltegira zatozenean, ondo ikasi behar duzu euskara, gero euskarazko irakasle ona izan zaitezen. Erdalduna banintz, euskara ikasiko nuke.*

Lan hontan, nitaz landa, lagun askok hartu dute parte. Euskararen aldetik, laguntza handia eman didate, Bilboko Euskaltzain Etxean lan egiten dutenek. Irudigintzan eta inprimaketari dagozkion osterantzeko zereginetan, izugarrizko lana egin dute Iberduero enpresako enplegatuek.

Geure metodoa prestatzeko, Londreseko Longman etxeak argitaratzen dituen metòdoez baliatu gara. Metodo hoien teknika erabiliz, eginahala egin dugu, oinarrizko euskal egitura guztiak jatorki irakasteko. Hala ere, egia esan, lehen eta bigarren mailako liburuetan ez gara geure gustura aritu, ingelesezko liburuetan agertzen diren irudiez baliatu behar izan baitugu. Hirugarren mailako liburuan, berriz, guztiz txikia da ingeles liburuekiko lotura, guk geuk egin baititugu ia irudi guztiak: gutxi gorabehera 760 irudi.

Hauxe da, azken hiru urte hauetan egin duguna.

1980.URTEKO BATZARRETARA ETORRI DIREN EUSKALTZAIN ETA URGAZLEEN ZERRENDA

EUSKALTZAINAK:

1. J. San Martin - 1
2. J. Haritschelhar - 10
3. A. Irigoyen - 10
4. L. Villasante - 10
5. P. Altuna - 9
6. J. M.ª Satrustegi - 9
7. E. Larre - 8
8. E. Knörr - 7
9. F. Krutwig - 7
10. P. Lafitte - 7
11. A. Zavala - 6
12. X. Diharce - 5
13. J. Hiriart-Urruty - 5
14. J. L. Davant - 4
15. L. Mitxelena - 4
16. F. Ondarra - 4
17. A. Irigaray - 1

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK:

1. N. Etxaniz - 1
2. J. de Riezu - 1

EUSKALTZAIN URGAZLEAK:

1. J. L. Lizundia - 11
2. J. J. Zearreta - 11
3. M. Atxaga - 10
4. J. A. Arana - 9
5. P. Charitton - 9
6. X. Mendiguren - 7
7. A. Zatarain - 7
8. J. M. Aranalde - 6
9. X. Garmendia - 6
10. P. Goenaga - 6

11. N. Alzola - 5
12. J. Goikoetxea Maiza - 5
13. X. Kintana - 5
14. K. Rotaetxe - 5
15. L. Akesolo - 4
16. J. M.ª Etxaburu - 4
17. J. Fdez. Setien - 4
18. J. A. Loidi - 4
19. F. Mendizabal - 4
20. P. Uribarren - 4
21. J. L. Alvarez - 3
22. J. A. Arkotxa - 3
23. F. de Barrenengoa - 3
24. I. Goikoetxea "Gaztelu" - 3
25. J. M.ª Iriondo - 3
26. J. M.ª Lekuona - 3
27. L. M.ª Mujika - 3
28. I. Sarasola - 3
29. X. Aranburu - 2
30. I. Beobide - 2
31. J. Berrojalbiz - 2
32. J. A. Etxebarria - 2
33. E. Etxezarreta - 2
34. J. Intxausti - 2
35. J. A. Mujika - 2
36. P. Sancristobal - 2
37. I. Berriatua - 1
38. J. Garmendia - 1
39. J. Garmendia Larrañaga - 1
40. F. Ixurko - 1
41. D. Landart - 1

HILBERRIAK

MIXEL LABEGUERIE, 1921-1980

Uztaritzen sortua zen 1921.eko Martxoaren 4ean. Euskara, Fedea, Musika horra haren arbasoetarik Mixelek bildu ukaitzaren mamia.

1932an, Iparraldean lehen aldikotz ari zen txistulari multzoan zen bai eta ere lehen dantzari. Multzoan "ezpata-dantzari" multzoan, 11 urte zituen.

Lafitte apeza hots-emaileak, Uztaritzeko seminario ttipian osatu zuen bere euskara eta AINTZINA agerkariaren lehen sustatzailetarik izan zen.

1940.ean eman zuen xutik Irrintzi, Bordeleko euskaldun dantzari eta kantarien taldea. Hortarik sortuko da Bordeleko Eskualdunen BILTZARRA.

1945.ean IRRINTZI horrek emanen du xutik lehen Aberri Eguna, GERNIKA batailon-eko gudariekin. Michelenarekin, haren anaia Josep eta Basurde famatuarekin parte hartu zuen (ez ziren euskaldun bakarrak hor) alemanen kontrako azpi edo ixil gerlan.

1948.ean jarri zen mediku Kanbon. Bularretako eritasunez zen ikasia eta herri horretako eritegietan hasi zen, gero mediku oso bezala jokatuko du. Mediku ona zen, gaitzeko begia zuen eta bere egin behar guztiengatik azken hatseraino atxikiko du erien artatzeko lan hori. Jendekina zen osoki eta jende xehearen adiskidea.

1960an Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari izendatua izan zen. Orduan izan ziren biltzar eta besta haundien urteak bainan orroit ere hortik zirela sortu IKAS, eskoletan Haritschelhar batekin euskara sartzerat leiatzen dena, irratietako lehen emankizunak euskaraz, eta Bertsolaritzari ere hats berri bat eman zitzaiola, beti segituz haurren euskarazko prima edo zoin-gehiagokak.

1962tik eta 1967 arte diputatu izanen da.

1964etik eta hil arte Ezpeletako kantonamenduko kontseilari jeneral eta 1965etik hunak Kanbo herriko mera edo alkatea.

1973ean senadore hautatua izanen da eta ere eskualdeko (Bordeleko) biltzarraren lagunkide.

Gizona: Labeguerie zendu eta izan da eztabaida asko hunen euskal lanaz. Aipa dezagun lehenik gizona. Bazen zerbait maitagarri gizon horregan eta ere zerbait haundi. Nahigabeak joa zenean garbi agertzen zena. Bere emaztea gazterik galdua zuen, bere seme zaharrena istripuz hila, bere arreba berriki galdua. Zenbat xixtako ez zitzaion bertzalde heldu alde guztietarik. Huna zer nion haren ehorz egunean: Zu hi-

tzen nagusi bat zinen. Zure menpeko zenituen, eta josten eta uztartzen zalointasun berezi batekin. Baina badakit zure segeretua, zure mina ez zinituela kantatzen. Zure baratze berex hori zein ederki beiratu duzun etz zurekin eraman gizon karguak gizonari manatzen dion bezala! Ez zara desegin kondatuz zure mahurrak, ez zara barreatu jakin-arraziz munduari, dela euskararen alde, dela industria Euskal Herrian sarerazteko, dela Kanboko eritegien salbatzeko erabili ditutzun urratsak, Pariseko ministraritzatan. Euskal Herriraren karga ttipittoa zela Parisen, zuk ikasi duzu. Halarik ere ari zinen aintzina, Sisiphe baten pare. Holakoa zinen eta hain segur hor da zuren haunditasuna....

Gain gainetik atxikia zen familiari. Bere politika lanetan baliosenetarik hunen alde egin duen lana izan da. Laguntzak bozkarazi ditu familiaren alde, mediku eta fededun bezala haur botatzearen kontra zen.

Haren etxeko eta adiskideentzak leialtasun bat ezin hautsia erakutsi du azken hatseraino.

Uste dut asko jazarri zaizkola ere mintzatzeko zuen erraztasunarengatik. Haren ehorz egunean nihaurek nion bezala: —Gutxirik trebeenarentzat— eta zu gutarteko trebeena zinen lan horretan, hitz ez da sekulan plegatzen osoki libratu nahi lukeen mamiari. Beti gelditzen da zerbait ilunpean, ixil ixila, edo rebeska ateratzen. Eta zure erraztasuna zuen batentzat, hitzak burrustan bere zerbitzuko zituenarentzat, zer arriskua! Segur naiz zenbait urrundu dituzula zutarik zure erraztasun horren faltaz, zure ahotik atera hitz erauntsia beregain baitzoan zenbait aldiz, laxaturik zure barne barneko mamia, zure odol hezurretan sendi zenuen egia eta amodioa...

Hitzak berez berekin dakarren arrisku horretan erortzea gertatu bazaizu ere, ahogutik dukete, zureak bezala, goretsi mintzaira baten bizia, zuk bezala senditu hitzak gizonean iratzartzen duen oihartzuna.

Euskara baitzen, olerkariak dioen bezala, "zure amaren ezpain sakratuetarik ikasi mintzaira", sakratua zeneukan euskara...

* * *

Euskal Lanean: gizonaz eta honen bihotzaz, honen izpiritu argiaz, honen leialtasuna nehork ez baditu dudan emaiten ahal, honen euskal lanaz badute zenbaitek eraiteko. ENBATAren sortzailetan izan ondoan 1960ean, 1961ean abertzale guztiek berena ondotik egin zuten "*Gu gira euskadiko gazteri berria*"idatzi ondoan, 1963an "Charte D'ITXASSOU" sortu zen biltzarra ereman ondoan bere lagun errcartekin, berexi zen ENBATA elkarte abartzeletik eta jokatu, gizon politiko bezala, frantses erakundeen barnean. Hori zenbaitek ez diote barkatu.

Hona garbiki nire ikusteko modua. Ez dakit abertzaletasunari buruz hautu hori egitean, hautu ona egin zuen. Nik dakidana hauxe da: Iparraldean, abertzale huts agertzen dena ez dela bozetan (botoetan) pasatuko.

Badakit bertzalde zer urratsak, zer indarrak ibili dituen dela euskararen alde, dela euskal ekonomiaren alde, dela errefuniatu euskal anaien alde. Bai, gorago nion bezala, ikasi du Frantziako zentralismo izugarriaren pisua, ikusi Pariseko ate gehienak hersten. Nork erran dezake zer den gelditukо, baina ni segur naiz hazi erainak ekarriko duela bere uzta.

Zer nahi den gelditukо dena da euskal kantuari eman dion berritze edo berpiztea. Lehenetarik izan da horretan ere Julien Lekuona hain maite zuen kantariare-

kin. Harenak dira *"Gure astoa balaan"* eta *"Gure gatua pitxitxi"* kantu irriengariak, harena biziaren eta herioaren misterioa kantatzen duen *dilin dalan,* harena hainbertze fede darion *"primamaderako liliak".* Denek ezagutzen dituzte *"Gu gira euskadiko"; "Nafarra, oi* Nafarra", *"BAKEaren urtxoa"; haurtxo haurtxoa; zer duk nigarrez.* Noski berak maiteenik zituenak hiru hauk ziren: OXOBI zenaren ehorzketakoak, Ibar zola itoetan eta partikulazki bere lehen semearen galtzeko karietara idatzia *BORTZ ITURRI...* Bertsook euskara nasai, eder, aberats batean idatziak dira eta olerkiz jantziak.

* * *

Burutzeko erranen dugu Mixel LABEGUERIE izan dela gizon bat bere aberastasun haundi eta mugekin. Hurbiletik ezagutu dutenek maitatu dute. Aurtengo udaberrian, Baionako ospitalean zartatu bonbarik ondotik, nahiz nortzikeriaren kontra, erakutsi du bere euskal izatea. Ipar aldeko gizon politikoetan kasik bakarra izan da. Frantses alderdiak hori ez dio barkatu.

Orduan hil da bakarrik Tolosako ospitale batean, 59 urterekin. Hazia ere bakarrik da sartzen lurpean.

Itzaina Michel

KARL BOUDA

1901-II-10 – 1979-VII-31

Joan den urtean hil zitzaigun euskaltzale famatu hori. Egitan hizkuntzalaria zen; berak argitaratu zituen lanak lengoaia aunitz aipatzen dituzte: Kaukasiko, Uraliko, Ipar-Ameriketako hizkuntzak eta abar. Eta euskara, noski: 1933.ean argitaratu zuen "Das transitive und intransitive Verbum des Baskischen". Urtez urte euskarari buruz zerbait idatzi zuen, adibidez "Land, Kultur, Sprache und Literatur der Basken" (1949), "Etymologies basques" (1950-51), "Die Syntax einiger baskischer Kasus" (1972).

Erlangen-go unibertsitatean irakaslea zen. Bere azkeneko urteetan euskara arras barneki erabili zuen, ikus adibidez "Berichtigungen zu einer Abhandlung über baskische Syntax" (FLV 13, 1972). Lantxo honetan Ernst Lewy'k 1931.ean egindako "Skizze einer elementaren Syntax des Baskischen"i hobetasun eta oharpen batzu ematen dizkio. Arrunt interesgarria da artikulu hori.

Hugo Schuchardt, Ernst Lewy eta Karl Bouda euskalari jakintsuak ziren. Itxaropena dezagun beren bideetan besteak jarraituko direla.

Gunter Brettschneider (Lekarotz)

JOSE FELIX VERDES ELORRIAGA

(1905 - 1980)

Ba dira euskararen aldé isilean lan egin dutenak eta hauetariko bat, 1980.eko Abuztuaren 27an hil zaigun Jose Felix Verdes Elorriaga da. Emeterio Verdes Atxirikak Bilbon sortu zuen moldiztegiaren jarraitzaile izan zen Jose Felix hil arte. Eta moldiztegia desagertua izan arren, hor geratzen da lekuko Bilbo Zaharreko Liburudenda.

Euskarari eta euskal kulturari buruzko liburuak pilaka argitara eman zituzten Verdestarrek. Denak hemen aipatu ezinik, euskarazkoak bakarrik zerrendatuko ditut. Gaztelerazkoen artean, aipagarrienak, Kizkitzaren: *La Nación Vasca* bigarren argitalpena (1931); (lehenengoa 1918an Grijelmok egin zuen). Estellako Bernardinoren: *Historia Vasca,* hau ere bigarren argitalpena (1931), (lehenengoa Buenos Airesen egin zuen Tudurik 1928an). Eta Jose Antonio Agirreren: *Entre la libertad y la revolución* (1935).

AGIRRE, JOSE MARIA ("Lizardi"): *Biotz begietan* (1932).

AGIRRE'TAR TOMA ("Barrensoro"): *Gazigozoak* (1933).

ALTUNA'TAR JOSEBA: *Wilde'tar Oskar. Ipuñak* (1927). *Grimm anayak. Ipuñak* (1929).

OLABIDE'TAR ERRAIMUN: *Itun Berria* (1931).

ORIXE: *El Lazarillo de Tormes. Tormes-ko Itsu-mutila* (1929). *Mistral-en Mireio euskeraz* (1930).

SOTA ABURTO, IMANOL: *Negarrez igaro zan atsua* (1933). *Urrentxindorra* (1934. *Libe* (1934). *Buruzagijak* (1935) *Gozemin* (1935).

URKIAGA, ESTEBAN ("Lauaxeta"): *Bide barrijak* (1931). *Arrats beran* (1935).

ZAMARRIPA, Pablo: gramatikari honen lehen liburua: *El bascuence facilitado. Gramática del euskera bizkaino. Cuaderno Primero. Declinaciones,* Gasteizen argitara eman zuen 1905an Barrutiak. Bigarren argitalpena, Bilbon egin zuen Jose Astuik 1909an. Gero, *Manual del Bascófilo,* liburu irakurgarria benetan, Lersundik inprimatu zuen Bilbon. Gaiak ugari zituen Zamarripak orduan bere *Gramatika* osatzeko eta 1915an Lersundik egin zuen lehen argitalpena; gero etorriko dira Gaubekak egindako hiru argitalpenak (1929, 1931, 1933) eta eranskin gisa Gaubekak berak argitara emandako: *Conjugaciones guipuzcoa-*

nas (1929). Gramatikaren seigarren argitalpena Dotxaok egin zuen Bilbon (1947), eta zazpigarrena, gure Verdesek (1955).

Bi urte geroago (1957), Zamararriparen *Vocabulario Vasco-Castellano* inprimatuko du Verdesek, lehen Gaubekak (1930, 1933) eta Dotxaok (1947) egindakoak orrialdez gehituz. Baina gramatikako lanetatik aparte, olerkiak ere idatzi zituen Zamarripak eta 1927an argitaratu zituen Verdesek: *Gora begira. Olerki goi-usañekoak* izenburupean.

Beste liburuxka eta paper asko ere inprimatu ditu Verdesek, moldiztegia euskararen zerbitzurako aurkeztuz. Eta hori zen Jose Felixek harrotasunez beterik agertzen zuena. Garai neketsuan euskararen alde hainbat lan egin duen gizon honek har beza auskaldunen esker ona.

Jose Antonio Arana Martija

AITA POLIKARPO IRAIZOZ (1897-1980)

Fco. Ondarra Erdozia eta Juan San Martin

Bizi luze baten ondoren, 1980.eko Apirilaren 5ean, Larunbat Santuz, hil zen Aita Polikarpo Iraizoz euskalari ospetsua, Baztango Lekarotzen.

A. Iraizoz itzal handidun gizona izan da, bai bere kaputxino ordenan eta bai euskaldungoan ere. Hark azkeneko zazpi urteak Lekarozen igaro zituen. Hil baino hiru urte lehenago beraren biziaren berri labur bat idatzi zuen; beraz, hasteko, haren hitzak jarriko ditugu eta horrela iturri jatorretik edango dugu eta bidenabar haren euskara dastatuko.

Honela dio:

"Iraizoz-ko Polikarpo A. Kaputxinoa"
(bataioan, Agustin Zarranz Bermejo)

Nere bizitzearen berri laburra:

1897.—Uratarrilaren 31-an jaio Nafarroan, Ultzamako herri Iraizotzen, orduan euskaldun hutsa zen herrian. Aita herriko maisua nuen, bainan bost urte nituela hil zitzaidan, eta gero eskola gutxi ikasi nuen.

1908-1912.—Altsasu-n gure frailegai eskolan, latin eta ikasten.

1912-1914.—Sangoza-n, nobiziadu urtea eta boskarren latin urtea.

1914-1917.—Ondarrabian filosofia ikastaroa. Bidenabar euskera berriz ikasi eta idazten hasi. (Aleman gramatika bat eskuratu ez dakit nola eta hizkuntza hori ikasi nere kabuz).

1917-1921.—Iruñean teologia ikastaroa —euskerari ekin— apaiztu eta meza berria eman (1921).

1922-1923.—Suizan, Zurich-eko Unibertsitatean "Filología Románica" ikasten Euskaltzaindiaren kostuz.

1923-1930.—Iruñeko komentu zaharrean, apaiz-lanetan eta beste zerenetan —Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* Nafarroako herrietan. (Gure Hilarino Felder-ek alemanez idatzitako liburu "Los Ideales de San Francisco" erderara itzuli).

1930-1950.—Lekarozko ikastetxean irakasle (latin, grekera, alemana etab.). (Felder Aita beraren "Jesús de Nazaret" eta beste libururen bat erderara itzuli).

Hortaz landara, batez ere azken 8 urtetan (1942-1950) apaiz-lanetan, euskeraz predikatzen gure elizan eta inguru hauetako herri gehienetan.

1950-1972.—Erroman, gure Ordenako Idazlari Gehien. Kargu hortan asko idatzi: latinez, gaztelaniaz, italieraz. Bainan hargatik ez nuen euskera bazterrerat utzi.

1972 (urrilean).—Erromatik atzera etorri Lekarotza, kargurik gabe. Geroztik hemen nago 80 urte beterik".

Baditu beste bi liburu alemanetik erderara itzuliak: *El Caballero de Cristo Francisco de Asís,* Felder-rena, eta *Crítica de Asia sobre el cristianismo de Occidente,* Ohm-ena. Bainan euskal arloan, bai euskaraz eta bai euskarari buruz, egin zuen bere lanik bihotzekoena. Berak dioen bezala, "neurtitzetan eta hitz laxoz asko idatzi dut euskeraz nere bizitzean", eta bere bizibideari zegokionez, beti ez bada, maizenik erlijiozko gaika erabili zituen. Liburu haundirik ez zuen ordea argitaratu; haundiena hau da: *Yesu Kristo gure Yaunaren Bizia* (Iruñea, 1934). Euskaltzale batek baino gehiagok ikasi du berriz erdi galdua zeukan bere euskara, liburu hau irakurriz; bazekien hori berak eta asko pozten zen. Bere lehenbiziko lanak *Irugarrengo Prantziskotarra*-n agertu ziren (1916), euskara berriz ikasten ari zelarik; bainan *Zeruko Argia*-n idatzi zuen gehienik, lehen zenbakitik hasi eta azken zenbakiraino: berak ondutako bertsoak, beste hizkuntzetatik itzulpenak (latin, Aleman, italiera, katalan, frantses, eta abar), Bibliako salmuak, urteko igande eta jaiegunetako Ebanjelioak eta besterik ere. *Euzko Gogoa, Olerti* eta *Jakintza*-n ere agertu ziren bere lanak. Azken lanak *Fontes Lingvae Vasconvm*-en daude; eta bere azken liburua —*Kristo gure Jauna eta andredena Maria*— Bilbon argitaratua izan zen joan zen urtean eta sonetu sarituak osatzen dute. Badago ere liburuxka txiki-txiki bat berak bertsotan idatzia, bere izena *Gurutze Bidea* (Iruñea, 1957). Aipatu nahi dugu ere Errepublika garaian eraiki zen Legate mendiko kalbarioan bere hitzak daudela xixelaturik marmorezko lauzetan.

Argitaratu gabeko asko utzi ditu: sonetu, salmu, sermoi (Baztango euskaraz), Nafarroako eta liburu zaharretako hitz-zerrendak. Bera kezkaturik zegon eta honela utzi zuen idatzirik: "Nora joango dira argitaratu-gabeko guzi hoiek?" Gogoan zeukan beharbada *Yesu Kristo gure Yaunaren Bizia*-rekin 1936. urtean gertatua, saldu gabe gelditu ziren aleak ondatu bait ziren.

Gizon apal eta xaloa, oso atsekabeturik zegoen gure artean ikusten zituen eztabaidengatik eta arras mindurik euskarak egin duen atzerakadagatik. Azkeneko urte hauetan ez zen inongo bileretara joaten, ez zuen zarata maite; bainan beti lan da lan. Azken orduraino burua garbi izan zuen; begietatik nekatu, hori bai, eta hitz egitean ere bai. Bihotzeko ahuleriak eraman du gure artetik.

Zahartzarora Lekarotzera erretiratua zen eta hemen ari zen isil isilik euskal lanetan, heriotzak eroan arte. Oraindik aski berriak ditugu *Euskera* aldizkariaren XXIII (1978) zenbakian "erion ala jario" erabilkerari buruzko lana. Baina, batez ere, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian XVIII. mendeko zenbait bertso lanen berri emanez, 24. zenb. (1976), eta Lizarraga Elkanokoaren hiztegi eta esakeraz beste lan luze eta zehatz bat, 29. zenbakitik 32.era (1978-79).

Lan asko zuen eskuartean, biziak iraun bazion euskararentzat probetxuzko izango zirenak. Honengatik, galera tamalgarria izan da gure hizkuntzaren iker lanetarako.

EUSKAL BIBLIOGRAFIA

OHARRAK: AITA POLIKARPO IRAIZOZKOA
(Agustín Zarranz Bermejo)
"Urtsuia"
"Irisarri"
Iraizoz (Ultzama): 1897-I-31
Lekarotze (Baztan): 1980-IV-5

Gaurko euskal idazleen Bibliografia oso bat egiteko asmoa erabaki nuen, orain lau bat urte. Zaharrengandik hasi nahi izan nuen, eta eskariz idatzi nizkien, zehaztasunak eskatuz. Gutxik erantzun zidaten. Hiru nafar ziren erantzuleak; kaputxinoak bi. Zehaztasun haundiz eman zuen erantzuna Aita Polikarpo Iraizozkoak.

Aita Polikarpok berak bidali zidana, ikutu gabe ematen dut hemen EUSKERA Aldizkarian, berak jarritako zehaztasun bereziekin. Berari, oroipen eta goratzarrez doa Bibliografi Ohar hau (1).

---

(1) 1976.urteko Aste Santuan ikustatu nituen Lekarotzen Polikarpo Iraizozkoa, Jorje Rietzu eta Ildefonso Urkixo. Liburutegian egon ginen bi ordu luzetan, egonaldi atseginean. Orduan ikusi nuen azkenengoz. 1977.Martxoan bidali zidan bizitza eta bibliografiari buruz ohar sota, eskutitz batez. Aurten, 1980.Aste Santuan, Oharritzen nengoelarik, berriz ikustatzea pentsatu nuen. Bazko egunean, bazkalondoren irten nintzen Lekarotzera, baina zuzen hartu beharrean Kaputxinoen ikastetxera, kanposanturuntz jo nuen, bide batez A. Donosti, A. Oieregi *(Zeruko Argia*-ren zuzendari izan zena) eta beste adiskideen oroimenez. Kanposanturatu nintzeneko, ehorzketa bat zetorren bidean gora: Aita Polikarporena! Eta jakin ez ezer nik... Jorje Rietzu, Telletxea Idigoras, eta hainbat adiskidek lagundu genuen lurperatze orduan. Hurrengo egunean, egin zitzaizkion hileta elizkizunak ikastetzeko elizan, jendetorri haundiz: Fraidekaputxino, apaiz, euskaltzain, euskaltzale eta adiskide asko.

Prestutasunez eman zuten berria egunkari, aldizkari eta irratiek. Eskuan dut saiobete bat: Juan San Martin: "*A*(ita) *Iraizoz*", *Hoja del Lunes* (Donostiakoa), 1980-IV-14, 4.orrialdean. Sistematekoki bibliografia egiterakoan, irakurgai baliagarria, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* (VIII.341)-rekin batera.

COLEGIO DE N.ª S.ª DEL BUEN CONSEJO
Teléfono 58 01 25 (4 líneas)
LECÁROZ (Navarra)

9 - III - 1977

Agur, Anaia Berrio-Otxoa!

Hemen doazkitzu nere paper hoiek. Ez dakit zuk nahi duzunerako balio duten. Ez da gauza handia. Lotsa pixka batekin bidaltzen dizkitzut, zure eskeari ezetza ez emateagatik. Ez al dutitxura kaxkarregia egingo gauza bera eskatu diezun euskal-idazle hoien aldean.

Berex bidaltzen dizut Zeruko Argia-n agertu ziren nere lantxoen zerrenda. Ikusten duzunez, zerrenda az da laburra. Balioa horren luzea balitz... Hau ez da argitaratzekoa, zuk ikusteko baizik.

Argazki hau besterik ez dut, orain urte pare bat aterea. Esker nizuke, hortaz baliatu ondoan (baliatuko bazera), atzera bidaltzen bazenit.

Besterik gabe agur, eta fraile zahar honeri barkatu zure eskeari hobeki ez erantzuna.

Zure zerbitzuko
Iraizozko Polikarpo A.
Iraizozko Polikarpo A.

Idatziak

Neurtitzetan eta hitz laxoz asko idatzi dut euskeraz nere bizitzean, neronek ere ez dakit zenbat. Nere bizibideari dagokionez, beti ez bada, maizenik erlijiozko gaiak erabili ditut. Liburu handirik ez dut ordea argitaratu; txiki bat hauxe:

Jesu Kristoren bizia lau Ebangelioetatik aterea

Lau Ebangelioak bateraturik. Iruñean gure komentuko moldiztegian argitaratu zen 1934ean. Harrera ona egin zitzaion nere ustez. Zenbait eukaltzalek eta euskal-idazlek aitortu izan didate, erdi ahantzia zeukaten euskera, liburutxo hortan berritu zutela. Ez ziren noski ale guziak saldu; 1936-an saldu gabe zeudenak ondatu ziren, ez dakit nora...

Nere idazki gehienak banaturik daude hainbeste aldizkaritan. Hona hemen hoietako batzu:

1. **Irugarrengo Prantziskotarra**

Gure Irugarren Ordenako senidentzat Iruñean ateratzen zen hilabeteoro. Hor agertu ziren nere lehenbiziko bertsoak (1916), euskera berriz ikasten hari nintzelarik Hondarribian, eta geroago beste zenbait gauzatxo ere bai. Hilabetekari hori 1936-an hil zen.

2. Zeruko Argia

Hau ere Iruñean sortu eta argitaratu genuen. Hortan idatzi nuen nik gehienik, lehen zenbakitik hasi (1919-ko Urtarrilean) eta azken zenbakiraino (1936-ko Uztailean). Urte hoietan hilabete gehienetan agertu zen nere lantxoen bat, eta zenbait hilabetez bat baino gehiago ere bai. Zer idatzi nuen hor?

a) Neronek ondutako bertsoak —musikarako hitzak— hitz laxoz, ipuiak, gertatuak etab. —Batzuetan Urtsuya izenarekin.

b) Beste hizkuntzetatik itzuliak:

– latinetik: asko, liturgiako himnoak eta besterik;

– alemanetik: Bach-en koralen hitzak, eta besterik asko;

– zerbait italieratik, katalanetik, frantsesetik etab.

c) Bibliako salmuak. Ez ziren guziak argitaratu, ezta erdiak ere. *Zeruko Argia* 1936-an itzali zen eta harekin batean salmuak ere ixildu. Azkenik agertua (1936-ko Uztailean) hola hasten dena (Ps. III):

"Jauna, oi nola diren - nere etsaiak usutu!
asko bai dira nere aurka multzutu."

d) *Urte guziko igande ta jaiegunetako Ebanjelioak.—Zeruko Argiak* ateratzen zuen berek *Erriarentzako Liturgia* izeneko liburutxo-sail bat. Hor agertu ziren bere Ebanjelio hoiek.

e) Beste lan bat ere bidean gelditu zen, osorik argitara gabe. Gure A. Fernando Soloeta Dima-koak liburutxo batean kontatu zituen erderaz Txinako Misioetan komunisten menpean egon zeneko gertakariak. Hori euskerara itzuli nuen, eta *Zeruko Argia*-n agertzen hasi zen berez, gero josi eta liburu bat moldatzeko eran. Baina hori ere bide erdira gabe, jaio berrian hil zen.

3. Euzko gogoa

Aldizkari hori Guatemalan ateratzen zenean, ni Erroman nengoela, argitaratu zituen nere soneto batzuek (16 edo), 1957-1958 urtetan, Irisarri izenarekin.

4. Olerti

Beste soneto batzuek: *Jesusen zazpi azken itzak* (Irisarri, 1964). Ez dira ditudan soneto guziak argitaratu. Ehun ta berrogeiren bat (140) ditut eginak.

5. **Jakintza**

Aldizkari hortan agertu ziren alemanetik itzulitako hauek:

(1934) "Tuleko erregea (Goethe-rena)"
(1934) "Irulea (Brentano-rena)"
(1935) "Etxahun euskaldunaren deitorea (Chamisso-rena)"

* * *

Argitaratu gabeak

Orain arte esanetik ageri da, gauza asko daudela argitara gabe: Sonetoak eta beste bertso asko —salmu gehienak— hitz laxozko zerbait —ibili naizen herrietan eta irakurri ditudan liburu zaharretan bildu ditudan hitz-zerrendak. Nafarroako hitz-mordoska bat bidali nuen Euskaltzaindira aspaldi, Erromara joan aurretik; besteak hemen daude lo.

Gainera hemen daukat prediku-pila bat: Igandetako homiliak, Eukaristiaz, Jesusen Bihotzaz, Andre Mariaz, zenbait Santuenak, beste gai askotakoak: Baztango euskeraz predikatuak hemen gure elizan eta alde hauetako herrietan, Zugarramurdi-tik hasi eta Bera-raino, eta bai Aralar mendiko elizan ere. Nora joango dira argitaratugabeko guzi hoiek?

* * *

Besteri laguntzen

Euskerazko lanetan hari diren adiskide batzuei laguntza pixka bat eman: **Intzar Damaso Aitari:** *Naparroako euskal-esaera zarrak* liburua osatzen, moldiztegirako garbi idazten, inprentako hutseginak zuzentzen.

Riezuko Yurgi Aitari

1) *Nafarroako euskal-kantu zaharrak:* egileak luburuaren sarreran nere aguntza guziz baliosa izan zaiola aitortzen du.

2) *Obras musicales del P. Donostia:* harritzekoa da zenbat musika-lan ondu zuen gure A. Donostia zenak, elizarako eta kanporako soinu ezin konta-ahalak. A. Riezu hari da hoiek hain ardura eta lehia handiz argitaratzen. Dagoneko 11 tomo atera dira, eta ez dira gutxi oraindik ateratzeko daudenak. Hoietan, batez ere elizkantuetan, maiz ageri da nere izena laguntzaileen artean. Nere laguntza hau izan da: soinuen hitzak edo letrak xuxentzea, argitzea, txukuntzea —letra berriak ontzea— beste hizkuntzetakoak itzultzea euskeraz ere kantatzeko moduan, etab.

* * *

Nitaz idatzi dutenak

Nik dakidala, ez dira asko nitaz edo nere lanetaz idatzi dutenak:

Jesu Kristoren Bizia-ri norbaitek egin zion laudariozko kritika bat. Ez naiz oroitzen non, noiz, nork ("Jautarkol" zenak ote?).

Luis Michelenak, bere *Historia de la Literatura Vasca*-n goraki aipatzen ditu nere sonetoak eta *Jesu Kristoren Bizia.*

L. Akesolok, Donostiako *El Diario Vasco*-n (18-II-1973), artikulu luze bat idatzi zuen, ni oso gora ipintzen ninduela.

Ez daukat besterik gogoan.

* * *

Bukatzeko, umilki aitortu behar dut agerian dagoena: Ez dut nere bizitza luzean burrunba handia ateratzeko haineko lanik bururatu euskeraren alde. Erlijioso naizenez, ez nintzen nere buruaren jabe. Eta egitekorik aski izan dut bai ikastetxe hontan 20 urtez, bai bereziki Erroman 23 urtez. Ez nezaiokeen euskerari nahiko nukeen bezainbat denbora eman, ez nuen euskera behar bezain sakonki eta hetatuki ikasteko eta ikertzeko egokierarik.

Halaz ere, badirudit euskeraren alde zerbaitño egin dudala, era nuen guzietan euskeraz gogotik mintzatuz, idatziz, predikatuz; hots! besterik ez bada, euskerari onerizteko eta eusteko etsenplu ona emanez.

Lekarotzen, 1977.eko Martxoan

ZERUKO ARGIA (1919-1936)

Pág.			
		—1919—	
6	Ilbeltza	*Jesus Aurtxoa*	v*
42	Epaila	*Jose Deunaren atsekabe-atseginak*	v
78	Orrila	*Ave, maris stella (Agur Iziarko)*	v
83	Orrila	*Aurtxo gaxoa*	v
99	Uztaila	*Adoro te devote*	v
171	Azaroa	*Umezurtzak*	v
191	Neguilla	*Guziz ederra zera zu, Maria*	v
		—1920—	
42	Jorraila	*Attende, Domine, et miserere*	v
57	Uztaila	*Ave, verum corpus*	v
105	Urrila	*Iam noctis umbra obduxerat (de S. Francisco)*	v

145	Neguila	*Puer natus in Bethlehem (Aur bat jaio da)*	v

—1921—

8	Ilbeltza	*Matsmordo ta galburuak (Verdaguer)*	v
39	Jorraila	*Artzai Onaren Ama*	m
47	Orrila	*Ama-Seneak (Maria ta Jesus)*	v
53	Orrila	*Atsekabe garratzetan*	m
54	Orrila	*Udaberria*	v
74	Garagarrila	*Erlea eta usoa (ipuia)*	v
128	Urrila	*Asis-ko Prantzisko Deuna*	v

—1922—

25	Otsaila	*Adeste, fideles*	v
71	Orrila	*O filii et filiae*	v
75	Orrila	*Ama Mariari (S. Alfonso Lig.)*	v
88	Garagarrila	*Xabierko Prantzisko Deunari (Bonif. Iraizoz)*	v
103	Uztaila	*Eguzki anaiaren eresia (S. Franc. Assis).*	v
122	Dagonila	*Andre Mariari (Anakreon-en antzera)*	v
157	Urrila	*Prantzisko Deuna eta txoriak (Verdaguer)*	v

—1923—

21	Otsaila	*Terebintoa (Verdaguer)*	v
110	Uztaila	*Dominus regit me (Ps. 21)*	v
173	Azaroa	*Enara bati*	v
188	Neguila	*A. Mariaren seaska-eresia (Dormi, fili)*	v

—1924—

217	Otsaila	*Erlea (alemanetik) (ipuia)*	p
231	Epaila	*Galburu ta matsmordoak*	v
233	Epaila	*Anai-arrebak (Schmid-en ipuia, alemanetik)*	p
281	Garagarrila	*Goizeko otoitza (H. Bone, alemanetik)*	v
281	Garagarrila	*Arrats otoitza (H. Bone, alemanetik)*	v
301	Uztaila	*Kristo, argi ta eguna (Bach, latinetik)*	v
305	Uztaila	*Agur, Maria (H. Bone, alemanetik)*	v
322	Dagonila	*Kristo, egun argitsua (latinetik)*	v
327	Agorra	*Txori kantazale ederra (S. Fran. Assis)*	v
332	Agorra	*Barka, Jauna, barka*	v

* v : versos.
* m: música (hitzak)
* p : prosa

349	Urrila	*Memento rerum Conditor*	v
351	Urrila	*Afrikako Misioetan (gertatua)*	p

—1925—

411	Otsaila	*Eguzkia (Giehrl, alemanetik)*	v
413	Otsaila	*Aurra ta bere aingerua (Denk, alemanetik*	v
447	Jorraila	*Jesusen Nekaldia eta Franz. Santua*	p
456	Orrila	*Kukua (alemanetik)*	v
459	Orrila	*Agur, Maria*	v
478	Garagarrila	*Jesus maiteari*	v
509	Dagonila	*Sub tuum praesidium (latinetik)*	m p
524	Agorra	*O salutaris hostia (latinetik)*	m v
529	Agorra	*Santu ta Doatsu berriak*	p
556	Azaroa	*Atozkit, Jesus ona*	m v
571	Neguila	*Artxueta mendian*	v

—1926—

590	Ilbeltza	*Tota silescit (latinetik)*	m v
590	Ilbeltza	*Ave, Iesu, Deus magne (latinetik)*	m v
593	Ilbeltza	*Urretxindorra (ipuia)*	p
605	Otsaila	*Jaunaren Ama (latinetik)*	m v
636	Jorraila	*Isti sunt agni novelli (latinetik)*	m v
684	Uztaila	*Stella caeli exstirpavit (latinetik)*	m v
685	Uztaila	*Salve, Virgo singularis (latinetik)*	m v
700	Dagonila	*Zeruetako edergarria*	m v
717	Agorra	*Ogiaren irudian (Bach, Brich, Entzwei)*	m v
746	Urrila	*Oianean (S. Franzisko Ass.)*	v
760	Urrila	*Usapalak*	v
765	Urrila	*Or dator Assitar Pr. (Verdaguer)*	m v
788	Neguila	*Eguberriko lorea*	m v

—1927—

8	Ilbeltza	*Natus est in Bethelehem - Betleemen jaio da*	m v
72	Orrila	*Artzai onaren Ama (Bach, Liebster Gott)*	m v
88	Garagarrila	*Dominus pascit me (Ps. 22)*	m v
153	Urrila	*Anai-arreba onak (ipuia)*	p
168	Azaroa	*Arrats-otoitza*	m v
185	Neguila	*Parvulus nobis nascitur (Bach, latinetik)*	m v

—1928—

216	Otsaila	*Jesus, Jesus nerea (Bach)*	m v
232	Epaila	*Oroi zaite, Jainko Jauna (latinetik)*	m v

249	Jorraila	*Zeruko Amari*	m v
264	Orrila	*Guziz edera zera zu, Maria*	m v
328	Agorra	*Itzali da zeruan (Bach)*	m v
344	Urrila	*Zure estalpera (latinetik)*	m v

—1929—

24	Otsaila	*Belengo estalpea zeru biurtu da*	m v
56	Jorraila	*O Filii et filiae (latinetik)*	m v
72	Orrila	*Alma Redemptoris mater (latinetik)*	m v
89	Garagarrila	*Gure Santuak*	p
96	Garagarrila	*Zu gabe, Jesus!*	m v
137	Dagonila	*Eguzki Anaiaren eresia (S. Franc.) (I)*	m v
184	Azaroa	*Eguzki Anaiaren eresia (II)*	m v
200	Neguila	*Ongi etorria (Bach)*	m v

—1930—

8	Ilbeltza	*Jainkoa jaiotzen da*	m v
56	Jorraila	*Eguzki Anaiaren eresia (III)*	m v
63	Jorraila	*Azeria janari bila (ipuia)*	p
72	Orrila	*Zeru-lurren Erregina*	m v
88	Garagarrila	*Jesus, nere poza (Bach)*	m v
95	Garagarrila	*Ezeregin baño len... (ipuia)*	p
104	Uztaila	*Eguzki Anaiaren eresia (IV)*	m
120	Dagonila	*Eguzki Anaiaren eresia (V)*	m
123	Dagonila	*Iru lapurrak (ipuia*	p
136	Agorra	*Eguzki Anaiaren eresia (VI)*	m
152	Urrila	*Eguzki Anaiaren eresia (VII)*	m
160	Urrila	*Sandularia (ipuia)*	p
168	Azaroa	*Anima gaxoaz*	m v
190	Neguila	*Azeria lagunak berexten (ipuia)*	p

—1931—

46	Epaila	*Azeria, leoia ta sagua (ipuia)*	p
55	Jorraila	*Gurasoak, kontu zuen umeai (ipuia)*	p
70	Orrila	*Azeria usategian (ipuia)*	p
89	Garagarrila	*Adoro te devote*	m v
111	Uztaila	*Otsoa ta azeria (ipuia)*	p

—1932—

54 (6)	Jorraila	*Aolku Onaren Ama - Mater Boni Consilii*	m v
71	Orrila	*Beatus vir qui non abiit (Ps. 1)*	v
82	Garagarrila	*O gloriosa Domina - Oi Andre goretsia*	v
83	Garagarrila	*Pontu, Antonio*	v

116	Garagarrila	*Mirari bila bazabiltz (si quaeris miracula)*	v
117	Uztaila	*Cum invocarem (Ps. 4)*	v
134	Dagonila	*Miragarrizko arresia (ipuia)*	p
137	Dagonila	*Domine, ne in furore tuo (Ps. 6)*	v
163	Agorra	*In Domino confido (Ps. 10)*	v
171	Urrila	*Salvum me fac, Domine (Ps. 11)*	v
204	Neguila	*Aur maitagarri eder bat*	m v
	Neguila	*Eriotzaren mandatariak (ipuia)*	p

—1933—

8	Ilbeltza	*Ixilik dago zeru guzia*	m v
28	Otsaila	*Benedic, anima mea, Domino (Ps. 102)*	v
41	Epaila	*Benedic, anima mea, Domino (Ps. 10/)*	v
47	Epaila	*Zalduna ta Leoia (ipuia)*	p
54	Jorraila	*Deus, Deus meus, quare me (Ps. 21)*	v
80	Orrila	*Agur, Maria (ezkila)*	m v
92	Garagarrila	*Qui habitat in adiutorio (Ps. 90)*	v
112	Uztaila	*Atoz, Jesus - Ogiaren irudian*	m v
115	Uztaila	*Usquequo, Domine (Ps. 12)*	v
124	Dagonila	*Domine, exaudi orationem mean (Ps. 101)*	v
128	Dagonila	*O gloriosa, Domina - Oi Andre goretsia*	m v
152	Agorra	*Azkeneko diamantea (ipuia)*	p
158	Urrila	*Voce mea ad Dominum clamavi (Ps. 141)*	v
160	Urrila	*Kristoren irudi bizia*	m v
176	Azaroa	*Gure Aita Jainkoa*	m v
177	Azaroa	*Deus, quis similis erit tibi (Ps. 82)*	v
188	Neguila	*Verba mea auribus percipe (Ps. 5)*	v

—1934—

206	Ilbeltza	*Dixit insipiens in corde suo (Ps. 13)*	v
208	Ilbeltza	*Jesus Aurtxoa*	m v
215	Ilbeltza	*Nazareteko etxean gosea (ipuia)*	p
220	Otsaila	*Ad te, Domine levavi animam mean (Ps. 24)*	v
238	Epaila	*Domine, Deus salutis meae (Ps. 87)*	v
268	Orrila	*Caeli enarrant (Ps. 18)*	v
284	Garagarrila	*Deus noster, refugium et virtus (Ps. 45)*	v
301	Uztaila	*Benedicam Domino in omni tempore (Ps. 33)*	v
317	Dagonila	*Cantemus Domino (Cant. Moysi)*	v
333	Agorra	*Inclina, Domine, aurem tuam (Ps. 85)*	v
344	Agorra	*Gezurra esan? lenago il! (ipuia)*	p

349	Urrila	*Dominus illuminatio mea (Ps. 26)*	v
364	Azaroa	*Dixi: Custodiam vias meas (Ps. 38)*	v
373	Azaroa	*Aingeruak ilerrian barna (ipuia)*	p
382	Neguila	*Cantate Domino canticum novum (Ps. 95)*	v

—1935—

5	Ilbeltza	*Deus, venerunt gentes (Ps. 78)*	v
20	Otsaila	*Voce mea ad Dominum (Ps. 76)*	v
24	Otsaila	*Biz beti onetsia*	m v
37	Epaila	*Quemadmodum desiderat (Ps. 41-42)*	v
52	Jorraila	*Quare fremuerunt gentes (Ps. 2)*	v
58	Jorraila	*Andre Maria... Erosle-lagun*	p
69	Orrila	*Qui regis Israel (Ps. 79)*	v
85	Garagarrila	*Dominus regnavit, irascantur (Ps. 98)*	v
100	Uztaila	*Beati quorum remissa est (Ps. 31)*	v
116	Dagonila	*In exitu israel (Ps. 113)*	v
132	Agorra	*Domine, ne in furore tuo (Ps. 37)*	v
149	Urrila	*Iudica me, Deus (Ps. 25)*	v
154	Urrila	*Beti-txintxo (I) (Ipuia)*	p
165	Azaroa	*Confitemini Domino (Ps. 117)*	v
175	Azaroa	*Beti-txintxo (II) (ipuia)*	p
180	Neguila	*Deus, Deus meus ad te de luce (Ps. 62)*	v
184	Neguila	*Amets samiña*	m v

—1936—

197	Ilbeltza	*Cantate Domino, quia mirabilia (Ps. 97)*	v
213	Otsaila	*Domine, Deus meus, in te speravi (Ps. 7)*	v
228	Epaila	*Dominus regnavit, exsultet (Ps. 96)*	v
244	Jorraila	*Domini est terra (Ps. 23)*	v
260	Orrila	*Afferte Domino (Ps. 29)*	v
276	Garagarrila	*Exaltabo te, Domine (Ps. 29)*	v
292	Uztaila	*Domine, quid multiplicati sunt (Ps. 3)*	v

F I N I S !

Irun: La Salle-enean, 1980-XI

Nicolas A. G.

XABIER PEÑA-REN HERIOTZAREN AURREAN

